

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

MUSEOAK ETA HEZKUNTZA GIPUZKOAN. KARTOGRAFIA HISTORIKO BAT

DOKTORE TESIA

Ursula Luna Velasco

Gasteiz, 2017ko maiatza

MUSEOAK ETA HEZKUNTZA GIPUZKOAN. KARTOGRAFIA HISTORIKO BAT



Egilea:

Ursula Luna Velasco

Zuzendariak:

Iñaki Díaz Balerdi

Álex Ibáñez Etxeberria

Doktorego programa: Ikerkuntza eta sormena artean

Artearen Historia eta Musika Saila

UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatea

ESKERTZAK

Hasteko, esker handienak eman nahi dizkiet nire bi tutoreei: Iñaki Díaz Balerdiri, urte luzez emandako babes eta laguntzagatik eta, krisi guztiak iragartzeagatik; eta Alex Ibañezi, azken esprintean puzzlearen pieza guztiak lotzen lagundu didalako, eta burua nahastuta izan dudan aldiro, horretatik ateratzeko elkarrizketak ezinbestekoak izan direlako. Bion pazientzia eta umorea oinarrizkoa izan da niretzat.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiot Gipuzkoako Foru Aldundiari, 2014. urtean eskainitako José Ignacio Tellechea Idigoras ikerketa historikoko bekari esker, tesi honen atal nagusienetako bat osatzeko aukera izan baitut. Baita Euskal Herriko Unibertsitateari ere, azken urte honetan emandako aukera paregabea izan baita lan honen amaiera bideratzeko.

Ezin ditut ahaztu, noski, tesi honen muina izan den dokumentazio guztia topatzen lagundu didaten guztiak, lana errazteagatik eta euren egunerokotasunean niretzako tarte bat egiteagatik: artxiboetako eta udaletako kultur sailetako arduradunei, eta batez ere, museoetako hezitzaileei. Ezinezkoa zait hemen guztiak aipatzea, baina bisitatu ditudan museo guztietako lantaldeei eskerrak eman nahi dizkiet. Berezik aipatu nahi ditut Artelatzeko lankide ohiak, aukera eman baitzidaten museoen munduan askatasunez lan egiteko. Eskerrikasko ere EHU-ko Gizarte Zientzien Didaktikako Donostiako eta Bilboko lankideei – Alex, Naiara, Aroia eta beste guztiak – , lehen unetik eroso sentiarazi nautelako eta behar izan dudanetan euren laguntza izan dudalako.

Amaitzeko, lan honetan nire inguru pertsonalean babestu eta zaindu nauten guztiak ezinbestekoak izan dira. Benetako lagunei, behar izan dudan guztietan lagundu, aholkatu eta maitasuna eman didatelako, eta ia adituak bihurtu direlako tesi, doktoretza eta beste unibertsitate kontuetan. Familiakoei: gurasoei, nire oinarria direlako edozertarako, askatasuna eman didatelako beti – nahi dudana egiteko, ikasteko, pentsatzeko – , eta beraiek gabe hau ez litzatekeelako posible izango; Eneko eta Irneri, animoak eman dizkidatelako, eta beti irribarre batez itxaron dutelako beranduegi heldu naizen guztietan; Amona Linari, nekatu aurpegia ikusi didan arren, egunero animoak emateko hitz

politik izan dituelako; eta Azpeitiko familiari, Iñaki, Lurdes, Jon eta Naroari, beraien energia positiboa heldu zaizkidalako beti, eta, bestee bezala, nire ausentziak ulertu dituztelako.

Baina batez ere, lan hau Ikerrentzat da, horrenbeste urtetan nire ondoan egoteagatik, gorabehera guztiak izanik ere, ez duelako inoiz nigan konfiantza galdu, eta behar dudan guztian eta gehiagoan lagundu didalako.

Danoi, mila esker bihotzez!

AURKIBIDEA

SIGLAK ETA LABURDURAK	15
Artxiboak	15
Museo eta enpresetako artxiboak.....	16
Laburdura orokorrak	17
TAULEN AURKIBIDEA	20
FIGUREN AURKIBIDEA.....	21
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	22
IRUDIEN AURKIBIDEA	23
1. SARRERA.....	19
1.1. Ikerketaren ideia.....	25
1.2. Ikerketaren gaia eta justifikazioa	26
1.3. Ikerketaren egoera	29
1.4. Helburuak	32
1.5. Lanaren egitura	33
2. METODOLOGIA	35
2.1. Metodologia.....	37
2.2. Ikerketa prozesua.....	37
2.3. Informazioaren eskuraketa.....	39
2.4. Unibertsoa eta lagina.....	41
2.5. Aldagaien sailkapena.....	50
2.5.1. Hezkuntza sailak (KEHS)	51
2.5.1.1. Kudeaketa mota	51
2.5.1.2. Hezitzaileak	52
2.5.1.3. Beste eragileak.....	52
2.5.2. Hezkuntza ekimenak	55
2.5.2.1. Hezkuntza jarduerak.....	55
a) Bisita gidatuak	57

a.1.) Bisita gidatu arruntak	57
a.2.) Bisita gidatu bereziak	57
a.3.) Bisita gidatuak erakustaldiekin	58
a.4.) Bisita antzeztuak.....	58
b) Ibilaldi gidatuak	59
b.1.) Ibilaldi gidatu arruntak	59
b.2.) Ibilaldi gidatu bereziak	59
b.3.) Ibilaldi gidatu antzeztuak	59
b.4.) Irteerak.....	60
d) Tailerrak eta jolasak.....	60
d.1.) Tailerrak.....	60
d.2.) Jolasak.....	60
e) Ikastaroak	61
f) Hitzaldi eta jardunaldiak	61
f.1.) Hitzaldiak	61
f.2.) Jardunaldiak	61
g) Ikuskizunak	62
g.1.) Ikuskizun artistiko-literarioak	62
g.2.) Birsortze historikoak	62
h) Irratsaioak	62
2.5.2.2. Hezkuntza baliabide materialak	63
a) Dosierrak	64
b) Lan koadernoak eta fitxak	64
d) Jokoak	64
e) Ikus-entzunezkoak.....	64
f) Esperimentaziorako materiala	65
g) Web materiala.....	66
h) Modulu digitalak eta APP-ak	66
2.5.3. Publikoa.....	67
2.5.3.1. Banaka datozenak.....	68
2.5.3.2. Taldean datozenak	69

2.6. Katalogazio tresna eta faseen banaketa.....	70
3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK.....	73
3.1. Museoak eta hezkuntza. Garapen historikoa	76
3.1.1. XIX. mendea, museoen mendea.....	76
3.1.1.1. Bildumazaletasuna eta museoaren aurrekariak	76
3.1.1.2. Museo modernoaren jaiotza	78
a) Ondarearen erabilera hezitzailea	80
b) Ondarea museotik at	81
d) Hezkuntza sistema	82
3.1.2. 1900-1945: Gerrarteko mundua.....	82
3.1.2.1. Hezkuntza eta korrante pedagogikoak.....	83
3.1.2.2. Museoen Nazioarteko Bulegoa eta museologia.....	84
3.1.2.3. Nazioarteko museoak.....	86
3.1.3. 1945tik aurrera: Gizarte berriaren jaiotza.....	87
3.1.3.1. Hezkuntza gerraosteko munduan	88
3.1.3.2. Ondarearen gaineko politika berriak	90
3.1.3.3. Kameleoien garaia: Museoak azala aldatzen	91
a) Museo hezitzailea	92
b) Museo demokratikoa	92
3.1.3.4. Museoak eta hezkuntza	94
a) Hezkuntza sailak.....	94
b) Hezkuntza ekimenak	95
d) Museoko publiko berria	97
3.1.3.5. Nazioarte mailako museoak	98
3.1.4. XXI. mendeari begira	101
3.1.4.1. Ikaskuntza joerak eta teknologia berriak.....	101
3.1.4.2. Museoak eta entretenimenduaren kultura.....	105
3.1.4.3. Museoak: hezkuntza eta ikuskizun artean	106
a) Definizio berrien beharra	107
b) Hezkuntza sailak.....	108
d) Hezkuntza ekimenak: denetarik denentzako.....	109

e) <i>Publikoa: museoa denontzat</i>	111
f) <i>Ebaluazio lanak</i>	112
3.1.5. Etorkizunari begira	112
3. 2. Espainiako museoak eta hezkuntza	113
3.2.1. Bi mendeen artean	113
3.2.1.1. Hezkuntza sistema Moyano legetik aurrera	114
3.2.1.2. Museoen jaiotza	116
3.2.2. Oasi bat basamortuan: II. Errepublika	118
3.2.2.1. Hezkuntza eredu berriak	119
3.2.2.2. Ondarearen garrantzia	119
3.2.3. Garai ilunak: Gerra Zibila eta Diktadura	120
3.2.3.1. Eskola Erregimenaren mesedera	121
3.2.3.2. Kultura eta ondarearekiko interesa	123
3.2.3.3. Museoak eta hezkuntza	124
3.2.4. Demokraziaren iristea	125
3.2.4.1. Hezkuntza sistema berreraikitzen	125
3.2.4.2. Ondare nazionala eta museoek irekiera	126
3.2.4.3. Hezkuntza eta museoak bat egiten dutenean	128
a) <i>Errekonozimendu legala</i>	128
b) <i>DEACJardunaldiak</i>	129
d) <i>Museologia unibertsitatean</i>	131
e) <i>Lehen hezkuntza ekimenak</i>	132
f) <i>Bisitari berriak museoan</i>	133
g) <i>Ebaluazio lanak</i>	134
3.2.5. Mende berriaren aurrean	134
3.2.5.1. Hezkuntza politika berriak	135
3.2.5.2. Titanoiak itsututa: Museoen boom-a Espainian	136
3.2.5.3. Estatuko Museoak	138
3.2.5.4. Museoak eta hezkuntza	139
a) <i>Hezkuntza sailak</i>	139
b) <i>Hezkuntza ekimenak</i>	141

d) <i>Bisitaria, publikoa, erabiltzailea</i>	143
e) <i>Ebaluazio lanak</i>	143
3.3. Gipuzkoako testuinguru historikoa	144
3.3.1. Gipuzkoa XX. mende hasieran	144
3.1.1.1. Le Grand Tour-etik turismora	145
3.3.1.2. Industrializazioa vs landa mundua	146
3.3.1.3. Kultura eta Zientzia.....	146
3,3.1.4.Hezkuntza sistema	147
3.3.2. II. Errepublika, Gerra Zibila eta Diktadura	148
3.3.2.1. Ikastolen jaiotza.....	149
3.3.2.2. Kultura eta ondarea	150
3.3.3. Demokraziaren urteak	150
3.3.3.1. Hezkuntza sistema EAE-n.....	151
3.3.3.2. Ondarearen babesa.....	152
3.3.3.3. Museoak	153
a) <i>Eusko Ikaskuntzaren lanak</i>	153
b) <i>Eusko Jaurlaritza</i>	153
d) <i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	155
4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN DESKRIBAPEN DIAKRONIKOA	157
4.1. Donostiako Museo Historiko, Artistiko eta Arkeologikoa/ Donostiako Udala Museoa / San Telmo Museoa	160
4. 2. Victor Hugo Etxea	177
4. 3. Armagintza Museoa	181
4. 4. Itsas Jauregia- Aquariuma / Aquarium Donostia-San Sebastián	186
4. 5. Urgulleko Historia Militarraren Museoa/ Urgulleko Historiaren Etxea	192
4. 6. Ama Xantalen Ermitako Museoa	195
4.7. Gorrotxategi Konfiteri Museoa	197
4.8. Eskoriatzako Museo-Eskola / Eskoriatzako Etnografia Museoa/ Ibarraundi Museoa	199
4.9. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa / Urrelur	205

4.10. Umeen Museoa/ Ingurugiro Etxea.....	209
4.11. Zumalakarregi Museoa	214
4.12. Pagoetako Parkea/ Iturraran Parketxea	224
4.13. Untzi Museoa.....	231
4.14. Donostiako Elizbarrutiko Museoa.....	235
4.15. Trenaren Euskal Museoa/ Burdinbidearen Euskal Museoa	237
4.16. PHOTOMUSEUM. Argazki Euskal Museoa/ PHOTOMUSEUM. Argazki & Zinema Museoa.....	239
4.17. Zeraingo Herri Museoa/ Zerain Paisaia Kulturala	242
4.18. Lizarrusti. Aralar Natura Parkeko Interpretazio Zentroa/ Lizarrusti Parketxea (Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua).....	246
4.19. Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra	249
4.20. Mirandaola Parkea/ Lenbur Lurralde Museoa/ Legazpi Burdin – Harana	250
4.20.1. Artzantzaren ekomuseoa	253
4.20.2. Ogiaren Txokoa	254
4.20.3. Langileen ibilbidea	254
4.20.4. Burdinaren Euskal Museoa	254
4.20.5. Aikur: Erleen Museoa.....	254
4.20.6. Chillida Lantoki.....	255
4.21. Larraulgo Museo Etnografikoa / Larraulgo Ekomuseoa.....	256
4.22. Makina-Erremintaren Museoa	259
4.23. San Martin ondaregunea	260
4.24. Igartza Jauregia/ Igartza Monumentu Multzoa	262
4.25. Ontziola, itsasontzi tradizionalen ikerketa eta eraikuntza zentroa/ Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroa / Albaola Itsas Kultur Faktoria.....	266
4.26. Gatz Ekomuseoa	268
4.27. Chillida-Leku	269
4.28. Museum Cemento Rezola.....	274
4.29. Miramon Zientziaren Kutxagunea/ Eureka! Zientzia Museoa	277

4.30. Txingudi Ekoetxea	279
4.31. Igartubeiti Baserri Museoa	281
4.32. Herri Musikaren Txokoa/ Soinuenea.....	287
4.33. Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real - Arkeologia eta monumentu multzoa.....	289
4.34. Luberri. Oiartzungo Ikasgune Geologikoa	293
4.35. Egurraren Museoa/ Aizkorriko Ataria/ Anduetza Parketxea.....	295
4.36. Bentalekua.....	297
4.37. Ardixarra Etxea. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa	298
4.38. D'Elikatuz. Elikadura eta gastronomia gunea eta Goierriko Interpretazio Zentroa	300
4.39. Algorri. Zumaiako natur baliabideen Interpretazio Zentroa	302
4.40. Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa	304
4.41. MATER Itsasontzi Museoa.....	306
4.42. Oiasso Erromatar Museoa.....	308
4.43. Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren Museoa	311
4.44. Nautilus. Mutrikuko geologiaren Interpretazio Zentroa.....	314
4.45. Arditurri meatze gunea/ Arditurri parketxea.....	315
4.46. Leitzarain. Uraren Interpretazio Zentroa.....	317
4.47. Ekainberri	318
4.48. TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa	321
4.49. Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa.....	323
4.50. Barandiaran Museoa (Lizarruti-Barandiaran Parketxe Hedatua)	325
4.51. Arrikruz - Oñatiko kobak	328
4.52. Cristobal Balenciaga Museoa	329
4.53. Arantzazuko Parketxea.....	331
4.54. Lili Jauregia.....	332
5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA.....	335
5.1. Lehen fasea: Loaldia.....	339

5.1.1. Hezkuntza sailak.....	340
5.1.2. Hezkuntza ekimenak	340
5.1.3. Publikoa.....	341
5.2. Bigarren fasea: Esnatzea	345
5.2.1. Hezkuntza sailak.....	346
5.2.2. Hezkuntza ekimenak	347
5.2.3. Publikoa.....	351
5. 3. Hirugarren fasea: Esplorazioa	357
5.3.1. Hezkuntza sailak.....	358
5.3.2. Hezkuntza ekimenak	361
5.3.3. Publikoa.....	364
5. 4. Laugarren fasea: Lasterketa	369
5.4.1. Hezkuntza sailak.....	370
5.4.2. Hezkuntza ekimenak	372
5.4.3. Publikoa.....	377
6. AZKEN ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEKO ILDOAK	387
6. 1. Ondorioak.....	391
6.2. Etorkizuneko ildoak	395
6.3. Ikerketaren mugak	398
ERREFERENTZIAK.....	401
ERANSKINAK	445
I. ERANSKINA: BISITATURIKO ARTXIBOAK	447
II. ERANSKINA: KATALOGAZIO FITXAK.....	449
III. ERANSKINA: GIPIZKOAKO MUSEO EKIPAMENDUEN INAUGURAZIO ETA ITXIERA URTEAK (2000-2014)	451
IV. ERANSKINA: GIPIZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENAK ETA PUBLIKO MOTA FASEKA.....	455

SIGLAK ETA LABURDURAK**Artxiboak**

AZKUA	Azkoitiko Udal Artxiboa
AZPUA	Azpeitiko Udal Artxiboa
BUA	Beasaingo Udal Artxiboa
DUA	Donostiako Udal Artxiboa
EAE-HAAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia (Eusko Jauriaritza)
EUA	Eskoriatzako Udal Artxiboa
GFAAA	Gipuzkoako Foru Aldundiko Artxibo Administrazioa
IDUA	Idiazabalgo Udal Artxiboa
IRUA	Irungo Udal Artxiboa
KF	Kutxa Fototeka
KMLHD	Koldo Mitxelena Liburutegiko Hemeroteka Digitala
KOZNAB	Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiaren Argazki Bilduma (Gure Gipuzkoa- GFA)
LGUA	Leintz Gatzagako Udal Artxiboa
LUA	Larraulgo Udal Artxiboa
OUA	Ordiziako Udal Artxiboa
PUA	Pasaiaiko Udal Artxiboa
SUA	Segurako Udal Artxiboa
UUA	Urretxuko Udal Artxiboa
ZUA	Zeraingo Udal Artxiboa

Museo eta enpresetako artxiboak

AIKFA	Albaola Itsas Kultur Faktoriako Artxiboa
AIZA	Artelatz Ingurumen Zerbitzuak Artxiboa
ARMA	Armagintza Museoko Artxiboa
ANPA	Anduetza Parketxeko Artxiboa
ARPA	Arditurri Parketxeko Artxiboa
BEMA	Burdinbidearen Euskal Museoko Artxiboa
BMA	Bentalekua Museoko Artxiboa
CA	Chillida-Lekuko Artxiboa
DEGZA	D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroko Artxiboa
EZMA	Eureka Zientzia Museoko Artxiboa
IBMA	Igartubeiti Baserri Museokoko Artxiboa
IEA	Ingurugiro Etxeko Artxiboa
IMA	Ibarraundi Museoko Artxiboa
IPA	Iturraran Parketxeko Artxiboa
KZKA	Koma Zerbitzu Kulturalak Artxiboa
LBPHA	Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatuko Artxiboa
LFA	Lenbur Fundazioko Artxiboa
LOIGA	Luberri Oiartzungo Ikasgune Geologikoaren Artxiboa
MCRA	Museum Cemento Rezola Artxiboa
MIMA	Mater Itsasontzi Museoko Artxiboa
MMA	Makina-erremintaren Museoko Artxiboa
NMGIZA	Nautilus Mutrikuko Geologia Interpretazio Zentroko Artxiboa
OEMA	Oiasso Erromatar Museoko Artxiboa
OTB	Oñatiko Turismo Bulegoa
PA	Photomuseumeko Artxiboa
SMA	Sagardoetxea Museoko Artxiboa

SIGLAK ETA LABURDURAK

STMA	San Telmo Museoko Artxiboa
STMAD	San Telmo Museoko Artxibo Digitala
TTA	Tolosaldea Tourreko Artxiboa
TTNTZA	TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroko Artxiboa
ZMA	Zumalakarregi Museoko Artxiboa

Laburdura orokorrak

ABEB	Aldi Baterako Enpresen Bateratzea
DMS	Donostiako Museoen Sarea
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EHU	UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatea
EJ	Eusko Jaurlaritza
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia
GOE	Gipuzkoako Ozeanografia Elkartea
GOF	Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa
GPS	Gipuzkoako Parketxe Sarea
H.A.	Hezkuntza arautua
HMT	Herri Musikaren Txokoa
KEHS	Kultur Ekintza eta Hezkuntza Saila
K.S.	Kultura Saila
MNE	Museoen Nazioarteko Eguna
NBE	Nazio Batuen Erakundea
par.	Paragrafoa
ZAHM	Zarauzko Arte eta Historia Museoa
Z.G.	Zehaztu gabe

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Helburu eta ikerketa galderen arteko lotura.....	33
Taula 2: Lan prozesuaren kronograma	39
Taula 3: Unibertsoaren osaketarako iturriak.....	45
Taula 4: Laginketa prozesua eta kanporatze irizpideak.....	49
Taula 5: Unibertsoa, aurre-lagina eta lagina	49
Taula 6: Aldagaiak eta menpeko aldagaiak.....	51
Taula 7: Hezkuntza jardueren katalogaziorako barneratze eta kanporatzen irizpideak.....	55
Taula 8: Hezkuntza ekimen moten sailkapen proposamena	56
Taula 9: Hezkuntza baliabide materialen katalogaziorako irizpideak.....	63
Taula 10: Hezkuntza baliabide material moten sailkapen proposamena	63
Taula 11: Publikoaren sailkapen proposamena.....	68
Taula 12: DEAC Jardunaldiak Espainian (1980-1988)	129
Taula 13: Hezkuntza Legeak Espainian 1970-2013	135
Taula 14: DEAC jardunaldiak Espainian (1990-2014)	140
Taula 15: Gipuzkoako museoek hezkuntza ekimenen faseen lerro kronologikoa.....	338
Taula 16: DEAC Jardunaldietako gipuzkoar museoek partaidetza (1980-1990).....	347
Taula 17: Museoetako kudeaketa enpresak Gipuzkoan (1989-2000).....	359
Taula 18: DEAC jardunaldietako gipuzkoar museoek partaidetza (1990-1996).....	360
Taula 19: Hezkuntza ekimen nagusienak Gipuzkoako museoetan (egun mantendu direnak).....	375

FIGUREN AURKIBIDEA

Figura 1: Gipuzkoako museoak eta hezkuntza: ikergaiak	28
Figura 2: Unibertsoa eta lagina	42
Figura 3: Gipuzkoako museoak eta hezkuntza: aldagaiak	50
Figura 4: Museoko kudeaketaren baitako mailaketa eta hezkuntza sailaren kokapena bertan	53
Figura 5: A motako kudeaketa modelo.....	53
Figura 6: B motako kudeaketa modelo.....	54
Figura 7: D motako kudeaketa modelo.....	54
Figura 8: E motako kudeaketa modelo.....	54
Figura 9: Azken ondorioak eta etorkizuneko ildoak	390

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1: Hezkuntza ekimenak. Jarduera motak (1980-1990).....	349
Grafikoa 2: Hezkuntza baliabideen sorrera (1980-1990)	350
Grafikoa 3: Hezkuntza ekimenak. Baliabide material motak (1980-1990).....	351
Grafikoa 4: Hezkuntza ekimenen publiko mota (1980-1990).....	352
Grafikoa 5: Hezkuntza ekimenak. Jarduera motak (1990-2000).....	362
Grafikoa 6: Hezkuntza ekimenak. Baliabide material motak (1990-2000).....	364
Grafikoa 7: Publiko motaren banaketa (1990-2000).....	365
Grafikoa 8: Hezkuntza ekimenen publiko mota (1990-2000).....	366
Grafikoa 9: Gipuzkoako museoek irekieraren kronologia eta hezkuntza jardueren eskaintza	369
Grafikoa 10: Museoek kuadeaketa mota (2000-2014)	371
Grafikoa 11: Hezkuntza ekimenak. Jarduera motak (2000-2014).....	375
Grafikoa 12: Baliabide materialen sorrera (2000-2014).....	376
Grafikoa 13: Hezkuntza ekimenak. Baliabide material motak (2000-2014).....	377
Grafikoa 14: Hezkuntza eskaintzaren publiko hartzaile banaketa (2000-2014)	378
Grafikoa 15: Hezkuntza ekimenen publiko mota (2000-2014).....	381

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Bruno Munariren Laborategi bat (Iturria: Associazione Bruno Munari. www.brunomunari.it).....	96
Irudia 2: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoak Antolatzeko Plana. GFA, 2009 (Iturria: www.gipuzkoakultura.eus).....	156
Irudia 3: Gipuzkoako Museoak web orria (Iturria: www.gipuzkoakomuseoak.net)	156
Irudia 4: San Telmo Museoa (Iturria: www.santelmomuseoa.es)	162
Irudia 5: San Telmo Museoko maleta didaktikoak (Iturria: STMA).....	174
Irudia 6: Armagintza Museoko koaderno didaktikoaren atal bat (Iturria: Armagintza Museoa).....	185
Irudia 7: Ikasleak Aquarium berriaren irekieran (Iturria: egilea)	190
Irudia 8: Arkeologia erakustaldietarako materiala (Iturria: Eskoriatza Museoko eskuorria. IMA)	203
Irudia 9: Gure historiaurrea erakusketako lan koaderno (Iturria: IMA)	204
Irudia 10: Maleta didaktikoak (Iturria: Urretxuko K.S.)	207
Irudia 11: Zumalakarregi Museoko lantegia 1996an (Iturria: ZMA)	218
Irudia 12: Ogi tailerra (Iturria: GPS Fundazioa)	229
Irudia 13: Kartografia tailerra (Iturria: Untzi Museoa).....	235
Irudia 14: Irrien Lagunak Elkartearekin elkarlanean egindako bisita antzeztuak (Iturria: Zerain Paisaia Kulturala).....	245
Irudia 15: Ibilaldi magikoa Aralarren (Iturria: AIZA).....	248
Irudia 16: Bisita antzeztuak (Iturria: AZKUA).....	262
Irudia 17: Koaderno didaktikoak (Iturria: CA)	271
Irudia 18: Belaunaldi arteko tailerra (Iturria: MCRA).....	276
Irudia 19: Sagardo Astea (Iturria: www.gipuzkoakomuseoak.net)	284
Irudia 20: PDA-ren bitartezko jarduera (Iturria: ZAHM).....	292
Irudia 21: Ikasleak azoka bisitatzen (Iturria: DEGZA).....	301
Irudia 22: Dies Oiassonis (Iturria: www.txikisdeldidasoa.com).....	311
Irudia 23: Txondorra Arditurrin (Iturria: GPS Fundazioa)	317
Irudia 24: Ekainfest (Iturria: www.ekainberri.com)	320
Irudia 25: Elgeta Memoria APP (Iturria: www.play/google.com)	324
Irudia 26: Lili Jauregiko bisita antzeztua (Iturria: www.ekainberri.com)	333

1. SARRERA

1.1. Ikerketaren ideia

Museoak eta hauen hezkuntza arloarekin, betidanik izan dut erlazioa – harremana, deitu nahi bada – era pertsonal zein profesional batean. Esan daiteke, kanpotik zein barrutik, hezkuntza eta museoak ezagutzeko aukera izan dudala orain arte, eta horrek eraman nauela lan honetaraino.

Museo batean izan nintzen lehenengo aldia, ohikoa den bezala, eskolako irteera batean izan zen; hortik etorriko ziren, ondoren, derrigorrezko hezkuntza amaitu bitarteko txango zenbateginetan egindako museoetara bisitak. Ez dut gogoan entzundako istorio guztiak; baina bai ordea antzinako San Telmoko hezetasuna eta iluntasuna, Aquarium zaharreko arrain usaina eta lehen aldiz sua bi harriekin egin zitekeela erakutsi zigutenekoa Eskoriatzako Museoan.

Museoak barrutik ezagutzeko aukera, unibertsitatearekin batera etorri zen. Lehenbiziko kontaktua Museologiako irakasgaiarekin izan nuen, Iñaki Díaz Balerdi irakasle nuela. Gerora, unibertsitateko azken urtean, praktika aldia burutu nuen Bilboko Guggenheim Museoan, eta bertan, museo “handi” baten egunerokotasuna bizitzeko ez ezik, museoko hezitzaile baten abenturak eta zoritxarrak ezagutzeko lehen kolpea ere izan zen.

Eremu profesionalean, museoko hezitzaile moduan lan egiteko aukera izan nuen zenbait urtez. Bertan, egunerokotasunak, errealitate desberdin bat erakutsi zidan: adin, jatorri, interes, behar, eta izaera ezberdineko hamaika talderen aurrean ikasi eta errepikatutako diskurtsoak ez zuen balio, eta museoko bisitariak teorian ikasitako guztia entzun baino, zerbait gehiago behar zutela argia zen. Hezkuntza alorrean, formakuntza faltaren gabezia antzemanda burutu nituen ondorengo urteetan Museoak eta Hezkuntza zein Bigarren Hezkuntzako masterrak. Azken honetan, gainera, Álex Ibáñez irakaslearen eskutik ezagutu nuen, bazirela Gizarte Zientziak irakasteko eta ikasteko zein Ondarea erakusteko beste moduak. Bigarren Hezkuntzako irakasle bezala ere, proiektu berritzaileen bitartez irakasteko aukera izan nuen.

Urte guzti horietan, hezkuntza eta museoaren inguruan sorturiko zalantzetan oinarrituz, planteaturiko hainbat galderei erantzuteko bidea hasi nuen, eta lan hau da horren helmuga. Horrela, orain arteko esperientzia akademiko, profesional zein profesionalen batura bat ematen da honakoan, eta lan honetan diziplina anitzak biltzen dira: ikerketa Artearen Historiaren baitan kokatzen dugu, konkretuki Museologiaren alorra jorratzen duena, eta era berean, eremu hau Hezkuntzarekin baterazen du.

1.2. Ikerketaren gaia eta justifikazioa

Lan honek Gipuzkoako museoak eta hezkuntza ditu ikergai, 1902an San Telmo Museoa inauguratzen denetik 2014 arte Lurralde Historikoan ireki diren museoen hezkuntza funtzioa eta berau betetzen duten osagaien azterketa burutzen delarik.

Museoen funtzio hezitzailea XX. mende erdialdean antzeman eta azken hamarkadetan guztiz barneratutako errealitate bat da; hots, egun ezin da ezeztatu museoak erakunde hezitzailea dela (Falk eta Dierking, 1992; Hooper Greenhill, 1998). Horren baitan, museoek hainbat ekimen burutzen dituzte publikoari zuzenduta, jarduerak eta materialen bitartez, ikaskuntzarako estrategia eta metodologia ezberdinak izan direlarik historian zehar. Aldaketa horiek ez dira era isolatuan gauzatu eta, oro har, gizarteko beste edozein fenomeno bezala, testuinguru zehatz batzuen baitan garatu dira, horietan parte hartzen duten elementuekin erlazio banaezinean. Museoen eta bertako hezkuntza funtzioaren eboluzioa beraz, gizartearen baitan emandako aldaketa ekonomiko, sozial eta politiko gorabeheren menpe egon da, neurri batean edo bestean.

Gaur egun, Gipuzkoako – eta Euskal Autonomia Elkartearen (aurrerantzean EAE) edota Espainiako – museoetako hezkuntza ekimenen garapen historikoa bere osotasunean aztertzen duen lanik ez dago. Ikerketaren lurraldean, Gipuzkoan, Estatu osoko probintziarik txikiena izanik - 88 udalerriz osatutakoa – , 2014. urtera arte 78 museo inauguratu dira – eta bat irekitzeko bidean da – , eta horiek burututako hezkuntza jarduera eta sortutako material kopurua oso handia izan da.

Ekoizpen guzti hau era integral batean ezagutzea ia ezinezkoa suertatzen da, inbentario eta katalogo bateraturik ez dagoelako, edota ez delako lan zehatzik burutu. Gainera, hezkuntza ekimenen harira sortutako dokumentazioa eta kaleratutako lanak, Gipuzkoako museoaren proiektu puntualei lotutakoak izan dira, gehienak, museoaren historia, datu ekonomiko edota bisitarien zifren estatistikoak zein erakusketa eta bildumen azterketak izan dira. Beraz, hezkuntza arloan sortutako baliabide eta dokumentazioa, katalogatu, inbentariatu eta artxibatu beharra oinarritzkoa iruditzen zaigu, museoetako hezkuntzaren iragana ezagututa soilik jarrai baitaiteke aurrera era koherente batean.

Gipuzkoako museoaren antolaketa eta sailkapenerako, hainbat saiaketa izan dira laurogeiko hamarkadatik aurrera, azken urteotan bereziki hazi direnak ondareari lotutako ekipamenduen bolumen izugarria dela eta. Museoen izaera, bilduma edota jabetasunaren araberrako taldekatze eta zerrendak egin badira ere, ez da irizpide bakar bat orokortu, eta administrazio publikoek – Eusko Jaurlaritzak (aurrerantzean EJ) eta

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) – irakurketa desberdina egin dute Gipuzkoan existitzen diren museoetarako buruz.

Egoera honetan, fokuetatik urrun, hezkuntza funtzioa baztertuta geratu da, eta museoek publikoari zuzenduta sortu eta garatutako ekimenak, zein arlo honi lotutako profesionalen lana alderatu izan da, kasu askotan hezkuntza museoetako beste zerbitzu bat bezala agertuz.

Alabaina, Gipuzkoako museoetan, publikoari zuzendutako jarduera eta materialak oso goiztiarrak ez badira ere, jada XX. mende hasieratik nabarmentzen da bildumak eta erakusketako edukiak jendearengana hurbiltzeko saiaketa bat. Kultura eta ondarearekiko ikuspegia aldatu heinean eta lurraldearen garapen sozio-ekonomikoari loturik, museoen protagonismo eta funtzioa ere eraldatu da, kasu askotan era berritzailean proposatu direlarik hezkuntzarako tresna eta ekimen ugari.

Hortaz, lan honek ikertzen du Gipuzkoako museoetan noiz sortzen diren lehen hezkuntza sailak eta horien aurrekariak zein diren, bertako lantaldeen osaketa, profesionalen trebakuntza eta hezitzaileen izaera eta funtzioen garapena aztertuz. Era berean, sail edo lantalde hauek sortutako hezkuntza ekimenak ikertu dira, burututako jarduera motak eta diseinatutako baliabide material hezitzaileak zein izan diren oinarri izanik; eta azkenik, ekimen hauek zein publiko motari zuzendu izan diren eta hauen izaera nola aldatu den behatu da.

erantzuteko funtzioa izan behar du, eta hezkuntza arlotik aurrera eramandako ekimenak egoera honi erantzuten saiatu dira historian zehar. Hortaz, etorkizuneko museo bidea zehaztu zein hutsuneak betetzeko, ezinbestekoa deritzogu iraganeko emandako pausuak eta berrikuntza testuinguruak ulertzea, horrek lagunduko baitu ondarearen funtzio hezitzailea barneratzeko eta era egokian kudeatzeko..

1.3. Ikergaiaren egoera

Gipuzkoako museoen historia zein, hezkuntza funtzioaren garapena, osotasunean aztertzen duen ikerketa lanik ez da burutu gaur egun arte. Estatu mailan ordea, eboluzioa, hezkuntza sailen sorrera eta zenbait ekimenen katalogazio saiaketak izan dira, azken urteotan ebaluazioari nolabaiteko garrantzia eman zaiolarik.

Espainiako museoen historia agertu nahi izan duten lanak XIX. mende amaieratik topa ditzakegu, Ceferino Araujoren (1875) *Los museos de España* izanik lehen lanetako bat. Horren ondoren, 1955ean, Antonio Gaya Nuñok (2000) idatzitako *Historia y guía de los Museos de España* edota Gratiniano Nietoren (1973) *Panorama de los museos españoles y cuestiones metodológicas* lanean azertu dira erakunde nagusien jatorri eta garapen orokorrak, bilduman oinarritutako lanak argitaratuz. Azken urteetan, ordea, María Bolañosen (2008) *Historia de los Museos de España* lana da osatuenetako bat, 1997an lehen edizioa argitaratuaz. Honetan, ordea, apenas aipatzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan sorturiko museoak eta horien eragina. Espainiako probintzia edota autonomia erkidego zehatzen museoen ikerketa lanak ere burutu dira, López Rodríguezena (2010) Andaluziakoei buruz edota Marco Suchek (1998) Alikantekoen inguruan, besteak beste.

Museoetako hezkuntza funtzioaren inguruan, ez dira topatu era bateratuan Espainiako kasua aztertzen duen ikerketa lanik. Eskualde, lurralde edota autonomia erkidego zehatzen inguruko azterketak ordea burutu dira. Martín Cáceresen (2012) tesia Huelvako Probintziko Museoari buruz; Rico Canorena (2009) Andaluziako Arte Ederretako Pedagogi Kabineteen azterketa eta Torres Vegak (2016a) museoko hezkuntzaren inguruan zein Tate eta MUPEI museoari buruzkoa, adibidez.

EAE-ren kasuan, Eusko Ikaskuntzak 1987an egindako X. Kongresuan burutzen dira lehen aipamenak lurraldeetako museo izaera eta egoerari buruz. Bertan, Casanovak (1988) Bizkaiko Museoak aztertzen ditu; eta García Retesek (1988) Arabako Museoak eta Dabouzak (1988) bertako Hezkuntza eta Ekimen Kulturalak ikertzen dituzte. Garai

1. SARRERA

berean, *Mediatika* aldizkarian Abós Ugartek (1987) “Bases para el estudio de museos y monumentos de Euskal Herria” testua argiraratzen du, eta Kortadik eta Ormazabalek (1987) koordinatutako “Censo de Museos del País Vasco” lana aurkezten dute, ordura arte existitzen diren euskal museoak zerrendatu eta oinarritzko informazioa eskainiz.

Gerora, 1995an kaleratzen du Eusko Jaurlaritzak (1995) *Museoak Euskadi museoak*, irekita dauden museoen inbentarioa eta deskribapen berri bat eginez. Bide honi jarraiki, Euskadiko Museoen zerrenda eta antolaketa bat burutu nahian, Jordi Pardoren (2003) eskutik aurkezten da *Museos*, EJ-ren Euskal Kulturaren Planerako aurkeztutako komunikazioa. Baina dudarik gabe, gaur egun existitzen den lanik osatuena eta museoen historia aztertzeko erabilgarriena da Díaz Balerdiren (2010a) *Archipiélagos imaginarios: Museos de la CAPV*. Bertan zerrendatu eta aztertzen dira autonomia erkidegoko museo guztiak, eta garaian garaiko gertakizunekin batera ikertzen dira hauen egoera ezberdinak.

Hauekin batera, badira hemengo museo zehatzei buruzko azterketak burutu dituztenak: Saturnina Peñaren (2006) Bilboko Erreprodukzioen Museoari buruz; edota Bilboko Arte Eder Museoaren ingurukoak: Eloína Vélez (1993) eta Mikel Onandiarrena (2017). Hezkuntza ekimenei buruz EAE-n (Gipuzkoa salbu), Iratxe Gillateren (2014) tesian Bizkaiko Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoan eginiko lana aurkitzen dugu.

Gipuzkoako museoetako dagokionez, ez da existitzen horien jatorri eta historiari buruzko lan orokorrik. Erreferente bezala topatu diren lanak izan dira, alde batetik, Eusko Ikaskuntzaren 1987ko X. Kongresuan Manu Izaguirrek (1988) idatzitako “Museos de Guipúzcoa” dokumentua, garaiko erakundearen panorama deskribatzen duena. Honekin batera, gaur egun arte egin den lanik osatuena da GFA-k 2009an kaleratutako *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoak Antolatzeko Plana*, unean existitzen diren museoaren azterketa egiten duena, ahuleziak eta indarguneak zehaztu eta etorkizuneko ildoak finkatzeko probintziaren museoak antolatzeko helburuarekin.

Panorama orokorraren deskribapena egiten dutenez gain, museo zehatzen historiari buruz jaso diren lanak ere badira: San Telmo Museoari buruz Manso de Zúñigak (1976) eta Fornellsek (2003) argitaratutakoak aurki daitezke Hauekin batera, Laburuk (1986) Ozeanografia Elkartearen historia idatzi eta bertan Aquariumaren sorrera eta garapenari buruz hitz egiten du.

Gipuzkoako hezkuntza ekimenean inguruan Maite Morentínen tesiak (2010) Eureka! Zientzia Museoan ikaskuntza prozesua aztertzen du; Naiara Vicentena (2013) Zarauzko Arte eta Historia Museoa eta m-learning programa baten ebaluazioaren

ingurukoa; eta Margarita Leónena (2015) Pasaialdeako ondarea eta bertako MATER Itsas Museoaren kasu azterketa burutzen duena aurki daitezke.

Lan hauez gain, ugariagoak dira Gipuzkoako museoak hizpide dituzten artikulak edota lan zabalagoen kapituluak. San Telmoko historiari buruzkoak dira ugariak, Sotoren eskutik (2008, 2009), Aguirre (1995), Tonelli (2010); Zulaika (1998, 2002) edota Arrietarenetik (2006, 2012b). Azken honek Larraulgo Ekomuseoari buruz (2003) ere idatzi du.

Zarauzko Arte eta Historia Museoaren inguruan zein bertan abiatutako m-learning proiektuaren inguruko lanak ere badira: Ibáñez (2003); Correa eta Ibáñez (2004); Ibáñez eta Aranburu (2005); Aranburu eta Vicent (2009); Vicent, Ibáñez, Asensio eta Aranburu (2012); Vicent, Asensio eta Ibáñez (2012); eta Jimenez de Aberasturi, Ibáñez, Correa eta Noarberenak (2005).

Oiasso Erromatar Museoaren inguruan Barandiaran eta Urteaga (2007), Urteaga (2009, 2012), Urteagak eta Noainek (2009) eta Noainek (2012); Zumalakarregi Museoaren kasuan Kerejeta (1993; 2006), Alberdi Sagardia (2008) eta Barandiaranen (2008) artikulak. Kutxaespaciori buruzkoak (gaur egun Eureka! Zientzia Museoa!) Ares (2004, 2005) eta Goñi, Rubio eta Tomasaren eskutik (2011). Lenbur Lurralde Museoari buruz Conde (2012a, 2012b) eta Gonzálezek (2012). Ekainberriren inguruan ditugu Asensio, Aramburu eta Ibáñezek (2012) eta Aramburu, Gillate eta Ibáñezek (2016) idatzitakoak. Zeraini buruzkoak Errekondorenak (2002, 2011, 2013) eta Errekondo eta Galdós (2010), eta Igartubeitiri buruz Santana, Izaguirre, Sagarzazu, Ibáñez, Torrecilla, Zabala eta Tellabide (2003); Akordagoitia (2004); eta Goenaga, Vives, Ugarteburu eta Azpiazuk (2013).

Zumaiako Flysch-a eta Algorri Zentroaren ingurukoak Hilariok (2008) eta Hilario, Arrese, Mendiola eta Zulaikak (2011); Urrelurri buruz Delgadok (2006b); Tolosak (2004), Aranzadi Zientzia Elkarteak (2003, 2004) eta Delgadok (2006a) Luberriri buruz. Nautilus buruz argitaratu ditu ere Aranzadik (2007); Chillida-Lekuri buruz Plazaola (2001), San Martin (2002), Fernández de Bobabilla (2007) eta Guillén (2008); Mater Itsas Museoari buruz León, Suberbiola, Gartzia, Aramberri eta Correa (2012); Museum Cemento Rezolari buruz Llorentek (2009, 2015) eta Llorente, Gillate eta Ibáñezek (2016); Arditurriren inguruan Mendizabalek (2004), Rekondok (2009) eta Rementeriak (2005); Arrikruz buruz Rekondok (2007); Burdinbidearen Euskal Museoari buruz Olaizolak (2004), eta bukatzeko, Photomuseumari buruz, Zulaika (1998, 2002), Olivie (1998) eta Zugazak (2006).

1.4. Helburuak

Lan honen helburu nagusia Gipuzkoako museoek historian zehar burututako hezkuntza ekimenen ezagutza da. Horretarako, aurrena katalogazio bat egin behar da, etorkizuneko inbentariatzeko baliagarria izan daitekeen tresna sortuz. Ekimen horiek oinarri izanik, Gipuzkoako museoen historiaren faseak definitu hezkuntza ibilbidearen baitan, eta corpus zabalago batean interpretatzea, nazio zein nazioarte mailako testuinguruan kokatzeko.

Helburu orokor hau, hainbat helburu zehatzetan gauzatzen da:

H1: Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen katalogo historikoa sortzea, hezkuntza sailak, jarduerak, materialak eta publikoa aztertuz.

H2: Katalogazioa burutzeko zein etorkizuneko dokumentazioaren inbentariatzeko tresna bat sortzea.

H3: Aldagaien katalogaziotik abiatuta eta hezkuntza funtzioa oinarri izanik, Gipuzkoako museoen hezkuntza jardueren historiaren faseak identifikatzea.

H4: Aztertutako aldagaiak fase bakoitzean nolako garapena izan duten deskribatzea

H5: Aldaketa horien zergatia corpus zabalago batean interpretatzea – estatu mailan zein nazioartekoan – , eta jazoeren asoziazio posibleak zehaztea.

Helburu zehatz bakoitzarentzat, ikerketa gidatzen dituen galderak proposatzen dira. Ondo taulan ikus daiteke erlazioak:

HELBURUAK	IKERKETAKO GALDERAK
1. KATALOGO eta TRESNAREN SORRERA	
H1: Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen katalogo historikoa sortzea, hezkuntza sailak, jarduerak, materialak eta publikoa aztertuz.	Museo bakoitzaren sorrera nolakoa izan da? Hezkuntza funtzioaren barneratzea noiz eman da? Zein ekimen burutu dira? Zein publikori zuzenduta?
H2: Katalogazioa burutzeko zein etorkizuneko dokumentazioaren inbentariatzerako tresna bat sortzea.	Nola sailkatu daitezke aldagai horiek komunak diren ezaugarriak erabiliz?
2. FASEEN IDENTIFIKAZIOA ETA GARAPEN HISTORIKOAREN INTERPRETAZIOA	
H3: Aldagaien katalogaziotik abiatuta eta hezkuntza funtzioa oinarri izanik, Gipuzkoako museoen historiaren faseak identifikatzea eta arrazoitzea.	Aldagaien araberako faserik desberdinu al daiteke? Zein aldaketa ematen da fase bakoitzean? Zein lotura izan dezakete fase horietan emandako aldaketek gizartean gertatutakoekin?
H4: Aztertutako aldagaiak fase bakoitzean nolako garapena izan duten deskribatzea	Zein aldaketa antzematen dira historian zehar aztertutako aldagaietan oinarrituz? Zein lotura ezarri daitezke fase horietan emandako aldaketa eta Gipuzkoako egoera historikoaren artean?
H5: Aldaketa horien zergatia corpus zabalago batean interpretatzea – estatu mailan zein nazioartekoan – , eta jazoeren asoziazio posibleak zehaztea	Nola erlazionatzen dira fase eta aldagai horiek nazio zein nazioarte mailan emandako aldaketekin?

Taula 1: Helburu eta ikerketa galderen arteko lotura

1.5. Lanaren egitura

Ezarritako helburuei jarraiki – Gipuzkoako museoen hezkuntza ekimenen deskribapen diakronikoa eta garapenaren fase proposamena – , honako egituraketa bat proposatu da lanerako.

Lehen atalean ikerketaren gaia justifikatu eta ikergaiaren egungo egoera aztertu ondoren, ezarri diren helburuei aurre egiteko metodologia bat proposatu da. Honetan, Gipuzkoako Lurralde Historikora mugatzen den unibertsoa definitu da, laginketa prozesuaren ondoriozko amaierako lagin bat lortzeko. Era berean, ikerketaren aldagaiak ezarri eta deskribatu dira, hauek etorkizuneko katalogazio fitxaren oinarri izango diren heinean.

Hirugarren atalean, museoak eta hezkuntzaren testuinguru orokor bat aurkeztu da, non nazioarte mailan zein Espainian, XIX. mende amaieratik XXI. mende hasieraraino eman diren aldaketa historiko nagusiak zehaztu diren, hauek ikergaiarekin lotura izan

1. SARRERA

duten heinean. Marko zabal honen ondoren, Gipuzkoako testuinguru historikoaren sarrera bat proposatu da, ikerketaren oinarri dena eta jasotako informazioaren kokapen eta ulermenerako ezinbestekoa.

Laugarren atalean, jasotako dokumentazioan oinarritutako katalogo bat burutu da, museoen deskribapen diakroniko bat aurkeztuz. Horrela, 54 museo ezberdinak banan-banan aztertu dira, hala nola horiek historian zehar burututako hezkuntza ekimeneak. Eraitza hauetan oinarrituta, bosgarren kapituluan Gipuzkoako museoen hezkuntza ekimeneen historiaren faseak proposatu dira, era honetara eraitza horietatik ondorioztatutako aldaketa eta eboluzio nagusi bat deskribatu delarik. Fase proposamen honi jarraiki, Gipuzkoan emandako egoera corpus zabalago batean interpretatu da, nazioarte zein estatu mailan izandako aldaketekin alderatuz.

Amaitzeko, seigarren atalean, azken ondorioak jaso dira, ikerketan ezarritako helburuetan oinarritutakoak. Era berean, etorkizunerako ildoak proposatu dira, ikerketa honetatik abiatuta eman daitezkeen pausuak zein jarraitu daitezkeen bide bat planteatuz.

2. METODOLOGIA

2.1. Metodologia

Ikerketa arazoaren aurrean zein planteatutako galderei jarraiki, Gipuzkoako museoen historia eta hezkuntza ekimenen markoan kokatzen den lana diseinatu da. Alde batetik, ikerketa historiko bat da, fenomeno baten eboluzio diakronikoa aztertzen delako. Era berean, ikerketa objektua atal ezberdinetan banatu da, horien eboluzioa eta gertaera historikoekiko loturan emandako aldaketak antzemateko.

Aldi berean kasu azterketa metodoa erabiltzen da, zeina Stakek (2005) adierazten zuen moduan “es el estudio de la particularidad y de la complejidad de un caso singular, para llegar a comprender su actividad en circunstancias importantes” (11 or.). Oro har, Gipuzkoako museoek ekimenen kasua deskribatu eta aztertu da corpus zabalago batean kokatzeko eta ulertzeko. Elkarrekin erlazionatu dira museoetako hezkuntzan eta gizartearen emandako aldaketak zein izan diren: kulturalki, hezkuntzaren aldetik edota ekonomiaren aldetik. Stakek (2005) dioenari jarraituz, ez da kasua aukeratzen beste kasu batzuen erakusgarria delako, edota arazo edo ezaugarri zehatz baten adierazgarri delako, baizik kasua bera intereseko gaia delako.

Eboluzioaren deskribapena egiten den heinean, ikerketaren diseinu kualitatibo baten aurrean aurkitzen gara, non “el investigador [...] destaca las diferencias sutiles, la secuencia de los acontecimientos en su contexto, la globalidad de las situaciones personales” (Stake, 2005: 11). Hots, historian zehar, Gipuzkoako museo bakoitzak, hezkuntza funtzioaren baitan izan dituen aldaketak deskribatzen dira, horietan parte hartzen duten elementuen azterketa eginaz. Ikerketa bera ez da datuak jasotzeko teknika bat, baina bai horiek antolatze modua (Goode eta Hatt, 1976). Hala ere, zenbait egoeren azterketarako, datu kuantitatiboak ere erabili dira, faseen definizio edota aldagaien eboluzioa antzemateko erabilgarria izan delako.

2.2. Ikerketa prozesua

Ikerketa lan honetako lehenbiziko pausua egoeraren diagnosi bat egitea izan da. Hots, Gipuzkoako museoek eta honen hezkuntza funtzioari lotutako lanen errebisio bibliografiko bat burutu da. Lehen bilaketa honekin, museoak eta hezkuntzak aztergai izan dituzten lan nagusienak jaso dira. Era zehatzagoan, EAE zein Gipuzkoan, museoek inguruan argitaratutako lanak eta gauzatutako proiektuak topatu dira, baita museoek zein hezkuntza ekimenak aztertu eta katalogatzeko egin diren saiaketak ere. Aldi berean, marko teorikoa

osatu da bibliografiaren kontsulta burutu ostean eta aztergai diren aldagaiak finkatu dira, museoen hezkuntza funtzioaren garapena ulertzeko ezinbestekoak kontsideratu direnak.

Gipuzkoako museoen errebisiotik abiatuz, unibertsoaren osaketari ekin zaio, horretatik laginketa prozesuari ekiteko. Aurre-lagin bat osatu da, lehen bilaketa batean ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten museoak alderatu direlarik. Hau oinarri izanik lagina finkatuz joan da, ikerketa prozesuan zehar, informazioaren bilaketa sakonagoa burutu ahala alegia, honen tamaina aldatuz joan delarik. Iturri dokumental guztien azterketa buruturik zein ezarritako kanporatze irizpideak erabilia, azken lagina egonkorra osatu da. Era berean, bilaketa eta katalogazio irizpideak ezarri dira, datuen jasotzerako tresna sortuz.

Behin laginketa prozesua eginda, artxiboetako dokumentazioaren bilaketa sistematikoa burutu da. Horretarako lehen pausoa izan da museo bakoitzeko zein artxiboetako arduradunekin harremanetan jartzea, erakundeari eta bertako hezkuntza arloari lotutako dokumentazioaren kokapena ezagutzeko. Behin informazio iturriak lokalizatuta, artxibo eta museo bakoitzaren bisita egin da. Era berean, museoen hezkuntzari lotutako informazioaren bilaketa web bidez ere burutu da.

Artxiboen bisitak, zein internet bidezko bilaketak egin eta gero, jasotako informazio guztia ordenatu eta sailkatzeari ekin zaio. Horretarako aurrez finkatutako aldagaiak oinarritzat hartu dira, horiek Gipuzkoako egoerara egokitu egin behar izan direlarik. Prozesu honetan erabilitako katalogazio tresna ere moldatzen joan da, etorkizuneko inbentariatzean erabilgarria suertatu daitekeena.

Behin informazioa ordenatuta eta Gipuzkoako museoen garapena banaka aztertu ondoren, horiek lau fase historiko ezberdinetan antolatzeari ekin zaio, lurraldearen kasuan oinarritutako etapak ezberdinduz. Hauek oinarri izanik, lortutako emaitzak eta antzemandako eboluzioa marko orokorrago batean interpretatu da, estatu eta nazioarte mailako egoerekin konparatuta datuak analizatu direlarik, ondorioak atera eta etorkizuneko ildoak finkatzeko.

2. METODOLOGIA

URTEA	LAUHILABETEA	PROZESUAREN FASEA
2013	4	Proiektuaren diseinua
2014	1	Bibliografiaren errebisioa eta marko teorikoaren osaketa
	2	
	3	
	4	Informazioaren eskuratzea (Artxibo, bibliografia eta web bidezko dokumentazioaren kontsulta)
2015	1	Datuen sailkapena eta katalogazio tresnaren sorrera
	2	
	3	
	4	
2016	1	Datuen analisisa eta faseen banaketa
	2	
	3	Emaitzak eta ondorioak
	4	
2017	1	Erredakzioa
	2	

Taula 2: Lan prozesuaren kronograma

2.3. Informazioaren eskuraketa

Aurrez aipatu bezala, informazioa eskuratzeko bi bide desberdin izan dira: Bibliografia eta artxiboetako kontsulta zuzena, eta Internet bidezko bilaketan oinarritutakoa. Kasu guztietan, 1902 eta 2014 bitarteko datuetara mugatu da ikerketa, bertan eman baita dokumentazioa bilatzeko geldialdia.

Lehenari dagokionez, argitaratutako liburu eta artikuluko zein erredaktatutako plan eta legeen errebisio bibliografikoa egin da. Horrekin batera, artxiboetako kontsulta burutu da: Museoetako artxiboak, udal artxiboak, GFA-ren Administrazio Artxiboa, EJ-ren Artxibategi Nagusia eta, zenbait kasutan, enpresa pribatuaren artxibo propioak kontsultatu dira. Bigarren kasuan, Internet bidezko bilaketa egin da honako plataformetan: museoko web orri propioak, museoak kokatzen diren udaletako web orriak, Gipuzkoako Museoak web orri orokorra, hemeroteka digitalak eta fototeka digitalak. Era berean, dokumentazioa eskuratu ez den kasuetan eta museoaren arduradunekin kontaktatu ondoren, zenbait dokumentazioaren kontsultarako posta elektronikoz jaso da formatu digitalean.

Bi bide hauez gain, zenbait kasutan egoera bereziak eman dira: museo batzuetan, artxiboaren kontsulta burutzeko faseak bertako dokumentazioaren berrantolaketa batekin bat egin dute, eta hortaz, ezin izan da artxiboa kontsultatu. Beste kasu batzuetan museoetako

arduradunekin ere elkarrizketa informalak mantendu dira, datuen nondik norakoak zehaztu edota artxiboetan topatu ezin den informazio oinarritzkoa biltzeko.

Jasotako dokumentu motari dagokionez, formatu fisikoan museoaren urteko memoriak aurkitu dira nagusiki. Hauetako zenbaitetan informazio osatua gordetzen da, egindako ekimen guztien informazio garatua agertuz eta antolakuntza egoki baten bitartez; beste kasu batzuetan instalakuntzei lotutako intzidentzietan, bisitari zifretan eta estatistikan soilik oinarritutako memoriak topatu dira. Hainbat artxibotan lehiaketa publiko edo lizitazioen argitalpenak ere topatu dira, museoaren kanpoko kudeaketari lotutakoak gehien bat, baina baita proiektu museografikoak edota obra arkitektonikoak burutzekoak. Jarduera solteei buruzko txosten txikiak ere gorde izan dituzte zenbait museoek, hauei lotutako hezkuntza materiala – fitxak, jokoak – edota garaiko argazkiak ere. Museo bakarrean topatu dira Aktak, hauek datu ugari eta erabilgarriak eskainiz; eta bisitatutako ia museo guztietan gorde izan dira esku-orriak eta museoari buruzko programazio ezberdinen diptiko edo triptikoak.

Formatu digitalean jasotako informazio gehiena hezkuntza eskaintzaren zein aldizkako ekimenei lotutakoa izan da, kasu askotan web orrietako “Berriak” edo “Ekitaldiak” ataletan aurkitua. Hauek hemeroteka digital moduan funtzionatu dute eta urte osoko egun berezietako jarduerak agertu dituzte, beti ere azken hamarkadako datuak jaso direlarik kasu hauetan. Egun existitzen diren plataformei esker ere topatu dira ekimeneen argazkiak – *Flickr* eta fototeka digitalak – edota antzinako egunkarietako berriak – hemeroteka digitalak – eta bideo zein dokumental ezberdinak. Formatu berean jaso dira ere zenbait museoek bidalitako txosten eta memoriak zein digitalizatutako hainbat dokumentu.

Dokumentazioaren kontsulta eta informazioaren eskuratzekoak, zenbait zailtasun aurkeztu ditu hasieratik. Alde batetik, museo bakoitzak burututako ekimeneen dokumentazioa bere instalakuntza propioetan jasotzen da batez ere, non artxibo izaera hartzen duen espaziorik ez dagoen kasu gehienetan eta dokumentuak katalogatzeko sistema finkorik existitzen ez den.

Horrekin batera, museo askoren kudeaketa enpresa pribatuen esku egon ohi da eta hauen aldizkako aldaketek – lehiaketa prozesu, lizitazio edota erakundearen desagertzea dela medio – eragin dute museo askotako dokumentazioa enpresa beraren esku geratu eta erakundearen informazio guztia galdu izana, egungo kudeatzaile berriek aurreko garaietako dokumenturik ez dutelarik.

Gainera, badira museo batzuk non hezkuntza ekimenak ez diren dokumentatu, eta horiei buruz aurkitu daitezkeen informazio bakarra Internet bidez topatutako albiste solteak edota web orri ezberdinetako berrien atalean agertutakoak diren. Horrelako kasuetan gainera, museo askok, era adierazgarrian, datu ekonomiko eta bisitarien estatistikak soilik jasotzera

2. METODOLOGIA

mugatu dira kasu gehienetan eta zaila izan da, horietatik haratago, hezkuntza ekimenen panorama zabalago batean kokatzea museo bakoitza. Beraz, hezkuntza ekimenak bigarren plano batean geratu dira alor honetan, eta aurrera eramandako jarduera motak, hauei lotutako dokumentazioa – programa, edukiak, helburuak, ebaluazio lanak – zein horretarako sortutako baliabide materialak ez dira jaso kasu askotan.

Dokumentazioaren gabezia, Gipuzkoako museoetako hezkuntza funtzioaz arduratu diren profesional askoren esperientzia bihurtu da informazio guztiaren jasotzaile. Hots, lantaldeen parte izan diren edota uneren batean elkarlanak burutu dituztenen memorian gordetzen dira urteetan zehar aurrera eramandako hezkuntza ekimenak. Profesional hauetako asko, gaur egun museotik kanpo daude – bestelako lanpostu batzuetan edota jada erretiro garaian – eta hortaz, zaila da beraiek duten informazio guzti horren erabilera egitea eta museoeko historiaren eraketarako klabe izan daitezkeen gertaeren berri izatea

Azkenik, zenbait museoetan arduradunekin edota kudeatzaileekin kontaktatzeko zailtasunak izan dira. Egoera horretan beste bide batzuetatik informazioa eskuratzeko saiaketa egin bada ere – udal eta administrazioetako artxiboak, web bidezko bilaketak – ez da lortu museoaren historia zein hezkuntza arloko dokumentuak topatzea.

2.4. Unibertsoa eta lagina

Laginketa prozesuan hiru pauso desberdinu dira. Alde batetik, unibertsoa definitzeko sei oinarrizko informazio iturri erabili dira – hala nola osaketarako erabili diren bestelako iturriak ere –, non dokumentazioaren lehen kontsulta zabalaren ondoren osatu den zerrenda. Behin unibertsoa osatuta aurre-lagina osatu da, OEPE-k¹ – Observatorio de Educación Patrimonial en España – diseinatutako prozedura jarraiturik baztertze irizpideak zehaztuz (Fontal eta Marín, 2011; Fontal, 2016); eta azkenik, lagina osatu da beste baztertze irizpide batzuei jarraiki. Laginketa nahitakoa izan da, irizpide batzuk betetzen dituzten museoak soilik hautatu baitira. Unibertsoa 79 museo desberdinez osatutakoa da, aurre-laginak 68 museo jaso ditu eta azkenik, lagina 54 museotakoa izan da.

Aipatzekoa da ikerketa honetan ez dela hautatutako museoaren inguruko eztabaidarik burutu. Hots, erakunde zein adituek zehaztutako irizpideetan oinarrituta dago aukeraketa, nahiz museoaren definizio ofizialera egokitzen ez diren espazioak izan – Interpretazio Zentroa, ondare musealizatua edo ondarearen erakusketarako espazioak – . Oinarri nagusia museoaren zerrenda berriena izan da, GFA-k Gipuzkoako Museoak web²

¹ OEPE. <http://www.oepe.es/> (2014ko irailaren 4an ikusia)

² Gipuzkoako Museoak. <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/> (2014ko irailaren 4an ikusia)

orriaren bitartez eguneratuta mantentzen duena. Hortik abiatuta zehaztu dira historian zehar irekitako beste museoak zein izan diren adituen aburuz.

Era beran, museoen aukeraketa ere ez da bildumaren izaeraren edota ondare-motaren araberrako banaketarik egin, eta deskribapen diakronikoan museoen inaugurazio urteak izan dira ordenaren irizpide bakarra. Salbuespen bezala aipatu behar da Lenbur Lurralde Museoaren kasua, zeinaren baitan azaldu diren bere gain hartzen dituen ekipamendu guztiak, ordena kronologiko orokorra errespetatu gabe.




Figura 2: Unibertsoa eta lagina

Gipuzkoan historian zehar ireki diren museoen zerrenda osatzeko oinarritzko informazio iturri erabili dira: Lehena, Manu Izaguirrek (1988) *Museos de Guipuzcoa* da (1), lehen aldiz lurraldearen museoak zerrendatzen direlako; 2003an Eusko Jaurlaritzaren baitako Euskal Kulturaren Kontseiluak *Kulturaren Euskal Planaren* baitan aurkeztutako Jordi Pardoren (2003) lanak (2) osatzen du; GFA-ren (2009) *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoen Antolaketa Plana* (3); Aldundiak berak Plan horretatik eratorrita sortutako *Gipuzkoako Museoak web orria*, non museoen zerrenda bat (4) txertatzen den – 2014. urtera arte bertan agertutakoak aukeratuz – ; Eusko Jaurlaritzak (2014) *Euskadiko Museoak eta Bildumak. Estatistika txostena*-n zerrendatutako Gipuzkoako museoak (5); eta Iñaki Díaz Balerdiren (2010a) *Archipiélagos imaginarios: Museos de la CAPV* liburua (6). Hauekin batera, dokumentazioaren kontsulta burutzean, eta lehen Internet bilaketa orokorrak egitean, Gipuzkoan existitu diren beste museo batzuk topatu dira eta hauek ere zerrendan txertatu dira (7).

2. METODOLOGIA

	GIPUZKOAKO MUSEOEN UNIBERTSOA	1	2	3	4	5	6	7
1	San Telmo Museoa							
2	Victor Hugo Etxea							
3	Armagintza Museoa							
4	Z Espacio Zuloaga							
5	Aquarium Donostia-San Sebastián							
6	Oquendo Etxea							
7	Urgulleko Historiaren Etxea							
8	Miniaturen museoa							
9	IMK Pasaia Planetarioa							
10	Julio Beobide tailer-museoa							
11	Ama Xantalen ermita							
12	Gorrotxategi Konfiteri Museoa							
13	Ibarraundi Museoa							
14	Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria eliza							
15	Urrelur. Mineral eta Fosil Museoa							
16	Ingurugiro Etxea							
17	Zumalakarregi Museoa							
18	Iturraran Parketxea							
19	Untzi Museoa							
20	Donostiako Elizbarrutiko Museoa							
21	MUFOMI. Mineral eta Fosilen Museoa							
22	Burdinbidearen Euskal Museoa							
23	PHOTOMUSEUM. Argazki eta Zinema Museoa							
24	Zerain Paisaia Kulturala							
25	Nuarbeko Sokatira Museoa							
26	Lizarrusti Parketxea							
27	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra							
28	Laia, Euskal Herriko Artisau Produktuaren Museoa							
29	Mirandaola Parkea							
30	Larraulgo Ekomuseoa							
31	Makina Erreminta Museoa							
32	Igartza Monumentu Multzoa							
33	San Martin Ondaregune							
34	Albaola Itsas Kultur Faktoria							
35	Gatz Ekomuseoa							
36	Chillida-Leku							
37	Museum Cemento Rezola							




Museoak eta hezkuntza Gipuzkoan. Kartografia historiko bat

38	Eureka! Zientzia Museoa							
39	Txingudi Ekoetxea							
40	Igartubeiti Baserri Museoa							
41	Soinuenea							
42	Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real Monumentu Multzoa							
43	Loiolako Santutegiko Museoa							
44	Luberri geologia ikasgela							
45	Anduetza Parketxea							
46	Artzantzaren Ekomuseoa							
47	Ogiaren Txokoa							
48	Bentalekua Museoa							
49	Langileen Ibilbidea							
50	Fanderia Errota							
51	Ardixarra Etxea							
52	D'Elikatuz Elikadura Zentroa eta Goierriko I.Z.							
53	Algorri Zumaia							
54	Idiazabal Gaztaren I.Z.							
55	MATER Itsas Gela							
56	Euskal Burdinaren Museoa							
57	Oiasso Erromatar Museoa							
58	Sagardoetxea							
59	Arkaka.Uraren I.Z.							
60	Antonio Oteiza Museoa							
61	Nautilus. Mutrikuko geologia I.Z.							
62	Aikur – Erleen Museoa							
63	Arditurri Parketxea							
64	Leitzaran. Uraren I.Z.							
65	Ekainberri							
66	Museoreal100							
67	Donejakue							
68	TOPIC							
69	Menchu Gal Museoa							
70	Memoria Historikoaren I.Z.							
71	Barandiaran Museoa							
72	Chillida Lantoki							
73	Arrikruz - Oñatiko kobak							
74	Cristobal Balenciaga Museoa							
75	Arantzazu Parketxea							
76	Uliako I.Z.							
77	Lili Jauregia							

2. METODOLOGIA

78	Antioko I.Z.							
79	Bergarako Errege Seminarioko Bildumak							
	<i>Guztira</i>	11	21	57	45	29	74	-

Taula 3: Unibertsoaren osaketarako iturriak

<i>Legenda:</i>	
	Zerrendatuta
	Museo bakarra kontsideratu (Legazpi Burdin Harana edo Lenbur Lurraldearen baitan)
	Ireki gabeko espazio bezala aipatu. Etorkizuneko proiektua kontsideratua

Behin unibertsoa zehaztuta, aukeratutako museoengatik azterketa sakonagoa burutu da eta bi bazterte irizpideren arabera osatu da aurre-lagina: Batetik, 2014ko abendura arte Gipuzkoan ireki gabe dagoen museoak izatea, oraindik inauguratu gabe egotea; eta bestetik, museo kontsiderazioa ez izatea. Azken honi dagokionez, irizpide propioak erabili dira:

- Ekipamenduak funtzionamendu autonomoa ez izatea, hots, museo baten menpeko espazioa izatea eta beharren arabera irekitzea beti. Gune hauek ez dute harreragune propiorik, ez lantalde propiorik eta kudeatzaile orokorrago batek erabiltzen ditu eskaerapean.
- Ez izatea erakusketa aretorik, musealizatutako espaziorik eta ondarea erakusteko edo interpretatzeko espazio zehatzik.
- Aldi baterako erakusketak zein beste jarduera batzuk burutzeko espazio bezala funtzionatzea, herriko kultur etxe modura.

Behin lehenengo laginketa eginda, museoetako hezkuntza ekimenen ikerketarako beharrezkoa suertatu da bigarren laginketa prozesu bat burutzea, azken lagina osatzeko. Hortaz, bigarren fasean bazterte irizpide berriak zehaztu dira. Lehen irizpidea hezkuntza jarduerarik ez burutzea izan da, zerrendatutako museoetako batzuk espazioaren irekierara mugatzen baitira eta ez dute jarduerarik egiten publikoari begira. Bigarren irizpidea dokumentazio publikorik eskuratu ez izana da, hots, museoaren inguruko hezkuntza ekimenei lotutako informaziorik ez topatzea.

Laginketa prozesuaren ondoren, unibertsoaren eta laginaren arteko bat egitea % 68,35-koa izan da.

Museoak eta hezkuntza Gipuzkoan. Kartografia historiko bat

UNIBERTSOA		AURRE-LAGINA		LAGINA	
1	San Telmo Museoa	1	San Telmo Museoa	1	San Telmo Museoa
2	Victor Hugo Etxea	2	Victor Hugo Etxea	2	Victor Hugo Etxea
3	Armagintza Museoa	3	Armagintza Museoa	3	Armagintza Museoa
4	Z Espacio Zuloaga	4	Z Espacio Zuloaga (4)		
5	Aquarium Donostia-San Sebastián	5	Aquarium Donostia-San Sebastián	4	Aquarium Donostia-San Sebastián
6	Oquendo Etxea	6	Oquendo Etxea (4)		
7	Urgulleko Historiaren Etxea	7	Urgulleko Historiaren Etxea	5	Urgulleko Historiaren Etxea
8	Miniaturen museoa	8	Miniaturen museoa (4)		
9	IMK Pasaia Planetarioa (2)				
10	Julio Beobide tailer-museoa	9	Julio Beobide tailer-museoa (5)		
11	Ama Xantalen ermita	10	Ama Xantalen ermita	6	Ama Xantalen ermita
12	Gorrotxategi Konfiteri Museoa	11	Gorrotxategi Konfiteri Museoa	7	Gorrotxategi Konfiteri Museoa
13	Ibarraundi Museoa	12	Ibarraundi Museoa	8	Ibarraundi Museoa
14	Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria eliza (2)				
15	Urrelur. Mineral eta Fosil Museoa	13	Urrelur. Mineral eta Fosil Museoa	9	Urrelur. Mineral eta Fosil Museoa
16	Ingurugiro Etxea	14	Ingurugiro Etxea	10	Ingurugiro Etxea
17	Zumalakarregi Museoa	15	Zumalakarregi Museoa	11	Zumalakarregi Museoa
18	Iturraran Parketxea	16	Iturraran Parketxea	12	Iturraran Parketxea
19	Untzi Museoa	17	Untzi Museoa	13	Untzi Museoa
20	Donostiako Elizbarrutiko Museoa	18	Donostiako Elizbarrutiko Museoa	14	Donostiako Elizbarrutiko Museoa
21	MUFOMI. Mineral eta Fosilen Museoa	19	MUFOMI. Mineral eta Fosilen Museoa (5)		
22	Burdinbidearen Euskal Museoa	20	Burdinbidearen Euskal Museoa	15	Burdinbidearen Euskal Museoa
23	PHOTOMUSEUM. Argazki eta Zinema Museoa	21	PHOTOMUSEUM. Argazki eta Zinema Museoa	16	PHOTOMUSEUM. Argazki eta Zinema Museoa
24	Zerain Paisaia Kulturala	22	Zerain Paisaia Kulturala	17	Zerain Paisaia Kulturala
25	Nuarbeko Sokatira Museoa	23	Nuarbeko Sokatira Museoa (4)		

2. METODOLOGIA

26	Lizarrusti Parketxea	24	Lizarrusti Parketxea	18	Lizarrusti Parketxea
27	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra	25	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra	19	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra
28	Mirandaola Parkea	26	Mirandaola Parkea	20	Mirandaola Parkea
29	Laia, Euskal Herriko Artisau Produktuaren Museoa	27	Laia, Euskal Herriko Artisau Produktuaren Museoa (5)		
30	Larraulgo Ekomuseoa	28	Larraulgo Ekomuseoa	21	Larraulgo Ekomuseoa
31	Makina Erreminta Museoa	29	Makina Erreminta Museoa	22	Makina Erreminta Museoa
32	Igartza monumentu multzoa	30	Igartza monumentu multzoa	23	Igartza monumentu multzoa
33	San Martin Ondaregune	31	San Martin Ondaregune	24	San Martin Ondaregune
34	Albaola Itsas Kultur Faktoria	32	Albaola Itsas Kultur Faktoria	25	Albaola Itsas Kultur Faktoria
35	Gatz Ekomuseoa	33	Gatz Ekomuseoa	26	Gatz Ekomuseoa
36	Chillida-Leku	34	Chillida-Leku	27	Chillida-Leku
37	Museum Cemento Rezola	35	Museum Cemento Rezola	28	Museum Cemento Rezola
38	Eureka! Zientzia Museoa	36	Eureka! Zientzia Museoa	29	Eureka! Zientzia Museoa
39	Txingudi Ekoetxea	37	Txingudi Ekoetxea	30	Txingudi Ekoetxea
40	Igartubeiti Baserri Museoa	38	Igartubeiti Baserri Museoa	31	Igartubeiti Baserri Museoa
41	Soinuenea	39	Soinuenea	32	Soinuenea
42	Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real	40	Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real	33	Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real
43	Loiolako Santutegiko Museoa	41	Loiolako Santutegiko Museoa (5)		
44	Luberri geologia ikasgela	42	Luberri geologia ikasgela	34	Luberri geologia ikasgela
45	Anduetza Parketxea	43	Anduetza Parketxea	35	Anduetza Parketxea
46	Artzantzaren Ekomuseoa (3)				
47	Ogiaren Txokoa (3)				
48	Bentalekua Museoa	44	Bentalekua Museoa	36	Bentalekua Museoa
49	Langileen Ibilbidea (3)				
50	Fanderia Errota	45	Fanderia Errota (4)		
51	Ardixarra Etxea	46	Ardixarra Etxea	37	Ardixarra Etxea


Museoak eta hezkuntza Gipuzkoan. Kartografia historiko bat

52	D'Elikatuz Elikadura Zentroa eta Goierriko I.Z.	47	D'Elikatuz Elikadura Zentroa eta Goierriko I.Z.	38	D'Elikatuz Elikadura Zentroa eta Goierriko I.Z.
53	Algorri Zumaia	48	Algorri Zumaia	39	Algorri Zumaia
54	Idiazabal Gaztaren I.Z.	49	Idiazabal Gaztaren I.Z.	40	Idiazabal Gaztaren I.Z.
55	MATER Itsas Gela	50	MATER Itsas Gela	41	MATER Itsas Gela
56	Euskal Burdinaren Museoa (3)				
57	Oiasso Erromatar Museoa	51	Oiasso Erromatar Museoa	42	Oiasso Erromatar Museoa
58	Sagardoetxea	52	Sagardoetxea	43	Sagardoetxea
59	Arkaka.Uraren I.Z.	53	Arkaka.Uraren I.Z. (4)		
60	Antonio Oteiza Museoa	54	Antonio Oteiza Museoa (4)		
61	Nautilus. Mutrikuko geologia I.Z.	55	Nautilus. Mutrikuko geologia I.Z.	44	Nautilus. Mutrikuko geologia I.Z.
62	Aikur – Erleen Museoa (3)				
63	Arditurri Parketxea	56	Arditurri Parketxea	45	Arditurri Parketxea
64	Leitzar. Uraren I.Z.	57	Leitzar. Uraren I.Z.	46	Leitzar. Uraren I.Z.
65	Ekainberri	58	Ekainberri	47	Ekainberri
66	Museoreal100	59	Museoreal100 (4)		
67	Donejakue	60	Donejakue (4)		
68	TOPIC	61	TOPIC	48	TOPIC
69	Menchu Gal Museoa (2)				
70	Memoria Historikoaren I.Z.	62	Memoria Historikoaren I.Z.	49	Memoria Historikoaren I.Z.
71	Barandiaran Museoa	63	Barandiaran Museoa	50	Barandiaran Museoa
72	Chillida Lantoki (3)				
73	Arrikruz - Oñatiko kobak	64	Arrikruz - Oñatiko kobak	51	Arrikruz - Oñatiko kobak
74	Cristobal Balenciaga Museoa	65	Cristobal Balenciaga Museoa	52	Cristobal Balenciaga Museoa
75	Arantzazu Parketxea	66	Arantzazu Parketxea	53	Arantzazu Parketxea
76	Uliako I.Z.	67	Uliako I.Z. (5)		
77	Lili Jauregia	68	Lili Jauregia	54	Lili Jauregia
78	Antioko I.Z. (1)				

2. METODOLOGIA

79	Bergarako Errege Seminarioko Bildumak (1)
----	--

Taula 4: Laginketa prozesua eta kanporatze irizpideak



UNIBERTSOA	AURRE-LAGINA	LAGINA
79	68	54

Taula 5: Unibertsoa, aurre-lagina eta lagina

2.5. Aldagaien sailkapena

Ikerketaren hasieran azterketako aldagaiak finkatu dira, errebisio bibliografikoa egin eta lehen bilaketa lanen ondorioz ezarritakoak. Behin artxiboetako lana burutu eta Gipuzkoako museoen hezkuntza arloko datuak ordenatzean, hasierako aldagaiak eraldatu eta egokitu egin dira kasuaren egoera errealerara, sailkapen sistema eta inbentariatzeko tresnaren finkapena arte.

Museoaren baitan existitzen diren elementuetan, hezkuntza ekimenari lotutakoak aukeratu dira, horien azterketa sakonak garapen historikoaren adierazle izan daitezkeelako. Hau oinarri izanik ondorengo aldagaiak definitu dira: Hezkuntza sailak (KEHS³) edo hezkuntza funtzioa betetzen duen saila/lantaldearen osaketa – horren parte diren museoko profesionalak barne hartuta –, hezkuntza ekimenak – jarduera zein materialak –, eta publikoa – erabiltzailea zein bisitaria –.




Figura 3: Gipuzkoako museoak eta hezkuntza: aldagaiak

³ KEHS: Kultur Ekintza eta Hezkuntza Saila. Gaztelerazko DEAC – Departamento de Educación y Acción Cultural – .

2. METODOLOGIA

Aldagai independentea	Menpeko aldagaia
HEZKUNTZA SAILA	Kudeaketa mota, hezitzaileak, beste eragileak
HEZKUNTZA EKIMENAK	Jarduera motak, jardueren aldikotasuna, baliabide material motak
PUBLIKOA	Publiko mota, publikoari egokitutako ekimen motak

Taula 6: Aldagaiak eta menpeko aldagaiak

2.5.1. Hezkuntza sailak (KEHS)

Hezkuntza ekimenak programatu, diseinatu eta garatzeaz arduratzen den museoko lantaldeari deitzen zaio Hezkuntza Saila edo Kultur Ekimen eta Hezkuntza Saila (KEHS). Historian zehar zein erakundearen arabera, izen ezberdinak jasotzen ditu: Difusio Saila, Pedagogia Kabinetea, Animazio Saila edota Programa Publikoen Departamentua, besteak beste.

2.5.1.1. Kudeaketa mota

Museoaren kudeaketa edota organigramaren antolaketa oso desberdina izan daiteke, erakundearen baitan hezkuntzaz arduratzen den taldearen kokapena, izaera eta egonkortasuna, beraz, aldakorra da museoaren arabera.

Organigrama horren baitan, ardura desberdinen banaketa egon edota partekatzen diren eremuak izan daitezke. Honetan aipatzekoak dira: Titularra, kudeatzailea, dinamizatzailea, hezkuntza saila, hezitzaileak eta beste eragileak.

Museoko titularra da erakundearen jabea dena, publikoa ala pribatua izan daitekeena. Kudeatzailea, aldiz, museoaren funtzionamendu orokorraren ardura guztia hartzen duen erakundea da, titularraren berdina izan daitekeena ala ez. Azken kasu honetan, normalean, azpikontratazioaren bidez aukeratzen da museoaren kudeaketaz arduratuko dena.

Dinamizatzailearen figura oso ohikoa ez bada ere, azken urteetan agertu da museoaren kudeaketa antolaketaren baitan. Honen arabera, titularra denak kudeatzaile baten esku uzten du gestio orokorreko ardura, eta honek, aldi berean, azpikontratatu egiten du museoaren egiteko guztiak beteko duen erakundea – normalean pribatua –. Horrela, kudeatzailearen funtzioa izango da koordinazio orokorra edota administrazio lan nagusiak, eta dinamizatzaileak museoaren ardura eta publikoari zuzendutako ekimen oro izango du oinarri (eraikinaren irekiera eta programazioa gauzatzea).

Azkenik, hezkuntza sailaren eremua aurkitzen dugu, jarduerak eta materialak diseinatu, programatu eta burutzeaz arduratutako taldea, normalean hezitzailez osatua – nahiz eta azken urteetan bestelako profilak ere elkarlanerako txertatu diren, *marketing* edota diseinuan adituak direnak bezalakoak – . Hezitzaile talde hau izan daiteke museoko programazioa antolatu eta langileak koordinatzeko arduraduna, edo aldi berean baita jarduerak gauzatzen dituenak ere.

2.5.1.2. Hezitzaileak

Hezkuntza sailaren baitan aurkitzen da hezitzailearen figura, hezkuntza ekimenak gauzatzen dituenak, publikoarekin kontaktu zuzena duena. Hezitzaileek izen desberdinak jasotzen dituzte: gida, animatzaile, edo bitartekariak.

Hauekin batera agertzen dira beste eragileak deiturikoak, modu egonkorrean edota era puntualean, hezkuntza sailarekin elkarlanean aritutako pertsonak direnak. Hauek hurrengo puntuan ikusiko ditugu.

Era berean, lantaldeko kide hauen formakuntzan zehazten dira arlo akademikoan burututakoa – unibertsitateko ikasketak – eta hortik kanpora egindakoa – jardunaldiak eta ikastaroak – . Horretaz gain, kongresu eta sinposioetan parte hartu izanak ere garrantzia izango du, hezitzaileen formakuntzaren baitako alderdi bezala kontsideratuz.

2.5.1.3. Beste eragileak

Esan bezala, museoetako lantalde finkoetz gain, beste eragile batzuk ere bihurtzen dira zenbaitetan hezkuntza ekimenen sortzaile edo gidari. Hauen baitan desberdinu daitezke: beste elkarte eta fundazioak, hezkuntza erakundeak eta praktiketako ikasleak, Museoen Lagunen Elkartek edota boluntarioak.

Beste elkarte edo fundazioez hitz egiten dugunean, jatorrizko museoaren eta beste eragile batzuen arteko elkarlana sortzeaz ari gara, aldi baterako ematen denean – ekimen zehatz bat zein aldizkako programa bat – edota eskaintza bateratu egonkor baterako finkatzen denean.

Praktika aldian dauden ikasleen kasuan, bi norabidetako zerbitzu bat burutzen da: alde batetik, museoak berak onurak jasotzen ditu ikasle honek egindako lanagatik, eta beste alde batetik, errealitatean aritzeko eta zenbait jarduera praktikara eramateko espazioa eskaintzen dio ikasle horri, hezkuntza erakundeekin harremanetan. Praktika aldian dauden ikasleek burutu ditzakete jarduera zehatz batzuk – bisitak, ebaluazio lanak – edota materialen sorrera – koaderno didaktikoen diseinua – adibidez.

2. METODOLOGIA




Figura 4: Museoko kudeaketaren baitako mailaketa eta hezkuntza sailaren kokapena bertan

Organigrama honen antolaketaren arabera, lau kudeaketa mota desberdinu dira ikerketa honetarako, museoetako gestioa analizatzeko erabilgarriak izan daitezkeenak:

A MOTA: Museoko titularra berak osatzen du kudeaketa, dinamizazio eta beste funtzio guztietarako lantalde propioa. Hau da, titularra denaren esku geratzen da langileen kontratazioa.

Titularitatea	Kudeaketa	Dinamizazioa	Hezkuntza saila	Hezitzaileak
Titularra				

Figura 5: A motako kudeaketa modeloa

B MOTA: Titularrak kudeatzaile nagusi baten esku uzten du museoaren ardura, honen baitan sortzen delarik funtzio guztiak betetzeko lantaldea – hezkuntza saila eta hezitzaileak barne – . Normalean enpresen azpikontratazioa da ohikoa honelako kudeaketa motetan, administrazio publikoa titularra denean.

Titularitatea	Kudeaketa	Dinamizazioa	Hezkuntza saila	Hezitzaileak
Titularra	Arduradun bat (enpresa, elkarte, fundazioa)			

Figura 6: B motako kudeaketa modeloa

D MOTA: Titularrak, kudeatzaile baten esku uzten du museoaren ardura orokorra, eta honek era berean, beste eragile bat kontratatzen du dinamizazio eta hezkuntza lanetarako. Hortaz, titularra, kudeatzailea eta espazioaren dinamizatzailea desberdinak dira.

Titularitatea	Kudeaketa	Dinamizazioa	Hezkuntza saila	Hezitzaileak
Titularra	Arduradun bat	Arduradun bat (enpresa, elkarte, fundazioa)		

Figura 7: D motako kudeaketa modeloa

E MOTA: E motako kudeaketaren baitan bi sistema ezberdinu daitezke. E1 motaren arabera titularrak kudeaketa osoa arduradun baten menpe uzten du. Honek, bere baitan, bi arlo desberdinetan banatuko ditu museoko dinamizazioa edo harrera lan orokorrak eta hezkuntza saila, Hezkuntza sailaren menpean eratuko da hezitzaile taldea, azpikontratatu izango dena hirugarren erakunde baten bitartez.

E2 motaren arabera titularra eta kudeatzailea erakunde berdina dira, eta honen baitan eratzen dira dinamizatzaile taldea eta hezkuntzakoa; baina hezitzaile taldea, berriz ere, azpikontratatuakoa da.

	Titularitatea	Kudeaketa		
			Arduradun bat	
			Dinamizazioa	
E.1	Titularra	Arduradun bat		
E.2	Titularra			
			Hezkuntza saila	Hezitzaileak
				Arduradun bat

Figura 8: E motako kudeaketa modeloa

2. METODOLOGIA

2.5.2. Hezkuntza ekimenak

Hezkuntza ekimenak kontsideratu dira hezkuntza sailak publikoari zuzenduta sortzen eta gauzatzen dituen jarduerak eta material didaktikoak.

Hezkuntza jarduerak, jarduera didaktikoak, difusioa edota programa publiko izena hartu dute ekintza ezberdinek, baina beti ere bisitariari erakusketa aretoak irekitzeaz gain egiten diren jarduerak izendatzeko erabili ohi dira. Hau da, museoaren atearik publikoari irekitzeaz gain, honi bideratuta eta honen parte-hartzea – pasiboa zein aktiboa – eskatzen duten ekimenak dira, bertan gordetzen den bilduma, erakutsarazi nahi den ondarea edota berauen interpretazioa burutzeko ekintza multzoa. Beti ere, hezkuntza izango da jarduera hauen xedea, hots, bisitariak ikastea da jarduera hauen helburu nagusia.

Hezkuntza ekimen hauek, publikoari zuzentzen diren unetik aurrera, museoko hezkuntza eskaintza kontsideratzen dira. Era berean, ekimen ezberdinen konbinaketa, publiko talde zehatzei zuzenduta eta era egonkorrean burutzen denari eman zaio hezkuntza programa izena.

2.5.2.1. Hezkuntza jarduerak

Museoetan publikoari zuzendutako jarduerak kontsideratu dira museoan bertan burutzeko – edota kanpoan egiteko baina museoak bideraturiko – ekintzak, non erakundearen bilduma edota ardatz den ondarea, ekimenaren oinarria den.

Ikerlan honetarako, museoko hezkuntza jardueraren kontsiderazioan barneratze eta kanporatze irizpide batzuk finkatu dira, OEPE-ren sistemari jarraiki (Fontal, 2016), ondoko taulan ikus daitekeen bezala:

Barneratze irizpideak	Kanporatze irizpideak
Museoak berak sortzen edo gauzatzen duen ekimen propioa, erakusketa, bilduma edo museoko gaiari lotuta dagoena	Herriko kultur ekintzak, promozio turistikokoak edota museoaren izaerarekin erlaziorik gabeko ekimenak
Publikoak, modu ezberdinetara – entzunez, praktikaren bitartez, ikusiaz – ikasteko sortzen eta gauzatzen diren jarduerak	Aldi baterako erakusketak, gune eta baliabide berriak eskaini arren ez dutelako <i>per se</i> ekimen bat suposatzen publikoarentzat
Museoaren publikoari zuzenduta burutzen direnak (publiko bisitaria edo birtuala)	Museoaren espazioaren alokairuaren ondorioz gauzatzen diren ekimenak

Taula 7: Hezkuntza jardueren katalogaziorako barneratze eta kanporatzen irizpideak

Ikerketa honek, hezkuntza jardueren tipologia, eta hauek eskaintzan duten jarraikotasuna edo aldikotasuna aztertzen du. Azken honi dagokionez bitan banatu da: eskaintza egonkorra eta aldizkakoa.

Eskaintza egonkorra urte osoan zehar egiten den eskaintza jarraitua dena edota denbora tarte batean erregulariki errepikatu dena – adibidez, urtero egiten den jarduera bat, edo hilabetean behin burutzen dena – . Jarduera hauek planifikazio eta antolakuntza egokiago bat ahalbidetzen dute, ikaskuntza prozesuaren gaineko ikerketa eta ebaluazio jarraitu baterako aukera eskainiz. Gainera, normalean, bisitari mota zehatzagoetara zuzentzen dira, metodologia zehazten da eta baliabide landuagoak zein helburu argiagoak izaten dituzte. Egonkorrak diren jarduerak, moldaketak eta hobekuntzak egiteko tarte handiagoa ere eskaintzen dute.

Aldizkakoa den eskaintza berriz, irregulariki burutu denean, inongo egonkortasunik gabe, edota era puntualean burutu dena ekitaldi, proiektu edota erakusketa zehatzen harira. Jarduera hauetan bat-batekotasuna da nagusi, eta ekimenen jarraipen bat zein ebaluaziotik ondorioztatutako moldaketak egitea zailagoa suertatzen da.

Jardueren tipologiai dagokionez, mota eta azpi-moten arabera desberdintze bat egin da.

HEZKUNTZA EKIMENAK: Jarduerak	
a) BISITA GIDATUAK	a.1.) Arruntak
	a.2.) Bereziak
	a.3.) Erakustaldiekin
	a.4.) Antzeztuak
b) IBILALDI GIDATUAK	b.1.) Arruntak
	b.2.) Bereziak
	b.3.) Antzeztuak
	b.4.) Irteerak
d) TAILERRAK ETA JOLASAK	d.1.) Tailerrak
	d.2.) Jolasak
e) IKASTAROAK	
f) HITZALDIAK ETA JARDUNALDIAK	f.1.) Hitzaldiak
	f.2.) Jardunaldiak
g) IKUSKIZUNAK	g.1.) Artistiko-literarioak
	g.2.) Birsortze historikoak
h) IRRATSAIOAK	

Taula 8: Hezkuntza ekimen moten sailkapen proposamena

2. METODOLOGIA

a) Bisita gidatuak

a.1.) Bisita gidatu arruntak

Bisita gidatuak dira museo edota ondare-gune batean egiten diren ibilbideak, non langile espezializatu batek – hezitzaileak – erakusten denaren inguruko azalpenak ematen dizkion publikoari (Asensio eta Pol, 2003), denbora tarte zehatz batean.

Bisita gidatuetan jarraitzen den metodologia edukien ahozko transmisioarena da nagusiki. Hau da, tradizionalki egin den informazioaren transferentzia hutsean zentratzen da, erakusketan bertan dauden elementuen azalpen batekin.

Zenbaitetan azalpen edo transmisio hau egitean publikoarekin nolabaiteko komunikazio edo hartu-emana bultzatzen den arren – adibidez, galderak eginez bisitariei – norabide bakarreko komunikazioa nagusitzen da. Gainera, bisitak bestelako jarduera edo materialez osatu daitezke, bisita-tailerrak (Padró, 1996) edota jolas eran planteaturikoak proposatu daitezkeelarik.

Jarduera honetan, museoko hezitzailea da ardatza, edukiaren transmisorea eta ekimenaren gidaria, eta horrek eragin dezake, Asensio eta Polek (2003) zehazten duten moduan, ematen dituen azalpen magistralak, deskriptiboak eta guztiz entziklopedikoak izatea.

Hori dela eta, gaur egun bisita gidatua bera hezkuntza jarduera bat kontsideratu daitekeenaren inguruan eztabaidatu daiteke, horren funtzio hezitzailea zalantzan jartzen baita. Izan ere, ikaskuntza prozesua ez da ematen soilik edukien transmisioa bide bakarrekoan. Hots, mezuaren emisoreak adierazitako diskurtso baten aurrean publikoak ikasten duela frogatu beharko litzateke, ikaskuntza emateko bestelako faktore batzuk eragina izaten baitute.

Ikerketa honetan, ordea, kontutan hartzea erabaki da. Alde batetik, historikoki hezkuntza funtziora gerturatzeko lehen pausoa kontsideratzen delako eta publikoarengana heltzeko lehenbiziko ekintza izan delako, xede esplizitu batekin; eta bestalde, egungo egoerak erakusten duelako oraindik, museoaren oinarritzko eskaintza, bisita gidatuetan oinarritzen dela publikoari edukiak erakutsi eta helarazteko tresna bezala, nahiz eta bere eraginkortasuna zalantzan egon.

a.2.) Bisita gidatu bereziak

Bisita gidatu bereziak kontsideratzen dira, edukien transmisio horretan museoko eskaintza orokorretik desberdintzen den elementuren bat agertzen denean:

- Museoko lantaldeko hezitzailea ez den pertsona bat gidari bihurtzen denean. Izan daiteke bisita gai berezi baten inguruan hitz egingo duen aditu bat

delako, edota bisita hori burutzea esperientzia edota beste jarduera baten parte delako – adibidez, haur eta gazteen jarduera bezala planteatzen denean eurek gidatzea bisita bat.

- Museoko ohiko erakusketa ibilbidetik – behin behinekoa zein egonkorra – irten eta museoko beste espazio batzuk bisitatzeko aukera ematen denean: biltegiak, artxiboa, errestaurazio tailerrak eta abar.
- Museoko bisita gidatuetan, zentzumenen bitartezko ezaguera sustatzen duten elementuak edo ekintzak txertatzen direnean, normalean gastronomiari loturikoak – elikagaien dastatzeak, adibidez – .
- Museoko ohiko ordutegitik at burutzen diren bisita gidatuak – gaueko bisita gidatuak, adibidez – .

a.3.) Bisita gidatuak erakustaldiekin

Museo batzuen bildumak, inguruko ondareak edota aldi baterako erakusketaren baten gauzatzeak, bisita gidatuko edukien transmisiorako jarduera ezberdinen erakustaldiak eskaintzea ahalbidetzen du. Honela, bisitariak berak, azalpenen bidez jaso duena era zuzenean ikusteko aukera izaten du. Erakustaldiak honakoak izan daitezke:

- Makinariaren funtzionamendua: martxan ikustea errotak, industria-makinak, etab.
- Lanbideen erakustaldiak: Gazta egitearen prozesua ezagutu, ogiarena, artisten lana zuzenean ikusteko aukera edota gozogilearen lana.
- Teknika ezberdinen erakustaldiak: normalean, arkeologia esperimentalarekin loturiko demostrazioak izaten dira, gezia jaurti edo sua egiteko teknikak ikusiz; baina baita musika instrumentuak jotzekoak edota armak dekoratzekoak.
- Esperimentuak: zientzia museoetan ematen direnak batez ere, normalean efektu bitxiak eta erakargarriak agertzen dituztenak (Asensio eta Pol, 2003).

a.4.) Bisita antzeztuak

Bisita antzeztuetan bi motakoak desberdindu daitezke: hezitzailearen azalpenen osagarri modura aldizkako antzezpenak egiten diren bisitak, edo antzezlea bera bisitarien gidari bihurtzen denekoa. Bi kasuetan erakutsitako ondarearen oinarritzko baloreak eta ezaugarriak deskubritu eta interpretatzen laguntzen zaie animazioen bitartez (Goenechea eta Benítez, 2007), non aktore batzuek pertsonaia ezberdinak antzezten dituzten. Zentzu honetan, Parra, Talens eta Rangelek (2014) diotenez:

2. METODOLOGIA

permite que la experiencia sea mucho más viva y significativa y que determinados elementos patrimoniales presentados a lo largo del itinerario (historia, monumentos, paisajes, gastronomía, etc.) se pongan en valor de una manera más dinámica y eficaz gracias a la motivación e implicación emotiva de los asistentes (259 or.)

b) Ibilaldi gidatuak

b.1.) Ibilaldi gidatu arruntak

Museotik kanpoko bide batean zehar egiten den bisita bat da, non geldiune ezberdinetan topatzen diren elementuen inguruko azalpen laburrak egiten diren, erritmo bat markatuz eta denbora tarte zehatz batean ingurunearen interpretazio bat burutuz. Ibilaldi gidatu hauek, herri-guneetan egin daitezke edota natura ingurunean.

Parra, Talens eta Rangelen (2014) arabera ibilaldi gidatuak erabiltzen dira “para difundir y socializar el patrimonio históricocultural y paisajístico (y) tienden a fomentar el acercamiento al entorno visitado a partir de una observación guiada y motivada por unos objetivos preestablecidos” (259 or.).

Era berean, aukera ezin hobea dira ingurunearen esploraziorako, honekiko harreman zuzena izatea eskaintzen baitute, bisitaria subjektu pasibo izatetik aktibo izateko aukera ere aurkeztuz (Cambil, 2010).

b.2.) Ibilaldi gidatu bereziak

Ibilaldi bereziek bisita gidatu berezien ezaugarri berberak dituzte, ohikoa ez den elementu bat aldatzen baita ibilaldi gidatu arruntetatik. Hala ere, museo barnean burutzen diren bisitetatik aldenduz, aldaketa berri bat txertatzeko aukera eskaintzen dute: garraiobideetan egindako ibilaldiak. Horrela, ibilaldi berezi ere kontsideratzen dira museo batek antolatzen dituen bizikleta bidezko ibilaldia, itsasontziz egiten direnak edota tren batean burututakoak. Egoera hauek ondarea ezagutzeko eta bizitzeko bestelako ikuspegi bat eskaintzen diote bisitariari.

b.3.) Ibilaldi gidatu antzeztuak

Bisita gidatu antzeztuen ezaugarri berberak dituzte, baina museo edo ondare-gunearen inguruko bide espazio batetik ibilbide luzeagoa eta geldiune ezberdinekin egiten dena igarotzen da ibilbide antzeztuetan. Honetan ere, bisitetan gertatzen den moduan, antzezlea bera izan daiteke gidaria edota hezitzaileak ematen dituen osagarri bezala gertu daitezke antzezenak.

b.4.) Irteerak

Museoaren eremutik at egiten diren ibilaldiak dira irteerak, beste museo edota ondaregunera egiten direnak edota museoarekin erlazionatutako jarduera bat burutzeko antolatzen direnak. Irteera hauek izan daitezke egun erdikoak edo egun batzuk irauten dutenak, eta museoak kokatzen den lurraldean bertan zein nazioarte mailakoak antolatzeraino iritsi daitezke.

Irteera hauen helburua museoaren gaiari lotutako bestelako espazioak ezagutzea da, erakundearen baitan ardatz diren gaiak oinarri harturik, hauen baitako bestelako ondare-guneak ezagutzeko aukera eskainiz.

d) Tailerrak eta jolasak

Tailer eta jolasek, museoak proposaturiko gai bat ardatz hartzen duten ekintzak dira, ikaskuntzaren izaera ludikoa agertuz, hala nola entretenimendurako funtzioa dutenak. Bi kasuetan bisitariaren inplikazio aktiboa beharrezkoa da jarduera burutzeko, banaka zein taldeka ekintza ezberdinak gauzatzera bideratuak.

d.1.) Tailerrak

Tailerren kasuan objektu baten sorkuntza edota teknika baten aplikaziora bideratutakoak izaten dira, Padróren (1996) hitzetan, prozesua erakustea da nagusi, testuingurua bera baino. Zenbait kasutan, tailer horiek solasaldi moduan planteatzen dira; hots, objektu edota ekintza bat ardatz izanik, horren inguruko hausnarketa eta eztabaida bat sortzen da, hitzeko komunikazioa sustatuz eta jarrera aktiboa bereganatzeko bestelako modua aurkeztuz.

d.2.) Jolasak

Edukiak lantzeko proposatzen diren ekintza entretenigarriak dira, aurrez sorturiko materialetan oinarrituta edota ondarea ardatz harturik jarduera ezberdinak burutuz – ginkana, mahai jolasak, altxorraren bila – . Calafek (2013) dioenaren arabera, “desde la perspectiva de la psicología, el juego no es la diversión ni la carencia de fin; es una actividad continuada y de significación”(80 or.).

Tailer zein jolasetan hezitzailea gidaria bihurtzen da, prozesuaren jarraitzaile eta laguntzarako elementu bat. Beharrezko tresnak eskaini eta aurre-azalpenen bitartez bideratuko duena jarduera guztia, horren bitartez ikastea lor dezaten – ez beti edukiak, baizik prozedurak, gaitasunak eskuratzeko bideak –.

2. METODOLOGIA

e) Ikastaroak

Gai zehatz baten inguruko irakaskuntza programa bat da, iraupen ezberdina izan dezakeena. Ikastaro hauek tailerretatik desberdintzen dira, helburua ez delako produktu bat sortzea edo praktikan ipintzea zerbait, baizik eduki teoriko batzuk bereganatzea aldi berean. Hortaz, ikastaro hauetan jarduera praktikoak txertatzen badira ere – tailerretan bezala – desberdintasun nagusia da izaera ludikoa ez dela nagusi eta praktika baten bereganatze zehatzera bideratuta dagoela.

Ikastaro hauetan, normalean, museoko lantaldetik kanpoko adituen kontratazioa ematen da, espezialitatearen arabeko profesionalen esku geratzen delarik jardueraren gidaritza, museoak bestelako baliabideak eskainiz.

f) Hitzaldi eta jardunaldiak

Hitzaldi, jardunaldi, kongresu eta topaketetan, eduki zehatz batzuen transmisioa burutzen da, eta gai espezifikoak izaten dituzte ardatz, museoan era ohikoan lantzen ez direnak. Honelako ekimenak museoko eduki egonkorrei zein aldi baterako erakusketei loturik egon daitezke, eta aditu baten eskutik eman ohi dira – museoko lantaldeko kide izan daitekeena edo ez –.

Publikoa, normalean, entzule hutsa bihurtzen da; nahiz eta jardunaldi edota topaketa zehatzetan geroz eta ohikoagoa den nolabaiteko parte-hartzea sutatzea – tailerrak txertatuz, jarduera ezberdinak burutzeko eskatuz edota mahai-inguru eta solasaldi irekiak antolatuz – . Era berean, dokumental, bideo edota irudien proiektzioak ere nahastu daitezke.

f.1.) Hitzaldiak

Hitzaldiak egun bakarrekoak izan ohi dira, nahiz eta hitzaldi saio ezberdinak antolatu gai bat ardatz izanik.

f.2.) Jardunaldiak

Kongresu, jardunaldi eta topaketa egun bat baino gehiago hartzen dituzte. Kasu guztietan programazio itxiak dira, iraupen zehatzekoak eta nahikoa egituraturutakoak.

g) Ikuskizunak

Hezkuntza sailaren baitan txertatutako elementua dugu kultur ekimenena, normalean ikuskizunekin parekatu daitekeena. Honelako jarduerak aisialdi garaiarekin erlazionatuta egon ohi dira, eta museoko edukiekin lotutako proposamenak aurkezten dira. Ohikoena da ikuskizun hauek aldizkako eskaintzaren parte izatea, eta egonkorrak diren kasuetan urteko egun zehatzetara mugatzea, ekitaldi berezi moduan planteaturik.

g.1.) Ikuskizun artistiko-literarioak

Bideo emanaldiak, zinema saioak, irudi eta bideo proiektzioak, musika kontzertuak, antzerki edota dantza emanaldiak, bertsolaritza eta olerki saioak zein beste ikuskizun mota batzuk aipatu daitezke.

g.2.) Birsortze historikoak

Jarduera mota ezberdinak nahasten dira egun berdinen baitan, baina garai historiko baten birsortzea da ekitaldiaren ardatza. Birsortze historiko hauek dira, “una serie de actos en los que la reconstrucción histórica y arqueología experimental son el eje central [...] (y) potenciando el carácter didáctico y lúdico de las actividades” (Noain, 2012: 60). Horrela, garai historiko bati buruzko edukiak lantzeko bestelako formatu bat eskaintzen zaio publikoari *living history*-n oinarrituta, festa giroan murgilduz eta parte-hartze maila sustatuz.

h) Irratsaioak

Museoaren edukien difusioa burutzeko erabilitako espazioa da, saio propio baten bitartez edota aurrez existitzen den batean burutzen den kolaborazio bidez. Difusiorako erabilitako erreminta honetan museoaren edukien transmisioa egiten da, norabide bakarrekoan, eta normalean gai zehatzak agertzen dituzten saio berezietan banatzen dira. Irratsaio hauetan museoko edukiak hedatzeko komunikazio arina eta bitxikeriak zein bestelako elementuen txertaketak dira nagusi, modu erakargarrian ondarearen inguruan hitz egiteko aukera emanaz. Horietako batzuetan, hezkuntza xedea agerikoa denez, ekimen mota hau ikergai kontsideratu da.

2. METODOLOGIA

2.5.2.2. Hezkuntza baliabide materialak

Baliabide material propioak kontsideratzen dira museo batek, jarduera ezberdinak burutzeko edota horien osagarri izateko sortzen dituen tresnak dira, euskarri fisiko zein digitalean egon daitezkeenak eta publikoak erabiltzeko sortuak izan direnak. Serrat Antolík (2007) zehaztu bezala, material hauek oinarrian dute kontzeptualak, prozesuzkoak edota jarrerazko gaitasunak sustatzea. Material hauek museografiatik bereizten dira; hots, ez dira erakusketaren parte izaten, baizik independenteki erabili daitezkeenak.

Hortaz, hezkuntza baliabide material kontsideratzeko ondorengo barneratze eta kanporatze irizpideak finkatu dira:

Barneratze irizpideak	Kanporatze irizpideak
Hezkuntza funtzioa betetzeko museoak sortutako material zehatza	Difusio eta informaziorako materialak: esku-orriak, katalogoak, liburuak, buletinak, txostenak
Publikoak erabiltzeko sortu dira, hauek dira horien hartzaile eta oinarria	Museoko erakusketaren parte diren material eta gailuak
Museoan bertan zein kanpora erabili daitezkeen materialak	Museoko lantaldeak jardueren burutzean erabiltzen dituen euskarriak: grafikoak, irudiak,...

Taula 9: Hezkuntza baliabide materialen katalogaziorako irizpideak

Horietatik abiatuz, beraz, ikerketa honetarako planteatu diren baliabide material hezitzaileen tipologia formatu motaren arabera zehaztu dira, euskarri digital zein fisikoan izan daitezkeelarik:

HEZKUNTZA BALIABIDE MATERIAL MOTAK	
Dosierrak	Irakasle zein ikasleentzako gida liburuxkak
Koaderno/fitxak	Fita didaktikoak, koaderno didaktikoak
Ikus-entzunezkoak	Bideoak, audio grabazioak
Esperimentaziorakoak	Maleta didaktikoak, karroak
Web materiala	<i>Online</i> jokoak, ariketak, ibilbideak
Modulu digitalak / APP	Modulu elkar-eragileak, gailu mugikorretan erabiltzeko programak, aplikazio digitalak

Taula 10: Hezkuntza baliabide material moten sailkapen proposamena

a) Dosierrak

Bisitariari – edo gehienetan, irakasle bati – zuzendutako informaziorako koaderno edo gidak dira. Dokumentu hauek hezkuntza baliabideak kontsideratzen dira bisitaren aurreko eta ondorengo prozesurako zein museoko jardueran zeharrekoetarako edukiak, metodologia, helburuak, bibliografia eta beste hainbat eremu aztertzen dituelako, eta bisitak prestatzeko balio duelako. Hortaz, tresna erabilgarria dira museoaren jarduera hezitzailea edota materialari buruzko ezaugarriak aztertzeko.

b) Lan koadernoak eta fitxak

Museoaren bisitaren aurretik, bisitan zehar edo ondoren lantzeko sortutako materialak dira, non publikoak jarduera ezberdinak egiteko aukera duen. Ariketa ohikoa galdererantzunak, denbora-pasa eran planteatutakoak edota museoan zehar bilatu beharreko informazioaren osaketari lotutakoak dira, zenbaitetan sinplista edota planifikaziorik gabekoak bilakatuz (Asensio eta Pol, 2003), eta kasu askotan eskolako testuliburu eta ariketa koadernoaren errepikapenak bilakatuz. Izan ere, kasu gehienetan ikasleei zuzendutako fitxak izaten dira, eta maila kurrikular zehatz batean oinarrituta diseinatzen dira (Álvarez Arias de Saavedra, 1996). Material hauek formatu fisikoan erabili ohi dira museoetan, paperezkoan, eta azken urteetan digitalki ere eskaini dituzte zenbait museok web plataformen edo aplikazioen bidez.

d) Jokoak

Museoko edukiak era entretenigarrian lantzeko sortzen dira jokoak, non arau eta helburu zehatz batzuk finkatzen diren eta publikoak, jolasaren bitartez, jarduerak burutzen dituen. Joko hauek izan daitezke taldekakoak edo banakakoak, eta askotan joko tradizionalen bertsioak izan ohi dira, museoko edukiei egokitzen direnak: oka jolasa, *Trivial*-a, altxorraren bila, eta abar. Zenbaitetan, joko hauek bestelako materialekin nahasten dira, adibidez, esperimentaziora bideratutakoekin. Formatuari dagokionez, fisikoak diren materialei erreferentzia egiten da jokoak aipatzean, nahiz eta jarduera berdina burutzera bideraturiko *online* jokoak edota aplikazio digitalen jokoak dauden.

e) Ikus-entzunezkoak

Elementu grafikoak eta ikus-entzunezkoak museografiaren parte izan ohi dira, baina zenbait museok, jarduera baten lagungarri moduan, edota bisitaren aurretik zein ondoren edukiak lantzeko, ikus-entzunezko material bereziak sortu izan dute elementu

2. METODOLOGIA

hezitzaile moduan. Era berean, zenbait jardueren ardatz ere bilakatu dira ikus-entzunezko hauek, ikastaro edota tailer zehatzak burutzeko ezinbesteko baliabide bihurturik. Horrela, bideoak edota ahots grabazioak eskaini ditzake museoak, geroz eta gehiago direlarik web orriak edota sare sozialak erabiltzen dutenak horrelako baliabideak errazteko.

Hauekin batera, eta gaur egun informazioa jasotzeko tresna bezala erabiltzen badugu ere, audio-gidak museoetan sortzen diren lehen hezkuntza baliabide materialetako bat kontsidera daiteke. Izan ere, laurogeiko hamarkadatik aurrera sortzen diren audio gidak – hasieran kasete formatuak erabiliz eta gerora euskarri digitalen bidez – bisitari helduei, batez ere, bildumak eta erakusketak azaltzeko, eta edukiak ulertarazteko lehen tresnak dira. Hauekin batera, gerora sortu dira bideogidak eta zeinu-gidak, zentzumen gaitasun ezberdinak dituzten pertsonen egokitutakoak (Asenjo, 2014).

f) Esperimentaziorako materiala

Museoan bertan zein kanpoan elementu ezberdinekin esperimentatzeko aukera ematen duten materialak dira. Horrela, objektu eta euskarri ezberdinak aurkezten zaizkio publikoari, honek zentzumenen bitartez ezagutu eta landu ditzan, ukimen eta ikusmen bidezko deskubrimenduan oinarritzen diren materialak izanik nagusiki. Hortaz, baliabide esperimentalen baitan bisitarien esku-hartzea eta inplikazioa beharrezkoa suertatzen dira eta bera da jardueraren ardatza. Museoan bertan zein kanpoan erabiltzeko aukera eskaini daiteke, azken honen kasuan salmenta bidez edota alokairu bat ordainduz errazten zaizkiolarik publikoari. Mota ezberdinetakoak aurkitu daitezke: maleta edo kit pedagogikoak, motxila didaktikoak, karroak eta beste hainbat formatutan elementu ezberdinak biltzen dituzten euskarriak.

Maleta edo kit pedagogioei dagokionez, banakako zein taldeko jarduerak burutzeko egokiak izan daitezke. Armengolek (2000) dio, helburu nagusia dela “poner en manos de los alumnos las herramientas para que ellos mismos planteen problemas, formulen hipótesis, se documenten y utilicen las fuentes, emitan juicios y los comprueben” (106 or.). Motxilak ere aukera egoki bat izan daitezke ibilbide bat egingo duen talde batentzat; Asensio eta Polek (2003) jarduerak, manipulatu daitezkeen elementuak eta erakusketari lotutako ekintzen proposamenak biltzen dituztela zehazten dute.

Karroen kasuan, gurpilak dituzten kutxa handiak dira, erakusketan zehar mugitu eta azalpenak eman bitartean hezitzaileak erabiltzen dituen elementuak jasotzen dituenak, bisitarien ere zentzumenen bitartez antzemateko sortuak; edota tailer zein joko zehatz bat burutzeko sortu daitezkeen karroak dira, jarduera guner horretan bertan aurrera

eramateko prestatuak. Maletetan bezala, material ezberdinak gordetzen dira: piezak, faksimileak, irudiak, jolasak, eta abar. Asensio eta Polen (2003) aburuz, erakusketako mezua osatzen laguntzen dute, publikoaren interesera egokitzeko aukera eskaini eta erakargarriak eta originalak diren elementuak erabiltzeko tresna bihurtzen dira museoan.

g) Web materiala

Museo batek bere – edota beste erakunde baten – web orrian eskaintzen duen material hezigarriari deitzen diogu web materiala. Kasu gehienetan, espazio hauetan topatzen duguna eduki informatiboa da, erakundeari buruzko historia, bertako bildumaren berri zein eskaintzen dituzten zerbitzu eta programak azaltzeko gune bat. Web orriak, ordea, publiko zabalago batentzat eskuragarri dagoen material hezigarria eskaintzeko eremu bat ere bihurtzen da, eta hala, zenbait museok sortuko dituzte espazio hauetarako material eta jarduerak bereziak: *online* jokoak edota deskargatu daitezkeen ariketak bezalakoak.

h) Modulu digitalak eta APP-ak

Teknologia baliabideen erabilera, web orriaren bitartez zein museografiako gailuen bidez egiteaz gain, museoetako hezkuntza ekimenetarako gailu mugikorrek erabiltzen dira ere. Gailu mugikorrek museoan erabiltzen hasten dira lehen aldiz PDA (Personal Digital Assistant) deiturikoen bitartez. Geroz eta teknologia konplexuagoen txertaketa ematen da gerora, smartphone eta tableten agerpenarekin (Asenjo, 2014).

Gailu mugikorrek, museoak sortzen duen baliabide bat erabiltzeko edota proposatutako jarduera batean parte hartzeko aukera ematen dute, teknologia bidezko ikaskuntza bat eskainiz (Brazuelo eta Gallego, 2011).

Honekin lotuta, museo ezberdinek edota kanpoko erakundeek museorako garatzen dituzten APP-ak, software aplikazioak direnak gailu digitaletan deskargatu eta instalatzeko aukera ematen dutenak. Hauetan jokoak, ibilbideak, errealitate birtuala edo errealitate areagotua bezalakoak erabiltzen dira, ondare hezkuntza bideratzeko.

Gailu mugikorrek kontsideratzen ez diren arren, aipatzekoak dira modulu elkar-eragileak. Hauek lekuz aldatzen diren zutabe edo moduluak dira, non jarduera batean parte hartu edota informazioa lortzeko aukera eskaintzen zaion publikoari, museora gerturatu gabe, bertako ondarea ezagutzeko bestelako espazio bat proposatuz.

2.5.3. Publikoa

Hezkuntza ekimenen hartzaile kontsideratzen da museoan antolatzen diren jardueren parte-hartzaile – hots, museo bisitatzen dutenak – zein era independentean eta museoan fisikoki egon gabe hezkuntza ekimenen erabilera egiten dutenak – digitalki eskaintzen diren jarduera edota materialen erabilpena – .

Ikerketa honetarako lehenbiziko sailkapen bat museo bisitatzen duten eran ezarri da, hots, banaka egiten duten edo taldeka. Banaka datozen hauetan ulertzen da aurretiko talde zehatz bat osatzen ez duten bisitari motak; hots, museoak antolatzen dituen jarduera edota sortzen dituen materialen erabilerarako banakako eran aurkezten direnak. Honen baitan, taldeetan desberdindu daitezke batzuk – adibidez, belaunaldi artekoak edo familiak – baina beti ere aurrez eratu ez den talde bezala ulertzen denez, banakako bisitari kontsideratzen dira jarduera horietan parte hartzen duten pertsonak. Taldeen kasuan, ordea, bisitari multzo itxi bati zuzendutako jarduerak dira, hots, ekimenaren hartzaile talde zehatz bat soilik izango da, bisitari ezezagunen arteko nahasketa ematen ez delarik.

Banaka bisitatzen dutenen kasuan zehaztu diren banaketak adinaren arabekoak izan dira, Pastor Homsek (2004) proposatzen duenari jarraiki – haurrak eta gazteak, helduak eta 65 urtetik gorakoak – ; banakako bisitarien baitan adin desberdinen artean sortu daitezkeen konbinaketa posibleak – familiak eta belaunaldi artekoak – ; irakasleak; eta azkenik, publiko orokorra. Taldekakoen kasuan hezkuntza arautukoak – etapa desberdinetan banatuta – eta beste taldeak desberdindu dira.

BANAKA DATOZENAK	Publiko orokorra	
	Haur eta gazteak	
	Helduak	
	65 urtetik gorakoak	
	Familiak	
	Belaunaldi desberdinetakoak	
	Irakasleak	
TALDEAN DATOZENAK	<i>Zehaztu gabe</i>	
	Hezkuntza arautua	<i>Zehaztu gabe</i>
		HH
		LH
		Bigarren Hezkuntza (DBH eta Batxilergoa)
		Unibertsitatea (Esperientzia Eskolak barne) eta Lanbide Heziketa
	Beste taldeak	Euskaltegiak
		Aisialdi taldeak
		Jubilatuak / hirugarren adina
		Dibertsitate funtzionaleko taldeak
		Bazterketa sozialeko arriskuan daudenak

Taula 11: Publikoaren sailkapen proposamena

2.5.3.1. Banaka datozenak

Banaka datozenen artean ohikoenak dira publiko orokorra bezala definitutako bisitariak, non ez den adin edota profilararen araberrako banaketarik egiten eta publiko guztia barne hartzen duen. Haur, gazte, heldu eta 65 urtetik gorako kasuan banaketa ohikoa egiten da, non 12 urte artekoak edota 16 urte artekoak kontsideratzen dira lehen taldean. Helduei dagokionez, hauei zuzendutako hezkuntzaren hedapenarekin lotura estua du, eskolaz kanpo aurkitzen diren hiritarrak izanik baina era berean gizartearen parte, eremu ez formalak eskaini ahal dizkielako gaitasunak garatzeko aukera, ezaguerak aberastu eta konpetentziak indartzeko (Cambor, 1985).

Familien kasuan, izenak dioten moduan, familia bereko kide ezberdinez osatutako bisitariei zuzendutako eskaintza desberdintzen da. Hauentzat, museoak aukera erakargarria da denbora tarte batean elkarrekin egoteko, partekatu ditzaketen jarduerak burutzeko (Hooper Greenhill, 1998).

Belaunaldi arteko jardueretan familia berekoak edo desberdinekoak izan daitezke, baina beti ere kontsideraturik euren artean, normalean, bi belaunaldien arteko aldea

2. METODOLOGIA

dagoela. Hauetan askotan nahasten dira, beraz, haurrak eta 65 urtetik gorakoak. Programa hauek erabilgarriak dira

Irakasleei dagokionez, banakako bisitari bezala museoek antolatzen dituzten jardueretan parte hartu dezaketen publikoa dira, profil profesionalaren arabera zehaztutako eskaintza berezia jasotzen dutenak eta, aldi berean, etorkizunean hezkuntza arautuko taldeen eramaile bihurtuko direnak.

2.5.3.2. Taldean datozenak

Hezkuntza arautuaren baitan desberdintzen diren etapak zehazten dira honetan: Haur Hezkuntza (0-6 urte), Lehen Hezkuntza (6-12 urte), Bigarren Hezkuntza (DBH eta Batxilergoa), eta honen ondorengo etapak (Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa) bereizi dira. Azken honetan, zehaztu behar da, Unibertsitatearen baitan kontsideratu direla Esperientzia Eskolak. Hauei zuzendutako eskaintza jubilatuta eta hirugarren adinekoekin nahasten bada ere, bi talde motei bideratutako ekimenen xedea desberdina dela ulertzen da; beraz, talde desberdinetan zehaztu da.

Bestalde, bestelako taldeak definitu dira: Euskaltegiak, aisialdi taldeak, hirugarren adineko eta jubilatuen taldeak, dibertsitate funtzionalekoak eta bazterketa sozialeko arriskuan daudenak.

Aisialdi taldeak, oporraldi garaietan jarduera ludikoak eta entretenimenduak burutzeko sortzen direnak eta gehienetan haur eta gazteei zuzentzen direnak kontsideratu daitezke.

Jubilatu edota hirugarren adinako taldeen baitan bi eratako egoerak aurki daitezke: alde batetik, museo bisitatzen dutenak, urteko edozein garaitan izan daitekeena eta astean zehar zein asteburuetan izanik; eta bestalde, beraien egoitzatik – jubilatuen etxea, kultur etxea – mugitu ezin direnak baina museoeko ekimenen hartzaile direnak bertan. Azken urteotan hazi den taldea da honakoa, izan ere, lan munduan eman diren aldaketak eta jubilatuek duten egungo bizitza aktiboago batek eragiten du denbora librean egiteko jarduerak etengabekoak izatea: kirola, ikaskuntza ez arautua, eskulanak, irteerak eta museoetara bisitak, noski. Askotan bisita hauek elkartereren baten bideratutakoak izaten dira, besteetan turismo egonaldi baten baitako programaren baitan aurkitzen dira.

Hauekin batera dibertsitate funtzionaleko taldeak aurki daitezke, ezgaitasun fisiko edo psikiko bat dutenak alegia. Honelako publikoa taldeetan etorri ohi da, eta dibertsitate funtzional zehatzen araberako taldekatzea burutzen da normalean. Hortaz, desgaitasun zehatzei egokitzen diren jarduera eta materialak sortzen dira museoetan. Ohikoena, bestelako erakunde baten babes ekonomikopean, edota elkarte pribatu

batekin kolaborazioan, sortu eta aurrera eramandako ekimenak izaten dira. Adibidez, ospitale batekin edota talde ezberdinen babes eta laguntzarako sortutako fundazio zehatzekin.

Azkenik, bazterketa sozialeko arriskuan dauden pertsonak ere museoko publikoa dira. Kasu honetan ere taldeka museoak bisitatzen duten pertsonak dira, arrazoi ezberdinak direla medio, programa edota elkarte zehatzetan biltzen direnak eta gizartetik bazterketa sozial arriskuan egon daitezkeenak. Dibertsitate funtzionaleko taldeen antzera, bisitari hauek programa zehatzetan bitartez parte hartu ohi dute museoetako ekimenetan, erakundeekin sorturiko elkarlanetik batik bat.

2.6. Katalogazio tresna eta faseen banaketa

Informazioa eskuratu ondoren eta aldagaiak oinarri izanik, hura sailkatu eta inbentariatzeko tresna bat sortu da. Izan ere, ikerketaren helburuetako bat da Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen katalogaziorako tresna bat sortzea.

Prozesuak hiru fase desberdin izan ditu. Lehenbizi, bibliografia orokorraren irakurketa zein unibertsoa osatzeko egindako lehen bilaketa eta kontsulta lanen ondoren lehen katalogazio fitxa osatu da, non zehaztu diren ekimenaren oinarritzko datuak, jarduera eta material motak eta zuzendu diren publikoa. Tresna horren balioztapena egiteko, zenbait adituren azterketatik igaro da, hauek egindako ekarpen eta zuzenketak txertatu direlarik.

Bigarren pausoa sortutako katalogazio fitxa berriaren frogaketa izan da, 20 museo ezberdinetako ekimenak sailkatzeko erabiliz. Museo hauen aukeraketa ez da ausazkoa izan eta tipologia ezberdinetako zein izaera desberdinekoak hautatu dira: lantzen duten gaia desberdina duten museoak – adibidez, itsasoa, gastronomia, artea – , eta tamaina handiko eta txikikoak izatea. Froga hau burutu ondoren katalogazio fitxan zenbait egokitzapen egin dira, Gipuzkoako museoen errealitatera hobekien moldatzen den tresna bat sortu nahian.

Hirugarren eta azken pausoa laginaren hezkuntza ekimenen sailkapen orokorra eta garapen historikoaren prozesua konparatzeko unean burutu da, katalogazio tresnaren azken doiketa eginaz. Honela, Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenak katalogatzeko azken fitxa diseinatu da (ikus I. eranskina).

Aipatu beharrekoa da, azken katalogazio fitxa honen eraketan, ikerketa honetan aztertu ez diren zenbait aspektu txertatu direla. Inbentariatu beharko liratekeen hezkuntza ekimenen ezaugarri batzuk, oro har, oinarritzkoak kontsideratzen ditugu,

2. METODOLOGIA

baina, egun existitzen den dokumentazio motak, ez du baimentzen horiek jaso eta katalogatzea. Hortaz, museoetako ekimenen xedea zehaztea – hauen funtzio eta helburuekin guztiz loturik – beharrezkotzat jotzen dugu; hezitzailea, difusiozkoa eta *heztretenimendua* (ikus 1.4.3.1. atala) oinarri duten hezkuntza eta kultur ekimenak diren zehaztu beharra antzemanaz.

Difusio funtzioa duten ekimenenei dagokionez, teorikoki hezkuntzaren arloari ez badagokio ere, Gipuzkoako museoen kasuan jarduera bezala katalogatu dira, kontsideratu delako publikoari zuzendutako ekimenen baitan aurkitzen direla eta museo gehienek euren jarduera multzoarekin batera diseinatu eta garatzen duten publikoarentzako ekintzak direlako. Gainera museoek publikoarengana gerturatzeko burututako lehen ekintzetako bat izan ziren, eta hortaz, historikoki garrantzia duten elementuak dira. Difusio xedea dutenen artean hitzaldi eta jardunaldiak zein irratsaioak topatzen ditugu

Azkenik, aisia eta entretenimenduaren funtzioa ere txertatzen da museoetan, ulertzen baitugu hezkuntza proiektu eta ekimenek duten egitura finkoa eta zehatzetik haratago, publikoari zuzendutako bestelakoak oso ohikoak izan zirela Gipuzkoako museoetan, batez ere XX. mendearen amaieratik aurrera. Ekimen hauetan edukiak ez dira publiko zehatzetara egokitzen, edo egiten bada perfil mota zabalak hautatzen dira era homogeneoan lantzeko. Hala izanik, aisialdi garaian eskainitako hainbat ekimen ere katalogatu dira, horiek museoaren publikoarengana gerturatzeko baliabide ere diren heinean. *Heztretenimendua*-ri lotutako ekimenak izan daitezke ikuskizunak eta zenbait tailer eta jolas.

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Azken bi mendeotan, museoa munduko ondarea erakusteko instituzio nagusi bilakatu bada ere, historian zehar, gizataldeek jaso eta gorde dituzten balorezko objektuek izan duten tokia eta eman zaien tratamendua aldatuz joan da. Adu ezberdinek museoen jatorri eta sorrerari buruzko hainbat teoria agertu dituzte: batzuentzat museoa gaur egun ezagutzen den bezala XIX. mendearekin batera jaiotzen den espazioa da, museo modernoa alegia, hainbat prozesu soziokulturalen ondoriozkoa; beste batzuentzat ordea, gizabanakoaren eboluzioarekin bat datorren bildumazaletasunari estuki lotuta dago, historiaurretik hasitako prozesua abiapuntutzat hartzen delarik. Nolanahi ere, aro guztietan gorde, kontserbatu, erakutsi eta erabili izan da ondarea, eta lurralde zein jabe anitzeki loturiko ezaugarriak garatu dira museoaren aurrekari kontsidera daitezkeen espazioetan.

Museoak, eta ondarea erakusteko beste espazioak, kontserbaziorako gune nagusi izan dira jatorrian, balio bereziko objektuen gordetzea eta zaintzea helburu izanik. Alabaina, espazio hauek erakunde bezala geroz eta indar handiagoa hartuta, bestelako funtzio batzuk betetzeko gune aproposak kontsideratu dira, horien artean hezkuntzarako. Hirurogeiko hamarkadaren amaieratik sortutako aldaketa sozialak, ekonomikoak eta politikoak eragin nagusia izan dute museoaren kontzepzio hezitzailean eta horrek ezinbestean eragin du erakundea beraren inguruko garapenean. Horrekin batera, museoetako hezkuntza jarduerak ezin dira ulertu garai eta lurralde bakoitzean eman ziren joera pedagogikoak eta hezkuntza sistemaren aldaketak ezagutu gabe. Oro har, hezkuntza kontzepzioak berak ere aldaketak jasan ditu, egoera politiko, sozial eta ekonomiko ezberdinen isla izanik eta hortaz banaezina da museoetako hezkuntza funtzioaren izaeratik. Erakunde hauetan emandako aurre-pausoak eta ideia berrien aplikazioa motelak eta berantiarra izan badira ere, gizartean emandako aldaeren isla izatearen zantzuak nabariak dira; zenbaitetan nazioarteko zein estatu mailako erakundeek bultzaturikoak eta beste batzuetan gizatalde ezberdinen ideien erantzun bihurturik.

Hortaz, honako atalean aurkezten dira museoaren historia eta hezkuntza alorraren garapenean oinarrizkoak izan diren aldaketak, nazioarte zein estatu mailako berezitasunak deskribatuz, eta alor hauei loturik gauzatu diren berrikuntza zein joera nabarmenenak agertuz. Era berean, Gipuzkoako museoak eta hezkuntzaren ikerketarako, testuinguru historikoari buruzko oinarrizko datuak, ikergaiarekin oinarri izateko xedeaz.

3.1. Museoak eta hezkuntza. Garapen historikoa

3.1.1. XIX. mendea, museoen mendea

3.1.1.1. Bildumazaletasuna eta museoaren aurrekariak

Museoez hitz egitea ia historiaz beraz hitz egitea litzatekeela diote aditu askok (Herrera Escudero, 1980; Simmons, 2010). Historiaurrean jada gizatalde ezberdinek objektu sakratuak gorde eta eramangarriak diren pieza txikiez osatutako bildumak sortzen dituztela argudiatzen dute, euren izaera sakratu eta sinbolikoagatik baloratuak. Baina museo hitzaren jatorri etimologikoa greziar garaian kokatu behar dugu: «mouseion» terminotik eratorritakoa da. Hauek Atenasen aurkitzen diren tenplu edo aldare sakratuak dira, musei dedikatzen direnak. Gerora, «mouseion» hitza Alejandrian kokatutako filosofia ikasgune eta jakitunen bilgune zen eraikuntza taldea izendatzeko erabiliko da. Bertan arteak, literatura, matematika eta beste hainbat jakinduriaren inguruko hausnartze espazio bat eratzen den unea da. Honekin batera, greziar hirietan, lehen aldiz altxorrak eta irudi sakratuak espazio publiko batean eta hiritar ororentzat eskaintzen direla adierazten digute hainbat testigantzek, tenpluetako atarietan jainko eta jainkosen irudiak kokatzen baitituzte (Simmons, 2015).

Erromatar garaian hiriak greziar artearen museo erraldoi bat kontsideratu dira (Abt, 2006). Alde batetik, espazio publikoetan eskultura greziarrak sakabanatzen direlako, horietako asko originalen kopiak; bestetik gudetatik espoliazio bidez arpillatutako objektuak ere erakusten hasten direlako; eta azkenik, pinakotekak ugaritzen dira klase boteretsuenen artean, greziar margoen imitazioz apaindutako gelak hedatuz. Bildumen osatzea eta artelanen erakustea propagandarako erreminta baliagarria bilakatzen erromatar garaia, estatuaren boterea zein objektu horien jabe pribatuen estatusa eta boterea azpimarratzeko aproposa. Aipagarria da bilduma hauen erabilera publikoarekiko joera berezia agertzen dela aro honetan, herriaren ondare izaeraren lehen zantzuak agertuz (Bazin, 2010).

Erdi Aroan Eliza bihurtzen protagonista ondarearen bilketari dagokionez, bera baita objektu preziatuak jaso eta kontserbatzeko instituzio arduraduna. Oro har, “la Iglesia es la única forma de museo público” (León, 1996: 20). Behe Erdi Aroan, batik bat, Elizetan gordetzen hasten dira *Thesaurusak* edo altxorrak: Pieza sakratuak dira, balio ekonomikoa baino izaera transzendental batengatik baloratuak direnak; “no tienen relación con lo formal, lo bello [...] son interpretados como figuración de otra realidad que se corresponde con un plano más elevado, sobrenatural y trascendente” (Bolaños, 2008, 22). Protomuseo kontsideratzen den espazio honetan biltzen eta kontserbatzen diren pieza guzti hauek era partzialean bakarrik daude ikusgai, gurtzaren mesedera erabilitakoak eta nolabaiteko funtzio hezitzailearekin, sinestunei doktrina kristaua

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

irakasteko baliabide bezala erabiltzen baitira artelanak. Elizari jarraiki, Gorteetan ere hasten dira balore handiko piezak gordetzen, batik bat elementu monetariotzat erabiltzeko nahiaz eta ez horrenbestez euren izaera estetikoagatiko kontenplazioaren bila. Baina, Goi Erdi Aroan jada, mentalitate aldaketa bat ematen da eta Altxorraren ideia abandonatuz doaz. Honela, pixkanaka aristokrazia eta goi burgesia garaiko gustuen aldaketako protagonista bilakatzen dira eta gordetako ondarearen garrantzia estetikak izango du ardatz bezala, ez balio monetarioa bera.

Humanismoarekin batera, errenazimenduan ondarearen bildumazaletasunak indar handia hartzen du. Alde batetik, arte eta baloredun objektuen inguruko ikuspegia aldatzen da: Aristokrazia eta burges familiak artegintzaren bultzatzaile nagusi bilakatzen dira, mezenas handiak bihurtuz eta bilduma garrantzitsuak osatuz. Artearen sustapen honen baitan egokituko dituzte bilduma pribatuak era egokian kontserbatu eta erakusteko espazio berriak, galeriak, *gabinetto*-ak eta *loggia*-k (Findlen, 2010); izan ere, garai honetan “el disfrute se entiendo como contemplar y no como poseer” (Bolaños, 2008: 36). Espazio hauetan gertueneko pertsonaz osatutako talde txikiei erakusten zaizkie obrak, horien jabetzak goi taldeetan eragin sozial handia eta estatusa adierazteko elementua bilakatzen delarik. Honela, errenazimendu garaian sortzen hasten dira etorkizuneko museo askotako lehen bildumak.

Amerika zein esploratutako beste lurralde berrietarako bidaiak ere urrutiko lur ezezagunetik grina pizten du garaian, eta hori bildumazaletasunean eta jasotako ondare motan ere nabarituriko da (Poldi, 1991). Bidaiariak atzerrian jasotako objektu bitxiak Europara eramaten hasten dira: naturako elementu arraroak, mineralak, landareak, animaliak eta orokorrean zoologia, botanika eta geografiarekin erlazionatutako piezak bereganatzen dituzte. Bildumazaletasunaren izaera areagotzeaz gain, zientzia ezberdinen garapena ere sustatuko du. Jasotako pieza guzti horiek gela berezietan gordetzen hasten dira, *Wunderkammer* edo *Kunstkammer* deiturikoak – “Gauza miragarrien aretoa” – baita *Studiolo*, galeria edo *Gabinetto* ere. Bitxikeriaz edota arteaz betetako gune hauek museoak ez diren arren, nolabaiteko aurrerapauso bat ematen da bildumen erakusketen arloan. Alabaina, «museoa» laster bilakatuko da gehien onartutako terminoa (Abt, 2006).

XVII. mendean Europa osoko Erret bildumek bereganatuko dute protagonismoa. Gustuaren izaera garatzen hasia da ordurako eta kontenplazioaren esperientziak nagusitasuna lortzen du bildumagileen helburuen artean. Oraindik ere ordena zehatz eta sistematiko bati jarraitzen ez bazitzaion ere, piezak era egoki batean erakusteko nahia nabaria da: garrantzia ematen hasten zaio argiztapenari, obren kokapenari, espazioaren erosotasunari eta eliteko talde txikientzako irekitzen hasten dira. Oro har,

“no es solo coleccionar, sino es un proceso de publicidad y de apertura a la contemplación colectiva” (Bolaños, 2008: 37).

XVIII. mendean bildumazaletasuna antolatua, sistematikoa, metodikoa eta espezializatua garatzen hasten da (León, 1996) eta hurrengo mendean museoaren inguruan sortuko den diziplina zientifikoa zein oinarri teorikoak agertzen hasten dira. Ilustrazioak indar handia hartzen du etorkizuneko museoaren kontzeptu berriaren, herriaren instrukzio eta jakituriaren zabalkundean ardatzetako bat izango baita. Baina, “si durante el siglo XVIII se establecen las bases del futuro museo público será durante el siglo XIX en que este fin sea conseguido” (Santiago Restoy, 1999: 39).

3.1.1.2. Museo modernoaren jaiotza

XIX. mendea museoaren mendea kontsideratzen da, erakunde bezala egonkortzen den unea baita eta nazioarte mailako bilduma nagusien irekiera ematen den momentua. Mende hau izango da “la «época dorada» del museo como institución, del coleccionismo burgués y del culto a la historia” (Labandeira, 2008: 320), hiru faktore horiek erabakigarriak izanik museo modernoaren jaiotzarako.

Lehen museo publikoaren irekieraren inguruan iritzi ezberdinak agertzen dituzte adituek. Batzuek Ashmolean Museum-en kokatzen dute abiapuntua, 1683tik aurrera Oxford Unibertsitateko bildumak erakusteko museoa, lehen aldiz ordutegi finko batekin eta publikora irekitakoa. Beste batzuek British Museum-en aurkitzen dute museo modernoaren jatorria, 1759an inauguratua eta modelo komertzialari jarraiki bilduma osoaren erosketatik abiatutakoa; nahiz eta hau publiko murriztu batetara soilik irekitzen den (Bolaños, 2008). Halaber, onartutako eta orokortutako ideien arabera, irekitako lehen museo publikoa Frantziako *Museum Central des Artes* da, 1793. urtean inauguratua – egungo Louvre Museoa – . XVIII. mende amaieran Erret bildumak nazionalizatu eta herriari erakusgai ipintzeko ideia gauzatzen da, Louvre bera nazioaren boterearen ikur bilakatuko delarik (Hernández Hernández, 2004). Frantziaren egoerak *domino efektua* izango du (Díaz Balerdi, 2008) eta Europako beste herrialdeetan ere irekiko dira museo berriak, Estatu-nazioen hedapenarekin batera kontzientzia nazionala erakusteko eta erdi klaseen balore berriak irudikatzen elementu bilakatzen direlarik (Ballart, 2004). Hortaz, esan daiteke “(que) el auténtico nacimiento del museo como institución coincide con el desarrollo definitivo de los estados nacionales” (Díaz Balerdi, 1997:102).

Gómez Martínez (2006) aburuz mundu mailan bi joera nagusi bereizten dira: Bata Frantziako eredua jarraitutakoena izango da, Europako Nazio-estatu gehienek imitatuko dutena eta pribatua den bilduma publikora irekitzea botere politiko eta

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

ekonomikoaren mesedetara egingo den, herriaren instrukziorako zein goi eliteen izaera azpimarratzeko. Bestea, eredu anglosaxoia jarraitu dutenen kasua da, zeina hasieratik “se asentó sobre unas colecciones perfectamente ordenadas, puestas al servicio de la persona con el objetivo de participar en su educación y contribuir al progreso de la comunidad” (Gómez Martínez, 2006: 12-13).

Ipar Amerikaren kasuan, museoen sorrera eta garapena Atlantikoaz bestaldekoaren oso bestelakoa da. Europan Erret bildumak publiko bihurtzen badira, Amerikan herri identitatearekin lotutako zein burgesiaren nahi ekonomiko zein kulturei erantzuteko jaiotzen dira lehen museoak. Alde batetik, komunitateen museoak sortzen dira, izaera kultural eta hezitzaileko espazioak. Bestalde, eliteari zuzendutako guneak ere izango direnak, arte garaikideren erakusgarri eta aberats nagusien bildumak erakusgai ipintzen dituztenak. Izan ere, “a diferencia de los museos europeos, los museos americanos ya nacen burgueses” (Santiago Restoy, 1999: 126).

AEB-n bildumazale pribatua nagusituko da eta museoetako inbertsio nagusiak honen eskutik etorriko dira. Museo berriak eraiki ziren eta/edo unibertsitateei lotutako museoak irekitzen dira – eta ez Europan bezala, non gehienetan aurrez existitzen diren espazioak aprobetxatzen diren – . XIX. mende erdialdetik aurrera merkatari eta industria gizon indartsuenek euren bilduma propioak eratzen dituzte. Beraiek liburutegi, museo eta unibertsitate publikoak sortzen diren lehenengoetarikoak izango dira. Kultura eta artearen sustapenerako erakundeak sortzen hasiko dira familia handiak: Rockefeller, Guggenheim edo Getty bezalakoak. Beraz, Europan erakunde publikoek eta gobernuek sustatutako prozesu bat izan bada, AEB-en jatorri pribatukoa izango da. Antolaketa eta finantzaketa zein sorreraren jatorriak eragin nabarmena izango du eta “al contrario que en Europa, los museos americanos y canadienses no dependen de la financiación de los gobiernos. Los museos son obra de ciudadanos y de asociaciones que se preocupan por la historia nacional y que coleccionan archivos y objetos” (Bergeron, 2009: 62). Hala ere, Europan gertatzen den bezala, XIX. mendean oraindik museoak oso espazio itxiak dira, zientzialari, arte klub eta goi mailako klaseetako taldeei bakarrik irekita (Zepp, 1949). Berrikuntza handiak ere etortzen dira museografiaren aldetik, eta ikerketa eta argitalpen lanetan aurre hartzen die europar museoari.

Bi eredu edo joera hauekin batera, garai honetan sortzen dira bilduma historiko-artistikoen erakusketa zurrunetatik haratago doazen bestelako proposamenak. Horien artean aipagarria da Europa iparraldean sortzen den *museo-ireki* edo lurralde museoen proposamenak, zeinak museoaren kontzepzio tradizionala eta bildumaren erakusketa ordenatu batetik alde egiten duen. Hauetan erakusketa gunez gain, erakustaldiak

egiten dira bisitarien aurrean egurra, oihala eta artisautza objektuak landuz, nekazaritza tekniken erakustaldiak burutuz edota dantza eta musika tradizionalaren emanaldiak antolatuz (Vicent, 2013).

a) Ondarearen erabilera hezitzailea

Oraindik hezkuntza museoaren funtzio esplizitua ez bada ere, badira ondarearen erabilera hezitzailea agertzen diguten zenbait gertaera eta elementu espazio honen baitan. Ashmolean Museoak berak zientzia eta hezkuntzarako funtzioa agertzen du, unibertsitateari atxikitako espazio moduan. Gerora, Estatu-Nazio berriek ere ondarearen izaera sinbolikoan antzematen dute herrialdearen boterea eta historia erakusteko modua, eta aukera ezin hobea bihurtzen dira transmititu nahi den estatuaren mezua zabaltzeko. Balore eta moral nazionalaren ideiak zabaltzeko tresna diren heinean, objektuen kokapena, antolaera eta izaera ondo aukeratuak izaten dira eta beti ere Estatuaren mesederako irudiak transmititzeko erabilia, Napoleonen Inperioaren zabaltzearekin batera hedatutako pentsamendua (Hernández Hernández, 2004).

Baina, publikora irekitako museoaren teoriak ordea bestelako errealitate bat erakutsiko du. Oraindik erakusketak goi klaseen espazio izango dira eta talde sozial zehatzek soilik bisitatu dezaketen egoera bat aurkezten dute, biztanleriaren gehiengorentzat museoak euren bizitzatik kanpo dauden elitearentzako elkargune bilakaturik (León, 1996). Hortaz, museoak aristokrazia eta burgesiarentzako objektuen kontenplazioko espazio bilakatuko da, gustu estetikoa garatu eta sentsibilitatea agertzeko lekua, non ikuslea hartzaile pasibo bat besterik ez den (López Benito, 2010). Hau honela izanik antzeman daiteke “(que) la noción de educación fue inexistente, ya que se daba por supuesto que el público debía deleitarse con la mera contemplación” (López eta Alcaide, 2011: 16). Museoak beraz espazio sakratu eta identitate kulturalaren sinbolo bilakatuko da lehen unetik (Hernández Hernández, 1992).

Aldi berean, arte aditu eta artisten ikasgune ere izango da, objektuen erakusketak Akademiaren luzapena bihurtu eta arte ikasleek aurreko belaunaldietako beste autoreen lanak ezagutu, ikertu eta kopiatzeko gunea bihurturik. Arte museoen kasuan, adibidez, “perseguirían [...] (el) mismo objetivo, construir enciclopedias o atlas visuales lo más completos que mostrasen todo el desarrollo progresivo del arte, de forma evolutiva, a través de colecciones” (Marín Torres, 2000: 126). Horrela, museoetako bisitariak ere izango dira kopistak – baimen bereziekin museoan lan egiteko aukera dutenak – zeinak, ikasle edo irakasle izanik antzinako artisten lanak ikasteko aukera duten (Bolaños, 2008).

b) Ondarea museotik at

Museoen irekieren beharra edo nahia ez da soilik bildumazaletasuna pribatuaren irekieratik ematen, eta jada aurreko mendeetan emandako jazoerek zein garaikoek eragingo dute ondarearekiko zein munduaren ezagupenerako interesa zabaltzea gizartean. XIX. mendea izango da, oro har, ondarearen zainketaren sustapena, ikerketa sakona eta legeztatze prozesuaren abiapuntua. Izan ere, ondarea bera giza zibilizazioaren testigantza eta manifestazio esanguratsu oro bezala ulertzen da (Fontal, 2003) eta horren baitan tresna erabilgarria izango da gizatalde ezberdinen izaera eta jatorria legitimatzeko – beti ere botere ekonomiko eta politikoez egokitu eta moldatutako historia bat erakutsirik – .

Alde batetik, historiak berak nagusitasuna lortuko du arkeologiari esker; hots, ondarearen azalratzeak ekarriko du gizatalde ezberdinek euren jatorriari eta historiari buruzko ikuspegiaren aldaketa bat bizitzea. Winckelmanekin hasita, zientzialari eta historialariek antzinarora bueltatzen dute begirada, eta objektu originalen azterketak zein horien erakusketak eragingo du indusketa arkeologikoen biderkatze bat ematea. Jatorrizko herrialdeetan ez ezik, kanpoko beste lurraldeetara egindako espedizioak eta bertan arpilatutako piezen bereganatzea orokortuko da, XIX. mendean zehar horiek osatuko dutelarik museo askotako bildumen oinarria. Historiaren ikerketak eragingo du elkarte zientifiko ugari sortzea mende osoan zehar, Arte Ederren inguruko taldeak eratzea eta bildumazaletasunak garairik oparoenetakoa bizitzea.

Egoera honi lotuta ondarearen erakusketarako espazioak dibertsifikatuz eta eraldatuz joango dira, eta museo askoren sorrera erakusketa iragankor ezberdinei lotuta egongo da – unibertsalak, kolonialak edota atzera begirakoak –. Adibidez, Europa zein Amerikan herrialde edo eskualde bateko eguneroko bizitzan oinarritutako erakusketa txikiak agertu edota talde sozial baten ohiturak erakusteko obrak eskainiz (Romero de Tejada, 1995). Iraganera ez ezik, garaiko gizarteak oraindira begiratuko duten espazioak ere sortuko ditu, eta hortaz, garaikide den ondarearen balorea ere nagusituko da.

Honen baitan aipagarriak dira XIX. mendearen erditik aurrera antolatzen diren Erakusketa Unibertsalak, munduko hiri nagusienetan ospatutakoak. Hauek mundu garaikidearen leihoak kontsideratuak dira, non kapitalismoa, kolonialismoa, masa kontsumoa eta beste hainbat elementu berriren sustapena egiten den hiri bakoitzak bere garapen teknologikoa, ohore politikoa eta urbanismoko aurrerapenak bezalakoak agertzen dituen bitartean (Marín Torres, 2000). Momentuko ideia eta tresna berrien agergerri zein etorkizuneko berrikuntzak erakusteko lekuak dira hauek, aldi berean

bihurtuak “museos temporales y efimeros esenciales para la consolidación de nuevos modelos” (Bolaños, 2008: 271). Horrela, Arte Eder Museoak, historiakoak edo arkeologikoak zein museo etnologikoak zabalduko dira Europa eta Amerikan zehar, herrialde bakoitzeko izaerari loturiko modelo eta ereduak finkatuz.

d) Hezkuntza sistema

Ilustrazioaren ideiak erabat iraultzaileak izanik ere, eta hezkuntza arloan zeresan handiko aldaketak proposatu arren, oraindik hezkuntza akademikoa gutxi batzuen esku dagoen goi mailako eremu bat baino ez da XVIII. mende amaieran eta XIX. mendean zehar. Hala ere, arrazoiaren ideietan oinarrituta, hezkuntzaren funtzio soziala eta ekonomikoaren garrantziaz jabetzen hasten dira gizarteko hainbat sektore, gizabanako berriaren trebakuntzarako ezinbesteko erreminta dela pentsatuz. Horrela, XIX. mendearen erdialdean eta Estatu nazionalen egonkortzearekin batera, gizartean alfabetizazioa sustatuko duen politika ezberdinak abian jartzen dira hainbat herrialdeetan, eta hezkuntza eskubidearen alde egiten dutenen baitan garatzen dira erakunde berriak.

Hezkuntza sistemaren eraketa horretan orokortutako sistema gerora “tradizional”⁴ bezala izendatuko dena da. Eredu hau XVIII. mendetik garatzen hasia den joera bat da, non pertsonak jarrera, balore eta etika zehatz baten inguruan hezteko helburua den ardatza. Eskola tradizionalaren baitan irakaskuntza norabide bakarrekoa da: irakasleak du botere osoa eta ikasleak hori barneratu egin behar du, jarrera pasibo bat izanik. Eskola, beraz, diziplina eta ikasketa espazio bat bihurtzen da, non edukiak era sekuentziatuan jasotzen diren eta buruz ikasi behar diren. Eredu honek ez du tarterik uzten banakako ikaskuntza baterako, helburua taldea homogeneousatzea baita; eta gainera, modelo honetan ikaslearen aurre-ezagutzak eta esperientziak baztertu egiten dira eta ez dira kontutan hartzen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Eredu pedagogiko tradizional honek pertsona arrazionala, moralista eta gizabidezko baten eraketa dira, mundu sozial batean bizitzeko prestatua eta arauak errespetatzeko bideratua, diziplina guztiaren pean funtzionatzeko heziak.

3.1.2. 1900-1945: Gerrarteko mundua

XX. mendearen lehen erdia gerrarteko panorama batean murgilduta igaroko da mundu mailan; Lehen eta Bigarren Mundu Gerrek markatuko dute gorabehera eta

⁴ Comeniok zein XVIII-XIX. mendeen bitartean garatutako teoriak eskola-ikusmoldea planteatzen dute, ondoren, XX. mendeko erreformatzaileek, eskola tradizional izendatuko dutena (Camino eta Murua, 2013)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

desberdintasun handiko herrialdeen historia. Aldi berean, Europa eta Amerikaren arteko aldeak areagotuko dira arlo politiko, ekonomiko eta sozialean, eta gizarte berrien eraketarako oinarrizkoak izango diren eraldaketak jasango dira, XIX. mendeko tradizionaltasuna gainditu eta mundu berri eta garaikideari begiratuz.

3.1.2.1. Hezkuntza eta korronte pedagogikoak

Nazioarteko hezkuntza sistemaren egonkortze eta finkatzeko prozesua ematen bada ere, herrialdeen araberrako garapen oso desberdina emango da. Honetan, korronte pedagogiko berrien jaiotza eta hedapena lurralde batzuetan eragin handiagoa izango du hainbat faktore direla medio, eta horrek eragingo du museoetako hezkuntza funtzioaren nagusitasuna gailentzea ala ez.

XIX. mendean mendebaldeko munduaren biztanleriaren alfabetatze nahia zabaltzen da, herriarentzat hezkuntza eskuragarri ipini eta gizabanakoaren trebakuntzan interes berria jarriz. Orokortutako sistema eskola tradizionala deiturikoa izango bada ere, arlo ezberdinetatik abiatuta, hezkuntza eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren inguruko teoria eta ideia berriak plazaratuko dituzten adituak izango dira. Horien artean XX. mendearen hasieran indar berezia hartuko dute joera konduktista deituriko teoriaren defendatzaileak. Aurkeztutako teoriaren arabera gizabanakoak bereganatu beharreko ezagutza kanpotik bultzatutako zerbait da. Hala, praktika gidatuak sortzen du ikastea, eta irakastea transmisio hutsean oinarritzen da; hots, aurkezpen gidatu batean (Gil Molina, 2013). Baldintzapenezko teoriak garatuko dituzte zenbait adituk: Pavlov eta Watsonen baldintzapen klasiko deiturikoa, eta instrumentala Thorndike eta Skinnerrek - errefortzu positibo eta negatiboetan oinarritutakoa – , besteak beste. Joera konduktista oinarritzat hartu zuten mundu mailako hezkuntza sistema gehienek, eta ikaskuntza prozesua beraz oinarri teorikoen transmisio hutsean oinarrituko da, zigorren bitartezko jarrera eta balioen ikasketa bideratuz eta ikasleak ere homogeen batean tratatuz (Camino eta Murua, 2013).

Hala ere, egoera orokortu honen aurreko jarrera kritikoak ere agertuko dira – XX. mendearen bigarren erdira arte benetako hedapena izango ez dutenak – eta horrela, XVIII eta XIX. mendeetako hainbat pentsalarien ideiak berreskuratuko dituzte – Rousseau, Pestalozzi, Froebel, Claparède edota Dewey – (Esteban Frades, 2016). Claparèdek ikaslea ezagutzearen hitz egiten du eta irakaslearen formakuntzaren garrantziaz, bere ideiak Eskola Berria deituriko mugimenduaren sorreran eragin berezia izango dutelarik. Deweyk *John Dewey's Laboratory School* sortzen du 1896an (Camp eta Camp, 1936), ondorengo urteetan eskolan garatu beharreko mugimendu partehartzailea abian jartzeko. Deweyren teoriaren arabera, haurren abentura grina

eta sormenaren sustapena oinarrizkoa da hezkuntzan, eta helburu nagusia ikasleek artearen bitartez euren emozio eta jakinduria adierazteko bidea aurkitzea da, *Learning by doing* lelopeari jarraiki.

Beraz, ikaskuntza ez da ematen soilik kanpo eragileek baldintzatuta, baizik pertsonaren baitan ematen den prozesu bati jarraiki. Konduktisten aurrean kognitibista deituriko joeraren agerpena ematen da, non ikaslearen pentsamenduak, asmoak, oroimenak kontutan hartzen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarri bezala. XX. mendean eta aurreko mendeetako teoria berriei jarraiki, Kilpatrick, Freinet, Montessori edota Decrolyren ideiak agertuko dira, hezkuntzan metodo berrien aplikazioa sustatuko dutenak. Horien artean European zabaldu zen Eskola Berriaren mugimendua deiturikoa agertzen da, izen desberdinak jasotzen dituelarik herrialde bakoitzean – Espainian Eskola Aktibo ere deituko zaio – joera pedagogiko berritzaile eta iraultzailea ekartzen duena (Camino eta Murua, 2013). Italian Montessoriren eskutik etorriko da, zeinak alderdi sozial, emozional eta intelektualen garapenean oinarrituko du ikaskuntza prozesua, eta testuinguruari garrantzi berezia emango dio; Frantzia Freinetek metodo naturala deiturikoaren proposamena aurkeztu zuen, espresio askea eta esperimentazioan oinarritutako hezkuntza defendatuz; Kilpatrickek esperientzia esanguratsuen baitan eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntzan garatu zituen bere ideiak; eta Decrolyk haurren garapenerako ikaskuntza aktiboa, nortasunaren errespetua eta motibazioari emango dio garrantzia. Hortaz, ikasleak aktiboa izan behar duela eta planteatutako arazo baten aurrean irtenbideak topatzeko gaitasuna garatu behar dutela ziurtatzen dute, eta jakinduriaren transmisio hutsaren teoriak baztertzen dituzte – eskola tradizionalak defendaturiko modeloa, alegia – (Gil Molina, 2013).

3.1.2.2. Museoen Nazioarteko Bulegoa eta museologia

Mundu mailan museo gehienen egoera penagarria da XX. mende hasieran: eraikin zaharregiak, biltegietan obrak pilatuta, teknika museologiko zaharkituak, formakuntzarik gabeko langileak eta abar luze bat. Herrialde desberdinek jasotako bilduma handiak eragiten du klasifikatu, ikasi, berritu, babestu eta beste hainbat lan egiteko beharra eskatzen duten pieza kantitate handia izateak. Hots, “en pleno desorden se instaura un nuevo orden cultural pero sin los medios necesarios (sin dinero, locales, leyes) para hacerle frente” (Bolaños, 2008: 153). Honi gehitzen zaio Lehen Mundu Gerra ondorengo estatu ezberdinen egoera eta historia zein ondarearen zaharberritu beharra. Horrela, kontserbazio lanen inguruko hausnarketak, zentzu batean, bestelako behar batzuei atak irekiko dizkio (Díaz Balerdi, 2008).

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Aldi berean, museoak erakunde bezala egonkortzen den unea da, bildumen kontserbazio eta ikerketatik haratago bestelako funtzio eta izaera bilatzen duten lehen proposamenak agertzen direlarik. Aditu ezberdinek museoak espazio hilak bezala definitzen dituzte⁵, instituzio elitistak eta garaikideak diren artegintzari eta teoria zientifiko ezberdinei bizkarra emanaz funtzionatzen dutenak; momentuan gertatzen ari denaren isla izateko gaitasun eza kritikatzeko dute. Izan ere, Europan nagusi den objektuen pilaketa ematen den museo guztietan, objektua zentratutako diskurtsoa nagusitzen da, kontserbaziora soilik dedikatutako lantaldeak existitzen dira, eta bildumak era egokian kudeatzeko profesionalen gabezia orokorra dagoela salatzen da.

Lehen Mundu Gerraren ondoren museoaren berritzerako lehen pausoak ematen dira. Museoen Nazioarteko Bulegoa sortzen da 1927an Parisen, Nazio Batuen menpean (Hernández Hernández, 1992; Mairesse, 1998; Jiménez-Clavería, 2007), hau izanik “(una) nueva comunidad museológica internacional de todos los museos del mundo” (Bolaños, 2008: 329). Bulego honen egitekoa da museologiaren arloan irizpideen bateratzea, lankidetzaren sustatzea eta museoaren inguruko ikerketak burutu zein zabaltzea⁶. Honetarako *Museion* aldizkaria sortuko da, 1926-1946 bitartean argitaratutakoa – gerora *Museum* izena hartuz –, kongresu eta jardunaldiak antolatuko dira eta profesionalen trebakuntzarako ikastaroak programatuko dira. Bulegoaren sorrerak benetako abiapuntua suposatuko du hurrengo hamarkadetan garatuko den museoaren historiarako, baina horren eragina eta erabilpena oso desorekatua izango da herrialde bakoitzari dagokionez. Horrela, aurrea hartuko duten zenbait lurralde agertuko dira, museologiaren inguruko lanak plazaratu zein oinarrizkoak izango diren ideia berriak agertuz.

Hortaz, aurreko mendeetan jada hasitako museoaren inguruko jarduna teorizatzeari ekingo zaio. Museoaren eta erakusketen inguruko lehen lanen jatorria jada XVIII. mendean aurkitzen dugu, non Neickelek idatzitako *Museographia* lanaren bidez ilustrazioaren interes katalogatzaile eta entziklopedista agertzen duen (Lorente, 2012). Horren ondoren sortuko dira hainbat bildumen katalogo arrazoituak, kontserbaziorako gomendioak edota argiztatze eta obraren kokapenerako aholku liburukiak; baina benetan museologia⁷ zientzia bezala finkatzen den unea XX. mendea izango da (Díaz Balerdi, 2006a). Interes berria bildumen berrantolaketan, publikoaren interesetan – batez ere AEB eta Kanadako museoetan –, eta espazioaren antolaketan zentratuko da.

⁵ Paul Valéry (1923) edota Marinetti (1909) (Bolaños, 2002)

⁶ Bulegoaren sorreraren aurretik, herrialde ezberdinetan jada eratzen hasiak dira hainbat Elkarte museoaren inguruan, nazio mailako taldeak jaiotzen direlarik

⁷ “Etimológicamente, la museología es «el estudio del museo» y no su práctica, la cual remite a la *museografía*” (Desvallée eta Mairesse, 2009: 57)

3.1.2.3. Nazioarteko museoak

Museoen Nazioarteko Bulegoaren sorrerak museoaren izaerari zein horren inguruan garatuko den praktikari berrikuntzak ekarriko badizkio ere, errealitatean mende hasierako mundu mailako museo gehienek tradizioari eusten diote. Pedagogia korrante berriek apenas eragingo dute aldaketa museoaren funtzioetan eta oraindik kontserbaziora zuzendutako praktika bat nagusituko da. Hala ere, Europako – edo Mediterraneoko joera – eta joera anglosaxoiaren arteko desberdintasunak handituko dira, batez ere Lehen Mundu Gerrak sortutako ezegonkortasun politiko eta gainbehera ekonomikoari jarraiki (Gómez Martínez, 2006).

Europako museoek nolabaiteko berrikuntzak sustatuko badituzte ere, oso kasu puntualei lotutakoak izango dira. Zenbait erakundek gordetzen duten ondarea publikoarengana gerturatzeko lehen pausoak ematen hasten dira: obren azalpenak dituzten kartelak, bildumen antolaketa arrazoitua – ilustrazioaren ideiei jarraituz oraindik ere – , irekiera ordutegien zabalpena eta abar. Ekimen gutxienez artean hitzaldiak eta bisita gidatuak eskainiko dituzte zenbait museoek (López eta Alcaide, 2011), beti ere objektuaren babes eta ikerketa izango delarik ardatz eta oraindik publiko aditu eta talde murriz bati zuzendutako ekintza izanik. Hots, egiten diren jarduerak gutxi horiek obren kontenplazioa erraztu eta sustatzera bideratuak dira (Arriaga, 2011).

Hala ere, egoera honekin talka egiten du arlo teorikoan museoaren izaera hezitzailearen inguruan egiten diren lehen hausnarketa eta proposamen goiztiarrek. Jada 1927ko Museoen Nazioarteko Bulegoaren Lehen Nazioarteko Kongresuak “Museoen paper hezitzailea” izango du gaitzat, non gazteen trebakuntzarako museoaren garrantzia azpimarratuko den, baina baita gizarte orokorarentzat erabilgarria izango den espazioa bezala (Bolaños, 2008). Honek, ordea, ez du praktikan aplikazio hedaturik izango eta museoaren izaera, oraindik, kontserbazioari loturik agertuko da.

Hezkuntza funtzioaren agerpena ordea modelo anglosaxoiari loturik emango da batik bat, hau museoaren izaerari lotutako zati banaezin bezala ulertzen baita. AEB-ren kasuan, adibidez, “where there was no tradition of elegant private collections opening to the public, early museums were recognized as educational institutions dedicated to the furtherance of the new democratic republic” (Hein, 2013: 62).

Honi jarraituz, lehen hezkuntza sailak sortuko dira museo hauetan, hala nola museologiari lotutako profesionalek lehen elkarteak ere – AEB-n *American Association for Museums*, edota eta Britainia Handian *Museum Association* (Lorente, 2013) – .

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Hezkuntza ekimena burutzeko aurrekariak britainiarrak izango dira; Ipar Amerikako museo askok, oro har, hauek hartuko dituzte eredu bezala (Arriaga, 2011).

Hezkuntza sail hauetako profesionalen perfila oraindik definitu gabekoa izango da XX. mendearen hasieran – nahiz eta espezializatorako bideari ekiten zaion jada – eta arlo ezberdinetako adituen esku egongo dira museoetako hezkuntza ekimenak; arkeologoak edo arte historialariak, besteak beste. Hauekin batera, AEB eta Kanadan garrantzi berezia izango dute boluntarioek hasieratik, museoetako jarduera ezberdinak burutzen dituztenak: dokumentazio lanak, erakusketak, animazioa, kudeaketa edo bildumen inguruko lanak (Bergeron, 2009).

Herrialde hauetako elkarte eta profesionalak bideratutako ikerketa lanak, gainera, publikoan zentratuko dira eta ez objektuan; museoak bisitatzen dituzten pertsonen interesak, beharrak eta jarrerak zein diren ezagutzea beharrezkotzat jotzen baita, bilduma beraren diskurtsoaren ginetik. Honela, lehen publiko azterketak burutzen dira AEB-n – *Visitor Studies* – ; Europan ordea II Mundu Gerra ostera itxaron beharko da jarrera berriaren agerpenerako (Valdés Sagües, 1999).

Publikoarengan interesa ez ezik, ondarea musealizatzeko tipologia berrien agerpena ere emango da garai honetan: Natura Parke eta beste ingurune natural batzuen irekiera eta interpretatorako ekimenak burutzen dira – Yosemite Parkea adibidez – ; arte garaikideari garrantzia ematen hasten zaio eta museo zehatzak irekitzen dira hauek gordetzeko – New Yorkeko MOMA bezala – edota herri identitatea eta komunitateari lotutako espazioak garatzen dira – Kanadako komunitate museoak eredu – , besteak beste.

3.1.3. 1945tik aurrera: Gizarte berriaren jaiotza

Bigarren Mundu Gerraren amaierak markatuko du Europa suntsitu eta dekadente baten etorkizuna. XX. mendearen bigarren erdian eta ordura arteko garai ezegonkorretik desberdintzeko nahiarekin, gizarte berri baten jaiotza biziko duen mundu baten aurrean aurkituko gara. Europa, batez ere, gerrak utzitako gainbehera batean murgilduta aurkituko da, mugen aldaketak eragindako arazo soziopolitikoak eta ekonomiaren gainbeheratik irteteko neurri gogorrak hartuz.

Kontinente zaharretik haratago, bestelako potentzia batzuen nagusitasuna hedatuko da garaian, AEB-n indartu eta bestelako herrialde batzuk ordura arte izan gabeko protagonismoa erreklamatzuz, deskolonizazio prozesu eta independentzia aldarrikapenei estuki loturik (Marks, 2015). AEB-n bizitzen den loraldiak eragiten du mundu mailako erritmoa honek markatzea: gorakada ekonomikoa, gizarte modernoaren jatorria eta kulturalki esportatzen dituen ezaugarriak orokortuz; Europa

aldiz, aurrietatik jaiki eta egoera berrira moldatzeko ahaleginetan mugitu beharko da abiada handian.

3.1.3.1. Hezkuntza gerraosteko munduan

II Mundu Gerra aurretik alfabetatze prozesu bat orokortzen bada ere, oraindik herrialde garatuenetan eskolatu gabeko biztanleria aurkitzen da eta gerrak utzitako panorama ekonomikoak egoera hura zailduko du – zer esanik ez azpigaratutako zonaldeen kasuan – . Alde batetik, nazioarte mailako hezkuntzaren egoeraren inguruan hausnartuko duten hainbat adituk ideia berriak plazaratuko dituzte; bestetik, hezkuntza praktikaren arautze eta gauzatzean aldaketak sortzen joango dira, korrante pedagogiko berrien ideiei jarraiki maila handiago edo txikiagoan aplikatuz. Afrika eta Asiaren kasuan, mendebaldeko hezkuntza modeloak imitatuko dituzte kasu gehienetan – kolonialismoaren ondorioz – edota Iberoamerika, zeinak egoera zehaztutara egokituko dituen atzerritik iritsitako ereduak (Gómez Orfanel, 1976).

Ez da kasualitatea 1945an Nazio Batuen Erakundea sortzea⁸ munduko giza eskubideak, bakea eta garapena ziurtatzeko jaiotakoa, eta honen baitan eratutako UNESCO – Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea⁹ – urte berean sortua. Aldi berean, hezkuntzaren alorrean garrantzizkoa izango da 1963an eratutako Hezkuntza Planifikaziorako Nazioarteko Institutua; izan ere, zenbait urtetan honen zuzendari izango den Philip H. Coombsek, 1967an *Munduko hezkuntza krisia* izeneko hitzaldia emango du (Valdés Sagüés, 1999), zeinak garaiko hezkuntzaren egoeran arreta jartzen duen. Hitzaldi horren txostena ez da 1971 arte argitaratuko, eta benetako eragina 1975tik aurrera izango du¹⁰, baina munduko hezkuntza sistema eta eraginaren panorama ezagutzeko ezinbestekoa bihurtuko da. Honen arabera, nazioarte mailako krisi bat bizi du hezkuntzak: titulazioak ez datoz lan sektorearen beharrekin, talde sozialen baitako desberdintasunak nabariak dira eta hezkuntza kostuen igoera oso handia da.

Era berean, Europar Batasunak hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera abiatuko ditu era bateratuan sustatuko diren hezkuntza planak Komunitatearen parte diren

⁸ Nahiz eta aurrez existitzen den Lankidetzaren Intelektualeko Nazioarteko Institutua, Unescoren aurrekaria kontsideratu daitekeena

⁹ “se celebra en Londres del 1º al 16 de noviembre de 1945, justamente al concluir la guerra, una Conferencia de las Naciones Unidas para el establecimiento de una organización educativa y cultural (ECO/CONF). [...] Al final de la conferencia, 37 de estos Estados firman la Constitución que marca el nacimiento de la Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura (UNESCO)”. UNESCO. Historia de la organización. In <http://www.unesco.org/new/es/unesco/about-us/who-we-are/history/> (2017ko urtarrilaren 4an ikusia)

¹⁰ 1971an argitaratzen da Kongresuko hitzaldiaren dokumentazioa eta 1975an Coombsek, Ashmedekin batera, argitaratzen du *La lucha contra la pobreza rural*. Orduetik aurrera hasten da hezkuntza ez formala terminoaren erabilera zabaltzen (Colom, 2005)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

herrialdeetan, laurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera era berezian indartuz (García eta García, 2005).

Hortaz, garaiko egoeretara egokitu ez den sistema aldatzea ezinbestekoa da, Frantzia *68ko maiatzean* aldarrikatuko den lema nagusietako bat. Kontuan izan behar da Bigarren Mundu Gerra ondorengo demografiaren igoerak eta ekonomiaren hobekuntzak, hezkuntzarekiko geroz eta eskaera altuagoa eta eskolatze masiboak eragiten dituela, nazio gehienak erantzun egoki bat emateko prest ez daudelarik.

Era berean, Coombsek eskolatik at ematen den hezkuntza baten aldarrikapena egingo du, eta horrek ezinbestean eragingo du gizarte berriaren sistema eraketan. Izan ere, hiru hezkuntza mota bereizten ditu: Formala, eskoletan ematen den hezkuntza arautua dena; ez formala, hortik kanpora baina erakundeen baitan gauzatzen dena; eta informala, eguneroko bizitzari eta gizabanakoaren izaeraren osaketari lotutakoa, bestelako elementu batzuen bitartez gauzatzen dena – komunikabideak, harreman sozialak (Pastor Homs, 2004) – .

Zehaztapen hauek beraz oinarrizkoak izango dira ere hezkuntza bera eskola sistematik kanpo ulertzeko eta gizartearen baitan eremu eta etapa ezberdinetan eman daitekeela agerrarazteko. Honetatik abiatuz, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, ikaskuntza eremu berrietara zabaltzen da eta beraz, ikasteko moduak ere aldatzen dira: *Life Long Learning* ideia sortuko da, zeinak defendatzen duen gizabanakoak bere bizitza osoan zehar ikasten duela; Helduen Hezkuntza¹¹, eskolatze urteak igaro ondorengo trebakuntza akademikoa jasotzea ahalbidetuko duena edota eskolatu gabe izandako pertsona orok heldua izanda ere ikasteko aukera izatea (Cambor, 1985); Lanbide Hezkuntza kalitatezkoa eta lan sektorera egokitua; edota ikasle mota berriekiko arreta – dibertsitate funtzional psikikokoak adibidez – (López Torrijo, 2009).

Hezkuntzaren aurreko jarrera berri honekin batera, geroz eta indar handiagoa hartuko dute XX. mende hasieratik formulatzen hasiak diren teoria pedagogiko berriak – hamarkada batzuk lehenago garatzen hasiak –. Horrela, eskola tradizionalaren menpean joera konduktistaren inguruan lanean jarraituko bada ere – Miller, Bruner edota Pribram bezalako teoria oinarri izanik – , berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik eta hirurogeikoaren hasieratik aurrera, joera horiek baztertu eta ideia berrien agerpena emango da, bereziki hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera (González Pineda, 2002).

Kognitibismoak diotenaren aurka, teorilari berriek ikaskuntza kanpo eragileetan ez ezik pertsona ororen barne eragileen baitan ematen dela baieztatuko dute. Hots, prozesu kognitioan zentratuko dute ikaskuntza prozesuaren ikerketa, konstruktibismoa deritzon

¹¹ Jada berrogeita hamarreko hamarkadan aipatzen da ICOM-eko *Museum* aldizkarian (Gómez Martínez, 2006)

joera berriari ateak irekiz (Gil Molina, 2013). Honetan teoria eta ideia ezberdinak garatuko dira Piaget, Ausubel edota Vigotsky bezalakoek eskutik; aurre-ezagutzak, aurkikuntza bidezko ezagutzak, gizabanako ororen eskemak eta elkar-ekintza sozial eta kulturalaren garrantzia azpimarratuko dute hauek. Korrante berrien baitan ikaskuntza prozesua bideratzeko metodologia berriak jaioko dira, eta horien artean “aktiboak” deituko direnak izango dira nagusitasun gehien lortuko dutenak. Hots, gizabanakoak hezkuntza tradizionalaren baitan paper pasiboa izan duela adierazten da, non edukiak jaso eta ikasi egiten dituen; oraingoan, aldiz, ikasten duen pertsona orok, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren protagonista bilakatuko da, eta jarduera, mugimendua eta ekintzaren bitartez garatuko ditu oinarrizko gaitasunak eta edukiak, eta prozesu horretan lagundu eta gidatzeko modu ezberdinetan jarriko da arreta (González Pineda, 2002).

Proposamen berri hauen baitan, eskolaz kanpoko ekintzek garrantzi handia hartuko dute, eta XX. mende hasieran korrante pedagogiko berrien eskola eredu batzuk sustatu zituzten irteerak eta udalekuak berreskuratuko dira. Ondarea bera baliabide ezin hobea bilakatuko da eskolan landutako edukiak ezagutu eta barneratzeko, eta hortaz, museoak, interpretazio guneak edota ondare-gune ezberdinak ikasle talde ugari hartzen hasiko dira. Aldi berean, eskolan barneratzen hasi diren teoria konstruktibistak ere euren lekua izango dute museoan, eta sortutako ekimen hezitzaile eta baliabideak bide horretan burutuko dira, transmisio hutsean oinarritutako jardueretatik egiten ikastera bideratuz (Arregi, 2011).

3.1.3.2. Ondarearen gaineko politika berriak

Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europa suntsitu bati aurre egin nahian, ondarearen berreskurapena eta babesean oinarrituko diren politika berriak sortzea beharrezkoa suertatzen da. Politika kulturalaren terminoa bera orduetik aurrera hedatuko da, Estatuak euren herrialdearen ondarearen gaineko ardura hartuko duten jarrera definitzeko¹². Honela, ondarea, iragana, memoria edo testigantza bezalako terminoek leku berezia izango dute herrialdeetako gizarte berriaren kultura panoraman (Díaz Balerdi, 2006a).

UNESCO-k 1972an Munduko Ondarearen Zerrenda irekiko du, herrialde bakoitzak bere kultur ondarea – monumentu, natur-gune eta aurri arkeologikoak¹³ – bertan txertatzeko. Zerrendan onartutako ondare elementuak *Munduko Ondare* izendapena

¹² “Su definición aparece en 1967 en la Conferencia de Mónaco y toma como punto de partida el artículo 27 de la Declaración Universal de los Derechos Humanos de 1948” (Aramburu, 2013: 69)

¹³ Urte honetan oraindik hiru elementu hauetara mugatuko da ondarearen kontzeptua, eta ondorengo hamarkadak arte itxaron beharko da beste mota bateko ondarearen gaineko arretarako

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

jasotzen du eta horren babes eta zainketarako jarrera sustatuko duten hainbat ekimen ziurtatuko direla esan nahiko du (Fontal, 2003). Hortaz, ondarearen gaineko begirada hedatuko da mundu mailan, eta horren gordetze eta babeserako jarrerak nagusituko dira.

3.1.3.3. Kameleoien garaia: Museoak azala aldatzen

Bigarren Mundu osteko egoerak guztiz aldatuko du ez soilik museoaren gaineko begirada, baita ondarea eta kulturaren ingurukoa ere. Museo gehienak hutsak eta hautsez gainezka, galdutako ospe baten baitan bizirauten eta tradizioan murgilduta aurkitzen dira 1945az geroztik (Bolaños, 2009). Horren aurrean, suntsitutako herrialde ezberdinak, euren memoriaren berreskurapenari ekingo diote, mundu berri baterako pausoak emango dituzten bitartean. Gerrak ondorio larriak sortuta ere, museoaren inguruko hausnarketarako abiapuntua ere izango da.

Alonso Fernándezek (1993), une honetan museoetan ematen diren aldaketak zerrendatzen ditu: gizarteari irekiago egongo diren museoak sortzen dira, tipologia berriak jaio, ondarearen garrantzia hedatu, museoaren funtzioaren inguruko hausnarketa eta eztabaida garaia ireki eta museoaren inguruko ikerketa eta praktikak abian jartzeko erakunde berrien sorrera garatzen da. Horrela, museoaren irekiera *boom*-aren hasiera apal bat emango da hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetan, demokraziaren bidean murgildurik aurkitzen diren herrialdeetako erreforma politiko, sozial eta ekonomikoekin batera (Valdés Sagüés, 2008).

1926an jaiotako Museoen Nazioarteko Bulegoan oinarrituta, 1946an ICOM-a sortzen da, *International Council of Museums* (Bolaños, 2008; Díaz Balerdi, 2010a; Álvarez eta Benjumea, 2011). ICOM-a izango da “una organización de museos y profesionales, dirigida a la conservación, mantenimiento y comunicación del patrimonio natural y cultural del mundo, presente y futuro, tangible e intangible”¹⁴. Aldi berean, aurrez sortutako *Museion* aldizkaria *Museum* bilakatu eta etorkizuneko museologiaren difusioaren oinarrietako bat bihurtuko da (Alonso Fernández, 1993). ICOM-en eraketa ezinbestekoa izango da, alde batetik, nazioarte mailan ematen ari diren berrikuntzak zabaltzeko eta ereduaren difusiorako; eta bestetik, ordura arte era independentean eta askotan intuitiboan aritutako nazioarteko museoaren profesionalen elkargune bat izateko, non gai ezberdinen inguruko hausnarketak burutu eta eztabaidatzeko zein profesionalki trebatzeko aukera emango zaien¹⁵.

¹⁴ ICOM. Definizioa. In <http://www.icom-ce.org/contenidos09.php?Id=27> (2015ko maiatzaren 24an ikusia)

¹⁵ Nahiz eta XX. mendean zehar sortzen hasiak diren Ipar Amerika eta Europan museologo elkarte eta profesionalen bilkura bereziak (Lorente, 2013)

a) *Museo hezitzailea*

Museoaren funtzio hezitzailea aurreko hamarkadetan agertzen bada ere herrialde anglosaxoietan, une honetan txertatzen da era ofizialean ICOM-en museoaren definizioan. Horrela, 1947ko Estatutuen arabera, museoa bat ez da soilik izango objektu kultural eta zientifikoak kontserbatu eta erakusteko erakundea, kontenplazio eta ikerketara bideratzen dena; oraingoan museoa hezkuntza helburua duen erakundea ere bilakatuko da, lehen aldiz kontzeptua era ofizialean agertzen delarik. Definizio honen eraketan garrantzitsua da hezkuntzaren funtzioa txertatzen dela, XIX. mendeko herentziatik jasotako ikerketa, kontserbazioa eta kontenplazioari gehituz.

Aldi berean, *Museum* aldizkariaren lehen aleak zein ICOM-ek antolatutako hastapeneko Kongresuetan hezkuntzak protagonismo berezia izango du museoari lotuta – 1958an Museoen Hezkuntza Funtzioaz seminarioa antolatzen da Río de Janeiron, eta *Museum* aldizkariako 1948ko gaia da “Museums and Education”. Hortaz, “frente a la clásica concepción de museo como espacio de deleite y contemplación, aparece una visión más amplia de la institución que permite considerarla dentro de aprendizaje y educación del público” (Zabala eta Roura, 2006: 238).

Museo hezkuntzaren garrantziaz jabeturik, 1963an eratzen da ICOM-en baitan CECA, *Committee for Education and Cultural Action*, hezkuntzari lotutako museoetako ekimen oro burutzen duten museoetako sailak izendatzeko ere erabiliko delarik terminoa. Esan daiteke, 1970 eta 1980 bitartean sortzen dela “una auténtica sensibilización hacia la función didáctica del museo y se plantean de forma explícita las posibilidades educativas de la institución museística” (Zabala eta Roura, 2006: 240).

Orain, beraz, ikasketa prozesuan esperientzian zentratzearen ardatza nagusi izango da eta, hezkuntza arautuaren sisteman hedatzen den bezala, ikasten duenaren deskubrimendu bitartezko ikaskuntza sustatzea da helburua, eta ez objektua oinarri duena. Era berean, museoa eskolatik desberdindu behar den esploraziorako espazio bezala ulertzen da, non motibazioa, interakzioa eta esperientzia nagusi den (Hein, 1998, Arriagak aipatua, 2011).

b) *Museo demokratikoa*

Hezkuntza funtzioaren nagusitasunaz gain, museoaren izaeraren baitan bestelako aldaketa bat gauzatuko da hirurogeita hamarreko hamarkadan: museoaren demokratizazioa edo gizarteratzea (Alonso Fernández, 1993). Proposamen honen planteamendua, ikusi dugun bezala, ez da berria. Jada 1889an, George Brownek, Smithsonian Institution idazkariaren laguntzaileak, adierazten du museoa gizabanako

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

ororentzat eta biztanleriaren talde guztientzat irekitako espazioa izan behar duela¹⁶. 1949ko *Museum* aldizkariko artikulu batean jada Gebhardek (1949) ideia hau berreskuratu eta adierazten du: “Museums of the future will be museums for the public; otherwise, there will be no future for museums” (162 or.).

XX. mende hasieratik museoak tenpluak izatearen kritika jasotzen badute ere, ez da benetan indartuko erakundearen aldaketa baterako joera II. Mundu Gerra arte. Hortaz, gerra ostean museoaren bigarren krisia emango da, eta erakundearen izaera eta funtzioen inguruko kritika gogorak jasango ditu orduetik aurrerako urteetan, gizarte berri bati erantzun beharko dion museo bat erreklamatuko dutelarik talde ugari. Iritzi orokortuaren adierazgarri nagusienetakoa izango da *Gioconda metrora* ekimena, “(que) sintetiza perfectamente estos años de convulsión, redefinición y puesta a punto de nuevas soluciones museológicas, museográficas y conceptuales” (Álvarez eta Benjumea, 2011: 31).

Gizarteari irekita egon beharraren kritika guzti hauek “estimularon la aparición de nuevos y singulares museos así como de una renovación de la ciencia de los museos que vino a denominarse, *nueva museología*” (Carreño, 2008: 83), zeinak planteatzen dituen museoaren errealitate konplexu eta ezberdin baten aurreko proposamen berriak, garaiko museologiaren kontzeptualizazioak ekiditen dituen aldaketak, hain zuzen ere (Navajas, 2015).

1971an Grenoblen eta Parisen antolatutako «El Museo al servicio del hombre, hoy y mañana» lehen pausoa izango da museoaren irekieraren kontzeptualizaziorako; eta 1972an, ICOM-ek antolatutako Santiago de Chileko Mahai-inguruan, Museologia Berria deiturikoaren lehen adierazpen publikoa egiten da (Valdés Sagüés, 2008). Ideia guzti hauen finkapena *Quebec-eko Deklarazioa*-rekin iritsiko da, herrialde desberdinetara hedatzen hasia den Museologia Berriaren garapen indartsuarekin batera (Díaz Balerdi, 2002).

Museologia Berriaren ideiek berebiziko garrantzia izango dute Suitzan, Kanadan eta Frantzia (Hernández Hernández, 2006). Kanadan Duncan Cameronek (1971) idatzitako *El museo: templo o foro*, oinarrizkoa izango da museoaren erakundearen aurreko jarrera berria ulertzeko (Zubiaur, 2004) eta herrialde hau – zonalde frankofonoa batik bat - bihurtuko da “el paradigma de lo que ha sido y es la nueva museología” (Díaz Balerdi, 2002: 493). Aldi berean, Frantzia¹⁷, Henri Rivière eskutik garatuko dira joera berri honen ideia nagusiak, eta baita Desvallèesen eskutik ere.

¹⁶ “The museums of the future in this democratic land should be adapted to the needs of the mechanic, the factory operator, the day labourer, the salesman, and the clerk, as much as to those of the professional man and the man of leisure (sic)” (Gebhard, 1949: 162)

¹⁷ 1982an sortzen da MNES, *Asociación Muséologie nouvelle et experimentation sociale* (Hernández Hernández, 2006)

Espanian Luis Alonso Fernándezi (2012) esker garatuko dira Museologia Berriari buruzko lehen lanak, eta horietatik abiatutako proposamen garrantzitsuak emango dira.

3.1.3.4. Museoak eta hezkuntza

a) Hezkuntza sailak

AEB, Kanada, eta Britainia Handia kasuan jada XX. mende hasieratik garatzen hasiak dira hainbat ekimen hezkuntzari lotuta (Morley, 1948) eta beraz, departamentuak – edota horien aurrekariak – gainerako Europakoak baino lehenagokoak izango dira (Alonso Fernández, 1993). Aldi berean, herrialde horietako hezkuntza sailen errekonozimendua handiagoa izango da oraingoan, eta horrek eragiten du euren jardunaren balorazioa eta ekimenen babesaren izatea (Henri Rivière, 1949). Europan, aldiz, hirurogeiko hamarkadatik baina batez ere hirurogeita hamarreko hamarkadan sortuko dira museoetako hezkuntza sailak (Valdés Sagüés, 1999; Rico Cano, 2009; Arriaga, 2011).

Gauzak honela, museoetako langileen profila behar berrietara egokitu behar den heinean, kontserbadore, atezain edota ikertzailetik haratago doan figura berrien agerpena eragiten du, museoko hezitzailearena – begirale edota gida ere deitua toki batzuetan – . Hala ere, herrialde bakoitzeko marko legala zein museoen izaera ezberdinen baitan perfil profesionalen garapen ezberdina emango da, akademikoki ere erantzun mota asko jasoko direlarik nazioarte mailan.

Pixkanaka, unibertsitate zein museoetako erakunde ezberdinak eskaera berriari erantzuna ematen hasiko dira, hasiera batean museologia ikasketak burutzeko beharra antzematen delarik orokorrean. Mundu mailan erreferentziazkoak bihurtzen diren ikasketa programa berriak eratuko dira eta Díaz Balerdik (2006d) hiru faktore nagusi aipatzen ditu museologia unibertsitateko diziplina bezala onartua izateko prozesuan: Museoko teknikariak trebatzeko jarrera egokia eta etorkizuneko formakuntza sistematiko eta zuzurra finkatzekoa; ICOM-ek buruturiko jarduerak – ICTOP, *Langilegoaren Trebakuntzarako Nazioarteko Batzordea* – ; eta sistema burokratiko-administratiboen malgutasuna eta unibertsitateko irakasleak egoera berrira egokitzeko erraztasuna.

Beraz, herrialde ezberdinetan erantzunak ematen hasiko dira egoera berrira moldatuz: Britainia Handian *Museum Studies* sortzen da hirurogeiko hamarkadan, Leicesterreko Unibertsitatean; AEB-n Smithsonian Institution bezalakoak ikastaroak eta masterrak eskaintzen hasten da, eta hirurogeita hamarreko hamarkadan *Museum Education* trebakuntza espezifikoa eskainiko dute George Washington Unibertsitatean, *Museum*

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Work and Museum Problems eskainiko da Harvardeko Fogg Museum-en edota Rockefeller Fundazioaren bitartez MOMA-k (Lorente, 2010).

Zellerrek (1989, Arriagak aipatua, 2011) aipatzen duenez, jada XX. mende hasieran, New Yorkeko Metropolitan Museoko hezkuntza saileko arduradunak dio, departamentuaren funtzioa irakasleekin kooperazioa burutzea dela, museo arte, historia edota literatura irakasleko baliagarria izan dadin. Europan ere, II. Mundu Gerra ostean, eskola-museoa binomioa izango da nagusi. Horrela, lehen hezkuntza sailtako profesional asko irakasleak izango dira, “lo que hizo que sus metodologías se asemejaran a las empleadas en la enseñanza formal (López eta Alcaide, 2011: 22).

b) Hezkuntza ekimenak

II Mundu Gerra ostetik hasita, baina indar bereziarekin hirurogeiko hamarkadatik aurrera, museoetako hezkuntza ekimenak dibertsifikatu eta hedatuko dira nazioarte mailako museoetan. Horrekin batera, museografiako planteamenduak eraldatzen dira eta ikaskuntza aktiboaren garrantzi berriari jarraiki ukitu eta manipulatzeko elementuak txertatuko dira erakusketetan. Beraz, “(a) el modelo antiguo del museo expositor de objetos se añadieron nuevos planteamientos, en la forma de museos participativos, en los que no sólo se muestra sino que también se informa, se experimenta y demuestra” (Alderoqui, 1996: 19).

Museoetako ekimenak Deweyren *egiten ikastearen* ideian oinarrituko dituzte proposamen berriak, tailer, jolas zein esperimientuen bitartezko edukien lanketa proposatzen hasiko direlarik – XX. mende hasieran AEB-n frogatzen hasiak diren metodologiak – . Museoak, objektuan zentratzetik, publikoan zentratzera igaroko dira beraz, (Hooper-Greenhill, 1998).

Ikaskuntza aktiboaren indartzearekin, publikoak egiten ikasteko jarduerak nagusitzen dira, era guztietako tailerrak eta laborategi proposamenak hedatzen direlarik nazioarteko museo nagusietan. Hirurogeiko hamarkadaren amaieran *Children’s Art Carnival* proiektua garatzen da New Yorke, MOMA-ren baitako ekimen bat bezala – urte batzuk beranduago egitura independentea lortuko duena – non artea haurrengana gerturatzeko tailerrak gauzatzen diren¹⁸.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan Bruno Munari Metodoa abian jartzen da Italian. Bruno Munari artistak, bere lankideen laguntzaz, haurrentzako arte laborategi ezberdinak sortuko ditu, non ezagutza jokoan oinarritzen den. Lehen proiektua 1977an eramaten da aurrera Milanen, Brerako Pinakotekan, artistak museo barnean haurrei

¹⁸ The Children’s Art Carnival. Description & History. In <http://www.nycservice.org/organizations/861> (2017ko urtarrilaren 22an ikusia)

dedikatutako espazio bat sortzeko enkargua jasotzen duten unean¹⁹. Honen aurrean, Munarik hiru hilabeteko iraupena duen programa bat proposatzen du espazio horretan aurrera eramango dena *Giocare con l'arte* – artearekin jolastuz – izenpean. Ideia honen oinarrian dago “un approccio basato sul «fare per capire», sul «fare per conoscere», attraverso la sperimentazione diretta”²⁰. Laurogeita hamarreko hamarkada arte, Laborategi berriak irekiko dira munduko herrialde ezberdinetan: Venezuelan, Jerusalemen, Frantzian, Japonen eta Espainian.



Irudia 1: Bruno Munariren Laborategi bat (Iturria: Associazione Bruno Munari. www.brunomunari.it)

Difusio lanek aurrera jarraituko dute, eta mende hasierako hitzaldi, kongresu eta jardunaldiak ere egingo dituzte museoek, euren bilduma, edota ikerketa berrien ideiak, zabaltzeko ekimen moduan. Era berean, aisialdi edo entretenimendura begira dauden proposamenak ere nagusitzen hasiko dira museoetan Bigarren Mundu ostean; izan ere, “the growing tendency of the general public to consider the museum as an instrument of both instruction and enjoyment has resulted also in the increased use of museum buildings for related activities” (Morley, 1949: 21). Beraz, musika kontzertuak, antzerki saioak, olerki emanaldiak edota bestelako jarduera kulturalak antolatzen hasiko dira (Henri Rivière, 1949).

Ekitaldi hauekin batera sortzen dira historiaren birsortzerako lehen elkarteak, *living history* edo *historical reenactment* izena hartzen duten ekimenak antolatuko dituztenak hirurogeita hamarreko hamarkadan; AEB-n jaio, eta gerora Britainia Handira eta Alemaniara hedatuko direnak (Noain, 2012).

¹⁹ Breve storia dei laboratori. Metodo Munari. In <http://brunomunari.it/index2.htm> (2015ko maiatzaren 19an ikusia)

²⁰ “«egiten ulertu» eta «egiten ezagutu» ideietan oinarritutako ikuspuntua, esperimentazio zuzenaren bitartez”. Breve storia dei laboratori. Metodo Munari. In <http://brunomunari.it/index2.htm> (2015ko maiatzaren 19an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Museoa bera erakundearen eraikinetik atera eta gizabanakoen beste eremu batzuetara mugitzearen ideia ere sortzen da urte hauetan, komunitate museo eta gizarte museoekin estuki lotuta aurki daitezkeen joera izanik; erakusketa aretora hurbildu ezin diren publikoarengana gerturatzea ere museoaren helburuetako bat bilakatzen da. Honela, museoetatik abian jartzen dira erakusketa mugikorrek edota espazio ezberdinetan garatu daitezkeen jarduerak. AEB-n Boston Children Museum-ek programa ezberdinak garatuko ditu “to include as much of the community as could be reached: staff worked with hospitals, community centers, and other agencies, in addition to schools” (Hein, 2013: 70).

Baliabide materialen kasuan, museografiaren baitan jada sortzen hasiak dira erakusketako kartela eta azalpen orrietatik haratago doazen elementuak. Eskola taldeen etorrerarekin museo asko konturatzen dira estandarizatutako erakusketak eta bertako elementu museografikoak ez direla baliagarriak publiko mota desberdinentzat. Horrek sortzen dituen zailtasunei aurre egiteko erakusketatik at dauden material gehigarriak diseinatzen dituzte, museoan ikusiko denaren lagungarri izango direnak. Fitxa eta koaderno didaktikoak diseinatuko dituzte hezkuntza arautuko adin maila bakoitzari egokituta, zenbaitetan ikus-entzunezkoak ere museotik kanpo erabiltzeko, ikasleek ukitu ahal dituzten erreproduzioak sortuko dira edota eramangarriak materialak asmatuko dira, guztia transmititu nahi diren edukien ulermena errazteko eta praktikaren bitartezko ikaskuntza sustatzeko – lehen maleta didaktikoak sortzen dira, adibidez, V&A Museoan (Morley, 1948).

d) Museoko publiko berria

Hezkuntza sail berrietako lehenengo proposamenak eskolari lotutakoak izango dira. Oro har, ikasleak dira, antza, departamentu hauetako ekimenen hartzailerak ia bakarrak eta museoa, beraz, eskolaren luzapena bezala ulertzen da hasiera batean, lehen ekimenak hezkuntza curriculumean oinarrituz (Rico Cano, 2009). Horrela, aurreko urteetako aldizkako ikasleen bisitak sistematizatu eta eskaintza finko eta garatua diseinatuko da.

Ikasleez gain, publiko orokorraren baitan topatu daitezkeen bisitari moten arretarako programak agertuko dira. Berrogeita hamargarren hamarkadatik aurrera, AEB eta Kanadan, jubilatutako edota hirugarren adineko pertsonentzat diseinatzen dira ekimen zehatzak lehen aldiz (Gómez Martínez, 2006), hirurogeita hamarrekoko hamarkadatik aurrera hedatuko direnak. Publiko helduaren bisitak ere proposatzen hasiko dira, garatutako herrialdeetan zabalduko diren ongizate estatuarekin batera, aisialdirako

denbora gehiago izateak eragiten duelako kulturari loturiko espazio ezberdinetan jarduerak burutzea. Horrela, laurogeita hamarreko hamarkadan, indar berezia hartuko du publiko mota honek. Egoera hau indartuko da turismoaren hedapenarekin batera, non entretenimendua, kultura espazioetan bilatuko duten bisitari masa handiek – museoetan, nagusiki –.

Era berean, hirurogeiko hamarkadan sortzen dira AEB-n belaunaldi ezberdinetako taldeei zuzendutako proiektuak, batez ere kulturalki zein ekonomikoki gainbeheran dauden komunitateen baitan. Programa hauek, beraz, hiritarren parte-hartzea eskatuko dute, hiritartasunerako hezkuntza oinarria izanik erakunde, talde eta elkarte desberdinen harremana sustatuz (Gillate, Ibáñez eta Vicent, 2012: 65).

Baina, museoak, tradizionalki ondarearen babes eta ikerketara dedikatutako erakundetik gizartera ireki eta publikoari bideratutako espazioa bihurtzera igarotzea ez da lan erraza izango. Lehen arazoa, museoek euren publiko edo bisitaria nor den ez dakitela izango da; edo behintzat, ez dela ezagutzen era sakonean eskaintza edo proposamenak euren beharretara egokitu ahal izateko. XX. mendearen hasieran jada existitzen dira lehen publiko ikerketak AEB-n, baina ez da hirurogeita hamarreko hamarkada iritsi arte arlo honen egonkortasuna emango (Pérez Santos, 2008). Orduan ematen da benetako produkzioa Shettel eta Screven bezalako autoreen lanekin (Vicent, 2013).

Publikoaren gaineko interesa handitzen den heinean, irisgarritasun fisikoa, soziala eta intelektualaren inguruko planteamenduak agertzen dira museoan, eta horrela, gutxiengo soziala diren talde askorentzako eskaintzak diseinatzen hasten dira. Pixkanaka, eta laurogeiko hamarkadatik aurrera batez ere, publiko motaren zabaltze bat emango da (Arriaga, 2011).

3.1.3.5. Nazioarte mailako museoak

Museo tradizionalaren ideiatik haratago eta erakundearen baitan ematen diren aldaketa berriekin batera – hezkuntza sailen eraketa, ekimenen dibertsifikazioa eta publiko berriaren agerpena – , museo motak zein hauetan erakusten den ondarearen izaera ere desberdina izango da.

Hirurogeiko hamarkadan zehar sortutako ingurugiroaren krisi globala dela eta, mundu mailan jardunaldi eta kongresu ezberdinak antolatzen dira egoerari aurre egiteko irtenbideen bila²¹. 1972an, Estocolmon NBE-ren jardunaldiek etorkizuneko ildoaren hasiera jarriko dute, bertan zehazten baita ingurugiro hezkuntza izango dela oinarria

²¹ Lehena Estokolmoko Deklarazioa; ondorengo urteetakoak Belgradoko Gutuna, Tbilisiko Gobernu-arteko Konferentziako Deklarazioa eta Naturaren Munduko Gutuna, 1982koa besteak beste. IPA. 1.kutxa

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

etorkizuneko garapenerako. Horrela, gizarteko talde ezberdinak hasten dira kontzientziazten ingurugiroaren inguruan, eta ondare naturalaren zainketa lehen pausoa izango da (Blanco, Benayas del Álamo eta Gutiérrez, 2000). 1992ko Rio de Janeiroko NBE-ren Konferentzian ideia hauek egonkortzen dira, eta gobernuei deia egiten zaie estrategia berriak diseinatu eta integratu ditzaten (Fontal, 2003). Espazio naturalen eta ingurugiro elementuen musealizazioari ekingo zaio, hala nola gai honen inguruan sortutako erakusketa eta Interpretazio Zentro berriak²².

Museologia Berriaren ideietatik abiatuz, Frantzian sortzen da Ekomuseoa, gerora Kanadara hedatzen dena eta Latinoamerikan ere eragin handia izango duena. Ekomuseoa terminoa 1971an erabiltzen du lehen aldiz Hugues de Varine-Bohanek ICOM-eko Konferentzia Orokorrean²³, eta lurralde zehatz baten paisaia, historia, tradizioa, jarrerak eta lan egiteko moduak bezalakoak biltzen dituen museo-lurraldeak izendatzeko erabiltzen da, komunitate propio baten baitan garatutako identitatezko espazioak (Martínez Valdajos, 2014). Museo mota berri hau “(está) ligada a las tendencias autogestionadoras, ecologistas y contraculturales de la década de 1960, y en menor medida, a la política estatal de descentralización territorial y al auge del turismo” (Bolaños, 2008: 282). Izan ere, Frantzian, hirurogeiko hamarkadan, potentzialtasun turistikoa duten landa eremuak existitzen dira, hirietatik oso hurbil, baina guztiz alderatuta geratzen dira zirkuitu kultural eta ekonomiko orotatik. Proposamen berri honek garapenerako tresna berri bat eskaintzen zuen, eta museo tradizionalaren lau paretara eta objektu materialen bildumatik haratago, lurralde zati bat bere baitan hartzen duen espazioa bilakatzen da ekomuseoa (Gómez Martínez, 2006), eta iraganaren erakusgarri baino lurralde garapen eta turismoan eragina izan behar duten elementuak bilakatzen dira (Roigé eta Arrieta, 2014). Tipologia berri honek arrakasta izango du Frantziatik at ere, Kanadan adibidez hirurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera Desvallések koordinatutako mugimendua hedatuko delarik (Zubiaur, 2004).

Ekomuseoari estuki loturik, mendearen bigarren erditik aurrera etnografia museoek eta landa eremuko ondarearen musealizazioak ere indarra hartuko dute – nahiz eta mende hasieran sortuak diren lehen museo etnografikoak – eta, oraingoan gerraosteko herrialdeek euren identitatea, memoria eta izaera berreskuratzeari ekingo diote gogorki. Aldi berean, museologiako korrante berriek agerturiko jarrerarekin bat eginik,

²² Amerikako Estatu Batuetan eta Kanadan jada XIX. mende amaieran sortuak dira lehen espazio naturalen erabilera publikoak eta XX. mende hasieran irekitzen dira Yosemite, Yellow stone (AEB) eta Jasper eta Banff Natura Parkeak (Kanada). Aurrekari hauek oinarri izanda, garai honetan hedatuko dira munduan zehar ingurunearen gaineko begirada berriak eta horrek museo eta interpretazio zentroen sorreran eragin zuzena izango du.

²³ 1971 eta 1974 bitartean, eta Rivière zein De Varineren babespean, Le Creusot/ Montceau-les-Mines zonaldeak martxan jartzen den lehen proiektuetakoa da Ekomuseo batena (Hubert, 1985)

museo etnografikoa aurkezten da tipologia erabilgarriena bezala, objektu beraren balio materialetik haratago joan nahi duen museo mota bat delako (Zubiaur, 2004).

Museologia Berrien ideietatik abiatuz eta, kasu askotan, ekomuseoaren eredian oinarrituz, tipologia berriak eratorriko dira. Ertamerika eta Hego Amerikan Komunitate Museo izendapena hartuko dute. Kolonizazioaren aurreko zein independentzia prozesuetatik abiatuz, herrialde hauetako identitatearen berreskurapena eta lurraldeari atxikitako komunitatearen indarrari loturik garatuko dira (Martínez Valdajos, 2014). Bestalde, Ipar Amerikan eta Kanadan, batik bat, Gizarte Museoak deiturikoak sortuko dira (Bergeron, 2009) eta AEB-n Neighbourought Museum-ak sortuko dira, hirietako museo handietatik haratago komunitate txikiei eta auzoetan bildutako biztanleriari begira egongo direnak. Lehena Anacostia Neighborhood Museum izango da 1971an, “(que) se fundó como un servicio a los vecinos del barrio en el que está situado. [...] Fija sus propias prioridades en lo concerniente a la gestión del personal, las exposiciones, los programas educativos y cualquier otra actividad” (Bolaños, 2008: 287).

Haurren museoak ere ugartuko dira hirurogeiko hamarkadatik aurrera - European laurogeiko hamarkada arte itxaron beharko da – nahiz eta lehena New Yorken ireki zen, Brooklyn Children’s Museum 1899an (Hein, 2006) – eta museo mota honek izango du “una línea más pedagógica (no sólo «hacer», sino también reflexionar, reelaborar, crear, etc.)” (Rico Cano, 2009: 147). MOMA-k, adibidez, Harlemenko auzoan irekiko du 1969an espazio hezitzaile bat, gerora zentro autonomo bezala funtzionatuko duena *Children’s Museum of Manhattan* izenapean (Santiago Restoy, 1999).

Arte garaikideko museoek ere euren lekua izango dute oraingoan, eta gerraosteko artista europar askoren erbesteratzeetik eratorrita, AEB izango da – New York orain artearen hiriburu izanik – mota honetako espazioen irekieran nagusi. Arte Ederretako museoak, beraz, historiaren erakusleho izaten badira, arte garaikidekoak momentuaren erakusgarri bilakatuko dira, bizirik dauden artisten lanak ezagutzeko ezinbestekoak. Era berean, Parisen, 1977an inauguratuko den Pompidou Zentroak, museo tipologiaren aldaketa esanguratsu bat markatuko du, sormen garaikidearen espazio edo laborategi bihurturik, ez soilik erakustokia (Gilabert, 2011).

Ondare zientifikoak ere izango du bere lekua museo berrietan. Zientzia museoak ordura arteko Historia Naturaleko museoei aurre hartuko diete, eta hauek ere – Pompidouk bezala – museoa ulertzeko modu berria agertuko dute. Izan ere erakundearen tradizioarekin hautsiko dute, non erakusketa batean ukitu ezin daitezkeen objektuak behatzen diren, bitrina eta tertziopelozko soken atzean babesturik. Hots, zientzia museo berriak “simply watching” horretatik Deweyren

proposamenetan oinarritutako “learning by doing”-era igaroko dira museografiatik abiatuta eta ez osagarriak diren jarduera edo ekimenen bitartez (Hidalgo Gil, 2012). Museo mota honen aurrekariak Palais de la Découverte-en aurkitzen ditugu, 1937an Parisen ezarritako erakusketa – gerora museo iraunkorra bihurtuz – (Bolaños, 2002). Honen arrakastatik abiatuz hirurogeiko hamarkadan jaiotzen dira lehen Zientzia Museoak AEB-n, lehena San Franciscoko Exploratorium-a izanik. Hauetan objektuak manipulatu eta esperimenduak egiteko aukera eskaintzen zaie bisitariei, eta kontzeptu abstraktu eta ulertzeko zailak diren horiek biztanleriaren gehiengora gerturatzeko helburua dute (Hein, 2013).

3.1.4. XXI. mendeari begira

Bigarren Mundu Gerrako gizarte berriaren eraketa eta nazioarte mailako herrialde ezberdinen egonkortze prozesuari jarraiki, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera mende berriari begira garatuko da garai postindustrial edo postmoderno bezala definitu dena, mundu globalizatu berri batez jabetuz (Marks, 2015). Sobietar Batasunaren erorketa, Gerra Hotzaren amaiera eta antzinako nazio europarren askatasun berriak bat egingo du AEB-ren nagusitasun ekonomiko, politiko eta militarrekin.

Gerra osteko komunikabideen hedapena, zerbitzu sektorearen nagusitasun geroz eta handiagoa eta ezagueraren zabalpena oinarri izanik sortzen da beraz Informazioaren Gizarte berria, sistema sozial, ekonomiko eta politiko egituraketa berrien baitan, eta horretatik abiatuz eboluzionatuko du parte-hartzearen gizartea deitzen dutenera (Asenjo, 2014).

Ongizate Estatuan ekonomiaren garapenaren bultzada izugarriari jarraiki, teknologia berrien agerpenak suposatuko ditu berebiziko aldaketak mundu osoko bizimoduan, alderdi eta eremu guztietan funtzionatzeko egoera berri bat planteatuz. Era berean, mundu mailan komunikatzeko eta jarduteko era berriak jaioko dira, Interneten agerpenarekin estuki loturik hirurogeiko hamarkadaren amaieratik.

3.1.4.1. Ikaskuntza joerak eta teknologia berriak

Hezkuntza sistemari dagokionez, betidanik gai zalapartatsua izan bada ere, are gehiago gertatzen da garai honetatik aurrera, non ikerketa eta teoria amaigabeen artean mugitzen diren estatu ezberdinetako agintari zein adituak, eta sistema orokortu eta eraginkor bat eratzeko proposamenak etengabekoak izango direlarik (García eta García, 2005).

Hezkuntza sistemen baitan gaitasunetan²⁴ oinarritutako sistema hau erabiltzen hasia da ordurako ELGA-k - Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea – , ikasleen gaitasun edo konpetentzietan arreta ipiniz jakinduria akademikoan baino. Horren ondoren Europar Batasunak planteamendu berberak barneratu eta Europar Batasuneko Gomendioa sinatzen da 2006ko abenduaren 18an (Tiana, 2013).

Pedagogia alorreko joerei dagokionez, ikaskuntzaren baitako teoria berriak agertuko dira garai honetan ere. Alde batetik, hezkuntzaren kontzeptua zabalduko da – aurreko hamarkadetatik jada zabalduko gaia – eta eskolaz kanpoko ikaskuntza baten inguruko ikerketak, hausnarketak eta praktikak nagusituko dira.

Bestalde, hezkuntza teoria berrien hedapena ere emango da, Gardnerren Adimen Anitzak izango delarik berrienetako bat (Rubiales, 2015), laurogeita hamarreko hamarkadan kaleratutako teoria eta ondorengo urteetan garatu eta hedatutakoa²⁵. Honen baitan, Gardnerrek, pertsona batek dituen adimen ezberdinak zerrendatu eta desberdintzen ditu, zapira mugatuz: linguistikoa, logiko-matematikoa, espaziala, kinestesikoa, musikala, interpertsonala eta intrapertsonala. Era berean, adimenaren kontzeptua gaitasun bezala hartzen du eta, hezkuntza alorrari dagokionez dio adimen bakoitza moldagarria dela, eta beraz, irakats daitekeela; gizakia adimen guztiekin jaiotzen dela eta familia, eskola eta gizarte inguruneak bideratuko dutela adimen horien egituraketa berezia gizaki bakoitzarengan; batzuk gehiago garatuko direla, beste batzuk gutxiago, eta beste batzuk batere ez, eta hezitzaileek ikasleen adimen potentziala hobetu dezaketela (Sanz de Acedo, 2000).

Planteamendu hauek bultzatu zuten hainbat ikertzailek horien inguruan lan egitera, ikaskuntza prozesu homogeneousatu batetik atera eta aukera berriak bilatuz etorkizuneko pertsonen hezkuntza alorretan aplikatzeko. Horrekin batera, azken urteetan hedatu den joera berri bat Golemanek (1996) garatutako adimen emozionalari dagokio. Honen arabera, gaitasun akademiko altuak ez du ziurtatzen bizitzaren baitan zorientasuna lortzeko bermerik, eta hortaz, emozioetan hezi beharraren alde egiten du (Pollán, 2001). Azken urteetako ikerketek beraz teoria honen indarra bermatu besterik ez dute egin, baieztatu baita “that learning cannot be separated in the Cartesian sense between rational thought and emotion nor neatly divided into cognitive [...], affective [...] and psychomotor [...] functions” (Falk eta Dierking, 2000). Ideia berri hauen aplikazioa

²⁴ “Bizitzako alor eta egoera pertsonaletan, sozialetan, akademikoetan eta lanekoetan — diziplina-arlo guztietan nahiz eguneroko bizitzan —, arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak dira. Arlo edo ikasgai guztietan batera lan eginez sustatu eta sendotu behar dira, eta bizitzako alor eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira”. *Heziberri 2020. 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.*

²⁵ Gardnerrek 1983, 1987, 1987, 1993, 1995 eta 1999 urteetan argitaratzen ditu hainbat lan teoria honen inguruan (Sanz de Acedo, 2000)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

hedatzen hasiko da zenbait eskoletan, baina hezkuntza sistemaren baitako txertaketa ez da erraza izango sorturiko curriculum lerroen baitan.

Pedagogia teoria eta joeren baitan, XX. mende hasierako ideiak berreskuratu eta hirurogeita hamarreko hamarkadan zabaltzen hasitakoekin batera txertatuko dira oraingoan. Hots, ikaskuntza aktiboaren garrantzia geroz eta ageriagokoa izango da hezkuntza arautu zein ez arautuko jardueretan. Horrekin batera, azken hamarkadetan ikaskuntza kooperatiboaren garrantzia zehaztuko dute hainbat teorilarik, eskola alorrean ez ezik gizarteko beste esparru batzuetan aplikagarriak diren ideiak agertuz. Hauetan talde lana sustatu, elkarrekin bizitzen ikasteko proiektuak garatu eta orokorrean, gizartearen parte izaten laguntzeko ekintzak sustatuko dira.

Honi indarra hartuko du Siemensek (2005) garatutako konektibismoa, zeinak zehazten duen ikaskuntza konexio ezberdinen bitartez sortzen dela, askotan gizabanakoaren barnean aurkitzen ez direnak Horrela, ikaskuntza bide eta arrazoi ezberdinen baitan ematen da, komunitatean edo taldean burututako ingurune batean. Horregatik, informazio eguneratua bilatu eta ikaskuntza jarraitu bat izateko erlazio ezberdinak mantentzea oinarritzkoa da.

Baina dudarik gabe, bi mendeen arteko hezkuntzan eragin handiena izan duen elementua teknologia berrien agerpena izan da – IKT – , zeinak irakaskuntza jardueran laguntzeaz gain, ikaskuntzarako bide berriak ireki dituen. Hortaz, teknologiak eskaintzen duten baliabide guztiak aprobetxatu eta ikuspegi tradizionalista gainditu behar dela onartzen hasi da, ikaskuntza teorien ezaguerarekin batera arrakastarako bidea baita (“Entrevista a Mikel Asensio”, 2008).

Izan ere, tresna berrien garapenetik abiatuz eta Interneten sorrerarekin indartuz, mundu mailako eremu guztietan lan egiteko erak aldatu dira. Iraultza teknologikoa deitu den honetan gailu mugikorrek protagonismoa hartuz joan dira, eta egun smartphone, tablet edota eramangarriak diren bestelako gailuak nagusitzen dira (Gallego eta Brazuelo 2011). Horrela, “en las últimas décadas se está promoviendo una relación entre la sociedad y las nuevas tecnologías como generadoras de nuevos saberes y como soporte de la educación no convencional (Cruz Rodríguez, 2004, Cambilek aipatua, 2010). Hots, teknologia berriak ikaskuntzarako tresna interesgarria direla baieztatu da, interesa, curiositatea, sormena eta imajinazioa bultzatzen duelako eta era berean, gaitasun digitalaren garrantzia antzemanda, horiek garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dutelako (Kukulka-Hulme, 2007).

Tresna eta erreminta eraginkorrak eskaini ez ezik komunikaziorako eta sarete sozialerako hamaika aukera eskaini ditu Interneten hedapenak. Horrela, pertsona orok informazioa erraz eta azkar eskuratzeko aukera, komunikazio modu berriak zein eduki

eta ideien difusiorako espazio anitzak topatu ditu. Era berean, ikaskuntza pertsonalizatu bat ahalbidetzen dute aplikazio eta programa ezberdinek (Sampsons eta Zervas, 2013), horrek XXI. mendeko ikaskuntza joerekin bat egiten duelarik.

Teknologia bitartezko ikaskuntzak – *technology enhanced learning* – interes berria sorrarazi du hainbat ikerlarien artean. Honen baitan irakatsi eta ikasteko prozesuan berriak diren modalitateak jaiotzen dira: *Ubiquos learning* zein *mobile learning*, besteak beste. *Mobile learning*-a da “(una) modalidad educativa que facilita la construcción del conocimiento, la resolución de problemas de aprendizaje y el desarrollo de destrezas o habilidades diversas de forma autónoma y ubicua gracias a la mediación de dispositivos móviles portables” (Gallego eta Brazuelo 2011: 17). *Ubiquos learning*-ak, aldiz, “es la posibilidad de acceder a la información en cualquier lugar o cualquier momento, la interacción con pares y expertos eruditos y oportunidades estructuradas de aprendizaje desde una variedad de fuentes” (Burbules, 2012: 4), honek motibazioan ere eragina izango duelarik, elkarlanean oinarritutako ikaskuntza bat ematen delako (Vicent, 2013).

Tresna berri eta ikaskuntza mota desberdinetatik abiatuta, aplikazio eta jarduera desberdinak sortu dira horiei lotuta, hezkuntzaren gamifikazioak nagusitasuna lortu duelarik teknologia berriei estuki lotuta (Sung eta Hwang, 2013). Hauetan, bideojokoen erabilera hezitzailea izan da nagusi, baina baita bestelako joko batzuen aplikazio digitalak ere. Horrela, “pedagogia ludikoa” deitu dena nagusituz joan da, non arazoan irtenbide bilaketa jokoen bidez burutzen den (Huizinga: 1972; Cuenca, 2004; Revuelta, Valverde eta Esnaola, 2013; Jiménez eta Cuenca, 2015). Bestalde, errealitate birtualak eta errealitate areagotuak bere lekua hartu dute arlo honetan, non espazio baten birsortze partziala ikusi edota errealitate paralelo batean murgiltzeko aukera eskaintzen den era bateratuan. Guztietan, zentzumen ezberdinak barne hartzen dira irudien baitako murgilketa bat egiteko, eta aplikazio hauen bitartezko ikaskuntzak eragina izan du prozesuak ulertu zein gauzatzeko garaian (Asenjo, 2014).

Hauekin batera, sare sozialek ere nagusitasuna lortu dute eta hezkuntza alorrerako aukera paregabea eskaini dute – Twitter, Facebook, Youtube, Instagram – . Izan ere, espazio hauetan pertsona orok du edukiak sortu, partekatu, eraldatu edota hauen gaineko iritzia emateko aukera, horrek irakaskuntza-ikaskuntzaren bestelako maila batetara eramaten gaituelarik eta era berean paradigmaren aldaketa batetara eramaten gaituelarik, ikasten duena mezuaren hartzaille izatetik igorle eta hartzaille izatera pasatuz (Kaplún, 1998; Viñarás eta Caerols, 2016).

3.1.4.2. Museoak eta entretenimenduaren kultura

Museoak bi eremu ezberdinen ardatz bilakatu dira azkeneko hamarkadetan: alde batetik, ikuskizun eta aisialdiaren ildotik mugitzen den esparruko aktore lez, eta bestetik, turismo kulturalaren bideari jarraiki garaturik. Bi esparru hauei lotuta sortu dira beraz XX. mende amaiera eta XXI. mende hasierako museo berriak, eta aurretik existitzen direnekin batera finantza arazo eta garai postindustrialaren baitako eskakizunei moldatu behar izan dira (Calaf, 2009).

Ez da kasualitatea 1998ko *Museum*-eko alea turismoari dedikatutakoa izatea; izan ere, garaiko ondare eta museoen eragin zuzena bilakatzen hasia baita turismoaren praktika masiboa. Graburnek (1998), bertako artikuluko batean aipatzen ditu turismoa eta museoak arrakasta izatearen arrazoiak gizartearen gehiengoa eta mundu osoko egoerarako zein izan daitezkeen. Bere ustez, orain ez da eliteari erreserbatutako arlo bat – jakinduriarena, gozamen estetikoarena, ezagutzarena – , eta erdi klaseak bihurtzen dira kulturarekiko interesa agertzen hasten direnak.

Egoera honetan, beraz, kulturaren tendentzia merkantilistago bat garatzen da, joera estatubatuarrarekin antzekotasun handiagoak bereganatuz (Gilabert, 2011). Álvarez Guillének (2016) zehazten duenez, “la burbuja inmobiliaria que se desarrolló entre 1997 y 2008 aproximadamente, coincide con una burbuja o boom museístico que es una de sus grandes manifestaciones” (84. or.). Museoa gizartera gerturatzea, demokratikoagoa bihurtzea, behar zehaztutara egokitzea eta kalitatezko hezkuntza zerbitzu bat eskaintzetik at, garapen sozio-ekonomikoaren motorra kontsideratuko dute mandatari askok garai honetatik aurrera.

Garai honetan eragin handiena izango du *Guggenheim Efektua* bezala definitu dena, 1997an Bilboko zonalde bat lehenera ekartzeko eraikitako Guggenheim Museoaren inaugurazioa, alegia. Ekonomia panorama ezegonkor eta hiri industrializatu baten iruditik aldentzeko formula bilakatzen da orduan marka amerikarraren eskutik sortutako espazioa, arte garaikidearen gordailu izango dena (Esteban, 2007). Arkitekto ospetsu baten eskutik altxatzen da guztiz berria eta erakargarria den bilgarria, horrek ere etorkizuneko museoaren marka oinarrizkoa bihurtuz eta museo nabarmena izateko arkitektura garaikidea eta bitxiaren beharra oinarrizkotzat jotz. Baina kulturaren zentro edota arte garaikidearen inguruko espazio hezitzailea izatetik haratago, Bilboko Guggenheim-a negozio kulturalaren irudia bilakatzen da, turistak erakarri eta birsorkuntza ekonomikorako gailu bikaina.

Hortaz, museoaren izaera eta funtzioen inguruko hausnarketa indartuko da. Estebanek (2007) aipatzen duenez, Guggenheim Fundazioaren zuzendaria zen Thomas Krensek, XXI. mendeko museoa «parque temático» baten moduan definitzen du, turista eta

asteburuan nagikerian dabilentzako dibertsio sofistikatua bat eskaintzen duena. Hots, museoak turistentzako erakargarriak izateaz gain, aisialdirako entretenimenduaren bilaketan diharduten bisitari ororentzako erakustoki bihurtzea da helburua.

Museoaren izaera hutsalari buruz hitz egingo dutenak ez dira gutxi izango. Hudsonek (1989) jada aurreikusten du etorkizunean erakundeek jasango duten egoera, une hartan jada museo handiek – Louvre edota New Yorkeko Metropolitan Museoa – turista masa handiak jasotzen dituztelarik euren «biltegi erraldoietan» baina inolako berrikuntzarik eskaini gabe. Horrela, museoa supermerkatu kultural bat bihurtzen ari dela salatuko dute askok (Álvarez eta Benjumea, 2011), aisialdi modernoaren “tenplua” (Álvarez Domínguez, 2008), *disneyfikazioan* (Sterry, 1998) edota *Mcdonalizazioan* (Moreno, 2016) erortzen ari dena.

Egoera berri honek eragingo du masa aisialdiari erantzuteko sortzen diren erakundeek museoaren funtzioak alderatuta geratzeko arriskua izatea (Clara, Asensio, Pol, Real, Gomis, Llera, Fernández, González, Oliveira, Simón, Polo eta Ángeles, 1998), eta museoaren jardura oinarritzea “en una política de macroeventos, macroexposiciones y photocalls en perfecta imbricación con el sector turístico” (Álvarez Guillén, 2016: 84). Horrela, mundu osoan ohikoak bilakatuko dira “blockbuster” erakusketak, publiko masa handiei bideraturiko gai ezagun eta ospetsuen ingurukoak direnak (Prior, 2006). Museoak beraz, museoak zirkuitu turistikoen parte bilakatzen dira, eta beste hainbat ikuskizun eta paisaia ikoniko bezala, hiri eta herrialdeetako bisitatu beharreko gune bihurtzen dira (Graburn, 1998).

3.1.4.3. Museoak: hezkuntza eta ikuskizun artean

Egoera honen aurrean, museoaren funtzio hezitzailea inoiz baino indartsuago agertu beharko da bere izaeraren arrazoia justifikatu eta erakusteko. Baina XXI. mendeko aldaketa kultural eta sozialen aurrean, museoak euren helburua eta funtzioak birplanteatu eta pedagogiak berriz diseinatu behar izan dituzten (Hooper-Greenhill, 2007). Garai berrietara egokitu eta hezkuntza sistema zein kultura panorama berrietara moldatzeko gai izango den erakunde bezala aurkeztuko da, nahiz eta askotan irabaziak lortzeko helburuak funtzio hezitzailearekin talka egingo duten (Castellanos, 2008).

Hala ere, mundu mailan hezkuntza sailak hedatu eta horiek aurrera eramandako proiektu interesgarriak garatuko dira, merkatu munduan eta museoaren funtzio errealean arteko oreka bilatu dutenak gailenduz. Museoak hezkuntzaren ikuspuntu eta joera berrien aliatu bihurtzen dira, ikaskuntzarako ingurune ezin hobea direla

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

azpimarratuz eta geroz eta irekiago dagoen publikoarentzako espazio bezala (Ballart, 2004). Horrela, ikaskuntza aktiboa, *engagement*-aren ideia, pertsonalizatutako esanahien bilaketa eta esperientziaren sorrera azpimarratuko da (Reeve eta Woolland, 2015).

a) *Definizio berrien beharra*

Museoa gizarteari irekita dagoen espazio bezala aldarrikatu ondoren, laurogeita hamarreko hamarkadan egoera hori erreal bihurtzeko pauso sendoenak emango direla esan daiteke. Aldi berean, gizartearen garapenean ematen diren aldaketak ere museoaren izaeran eta eboluzioan eragina izango dute, eta hortaz, museoaren funtzioen finkapenean aldaketak sortuko dira. Horrela, ICOM-en 2007an museoaren definizio berri bat planteatzen du²⁶, non ondare ez materialaren agerpena ematen den lehen aldiz. Gainera, azken urteetako definizio berriari jarraiki, XXI. mendeko museoaren funtzioa gizartearen zerbitzura ez ezik, bere garapena ziurtatzera ere bideratuko dala zehazten da²⁷.

Etapan honetan jada museoa eragile hezitzailea dela guztiz barneratuta dago; baina oraingoan ikaskuntza emateko zein baliabide, egoera eta tresna erabiltzen diren eta horiek zein eragin duten aztertuko da era sakonago batean. Horrela, Falk eta Dierkingek (2000) aipatzen duten moduan, museoan ikaskuntza prozesua hiru ardatzetan oinarrituko da: publikoaren aurreikuspenak edota motibazioa; pertsona horien interesa, jakinduria eta sinesmenak; eta museoan ematen den ikaskuntza pertsonalizatua, batez ere aukera askeko aukerek baldintzatuta.

Era berean, museoa erakunde hezitzailea izatetik hezi eta entretenituko duena izatera igaro da azken urteetan. Funtzio edo eremu berri honi *heztretzenimendua* deitu ahal zaio – hezkuntza eta entretenimendua –, hain zuzen ere *edutainment* terminotik itzulitako kontzeptua. *Edutainment*-aren parte izango dira “events, programs and attractions where the entertainment qualities are the primary draw, with the learning or educational content being a byproduct” (White, 2003: 1 par.). Kontzeptu hau Allan Friedmanek, Hall of Sciences de Nueva York-eko zuzendariak erabiltzen du lehen aldiz Chicagoko Kongresu batean, museoetan ematen den ikaskuntza definitzeko modurik egokiena bezala (Asensio eta Pol, 2003).

Izendapen hau aisialdiari lotutako ekintza desberdinekin lotzen da hasiera batean – zooak, zientzia museoak, haurrentzako museoak – baina bere erabilpena laster beste

²⁶ ICOM. Definición del Museo. In <http://icom.museum/la-vision/definicion-del-museo/L/1/> (2016ko martxoaren 25an ikusia)

²⁷ Estatutos ICOM 2016. In http://icom.museum/fileadmin/user_upload/pdf/Statuts/2016_Statutes_ES.pdf (2016ko martxoaren 25an ikusia)

eremu batzuetara igaro eta aplikatzen hasten da. Horrela, egun bideojokoen munduarekin erlazionatutako erabilpen bat nagusitzen da, non eduki hezitzaileak oinarria izanik dibertigarria izatea, erakargarriak eta aldi berean *engaging* elementuak txertatzea gailentzen den.

b) Hezkuntza sailak

Museo berrien sorrerarekin, eta hortaz, modelo berrien agerpenekin batera, nazioarte mailan hedatzen diren erakundeen kudeaketa motak dibertsifikatu dira, horietan hezkuntza sailek duten izaera desberdina izanik (Boylan, 2006). Museo askok izango duten babes ekonomikoa zein hezkuntza sailari eskainiko zaion protagonismoari lotuta, profesionalen formakuntza eta funtzioak ere anitzak izango dira, herrialdeen arteko aldeak nabarmenduz.

Díaz Balerdik (2010a) aipatzen duen moduan, jada 1977an, ICOM-en Leningradoko Kongresuan, mundu mailako museologiako ikaskuntzetan oinarri izango diren irizpide orokor batzuk finkatzen saiatzen dira, ordura arte sortutako formakuntza planak era bateratuan antolatu eta etorkizuneko ildoak ezartzeko. Hala ere, XX. mendearen amaieran oraindik dibertsitate handia sumatzen da nazioarteko museologia programa ezberdinetan.

Egoera honetan, beraz, herrialde bakoitzak bere bidea jarraituko du, administrazio publikoaren aldeko jarreratik abiatutako proiektuan abian jarritz edota museoek era independente batean euren langileen formakuntza planak osatuz. Azken honen kasuan, mundu anglosaxoiko museoetan nagusitiko da joera hau (Newbery, 1996; Carrión, 2006), elkarte profesionalak ere erreferentea bihurtuz arlo honetan. Unibertsitateen kasuan, nazioarte mailako ikastaro eta gradu-ondoko ugari egonkortu dira, museo hezitzaileen formakuntzako eskaintza indartsua eginaz Britainia Handia, AEB, Kanada edota Frantzia (Boylan, 2006).

Hezkuntza sailtako hezitzailea sistema konplexuago baitan integratzen da etapa honetatik aurrera, non museoaren baitako funtzioak eta ardurak dibertsifikatzen diren, eta jatorrian beste arlo batzuetakoekin nahasten diren, hezitzaileari egokitzen zaizkiolarik museoko bilduma eta edukien ezaguera baino gehiagoa izatea; hezkuntzaren teoria, psikologia, soziologia, filosofiaren historia, ebaluazio programen diseinua eta ebaluazioa, besteak beste (Boylan, 2006). Horrela, tradizionalki hezitzaileak izan duen edukien transmisore paperetik atera eta bestelako izaera bat egotziko zaio oraingoan, non “de transmisor experto en saberes pasa a convertirse en respetuoso habilitador de aptitudes” (Ballart, 2004: 99).

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

d) Hezkuntza ekimenak: denetarik denentzako

Aurrez aipatu bezala, nazioarte mailako museoek bizi duten panorama orokor horretan, aisialdi garaiko eta ikuskizun formatuetan eskainitako produktuekin lehiatu beharko dute. Mayranden (2012) aburuz, egoera berriak planteatutako museoeko hezkuntza ekimen mota,

es efímero, vinculado a la moda del momento y sucedido de inmediato por otro para satisfacer a un público de consumidores voraces, ansiosos de sensaciones fuertes y dispuestos a emprender una carrera desenfrenada hasta el escaparate del bien de consumo rápido en que se han transformado algunas exposiciones (11 or.)

Baina era berean, 1990tik aurrera garatzen diren hezkuntza ekimenak izango dira aberatsenetakoak formaren aldetik zein edukien dibertsitateari dagokionez, garaiko korrante pedagogikoen ideiak garatzeko espazio ezin hobekak bilakatuta (Falk eta Dierking, 2000).

Izan ere, museoak askatasun handiagoa agertzen dute ideia eta proiektu berriak aplikatzeko eta, era berean, aukera askeko ikaskuntza ematen da, hezkuntza bestelako plano batean kokatuz. Era berean, nahiz eta hirurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera garatzen hasiak diren, “ha sido durante estas últimas décadas cuando las teorías constructivistas del aprendizaje y de la creación del conocimiento han influido fuertemente en los museos” (Hernández Hernández, 2006: 212).

Hortaz, ikaskuntza aktiboan oinarritutako jarduerak hedatuko dira oraingoan, tailerrak, jolasak eta orokorrean, parte-hartzea eskatzen duten ekimenak nagusituz. Era berean, *heztretenimendua*-ri dagokionez, aisialdiko eskaintzaren zirkuituetan barneratzeko asmoaz, ikuskizun mota desberdinetara bideratutako ekimenak ere sustatuko dituzte museoek, beti ere euren izaera hezitzailea eta ondarea ardatz bezala izatearen ideia galdu gabe – edo saiatur, behintzat –. Horrela kontzertuak, dantza emanaldiak, ipuin kontaketa eta bestelako ikuskizunen agerpena emango da. Hauei jarraiki, aurrez aipatu diren *living history* edo birsortze historikoak bezalakoak zabaltzen dira ere – nahiz eta AEB-n hirurogeiko hamarkadatik aurrera jada existitzen diren –, elkarte eta museo ezberdinen elkarlanetik jaiotakoak askotan (Noain, 2012). Hortaz, museoek, objektu materialen erakusketatik haratago, ondareari buruz hitz egiteko modu eta lengoia berriak deskubritzen ditu laurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera. Hortaz, esan daiteke gaur egungo museoak direla “multifaceted and variously defined as places of assertion, contestation, mediation, commemoration, learning, research, as well as hubs of sociability and sometimes even fun” (Shelton, 2015: 615).

Garai berrietara egokitzen diren museoen aldaketa bermatzeko, ICOM-ek zehazten du museoen funtzio soziala betetzeko *online* munduan parte hartzea ezinbestekoa bihurtzen dela (Sánchez Laws, 2015), eta hortaz, mundu mailako museoak, mundu teknologikoak eskaintzen dizkion aukerak erabiliko ditu, ondarearen eta ikaskuntzaren mesedera ipiniz.

Hasiera batean, museoetako web orriak sortzen dira, non informazioa eskaintzeko aukera soilik existitzen den – web 1.0 – (Maldonado, 2015). Horren ondoren, web 2.0-ak, edukiak sortu eta aipamenak egiteko aukera berri bat eskaintzen du, publikoari jarduera berriak proposatu eta horiekin batera nolabaiteko interakzio bat sortuz (Asensio, Fernández, Cuenca, Fontal eta Ibáñez-Etxeberria, 2012). Eta, azkeneko urteetan, museo batzuk 3.0 deiturikora iritsi dira, oraindik oso kasu gutxietan elkarlana eta publikoaren esku utzitako ekimenak existituz. Horrela, “en colaboración, salvo en casos muy contados, se limita a la transmisión dirigida de información puntual que podría ser dirigida a través de cualquier sistema de comunicación tradicional como el correo regular o electrónico” (Asensio et.al., 2012: 92).

Azken hamarkadetan beraz, museoan ematen den ikaskuntza motetan oinarritu eta esperientzia berriak – edo berriztatutak – diseinatu eta garatzen dira. Aurreko zurruntasunetik atera eta baliabide berriek eskainitakoari heldu diote museo askok. Oraindik izaera tradizionalerako jarduera motak mantentzen badira ere, horietan jarduteko teknologia berrien erabilerak eragin handia izango du ekimenen gauzatzeko prozesuan, zein horrek ikaskuntzan izandako eraginean (Villaespesa, 2012).

Horrela, eta Interneten hedapenarekin batera, gailu digitalen bitartezko jarduerak hedatzen dira museo askotan – bisita gidatuak egiteko, ibilaldietarako, tailer eta jolasetarako – horrek bestelako agertokia sortuz, publikoaren motibazioa eta interesarekin estuki loturik eta informazio hutsa eskaintzen duten tresna hutsa izatetik aldenduz (López-Benito, Martínez-Gil eta Santacana, 2014). Azken urteetako gailu mugikorren hedapenak eragin du ere aplikazio digitalen sorrera handitzea, museoko hezkuntza ulertzeko modua eraldatu duelarik, New Yorkeko Metropolitan Museoak eta MOMA-k edota Londreseko Tate Gallery, Museum of London eta V&A-k interesgarriak diren proiektuak garatuz.

Aplikazioak ez ezik, sare sozialen agerpenak bestelako ikuspegi bat eskaini die museoari publikoa eta ondarearen arteko harreman berriak ezarriz; izan ere, “social media networks provide a significant and possibly more efficient way of «making public» the ways in which audiences respond to cultural content” (Russo, Watkins, Kelly eta Sebastian, 2006: 4). Hauen bitartez sortu dira museoetan ekimen berriak, non museoko bisita gidatua, ibilaldi bat edota tailer zein jolas baten prozesuan sare sozialen erabilerak paper protagonista hartu duen. Era berean, sare sozialak bihurtzen

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

dira “a very useful tool for museums wanting to engage with other museums worldwide, sharing experiences and learning from other museum’s experiences (Espinós, 2017: 34).

e) Publikoa: museoa denontzat

Museoen politika berriaren baitan, bisitariekiko bestelako ikuspegi baten garatzea emango da, komunitatearen zerbitzura dagoen erakunde izanik pertsona guztiei irekita egon beharraren ideia barneratuz (Arriaga, 2011). Alde batetik, museora era fisikoan gerturaten den pertsonatik haratago, erakundeak dituen zerbitzuen erabiltzaileak kontutan hartzen hasten dira. Hau guztiz lotuta agertzen da komunikazio-gizarte berriarekin, non IKT eta Interneten hedapenak eragiten duen *virtual audience* deiturikoaren agerpena ematea (Hooper-Greenhill, 2007). Horrela, museoa bisitatzen duenetik haratago, Internet bidezko museoaren bestelako plataformen erabiltzaileak ere garrantzia hartuko dute.

Museoen erabilera soziala eta espazio hauek bisitatu nahi duten publiko berriaren eskaera handitu egin da azken urteetan (Ballart, 2004; Falk eta Dierking, 2000). Horrela, interes heterogeneoa duen bisitari taldeak definituko dira, jarduera zein teknika museografikoak horietara egokituz. Era honetan, publikoaren inguruko ikerketak zein *marketing* teknikak – enpresa munduarekin estuki loturik – agertuko dira indar handiagoz etapa honetatik aurrera (Gilabert, 2011).

Ordura arte banaketa nagusia publiko orokorra eta eskolako taldeen artekoa izan bada, oraingoan adin, jatorri eta izaera desberdineko pertsonen zein taldeei egokitutako ekimenak eta eskaintzak diseinatzen hasiko dira museoetan (Arbués eta Naval, 2014). Alde batetik, familien agerpena emango da nazioarte mailako museo gehienetan, haurrak ez ezik gurasoak edota bestelako familiako kideak jarduera berdina burutzera bideratuz. Museoak bihurtzen dira harremanak sendotu eta lotura emozionalak ezartzeko aukerak, elkarrekin ikasten duten heinean (Falk eta Dierking, 2000).

Hauekin batera, belaunaldi ezberdinetako kideei zuzendutako praktikak ugarituko dira. AEB-n hirurogeiko hamarkadan hedatutako jarrera hau nazioarteko bestelako gune batzuetan sendotuko da. *Life long learning* ideiekin bat eginik beraz, hezkuntza arautuko etapetatik kanpo eta eskola eremutik haratago ikasteko aukera hedatzen da. 2012an Europar Batasunean Zahartze Aktiboaren eta Elkartasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Honen harira, hirurogeita bost urtetik gorako biztanleri talde handiak dituen aukerak eta eskaini ahal zaizkien baliabideak hedatzen dira. Museoak ere, belaunaldi ezberdinei zuzendutako programazioak osatzeari ekingo diote.

Hori horrela izanik, talde mota ezberdinen agerpena emango da museoetan, bertako ekimenen bitartez zerbait gehiago ikasi dezakeelakoan. Era berean, AEB eta Kanadako zenbait museoetan jada ikertzen hasitako (Martínez eta Rodríguez, 2015) bisitari tipologia baten inguruko interesa handituko da oraingoan: dibertsitate funtzionaleko taldeak. Aurrez aipatutako komunitatearen garrantzia eta museologia berriaren ideietatik abiatutakotik, gizartearen parte diren gizabanako ororentzako ekimenak sustatuko dira museoan.

f) Ebaluazio lanak

1992an, Falk eta Dierkingen *The Museum Experience* lana kaleratzen da, eta 1994an Hooper-Greenhill-ek *Museums and Their Visitors* (Davidson, 2015). Bi lan hauetan agerian uzten da publikoarekiko interes berria, hauek museoarekiko duten satisfazio maila hutsetik haratago doala. Falk eta Dierkingek (2000) dioten moduan “that people learn in museum is easy to state, harder to prove” (149 or.); hortaz, ebaluazio lanak beharrezkoak dira museoetan ematen den ikaskuntza aztertu ahal izateko. Egoera honetan hedatutako jarrera bat izango da museoak ikaskuntzarako espazio bezala onartzea eta zabaltzea. Hortaz, *Museum experience* edo *visitor experience* deiturikoen inguruan garatuko diren lanak geroz eta gehiago izango dira.

Egoera honetan, onartuta dagoen ideia da Blackek (2015) definitzen duena: “if museums are to support visitors who seek such a personalized experience, based on individual motivations and interests, they must develop a much more sophisticated understanding of audiences” (125 or.). Hala ere, errealitatean oraindik oso gutxi dira ebaluazio lanak garatzen dituzten adituak eta museoekin batera – edo museoetan bertan – lan egingo dutenak.

Asenjok (2014) aipatzen duen moduan, mundu anglosaxoian ematen den joera goiztiarraren magalean beti ere, ebaluazio lanak – bisitarien inguruan edota erakusketen inguruan – laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera agertzen hasten dira Mediterraneo zonaldean, foku nagusi batzuekin: Frantzia; L’Observatoire Permanent de Public sortuz 1990an (Vicent, 2013); edota Herbeheretako eta Alemaniako museoetan.

3.1.5. Etorkezunari begira

Museoak garai konplexu batean aurkitzen dira, ekonomikoki zein politikoki, eta kultura bera gai politikoa bihurtu da herrialde guztietan. 2008ko krisiak nazioarte mailan izandako eragina dela eta, museoetan egoera ezegonkorra bizitzen ari dela agerikoa

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

da (Bergeron, 2009). Aurreko hamarkadetako arrakastaren ondoren, non bisitari kopuruak handitu eta hezkuntza ekimenak biderkatzen diren, publikoa erakartzen jarraitu eta ikaskuntzarako aproposak diren planteamenduak garatzeko presioa geroz eta handiagoa da (Falk eta Dierking, 2000). Horretarako baliabide ekonomikoak, nagusiki, oinarrizkoak bihurtu dira, eta herrialdeetan emandako finantzazio formulen desberdintasunak zein administrazio publikoak hartu duen jarrerak eragin du desorekak geroz eta nabarmenagoak izatea.

Krisi garaiaren ondorengo egoera berriari aurre egiteko orokortutako jarrera existitzen diren baliabide eta azpiegituren zein gizartearen egoera errealari egokitzen den proiektuak garatzea izan da. Hots, existitzen den kaosaren ordena eta kontzientziario altuago baten baitako proposamenetan oinarritutakoak. Era berean, publikoaren parte-hartze erreal eta aktiboago baten beharra zein museoko profesionalen rola aldaketa beharrezkotzat jo da, nazioarte mailako herrialde askok jada horri ekin diotelarik (Reeve eta Woollard, 2015). Gainera, museoak aukera askeko ikaskuntza batean oinarritu eta bestelako eragileekin elkarlanean aritu behar dutela barneratu beharko da, ikastea izango baita oinarrizko ardatza XXI. mendeko gizartearentzat (Falk eta Dierking, 2000).

3. 2. Espainiako museoak eta hezkuntza

3.2.1. Bi mendeen artean

XIX. mendeko Espainian panorama nahasia eta boterearen eskualdatze jarraitua nagusitzen da; Napoleonen Inperioaren hedapena, borbondarren erregealdia eta Seiurteko Liberalaren garaiekin osatua. I. Errepublikak irauten dituen urte gutxiren buruan zenbait berrikuntza heltzen badira ere, Errestaurazio borbondarrak eragingo du ordena zurrunaren berreskuratzea eta tradizioa bueltatzea.

Mende honetan industrializazio prozesuaren hasiera ematen da, baina errealitatean herrialde atzeratuta da gizarteari dagokionez; oraindik landa eremuko biztanleria da nagusi, goi klaseen menpean zein politikarien esanetan jarduten direnak, txirotasunetik atera ezinik eta interesen arabera gizarte batean murgildurik. Era berean, tradizioaren sustraiei eusten jarraitzen zaio, Elizaren botereak aurrerakoia den edozein zantzu zapaltzen duen bitartean eta isolamendu orokortu batean murgilduta.

98ko Krisiak errotik aldatuko du Estatuaren izaera eta pentsaera, eta mende berriari hasiera emango dioten gertakizun eta aldaketa nagusiak markatuko dute XIX. mendearen amaiera. Orduan, monarkiaren boterea zalantzan jartzen duten taldeak sortu, industrializazioarekin batera gizarte berri bateranzko pausoak eman eta kultur

adierazpen berriak agertzen hasten dira. Hala ere, aldaketak suposatzen dituen ekimen oro zein aurrerakoia den jarduera guztia botere ekonomiko eta politikoei zapaldua izango da etengabe. Alfontso XIII.aren erregealdiak, oro har, aginte garai zurrun eta luze batekin hasiera emango dio mende berriari, Primo de Riveraren diktadura garaiak indartutako egoera batekin amaituz.

3.2.1.1. Hezkuntza sistema Moyano legetik aurrera

Espanian, Cadizeko 1812ko Konstituzioarekin batera, hurren oinarriko heziketarako funtsak finkatzen dira, honetatik abiatuz espainiar hezkuntza sistema zentralizatu ezartzeko neurriak hartuz (Escolano Benito, 2002). Horien artean garrantzitsuenetakoa dugu 1857an ezarritako Moyano Legea, zeinak hezkuntza derrigorrezkoa, doakoa, zentralizatzailea eta sekularra legeztatzen duen eta ondorengo hamarkadetan hartuko diren neurrietako oinarri bilakatzen den. Legearen bitartez Estatuak hezkuntza antolatzen saiatuko dira: Bigarren Hezkuntzako eskolak, Eskola Normalak, Lehen Hezkuntza, Helduen Hezkuntza, Unibertsitatea... eta beste hainbat erregulazioari ekiten zaio garai honetan, XX. mendean zehar luzatuz hezkuntza politikaren erreforma jarraituak (Puelles, 2008). Neurriak aipagarrien artean dugu Estatuak bere gain hartzen duela eskolako irakasleen ordainketa eta antolaketa eta curriculumaren osaketa; berriz ere zentralismo politikako ideien baitan.

Sistema berri honek behar sozial bati erantzuten dio: herritarren trebakuntzarako hezkuntza geroz eta gehiago baloratzen hasten da, erregimen politiko eta ordena sozial berriak erreklamatzeko dituen erreformak dira, aurrerakuntza ekonomikorako ezinbesteko tresnatzat hartutakoa eta derrigorrezkoa izatearekin batera biztanleen behar eta betebeharrak batzuei erantzuteko eraikitakoa.

Alfontso XII.ak tradizioari eutsiko dio hezkuntza arloari dagokionez. Metodologia zaharkitua eta oraindik instrukzio akademiko zurrunera bideratutakoa izango da non magisteritza desprestigiaturik dagoen, hizkuntza eta kultura bateratzearen beherakada ematen den, eskoletako inbertsioan interes eza hedatua den eta Elizaren esku-hartzea nagusi da oraindik.

1900. urtean, Instrukzio Publiko eta Arte Eder Ministerioaren sorrerak, nolabaiteko berrikuntzak ekartzen ditu (González González, 1998), eta Alfontso XIII.arekin zenbait aldaketa emateko jarrera antzemango da. Hala ere, 98ko Krisiaren ondoren, "la educación se va a convertir en un elemento clave para el proceso de españolidad propiciado por el Estado, y su agente principal será la escuela" (Dávila 2004: 27). Hortaz, Estatuak izango du curriculumaren kontrola, gaztelaren derrigortasuna

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

ezartzen du hezkuntzan eta beste hainbat neurri abian jartzen dira identitate nazional homogeen bati jarraiki.

Mendearen lehen herenean eraikitzen hasten dira eskola ugari, Estatuak irakasleen soldata bere gain hartzen du, derrigorrezko hezkuntza 14 urtera arte zabaltzen da eta analfabetismoari aurre egiteko beste hamaika neurri hartzen dira. Hala ere, legeek zein hartutako neurriek ez dute espainiar hezkuntza sistemaren egoera egun batetik bestera aldatzen, eta existitzen den panorama oso desegokia da oraindik: Haurrak etxeko lanak burutzeko eskulan bezala erabiltzen dira, gehienbat landa lurretan non nekazaritzaren baitan igarotzen dituzten urtaroko aldiak; Estatuak ezin dio ikasle kopuru handiari erantzun; prestakuntzarik gabeko irakasleak eta irakasteko modu arkaikoetan oinarritutako sistemaren jarraitzea ematen da; eta Kleroaren autoritarismoaren menpe eta Estaturen kontrolpean egonik edozein motako berrikuntzaren agertzea eragozten du.

Eskola zuhur eta tradizionaletik aterako den proposamen gutxiren artean aurkitzen dugu Heziketa Libreko Erakundea, 1878an Madrilan sortutakoa. Giner de los Ríos buru izango duen erakunde hau XX. mendeko hezkuntzan oinarritzakoa bilakatuko da, irakaskuntzaren praktika eta metodologiaren aurkako iraultza bat suposatuko duelarik (Martínez Medrano, 1999). Atzerritik etorritako pedagogia ideia berrietan murgildurik ezartzen da irakasleen trebakuntza zein ikasleen eskolatzeko sistema berrien espazio bat. Ideia, aurrerakoiak, askatasun zientifikoa, moralaren erreforma, laizismoa, eta orokorrean giza kontzientziaren aldaketaren inguruan lan egitea da azken finean helburu nagusia, Estatuak inposatutako irakaskuntza katoliko eta tradizionaletik at gizabanako berriaren eraketarako hezkuntza egokiaren beharra defendatuz (Escolano Benito, 2002).

Heziketa Libreko Erakundeak bultzatutako proiektuetako bat Instrukzio Publikoko Museo izango da, 1882. urtean sortua; gerora Museo Nazional Pedagogikoa izena hartuko duena (González Rodríguez, 1988). Museoaren helburua irakasleak hezteko eta trebakuntza egoki bat ematea dira. Irakaskuntzako material ugari osatutako bilduma erakustez gain, liburutegi esanguratsua osatuko dute: pedagogia ideia berrien lanak, atzerriko aldizkariak, irakasleentzako errekursoak, materiala, eta abar. Museoaren lorpen aurrerakoienetako bat udalekuen sorrera izango da – 1926 arte funtzionamenduan egongo den ekimena – non haurren bizitzan garapen intelektual, fisiko eta moralak bultzatuko dituen esperientziak eskaini nahi diren, garaiko pentsalari esanguratsuenen ideietan oinarritutako pedagogia ideiak jarraituz.

3.2.1.2. Museoen jaiotza

Ilustrazioaren ideiek eragin handia izango dute Espainian, batez ere Karlos III.aren erregealditik aurrera eta burgesiaren nagusitasunarekin indarturik. Zientziaren inguruko ikuspegi berria agertuko duten goi klaseetako taldeek arrazoa eta enpirismoan oinarritutako behar intelektualaren alde lan egingo dute, kabinete eta elkarte ezberdinak sortuz. Napoleonenekin batera emandako gainbeheraren ondoren, Fernando VII.aren erregealdian galdutako ondarearen berreskurapenari ekingo zaio (Hernández Hernández, 2004). Borbondarren Errestaurazio garaia ekarriko du beraz kultura, artea eta zientziaren berpiztearen hasiera. Espainian sortuko dira orduan, Frantziako ereduari jarraiki, lehen museoak, arrazoi ezberdinak direla medio:

la decadencia del gusto y la necesidad de conocer las obras ejemplares de grandes maestros antiguos [...] y aprender directamente de ellos, preservar las obras de su deterioro (amontonadas, guardadas en sotanos), la conveniencia de mostrar a los visitantes extranjeros las grandezas de la propia nación (Bolaños, 2008: 152)

Madrilen inauguratuko da Museo Real de Pinturas de Madrid 1819an – 1868 Prado Museoa bihurtuko dena – abandonaturik dagoen Natur Zientzien Historiako eraikina berreskuraturik (Jiménez-Clavería, 2007). Pradorekin batera Probintzietako Museoen irekiera bati hasiera ematen zaio XIX. mendean zehar, batez ere Arte Ederren kontserbazio eta erakusketara bideratutako espazioak. Azken hauen jaiotza desamortizazioaren ondoren bildutako ondare ugaria egokitzeko espazio beharra zein elite lokalaren ondasunen babesean oinarrituko da, baina baita zenbait hirietan kulturalki espazio horien beharra antzematen duelako gizartearen talde batek (Fornells, 2003).

Museo berrien irekierak garaiko bestelako erakusketa motekin erlazio zuzena izango du. Mende amaieran errepikatuz joango diren Erakusketa Unibertsalak ere Espainian izango dute bere lekua, eta hala, 1888an Bartzelonan antolatuko da mota honetako lehen ekitaldia. Gertaera honek ekarriko du Arte Ederretako Udal Museoaren sorrera 1891an, Kataluniako artearen bilduma osatzen hasiz (Bolaños, 2008).

Bestalde, Atzera Begirako zein Arte Ederren Erakusketak zabalduko dira Espainia osoko hiriburuetan, ondarea gizartera bereganatzeko lehen pausoetako bat izanik (González Moreno, 2003). Aldi baterako erakusketa haiek jendearengan sortutako jakin-mina eta interesak, zein lurralde bakoitzak gordetzen dituen ondasun aberasgarriaren ezaguerak, eragiten du hiriburuetako eliteak horren kontserbazioaren alde egin eta espazio iraunkorrak sortu nahi izateak. Gogoratu behar da ere XIX. mendean zehar hiri askotako harresiak botatzen direla, zabalgunek eraiki eta trena

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

iristen dela; guzti hau, noski, museoak, artxiboak, liburutegiak eta akademiak sortzeko klabea izanik (Bolaños, 2008).

Mende honetan gainera, Estatuak berak ondarearen babesa bere gain hartuko du, eta hau “lo asume como una obligación pública, como un imponderable más, y lo hace generalmente con pocos medios y a veces a contra-corriente” (Ballart, 2004: 95). Ondarearen garrantziaz jabeturik 1844an Monumentu Historiko eta Artistikoen Komisioak osatzen dira, ondarea kontserbatzeko funtzioarekin – aurrez existitzen diren Batzar Zientifiko eta Artistikoak ordezkatzeko dituzte – .

XX. mendearen lehen erdian kultur arloa berrikuntza tradizional baten baitan garatzen dela esan daiteke; hots, egoera sozio-politikoak zein hezkuntza sistemaren aldaketak sorturiko panorama berria aurkeztuko zaie, beti ere izaera tradizional batean finkaturiko erakundeak izaten jarraituko dutelarik. Hirietan, batik bat, sortzen dira Arte Akademiak edota Ikasleen Egoitzak, zeinak edozein proposamen berritzailearen jatorria bihurtzen diren. Hauekin batera ugaritzen dira unibertsitateak, irratiak, liburutegiak eta kafeak, tertulia eta eztabaida mota guztietarako espazioak. Aldi berean zientzia elkarteak ere eratzen dira, ilustrazioaren garaiko ideien berreskurapenetik ikerketa enpirikoen burutzea eta laborategietako praktiketara bideratutakoa batik bat. Hortaz, Natura Zientziek berebiziko garapena jasango dute garai honetan.

Museoei dagokionez, XIX. mendeko tendentziari jarraiki, planteamendu museografiko berriak ez dira heltzen eta museo tipologia tradizionalen fundazioarekin jarraitzen da. Garrantzizkoa izango da aurrez aipaturiko Instrukzio Publiko eta Arte Ederren Ministerioaren sorrera 1900an, hala nola Arte Ederretako Zuzendaritza Nagusiarena. Hauetatik abiatuz eratuko da ondare eta museoaren inguruko legedia, aurreko mendekoa oso eskasa baita Frantzia, Italia edo Britainia Handikoarekin konparatuz (García Fernández, 2007).

Horrela, pixkanaka erakundearen oinarriak legeztatu eta neurri berriak hartuko dira honen funtzionamendu orokortu baten hedapenerako. *Real Decreto de 26 de octubre de 1901*-ren bitartez ezartzen da Estatuko Arkeologia Museoetarako Arautegia, non lehen aldiz, museo bateko lanpostu ezberdinetako funtzio eta betebeharrei buruz hitz egiten den: “Archiveros, Bibliotecarios y Arqueólogos”²⁸. Aldi berean, eskolako haurren museo bisitaldien inguruko erregulazioaren beharra aipatzen da lehenengoz Dekretu honetan²⁹.

²⁸ Real Decreto de 26 de octubre de 1901. BOE. In <http://www.boe.es/datos/pdfs/BOE//1901/299/A00441-00441.pdf> (2016ko maiatzaren 5an ikusia)

²⁹ “Art 5: Los profesores y profesoras de instrucción primaria de las poblaciones donde existan museos, deberán visitar éstos con sus alumnos dos veces por lo menos durante cada curso. / Art6: Los profesores de segunda enseñanza de las asignaturas que pueden tener aplicación práctica en los museos, acudirán

Real Decreto de 24 de julio de 1913-an, Arte Ederretako Udal zein Probintzi museoak sortzeko erregulazioa ezartzen da. Dekretu honek, hein batean, museoak eta gizartearen arteko loturaren garrantzia azpimarratuko du, biltegi soila izateaz gain funtzio publiko bat izateko bideari ateak ireki behar zizkiola esanaz (Díaz Balerdi, 2010a).

Horrela, aurreko mendeko Probintzietako Museoak ugarituko dira, baita etnografiakoak eta Museo lokalak ere. Hauekin batera, industrializazioari estuki loturik jaioko dira mende honetan Museo eskolak, non ikasleek industria objektuaren sorrerarako erreferente errealak izan ditzakeen eta ikasteko modeloak zuzenean ikusteko aukera. Horrela jakinduria praktikoa eta intelektuala uztartzear abian jartzen da, eskulanaz gain gizabanakoaren bestelako garapena bermatzen baitute. Museo-Etxeak ohikoak izango dira mende hasieran, non artista eta pertsonaia ospetsuen bizitokiak, tailerrak zein honen bizitzari loturiko edozein espazio musealizatzeko joera ematen den. Bildumazaletasun pribatutik sortutako museoak ere izango dira, ez baitago museo bat irekitzeko inongo oztopo edo traba legalik eta artista zein bildumazale askok euren lanak publikora erakusteko modua aurkitzen dute; eta Elizak ere bere altxorrak eta monumentuak erakusteko modua aurkituko du Elizbarrutiko zein Katedraleko museoen sorrerarekin (Bolaños, 2008).

Garai honetan sorturiko museoak europar museo tradizionalekin parekatu daiteke, non tradizioari jarraituz, ondarearen erakusketan zentratzen diren erakunde gehienak, lurraldeari loturiko altxorrak – batez ere artistikoak eta historikoak direnak – kontserbatu eta ikertzeko funtzioa nagusia betez. Espazio hauek, beraz, goi klaseei zuzendutako guneak izango dira, hermetikoak eta gutxiengo batentzat eskuragarriak.

3.2.2. Oasi bat basamortuan: II. Errepublika

Espainiaren XX. mendeko historian oasi bat balitz moduan, II. Errepublikaren urteetan jaiotzen eta gauzatzen dira ordura arte ezagutu gabeko arlo guztietako proiektu berrienak. Gizartearen baitako eremu guztietan eragina izanik ere, kultura eta ondarearen baitako aldaketak nagusi izango dira, nahiz eta museoaren praktikan proposamenen finkatzerik emango ez den.

a ellos con sus alumnos tan frecuentemente como estimen oportuno". Real Decreto de 26 de octubre de 1901. BOE. In <http://www.boe.es/datos/pdfs/BOE//1901/299/A00441-00441.pdf> (2016ko maiatzaren 5an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

3.2.2.1. Hezkuntza eredu berriak

Larrialdiko neurriak ipiniko dira lehenik eta behin hezkuntzan, aurreko hamarkadetako arazo nagusienak konpontzeko helburuaz: herriaren kultura mailaren igoera, elebitasuna ezartzea, laizismoa eta hezkuntza publikoaren berrantolaketa, besteak beste. Eskolatze maila orokortzeko inbertsio garrantzitsua egingo da, irakasleen lan baldintzak hobetu eta lanpostu berriak sortuko dira, eskola laiko berriak eta doakoak irekitzen dira eta unibertsitatean pedagogiaren irakasgaia hedatuko da, irakasleen trebakuntzarako ezinbestekoa kontsideratua (Escolano Benito, 2002). Hezkuntzarako eskubidearen ezartzearen inguruko saiaketak egingo badira ere, ez da Frankismoaren amaiera arte legezkatuko (Puelles, 2008).

Horrekin batera, joera pedagogiko berritzaileek indarra hartuko dute berriz ere, Eskola Berriaren modelo zein Heziketa Libreko Erakundeak garatutako ideien baitan. Cossíoren proposamenetan oinarritua, bere jarraitzaileek eskola ezberdin baten planteamenduari ekingo diote; honetan Giner de los Ríos izango delarik aipagarrienetako bat (Pericacho, 2014). Eredu berriei jarraituko dioten eskolak sortuko dira beste hiriburuetan – aurrez Madrilen sortutako Institutu-Eskola oinarri izanik – eta bizitzarako prestatzen dituzten gizabanakoen hezkuntza osatua sustatuko da, Elizak eta Estatuak kontrolatutako tradizionaltasunetik kanpo (Tercero, 2010).

Eskola berria hauek, metodologia eta sistema aurrerakoiak frogatzeko gune esperimental gisa sortzen dira Espainian, non hezkuntza fisikoa, sormenaren lanketa, azterketa eta testu liburuen erabileraren bazterketa, musika edota eskolaz kanpoko ekintzak bezalakoak txertatzen diren (Escolano Benito, 2002). Eredu honen arabera hezkuntza ikuspegiaren ardatza ez da maisua izango, haurra baizik. Irakaslea, hortaz, ikaskuntza prozesuko gidaria bihurtzen da, ikasleen lan aktiboa sustatzen da eta esperimentazioa defendatzen da edukiak buruz ikaste hutsaren gainetik.

Halere, horrelako berrikuntza pedagogikoak zirkulu txikitetan eta oso gune konkretuetan garatuko dira Espainian. Eskola orokorra, tradizioan oinarritutako irakaskuntza itxia, ikaslearen izaera pasiboa eta memorian oinarritutako ikaskuntza mantentzen da XX. mendearen lehen erdian. Irakasle batzuk manual eta eskuorri berriak sortzen hasten badira ere – normalean oinarri akademikorik gabekoak eta intuizioan oinarritutakoak – Estatuak hezkuntza sisteman, orokorrean, ez da benetako eraldaketarik jasaten.

3.2.2.2. Ondarearen garrantzia

Ondarearen eta museoaren inguruko erabaki garrantzitsuenetako batzuk II. Errepublikan hartuko dira. 1931ko Konstituzioan Nazioaren Altxor Artistikoen defentsa ezartzen da, entitate juridikoa hartzen duelarik ondareak lehen aldiz (Bolaños, 2008) eta *Ley de 13*

de mayo de 1933-rekin³⁰, ondare erregistro zabala egin, eta espainiar estatu osoko monumentuen zerrendak osatuko dira (Díaz Balerdi, 2010a).

Honekin batera, baloratzen hasi den ondare guzti honen erabilera hezitzaileak, indarra hartuko du berriz ere, aurreko mendearen amaieran Heziketa Libreko Erakundeak proposatutako irteeren jarduera berreskuratuz. Izan ere, ingurunea bera, esperimentaziorako gune egokitzat jotzen dute eta beraz ikasteko espazio bilakatzen da. Naturara irteerak izango dira lehenbiziko pausoa, non ikastaldeak baso edota mendietara eramaten diren bertako elementuak aztertu eta kontenplatzera, hala nola natur zientziei lotutako erakundeetara – laborategiak, museoak edota zientzia elkarten erakusketa guneak – (Hernández Perelló, 2014) . Hauekin batera, udako koloniak deiturikoak sortzen dira – lehenbizi Katalunian eta gero Espainiako beste hirietan – eta hauek ere haurren ikaskuntza aktiboan eta heziketa ludikoaren babespean burutzen dituzte ekintza ezberdinak.

Azkenik, ezin dira ahaztu II. Errepublikan sortutako ekimen labur baina esanguratsua, Misio Pedagogikoak, zeinaren bidez herriz herri jakinduria zabaltzeko funtzioa bete nahi den. Misio hauetan hirietako azpiegitura eta ekintzetara heldu ezin den landa eremuko biztanleriara eramaten dira kultura eta hezkuntzarako baliabide ezberdinak, hiru atal desberdinetan banatutako ekimenak burutuz: Musika eta Zinematografia zerbitzua, Herriaren Antzerki eta Koroa eta Herriaren Museoa (Tapia, 2007). Hauetan hezkuntza ez formalaren estrategiak jartzen dituzte abian, izaera ludiko eta festako jarduerak izanik, esperimentazioan oinarrituta eta helburu nagusi bezala herritar ororen kulturaren ezaguera delarik³¹.

3.2.3. Garai ilunak: Gerra Zibila eta Diktadura

Gerra Zibilaren urteak zein ondorengo Francoren Diktadurak guztiz zapuztuko du pixkanaka aldatzen hasia den gizartea. II. Errepublikak emandako aurrerapauso guztiak alderatu eta sistema diktatorial baten menpean igaroko ditu herrialdeak ondorengo hamarkadak, fundazio izaeran oinarritutakoa. Frankismoaren lehen urteetan emango dira gerraosteko urterik gogorrenak, autarkiaren baitako herrialdean egoera jasanezina bihurtzen delarik. Gerrako galtzaileak zigortzeko neurriak izango dira eguneroko ekintzaren ardatz eta aurreko urteetako edozein elementu ezabatzeari ekingo zaio gogorki (Soto Carmona, 1998)

³⁰ Ley de 13 de mayo de 1933, sobre defensa, conservacion y acrecentamiento del patrimonio historico-artístico nacional. <http://www.boe.es/datos/pdfs/BOE/1933/145/A01393-01399.pdf> (2016ko maiatzaren 15an ikusia)

³¹ Euskal Herriaren Araba eta Bizkaiko zonalde batzuetara bakarrik iristen dira, 1933-1934 bitartean (Recalde Rodríguez, 2002)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Hasierako urteetako egoerari ezin eutsita, berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera ordea estrategia aldaketa bat eman eta mundu mailan gizarte ireki eta “arrunt” bat bezala aurkeztuko du bere burua Espainiak, Bigarren Mundu Gerrak utzitako panoramaren aurrean diktadura batek eragiten duen jarrera ezezkorretik aldendu nahian. Mundura irekitzeko nahi hau ordea maskara demokratiko bat besterik ez da izango (Montero, 2008), isolamendu politiko eta ekonomikotik irteteko eta aldi berean salbu mantentzeko estrategia bat. Hala ere, 1955an Espainia NBE-n sartzen da (Granja eta Pablo, 2002) eta 1958an Nazioarteko Diru Funtsean onartua izango da; Francok egonkortze plan ezberdinak sustatuko ditu orduan, atzeratuta eta zaharkituta geratu den gizarte eredu baten garapena ziurtatu nahian.

Era berean, berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadan demografiaren gorakada izugarria ematen da Espainian. Garai honetan landa eremuetatik industrializatutako gunetara lekualdatze masibo bat ematen da, eta horrela Estatuko zonalde zehatzen garapena gauzatzen da (Soto Carmona, 1998). Landa mundu batetik industrializatutako ekonomia hiritar baterako saltoa ematen da beraz. Era berean, *baby boom* fenomeno bizituko da, mundu mailako beste herrialde askotan bezala jaiotzasaren igoera izugarria nabarmentzen delarik Bigarren Mundu Gerra ostean (Montero, 2008).

Egoera honetan, erdi eta behe mailako klaseen kultura eta hezkuntza sarbidea ahalbidetuko duen egoera pairatzen da, komunikabideetako informazioaren nolabaiteko hobetzea ziurtatuko da, jarrera tolerante eta europarragoa erakutsiko da – teoriarik, noski – eta pixkanaka aldaketak ahalbidetuko dira biztanleriaren hezkuntza maila eta kultura egokiagoa izateko, errealitatean guztizko aldaketak Diktaturaren amaiera arte emango ez direlarik (Camino eta Murua, 2013). Horrekin batera kanpo inbertsioari atea irekitzen zaizkio, baita turismoaren bitartezko atzeritarren erakartzeari ere. Espainiak “sol y playa” lelopean salduko ditu Estatuko hego eta ekialdeko itsasertzak. eta gizartearen ongizatea bermatuta, bizimodu berriaren adierazgarri izango diren elementuak nagusitzen dira espainiarren bizitzetan (Vallejo, 2015).

3.2.3.1. Eskola Erregimenaren mesedera

Gerraostean ematen da “(una) eliminación de todo rastro de la política educativa republicana” (Dávila, 2004: 72). Aurreko garaian lotutako edozein irakasle edo pertsona ezabatuko da panorama politiko, kultural eta sozialetik eta hezkuntza sistema berriaren eraketan Falangea eta Elizaren ideietan oinarritutako eredu bat ezarriko da. Honela, bonbardaketa kultural gidatua deiturikoaren objektu bihurtzen dira haur eta

gazteak, doktrina berriaren baitan hezitako belaunaldiek etorkizuneko Estatuaren izaera betiketuko dutelakoan (Sanchez Erauskin, 1998).

Egoera horren baitan, frankismoak “borró de la memoria histórica cualquier suceso relacionado con épocas anteriores a la guerra o que no favoreciesen la nueva ideología” (Montero, 2008: 469) eta irakasten den diskurtso oro diktaduraren menpeko interesen mesedera garatuko da. Horrela, hezkuntza – Elizaren eskuetan –gizartearen kontrolerako tresnarik erabilgarriena bihurtzen da. Hezkuntzaren kontrol zurruna eta diktaduraren oinarri ideologikoen gailentzeak ekidingo du kanpoan garatzen ari diren ideia pedagogiko berrien helduera, eta beraz, Errepublikan indartutako proposamen berriak guztiz desagerraraziko dituzte (Dávila, 2004).

Espainiako hezkuntza sistemaren berrantolaketa baterako zenbait neurri hartuko dira hamarkada hauetan, Unibertsitate Ikaskuntzen erregulaziorako (1943), Lehen Hezkuntzaren Legea ezartzekoa (1945) eta Lanbide Heziketaren egonkortzerako lehen pausoak ematen dira (1949), besteak beste (Moreno Burriel, 2005).

Hirurogeiko hamarkadan Espainian ematen den hazkunde demografikoak ekarriko du Escolano Benitok (2002: 176) “explosión escolar” deitzen duena. Panorama berri honi aurre egiteko sortzen da 1962an Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa, eta nolabaiteko modernizazioa ematen da hezkuntza eskaera berriei erantzuteko. Derrigorrezko Hezkuntza 14 urte-arte mantentzen da, material eta testu didaktikoetan aldaketak sustatzen dira, metodo aktibo eta esperimentalen nolabaiteko txertaketa ematen da eta irakasleriaren trebakuntzan arreta berria ipintzen da, beste neurri batzuen artean, nahiz eta oraindik Elizak garrantzi handia izan (Escolano Benito, 2002).

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran aldaketa sakonak burutuko dira Espainiako hezkuntzan, gobernuak arlo honetara bideraturiko aurrekontuen hazkunde esanguratsu batekin (Soto Carmona, 1998). 1970an ezartzen da 14/1970 Legea, “Ley General de Educación y Financiamiento del Sistema Educativo” – LGE edo Palasí Legea bezala ere ezagutua – , berebiziko garrantzia izango duena hezkuntza sistema berriaren eraketan (Camino eta Murua, 2013). Lege berriaren baitan, hezkuntza etapen berrantolaketa, 6-14 urte bitarteko derrigorrezko hezkuntza biztanleria osorako, eta oraindik zentralizatua den hezkuntza sistema bat ezartzen da. Berrikuntzei dagokionez, lege honetan agertzen da lehen aldiz marko legalean zehaztuta hezkuntza jarraitua edo “educación permanente” kontzeptua (Moreno Martínez, 1992: 109). Horrela, eskolatze garaia ez ezik, helduei zuzendutako aukerak diseinatzeari ekingo zaio, egoera errealetan oinarrituz eta batez ere lan munduari bideraturik, formakuntza jarraitu eta egoki bat emateko lan egingo delarik.

Orokortutako ereduaren aurrean eta XX. mendean zehar izandako proposamen ezberdinen nolabaiteko berreskurapena eginaz, Berritze Pedagogikoaren

Mugimenduak hedatzen dira Espainian hirurogeita hamarreko hamarkadan³². Hauen sustatzaile nagusiak “trabajaban por la mejora de la calidad en la educación, partiendo de la práctica diaria y de la formación permanente de sus miembros, y propiciaban un cambio de modelo educativo frente a la escuela franquista institucionalizada” (Ruiz, 2007: 46). Eredu hauek, oro har, Heziketa Libreko Erakundea, Eskola Berria eta Eskola Modernoaren ideiak eta praktikak izango dituzte oinarri.

3.2.3.2. Kultura eta ondarearekiko interesa

Errepublikara garaian indartzen hasi den giro kulturala Gerra Zibilak errotik moztuko du, bi bandoen arteko borrokak, gerraoste garaiko hildako edota erbesteratutako intelektualak zein Diktaduraren ideologiaren ezarpenak eraginda (López Rodríguez, 2010). Gerra Zibilean zein gerraostean agertutako panorama guztiz ezegonkorra izango da eta ondarearen aldetik ere gainbehera garai bati hasiera emango zaio: suntsitutako eraikin, obra eta objektu ugariaren ondoren etorriko da espolioazio, lapurreta eta kontrabando garaia.

Egoera honetan, kulturaren gainbeheraren lehen urteei hasiera emango zaio, izan ere, diktadura tradizional militar eta kontserbadoreak ez du inongo interesik azalduko politika kulturalarekiko (Tusell, 2003). Diktaduran ezarritako kontrol zurrunaren baitan edozein ekimenek erregimenaren filtrotik igaro beharko du, euren nahi edo beharren arabera moldatzen direlarik. Erregimenak Estatuaren baitan existitzen diren kultura desberdinak homogeneizatzeko helburua izango du hasieratik eta hortaz, identitate nazionalaren baitako «tipismo»-etara murriztuko ditu (Arrieta, 2012d).

Bolañosek (2002) egoera honen arrazoi nagusiak definitzen ditu: Frankismoak arteekiko duen interes eza, zentsuraren baitan proposamen aukeren murriztasuna, errebantxa kulturala, zientzia eta artearen inkomunikazioa eta jarduera kultural ororen ofizialtasuna. Horrek eragiten du ideien pobrezia, kultur eremuetako instalakuntza anakronikoak, aurrekontu baxuak, kaos legala eta gizartearekiko isolamendua.

Diktadura garaia azken urteetan, ekonomia krisi sakon batek jotako herrialdea aurkitzen dugu, eta 1973ko greba eta errebolta sozialetatik abiatuta sostengarria ez den sistema batekin apurtzeko eskaerak geroz eta indartsuagoak dira. Era berean, kultur arloan mugimendu erreformista indartsuen ahotsak entzuten hasten dira pixkanaka eta, izaera sozial, kultural eta politikoa duten ekimenen difusioa hedatzen

³² Mugimendu hauek dira, Caivano eta Carbonellen (1979) hitzetan “un conjunto organizado de actividades teóricas y prácticas dirigidas a combatir y a superar la teoría y la práctica pedagógica dominantes en un momento dado”, Espainian ez ezik nazioarte mailako beste hainbat herrialdeetan hedatzen direnak (Esteban Fradesek aipatua, 2016: 263-264)

hasten delarik (Rojas Claros, 2006) eta gizarte berri bateranzko pausuak geroz eta garrantzitsuagoak direlarik.

Kanpoko ideiak heltzeko aukerak handitu izanak eragina izango du, diktaduraren lehen urteetatik desberdintzen den nolabaiteko malgutasuna eta geroz eta askatasun handiagoa izaten hasiko diren sortzaileen lanak zabaltzeak (Ait, 2007). Arte garaikideko erakusketak, Azoka eta Bienal ezberdinetako parte hartzea zein babes ekonomikoaren hastapenak baimenduko dira, beti ere kontrolpeko difusio eta ekimenak izango direlarik oraindik (Tusell, 2003).

3.2.3.3. Museoak eta hezkuntza

Diktaduran zehar museoak iragan estatiko, zoriontsu eta irreal baten gordailu bilakatuko dira, edozein berrikuntza edota mezu ofizialetik at dagoen adierazpenen desagertzearekin, eta burokraziaren menpe zein interesik gabeko agintari politikoen eskutan geratu direnak (Díaz Balerdi, 2008). Museoetan ematen diren aldaketa bakarrak historia militar inposatu baten agerpenerako edota gerraren garailei dedikatutako espazioak egokitzeko izango da.

Gaya Nuñok (2000) berrogeita hamarreko hamarkadan idazten duen moduan, Espainiako museoaren egoera penagarria da. Oraindik Espainiako museoaren egunerokotasunak mende hasierako erritmo motelaren baitakoa izaten jarraitzen du beraz (Bolaños, 2008).

Museoetako hezkuntza ekimenak ere apenas existituko dira, eta tankera horretako izaera izan dezaketen jarduera bakarrak kontserbadoreek egindako aldizkako bisitak edota adituen eskuetan gauzatzen diren hitzaldiak izango dira. Hortaz, nazioarteko egoeraren oso bestelakoa den panorama bat aurkezten da Espainiako Museoetan, non “los museos fueron simples contenedores sin actividad alguna abiertos a grupos elitistas, ignorando su papel en la sociedad” (Álvarez Arias, 1996: 136).

Hirurogeita hamarreko hamarkadan ordea, Frankismoaren amaierak, kultur jardueren sustapena zein hezkuntza sisteman ematen diren aldaketek ahalbideturik, museoetan nolabaiteko eraldaketak sumatzen hasten dira. Erakundearen inguruko erabilera eta izaeraren hausnarketak hedatzen dira, eta hala, “la idea de herramienta al servicio de la instrucción y el progreso sociocultural está cada vez más latente en la praxis de estas instituciones” (Álvarez eta Benjumea, 2011: 30). Zenbait museoetan lehen hezkuntza ekimenak diseinatzeari ekingo diote publikoaren eskaera berriari zein museoaren funtzio desberdin bati erantzun nahian. Hala ere, oraindik teoriarik garatutako proposamen horiek ez dira gizartean hedatuko eta museoak bisitari guztiei irekitako espazio hezitzaileak izateko urte batzuk igaro beharko dira.

3.2.4. Demokraziaren iristea

Francoren heriotzarekin batera Trantsizioa bezala ezagutu den garaia ematen da Espainian. Prozesu honetan eragina izango dute aldaketa sozio-ekonomikoak eta kulturalak, merkatuaren liberalizazioari lotuta eta emigrazioak, turismoak eta atzerriko inbertsioen bitartez munduari irekitzen den gizarte berriaren jaiotzak; hala nola erregimenaren barnean ematen ari diren arazo politikoak (Díaz Gijón, 1998).

Trantsizioko urteren ondoren, lehen hauteskundeak ospatu eta aro berri bati hasiera emango zaio. Hala ere, diktaduraren erregimenetik paktu bidezko salto bat egin zen monarkia parlamentario batetara, frankismo garaiko egiturak mantendu eta protagonista askok boterean jarraitzeko aukera izango dutelarik (Laburu, 1986).

1976an Erreforma Politikorako erreferenduma Estatu osora zabaldu eta 1977an lehen aldiz ospatzen dira hauteskunde demokratikoak Diktadurako urte luzeen ondoren, non mapa politiko berri eta anitz bat aurkeztuko den, ideologia ezberdinen baitako aukera ugariarekin (Vallejo, 2003). Orduetik aurrera txandakatuko dira Espainiako Gobernuaren agintaritzak eskuratuko duten alderdi ezkertiar eta eskuinaldekoak. Horrekin atera, 1978an Espainiako Konstituzioa ezartzen da,

Azkenik, demokraziaren egonkortze garai bat abiatuko da 1982tik aurrera, hain zuzen ere erregimen demokratikoaren jarraipena ziurtatuko duten egoerak eman eta ezarritako arauen errespetuan oinarritutako aurrera pausoak ematen hasten direnean (Díaz Gijón, 1998).

3.2.4.1. Hezkuntza sistema berreraikitzen

Ley 14/1970-ren³³ ondoren, Trantsizioa eta ondorengo hamarkadako urteak, hezkuntza sistemaren berrantolaketa eta egonkortze baterako garaiak bihurtzen dira. Eskolaren egituraren aldaketa sakonago baten beharra antzematen da demokrazia garaiari hasiera emanda, eta hezkuntza sistemaren erreforma baterako lanari ekiten zaio. Aldaketa txikiak izanik ere, 1970ko Legearen arabera funtzionatzen jarraituko da laurogeita hamarreko hamarkada arte eta horrek, aurreko garaiarekiko aldaketak eragingo ditu. Dudarik gabe

la ley Villar se convirtió [...] en una respuesta a la demanda creciente de democratización de la educación y a las necesidades de una sociedad dinámica, urbana e industrial que poco o nada tenía que ver con la sociedad a la que respondía la ley Moyano (Puelles, 2008: 10)

³³ *Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa*

Era berean, aurreko urteetan hedatzen hasiak diren Berritze Pedagogikoaren Mugimenduen indartzea emango da derrigorrezko hezkuntza etapei loturik, eta hala, 1982an Espainiako Hezkuntza Ministerioak ideia berri hauen ordezkari eta hezkuntza administrazioaren arteko elkarlana ahalbidetuko duten neurriak hartzen ditu³⁴, horien artean irakasleen trebakuntza hobekuntzarako programa ezberdinak abian jarriz (Ruiz, 2007). Egoera honetan, eskola tradizionaletik atera eta pixkanaka korrante pedagogiko berrien txertatzeko bideari ekingo zaio espainiar hezkuntza sisteman, zurruntasuna eta Elizaren zein Erregimenaren menpeko egoeratik atera nahian.

Egoera honetan beraz, hezkuntza tradizionalarekiko geroz eta kritikoagoak diren ahotsak hedatzen dira, eta neurri berriak hartzeko beharrak nagusi dira. Hezkuntzaren inguruko ikerketak eta argitalpenak hazten dira, irakasleen trebakuntzarako ikastegiak eta ikasketak zabaltzen dira, praktika pedagogiko berrien txertaketa ematen da eta adin desberdinei egokitzen diren beharrak asetzeko proiektuak planteatzen dituzten programak sortuko dira (Escolano Benito, 2002).

3.2.4.2. Ondare nazionala eta museoen irekiera

1977an Kultura Ministerioa sortzen da Espainian, herrialdeak bizi duen garai berriaren agergarri ere badena (Bolaños, 2008). Horrekin batera, 1978ko Konstituzioak eskainitako eskumen berriak zein 1979ko hauteskunderen ondoren autonomia erkidegoek eta udalek lortzen duten autonomia eta malgutasunak eragingo du lurraldeen antolaketaren baitan politika kultural berriak ezarri eta eremu zehatzen garapena ematea Espainian (Díaz Balerdi, 2010d).

Ondareari eta museoari dagokienez, bi dokumentu klabe izango dira Espainiako alor honetako ekimen ororen oinarri. Alde batetik, 1978ko Konstituzioan adierazten denez, Estatuak bere baitan hartuko ditu ondarearen babesa espoliazio edota desjabetzearen aurrean, eta Autonomia Erkidegoen eskuetan geratuko da horien interesaren araberako ondarearen babesa, hala nola museo, artxibo eta liburutegien gaineko kompetentziak³⁵.

Bestalde, *Ley 16/1985, de 25 de junio, de Patrimonio Histórico Español* ezartzen da, ondarearen definizio berri bat proposatzen delarik (Fontal, 2003):

los inmuebles y objetos muebles de interés artístico, histórico, paleontológico, arqueológico, etnográfico, científico o técnico. También forman parte del mismo el

³⁴ 1983an Espainian lehen Berritze Pedagogikoen Mugimenduen Kongresua ospatzen da, eta hortik aurrerako ibilbide egonkor bati hasiera ematen zaio.

³⁵ Espainiako Konstituzioa, 1978. VIII. Titulua, 149. Artikulua. Autonomia Erkidego bakoitzak du arlo hauen gaineko kompetentzia osoa, "15.^a Museos, bibliotecas y conservatorios de música de interés para la Comunidad Autónoma" eta "16.^a Patrimonio monumental de interés de la Comunidad Autónoma". <https://www.boe.es/legislacion/documentos/ConstitucionCASTELLANO.pdf> (2016ko maiatzaren 22an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

patrimonio documental y bibliográfico, los yacimientos y zonas arqueológicas, así como los sitios naturales, jardines y parques, que tengan valor artístico, histórico o antropológico (y) los bienes que integren el Patrimonio Cultural Inmaterial³⁶

Beraz, ondare nazionalaren definizio zabal honen baitan, horren babeserako, kontserbazio, ikerketa eta zabalkunderako burutuko diren ekimenak ugariak izango dira. Autonomia erkidego bakoitza, legearen oinarritik abiatuta, politika ezberdinak garatuko ditu ondare propioaren gainean. Ondare historiko-artistikoa ez ezik, ondare naturala, industrial, etnografikoa eta beste hainbat motetakoaren inguruko ikerketa eta babeserako jarrera bat zabalduko da estatu osoan; hots, panorama kulturalaren sustapen izugarria emango da garai honetan (Díaz Balerdi, 2010a).

Horrela, Diktaduraren menpeko hautsez betetako objektuetatik, oraingoan Espainia osoan zehar inizatiba ugariak hedatuko dira. Jarduera programazio zabalak, erakusketa areto publikoen irekiera, bildumazaletasunaren hedatzea eta beste hainbat ekimen izango dira laurogeiko hamarkadan zehar (Bolaños, 2008), ondare propio baten balorea indartu nahian. Honi estuki loturik irekiko dira Espainia osoan museo berriak, gai anitzak ardatz izango dutenak, baina batez ere identitate propioaren erakusle izan nahiko dutenak, Diktadurak ezabatutakoa berreskuratzeko nahian.

Estatuan museoen inaugurazio prozesu azkarrari hasiera ematen zaio orduan (Díaz Balerdi, 2010a). Erakusketa programazio zabalak eta hiriburu handiak nazioarteko zirkuituetan txertatzea emango da, batez ere Madril eta Bartzelonan garatuko direlarik programa interesgarrienak. Era berean, erakunde berriak lanean hasten dira eta Kultura Ministerioak, areto publikoen bidez, programazio interesgarri bati ekiten dio. Gainera, arte garaikideko museoen irekiera, galeriak eta erakusketa handien hedatzea biziko da garai honetan, Bolaños (2008) "kosmopolitismoaren eta modernitate egarria" deitzen duenari erantzun nahian.

Laurogeiko hamarkadan zehar ere, museoa gizarteari irekita eta publikoaren zerbitzura egon behar den erakunde bezala ulertuz, Museologia Berriaren iristea eta hedapena ematen da estatuko gunen zehatzetan, Navajasek (2015) aipatzen duen moduan. Pixkanaka, museologiaren baitako joera berriak bere lekua aurkituko du panorama honetan, Alonso Fernándezek (2012) eskutik iritsiko direlarik hausnarketa eta ideia esanguratsuenak alorrera.

³⁶ Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español. <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1985-12534> (2016ko maiatzaren 22an ikusia)

3.2.4.3. Hezkuntza eta museoak bat egiten dutenean

Museo berrien zein aurretik existitzen direnen modernizazioaren beharraren inguruko hausnarketa bat zabalduko da demokraziarekin batera, urte luzez hermetikoak izan diren erakunde horiek mundura irekitzeko prozesuari hasiera emanaz. Nazioarte mailan aurreko urteetan garatzen hasiak diren proposamen berrien helduera emango da Espainian, non aplikazio berantiarra izan arren, garai berriei egokitzeko proiektu ezberdinak gauzatzeko gai izango den.

Zenbait urte lehenago museo zehatz batzuetan eta oso modu puntualean hezkuntza ekimenak aurrera eramaten badira ere, laurogeiko hamarkada izango da klabea funtzioaren agerpen erreala barneratzeko museoetan. Hiru gertaera nagusi aipatu daitezke Espainiako museoetako hezkuntzaren garapenean eragina dutenak: Eskola taldeen zein beste bisitari batzuen etorrera masiboa museoetara, autonomia erkidego desberdinetako profesionalen elkartzea eta hausnarketa bateratu baten sorrera, eta marko legal baten eraketa, non museoen izaera eta funtzioak definitzen diren Estatu mailan. Horietatik abiatuta sortzen dira lehen hezkuntza sailak eta horiek buruturiko ekimenak.

a) Errekonozimendu legala

Museoen gaineko kompetentzien banaketa eginda ere, erakundearen izaera eta funtzioak definituko dituen marko legal baten beharra dago oraindik. *620/1987 Real Decreto*-aren³⁷ bitartez, Estatuko Museoen Titularitatearen arautegia eta museoen espainiar sistema onartzen da. Dekretuaren bigarren artikuluan definitzen dira museoaren funtzioak, zeina kontserbazio, katalogazio, zaharberritze, eta erakusketa diren. Era berean, aldizkako argitalpenak eta erakusketak antolatu, katalogo eta monografiak kaleratu eta edukien inguruko jardura didaktikoak burutzea bere baitan hartzen ditu. Beraz, edukien inguruko jardura didaktikoa garatzea da horietako bat eta horrela, hezkuntzak bere lekua aurkitzen du Espainiako Museoen antolaketan (Díaz Balerdi, 2010a). Hala ere, marko legal honen aplikazioa Estatuko museo baten burutuko da, eta erreferentziazkoa izanik ere, museo ezberdinen jabetzaren baitako ibilbide desberdina emango da, autonomia erkidego zein udalen esku geratuz erakunde hauen izaera eta antolaketa zehatza.

³⁷ *Real Decreto 620/1987, de 10 de abril, por el que se aprueba el Reglamento de Museos de Titularidad Estatal y del Sistema Español de Museos.* <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1987-11621> (2016ko maiatzaren 22an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

b) DEAC Jardunaldiak

Egoera berriari aurre egiteko existitzen diren museo gehienak erantzun bat emateko gai den lantalde egoki baten faltan aurkituko dira, profil profesional zehaztugabeak izanik eta hezkuntza sailen existentziarik gabe kasu gehienetan – nahiz eta aurrez sortuak diren lehen hezkuntza sailak Bartzelonan era esperimentalean (Valdés Sagüés, 1999).

Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieratik, Espainiako erakunde desberdinetako arduradun batzuk kezka horren inguruan hausnartzen hasten dira, eta elkar topo egiten dute Sazimbran, Portugalen, ospatzen diren CECA Jardunaldietan (Ministerio de Cultura, 1990). Jarrera horren orokortzea antzemanda, Espainian ere museoeko hezkuntza profesionalen elkargune bat sortzea beharrezkotzat jotzen da, eta hala, 1980. urtean antolatzen ditu Bartzelonako Udalak lehen Difusio Jardunaldiak, “(para) compartir sus problemáticas y plantear soluciones, aprender colectivamente, buscar referentes y construir la incipiente profesión de educador de museos” (Sanchez de Serdio eta López, 2011: 211). Hortik abiatuta, aldiro antolatuko dira azken urteetan DEAC Jardunaldiak izena jasoko duten topaketak, Espainiako museoetako hezkuntzaren panoramaren agergerri direnak. Lavadok (2008) aipatzen duen moduan, “abrieron una primera brecha en la preocupación de algunos museos por la actividad educativa y formativa” (16 or.).

Zkia.	Urtea	Lekua	Izena	Antolatzailea(k)
I	1980	Barcelona	Jornadas de Difusión	Ayuntamiento de Barcelona
II	1981	Zaragoza	Jornadas de los Departamentos de Educación en los Museos	Museo de Zaragoza
III	1983	Bilbao	Jornadas de Difusión de Museos	Dirección del patrimonio artístico, museos y bibliotecas del Gobierno Vasco y Dto. del Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico de Bilbao
IV	1985	Madrid		Museo Arqueológico Nacional y Museo del Prado
V	1986	Granada	Jornadas Nacionales de Departamentos de Educación y Acción cultural de Museos	Museo BBAA Granada
VI	1988	Valladolid	Jornadas Nacionales DEAC de Museos	DEAC del Museo Nacional de Escultura

Taula 12: DEAC Jardunaldiak Espainian (1980-1988)

Horrekin batera, beste gertaera batek ere eragingo du laurogeiko hamarkadako sorrera momentu hau ematea, izan ere, CECA-ICOM-eko Kongresua 1985an ospatzen da Bartzelonan (Rodà, 1988). Horrela, laurogeiko hamarkadaren aurretik sortutako hezkuntza sailak egonkortu eta indartzen joaten dira, eta aurrez departamentu bereizirik ez dute museoek euren hezkuntza sail propioa sortuko dute. Departamentuen jaiotza honetan oraindik orokortu gabeko izendapena aurkitzen daiteke, non Sagüés Baixerasek (1985) zerrendatzen dituen Espainian erabiltzen diren izendapenak: Hezkuntza Saila, Pedagogia Saila, Difusio Kultural Saila (Badalonako Museoan), Museoen Difusio Kultural Zerbitzua (Bartzelonako Diputazioan), Museoen Zerbitzu Pedagogikoa (Bartzelonako Udala), Didaktika Saila, Kabinete Pedagogikoa (Prado Museoa), Difusio Kultural Alorra (Catalunyako Generalitatea) eta Difusio Kulturalako Batzorde Teknikoa. 1983an, Bilboko Jardunaldietan hartutako erabakien artean, sailaren izendapenaren finkapena egongo da: DEAC, Departamento de Educación y Acción Cultural – euskaraz KEHS, Kultur Ekimen eta Hezkuntza Saila – (Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos, 1990), baina, errealitatean, sailen izendapena aldatuz joango da eta garaiaren arabera erabilera ezberdina egingo dute museoek.

Era honetan, aurrez existitzen diren Madril³⁸ eta Bartzelonako³⁹ sailez gain, hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik irekiko dira Espainian zehar hezkuntza sail berriak: Zaragozako Museokoa 1979an⁴⁰, Arabako Arkeologia Museoan hirurogeita hamarreko amaieran (López eta Alcaide, 2011), Bilboko Arte Ederretakoan 1988an (Vélez, 1992), besteak beste. Hala ere, laurogeiko hamarkadaren amaieran Álvarez Arias de Saavedrak (1996) aipatzen duenez, “estos departamentos no están muy generalizados en nuestros museos, a pesar de que la educación es una tarea que ha sido jurídicamente reconocida” (135 or.).

Egoera guzti honek agerian utziko du arazo larrienetako bat Espainian: hezkuntza saileko profesionalen profilararen finkatzea. Esan daiteke hala ere, laurogeiko hamarkadan probisionalak diren neurriak hartu zirela, kasu askotan era intuitiboan hartutako erabakietan oinarriturik. Izan ere, tradizionalki museoko lantaldean publikoaren arretara eta horientzako zerbitzuen eskaintzara dedikatutako talderik ez da existitzen. Banakako bisitarien eskariari erantzuteko edota tartekako taldeen bitak

³⁸ Museo Arkeologiko Nazionalak 1976an eratzen du bere hezkuntza departamentua (García eta Sanz, 1979)

³⁹ Bartzelonako Udalak Museoen Zerbitzu Pedagogikoa sortzen du 1981an, udalerriko museo ezberdinen ekintza hezitzailearen koordinaziorako (Guasch, 1986)

⁴⁰ Los Miércoles al Museo. <http://www.museodezaragoza.es/los-miercoles-al-museo/> (2017ko martxoaren 4an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

artatzeko kontserbadoreek burutzen dituzte “gida” lanak, erakusgai dauden objektuen inguruko eduki teorikoen transmisore funtzioa betez.

Museoaren izaera, funtzio eta erabilera berria, oro har, eragingo du ordura arteko diskurtso akademikoak baztertu behar izatea eta metodo, tresna eta baita profesional berrien eraketan arreta ipintzea. Lehen sailtako profesional askok irakasle formakuntza izango dute (López eta Alcaide, 2011), horietako batzuk gainera hezkuntza publikoetako sailetatik – Ministerio edota delegaritzak zehatzetatik – liberatuak izango direnak hezkuntza sailak osatzeko (Lavado, 2008). Era berean, lantalde hauek irakasleriarekin harreman jarraitu eta estua agertzen dute sorrera unetik, euren aholku eta gomendioak ezinbestekoak bihurtzen direlarik jardueren zein materialen diseinurako⁴¹.

Hala ere, hezkuntza munduan trebatutako pertsona batetik haratago, DEAC Jardunaldietan etengabe erreklamatu da profil profesional zehatza izango duten pertsonen trebakuntza eta kontratazioa, hala nola horien egonkortasuna ziurtatzen duten lan baldintza egokiak. 1986an, Granadan ospatzen diren DEAC V. Jardunaldietan (1986), hezkuntza eta kultur ekintzan formakuntza duen langileria egonkorra egon behar dela azpimarratzen da. Hurrengo jardunaldietan, museoko hezitzailearen langile idealaren eraketa baterako, adierazten da hezitzaileak museologian formakuntza izan behar duela, unibertsitate titulua, eta ondare bildumaren, hezkuntzaren eta komunikazioaren inguruko ezaguerak (Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural, 1988). Honek ordea, Espainiako unibertsitatearen eskaintza gabezia agerian utziko du.

d) Museologia unibertsitatean

Laurogeiko hamarkadatik aurrera ikastaro eta espezializaziorako proposamenak egiten hasten dira, baina oraindik eskasak dira aukerak (Díaz Balerdi, 2006d). Museologiaren inguruko formakuntza zehatzaren inguruan Espainian emandako garapenaren ikerketa sakona burutzen du Loretek (2010). Honen arabera, ANABAD Elkarteak edota Universidad Complutense-k, hirurogeita hamarreko hamarkadan eskaintzen ditu lehen museologia ikastaroak. 1984ko Unibertsitateen Legetik abiatuz, espainiar unibertsitate ezberdinak, Artearen Historiaren baitan sortzen dute diziplinari dedikatutako irakasgaia.

⁴¹ Bartzelonan 1982an sortzen da “Plan de Investigación para la utilización de los Museos por la Escuela”, Bartzelonako Udaleko Museoen Zerbitzu Pedagogikoa eta Bartzelonako Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Institutuaren elkarlanetik abiatuta, Udaleko Hezkuntza Sailaren kolaborazioarekin (Guasch, 1986)

Egoera honetan, Museologiako Graduondokoa da Espainian sortzen den mota honetako lehena, Iñaki Díaz Balerdi irakaslearen eskutik Euskal Herriko Unibertsitatean, 1989an. Urte berean eratzten da ere Madrilgo Complutense Unibertsitatean eskaintzen da Museologiako graduondokoa, Francisca Hernándezen gidaritzapean (García Fernández, 2014). Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, ordea, espainiar unibertsitate eta erakunde ezberdinen eskutik sortuko dira tankera honetako proposamenak edota Zaragozako Unibertsitatean, Madrilgo Universidad Complutense-n, besteak beste.

e) Lehen hezkuntza ekimenak

Nahiz eta museoaren arabera eta erakundearen izaeraren baitan egiten dituen lanak desberdinak izan daitezkeen, garai honetan orokortutako funtzioak izan daitezke erakusketen antolaketa, material didaktikoaren sorrera, erakusketen izaera didaktikoa sustatzen duten tresnen diseinua, jarduera kultural deiturikoen antolaketa – kongresuak, jardunaldiak, irteerak, tailerrak eta abar (Álvarez Arias, 1996).

Era berean, ikasle taldeen agerpen masiboa, ikaskuntza prozesuaren inguruko teoria ezberdinak zein biztanleriaren talde handiago batek duen kulturarekiko interesak eragingo du museoetan hainbat aldaketa burutu behar izatea (Polo eta González, 1994). Horrela, antolatzen diren jarduera eta sortzen diren materialen baitan, pedagogia aktiboak eragin berezia izango du – teorian behintzat – garaiko ikaskuntzaren baitako ideietan oinarritzen diren proposamenak sortzen saiatzen direlarik (Sagüés Baixeras, 1985).

Hamarkada honetan izaera tradizionalako jarduerak mantentzen dira, bisita gidatuak eta hitzaldiak bezala, baina berrikuntza nagusia adin edota publiko mota desberdinari egokitutako proposamenak izango direla da. Era berean, gehien zabalduko dena haur eta gazteentzako tailerrak izango dira, aurreko hamarkadetan AEB, Kanada eta Ingalaterran hedatutako museo-laboregia edota praktika eta esperimenezko gune izatearen ideia hedatzen delarik. Hezkuntza arautuaren baitan egiten diren moldaketak eta pedagogia korrante berrien baitan sortutako ideiei jarraiki beraz, museoetan lehen proposamenak egingo dira ikaskuntza praktikan eta esperientziaren bitartez ematean oinarrituta.

Idea honi jarraiki, museoetan lehen material didaktikoak agertzen dira. Hasieran soilik bisita gidatuetan eta erakusketetan erabiltzeko baliabideak sortuko dira (García eta Sanz, 1979), museo ingeles eta alemanen antzerako fitxa edota frantziarren gida didaktikoen antzerakoak sortuz (Lavado, 2008). Horrela, Valladolideko Eskultura

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Museoak, Bartzelonako museoek edota Prado Museoak lehen materialak argitaratzen dituzte.

Baina paperezko formatuan eta dokumentu idatzietan oinarritutakoetatik haratago, esperimentazio eta manipulazioan oinarritutako bestelako baliabideak ere sortuko dira. Espainian, Valladolideko Eskultura Museo Nazionalak sortuko ditu lehen Kit-ak 1983an, non piezen faksimilak, hauen ikerketarako tresnak eta deskubrimenduaren bitartezko ikaskuntzan oinarritutako baliabideak eskaintzen diren maleta edo kutxa itxurako bildumetan (Ángeles, 1986). Hauek, museoan ez ezik, hortik kanpora erabiltzeko ere diseinatuak izango dira, museoaren ekimenak bestelako dimentsio bat bereganatzen duelarik; Britainia Handiko museoek aurreko hamarkadetan jada proposatzen duten moduan.

f) Bisitari berriak museoan

XX. mende hasieratik garatzen hasiak diren lehen proposamenek indarra hartuko dute mendearen bigarren erditik aurrera, irakasleek ere museoekiko zein gelatik kanpoko jardueretik jarrera aldatzen duten heinean (Hernández Cardona, 2005). Mende osoan zehar egindako gomendioak, non geletatik atera eta ingurunea esploratzeko aukerak planteatzen diren, hirurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera orokortzen hasiko dira (Arrieta, 2012d). Horrela, ikasleen etorrera masiboa bizituko duten estatu osoko museoek (López eta Alcaide, 2011).

Hezkuntza arautuko taldeei erantzutea ez da gauza erraza izango, eta zaharkitutako material eta museografia batekin lan egin beharko dute ordura arte irekitako museoek, inauguratzen direnek ordea egoera berrira egokitutako erakusketak aurkezten dituzten bitartean. Museoak, pixkanaka, eskolaren luzapena bihurtzen dira Espainian, eta geletan landutako edukiak era erakargarrian aurkezteko baliabideak eskaintzen hasiko dira, adin-tarte desberdinei egokituta eta metodologia berritzaileak erabilia. Izan ere, hezkuntza munduan txertatzen hasiak dira pixkanaka korrante pedagogiko berrien ideiak eta joera kontstruktibisten baitan sustaturiko esperimentazioa eta ikaskuntza aktiboak museoak bilakatuko ditu bisita gune derrigorrezko (López eta Alcaide, 2011).

Horrekin batera, aisialdirako denbora gehiago eta kulturaren demokratizazioa deituriko prozesuan, museoak bilakatzen dira publiko mota desberdinentzako interes gune, asteburu eta jai egunetan bisitatuko dutenak. Egoera berri honetan, beraz, museoa, talde zehatz batentzat erreserbatutako espazioa izatetik, publiko orokorrera irekitzera igaroko da (Díaz Balerdi, 1994). Eskolako haurretatik haratago, pixkanaka banakako bisitariak, elkarteak, aisialdi taldeak eta hirugarren adineko pertsonen taldeak bezalakoak gerturatzen hasten dira museora, geroz eta hedatuagoa den bizi osoko

ikaskuntzaren ideien baitan museoak hezkuntzarako espazio ezin hobeak direlarik (Requejo, 1998; Valdés Sagüés, 1999).

Publiko berriaren agerpena zein museografiaren baitako pixkanakako eraldaketak burutzen badira ere, oraindik, Ballarten (2004) aburuz

(en) la profesión museística [...] conciben la función educativa del museo de forma similar a como la conciben para la escuela: basada en el modelo de transmisión-absorción; que consiste en que hay un experto detentador del conocimiento [...] capaz de transmitir a un alumno falto de conocimientos (95 or.)

Hortaz, itxuraz eraldatzen hasitako museoen gainazaleko aldaketa bat emango da gehienetan, eta ikaskuntza aktiboaren ideiak helduta ere, oraindik publikoaren mesedera funtzionatuko duten museoek ekimenak oso eskasak izango dira.

g) Ebaluazio lanak

Bisitarien inguruko ikerketei dagokionez, oraindik oso gutxi existitzen dira garai honetan, eta kasu gehienetan museoetako langileen behar profesionaletatik abiatutako proposamenak izango dira. Hots, euren museoko bisitariak ezagutzeko nahia agertuko duten profesionalak burutuko dituztenak era intuitibo batean, inolako formakuntza zehatzik jaso gabe baina euren eguneroko lanari aurre egiteko oinarrizkotzat jotzen dutenak lehen ikerketa xumeak burutzea: Madrilgo Arkeologia Museo Nazionaleko lantaldeak edota Kataluniako Museoetakoak (Alarcón, 2007).

3.2.5. Mende berriaren aurrean

Laurogeita hamarreko hamarkada Espainian eraberritze garaiarekin ematen da, egonkortutako herrialdea; ezker alderdien agintaldi luzeen ondorengo eskuinaren gailentzea – barne arazoei jarraiki – , politika ekonomiko berriei aurre egitea eta terrorismoak sorturiko egoerak nagusituko dira (Díaz Gijón, 1998)

XXI. mendearekin batera nolabaiteko egonkortze prozesua bizitzen bada ere, 2008 inguruan mundu osoan zehar zabalduriko ekonomia krisiak gogorki astinduko du herrialdea ere. Ongizate Estatuaren baitako desorekak, politika sozialen inguruko hausnarketa berrietarako bideak irekitzera behartuko du, eremu desberdinetan bizituko diren eraldaketa prozesuetarako oinarri bezala.

3.2.5.1. Hezkuntza politika berriak

Hezkuntza sistemaren baitako araudia berritzearen inguruko beharrak laurogeiko hamarkada osoan zehar antzematen badira ere (Puelles, 2008), ez da 1990 arte emango benetako aldaketa bat, *1/1990 Ley de Ordenación General del Sistema Educativo* – LOGSE – ezartzen denean, urte luzez 1970ko Legearen baitan funtzionatu ondoren (Camino eta Murua, 2013).

Hezkuntzaren marko legalaren eraldaketa etengabekoak bi arrazoi nagusi agertzen ditu: alde batetik, Espainiako Gobernuaren buru den alderdi politiko bakoitzak bere irizpide propioak ezarri nahi izateak, aurreko gobernuak egindakoa desegin eta ideologiaren araberako arauak ezartzeko nahian; eta bestetik, azkarregi aldatze den garai berrietara egokitzeko premiak bultzaturiko erantzuna bezala, aditu ezberdinen kritikak eta gomendioak barneratu zein berrikuntza pedagogiko eta teknologiei jarraiki egon behar den sistema bat eratzeko (Escolano Benito, 2002).

Urtea	Legea	
1970	LGE	Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa
1990	LOGSE	1/1990, de 3 de octubre, Ley de Ordenación General del Sistema Educativo
2002	LOCE	Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación
2006	LOE	Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación
2013	LOMCE	Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad educativa

Taula 13: Hezkuntza Legeak Espainian 1970-2013

1990ko legea oinarrizkoa bihurtuko da Espainia tradizionalarekin haustura berria planteatzeko hezkuntzaren eremuan, 16 urtera arteko derrigorrezko hezkuntza ezarriz zein irakaskuntza erlijioso guztiz baztertuz (Díaz Gijón, 1998). Bi mendeen arteko Espainiako hezkuntza sistemaren egonkortzerako bidean etengabeko gorabeherak nabarmenduko dira alor ezberdinei dagokionez, nagusiki hezkuntzaren deszentralizazioa eta zentralizazioaren eztabaidek (Camino eta Murua, 2013) sorturiko gorabeherak autonomia erkidegoetako eskumenetan sorraraziki dituztelarik arazo handienak.

Hala ere, Estatuaren egitura deszentralizatu batera zein autonomia erkidego bakoitzaren eskumenetara egokitutako sistemaren garapena emango da, eta hezkuntza ebaluazioa – alor eta eremu guztietara zabaldua – indartuko da etapa

honetatik aurrera (Tiana, 2013). Ondorengo urteetan eta gobernu aldaketen baitan emango dira hezkuntza legeen agerpena emanik ere – LOCE, LOE eta LOMCE legeak – , lurralde bakoitzak bere bidea egingo duen panorama bat izango da nagusi (García eta García, 2005).

Aipagarria da 2006ko legearen baitan agertuko dela lehen aldiz konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza-irakaskuntza bat mundu mailan hedatzen hasia den planteamendua barneratzen delarik Espainiako hezkuntza sisteman ere (Gillate, et. al., 2012). Hortaz, etorkizuneko legean zein hezkuntza planen aldaketa bat emango da eta ikaskuntzaren baitako panorama berriei egokituko dira. Honekin batera, 2009an Espainiako Gobernuak *Escuela 2.0* proiektua aurrera eramaten du, non ikasgeletan ordenagailu pertsonalen erabilera sustatu eta eskaintzen den ikasle bakoitzarentzat, irakasleentzako pizarra digitalak jartzen diren eta Wifi sarbidea hedatzen den (Fernández, Correa eta Ochoa, 2013).

3.2.5.2. Titanioak itsututa: Museoen *boom*-a Espainian

Azken hamarkadetako Espainiaren egoeran ere museoen boom bat ematen dela antzeman daiteke, demokraziaren garaia iritsi eta gizartearen egonkortzearekin batera, zein autonomia erkidegoen jardunari estuki loturik. Egoera ekonomikoaren egonkortasunak azpiegituren eraikuntza bultzatuko du, eta kulturari loturikoak protagonismo berezia bereganatuko dute Estatuko lurralde guztietan, ongizatearen irudi bilakatuko diren espazioak irekiz eta batez ere turismoaren industriaren menpe funtzionatzen hasiko direnak (Jiménez-Clavería, 2007).

Horrela, Espainia osoan zehar gai ezberdinak oinarri dituzten museo berriak, arte zentroak, laborategiak, Interpretazio Zentroak eta beste hainbat ondare zein kultura espazio irekitzen dira. Oro har, Unescok zehazten duen moduan, Espainia da ondare kultural gune gehien dituen herrialdea. Egoera horretan ematen dira desoreka nabarmenak turismoa eta kulturaren sektorearen artean (Asensio et.al., 2012) eta hortaz, museoen alorrean nagusituko da kasu askotan “(una) política megalómana de macroexposiciones y museos mastodónticos” (Blanco, 2005: 188).

Mundu mailan Guggenheim Efektuak sorrarazitako egoerak Espainian, noski, eragin handia izango du. Bilboko proposamenaren ondoren, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik hedatuko da jarrera berdina herrialde osoan; udalerrri guztiek bilatuko dute bisitarientzat erakargarria izango den *tenplu sakratu* propioa. Titanioak itsututa arituko dira garai honetako udal eta gobernuetako ordezkari asko, herri bakoitzean museo bat ez irekitzeak dekadentzia etorkizun baten betierekotasunera

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

bultzatuko dituela pentsatuta (Arrieta, 2003); museoak arazo guztien irtenbide bilakatzen dira – edo hala uste da – .

Baina, Estebanek (2007) Guggenheimaz aipatzen duenez, “su papel no estriba en proponer o suscitar debate, sino en comunicar el nuevo estatus de la ciudad y su atractivo como destino para la clientela foránea” (17 or.). Espazio berria, goi mailako gustu estetikoaren agergerri, demokratikoa den artegintza baten erakusleho baten moduan saltzen zaio publikoari orduan, jatorrian merkataritza sistemaren baitan jarduten duen erakundea izanik.

Zabaldutako joera berri honen baitan, Blancok (2005) dioen moduan,

el mundo cultural se vio sometido, pues, a los imperativos del ritmo que marcaban los valores de la rentabilidad económica, de modo que los diferentes estamentos gubernamentales concentraron sus esfuerzos en la promoción de la cultura como una mercancía más del consumo de masas (189 or.)

Hortaz, museo izaera eta ondare zein identitatearen zentzutik aldentzen diren proposamenak hedatzen dira, museo guztiak Guggenheim berria bilakatzeko nahia eta publiko kopurua handiak erakartzeko ideiak testuinguru guztietan aplikagarritasuna izateko oztopoak dituela antzeman gabe. Aurreikuspen eta errealismo gabezia batean oinarritutako proiektu eta inbertsio handiak nagusituko dira (Barrio eta Zubiaur, 2015), horrek suposatuko dituen ondorioak – ekonomikoak, sozialak zein politikoak – denbora gutxian nabarmenduko direlarik.

Museo “handien” eztanda honetaz gain, izaera lokaleko museoek irekiera hedatuko da garai honetan ere, lurralde bateko identitatearekin batera, turismoa erakarri eta jarduera ekonomiko eta sozialen parte bilakatzeko zentroak bezala (Navajas, 2015). Hortaz, atzerritarren interes eta gustuei erantzuteko espazioa baino gehiago bezala ulertuko dira garai honetan sortzen diren museoetako asko, eta erakundeak berak hiritartasunerako tresna erabilgarria denaren inguruan lan egingo da ere. Izan ere, deszentralizazio politikak eta lurraldeen arteko lehiakortasunak eragin du interesgarriak diren ondarearen inguruko ekipamendu ugariaren sorrera (Bonet, 2005).

Egoera honek eragingo du biztanleriaren zati handi bat bere ingurunean dagoen eta bere identitatearen parte den ondare kulturalarekiko balorazioa egiten hastea (Martínez Valdajos, 2014). Museo lokalen hedapena eta horietan aurrera eramandako praktikak bilakatuko dira ere proposamen interesgarriak Estatu osoan, horietako asko benetako erreferente bihurtuz, urteetan zehar aurrera eramandako planteamenduak eta ideiak museoek funtzio ezberdinak betetzera bideratuta, eta noski, hezkuntza ere bertako ardatz izanik.

Egoera honetan museoak, orain arte ondarea erakusteko legitimatutako ia espazio bakarra, beste eremu batzuekin partekatu beharko du ondarearen gaineko hezkuntza eta kultur ekintza: kultur etxeak, arte sormen zentroak eta erakusketa aretoak ugarituko dira (Alonso Fernández, 1993), hala nola museoaren deribazio desberdinak: Interpretazio Zentroak, ondare-guneak edota musealizatutako espazioak. Ordura arteko “ondare materialaren” eta “balore artistiko-historikoaren” gainetik bestelako izaera baten ikuspuntua agertu eta historia, arte eta arkeologia museoek euren hegemonia galtzen dute museo eredu eta ondare motaren zabaltzearekin batera (Álvarez Domínguez, 2008).

Gauzak honela, XXI. mendearen hasieran topatzen dugun espainiar museoen panoramaren aurrean arnasa hartzeko geldiunearen beharra nabari da. Izan ere, Arrietak (2012a) dioten moduan: “tras el efecto Guggenheim, los políticos, con pocos conocimientos sobre museología, han tirado de ellos sin tener un plan predefinido. Ahora, en tiempos de crisis y después de darles bombo, se preguntan si son o no necesarios” (53 or.). Estatu osoan sortu diren museoen zerrenda amaigabearekin topatu gara, eta horietan ematen diren hezkuntza ekimenak aniztasunaren irudi dira.

3.2.5.3. Estatuko Museoak

Aurrez aipatu bezala, laurogeiko hamarkadaren amaieratik, Espainiako museoen ordenaketa eta antolamendurako neurriak hartzen dira – 1985ko ondare legea eta Estatuko Museoen 1987ko Errege Dekretua – ⁴². Honetatik abiatuz, horien gaineko erabakiak eta politika berriak ezarriko dira, non gobernuaren jabetza diren museoak koordinatzeaz gain, estatuko beste museoen⁴³ inguruko oinarritzko informazioa eskainiko duen Estatuko Museoen Zuzendariordetza Orokorra eratuz.

Hauen baitan egiten den museoaren definizio eta funtzioak ICOM-ek zehaztutakotik oso gertu aurkitzen da. Horrela, kontserbazioa eta ikerketa, difusioa eta administrazio lanak egokitzen zaizkie nagusiki. Hezkuntza alorrari dagokionez, hau difusio sailaren menpe aurkitzen dela suposatzen da, non funtzio ezberdinak betetzeko estrategiak ere aipatzen dira, hauek izanik: bisiten hazkundea sustatzea (publiko fluxua handitzea); bisitaren esperientziaren kalitatea eta irisgarritasuna hobetzea zein eskaintza kultural handia egitea kalitate eta kantitatean; museoen ospea sustatzea; medio ezberdinen

⁴² Introducción a la historia de los Museos Estatales. In <http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/museos/los-museos-estatales/historia/introduccion.html> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

⁴³ “recoge los museos y colecciones museográficas que están oficialmente reconocidos por las Comunidades Autónomas en las que se encuentran, según su legislación vigente, su definición de museo o colección museográfica y los requisitos que cada institución debe cumplir para ello”. Ministerio de Cultura. In <http://directoriomuseos.mcu.es/dirmuseos/eldirectorio.jsp> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

bitartez bere presentzia bultzatzea eta museoen arteko elkarlanerako aukerak eskaintzea⁴⁴.

Adierazgarria da Estatuko Museoen Zuzendariordetza Orokorrek burutzen dituela 2000. urtetik aurrera Espainiako Museo eta Bildumen Estatistika txostenak⁴⁵, bi urtean behin, autonomi erkidegoetako museoen datuak eskainiz. Hauetan, ordea, museo hauen ekintzei buruzko aipamenik ez da eskaintzen eta bisitari kopurueta mugatzen da argitaratutako datuen izaera.

3.2.5.4. Museoak eta hezkuntza

Espainiako museoetako hezkuntza ekimenak berantiarak izanik ere, nazioarte mailako parera jartzeko moduan agertuko dira laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Horrela, aurreko urteetako isilunearen ondoren, interesgarriak diren hezkuntza programa ugari diseinatu eta burutzen hasiko dira museoak.

a) Hezkuntza sailak

Mende osoan zehar museoko langile batzuen profil profesionala finkatu eta egonkortu den bitartean – batez ere kontserbadoreak –, hezitzaile taldeak egoera berdinean mantenduko dira oraingoan ere. Hots, marko legal baten gabezia jarduten duten izaera ezberdineko profesionalen nahasketa ematen da, eta erakunde bakoitzaren irizpideen arabera kontratazioak burutzen dira hezkuntza ekimenak burutzeko museoetan. López eta Alcaidek (2011) dioten moduan, “tras el boom museístico “no se ha producido [...] una adecuada respuesta a las demandas profesionales” (15 or.).

Hezkuntza sailak, oro har, zerbitzu bat bezala ulertuko dira museo askotan, eta hortaz,, bigarren mailako zerbitzuak bezala ulertuak izango dira zenbait kasutan, ostalaritza, segurtasuna edota garbiketarekin batera. Eremu honetan eratzen dira beraz erakusketen muntaia eta diseinua zein eskaintza didaktikoa burutzean espezialista bihurtuko diren enpresa berriak (Carrión, 2006; López eta Alcaide, 2011). Baina lanpostu hauek behin behinekoak izango dira kasu gehienetan, eta kanpo jarduna bezala ulertuko dira askotan (Bonet, 2005), horrek museoen baitan eratu behar diren lantalde egonkorak izateko oztopoak suposatuko dituelarik. Padrók (1996) era goiztiarrean antzematen du hamarkada hauetan emango den jarrera orokortua: “la gestión de los departamentos de educación existentes es vertical, siguiendo las pautas del propio museo. De esta forma, la educación es el último eslabón” (118 or.).

⁴⁴ Estrategias de comunicación y difusión en los Museos. In <http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/museos/funciones-de-los-museos/difusion/estrategias.html> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

⁴⁵ Estadísticas de Museos y Colecciones Museográficas. In <http://www.mecd.gob.es/servicios-al-ciudadano-mecd/estadisticas/cultura/mc/em/portada.html> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

Hala ere, Espainian, museoetako profesionalen formakuntza akademikoaren beharrari erantzuten hasiko zaio. Unibertsitate ezberdinetan eskainiko dira museoetako hezitzaileak trebatzeko graduondokoak eta masterrak – Gironan, Zaragozan, Madrilen, Bartzelonan edota Murtzian – (Carrión, 2006; Lorente, 2010), laurogeiko hamarkadaren amaieran abiatutako proiektuei jarraiki. Era berean, museoetako langileei zuzendutako birziklapen ikastaroen eskaintza ere haziko da, gehien bat museoetatik antolatutak edota elkarte zein fundazio ezberdinen eskutik. Administrazio publikoaren esku-hartzea alor honetan oso baxua izan da bestelako herrialdeekin konparatuz – Britainia Handia, Frantzia edota Kanada – (Carrión, 2006). Alabaina, laurogeiko hamarkadan klabea izan diren DEAC Jardunaldien jarraipen bat emango da etapa honetan ere. Egonkortasun orokor baten baitan antolatutakoak izango dira – 1996 eta 2003ko hutsune zabalak salbuespen – non museo eta autonomia erkidego desberdinen parte-hartzea geroz eta zabalagoa izango den.

Zkia.	Urtea	Lekua	Izena	Antolatzailea(k)
VII	1990	Albacete	Jornadas DEAC	Museo de Albacete
VIII	1991	Mérida		Museo de Arte Romano de Mérida
IX	1994	Jaen		Diputación Provincial de Jaén
X	1995	Las Palmas de G.C.		CAAM
XI	1996	Bilbao		Museo de BBAA de Bilbao
XII	2003	Salamanca		Junta de Castilla y León
XIII	2005	Murcia		ANABAD
XIV	2006	Las Palmas de G.C.		CAAM
XV	2008	A Coruña		Museo de BBAA de A Coruña
XVI	2010	Valencia		IVAM
XVII	2012	Lugo		Museo de Lugo
XVIII	2014	Madrid		Museo del Prado

Taula 14: DEAC jardunaldiak Espainian (1990-2014)

Jardunaldietako gaiak anitzak izanik ere, etengabe hizpide izango da museoetako hezkuntza sailen egoera eta hezitzaileen profil profesionala. Hala ere, museoetako sailen egoeran topatzen da “una mayor profesionalización y [...] participación coordinada de equipos de diferentes disciplinas, encargados de vincular el estudio de sus contenidos con el diseño espacial y con las características de su acción difusora y educativa como instrumento transformador de la realidad” (Álvarez eta Benjumea,

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

2011: 37). Hortaz, egoera berriei aurre egiteko profesionalen jarreraren aldaketa bat nabarmentzen da, oztopo administratibo eta legalei aurre egin eta hezkuntza funtzio esanguratsua burutuz; baina oraindik ere profil profesional zehatz bat garatu gabe eta nazioarte mailako bestelako langileen maila berera heldu gabe.

b) Hezkuntza ekimenak

Jarduerei dagokionez, aurreko urteetako panorama aldatuz doa laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, mende berriarekin batera alor honi lotuta emandako aurrerapausoak direla medio – batez ere hezkuntza sistemako eraldaketa, ikaskuntzaren inguruko ikerketa eta teknologia berrien agerpenak – . Era berean, eremu batzuetan aplikatzen hasiko dira nazioarte mailan aurretik garatzen hasiak diren ideia berriak, erritmo motelago batean eta era berantiarrean iritsita ere. Etapa honetan, beraz, kontserbazio eta ikerketara dedikatutako espazio izate hutsetik aldenduko dira Estatuko museo gehienak - zaharrak zein berriak – , eta eskaintzaren dibertsifikazioa zein proposamenen hazkunde izugarria antzemango da (Díaz Balerdi, 2006c).

Jardueretako asko, gainera, egonkortasuna lortzen hasiko dira ere: ordura arteko saiaketak eta aldizkako ekimenak indarra hartuko dute, egitasmo interesgarri eta erakargarriak ikaskuntzan oinarritu eta modu egokietara planteatuko direlako. Egonkortasun izaera hau geroz eta garrantzitsuagoa bilakatuko da museoentzat ere, izan ere, Álvarez Rodríguezek (2007) zehazten duen moduan, “el aprendizaje ha de ser creativo y continuado, no basado en actividades puntuales, que quedan bien en la prensa pero que no construyen el futuro” (110 or.).

Baina laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, Espainia osoan zehar hedatzen dira ondarearen inguruko programak, ordura arte baloreari jarri gabeko elementu askoren defentsa, berreskurapen eta difusioa sustatuz. Horrela, museoak ere zirkuitu turistiko eta kulturalaren ardatz bilakatuko dira, esperientzia berriak eta kontsumitzeko prest dauden jarduerak eskaintzen hasiz: ibilaldi gidatuak herriguneetan zehar, bidaiak beste ondare espazio batzuk ezagutzeko, ikuskizun mota ezberdinak; azken finean, aisialdiko bestelako eragileen aurkeztutako formak eta estrategiak bereganatzen hasiko dira.

Panorama honetan, museo askoren izaeraren distortsioa emango da, benetako funtzioetatik aldenduz. Beste batzuk, ordea, orekaren bilaketan arituko dira, hezkuntza oinarri izanik entretenimendu eta aisialdiko proposamenekin bat egiteko gai izanik.

Azkenik, adierazgarria da laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hedatzen direla «outreach» programak; hots, museoak egoitzatik at beste espazio batzuetan burutzen dituen jarduerak – kartzelak, ospitaleak, hezkuntza bereziko zentroak eta abar –

(Padró, 1996). Jarrera honek museoaren demokratizazioarekin bat egiten du, ondarearen gaineko bestelako ikuspegi bat ere aurkeztuz.

Materialen aldetik, euskarri tradizionalen iraupena ematen bada ere: fitxa didaktikoak, koadernoak eta jokoak nagusiki. Zenbaitetan hauetako material batzuk digitalki eskuragarri ere ipini badira ere, teknologiaren bitartezko ikaskuntza ez da asko hedatu. Zenbait kasutan, hala ere, proposamen berriak agertu dira. Horrela, museoetako web orrien sorrera lehenbiziko pausoa izango da mundu digitaleko saltoa egiteko. Oso gutxi badira ere – edo ez behintzat funtzio hori betetzeko – web 2.0-ra salto egin dutenen kopurua ere handitzen da pixkanaka, urteek aurrera egin ahala geroz eta orokortuagoa delarik. Azken urteetan, zenbait museoetan web 3.0-ren hedapena ere eman da, baina oraindik oso maila baxuan topatzen ditugu honelako proposamenak (Asensio, Fernández, Cuenca, Fontal, eta Ibáñez, 2012; Tejera, 2013).

Internet plataformez gain, gailu digitalen agerpenak ere aldaketak suposatuko ditu espainiar museoetan, hauen bitartezko ikaskuntzak bestelako maila batetara eramango baitu teknologia berrien agerpena. Horrela, Prado Museoa, Thyssen-Bornemisza Museoa edota Guggenheim Bilbao Museoa bezalako erakunde handiek, lehen aplikazio digitalak sortuko dituzte. Lehenbizikoak web orrien luzapen bat izango dira, informazioa soilik eskainiz (López Benito, 2014). Pixkanaka, horien interakzio maila zein hezkuntzara bideratutako proposamenak garatuko dituzte, jokoak edota edukiak sortu eta partekatzeko aukerak eskainiz.

Era berean, sare sozialen erabilerak aukerak zabalduko ditu eta informazioa partekatzeko ez ezik, jardueren muina bihurtuko dira. Horrela, erabiltzaileekin elkar-eragiteko aukerak eskaintzen dira, non publikoa aktiboa den benetan (Kelly, 2009). Zenbait museoek, Instagram plataformaren zein Snapchat bezalako erabilera egin dute azken urteetan – Thyssen Museoa edota Prado Museoa – . Era berean, Twitter ere bihurtu da eztabaida sozialerako espazio ezin hobe, *hashtag*-ez bideratuak, non komunikazio horizontala ematen den eta dialogo irekien bitartezko ikaskuntza bat sustatzen den (Gómez Vílchez, 2012, 2014), oraindik oso eskasak badira ere Espainiako Museoetan.

Teknologian oinarritutako ekimenen ikerketak ere hedatuko dira Espainian. Horrela, lehenbiziko gailu mugikorren ingurukoak egiten dira, PDA-k oinarri izanik (Jiménez, Ibáñez, Correa eta Noarbe, 2005; Vicent, 2013) eta aplikazio digitalekin gerora, smartphone eta tablet-en bitartez (López Benito, 2014). Sare sozialen inguruko erabilera, ondare hezkuntzarako ere aztertu izan da azken urteetan (Maldonado, 2015). Aipagarriak dira Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Zientzien Didaktika Saileko ikerketa taldeak buruturikoak – GIPyPAC-eko Ondarearen Hezkuntza eta

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

Arkeologia – edota DHIGECS ikerketa taldekoa – Universitat de Barcelona – (López-Benito et.al., 2014).

d) Bisitaria, publikoa, erabiltzailea

Interneten erabilerak, museoaren irekitzea eta espazio berrien “konkista” garai honetan, museoak ez ditu soilik bisitariak izango – era fisikoan museoako espazioak bisitatzen dituztenak – baizik publiko edo erabiltzailerako zabalkunde bat antzemango da. Izan ere, Interneten hedapenak eta baliabide digitalen eskaintako hamaika aukerek, museoako erakusketak, edukiak edota interakziorako guneetarako espazioak eratzea ahalbidetu die erakundeei, museo bisitatzen ez duen publikoa bertako erabiltzaile bihurtuz.

Publiko tipologiaren aurretik, oraindik ere hezkuntza arautuko taldeak nagusitzen badira ere (Molina, 2011), oraingo etapan dibertsifikazioa maila guztietan ematen dela antzeman daiteke. Horrela, museoaren *deseskolarizazioa*-ren alde egingo dutenen ahotsak hedatuko dira, bestelako bisitarien mesedera lan egingo duten departamentuak izan beharrekin batera (García Blanco, 1996).

Nazioarte mailan gertatzen den bezala, familiei zuzendutako eskaintza ere hedatzen da, batez ere 2000. urtetik aurrera, eta helduentzako eskaintza Espainiara laurogeita hamarreko hamarkadan helduko da (Gillate, 2013). Era berean, adin desberdineko pertsonen arteko mugak gainditzeko proiektu interesgarriak sortu dira, belaunaldi arteko proiektu interesgarriak burutuz zenbait museotan.

Hauekin batera, dibertsitate funtzionaleko publikoaren agerpena berantiarra bada ere, zenbait erakunde hasiko dira pixkanaka testuak eta museografiako elementuak egokitzen – batez ere dibertsitate funtzional fisikoa dutenen mesedera – eta irisgarritasunaren gaia hedatuko da oinarrizko baldintza bezala museo guztietara. Adierazgarria da ere ONCE-ren Museo Tifologikoa ireki zela Madrilen, lehen aldiz pertsona itsuentzat guztiz egokitutako lehen museo. Dibertsitate psikikoa duten pertsonentzako proiektuak eskasagoak izanik ere, zenbait erakunde hasten dira fundazio eta elkarte zehatzekin lanean, museoan bertan burutzeko jarduerak zein horietatik kanpo egitekoak diseinatuz.

e) Ebaluazio lanak

Nazioarte mailako herrialde nagusietan ez bezala, Espainian oso eskasak izan dira publikoaren inguruko ikerketa eta ebaluazio lanak, baina azken urteetan izan dira egoera horri aurre egin eta lan interesgarriak burutu dituztenak, batez ere

unibertsitateetatik (Pérez Santos, 2000). Asensio eta bere lantaldea laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera arituko dira proiektu ezberdinen inguruan lanean⁴⁶, hauek aurrerakuntza nabaria suposatuko dutelarik erreminten sorreran zein teorikoki egindako lanean (Vicent, 2013). Materialei dagokionez, aipagarria da alor honetan 2006 eta 2009 bitartean “Lazos de Luz Azul” ikerketa proiektua⁴⁷, museo eta ondare espazioetako web orriak ebaluatzeko sorturiko tresna, non zehazki baliabide eta aplikazioen teknologiak aztertuko diren informazio eta ikaskuntzarako erabilgarritasunaren baitan (Asensio et.al., 2012). Era berean, Evaluación Cualitativa de Programas Educativos en Museos Españoles (ECPEME)” proiektua aipatu behar da, Espainiako Gobernuaren eta Oviedoko Unibertsitatearena, Roser Calaf buru duena eta Espainiako Museoen hezkuntza programen ebaluazio tresnaren sorrera proposatzen duena⁴⁸.

Administrazio publikoaren aldetik ere, Espainian, Laboratorio Permanente de Público de Museos sortzen da 2007an, Estatuko Museoen inguruan lan egiten duena. Honen funtzioa izango da

proporcionar datos, herramientas y conocimientos que permitan orientar todas las actuaciones de los museos que tienen como destinatario último al público, de modo que a través de la relación con el mismo se optimice el cumplimiento de la función social de los museos⁴⁹

3.3. Gipuzkoako testuinguru historikoa

3.3.1. Gipuzkoa XX. mende hasieran

XX. mende hasierako Gipuzkoa ere landa mundua nagusi den probintzia bat da. Hiriburuko bizimodua, giro kosmopolita ireki eta kulturarekin, guztiz kontrajarria agertuko da lurralde osoan orokortutako bizimodu xume eta tradizionalarekin. Egoera honetan emango da Donostiako hiriaren garairik oparoena ekonomikoki zein kulturalki. Donostia burgesia eta aristokrazia ahalmentsuaren bilgune bilakatuko da eta egoera politiko ezegonkor ezberdinei aurre eginez garatuko da bizitza sozial erakargarria zentzu guztietan. Horrekin lotuta ere, Lehen Mundu Gerran Espainiak izandako neutraitasuna aipatu behar da, Gipuzkoarentzat hazkunde ekonomiko handia

⁴⁶ Asensio, Pol, Real et al., 1998 lanean aurkitu daitezke aurrera eramandako proiektu guztiak (Vicent, 2013)

⁴⁷ Lazos de Luz Azúl. In <http://www.uam.es/proyectosinv/idlla/> (2017ko martxoaren 4an ikusia).

⁴⁸ ECPEME proiektua. In <http://ecpeme.com/> (2017ko martxoaren 1an ikusia)

⁴⁹ El Laboratorio Permanente de Público de Museos. In <http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/museos/mc/laboratorio-museos/que-es-el-laboratorio/presentacion.html> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

suposatzen baitu eta baita atzerriko intelektual eta aristokrata askoren bizitoki berria bihurtzeko aukera (Sada, 2008).

Era berean, 1875ko Foruen deuseztatzea eta Foru Aldundien desagerpenak eragingo du politikoki ezegonkortasun eta autonomia gutxiko garaiei aurre egitea. Egoera honek ordea, hiriburuaren harresien erortzearekin batera emango da 1863an (Urkidi, 1984), munduari ireki eta industrializazioa zein komunikabideen hobetzearen bitartez – trena, batik bat – egonkortze ekonomiko bat emango delarik, hiriarentzat ez ezik lurraldeko zonalde zehatzentzat ere adierazgarria izango dena.

3.1.1.1. Le Grand Tour-etik turismora

XVI. mendean Grand Tour terminoa jaiotzen bada ere XIX. mendean zabalduko da Europa osoan turismoa plazeragatik bidaiatzeko kontzeptu bezala (Lindoso eta Rodríguez, 2015). Espainiaren kasuan, oso zonalde zehatzetan garatuko da praktika hau eta XX. mende osoan zeharreko aldaketak emango dira erabaki politiko, gertaera historiko edota industria garapenaren menpe. Gipuzkoari dagokionez, Isabel II.ak udaldiak hiriburuan igartzeko tradizioari hasiera emango dio XIX. mende amaieran, honek eskaintzen dituen itsasoko ur eta klimatologiaren onurak direla eta; orduetik espainiar Erret Familiak udako garaiak Donostian emango ditu. Lehen Mundu Gerra arte bainu termalen eta osasunari loturiko turismoari jarraiki nagusituko dira probintziako beste udalerrri batzuk – Zestoa edota Ormaiztegi bezala – . Gortearen luxu zein *glamour* giro hark atzerriko zein Espainiaren beste probintzietako aristokrazia eta goi mailako familiak erakarriko ditu hurrengo hamarkadetan, benetako garai oparoari hasiera eman zaiolarik. Isabel II.aren ondoren, Maria Cristina zein bere seme Alfontso XIII.ak tradizioari eutsi eta Donostian igaroko dituzte udaldiak, egoera horrek bizitza kulturalaren aberastea sustatuz (Zulaika, 2002; Sada, 2009; Arrieta, 2012b).

Donostiak giro ezin hobea eskainiko du momentu horretan: klima atsegina, leku lasaia eta batez ere, bisitari berriei zuzendutako hamaika entretenimenduren eskaintza: zezenketak, lehiaketak, dantzaldiak, erakusketak eta jokia nahasten dira garatzen hasia den hiri modernoan. Honekin batera, kulturarako eta aisialdirako gune mitikoen irekiera ere ematen da XX. mende hasieran: Igeldoko Jolas-Parkea, Victoria Eugenia Antzokia, Maria Cristina Hotela, La Perla bainutokia eta Gran Kursaal kasinoa besteak beste. Gainera, turismoaren beharrei erantzuteko⁵⁰ 1927. urtean CAT – Centro de

⁵⁰ Zaragozan antolatutako Lehen Turismo Kongresuan Donostiako alkatea joaten da ordezkari bezala. Bertan Espainiako beste lurraldeen aurrerapen maila nabarmentzen duela adierazten da, batez ere Kataluniari dagokionez, zeina turismoaren inguruko entitate ezberdin ugari sortuak dituen. Horren baitan sortuko zen Donostian ere funtzio hori beteko zuen Zentroa, estatu beste zonalde batzuekin parekatu nahian. *Representación del Ayuntamiento en el Primero Congreso Internacional de Turismo y de los Sindicatos de Iniciativas celebrado en Zaragoza, 1908*. DUA. Sig. 281/10

Atracción y Turismo⁵¹ – Zentroa irekitzen du Udalak (“Orígenes del Centro de Turismo”, 2006), aurreko urteetan Propagandarako Komisioak betetzen dituen funtzioak aurrera eramateko asmoaz eta era berean goi klaseei zuzendutako turismoa sustatzeko helburuaz.

Primo de Riveraren diktadurak ordea Donostiaren gainbehera ekarriko du eta hiriaren ekonomia iturri nagusienetakoa den jokia debekatuko da 1925an. Luxuzko turisten bisiten beherakada eman eta Frantziako kostaldera mugituko dira aristokrata taldeak – Biarritz edota Saint Jean de Luz-era – . Gerra Zibilaren urteen parentesiak Francoren diktadura garaiak ekarriko ditu, non Diputazioak disolbatu eta Gipuzkoaren ekimen oro – kulturala barne – nazio berriaren mesedetara maneiatuko den. Donostiaren garrantzi turistikoaren galera emango da mendearen lehen erdiaren amaiera eta ez da hirurogeiko hamarkada arte berreskuratuko (Artola, 2001).

3.3.1.2. Industrializazioa vs landa mundua

Hiriburutik kanpo eta Gipuzkoako barnealdean batez ere, oraindik oso atzeratuta dagoen nekazal lurren mantentzea ematen da, eredu zaharkituetan oinarrituta eta hiriburuan bizi den garapen ekonomiko eta kulturaletik urrun. Industria esparru zehatzetan espezializatutako enpresen txikien agerpenak zonalde konkretuen garapena ekarriko du: Metalurgia eta siderurgiara dedikatutakoak, elikagaien industria, ehungintza edota papergintzan espezializatutako enpresen artean, hazkunde nabaria jasango dutenak ere izango dira – horrek burgesia aberatsaren agerpen bat ere ahalbidetuz – (Castells, Cajal eta Molina, 2007) .

Hala ere, aurrerakuntza sozio-ekonomikoa motela emango da – langile mugimenduaren helduera berantiarra eta industrializazio prozesua Bizkaian baina maila baxuagoan – . Mende hasieran orokortutako landa eremu hauen egoera baserri giroan murgildutako gizartearena da; Eliza eta tradizioak finkatutako baloreei tinko eusten diona eta modernitatearen zantzu ororen aurkako babesle (González Rodríguez, 1988).

3.3.1.3. Kultura eta Zientzia

Euskal lurraldeetan ematen den industrializazioa, migrazio mugimenduak eta garapen sozialak eragiten du eskaera sozial eta hezkuntza mailaren igoera bat emateak (Escolano Benito, 2002). Horrekin batera, XIX. mende amaieran jaiotzen den nazionalismoak berebiziko garrantzia izango du euskalduna izango den kultur

⁵¹ Turismoa garapen ekonomikorako tresna dela antzemanda, Estatu interbentzioa emango da arlo horretan eta mota honetako kudeaketa zentroak ohikoak bihurtuko dira (Gordon, 2002)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

garapenerako. Era berean, XIX. mende amaiera eta XX. mende hasieran Europan nazio edota lurraldeen berezitasunak baloratu eta sustatzeko korrontea zabaltzen da.

Gipuzkoan ere, giro kultural eta intelektual aproposa izanik, elkarte eta erakunde ezberdin ugariaren jaiotza emango da, giza zein natura zientzien ingurukoak batez ere (Mujika, 1995). Elkarte hauek mota ezberdinetako ekimenak burutuko dituzte: argitalpenak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak; eta horietako askok elkarlanean edota era bateratuan lan egingo dute sortuko diren museo berriekin.

Donostiako hiriak XIX. mende amaieratik biziko ditu aditu eta intelektual askoren erakargarri izango diren mota ezberdinetako erakusketak, bertako ondarearen erakusgarri direnak (Ayerbe, 1994). Aipagarriak dira, besteak beste, 1896.urteko Pintura eta Eskultura Erakusketa, Donostiako Arte Ederren Elkarteak antolaturik "(con el) "deseo de ofrecer un mero aliciente a la colonia forastera que nos visite durante la estación veraniega"⁵². 1897 urtean Industria Artistikoen Erakusketa Probintziala antolatzen da eta 1899.urtean Arte eta Historia Atzera Begirako Erakusketa aurkezten du Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoak, honen funtzioaren inguruko adierazpenek jada bestelakoa den izaera bat nabarmentzen dutelarik: "El propósito [...] no se concreta a organizar una exhibición de objetos más o menos raros o curiosos, sino que desea dar al concurso un carácter práctico y educativo"⁵³.

Primo de Riverarekin bizitako hiriaren gainbeheraren ostean, II. Errepublika garaian kultur bizitzan parentesi bat suposatuko duten ekimenak abian jarriko dira: intelektual askoren lana garatzen da, prentsa askatasuna ezartzen da eta errepresio pean bizitako kazetari zein idazle askorentzat garai berri bat suposatuko du. Baina egoera honek gutxi iraungo du eta Gerra Zibilak alde batera utziko ditu hamarkada horietan gauzatutako proiektu interesgarri guztiak (Mujika, 1995).

3.3.1.4. Hezkuntza sistema

Estatuaren hezkuntza sistema zentralizatzailea eta homogeneizatzailea hedatzen da Espainia osoan XIX eta XX. mende hasieran. Orokortutako hezkuntza sistema non curriculumak, hizkuntza eta irakasleak kontrolatzen diren, etengabeko eztabaida izango da zenbait probintzien kasuan, besteak beste euskal lurraldeetan. Eskola nazionalen sistemari jarraiki alfabetatzea eta nolabaiteko egonkortasuna bideratzen bada ere XX. mende hasierako hezkuntzaren panorama goibela nagusitzen da Gipuzkoan.

⁵² *Exposición de Pintura y Escultura, organizada por la Sociedad de Bellas Artes de San Sebastián*. DUA Sig. 278/14. 1 or.

⁵³ *Exposición de Arte Retrospectivo, organizada por la Sociedad Económica Vascongada de Amigos del País*. 1899. DUA. Sig. 278/16. 1 or.

Hala ere, euskal probintzietako izaera eta identitatearen inguruko lehen ideiak agertzen hasiak dira ordurako – nazionalismoaren sorrerarekin batera – eta hezkuntza euskaldun orokortu baterako lehen pausoak emango dira, ideia pedagogiko berriak txertatzearekin batera (Dávila, 2004). 1918ko Eusko Ikaskuntzaren Kongresua klabea izango da, Oñatin antolatutako honetan 900 kongresista ezberdinek parte hartuko baitute. Honetan aztertuko diren gaiak “Zientzia politiko eta sozialak, Arraza, Hizkuntza, Historia, Artea, Irakaskuntza eta Eusko Ikaskuntza” izango dira; beraz, hezkuntzak garrantzi handia izango du proposamen berrietan. Testu liburu elebidunak sortzen hasten dira eta korrante pedagogiko berrien teoriak aplikatzen hasten dira (Bilbao eta Pérez, 2008), estatu mailako beste zonalde batzuetan bezala – Katalunia, nagusiki – hezkuntzaren inguruko proposamen berriak indartzen saiatzen direlarik.

Estatu osoan orokortutako hezkuntza sistematik at, alfabetatu gabeko gehiengotik ateratzeko neurriak hartzen dira Euskal Probintzi Batzuetan. Gipuzkoaren kasuan Landa Eskolak sortzen dira 1927tik aurrera, hiriburuetako haurrek ez ezik, landa eremuko umeei oinarrizko hezkuntza eskaini nahian – Bizkaian Auzuneetako Eskolak deituko dira – (Garmendia, 2008). Eskola hauetan irakasle eta maisuak diru-laguntzen bitartez ordaintzen dira, material gutxirekin lan egiten dute eta egoera okerreko instalakuntza zein baldintzetan ikasten da, baina era batean bizitzen ari diren hezkuntza panorama penagarriari aurre egiteko lehen pausoa bihurtzen dira (Dávila, 2004).

3.3.2. II. Errepublika, Gerra Zibila eta Diktadura

Frankismoaren garaian orokortutako egoera errepresibo eta grisa Espainiako lurralde guztietara zabaltzen da eta Gerra Zibilaren osteko probintzia askoren zigorrak oraindik iraungo dute mendearen bigarren erdian ere.

Bizkaia eta Gipuzkoaren kasuan ordea, industrializazioaren eraginezko gorakada ekonomikoak eta Espainiako beste lurraldeetatik emigratutako biztanleriaren hazkundeak eragingo du lurraldeen garapen maila altua izatea hirurogeiko hamarkadatik aurrera. Prozesu honek eragingo du zonalde zehatzen garapen azkarra ematea, eta Gipuzkoan, ordura arte bigarren maila batean mantendutako zenbait eskualderen nagusitasuna ematen hasiko da (Granja eta Pablo, 2002).

3.3.2.1. Ikastolen jaiotza

II. Errepublikak planteatuko duen hezkuntza laiko eta doakoak ez du arrakasta handirik izango Euskal Probintzietan; izan ere, Alderdi Nazionalistaren kristautasun printzipioak alderatzearen kontra egingo dute. Horrela, *Euzkadiko* behin behineko Gobernuak – 1936ko Autonomia Estatutuaren ondorengoa – , Kultura Saitetik abiatuz, lege proposamen asko ezeztatuko ditu, gobernu errepublikarraren kontrako jarrera hartzen baitu (Dávila, 2004).

Gerra garaiko parentesi urteen ondoren, Frankismoaren iristearekin Diputazioen zerbitzuen deuseztatzea emango da, horien artean Instrukzio Publikoaren desagerpenarekin. Hezkuntza berriz ere Estatu totalitarioaren eskuetan geratu eta Espainia osoan orokortutako nazional-katolizismoaren ideiei jarraituko dion sistema abian jarriko da. Eskola nazionalak nagusi izango dira hezkuntza arautuaren sistemako ardatz bezala, non euskaldunak ez diren irakasleen nagusitasuna emango den, euskal zantzua duen gertaera eta jarrera ororen kontrako errepresio gogorra abian jarriko delarik.

Egoera honen aurrean sortzen dira ikastolak, euskal eskola propioak. Honen aurrekariak izango dira berrogeiko hamarkadan Donostian sortzen diren lehenak, non hamar ikasle inguru biltzen diren etxe pribatuetan, euskara ikasi eta ezarritako ordenatik aldetzen diren metodologiaren bitartez ikasteko. Ikastola hauek etengabeko borrokan aritu beharko dira Erregimenetik babesteko, klandestinitatean lehenbizi eta geroz eta irekiagoa den modu batean geroago, isilpeko lan batean aritzen diren boluntarioen eskutik – nagusienetakoa Elvira Zipitria izango delarik – (AAAA, 2011).

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera ematen diren aldaketa politiko eta kulturaletik abiatuta sortzen joaten dira lehen euskarazko testuak, haur literatura eta testuliburuak nagusiki (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015). Era berean, ikastoletan hedatzen da sistema ofizialetik bereizten diren metodologia aktiboak, ikasleen beharretara moldatutako jarduerak eta zigorraren zein memorizazioaren bitartez ikastetik aldentzen direnak. Espainia osoan gertatzen denaren guztiz aurkako egoera bat bizitzen da bertan, pedagogia alternatiboek oinarrizko paper bat izango dutelarik (Dávila, 2004).

Hainbat urteetan arituko dira Eliza euskaldunaren babespean, autofinantzatzea eta kudeaketa propio bati esker funtzionatuz. Azkenik, 1969an Gipuzkoako Ikastolen Federakuntza sortzen da, ondorengo urteetan beste probintziek jarraituz (Dávila, 2004), ondorengo urteetako egonkortze prozesuari ateak irekiz.

1970ko Legea bilakatuko da ikastolentzako oinarrizko aldaketa bat, ama hizkuntzaren ikasketa ahalbidetu eta lurralde bakoitzeko berezitasunen txertatzea ematen delarik

irakaskuntza prozesuan, horrek Espainiako ondare kulturalaren aberasgarri bihurtzen duen heinean (Zabaleta, Garmendia eta Murua, 2015).

3.3.2.2. Kultura eta ondarea

II. Errepublikak suposatzen duen aldaketak gutxi iraungo du, eta Europan arlo kultural ezberdinen inguruko ekimenak hedatzen diren bitartean, Euskal Probintzietan gune kulturalen itxiera eta bertako kideen dispersioa emango da gerra zibilean eta diktaduraren hasieran. Horrela, erbestean lan egingo duten taldeen lana bakarrik mantenduko da, argitaletxe batzuei esker hedatuko dena (Mujika, 1995).

Geldiunearen ondoren zein Frankismoaren urterik gogorrenak igarota, hirurogeiko hamarkadatik aurrera nolabaiteko irekiera ahalbidetzen duten neurriak hartzen dira. Oraindik kontrol zurrun eta zentsuraren menpe egonda ere, kultura arloan folkloreak izenean arituko diren taldeen sortzea emango da. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera geroz eta ozenagoak izango dira inposatutako Erregimenaren aurkako ahots euskaldunak, eta egoerari aurre egingo dioten artista eta sortzaileen lanak hedatuko dira pixkanaka. Kultura eta identitate propio baten izenean lan egingo duten horien indartzea emango da, batez ere, Frankismoaren amaieran.

3.3.3. Demokraziaren urteak

1979an Euskal Autonomi Estatutua onartu eta erkidegoko hauteskundearen ondoren 1980an EAE osatzen duten hiru lurraldeetarako – Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa – gobernua eratzen da: Eusko Jaurlaritza⁵⁴. Egoera berri honetan, aurrez gobernu zentralaren esku dauden eskumen asko erkidego bakoitzeko gobernu berrietara igarotzen dira, euskal gizartearen arlo ezberdinen bultzada eta sustapenerako ezinbestekoak izango direnak. Era berean, lurralde historiko bakoitzak Foru Aldundia osatuko du, Eusko Jaurlaritza horietara ere zenbait eskumenen besterentzea eginik⁵⁵. Gipuzkoa – Espainiako beste lurraldeak bezala – laurogeiko hamarkadatik aurrera abiada handian mugituko da, ordura arteko ekimen eta proposamen guztiei hasiera emango zaiolarik alor ekonomiko, sozial eta politikoan. Urte luzez galdutako edo isilpean mantendutako nortasunaren aldarrikapenak biderkatzen dira, eta identitatearen irudikatzerako oinarrikoak suertatuko dira hezkuntza eta kultura bera.

⁵⁴ Aurrez Euzkadiko Gobernua II. Errepublika eta erbestean funtzionamenduan egon dena; eta Euskal Aholkularitza Orokorra – egoera aurre-autonomikoa – (Montero, 2008)

⁵⁵ Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos

3.3.3.1. Hezkuntza sistema EAE-n

Diktaduraren amaiera arte, Espainia osoan bezala, Gipuzkoan ere Erregimenaren autoritarismoaren baitan funtzionatuko du ezarritako hezkuntza sistemak – ikastolak salbuespena izanik – . Hirurogeiko hamarkadaren amaieran egoera aldatzen hasten da – LGE Legearekin zein gerora Konstituzio berriarekin – eta pixkanaka ikastolak hedatzen joaten dira, irakasle tituludunak sartzen dira eskoletan, ikastetxe zentro berriak eraikitzen dira, eta ikastolen mugimenduaren urterik oparoenei hasiera ematen zaio (AAAA, 2011).

Era berean, EJ-ren esku geratzen dira hezkuntza eskumenak 1980an⁵⁶, eskola publikoaren ardura jasotzen duelarik orduan (Dávila, 2004). Egoera horretan aurre egiten zaio bi bide ezberdin hartzen dituen eskolari: Ikastolen jarraipena eta ardura berria den eskola publikoaren bidea. Bi arloetan hezkuntza sistemaren berrindartzea eta modeloen aldaketaren beharra antzematen da, autonomia erkidegoaren beharretara eta errealitatera egokitzen den eskola bat sortzeko nahian.

Eskolaren baitan, aurreko urteetan hasitako prozesuari jarraitu eta garaian garaiko aldaketak txertatzen joango dira, beti ere Estatu mailan ezartzen diren marko legal ezberdinen baitan funtzionatuz baina era berean euskalduna den hezkuntza bati so eginaz.

Hezkuntza arautuko arloa ez ezik, bestelako esparrutan ere arreta ipiniko da. Horrela, irakasle zein hezkuntza profesionalei zerbitzu berriak eskaintzen zaizkie: Ingurumen Eskolak, CEIDA formakuntza Zentroak, eta Berritze Guneak, besteak beste. Helburu nagusia ikaskuntza zentroein arreta eta errefortzu zerbitzua eskaintzea, aholkularitza pertsonalizatua, material bereziaren sorrera eta ikerketa lanen sustapena burutzea izango dira. Beraz, eskolaren errefortzurako proposamenak hedatzen dira EAE-n. Era berean, hezkuntzaren baitan gai berrien agerpena eta indartzea sustatuko da administrazio publikotik. Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, ingurugiro hezkuntza eta sostengarritasun kontzeptuari lotutako ideiak agertzen dira hezkuntza programetan, jasangarritasun programak hedatzen dira; hiritartasunerako proiektuak gauzatzen dira eragile ezberdinekin elkarlanean; edota ondarearen gaineko politika berrien garrantzia hedatzen da eskolako eremura ere.

EAE-n, aldi berean, hezkuntza proiektu berriak txertatzen dira: Amara Berri sistema⁵⁷; Konfidantzaren Pedagogia; EKI proiektua ikastoletan. Guztietan ikasteko modu berriak

⁵⁶ “El 26 de septiembre de 1980, el mismo Gobierno Vasco recibió, por decreto, las transferencias o competencias en materia educativa, por lo que las escuelas públicas o estatales existentes hasta aquel momento se convirtieron en escuelas transferidas” (Euskaltzaindia- Euskal Herriko Ikastolen Elkartea, 2011: 129)

⁵⁷ “En el año 1990 se considera a Amara Berri como Centro de Innovación Educativa del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, reconociéndole las dos funciones que llevaba desarrollando hasta el

planteatzen dira, klase magistralak, testuliburuak eta mahaietan eserita dauden ikasle taldeen buruz ikastearen abilezian oinarritzen ez direnak. Gainera, *Eskola 2.0*-ren txertatzearekin zein maila guztietan IKT hartzen duten presentzia adierazgarria izango da. Hots, lan egiteko modu berriak txertatzen dira hezkuntza arautuaren arloan ere.

3.3.3.2. Ondarearen babes

Diktaduran bizitako lapsus egoeraren ondoren, eta batez ere Autonomia Estatuaren eta gero, “se pasa a unos primeros resurgimientos (...) y (...) afloran cada vez con más fuerza (...) toda clase de expresiones y soportes culturales” (Abós Ugarte, 1987: 53).

Espainiako 16/1985 Ondare Historikoaren Legea, ekainaren 29koa, oinarritzkoa izango da ondorengo urteetako jardunaren erregulazio eta ekimenetarako. Honen baitan, kulturaren sustapena izugarria izango da autonomiek euren eskumenak eskuratzen dituztenean.

GFA-ren aldetik, kultura eta ondarearen inguruko ekimen goiztiarrei ekingo dio, galdutako ondarearen berreskurapen eta babeserako proiektu ugari abian jarri. Alde batetik, ondare historiko-artistikoaren ikerketa eta birgaitzea burutzen hasten da Foru Aldundia, arkeologia indusketak sustatzen dituen bitartean. Honen baitan industria ondarearen egoera ezegonkorak materialen zein espazioen kontserbazio eta berreskurapenaren beharra geroz eta nabariagoa bihurtzen da. Bestalde, ingurune naturalen babes eta berreskurapenaren gainean lanean hasten da: Natura Parkeen izendapenen inguruan lanean hasten dira, birlanak egiten dituzte, espazio naturalen gaineko difusio kanpainak abian jarri eta landa eremuan burutu ahal diren hezkuntza proiektuan sortzen dira.

Ondarearen babeserako joera berri honetan gizartearen inplikazioa ere garrantzitsua izango da, eta erakunde publiko zein pribatu ezberdinek antolatuko dituzte auzolandegiak edota udako lantegiak. Era berean, difusiorako eta ekimen hezitzaile bereziak sortzen joango dira. Horien artean aipatzekoa da GFA-k sustatutako *Zaharkinak* proiektua (Leizaola eta Leizaola 2008), zeinak ondare lokala berreskuratu eta birbaloratzeko ekimena abian jartzen duen, ondare etnografikoaren katalogo bat eratzeko helburua ere duelarik. Gipuzkoako udalerrri desberdinetan⁵⁸ antzinako objektu etnografikoez osatutako bilduma iragankor bat osatzea da helburua, hura aztertu, katalogatu eta erakusteko. *Zaharkinak* proiektua burutzen den herrietako batzuetan

momento: la investigación y renovación pedagógica así como acciones relacionadas con la formación del profesorado” (Martín, 2007:171)

⁵⁸ Hamazazpi edizio ezberdin antolatuko dira 1989 eta 2004 bitartean. Lehena Andoainen antolatzen da eta hurrengo Zerainen (Leizaola eta Leizaola, 2008)

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

gainera, etorkizuneko erakusketak edota museoak sortzen dira, horietako batzuk museo berrien jaiotzarako abiapuntu ere izango direlarik.

3.3.3.3. Museoak

a) Eusko Ikaskuntzaren lanak

Laurogeiko hamarkadako euskal panorama kultural eta zientifikoaren deskribapena egitean, Abós Ugartek (1987) bi arlo hauetako produkzioan hutsune handia izan dela azpimarratzen du, eta hortaz beharrezkotzat jotzen da egoeraren aldaketa ahalbidetuko duen plan berri eta eraginkorrak gauzatzea. Horretarako egoeraren deskribapena, antolaketa eta katalogazioa aurrez egitea oinarrizkoa da.

Ondarearen gaineko azterketari ekiteko pausoetako bat 1980an Museo eta Monumentuen Batzarra osatzea izango da. Egoeraren berri emateko osatuko da 1987an Eusko Ikaskuntzaren X. Kongresua artxibo, liburutegi eta museoei dedikatzen zaiona. Bertan izandako hitzaldi ezberdinetan EAE-ko museoen berri emango da.

Gipuzkoaren kasuan, Manu Izaguirrek – garaian GFA-ren Ondare Historiko-Artistikoaren Zerbitzuko buru dena – argituko du garaiko lurraldearen panoramaren egoera. Bertan aipatzen ditu lurraldeak dituen arazo nagusienak alor horretan: finantzazio publiko eskasa, museo estatikoak eta erakusketen kontzepzio didaktiko baten eza existitzen dela, publikoari zuzendutako plangintza eta eskaintza programaturik gabekoak eta gainera, pertsonal kualifikatu eta espezializatu baten gabezia nagusiturik. Izaguirrek (1988: 326) aipatzen duen moduan, egoera horren aurrean, GFA-ren Kultura sailak hainbat ekimen sustatzeko ildoak finkatzen ditu:

- 1985tik aurrera museoei zuzendutako diru-laguntzak definitzea
- Laguntza teknikoa eskaintzea muntaia, aurkezpen, zaharberritze eta beste gaien inguruko aholkularitza bitartez.
- Trebakuntza: beka eta diru-laguntzak sortzea teknikari espezializatuak izateko
- Difusioa: erakusketak, katalogo eta eskuorrien argitalpenak, eta abar.

b) Eusko Jaurlaritza

EAE-ko museoen egoerari buruzko ikerketak ere sustatuko dira administrazio publikoaren aldetik. Horietako lehenengoa izango da 1983an egindakoa, EJ-ko Kultura Saileko Ondare Historiko-artistikoko Zuzendaritzak⁵⁹ Euskal Herriko Museoen egoeraren diagnostiko burutuz, baina ez da ondorengo hamarkada arte emango EAE-ko museoen antolaketa baterako aurrera pausorik. Era berean, 1983ko azaroaren

⁵⁹ Museoen egoerari buruzko diagnostia, *Eusko Jaurlaritza*. STMA. Sig. 329/10

25eko Lurralde Historikoen Legearen arabera, Foru Aldundiei titularitatea duten lurralde historikoko museoen gaineko kompetentzia eskusiboak onartzen zaizkie (Díaz Balerdi, 2010a).

EAE-n 7/1990 Legea, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa⁶⁰ ezartzen da, oinarritzkoa izango dena Espainiak ezarritako 1985ko Ondare Legetik aurrerako marko propio bat eratzeko (Arrieta, 2012d). Honen arabera Kultura eta Euskara Departamentuak esleitzen dizkio Kultura Ondarearen Zuzendaritza nagusiarri ondare, artxibo eta museoekudeaketaren eskumenak.

Lege honetako 90. atalaren arabera

Eusko Jaurlaritzak, 10.000 biztanletik gorako udalerrri eta eskualdeetan hiriarri buruzko erakustetxea⁶¹ sor dadineko ardura izango du. Erakustetxe hauen berariazko egitekoa hiri bakoitzeko historiaren argipidetarako izanezko osagai edo alderdia eskuratzea, zaintzea, erakustea eta horien zabalkunde egitea izango da

1995an EJ-k autonomia erkidegoko turismo azpiegitura sortu eta hobetzeko dirulaguntzak ematen ditu⁶², hiru lurralde historikoetako edozein udalerrirentzat eskuragarriak direnak. Egoera hartan, geroz eta indar handiagoa bereganatzen ari den turismoa eskualde askorentzat bihurtzen da garapen ekonomikorako motor garrantzitsua izateko aukera. Honek bultzatuko ditu turismo produktu berrien sorrera, nekazaritza-turismoaren garapena zein azpiegiturak berritu eta produktuak merkaturatzeko egitasmoak.

Honen baitan, museoek fenomenoak garrantzi berezia hartzen du, eta identitatearen indartzerako elementu izateaz gain, sustapen ekonomikoaren ikurra bihurtzen da, proiektu askoren muina bilakatuz. Baina, Leizaola eta Leizaolak (2008) dioten moduan,

Esta fiebre museística, que aspira a que cada comarca, e incluso cada municipio, se dote de una estructura museal, plantea un serio reto a las instituciones que más allá del poder municipal se hacen cargo de estas cuestiones como son las diputaciones y el Gobierno Vasco (201 or.)

Honekin batera, 1997az geroztik eta batez ere 2000. urtetik aurrera, Guggenheim Eftektuaren eragina hedatuko da EAE osora. Edozein arazo ekonomikoren aurrean zein

⁶⁰ 7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa. In <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/1990/08/9002387e.shtml> (2015ko ekainaren 5an ikusia)

⁶¹ Gaztelerazko bertsioan erakustetxeei "museo" hitza egokitzen zaio

⁶² AGINDUA, 1995eko martxoaren 28koa, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteak turismo-azpiegitura sortu eta hobetzeko laguntzak emateko eta turismo-produktu berriak aztertu, diseinatu, abian jarri eta merkaturatzeko. In http://www.irekia.euskadi.eus/eu/orders/199501730?criterio_id=822837&track=1 (2015ko ekainaren 5an ikusia).

3. MUSEOAK ETA HEZKUNTZA. OINARRIZKO ILDOAK

utzitako eskualde ororen sustapenerako museoak irtenbidea izango direnaren ideia hedatzen da hemen ere. Horrela,

En el territorio vasco el “efecto” condujo a que muchos ayuntamientos buscaran abrir museos con la esperanza de que, al igual que el edificio de titanio, los suyos también atrajeran a una multitud de turistas y fueran un recurso que favoreciera el desarrollo socioeconómico local (Arrieta, 2012d: 85)

2000. urtetik aurrera, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren baitan sortzen da Museoen Zentroa, bertatik ordenatu eta koordinatzeko EAE-ko museoek ekintzak. Orduetik aurrera autonomia erkidegoko museoek inguruan lan egingo da hemendik eta hainbat proiektu abian jarriko dira. Nagusia du 7/2006 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskadiko Museoena, lehen aldiz erkidegoko museoentzako marko legal zehatza eratuz. 54/2008 Dekretuarekin, Euskadiko Museoen Aholkularitza Kontseilua eratzen da, eta 132/2011 Dekretuarekin, Euskadiko Museo eta Bildumen Erregistroaren funtzionamendua eta antolaketaren arautegia onartzen da, zeinaren Euskadiko Museo izateko aitortzea arautzen zen⁶³.

EJ-ak, gainera, 2004 urtetik aurrera, Euskadiko Museo eta bildumen estatistika txostenak argitaratzen hasten da bi urtero, non museoek tipologia, azpiegitura motak, irisgarritasuna, bisitariak eta jardura zein argitalpenen inguruko azterketa laburrak egiten diren, horrek ere aurrerapauso garbia adierazten duelarik autonomia erkidegoko museoek eremuan.

d) Gipuzkoako Foru Aldundia


Lurralde Historikoarekin Legearekin “(se) otorga competencia exclusiva a los órganos forales para ejercitar en materia de Museos e Instituciones relacionadas con las Bellas Artes y Artesanía” (Izaguirre, 1988: 325); Hortaz, 1985 ondoren, GFA-k eskumen berriak eskuratu eta Kultura Departamentuaren barnean Museoen Saila sortzen du, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren menpe. Sail berriak ordura arteko egoeraren azterketa, ekipamenduen koordinazioa eta ekintzen sustapenari ekiten dio orduetik aurrera, oraindik oso nahasia ez den museoek mapa baten aurrean lan eginik.

Baina azken urteotako ekimen eraginkorrenetakoa *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoek Antolatze Plan* izan da, 2009ko abenduan argitaratua (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2009). Probintziako museo guztiek azterketa bat burutzen da, etorkizuneko proiektu bat diseinatzen da eta hauek antolatu eta kudeaketa egokiago baterako

⁶³ Kasu honetan, museoek esku geratzen da bertako zerrendan inskribatzeko tramite guztiak burutzea; horrek eragiten du – eta oraindik ere hala izaten jarraitzen du – aitortzea lortzeko prozesua jarraitu ez duten museoek desagerpena EJ-k burututako ikerketa eta zerrenden baitan

Museoak eta hezkuntza Gipuzkoan. Kartografia historiko bat

programa bat eratzen da. Lehen pausoa izango da *Gipuzkoako Museoak* web orria sortzea, ekipamendu guztien datuak, informazioa eta albisteak bilduko dituen espazioa. Era berean, San Telmo Museoa “museoen museo” izendatzen da, lurralde osoko beste museo guztien ardatz bezala funtzionatzeko helburuz. Orduetik aurrera plan horretan proposatutako hainbat ekimen garatzeari ekiten zaio, existitzen diren museoek multzokatze eta koordinazio baterako pausua emanaz.



Irudia 2: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoak Antolatzeko Plana. GFA, 2009 (Iturria: www.gipuzkoakultura.eus)



Irudia 3: Gipuzkoako Museoak web orria (Iturria: www.gipuzkoakomuseoak.net)

**4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO
MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN DESKRIBAPEN
DIAKRONIKOA**

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Ikerketaren testuingurua ezagutu ondoren, Gipuzkoan existitu diren museoen hezkuntza ekimenen inguruko dokumentazioa aztertu da. Informazio iturri ezberdinetatik abiatuta eratu da katalogo bat, non erakunde bakoitzak, inaugurazio urtetik 2014. urtera arte, izan duen garapen orokorra eta ezarritako aldagaiek jasan duten eboluzioa erakutsi den. Emaidza hauek, etorkizuneko inbentario osatuago baten oinarri bihurtzen da, eta orain arte jaso ez den informazio ugari bildu eta hezkuntza alorrean burututako ekimenen erakusgarri da.

Era honetan, 54 museo ezberdinen deskribapen diakroniko bat aurkezten da ondorengo atalean, hauek, inaugurazio urtearen araberrako ordenaketa batetan oinarrituta aurkeztuz (ikus III. eranskina). Salbuespen bezala, Lenbur Lurraldeko museoan antolaketa desberdindu da, horien baitan sortu eta kudeatutako espazio guztiak Lenburreko atalaren baitan bildu baitira.

4.1. Donostiako Museo Historiko, Artistiko eta Arkeologikoa/ Donostiako Udal Museoa / San Telmo Museoa

Donostiako Udal Museoa Gipuzkoan irekitzen den lehen museoa da. 1902an inauguratutako zentro hau espazio txikietan eta oso aurrekontu baxuarekin funtzionamenduan egongo da urte luzez, museoaren izaera eta funtzioaren inguruko ideian ados jartzen ez diren aditu eta politikarien eztabaida jarrai batean murgildurik (Arrieta, 2012b). Udal Museoaren irekieraren jatorria 1899an kokatzen da, hirian ospatutako *Arte eta Historia atzera begirakoa* erakusketan (“Exposición histórica y de Artes Retrospectivas”, 1899), Arte Ederren Jauregian egin eta lurraldearen inguruko ideia ilustratuak eta ezaguera artistiko-historikoak hedatzea helburu izango duena (Gómez Izaguirre, 1952) . Ekitaldi horrek arrakasta izugarria izango du hiriko zein probintziako ondarearen aberastasuna agerian uzten duelako. Bisitariak ez ezik, erakunde nagusiek ere babestu dute ekintza hau – Gipuzkoako Aldundiak, Donostiako Udalak eta Gasteizko Apezpikutzak (Arrieta, 2012a) – . Inaugurazio egunean Erret Familia bertan izango da, horrek berebiziko bultzada eman diolarik erakusketari⁶⁴. Erreginak berakhirian museo bat sortzeko beharra aipatzen duela adierazten dute garaiko komunikabide, eta antolatzaileek ere aukera egokitzen joko dute ideia hori:

si el éxito correspondía á (sic) las esperanzas, dicha Exposición podría servir de base a la fundación de un Museo Municipal, histórico, artístico y arqueológico, siguiéndose así el ejemplo de varias grandes poblaciones del Extranjero (sic.), cuyos hoy hermosos y florecientes Museos, hán (sic.) tenido todos el mismo origen indicado⁶⁵

Egoera honen aurrean, Donostian Udal Museo bat sortzeko lehen pausoak ematen hasten dira: Lehenbizi komisió bat antolatzen da hirian eta gerora, 1900ko urtarrilean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoaren Patronatu Orokorrean museoaren sorrera onartua izango da. 1900eko irailean, azkenik, Museoko Patronatua osatzen Udalaren onespeneraren ondoren (Fornells, 2003) eta Gipuzkoako Aldundiak museoaren sorkuntzaren babesa adosten du 1901eko maiatzean (Arrieta, 2012b).

Museoan erakusgai ipiniko diren objektuei dagokionez, Donostiako Udal Museoak ez du berezko bilduma propio bat aurrez, errege edo aristokrazia jatorrikoa. Hori horrela izanik, Patronatuak herritarren elkarlana eskatuko du, zirkular baten bitartez hiritarrei objektuak dohaintzan eman edota deposituan uzteko deialdia eginez. Era berean

⁶⁴ “Inauguró la Familia Real en esta Ciudad, en 12 de Agosto de 1899 la Exposición Histórico-Arqueológica, organizada por la Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País”. *Domingo 5 de Octubre de 1902. Inauguración de este Museo por S. M. C. el Rey Don Alfonso XIII y S. S. A. A. R. R. STMAD.* 1. A.L. 2 or.

⁶⁵ “Abogó S. M. la Reina Regente para que se crease un Museo en San Sebastián”. *Domingo 5 de Octubre de 1902. Inauguración de este Museo por S. M. C. el Rey Don Alfonso XIII y S. S. A. A. R. R. STMAD.* 1. A.L. 2 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

erakunde ezberdinei ere laguntzan eskatzen hasten dira: Gipuzkoako Aldundiak obren dohaintzen eskaerari baiezkua ematen dio, hala nola Espainiako Gobernuak. Lehen urteak lokal txiki batean igaroko dituzte, etorkizuneko museoa izango denaren inguruan lanean, behingoz Udalak erakustokia instalatzeko espazio bat eskaini dien arte.

1902ko urriaren 5an ofizialki inauguratzen da Donostiako Museo Historiko, Artistiko eta Arkeologikoa, Alfontso XIII.a erregearen presentziaz. Museoa hiriko Arte eta Lanbide Eskolako eraikinean kokatu da lehen urteetan, Andia eta Garibai kaleen artean, beste funtzio batzuk betetzen dituen espazio partekatuan. Hasierako urteetan Patronatuak gogor jarraituko du bildumaren osaketa eta katalogazioarekin, aldi berean instalakuntzei egokitutako erakusketa antolatzen ari delarik. Baliabide ekonomiko eskasekin ere, museoa egunero irekitzen da eta doako sarrera du (Fornells, 2003); egoera horietan lortzen duen arrakastagatik eredu bihurtuko da ondorengo urteetan sortuko diren bestelako museoentzat.

Arte eta Lanbide Eskolako lokaletan museoa irekitzen unetik argi dago instalakuntza haiek oso espazio gutxi eskaintzen dutela, bai bildumaren hazkundearen erritmoa jarraitzeko – bildumako piezentzako biltegiaren beharra, pertsonalaren barne lanetarako espazioak, erakusketaren zabalkuntza – , hala nola bisitarien harrerarako.

Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz, 1905. urtean, Arte eta Lanbideen Eskola berria, Udal Liburutegia eta Udal Museoa kokatzeko eraikin berria altxatuko du Donostiako Udalak. Urte horietan, Udal Museoak, etnografia ataleko bilduma handituko du modu erabakigarrian; pieza ugari bildu eta bultzada berezia emango zaio arlo honi. Egoera honetan, museoak Gipuzkoako lurralde historikora mugatutako bilduma zabaldu eta Euskal Herriari buruzko museo bat izateko norabidea hartzen hasten da (Arrieta, 2012b). Aldundiak, museoaren bertako izaera batetik lurralde osoaren interesari erantzuteko bidera salto egingo dela ikusirik, diru-laguntzak handituko ditu eta laster Museo Etnográfico Vasco izena hartuko duen sail bereziaren osaketaren inguruan lanean hasiko dira (Fornells, 2003). Donostiako Udalak ere, museoaren garrantzia eta hiriaren garapenean duen eragina azpimarratuko du, Marino Tabuyo alkatearen kasuan bezala, zeina:

Añadió que confiaba que los futuros Ayuntamientos, comprendiendo el interés grande que para el Fomento del Turismo y de la cultura-artística popular, tienen los Museos en todas partes, habían de seguir ayudando poderosamente. [...] abogando por el fomento intelectual del Turismo en San Sebastián, indica la conveniencia de proteger eficazmente al Museo etc.⁶⁶

⁶⁶ 55ª Sesión. 29 de Diciembre de 1913. STMAD. 3. A.L. 61-61v orr.

Bilduma handituz eta publikoa geroz eta ugariagoak izanik, laster sumatuko da bigarren egoitzan ere espazio falta existitzen dena eta Patronatuak erreklamazio jarraituak egingo dizkio Udalari museorako egoitza berri bat egokitzeko⁶⁷. Honi erantzunda, Donostiako Udalak Pasealeku Berriaren aldamenean eta Urgull mendiaren magalean kokatzen den dominikarren komentu bat birgaituko du. 1929 eta 1932 bitartean iraungo duten obren ondoren, Udal Museoa eta Liburutegia inauguratuko dira eraikin berrian, Donostiako Udal Museoak San Telmo Museoa izena hartuko duelarik. Egoitza berri eta handiagoa izanik ere, ondorengo urteetan Patronatuak etengabeko erreklamazioak egingo ditu finantzazio eskasia dela eta jarduerak antolatzeko ezintasuna aurkitzen duelako⁶⁸. Alabaina, San Telmok aurrera egingo du Patronatuko kide zein museoko langileen esfortzuarri esker, funtzionamendu egoki baten zailtasunak etengabekoak izanda ere.



Irudia 4: San Telmo
Museoa (Iturria:
www.santelmomuseoa.es)

Gerra Zibilaren iristeak zein ondorengo Diktaduraren urte luzeetan, Museoko Patronatua apenas elkartuko da⁶⁹, Batzarreko kideen izaera politikoak eragindako arazoak eta aurrekontu eskasiak ezarritako mugak pairatu behar izango dituztelarik (Fornells, 2003). Museoan ematen diren aldaketa bakarrak Erregimen berriaren laudorio-gune bilakatzeko izango da, Espainiaren historia militarren erakusle bihurturik⁷⁰. Erregimen berriaren menpe geratuko da bildumaren antolaera berria, hala nola burututako jarduerak ere, helburua izanik “poder convertir [...] el Museo en su

⁶⁷ 69ª Sesión. 17 de Octubre de 1916. STMAD. 4. A.L. 33-33v orr.

⁶⁸ “...manifiesta que es inconcebible que un Museo instalado como el actual no tenga ingresos; que de haberse contado con ayudas económicas se hubieran podido organizar Exposiciones que sirvieran de atractivo. Encarece la necesidad de ocuparse con todo interés por el Museo, y termina manifestando que el Museo para tener vida ha de entrar en fase distinta pues con el Reglamento actual jamás podrá desarrollarse”. Sesión de 26 de Noviembre de 1934. STMAD. 6. A.L. 1v or.

⁶⁹ 1936 eta 1937 bitartean hiru bilera besterik ez dira egiten, eta bertako aktek informazio eskasa eskaintzen dute urte hauei buruz

⁷⁰ Moscardó jeneralaren omenezko espazioa erreserbatzen da, Toledoko Alcazarrari buruzko areto bat sortzen da eta Gerra Zibilari buruzko areto berria eratzeko piezak biltzen hasten dira

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

centro digno de la nueva España”⁷¹. Era berean Patronatuak argi adierazten duen moduan, museoaren funtzio nagusia da “contribuir a elevar la cultura del pueblo al mismo tiempo que sirven de gran utilidad a cuantos se ocupan en las nobles manifestaciones intelectuales, artísticas e históricas”⁷². Berrogeiko hamarkadan, oro har, Patronatuko kideek San Telmo duen helburu nagusiari erreferentzia egingo diote: “atraer al público, acostumbrarle a visitar el Palacio Municipal [...], (y) crear en torno al Museo de San Telmo un ambiente de simpatía y de belleza”⁷³.

Bien bitartean, mende hasieran berreskuratutako etnografiaren atalaren zein arkeologia eta paleontologiaren garrantzia indartuko da, Aranzadi Zientzia Elkarteak 1947an sortu eta museoak lokal batean bere egoitza ezartzean (Arrieta, 2012b). 1957ko Patronatuaren Araudi berrian aipatzen denez, arte objektuez gain, “otros científicos y arqueológicos que sirvan para difundir la cultura en sus distintas modalidades”⁷⁴ biltzen hasiko da museoak. Aldi berean, 1958.urtean, Gipuzkoako Aldundiaren eskutik, funts etnografikoa erosteko diru-laguntza jasoko du museoak, pixkanaka zientzia honekiko lanak sustatzen joan direlarik. Aranzadi Zientzia Elkartek, XX. mendeko hirurogeiko hamarkadan *Museo del Hombre Vasco* proiektua aurkeztuko du⁷⁵, San Telmoren egoera ezegonkorrari aurre egiteko irtenbide bezala, museoak dituen gabezi nagusiei aurre egiteko eta bultzada berri bat emateko asmoaz:

El actual museo [...] resulta de muy escaso interés [...]. Dedicado mayormente a la exhibición de obras pictóricas mediocres que no despiertan interés en los visitantes, y cuya sección de Etnografía se halla incompletísima, montada de forma abigarrada y nada didáctica⁷⁶

Alabaina, proiektu berriak, museoaren izaeraren inguruko planteamendu bat ere ekarriko du, ordura arte agertu ez den funtzio didaktikoaren aipamenaz: “que su contenido podía estar exhibido didácticamente, de forma que cualquier objeto sirviese para despertar la curiosidad del visitante, permitiendo a este profundizar”⁷⁷. Proiektu guzti hauek ordea instalakuntzen egoera penagarria eta langileria prestatuaren gabeziarekin talka egingo dute, eta proposamen berriei era egokian aurre egitea eragotziko dute.

⁷¹ Sesión de 14 de Diciembre de 1939. STMAD. 6. A.L. 40 or.

⁷² Memoria justificativa de su gestión durante el año 1941 San Telmo. DUA. Sig. 3766/10. 1 or.

⁷³ Sesión de 15 de Febrero de 1941. STMAD. 6. A.L. 48 or.

⁷⁴ Reglamento del Patronato de los museos Municipales de San Telmo y de la Casa de Oquendo, 1957. DUA. Sig. 3766/16

⁷⁵ Proyecto borrador para la instalación de un Museo del Hombre Vasco (Antropología, Prehistoria, Arqueología y Etnología) en el Museo Municipal de San Telmo. STMA. Sig. 56/8. 1 or.

⁷⁶ Proyecto borrador para la instalación de un Museo del Hombre Vasco (Antropología, Prehistoria, Arqueología y Etnología) en el Museo Municipal de San Telmo. STMA. Sig. 56/8. 2 or.

⁷⁷ Reunión del Sábado día 11 de Marzo de 1961. STMAD. 7. A.L. 155v or.

Diktadura garaia amaierako urteekin bat eginik, museoaren etorkizunaren hausnarketa berri bat emango da (Arrieta, 2012b), bildumaren kudeaketa, publikoaren interesa, museoaren antolamendua eta beste hainbat gai oraindik konpontzeko bidean egonik ere. Egoera sozio-politikoaren egonkortzeko bidean hasia denez, San Telmo museoan lanean jarraitzen da, bereziki programazio kultural indartsu bat osatzeko asmoz eta publikoari berriak diren proposamenak eskaintzeko. Garai berri horren adierazgarri dira “las actividades desarrolladas, haciendo resaltar la variedad, el ambiente creado en torno a nuestra institución y reflejado en sus actividades culturales y en los donativos de que ha sido objeto”⁷⁸. Honen baitan, Patronatua erakusketak antolatu eta “actos públicos” deituko duten jardueretako interesa agertzen hasiko da.

Oparotasun hau ordea, museoko instalakuntzen egoera kaskarrarekin eta instituzioaren irudi zaharkituarekin batera ematen da, eta eraikina berritzeko beharra etengabeko adierazpena bilakatzen da batez ere laurogeiko hamarkadatik aurrera⁷⁹. Garaiko komunikabideek ere honen berri ematen dute, biztanleriaren kexa eta kritika etengabekoak ezagutzearan Patronatuaren ezegonkortasuna areagotu egingo delarik. Honela, 1980an, ERE aldizkarian, “San Telmo o el abandono hecho institución” (Taller Escuela de San Pedro de Andatza, 1980) izena duen artikulua argitaratzen da, hau “«antimuseoaren» eredu bat” dela argudiatuz. Hemen aipatzen denez donostiarrek «el muerto» eta «el depósito» ezizenaz ezagutzen dute museoa, eta espazio arazoak, finantziarioak eta instalakuntzen egoera penagarriek Patronatuaren eta langilegoaren lana estaltzen dute horrela. Museoaren jarrerari dagokionez, oso bestelakoa den irudi bat transmititzen saiatzen da, egiten ari den lan kultural gogorraren frogaren agertu nahirik: “ha obligado a una labor intensiva, ha sido pródigo en manifestaciones artísticas que han dado realce y honor al palacio de San Telmo, por la difusión que ha tenido en el ambiente local con repercusiones afuera, (y) las organizaciones llevadas a cabo en sus salas”⁸⁰.

Hezkuntzaren agerpena laurogeiko hamarkadan ematen da, aldaketa txikiak hasiera emanik. Garaiko Akta Liburuetan aipatzen denez, atal artistikoen berrantolaketa egiten da, margolanen banaketa «era pedagogikoan» burutuz⁸¹. Hala ere, tradizionalki ulertutako funtzioa mantentzen da Patronatuaren diskurtsoan, beti ere adituentzako gune bat⁸² dela azpimarratzen dutelarik eta bere helburua izanik “continuar cumpliendo

⁷⁸ *Memoria del museo 1983-hasta noviembre*. DUA. Sig. 6329/15. 1 or.

⁷⁹ *Memoria 1981*. STMA. Sig. 57/16

⁸⁰ *Memoria 1983*. STMA. Sig. 57/18. 5 or.

⁸¹ *Memoria del museo 1983-hasta noviembre*. DUA. Sig. 6329/15

⁸² Museografian aldaketak eman badira ere, oraindik ideia tradizionalen baitan ikusten du San Telmo museoak bere funtzioa: “tienen la misión de ofrecer a sus pueblos y a la curiosidad e inteligencia mundiales, la norma de todas las novedades intelectuales y artísticas que se producen, sin olvidar que son también los depositarios de la vida y el pensamiento y de todos los tesoros de inspiración y belleza que acumularon los siglos”. *Memoria 1983*. STMA. Sig. 57/18. 5 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

los fines encomendados a este Museo, de elemento activo de instrucción popular y de la alta cultura”⁸³. Baina Patronatua kontziente da garai berrien aurrean aurkitzen dela, eta bereganatu duen espazio hilaren irudi horretatik irten beharra duela. Horrela, 1987an, San Telmo museotik deialdia egiten zaie euskal aditu ezberdinei museoan burutu beharreko aldaketen inguruko aholkuak eskatuz.

1990tik aurrera museoan ematen diren aldaketa guztiak izanda ere, instalakuntzen zaharberritzea eta bildumaren berrantolaketa oinarrizkoa suertatzen da oraindik. Lehenik eta behin, 1990an Donostiako Udalak Kultura Patronatua sortzen da arlo honi lotutako hiriko zerbitzu guztiak kudeatzeko helburua duena (Fornells, 2003). Ondoren, hainbatetan aipatua izan den museo berri baten beharra geroz eta indar handiagoa hartzen hasten da, arazoari aurre egiteko lehen bilerak egiten direlarik Donostiako Udala, GFA eta EJ-ren artean (Arrieta, 2012b). Horrela, 1992an museoaren plan berriari ekiteko hitzarmena sinatzen da, San Telmo Euskal Kulturaren Museoa bihurtzeko⁸⁴. Baina erakunde ezberdinen arteko ezadostasun jarraituak, beste mota bateko arazoei lotuta, proiektua urte askotan luzatzea eragingo du. Era berean, Euskal Herri mailan proiektu kultural berrien agerpenak San Telmoren berrikuntza plana alderatu eta beste espazio batzuenak lehenestea ekarriko du – Bilboko Guggenheim Museoa, Donostiako Kursaal eta Tabakalerako proiektua, besteak beste – (Arrieta, 2012b).

Etorkizuneko proiektuak museora haize berriak ekarriko dituela argi badago ere, San Telmoko lantaldeak lanean jarraituko du garai berrietara ahal den heinean egokitzeko, erakundearen inguruko hausnarketa etengabea murgildurik. Gizartearentzako museo bat bilakatzea, gordailu edo biltegi baino gehiago izatea eta jendearengana heltzea dira erronka nagusiak.

Rafael Zulaikak, garaian museoko denak, adierazten du laurogeita hamarreko telebista saio batean:

Badirudi tenpluak garela. Tenpluak baino askotan hilerriak gisa ikusten gaituzte, eta agian arrazoiarekin. Geuk hilerria baino agian herriko plaza bihurtu beharko genuke. Jendeari ere bere partaidetzarako toki gehiago eta ate zabalagoa eman eta irekita utzi (EITB, 1997)

⁸³ *Memoria 1984*. DUA. Sig. 6329/16. 1.or.

⁸⁴ 1993an proiektu museografikoa lehiaketa publikora ateratzen da. *1ª reunión de la Comisión Preparatoria del Concurso de San Telmo*. STMA. Sig. 329/1; eta 1994an Kultur Zerbitzuak eskaintzen zituen enpresa baten museografia proposamena onartzen da (Aguirre, 1995)

XXI. mendearekin batera, San Telmo Museoaren berritze planari eutsiko zaio berriz ere. Hasierako proiektutik aldaketa etengabeak egingo dira, arduradun politiko eta administrazio publikoen baitako joan-etorriek baldintzatuko dutelarik. Azkenean, 2002an, Donostiako Udaleko alderdi guztiek onarpena emango diote proiektu berriaren proposamenari, eta zenbait urteetan iraungo duten tira-bira administratibo eta politikoaren ondoren, 2006an proiektu museografikoa eta arkitekturakoa lehiaketara aterako da. 2007an San Telmo Museoak ateak itxiko ditu lau urte iraungo duten berritze lanei aurre egiteko. Tarte horrek aukera paregabea eskainiko dio museoko lantaldeari antolakuntzaren birplanteaketa bat egiteko eta etorkizuneko ildoak finkatzeko. Aldi berean, museoak jarduera programazioa garatuko du urte horietan – nahiz eta egoitza nagusia itxita egon – eta jada 2005etik aurrera planteamendu berrien baitan gauzatzen hasiko dira proiektu eta hezkuntza ekimenak, hiriko beste espazio batzuk erabiliz.

2011ko martxoaren 28an San Telmo Museo berria inauguratzen da, Euskal Gizartearen museo bezala ongietorria egingo zaiolarik. Arkitekturaren baitan emandako aldaketek – eraikinaren birgaitzea eta atxikitako fatxada berria, zerbitzuetarako espazioak, bulegoak eta abar – museoarentzat garai berri bat suposatuko badute, hezkuntza arloan ere berdina gertatuko dela esan daiteke. Garai bateko aldi baterako erakusketa ugari eta monografikoetatik haratago, San Telmo Museoak berriak diren proposamenak eskaini dizkio publikoari, arte eta historiari lotutako jarduera tradizionalagoetatik gizarte baten erakusleho izan nahirik, “como lugar de inspiración y reflexión, abierto a la fantasía y al desarrollo personal, un museo inacabado en permanente evolución” (Aguirre, 1995: 39). Era berean, bertako bildumaren erakusle ez ezik, nazioarte mailako ekitaldi ezberdinen egoitza bihurtuko da, hala nola hiriko proiektu kulturalaren partehartzaile eta kolaboratzaile nagusietakoa.

Hezkuntza saila

San Telmo Museoaren hezkuntza sail ofiziala ez da laurogeiko hamarkada arte eratuko. Hala ere, honen aurrekariak diren ekimenak eta eragileak aipatzea oinarritzkoa da. Esan daiteke irekiera urtetik bisitariei zuzendutako ekintza oro edota publikoaren harrera egiteko funtzioa kontserbadore eta atezainen esku geratzen dela. Izan ere, patronatuak museoaren funtzionamenduaren antolakuntzaz eta erabakiak hartzeaz arduratzen bada ere, kontserbadorearen figurak berebiziko protagonismoa izango du San Telmon. Honen katalogazioa, piezen errestaurazioa, edozein kontsultari erantzuna

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

ematea eta katalogoak idaztearena da, besteak beste⁸⁵. Era berean, eta lehen taldeak agertzen hastearekin batera, kontserbadoreari egokituko zaio hauen harrera egin eta aretoetan zehar gidatzeko lana: “La Federación local de Sociedades Obreras, en 26 Noviembre, manifestaba deseos de visitar corporativamente el Museo y que les explicára y dirigiéra (sic) el Conservador”⁸⁶. Kontserbadoreaz gain, ez da arraroa izango, aretoetako edo sarrerako atezainek ere gida funtzioa betetzea laurogeiko hamarkadan hezkuntza saila sortu bitartean, horren truke bisitariei kobratzen zaiela ere zehazten delarik Patronatuko hainbat aktetan⁸⁷.

Baina, museoa geroz eta talde gehiago eta izaera ezberdinekoak jasotzen hasten da hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Hiriburuko zein kanpoko eskolako taldeen zerrenda luzeak agertzen hasten dira Aktetan, eta aldi berean, mundu mailako beste museo nagusiek egiten duten moduan, funtzio berria betetzeko trebatuak egon behar diren profesionalen beharra antzemango da San Telmon. Lehen pausoak 1983tik aurrera ematen dira: Sail Didaktikoa⁸⁸ deiturikoa eratzen da, hezkuntza ekimenak diseinatzeaz arduratzen dena. Garai berean aldi baterako erakusketetarako arduradun bat kontratatzen da 1983 eta 1988 bitartean; 1987ko udaldian Turismo Eskolarekin elkarlanean gida bat aritzen da lanean⁸⁹ eta 1988. urtean “animatzaile pedagogiko” lanpostua sortzen da.

Hamarkadaren amaieran sailak Pedagogi Kabinetea izena hartuko du⁹⁰, eta pixkanaka publikora zuzendutako jardueren burutzera bideratuko den profesionalen beharra antzemango da – ordura arte oraindik atezainek betetzen dute nagusiki gida lana – .

1986-1987ko txostenean jasotzen da lantalde berriaren izaera eta beharrak zein diren:

La formación de esa plantilla ideal, debe de contar con la incorporación en este equipo de un pedagogo al menos, que ponga en marcha un nuevo servicio de atención a centros escolares, el cual podría verse apoyado, en la organización de visitas,[...] por los nuevos conserjes, cuyos conocimientos de euskera, idiomas y estudios pueden ser contrapunto del encargo de la creación de ese gabinete pedagógico⁹¹

Laurogeita hamarreko hamarkadan murgilduta, Pedagogi Kabinetea era egonkorragoan lanean aritzen dela suposa daiteke, baina ez da jaso honi buruzko informazio gehiagorik. Lantaldearen osaketa, langileen trebakuntza edota funtzioen

⁸⁵ “El Conservador dio cuenta de sus trabajos de Catalogación y de los de Secretaría y Conservación del Museo, ocupándose con este motivo nuevamente la Junta acerca del excesivo trabajo que pesa sobre dicho funcionario, dado el desarrollo que ha adquirido este Establecimiento”. *64ª Sesión de la J. d G. 2 de Julio de 1915*. STMAD. 3. A.L. 138v or.

⁸⁶ *63ª Sesión. 19 de Abril de 1915*. STMAD. 3. A.L. 54v or.

⁸⁷ “Exige cantidades de dinero abusivas (15 pesetas), según parece, por explicar las pinturas del ilustre artista catalán”. *Sesión del sábado 9 de Octubre de 1943*. STMAD. 6. A.L. 66 or.

⁸⁸ Didaktika sailak sortutako lan-fitxak. STMA. Sig. 298-08

⁸⁹ *Memoria 1987*. STMA. Sig. 57/24

⁹⁰ *Memoria 1987*. STMA. Sig. 57/24

⁹¹ *Memoria 1987*. STMA. Sig. 57/24. 1 or.

banaketaz hitz egiten duen daturik ez da jaso. Alabaina, 1995an sailak Zabalkunde Zerbitzua izena hartzen duela jakin daiteke, eta bertako zuzendaria nor den ere zehazten da.

Hezkuntza sailaren sorrera eta garrantzia lantaldearengan ere bilatu daiteke. Izan ere, Espainian antolatzen hasiak diren DEAC Jardunaldietan parte hartzen hasten dira lantaldeko kide batzuk: 1985an San Telmotik bi ordezkari joaten dira, eta Saileko arduradun izango denak ere parte hartuko du 1990, 1991 eta 1996ko Jardunaldietan⁹². 2000. urtetik aurrera eta batez ere San Telmo Berriaren inaugurazioaren ondoren, museoaren barne antolaketa finkatuta egongo da eta Hezkuntza Saila lantalde egonkor batez osatuko da, kide berriak gehituko direlarik. Azken hamarkadetako funtzionamenduari dagokionez aldaketa berria izango da: museoko lantaldea edo saila hezkuntza ekimenak antolatu eta kudeatuko ditu, baina hezitzaileen azpikontratazioa egingo da, lehiaketa publiko bidez aurkezten diren enpresen baitan geratuz.

Museotik kanpoko eragileei dagokionez, aipatu beharrekoa da, laurogeiko hamarkadan elkarlan bat burutzen dutela talde pedagogiko batekin, hurrengo atalean zehaztuko den moduan. Hauei esker, museoan programa berezi bat abian jarriko da, nazioarte mailan hedatzen dena eta jatorria Italian duena. Era berean, 1992an sortzen da San Telmo Museoko Lagunen Elkarte, Gipuzkoan eratzen den lehena. Elkarte sortu zen “con el objetivo de hacer de puente entre la sociedad y el Museo y divulgar e incrementar sus fondos mediante actividades y donaciones” (Fornells, 2003: 68). Urte horretatik aurrera Elkartearen egitekoa izango da bisita gidatuen antolaketa, *Hileko obra* deituriko bisita gidatu berezia, kontzertu eta hitzaldiak antolatu eta erakusketak gauzatzeko elkarlanean aritu museoko lantalde finkoarekin. Trebakuntza prozesuan dauden praktiketako ikasleei dagokionez, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran Deustuko Unibertsitateko ikasleak izango dituzte⁹³.

Hezkuntza ekimenak

San Telmo Museoko akta liburuetan bisitari zerrenda luzeak jasotzen badira ere, oso gutxitan aipatzen da era esplizituan publikoari bisita gidatuak edo beste motako jarduerarik eskaini izana. Dirudienez, zenbaitetan taldearen izaera edo bisitarien garrantzia dela eta, eskaerapean bisita gidatu bat egiteko aukera existitzen da. Bisita gidatu hauen daturik ez da topatu – edukiak, iraupena, helburuak, baliabideak – beraz pentsa daiteke hezkuntza sail bat osatu eta benetako hezkuntza programazio finko bat eskaini arte bisita gidatuak era informal eta inprobisatuan egingo direla,

⁹² DEAC Jardunaldietako parterhartzzaileen zerrendak urte batzuetan soilik dokumentatu dira, eta hortaz, datu horietara mugatzen dira aipamenak

⁹³ *Actas de reuniones enero-marzo 1999*. STMA. Sig. 289/2

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

kontserbadoreak edota atezainak aretoetan ikusitako objektuen inguruko datuen transmisioa egingo delarik. Hala ere, mendearen erdialdean, taldeen etorrera gehiagoren berri ematen zaigu Akta Liburuetan. Donostiako Udaleko lehendakariak 1945.urtean idatzi bat sinatzen du “(para) reanudar las excursiones [...] (que) al propio tiempo de servir de premio a la laboriosidad de los alumnos significarán una lección práctica, complementando de esta forma el ciclo de enseñanza”⁹⁴; bisita hauekin, aldi berean, “se demostraron la alta labor educativa con ellas conseguidas”⁹⁵.

Hauekin batera hitzaldiak izango dira ekimen kultural bakarretakoak bisitez gain, apenas dokumentatu direnak⁹⁶. 1940-1942 urte tartean, adibidez, hogeitaz hitzaldi ezberdin dokumentatu dira; beti ere hitzaldi ziklo ororen gaia zein funtzioa Erregimenaren mesedera egon dadin eskatzen zaiolarik Museoari. 1942an San Telmo Museoak Propagandako Ordezkarri Nazionalaren Aholkulari Delegatua zenari egindako baimen eskera bati erantzunez, Patronatuak honakoa jasotzen du: “que además de la parte cultural, interesa a esta Delegación Nacional de Propaganda que alguna de esas Conferencias sea de tipo político y doctrinal exclusivamente”⁹⁷.

Ondorengo hamarkadetan hitzaldi zikloak izango dira San Telmo Museoko ekimen nagusia, Patronatuko kide ezberdinek hauen maiztasuna zabaltzeko asmoa agertzen dutelarik:

El señor Valle Lersundi sugirió la idea de concretar quincenalmente otras conferencias gratuitas, de tipo artístico, [...] en las que podrían intervenir de manera continuada los más destacados valores de la localidad, y, de vez en cuando, verdaderos profesionales de la especialidad, que con su presencia prestigiasen los actividades culturales de este Museo⁹⁸

Bisita eta hitzaldiez gain, ospakizunei eta ekitaldi desberdinei lotutako emanaldiak ohikoak bihurtzen dira museoan: musika emanaldiak⁹⁹, abesbatza ezberdinetakoak, dantza saioak eta abar. Aipagarria da 1937-1940 bitartean hitzaldi-kontzertuak deiturikoak antolatzen direla, non ilustrazio musikalen bidez egiten diren hizlarien emanaldiak, arteaz gozatzeko aukera paregabea bezala deskribatua¹⁰⁰. Hirurogei eta

⁹⁴ *Descargo de excursiones escolares. 1945.* DUA. Sig. 3791/7. 1 or.

⁹⁵ *Descargo de excursiones escolares. 1945.* DUA. Sig. 3791/7

⁹⁶ 1935an “Euskal-Antzertiruntz” hitzaldia ematen du Antonio Labayenek (Beola, 1999)

⁹⁷ *Sesión de 11 de Agosto de 1942.* STMAD. 6. A.L. 55v or.

⁹⁸ *Reunión del martes día 12 de Abril de 1.966.* STMAD. 9. A.L. 31v-32 orr.

⁹⁹ “quedan señalados el de apertura y clausura como actos principales para la inauguración del nuevo edificio de San Telmo, abarcando ocho días, e intercalados entre ambos otros actos, tales como audiciones musicales [...] así como también conferencias sobre temas de cultura e historia artística”. ^{99a} *Reunión. Sesión de 6 de Mayo 1932.* STMAD. 5. A.L. 164-164v orr.

¹⁰⁰ *Memoria 1937-1940.* DUA. Sig. 3766/9

hirurogeita hamarrekota hamarkadetan aldi baterako erakusketak izango dira museoaren protagonista, eta urtero hamabi eta hamahiru ezberdin antolatzeraino iritsiko dira¹⁰¹.

Hezkuntzako baliabide materialak ere laurogeiko hamarkada arte ez dira sortzen, eta katalogo¹⁰² zein museoaren gidetara mugatuko dira argitalpenak. Hala ere, horien aurrekari kontsideratu daitezke museoan sortutako lehen postalak; Akta Liburuetan agertzen denez, ikastetxe eta elkarte askok eskatuko dituzte honelako erreprodukzioak, ikaskuntzarako erabilgarriak direlakoan. Hauek, propagandarako elementu kontsideratzeaz gain, zenbaitetan irakasleei ere oparitzen zaizkiela aipatzen da¹⁰³. XX. mende hasierako postalez gain, Patronatuko zenbait kidek bildumako objektuak ulergarriago egiteko nahia agertzen dute behin baino gehiagotan. Horrela, hirurogeiko hamarkadan, museoko hilarrien estilo eta garai desberdinak irudikatzen dituzten lau fitxa sortzea proposatzen da, jatorri eta esanahia ulertzeko erabilgarriak izango direnak eta marrazki zein argazkiz lagundu daitezkeenak¹⁰⁴.

Laurogeiko hamarkadaren lehen urteetan oraindik, tradizioaren herentziaz jasotako jarduerak errepikatzea ohikoa izango da: aldi baterako erakusketa anitzak¹⁰⁵, hitzaldiak, musika saioak eta dantza emanaldiak¹⁰⁶. Hala ere, pixkanaka, hezkuntza funtzioa egonkortu eta sail berriaren lehen pausoak ematen diren heinean, ekimenak dibertsifikatuz joango dira. Horrela, lehen tailerrak burutuko dira laurogeiko hamarkadaren bigarren erditik aurrera, buztingintza tailerra edota txotxongiloenak bezalakoak eskainiz.

Garaian erabat berritzailea izango den proiektu bat garatzen da hamarkada honetan San Telmon, *Arteniño* deiturikoa, "Laboratorio infantil de arte". Italian jatorria duen Bruno Munari metodoan oinarrituta eta honek sortutako Arte Laborategien ideiarri jarraiki, pedagogiako hainbat adituk osatutako talde baten eskutik helduko da proiektua¹⁰⁷, Donostiako Udalak eta GFA-k sustatuko dutena. Arte Laborategia museoan bertan egokitzen den espazio bat da, baina aldi berean baita jarduera zehatz bat ere: haurrei irakasten zaie jolasaren bitartez zein komunikazio eta ikusizko esperimendazio metodologia berrien bitartez, horretarako prestatuak dauden laguntzaile espezializatuek sormenean estimulatuko dituztelarik, kolore eta moduluekin

¹⁰¹ *Memoria 1978*. STMA. Sig. 57/13

¹⁰² Lehena 1906an argitaratua. 27^a Sesión. 13 de Octubre de 1906. STMAD. 2. A.L. 13v or.

¹⁰³ "como deferencia y propaganda a la vez han donado Colecciones de Postales del Museo entre otros a los profesores del Pedagogium Español de Munich" edota "se entregaron 3 Colecciones de postales a los Sres. Profesores de Logroño". 60^a Sesión. 21 de Septiembre de 1914. STMAD. 3. A.L. 100 or. eta 58^a Sesión. 28 de Mayo de 1914. STMAD. 3. A.L. 83v or.

¹⁰⁴ *Reunión del viernes día 11 de Noviembre 1.966*. STMAD. 9. A.L. 41 or.

¹⁰⁵ Urteko memorieta gordetzen diren erakusketa zerrendetan urteko 28 ezberdin antolatzeraino iristen direla ikusi daiteke. STMA. Sig. 57/24

¹⁰⁶ *Memoria 1982*. STMA. Sig. 57/17

¹⁰⁷ *Proiektu pedagogikoaren txostena*. STMA. Sig. 57/19

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

jolasten duten bitartean irakatsiko dietenak¹⁰⁸. Aldi berean, programa honen helburuak izango dira euskal kultura hedatzea, haurraren artearekiko interesa sustatzea, sistema pedagogiko erabilgarri bat sortzea Donostiako hezkuntza arautuko zentroentzat eta ikasle zein irakasleen bisiten eta jardueren sistematizatorako proiektua abian jartzea¹⁰⁹. *Arteniño* programa oso arrakastatsua izango da, eta 1982 eta 1992 bitartean gauzatuko da. Bertan parte hartuko dute 6 eta 10 urte bitarteko haur taldeak, hezkuntza arautuko zentro ezberdinetatik etorriak.

Museoa, oraindik ere, hiriko ekitaldi kultural askoren egoitza izaten jarraitzen du eta ospakizun ezberdinetarako eskenatoki bezala mantenduko da (Fornells, 2003). Hirian antolatzen den Musika Hamabostaldiarekin eta Zinemaldiarekin erlazionatutako jarduerak burutzen hasiko dira bertan, musika zein proiektio emanaldiek hiriko giroarekin bat egin eta Donostiako eskaintza kulturalaren multzoan sartzeko aukera eskaintzen diolarik.

Baliabide materialen beharraren lehen aipamenak agertzen dira laurogeiko hamarkadaren hasieran, Patronatuak zehazten duelarik “(que) deben publicarse una buena guía, hojas explicativas del contenido de las diferentes secciones y algunos trabajos monográficos de los temas más notables del Museo”¹¹⁰. Sail Didaktikoaren egiteko bat, hain zuzen ere, fitxa didaktiko batzuen sorrera izango da, gai zehatzak landu edota areto ezberdinen edukiak azaltzeko erabiliko direnak.

Hauekin batera, hurrei zuzendutako materialaren beharra ere izanik¹¹¹, «ikasketa material» eta «ikaskuntza metodo bezala» prestatzen da “un importante trabajo, de carácter divulgativo, orientado especialmente a la información de los colegios, realizado a base de fichas ilustrativas por el profesor Félix Elejalde”¹¹². Gazteleraz osatutako koadernoak, *Museo San Telmo. Guía Pedagógica y cultural* izenarekin, Donostialdeako ikastetxeetara bidaliko da¹¹³. Ondoren, 1987an, koadernoak euskaratu egiten da Donostiako Udaleko Itzulpengintza Zerbitzuaren eskutik¹¹⁴. Ikastetxeei zuzenduta ere, eta mende hasierako postalekin estuki loturik, 1983an museoak sortzen du “una serie de diapositivas sobre lo más fundamental que se exhibe en sus salas a fin de su disposición en los centros de enseñanza y entre las entidades culturales, y constituyendo de este modo otra actividad especial de enorme extensión”¹¹⁵.

¹⁰⁸ *Arte laborategi proiektua*. STMA. Sig. 56/19. 2 or.

¹⁰⁹ «*Museo de San Telmo. Actividad pedagógica del Museo durante el año escolar 1984-85*», *Propuesta de Carlos Lorenzo*. San Sebastián, julio 1984. STMA. Sig. 227/6. 4 or.

¹¹⁰ *Memoria 1983*. STMA. Sig. 57/18

¹¹¹ *Reunión del viernes día 5 de Septiembre de 1.980*. STMAD. 7. A.L. 180 or.

¹¹² *Divulgación cultural, 1981*. STMA.. Sig. 57/16. 4 or.

¹¹³ *Memoria 1983*. STMA. Sig. 57/18

¹¹⁴ *Memoria 1987*. STMA. Sig. 57/24

¹¹⁵ *Memoria 1987*. STMA. Sig. 57/18. 37 or.

Laurogeita hamarreko hamarkadan hezkuntza sailaren finkatzea emango da eta bertatik eskaintako jarduera eta programak garatzen jarraituko da. Bisita gidatuak, adibidez, zerbitzu eta programa egonkorren baitan zehazten dira garai honetan¹¹⁶, eta hauen baitan museoarako berriak diren proposamenak ere aurkezten dituzte, erakustaldiez osatutako bisitak antolatuz adibidez. Hauen bidez bisitariek zuzenean ikusi zezaketen artisau bat bere lana burutzen, upelgintza eta egur, larru eta harriaren lanketa teknikak ezagutzuz¹¹⁷. Horrelako erakustaldien helburua izango da “vincular el patrimonio existente en las colecciones del Museo San Telmo a la actividad que los artesanos realizan en la actualidad”¹¹⁸.

Hitzaldiak ere museoaren programaren parte izaten jarraituko dute, eta hauetako asko San Telmo Museoko Lagunen Elkartearen eskutik etorriko dira. 1994an MNE lehen aldiz ospatzeko jarduera bat ere aurkezten du museoak¹¹⁹, *Kutxa baten atzean* deituriko material eta ekintza diseinatuz. Honen bidez, museoan ibilbide bat egitea proposatzen zaie bisitariei, eta kutxa baten bilaketa egin behar dute honek gordetzen dituen “sekretuak” ezagutzeko¹²⁰.

Era berean, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik gai ezberdinen inguruko koaderno didaktikoak dira, *Etnografia*, *Pintura*, *Eraikina* eta *Serten mihiseak* izenburuak oinarri izanik¹²¹. Liburuxka hauek ordea informazioa eskaintzen duten gidaliburuak soilik dira, bisitariei inolako jarduera edo ekintza proposatzen ez zaiolarik. Hauetaz gain aldi baterako erakusketei zein beste gai zehatzagoei lotutako fitxak ere sortzen joaten dira, jarduera edota galdera-erantzun moduko ariketak agertzen dituztenak, baina beti ere era ezegonkorrean eta jarraipen zehatzik gabeko argitalpenak izanik¹²².

2000. urtetik aurrera, San Telmoren garapena etenenez betetakoa izango da. Mende berriaren lehen erdian eta proiektu berriaren negoziazio bitartean, museoak bere egunerokotasunean murgilduta jarraituko du, aurreko hamarkadako ekimenekin zein aldizkako proiektu berriekin. Pixkanaka, eta etorkizuneko egoera aurreikusiz, behin behineko erakusketen maiztasuna zein izaera aldatuz joango da. Ohiko bisita gidatu,

¹¹⁶ 1997ko memoria. STMA. Sig. 329/11

¹¹⁷ *Un pasado con futuro: Artesanía en el museo*. STMA. Sig. 329/07

¹¹⁸ *Un pasado con futuro: Artesanía en el museo*. STMA. Sig. 289/17

¹¹⁹ 1995tik aurrera MNE egunaren ospakizunerako jarduerak San Telmoko Museoko Lagunen Elkartean antolatuko ditu. 1999ko dokumentazioa. STMA. Sig. 289/15

¹²⁰ Fitxa didaktikoak. STMA. Sig. 298/3

¹²¹ *Urteko memoriak*. STMA. Sig. 57/27

¹²² Museoko pinturaren inguruan sortzen dute *Cómo me ves?- Zer moduko itxura dut, Komikiak 100* erakusketari lotutako koaderno pedagogiko berezi bat; haurrentzat prestatutako ariketa bat museoak bildumako animaliei loturik *Museoa zoológico ez izan arren...animaliez beteta dago/ El museo no es un zoológico...pero está lleno de animales* deiturikoa non mapa baten bidez animalia ezberdinak deskubritu ahal dituzten umeei. STMA. Sig. 298/3

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

hitzaldi, tailer eta ikuskizunetz¹²³ gain, oraingoan bestelako ekimenak burutuko dira museoan. Adibidez, museoko bisitekin batera, hirian zeharreko ibilaldi gidatuak burutzen hasiko dira, museoako ateetatik haratago ondarearen ezagupena zein bildumarekiko loturaren garrantzia azpimarratuz. Honi jarraiki, zenbait irteera ere antolatuko dira bestelako museo zein ondare-guneetara¹²⁴. Gainera, musika eta dantza saioetatik haratago, bestelako arte ikuskizunak edo ekimenak ere programatuko dira museoan, ordura arte egin ez direnak – ipuin kontaketa saioak bezalakoak¹²⁵ – Azkenik, hitzaldiek oraindik protagonismoa izango badute ere, kongresu eta jardunaldiak izango dira aldizka. Horietako egonkorrena izango da 2000. urtetik aurrera urtero errepikatuko diren Museoei buruzko jardunaldiak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean gauzatutakoa¹²⁶.

Hezkuntza material berriaren sorreran ez dira aldaketa handiak emango euskarri dagokionez, baina bai dibertsifikazioa. Hasierako orri eta koaderno didaktikoetatik abiatua, pixkanaka – eta batez ere San Telmo berriaren irekieratik – talde mota, adin-tarte eta gai desberdinei egokitutako txostenak sortzen dituzte, geroz eta aukera zabalagoa osatuz¹²⁷. Azken hamarkadan gainera, material didaktiko guzti hau museoan web orrian formatu digitalean ere eskaintzen hasiko dira.

Azkenik, aipatu behar da museoak bi proiektu garrantzitsutan parte hartzen duela azken urteetan, bereziki interesgarriak direnak horien izaera hezitzaileagatik zein sortutako ekimenengatik. Lehenengoa 2000. urtean gauzatzen da, Europako Batzordeak finantzatutako *Ekintza Komunitarioaren Programa Kultura 2000*-ren baitako “Hilarriak biribilketan. Espiritualtasunaren aztarnak Europako arku Atlantikoan” proiektuan parte hartzen duen, Lamegoko (Portugal) eta Baionako (Frantzia) Euskal Museoarekin elkarlanean¹²⁸. Programa komunitario honen iraupena lau urtetakoa izango da, kulturaren gizartearen eremu guztietara zabaltzeko aukera bat. Proiektu honen harira sortzen da San Telmo Museoan maleta didaktiko bat, hilarriak ezagutzeko hainbat jarduera proposatzen dituenak material eta objektu desberdinen bidez: Bi bideo, hiru puzzle, kromo-joko bat, bi domino-joko, mapak, esplorazio-kita, hilarri bat, poesia-liburu bat eta irakaslearen gida ditu maletak (Akordagoitia, 2002).

Bigarrena 2011an garatzen den proiektua da, Hiri Historikoetan Bizi programaren baitakoa. Lehen hezkuntza ikasleei zuzendutako maleta honetan hiria esploratu eta honen gaineko ezagueraz zabaltzeko aukera ematen zaie ikasleei, ikerketa lan bat

¹²³ 2005ko memoria. GFAAA. Sig. 20736/3. 4 or.

¹²⁴ Baionako Euskal Museora eta Elorriora. 2001ko jarduerak. STMA. Sig. 329/09

¹²⁵ 2001ko jarduerak. STMA. Sig. 329/09

¹²⁶ Zenbait urte geroago Oiasso Erromatar Museoa ere gehituko da antolakuntzako lantaldera

¹²⁷ Urteko memoriak. STMA. Sig. 57/27

¹²⁸ “Hilarriak biribilketan. Espiritualtasunaren aztarnak Europako arku Atlantikoan”. Irakasleen gida. In http://www.santelmomuseoa.eus/uploads/Actividades/Maletas/maletak_irakasleen_gida.pdf (2017ko otsailaren 2an ikusia)

burutzeko aukera. Maleta honetan gordetzen da bideo bat, diapositibak, dokumentazio kartografikoa, hiriaren garapenaren albuma, inkestak, fitxak eta diagnosi kit bat¹²⁹.



Irudia 5: San Telmo Museoko maleta didaktikoak (Iturria: STMA)

Publikoa

Museoan gordetzen diren lehenbiziko Akta Liburuetan ikusi daitekeenez, bisitarien zerrenda luze eta zehatzak osatzen ditu Patronatuak, pertsonaia ospetsuen izenak era argian agertuz, eta baita hileroko publiko zifrak jasoz ere – urteak aurrera egin ahala galduko den ohitura – .

Oso era goiztiarrean azpimarratzen dute gainera bisitari askoren etorrerak duen garrantzia:

Comunica el Señor alcalde que la Corporación Municipal, se há (sic) enterado con agrado del movimiento de visitantes [...] y al propio tiempo felicita la Alcaldia, «por el progresivo aumento que se nota en las personas que acúden á (sic) dicho centro, prueba evidente de la importancia que vá adquiriendo de dia en dia y de las aficiones artisticas de nuestra Ciudad»¹³⁰

Jasotzen duten bisitari kopuru handia dela eta, Patronatuak “Bisitarietzako Arautegia”¹³¹ osatzen du, museoko funtzionamendu egoki bat ziurtatzeko oinarrizko baldintzak ezartzen direlarik. Lehenbiziko hamarkadetan mota ezberdinetako bisitariak aipatzen dira. Alde batetik, kopistak daude, batez ere Arte Ederretako ikasleak direnak¹³², obrak ezagutu eta kopiatzeko eskaera egingo dutenak; hala nola argazkiak ateratzeko baimena eskatzen duten bisitariak ere¹³³.

¹²⁹ Educational kits. In

http://www.santelmomuseoa.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=5290&cid=4&Itemid=91&lang=en (2017ko otsailaren 2an ikusia)

¹³⁰ 36ª Sesión. 9 de Octubre de 1908. STMAD. 2. A.L. 91 or.

¹³¹ 17ª Sesión. 13 de Febrero 1903. STMAD. 1. A.L. 126 or.

¹³² Gogoratu behar da San Telmo Arte eta Lanbide Eskolarekin partekatzen duela egoitza lehenengo bi eraikinetan

¹³³ Sesión 15ª de la J. de G. Día 30 de junio 1902. STMAD. 1. A.L. 99 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Bestalde, turistak ere talde esanguratsua bihurtzen dira XX. mende hasierako Donostian eta hauek, nola ez, museoa ere bisitatuko dute aisialdiari lotutako beste espazio baten antzera. Aktetan etengabe errepikatzen denez,

“este progresivo movimiento de visitantes, [...] procede en gran parte, de turistas extranjeros (sic) ó nacionales, venidos sueltos ó en caravanas, [...] muestra inequívoca, de que los Museos, cual suele afirmarse, son uno de los medios de acción más eficaces del Turismo”¹³⁴.

Lehen Mundu Gerra ondoren ordea, San Telmoko atzerritar turisten beherakada bat jasango du¹³⁵, garaian aipatzen denez “no hay más caravanas turísticas. [...] se nota el movimiento natural decrecientes de visitantes extranjeros y forasteros”¹³⁶. Alabaina, atzerritar bisita gutxitzeak bertakoen jarrera aldatu eta egoera berria eragingo du, hots, “(que) el número de indígenas, para visitar el Museo Vasco, (sea) cada día mayor”¹³⁷. Kopistak edota turistak izanik ere, mendearen lehen erdian museoko bisitariak oraindik elitearen parte izango dira¹³⁸, eta aldi berean, “toda esa variedad de actos de fina espiritualidad y belleza artística e intelectual que atrae a un público selecto y entendido [...] contribuye poderosamente a acrecentar el prestigio de estos centros culturales”¹³⁹. Banakako bisitariez gain, pixkanaka taldeen agerpena emango da museoko bisitari zerrendetan, hauek “Visitas corporativas y escolares” taldearen baitan kokatuko dituztelarik. Horrela, lehen eskoletako taldeak aipatzen dira jada 1904.urtean¹⁴⁰. Lehen Mundu Gerra ondoren eta atzerriko turisten gutxitzearekin batera, Donostiako eskoletako taldeak bihurtuko dira bisitari berriak, Donostiako Udalak zein Museoetako Patronatuak ahalegin handiak egingo dituztelarik bertako ikasleen bisitaldiak ugaritzeko, bertakoak zein hiritik kanpokoak¹⁴¹. Hala ere oraindik bisita hauen sistematizazio falta nabari da lehen urteetan, eta San Telmoko bisita burutu nahi duen talde orok Udaleko baimena lortu beharko du lehenbizi¹⁴².

Deigarria da ere XX. mende hasieran langile talde batzuk museoa bisitatzen hasten direla noizbehinka, herritar arruntentzat ere museoa erabilgarria izan daitekeelako: “A indicación del Señor Alcalde, se acordó felicitar a la Federación de las Sociedades

¹³⁴ Sesión 40ª de la J. de G. 28 de Diciembre de 1909. STMAD. 2. A.L. 145 or.

¹³⁵ 65ª Sesión. 2 de Noviembre 1915. STMAD. 3. A.L. 154v or.

¹³⁶ 61ª Sesión. 22 de Octubre de 1914. STMAD. 3. A.L. 106v or.

¹³⁷ 73ª Sesión. 18 de Octubre 1917. STMAD. 4. A.L. 102 or.

¹³⁸ 1941eko erakusketa bati buruz esaten da “(que) fue visitada por un público muy inteligente”. *Memoria justificativa de su gestión durante el años 1941 San Telmo*. DUA. Sig. 3766/10. 7- 8 orr.

¹³⁹ *Memoria justificativa de su gestión durante el años 1941 San Telmo*. DUA. Sig. 3766/10. 7- 8 orr.

¹⁴⁰ Lehenbiziko eskola taldeak Frantziako zentroetatik etorritakoak izango dira. 21ª Sesión. 30 de Mayo 1904. STMAD. 1. A.L. 164v or.

¹⁴¹ 64ª. Sesión. 2 de Julio de 1915. STMAD. 3. A.L. 139 or.

¹⁴² “Se autoriza [...] para que un grupo de niñas de la Escuela gratuita del Sagrado Corazón de Jesús (Miraconcha) puedan visitar el Museo, siempre que vengan acompañadas de una profesora en grupo de 10 alumnas, cuya edad mínima sea 14 años y exhiban la tarjeta de autorización del Sr. Alcalde”. Sesión de 5 de Mayo de 1937. STMAD. 6. A.L. 13 or.

Obreras, por el gran ejemplo de cultura popular que ha dado la misma con su última visita corporativa al Museo”¹⁴³.

Hirurogeiko hamarkadaren erditik aurrera, Donostiako Udalak ikastetxeak museoak bisitatzeko plana martxan jarriko du, aurreko hamarkadetako ohitura sustatu nahian ikasleen artean. Honela, adierazten da “que se notificase a los colegios de nuestra ciudad – que también podría ser ampliado a los de la provincia – el acuerdo de la Junta para que en compañía de sus profesores visitasen el Museo, poniéndoles la tarifa mínima de una peseta por individuo excluido el profesor”¹⁴⁴. Aldi berean Donostiako eskola guztiei museoak bisitatzeko gonbidapen postal bat bidaltzen zaielarik. Urte berean Eskola Nazionalak ikasleentzako doako sarrera ezartzen da¹⁴⁵. Horrela, hezkuntza arautuko ikasleak San Telmoko bisitari talde handia bihurtuz joango dira, ondorengo hamarkadetako hezkuntza ekimenen bitartez indartua. Alabaina, eta hirurogeiko hamarkadatik aurrerako orokortutako joerari jarraituz, aditu eta intelektualez gain museoak herritarrei zabaltzeko ideia nagusituz joango da:

El Sr. Talavera, preocupándose por el nivel artístico de proyección en el porvenir, hizo presente su propensión porque el Museo tuviese orientación popular y no científica, propia únicamente para un determinado sector de personas¹⁴⁶

Laurogeiko hamarkadan murgilduta, hezkuntza arautuko taldeei zehazki zuzendutako programa bereziak eta jarduerak diseinatzen hasiko dira, hauen beharrak eta nahiak bisitari helduenetik desberdintzen direlarik antzemanda. Ikasleak eta haurrak bilakatuko dira museoaren helburu berria¹⁴⁷. Baina horretarako, beharrezkoa izango da museoak gainditzea “la ancestral postura pasiva de sólo mostrar sus fondos artísticos al paciente visitante y pasando a otra progresista de interesar a escolares de su entorno o de promocionar el Arte”¹⁴⁸. Aurrez aipatutako *Arteniño* proiektua izango da bisitari talde honi zuzendutako lehen programa arrakastatsuetako bat. Honetan parte hartuko dute Donostiako ikastetxe guztiak zein Gipuzkoako beste hainbat zentro ere¹⁴⁹.

¹⁴³ 63ª Sesión. 19 de Abril de 1915. STMAD. 3. A.L. 117v or.

¹⁴⁴ Reunión del viernes, día 11 de Junio de 1965. STMAD. 9. A.L. 16 or.

¹⁴⁵ Reunión del viernes día 12 de Noviembre de 1965. STMAD. 9. A.L. 23v or.

¹⁴⁶ Reunión del Sábado día 11 de Marzo de 1961. STMAD. 7. A.L. 156 or.

¹⁴⁷ “la intención era la de traer al Museo los centros escolares, [...] destinado a los niños con un plan para enviarlo también a todos los colegios con el propósito de conseguir llamar la atención hacia el Museo. [...] anticipó igualmente que [...] se podría hacer algo positivo en San Sebastián, invitando incluso a la provincia, por medio de la Diputación, para que vengan con clases particulares y enseñen el Museo”. Reunión del viernes día 5 de Septiembre de 1.980. STMAD. 7. A.L. 180 or.

¹⁴⁸ «Museo de San Telmo. Actividad pedagógica del Museo durante el año escolar 1984-85», Propuesta de Carlos Lorenzo. San Sebastián, julio 1984. STMA. Sig. 227/6

¹⁴⁹ Ikertze curriculumak 1983-1989 bitartean. In

<http://www.ikertze.org/antcatalogo.asp?cod=2855&nombre=2855&prt=1&sesion=1> (2015ko maiatzaren 21an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Hezkuntza sailaren sorreratik zein hezkuntza ekimen ezberdinen programazioa zabaltzea ematen bada ere, mende berriaren lehen urteetan oraindik San Telmoren egoera kaskarra kritikatzeko dute Patronatutik:

Prescindiendo de la densa población indígena provincial y local que parece despreciarlo-ignorarle en el mejor de los casos – , teniendo solo en cuenta las cifras de veraneantes y turistas [...] nada puede hablarnos con más elocuencia del fracaso de una institución que debiera ser para nosotros gloria y orgullo¹⁵⁰

Hala ere, San Telmo berriarekin irekierarekin indartuta, publiko mota ezberdinera egokitzen den eskaintza bat osatzen joango da. Hezkuntza arautuaren aldetik, bisita, ibilaldi eta jarduera zein jolas ezberdinak proposatzen dira urte osoan zehar, HH, DBH, DBH ondokoa, dibertsifikazioa eta Helduen Hezkuntza etapetara egokituta. Bestalde, urtean zehar banatutako aldizkako ekimenak ere egiten jarraituko dira publiko orokorrari zuzenduta. Azken urteetan, familientzako asteburu eta jaiegunetarako planak ere eskainiko dira, hauetan tailerrak, jolasak edota ipuin kontaketa bezalakoak proposatuz.

4. 2. Victor Hugo Etxea

1843an Victor Hugo Pasaiara iritsi eta herriko etxe batean hartzen du ostatu, bertako badiak inspiraturik bere lanetako batzuk idatzi zein grabatu batzuk burutzen dituelarik¹⁵¹. Zenbait urte beranduago, 1902an, Gipuzkoan erbesteratutako Paul Déroulède eta Marcel Habert frantsesek Pasaiara bidaia egin eta Victor Hugo bizi izan den etxea aurkitzen dute¹⁵². Eraikinaren garrantzi historikoaz jabeturik, hura berreskuratu eta museo bat ipintzeko nahia agertuko dute, horretarako Pasaiako Udalarekin harremanetan jartzen direlarik. Behin onarpena izanik, Parisetik etxearen irekierarako zenbait objektu eta dokumentu ekartzen dituzte eta etxebizitzako logela Victor Hugo bertan bizi izan deneko garaian bezala atontzen dute¹⁵³. 1902ko abuztuaren 14an, Victor Hugoren heriotzaren ehungarren urteurrena ospatzeko jaia

¹⁵⁰ 2001ko jarduerak. STMA. Sig. 329/09

¹⁵¹ Victor Hugo Etxea. In <http://www.oarsoaldea-turismo.net/eu/ezagutu-oarsoaldea/gure-museoak/victor-hugo-etxea.html> (2014ko abenduaren 11an ikusia)

¹⁵² Kamio, A. (2009, martxoak 15). Victor Hugo Y pasaia: Viaje a las raíces de una unión que aún prevalece. GARA. In <http://gara.naiz.eus/paperezkoa/20090315/127235/es/Victor-hugo-Y-pasaia-Viaje-raices-una-union-que-aun-prevalece>. (2014ko abenduaren 14an ikusia)

¹⁵³ “Durante su estancia en esta provincia, el ilustre hombre publico, D. Pablo Deroudele [...] reunió algunos objetos artísticos y otros que por haber sido usados por el inolvidable poeta, tienen gran valor histórico y con ellos formo un Museo en Pasajes de San Juan, en la misma casa que habito (sic) el autor de tantas bellas páginas”. Donostiako Frantziako Kontsul Nagusiaren eskutitza Pasaiako Udalarari 1915eko ekainaren 19an. PUA. Sig. 622-22

antolatzen da Pasaian, frantziar erbesteratuen eta Udalaren arteko lankidetzarekin¹⁵⁴. Horrekin batera, museoan biltzen diren objektu guztien inbentario bat osatu eta gordetzen du Pasaiaiko Udalak¹⁵⁵, eta egun horretan museoaren irekiera inaugurazioa egiten da.

Ondorengo urteetan, Udalak, museoak kokatzen den pisuaren alokairua ordainduko du, eta diru-laguntzarik ere jasoko du Diputazioaren aldetik¹⁵⁶. 1910. urtetik aurrera ordea, alokairuaren ordainketaren inguruan arazoak sortzen dira¹⁵⁷, eta badirudi egoerari aurre egiteko Déroulèderen arrebak eta Pariseko Victor Hugo Elkarteak bere gain hartzen dutela pisuaren alokairua zenbait urtez. Baina, Lehen Mundu Gerraren iristearrekin, Elkarteak ordainketaren etena iragarri eta museoak beste toki batera lekualdatzeko eskatzen dio Pasaiaiko Udalari 1915. urtean¹⁵⁸, objektu guztiak Udalarena den lokal eramatea erabakiz: “Ha quedado solucionado el caso, trasladando el citado Museo, desde la habitación que ocupó Victor Hugo, en 1843 a la Casa Consistorial de Pasajes y así no se llevaran a París los objetos coleccionados”¹⁵⁹. Museoak itxi eta bilduma eraikin ofizialetik ateratzen da, hainbat urtetan objektuak gordeta iraungo dutelarik.

Zenbait urte beranduago, eraikina José de Oruetaren esku geratzen da¹⁶⁰, eta honek Museoaren irekieraren ideia berreskuratzen du, era pribatuan erakusten hasiko delarik Victor Hugorena izandako etxebizitzako gela (García Sánchez, 1983). Hainbat urtetan egoera honetan funtzionatzen aritu ondoren, hirurogeiko hamarkadan Museoaren eta honen erabileraren inguruko kezkak zabaltzen hasten dira, jatorrizko jabearen heriotzaren ondotik museoak utzita dagoelarik.

Udalaren hitzetan “por razones de cultura y turismo, conviene mantener e incluso convertirlo de nuevo en Museo Público”¹⁶¹. Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ere gutuna bidaltzen dio garaian Pasaiaiko alkateari, eraikin honetan burutu daitezkeen ekimenak planteatuz: “puede ser, tratado y acondicionado debidamente, un motivo de atracción turística y sentimental para el turismo internacional”¹⁶². Honi jarraiki, Victor

¹⁵⁴ “que se celebraría una fiesta popular que coincidiría con la colocación oficial de unas lápidas”. *Documento del descubrimiento de la casa de Victor Hugo en Pasajes*. PUA. Sig. 662-22

¹⁵⁵ *Inventario del Museo de Victor Hugo de Pasajes. Firmado por el Alcalde Fernando Irigoyen*. PUA. Sig. 662-22

¹⁵⁶ 1903ko abenduan Gipuzkoako Diputazioak emandako diru-laguntza museorako. PUA. Sig. 662-22.

¹⁵⁷ “El conflicto procede de la retirada de las subvenciones oficiales y particulares y falta de pago del alquiler a la propietaria de la casa”. *64ª Sesión. 2 de Julio de 1915*. STMAD. 3. A.L. 134v or.

¹⁵⁸ Donostiako Frantziako Kotsul Nagusiaren eskutitza Pasaiaiko Udalari 1915eko ekainaren 19an. PUA. Sig. 622-22.

¹⁵⁹ *65ª Sesión. 2 de Noviembre 1915*. STMAD. 3. A.L. 151-151v orr.

¹⁶⁰ “Berak etxerako dokumentazioa eta objektuak biltzearen ardura hartu zuen. 1934an Jose jauna hil zenean, bere semeak, Antonio de Orueta jaunak, etxea jarauntsi zuen”. *1802-2002. Victor Hugo. Jaiotzaren berrehun urteurrena*. In <http://www.pasaiaibai.com/victorhugo/euskera/pasaia.htm> (2015ko otsailaren 2an ikusia)

¹⁶¹ *Certificación del Ayuntamiento. Pleno en sesión celebrada en día tres de 1963*. PUA. Sig. 622-22

¹⁶² *Carta del gobernador civil de Guipuzcoa al alcalde de Pasajes. 5 de julio de 1963*. PUA. Sig. 622-22

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Hugo Etxea Interes historiko-artistikoko eraikina izendatzen da 1964. urtean; baina honek aldaketa gutxi ekarriko ditu bizitzen ari den egoerara.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, Antonio de Orueta – etxearen eta museoaren jabearen semea – , hainbat erakunderekin harremanetan jartzen da etxea instituzio baten menpe gera dadin, horren irekiera eta funtzionamendu hobea eskainiko ziolakoan¹⁶³. Azkenean, 1978.urtean Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak eraikina erosi eta erreforma lanei ekingo dio¹⁶⁴. Etxeko obrek irauten duten bitartean, museoaren izaera eta funtzioaren inguruko eztabaidak zabalduko dira, museo tradizional baino, bestelako erabilerak izango dituen eraikina bilakatzeko asmoa nagusitzen delarik. 1983an aurrezki kutxako harreman publikoetako zuzendariak egunkari bati eskaintako elkarrizketa batean argi esaten du “(que) es nuestro deseo habilitar una serie de estancias que puedan servir para manifestaciones de tipo cultural [...]. Nosotros mismos pensamos que habría que propiciar visitas, exposiciones, conferencias, etc.”¹⁶⁵.

Victor Hugo Etxearen irekieratik museoak izaera hori bereganatuko du: Kultur Etxe moduan funtzionatuko du, aldi baterako erakusketa zein beste kultur ekimenak burutzeko aretoa izanik, eta atal batean idazleari dedikatutako espazioa erreserbatuz. 1999an aldaketa nagusi bat emango da museoan; izan ere Oarsoaldeako Garapen Agentziak eta Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak akordio bat sinatzen dute, Victor Hugo Etxean Pasaiaiko turismo bulegoa ezartzeko¹⁶⁶. Hortaz, 2001etik aurrera, garapen agentziak zonaldeko ekintza ezberdinak gauzatu eta promozionatzeko egoitza ere bilakatzen du museoa. 2008.urtean erakusketa espazioaren baitan hainbat erreforma lan burutzen badituzte ere¹⁶⁷, non Victor Hugoren erakusketa berritzen den, oraindik erabilera anitzak dituen espazio bezala funtzionatzen jarraituko du, herriko kultur jarduerak eta turismoaren sustapenerako ekintzak bertatik bideratuz.

Hezkuntza Saila

Victor Hugo Etxearen lantaldearen baitan ez da topatu Hezkuntza Sailaren funtzioak beteko dituen inolako lantalde propiorik. Aurrezki Kutxak erosi arte etxeko jabeak izango dira bisitariei gela ireki eta erakusteko arduradunak. Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrerako lantaldearen daturik ez da jaso; eta garapen agentziaren esku

¹⁶³ Antonio Orueta Rivero eta Udalaren arteko gutuna, 1972eko maiatzaren 23koa. PUA. Sig 622-22

¹⁶⁴ *Reforma de la Casa Victor Hugo en la c/ San Juan, 51*. Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa. PUA. Sig 622-22

¹⁶⁵ Aurrezki Kutxako harreman publikoetako zuzendariak, *El Diario Vasco*-ri eskaintako elkarrizketa. 1985. PUA. Sig. 622-22

¹⁶⁶ *Memoria de actividades del año 2009*. GFAAA. Sig. 5055/2

¹⁶⁷ *Memoria actividades 2008*. GFAAA. Sig. 5055/2

geratzen den unetik honek kontrataturiko langilea edo langileak izango dira bertako jardueren eta harrera gunearen arduradun.

Bestelako eragileen kasuan, Victor Hugoren heriotzaren 200. urteurrenaren ospakizunetan bakarrik topatu dira. Izan ere, egun hauetan burutzen diren ekimen ezberdinetan herriko boluntarioek parte hartuko dute (Montero, 2002), eta honen baitako proiektu berezi baterako – bisitaldi antzeztuak – kanpoko enpresa edo profesionalen kontratazioa egingo dela suposa dezakegu.

Hezkuntza ekimenak

Aurrez esan bezala, museoaren irekierara mugatzen dira inaugurazio urtetik igarotako ondorengo hamarkadak. Aurrezki kutxaren eskuetan dagoen urteetatik aurrerako informazio gehiegi topatu ez den arren, pentsa daiteke oinarrizko bisita gidatuak egingo dituztela erakustaretora. Laurogeiko hamarkadan Victor Hugoren jaiotzaren urteurrenean zenbait ospakizun egiten diren arren, ez da inolako ekimenik proposatzen¹⁶⁸.

Eskualdeko garapen agentziaren kudeaketa urteetatik aurrera suposa daiteke bisita gidatuak eskaintzen direla publiko ezberdinari zuzenduta. Horrekin batera, bateleren ibilbidea deituriko txalupazko bisita gidatua burutzen hasten dira 2000. urte inguruan (Calderón, 2004b), eta hau osatzeko hirian zehar ere burutuko dira ibilaldi gidatuak, zonalde historiko tradizionala erakutsiz eta Victor Hugoren bizitzarekin loturak ezarriz.

2002an Victor Hugoren heriotzaren berrehungarren urteurrena ospatzen da Pasaian eta programa erakargarri bat osatuko da, beti ere funtzio argia izanik: “La finalidad de estos actos es crear un producto turístico de gran atractivo basado en la filosofía del desarrollo turístico”¹⁶⁹. Hortaz, XIX. mendea gaia duten edota Victor Hugorekin lotura duten zinema emanaldiak antolatzen dira, hala nola literatur saioak. Horren baitan arrakasta handia izango dute “ibilbide erromantikoak” deiturikoak, non bisita antzeztu bat burutzen den herrian zehar; edota Victor Hugok Pasaiara izandako helduera birsortzen duen antzerkia¹⁷⁰. Museoari lotutako hezkuntza baliabide materialen sorrerarik ez da topatu, ez taldeei zuzendutakoak ezta banakakoentzat.

Publikoa

¹⁶⁸ *Centenario de la muerte de Victor Hugo organizado por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, Diputación y Caja de Ahorros Provincial, 1985*. PUA. Sig. 9-9

¹⁶⁹ *Bicentenario de Victor Hugo*. PUA. Sig. 1238-11

¹⁷⁰ Azken ekimen honetarako sortutako jantzi guztiak Victor Hugo Etxean erakusketa espazio berri bat osatzeko erabiliko dira gerora. *Bicentenario de Victor Hugo*. PUA. Sig. 1238-11

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Victor Hugo Etxeak bisitari edo publiko ezberdinei zuzenduriko ekimenik ez da topatu 2000. urtera arte. Aurrez zenbait aipamen jaso dira non turistek museoa bisitatzen dutela esaten den – batez ere frantsesak eta alemanak – eta azken hamarkadetan ere turismo bulegoak berak jaso dituen zenbait datu kualitatibo eta kuantitatibo jaso dira, Gipuzkoatik kanpo etorritako turisten zifrekin.

Hala ere, 2004an museoko langile bati egindako elkarrizketa batean aipatzen denez, bisita gidatuak publiko perfilera egokitzen direla zehazten da, honelako taldeak desberdinduz: ikastoletako haurrak, jubilatutako edo Victor Hugoren obrari buruz jantzia datorren pertsona edo talde bat (Calderón, 2004b). Aipamen hauek izanik ere, ez da topatu publiko mota ezberdinei zuzendutako hezkuntza ekimenik; beraz, publiko orokorrera bideratutako ekintzak kontsideratzen dira Victor Hugo Etxean egindako guztiak.

4. 3. Armagintza Museoa

Eibarren armagintzaren industria indartsu bat existitu izan da zenbait mendetan, eta hortaz, Armagintza Eskola bat irekitzea erabakitzen da 1914. urtean, udalerrian bertan. Eskolaren osagarri bezala, Armagintza Museoa¹⁷¹ inauguratuko da, lurraldeko lehen museo-eskola izango dena. Museoaren irekiera aurretik eibartar kargu ezberdinek hainbat herrialdetara bidaiatuko dute eskola-museo modeloak ezagutu eta proiektu berrirako ideiak jasotzeko. Donostiako Udal Museoan gertatutakoaren antzera, museoeko bilduma jatorri ezberdineko piezaz osatzen da hainbat pertsonen dohaintzari esker: herriko tailerretako fabrikatzaileek, partikularrek eta Gerra Ministerioak emandakoak (Escuela de Armería de Eibar, 1914). Armagintza Museoaren garrantzia azpimarratzen dute sortzaileek, eta “(que) servirá de recreo y saludable enseñanza” (Escuela de Armería de Eibar, 1914: 91) ere. Era berean, museoa guztiz lotuta dago eskolako ikasleen lanarekin, hauentzako eredu izateko jaio baita: “armagin gazteek ofizioaren oinarri teorikoak eta praktikoak eskuratuko zituzten; teknologia berrien inguruko ezaguera jasoko zuten”¹⁷².

1960 inguruan Armagintza Eskolak lanerako espazio gehiago beharko du eta handitze obra batzuk hasiko ditu (Museo de Armas, 1964). Egoera honetan erakusketa gune berri batera lekualdatu beharko da, honek aukera berriak eskainiko dituelarik piezen katalogazio eta baita museografiaren inguruko hausnarketa egiteko. 1964an katalogo

¹⁷¹ Eibarko Udala. Armagintza Museoa. Historia. In <http://www.armia-eibar.eus/eu/museoa/museo> (2015ko urtarrilaren 12an ikusia)

¹⁷² Eibarko Udala. Armagintza Museoa. Historia. In <http://www.armia-eibar.eus/eu/museoa/museo> (2015ko urtarrilaren 12an ikusia)

berri bat argitaratzen da¹⁷³ eta museoaren izaerari berriari buruzko erreferentzia egiten da, aipatuz Eibarkoa izan behar dela “museo bizia”.

2000. urtean Eibarko Udalak dohaintzan jasotzen du museoko arma bilduma, bertako Kultura Sailaren ardurapean geratuz. Hori aprobetxatuz Udalak erakusketa antolatzen du “Armian Animia” izenekoa¹⁷⁴, eta honek etorkizuneko museo berriari ateak irekiko dizkio. Armagintza Eskolaren bilduma erakusteko espazio eta dinamizazio egokiago bat beharrezkoa dela nabarmendurik, 2005an Eibarko Udalak proiektu museografikoa prestatuko du, hala nola dinamizazio planaren txostena¹⁷⁵. Eibarren existitzen den antzinako AYA arma fabrika zaharberrian – non Udaleko beste zerbitzu batzuk kokatuko diren – Armagintza Museo berria egokitzen da, bosgarren solairuko 1200m² hartuz. Dohaintzan jasotako Eskolaren armez gain, bestelako piezak ere jasotzen hasiko dira, geroz eta osatuagoa den bilduma osatuz. Horrela, Armagintza Museoa inauguratuko da 2007ko urtarrilaren 18an¹⁷⁶. Irekiera bi fasetan banatuko da: urte horretan irekietako lehena, armak gordetzen dituen aretoena alegia; eta bigarrena, 2009ko maiatzean inauguratuko dena, industrializazio prozesuari buruzko erakustaretoak. Museo berrian aurrez existitzen diren dokumentazio, kontserbazio eta zaharberritzearen zein ikerketa funtzioez gain, oraingoan difusioa ere aipatuko da, ondorengo urteetako ardatz nagusienetakoa bilakatuz¹⁷⁷.

Hezkuntza Saila

2007ko egoitzaren irekiera arte, museoko jarduera oro Armagintza Eskolako arduradunen menpe egongo da. Museo berriarekin ordea, zentroaren eta bildumaren kudeaketa Eibarko Udaleko Kultura Sailaren menpe geratzen da. Beraz, museoak ez du Hezkuntza Sail propiorik izango, eta Kultura teknikariaren esku geratuko dira hezkuntza ekimenen gestio lanak.

Informazio gehiegi jaso ez den arren, jakin dezakegu irekiera urtetik Udalak enpresa ezberdinak kontratatzen dituela, lehiaketa publiko bitartez, museoko harrera lanak eta taldeen artapena egingo duten hezitzaileak izateko. 2007an bertan, animazio enpresa bat arduratuko da harrera zerbitzuko lanez, eta turismo enpresa bat piezen katalogazio eta bisita gidatuen burutzeaz¹⁷⁸. Urte berean ikasle bat hartzen da praktika-aldian, piezen katalogazioan, bisita gidatuetan eta museoko muntai lanetan laguntzeko; eta beste ikasle bat bisita gidatu eta ipuin kontalari lanak egiteko.

¹⁷³ Lehenbizikoa 1914koa da (Escuela de Armería de Eibar, 1914)

¹⁷⁴ Armagintza Museoa. *Armagintza Museoaren historia* In <http://www.armia-eibar.eus/museoa/museo> (2015ko ekainaren 1an ikusia)

¹⁷⁵ *Eibar 2005*. GFAAA. Sig. 20731/1

¹⁷⁶ *Memoria 2007*. ARMA

¹⁷⁷ *Eibar 2009*. GFAAA. Sig. 5052/6

¹⁷⁸ *Memoria 2007*. ARMA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

2008an kultur enpresa berri baten esku geratzen dira katalogazio eta bisita gidatuen zerbitzuak¹⁷⁹, eta hauei egokituko zaie ere baliabide material didaktikoen sorrera. Urte honetatik aurrerako kudeaketa lanen enpresa eta lantaldeei buruzko daturik ez da topatu dokumentazioan.

Lantaldearen profil profesionalei buruzko informaziorik dokumentatu ez bada ere, hauen trebakuntzan eragina duten kongresu eta jardunaldien parte-hartzea zehazten da 2007ko dokumentazioan. Honen arabera, lantaldeak parte hartzen du 2007an *Debabarrenako V. turismo jardunaldietan* – museoan bertan ospatzen direnak –, eta baita *Museoak, ondare kulturala eta gizartea* deiturikoan¹⁸⁰.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren 2007ko egoitza inauguratu arte benetako hezkuntza programaziorik izango ez duen arren, aurrez behar honi erantzutearen garrantziaz jabetzen hasiak dira. 1984.urtean kaleratutako hirugarren katalogoan esaten denez, “museo moderno batek helburu didaktiko bat betetzeko prestaturik egon behar duela, Publikoa (sic) ahalik eta gehien probetxa (sic) dezan [...] eskolarientzat (sic) behar bezala pentsatu eta estudiaturiko programarekin, zeina aldi berean osagarri izango bait da (sic)” (Larrañaga, 1984: 2). Honen aurretik pentsa daiteke museoa ikusi nahi zuen orori erakutsiko ziola Armagintza Eskolako arduradunen batek.

Dudarik gabe 2007ko museo berriaren irekierak eragingo du Armagintza Museoaren izaera azpimarratu eta hezkuntza funtzioaren indartzea. Inaugurazio urtetik mota ezberdinetako jarduerak proposatzen dira, hezkuntza programa finkoak osatuz zein aldi baterako ekintza moduan. Lehen urtean bisita gidatuak soilik egiten badira ere, 2008tik aurrera hezkuntza programaren eskaintzak 10 proposamen ezberdin planteatuko dizkie bisitariei, bisita gidatu eta tailerrak konbinatzeko aukerarekin, non “se trabaja sobre todo la creatividad de los alumnos, acercando el museo y sus actividades al mundo de los juegos”¹⁸¹. Sormenari lotutako tailerrak – arma dekorazioa, mural baten pintaketa – eta jolasak – mozorroak, pista-jokoa, mahai-jokoa – konbinatzen dira. Belaunaldi-arteko tailerrak ere eskaintzaren parte izango dira. Hauetan adin desberdineko pertsonen solasaldiak proposatzen dituzte, Eibarko iragan industrialari buruz hitz egin eta guztien artean ikasteko bide bezala¹⁸². Zenbait urte geroago jarduera hau emakumeen lanera bideratuko da, “Ze nolako biharra, emakumeena” izena hartuz.

¹⁷⁹ *Memoria 2008*. ARMA

¹⁸⁰ *Memoria 2007*. ARMA

¹⁸¹ *Memoria 2008*. ARMA

¹⁸² *Memoria 2007*. ARMA

Urte osoko eskaintzatik at, era egonkorrean errepikatuko dira hainbat hezkuntza ekimen. Alde batetik, oporraldietako programak gauzatuko dira udaldi zein gabon garaian, joko eta tailerretan oinarritutako jarduerekin – horietako batzuk urte osoan zeharreko eskaintzaren errepikapenak dira –. Bestalde, egun berezien ospakizunak, MNE edota Santa Barbara Eguna bezala, aukera ona izango dira museoko ekimen ezberdinak gauzatzeko. Hauetan bisita gidatuak erakustaldiekin antolatuko dira, non Lantegi Eskolako ikasleen armak fabrikatzeko prozesua ikusteko aukera eskaintzen den; bisita bereziak erakusketa aretoetatik haratago ikusten ez den museora, biltegiak eta beste hainbat gune erakutsiz; musika eta dantza emanaldiak; 2010an haurrentzako antzerki bat; edota bisita gastronomikoa, 2014an antolatutakoa Produktu Klubeko hainbat kiderekin elkarlanean¹⁸³. Aldizkako jardueren kasuan, zenbait hitzaldi antolatu izan dira museoan, industriari zein Eibarko historiari lotutakoak.

Hezkuntza ekimenen baitan, baliabide material propioen sorrerak ere garrantzi handia izango du museoan. 2008. urtean eta hezkuntza programa egonkorrari lotutako jarduerekin erlasionaturik, koaderno didaktiko ezberdinak sortzen dituzte. Horietako batzuk lan-koaderno moduan diseinatzen dira jarduera ezberdinak proposatuz “de forma lúdica, [...] a través de juegos didácticos, similares a los pasatiempos clásicos. [...] (y) se acompañan las distintas actividades con recuadros de texto”¹⁸⁴; beste batzuk ordea, gida edo txostenak dira, informazio iturri lez erabili daitezkeenak¹⁸⁵. Sortutako material guztia museoko web orrian eskuragarri jartzen da formatu digitalean. Hauekin batera, museoko bilduma eta industrializazioari loturiko iturri dokumental ugari eskaintzen dituzte, *online* artxibategi modukoa sortuz, Armagintza Eskolako dokumentu originalak, katalogoak, planoak eta argazkiak bezalakoak. Baliabide digitalen erabileraren baitan, Museoa Kanean mapa digitala ere eskaintzen da, non Eibarko gune industrialak adierazten diren, eta horiei buruzko informazio gehigarria kontsultatu daitekeen kokapen bakoitzean klikatuz gero¹⁸⁶. Azkenik, banakako bisita burutu nahi duen ororentzat audio-gidak ere sortzen dira.

¹⁸³ “Esperientzia gastronomikoa museoan”. Armagintza Museoa. Albisteak. <http://www.armia-eibar.eus/news/1401891356> (2015ko maiatzaren 7an ikusia)

¹⁸⁴ *Memoria 2008*. Armagintza Museoa. ARMA

¹⁸⁵ “Diario/Gaceta de Eibar” edo “Martinek armagin izan nahi du” dira horietako batzuk. In http://www.armia-eibar.eus/servicio_educativo (2015ko maiatzaren 7an ikusia)

¹⁸⁶ Museoa Kanean mapa digitala. In http://www.armia-eibar.eus/servicio_educativo/MUSEOA%20KALEAN (2015ko maiatzaren 7an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

¿Sabías que...?:

¿Sabías que... cuando los habitantes de un lugar recibían la Carta para ser Villa sus habitantes obtenían privilegios? Las villas eran las únicas que podían tener muralla, mercado semanal, etc. Cien años de Eibar se fundaron otras villas como: Ermua, Elgoibar, Deba, Sorluze, Markina, Elorrio y Arrabate.



¿Eibar recibió el título de villa gracias a que en ese lugar abundaba...?

a) Flores y pesca c) Ganadería y hierro
b) Madera y agua d) Barcos y caseríos

6 COMERCIO Y VIDA COTIDIANA

En Eibar había muchas ferreterías y herreros que fabricaban hierro, herramientas y armas. Con grandes barcos llevaban sus herramientas a todo el mundo y así compraban lo que necesitaban para comer y vestirse como trigo, aceite, bacalao o cueros.

ACTIVIDADES

Aquí ves dibujados muchos objetos, marca en color rojo lo que Eibar vendía, lo que se conoce como exportaciones. Y en azul aquello que compraba, que se llaman importaciones. ¡Ojo! algunos no existían antes...

Numera en el mapa el origen y destino de estos productos:

IMPORTACIONES: 1 Cacao 2 Aceite 3 Bacalao 4 Cueros 5 Patatas
EXPORTACIONES: 6 Armas 7 Clavazón 8 Hierro 9 Aperos de labranza





¿Sabías que...?:

¿Sabías que... la patata vino de América? Hasta que no se descubrió América, en Europa no había patatas, ni tomates, ni alubias, ni pimientos. ¿Cuántas de las cosas que comes hoy no existían en Eibar hace 500 años!



Irudia 6: Armagintza Museoko koaderno didaktikoaren atal bat (Iturria: Armagintza Museoa)

Publikoa

Aurrez aipatu bezala, lehen hamarkadetan museoko bisitari nagusiak Armagintza Eskolako ikasleak izango direla suposatzen da, ereduak aztertu eta horien bitartez ikasteko erabiltzen dutenak bilduma. Armagintza Eskolako zuzendariordearen hitzetan, lehen urte horietan “bisitak egoten ziren, baina [...] beti izaten ziren lehendik jendeak deitu edo eskola bisitatzera etortzen ziren pertsonak bide batez erakusten zitzairen museoa ere bai [...] baina museoa bakarrik ikustera [...] adituren bat [...] bestela ez, jende asko ez zen etortzen”¹⁸⁷.

2007tik aurrera, hezkuntza ekimenak publiko talde zehatzetara bideratzen hasiko dira, bakoitzaren behar eta izaerara egokitzuz. Hezkuntza programa egonkorra eta urte osoko eskaintzaren baitakoa, bi bisitari motari zuzenduko da: Publiko orokorra eta hezkuntza arautuko taldeak. Eskolako taldeen kasuan, LH eta DBH mailetarako programak garatuko dira, hala nola hauei zuzendutako baliabide material espezifikoak. Bisitari orokorrentzako eskaintzan esaten denez, hau mota guztietako taldeei zuzenduta dago, baina ez da horien baitako zehaztapenik egiten. Azken urteetan ordea, jarduera hauen hartzaile berriak ere gehituko dira: 6-10 edo 12-16 urteko seme-alabak dituzten familiak.

Hezkuntza ekimen egonkorrekin jarraituz, oporraldietako programak haurrei zuzendutakoak izan ohi dira, eta aurrez aipatu bezala, familiak ere bihurtu dira azken urteetan hauei gehitutako publiko talde berria. Santa Barbara Eguneko ospakizunetan aldiz, ohikoa izango da publiko orokorrari zuzendutako eskaintza bat; eta MNE-n, normalean, haurrentzako diseinatutako ikuskizun, jolas edo tailerrak egingo dira.

¹⁸⁷ Eibarko Udala. “Armeria Museoa. Historia” [bideoa]. In <http://www.armia-eibar.eus/museoa/museo> (2015ko ekainaren 1an ikusia)

Salbuespen bezala aipatu daiteke, urte batean helduei zuzendutako bitxigintza tailer bat antolatzen dela, lehen aldiz jarduera mota hau haurrak ez direnentzako prestatzen delarik¹⁸⁸.

4. 4. Itsas Jauregia- Aquariuma / Aquarium Donostia-San Sebastián

XX. mendeko lehen hamarkadan itsasoko zientziekiko interesa pizten hasia da gipuzkoar batzuen artean. Nagusiki bi gertaerek bultzatuko dute ozeanografiarekiko jarrera berri hau: Alde batetik, Alberto I Monakoko printzeak kantauriar itsasoa nabigatzen du garai haietan, laborategi-barku batean kanpaina ozeanografiak burutuz; Bestetik, Alfontso XIII.a erregeak Nazioarteko Itsas Erakusketa bisitatzan du 1907an Burdeoson, eta bertan ikusitakoak interes handia duela adierazi du, Espainian ere ozeanografiaren inguruko ikerketak burutuko dituen talderen bat izatearen garrantzia azpimarratuz (Sada, 2008).

Gauzak honela, eta Donostian itsasoarekiko harremana estua izanik, ozeanografiaren inguruan ikerketa lanak egiten hasiak diren zenbait pertsonen indarrak batu eta 1908ko irailean Gipuzkoako Ozeanografia Elkarte sortzen da (aurrerantzean GOE) – SOG, Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa – (Laburu, 1986). Urte horretatik aurrera, Donostian, jarduera ezberdinak aurrera eramango ditu GOE-k, etorkizuneko museoaren hastapeneko ekintzak izanik. Horien artean esanguratsuena izango da 1913an inauguratzen den *Exposición Histórico Naval Oceanográfica Vascongada*, Herriaren Adiskideen Elkarte Ekonomikoak eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz antolatutakoa. Erakusketa honek berebiziko arrakasta izango du biztanleriaren artean; horren ondorioz espazio batean erakusketa iraunkor bat egokitu behar diren ideia zabaltzen da Elkarteko kideen artean.

Erakusketa hartatik sortutako material aberatsa dela eta, Miramar Zinema zaharreko eraikinean Museo Ozeanografikoa inauguratzen da 1915an, gerora Itsas Jauregian kokatuko den museo eta akuarioaren aurrekari kontsideratu daitekeena. Honekin batera, 1917. urtean, Akuario txiki bat irekitzen da Aldamar kaleko eraikinaren beheko zonaldean, honek ere jende andana erakarriko duelarik (Sada, 2008). Museo eta Akuarioa ez ezik, laborategi eta liburutegiak instalatzeko aukera izaten dute, eta gizon kultu eta ilustratu askoren arreta erakarriko du honek. Hala ere, hasieratik oztopo handiei aurre egin beharko diete, espazio falta eta aurrekontu baxua izatea nagusiki. Horri aurre eginik, lehen egoitza honetan goi mailako ikerketei bultzada handia emango

¹⁸⁸ "Bitxigintza industrial tailer arrakastatsuak". Armagintza Museoa. Albisteak. <http://www.armia-eibar.eus/news/1389345397> (2015ko maiatzaren 7an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

diote, eta zientzia komunitatean leku esanguratsu bat lortzen du Elkartek. Era berean, garaiko komunikabideek laguntza handia eskaintzen diote GOE-ri, edozein ekimen zein jardueraren zabalpena eginik eta horrek jendartean ere interesa pizteko balioko duelarik.

Museoa hartzen ari den garrantzia dela eta, espazio berri baten bilaketari ekingo zaio. Hiriko kokaleku ezberdinak aztertu ondoren, 1925an portuko muturrean eraikin berri bat altxatzea onartzen da, Itsas Jauregia deituko dena. Hiru urteko obren ondoren, 1928ko urriaren 1an ofizialki inauguratzen da Donostiko Itsas Jauregia-Aquariuma, Alfontso XIII.a erregea eta bere emaztearen presentziarekin.

Eraikin berrian gune ezberdinak antolatzen dira: Alde batetik Akuarioa, espezie bizi ezberdinak gordetzen dituzten piszinekin. Bestetik, Untzi eta Historia Museoa, lehenbiziko egoitzan sortutako museoaren piezak berreskuratuz. Eta azkenik Museo Ozeanografikoa, aurreko bietatik bereizten dena bilduma zein ikerketa gaien aldetik. Irekiera urtetik bisitari ugari izango ditu museoak, hiriarentzat suposatzen zuen atrakzio berria ikusteko irrikan egongo dena.

Ondorengo hamarkadetan GOE-k lanean jarraituko du ikerketa ugari burutuz, bildumak osatuz eta bertako piezen kontserbazioan lan eginez. Gerra Zibilaren iristeak eta ondorengo diktaduraren hasierako urteek, ordea, zenbait urtetako geldiduna suposatuko dute Aquariumeko funtzionamenduan. Hala ere, Elkartearen esfortzua zein babes herritarrak “le permitió ir resistiendo año tras año sin extinguirse totalmente, funcionando más por inercia que por otra cosa” (Laburu, 1986: 249). Gerraosteko garaian Patronatua ez da apenas elkartzen, eta Elkartearen kideko izaera politikoez gorabehera handiak eragingo dituzte barne antolaketan. Inertzia horretan murgilduta igaroko ditu diktadurako ondorengo urteak, baina hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera agerian geratzen hasten da “(que) El Palacio del Mar y su Acuario se iban quedando atrás respecto a otros museos, y quien los visitaba se quedaba sin ganas de volver otra vez, debido a la inmutabilidad y hasta la cochambre de sus instalaciones” (Laburu, 1986: 369).

Laurogeiko hamarkadan instalakuntzen hobekuntzari ekiten zaio, katalogazio lanek lehenetsua hartzen dute eta bildumaren berrantolaketa bat burutzen du GOE-k (Laburu, 1986). Era berean, erakusketa aretoetan panel didaktikoak ipintzearen ideia agertzen dute Elkarteko kide batzuek, hala nola zenbait proiektu txertatzea museografian. Eusko Jaurjaritzako lehen gobernu osatuta, Ondarearen zuzendariarekin zein GFA-ko Diputatu Nagusiarekin hitz egiteko aukera izango du GOE-k. Hauei aurkeztuko zaie *Anteproyecto ideal para la creación de un conjunto turístico-cultural en el puerto de San Sebastián* (Laburu, 1986: 401). Bi erakundeen babesa izanda, lehen erreforma lanak burutzen dira: 1981.urtean Akuarioko

instalakuntzetan aldaketak eginaz eta 1984 eta 1985 bitartean Itsas Jauregiko bestelako obrak (Sada, 2008).

Donostiako Aquariumarentzat aldaketa nagusia 1998an emango da, museoa eraberritu eta “Aquarium Berria” bezala irekitzen denean¹⁸⁹. Dudarik gabe aldaketa honek inflexio puntu bat suposatuko du museoaren historian, “ubicando al Aquarium en uno de los lugares de mayor reclamo dentro del abanico de ofertas que la ciudad presentaba tanto a nativos como a forasteros” (Sada, 2008: 637). Horrela, laster bilakatuko da Donostiako zein Euskal Herriko museo arrakastatsuenetako bat: “Más de medio millón de personas pasaron aquel año por nuestras instalaciones. Esto desbordó todas las expectativas y dio una nueva imagen de nuestra institución y de la ciudad de San Sebastián en general” (Casares eta Larrode, 2009:1 par.). Egoera horrek aukera berri bat eskainiko dio GOE-ri eskaintzen dituen zerbitzu berrien zein aisialdi kulturalaren panoraman jokatzeko duen paperaren inguruan hausnartzeko. Era berean, Elkarteak forma juridiko berria bereganatu eta Fundazioa bilakatzen da, GOF – Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa – (Sada, 2008).

Hezkuntza saila

Itsas Jauregian lehen hamarkadetan egiten ziren bisita gidatuetako arduradunak GOE-ko kide ezberdinak izango direla pentsa daiteke, eskaeraren arabera taldeei Akuarioa eta erakusketa aretoak azaltzeko arduradun moduan. Hala ere, aipamenik ere topatu izan da non Gipuzkoako Aldundiaren arduradunen baten laguntza duen GOE-k talde zehatz batzuen eskaerari erantzuteko. Horrela, 1932an Eusko Ikaskuntzako talde baten bisitari eskaerari honela erantzuten zaio: “para la visita que [...] realizará[...] si interesa [...], puede Vd. Dirigirse a la Excm. Diputación de Guipúzcoa, a fin de que designe persona competente que explique, a la vista de los objetos expuestos los hechos más culminantes que representan” (Laburu, 1986: 220). Horietatik kanpora antolatutako ekintza berezietarako aditu eta profesionalen kontratazioa egingo dela suposa daiteke – hitzaldi edota ikastaroetarako adibidez – .

Hezkuntza Sailaren izendapen bereizgarria izan gabe ere, jakin dezakegu laurogeiko hamarkadaren hasieran taldeen harrerarako 5-6 pertsonaz osatutako lantalde bat sortzen dela museoan¹⁹⁰. Sailaren sorrera ofiziala ordea 1998an kokatzen da, Aquarium Berriaren irekierarekin batera eta barne antolaketan emandako aldaketen ondorioz jaiotakoa. Hezkuntza Sailaren egitekoa lehen urteetan, bisitarien etorrera

¹⁸⁹ GFA, EJ, Donostiako Udala eta Kutxa-ren laguntzari esker gauzatu (Sada, 2008)

¹⁹⁰ Garai honetako dokumentazio asko galdua dago, eraikin berria egitean berrantolaketa espazial bat eman zelako eta dokumentu asko galdu zirelako momentu horretan. Aquariumeko hezkuntza koordinatzailearekin izandako elkarrizketa, 2014ko urriaren 21an

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

masiboari aurre egitera bideratuko da, horien harrera lanak eta taldeen kudeaketan zentratuz egunerokotasuneko lana. 2002. urtean, eta zenbait urtetan lantaldea geroz eta handiagoa bihurtzen ondoren, aldaketa berri bat ematen da. Museo osoko organigrama aldatzen da eta ondorioz, Hezkuntza Saileko lantaldea murriztu egiten da¹⁹¹. Aquariumaren irekiera urtetik, lehenbizi GOE-ren eta gerora GOF-ren kideek osatu dute museoko lantaldea, eta Hezkuntza Sailak ere beti izan du lantalde propioa.

Hezkuntza ekimenak

Lehen hamarkadetan Aquariumean bisita gidatuak eskaeraren arabera eta aldizka egingo direla suposa daiteke, baina inongo eskaintza egonkorrik izan gabe. GOE-k ordea, zientzia zabalkundeari garrantzi handia emango dio. Horretarako lehen saiakeretako bat dugu 1921an lehen aldiz antolatutako Donostiako Zientzia Astea hitzaldi zikloa, zeinak “trataba de influir en el ambiente de la ciudad, demostrando que los fines de la Sociedad Oceanográfica donostiarra, y sus exigencias, hijas de su madurez, requerían un mayor desenvolvimiento, fuera de los estrechos límites de sus locales, que le impedían en su desarrollo natural” (Laburu, 1986: 164).

Gerra Zibila eta gerraosteko isilunearen ondoren, hasierako urteetako zientziaren inguruko interesa berreskuratuko da eta indarra hartuko du jendartean. GOE-k 1972 eta 1979 bitartean “Curso de iniciación a la biología marina” ikastaroa antolatuko du, hala nola beste ikastaro laburrago batzuk ere urtean zehar, hitzaldi, laborategiko praktika eta bideo zein diapositiben proiektioarekin nahasten direnak (Laburu, 1986). Ozeanografiari lotutako jarduera hauekin batera, aipagarria da hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran Hezkuntza eta Zientzia delegaritzak “Clases de perfeccionamiento para maestros” ikastaroak eskainiko dituela GOE-rekin elkarlanean, hauek Aquariumeko baliabideak erabiltzeko aukera izango dutelarik. Bestalde, 1972an, esperimentazio tailerren aurrekari kontsidera daitezkeen lehen jarduerak egiten dira ikasleei zuzenduta, laborategi praktikak hain zuzen ere¹⁹². Hamarkada berean, biologiarri lotutako ikastaroak eskaintzen hasten dira, guztira bederatzi edizio ezberdin antolatzen direlarik 1979 arte. Hamarkada honetan ez dira faltako ere ospakizunei lotutako ekimenak: Itsas Jauregiaren irekieraren 50. urteurrena ospatzeko hitzaldi ziklo bat, erakusketa bat eta ikastaro bat antolatzen dira.

Hezkuntzarako baliabide materialen sorrerari buruzko informaziorik topatu ez den arren, GOE-ko Patronatuaren Aktetan hasieratik aipatzen da gida bat sortzearen

¹⁹¹ Ez da Hezkuntza Sailaren eta hezitzaileen inguruko informazio gehiagorik aurkitu. Aquariumeko hezkuntza koordinatzailearekin izandako elkarrizketa 2015ko otsailaren 27an

¹⁹² “bajo la dirección de nuestro colaborador Don Miguel Ibáñez, que a la vez es profesor de Instituto de 2ª enseñanza de San Sebastian, se realizó en nuestro laboratorios, con un grupo de alumnos, un pequeño pero muy interesante trabajo” (Laburu, 1986: 364-365)

beharra, museoko edukiei buruzko informazioa eskainiko duena¹⁹³. Era berean, museoko postal bilduma bat ere sortzen da salgai ipintzeko, baina hau funtzio hezitzailearekin erabili izanaren frogarik ez da topatu.

Aurrekari guzti hauek museoaren hezkuntza funtzioarekin erlazio zuzena badute ere, 1998an Hezkuntza Saila eratzen den arte ez da eskaintza edo programa egonkorrik garatuko. Lehen urteetako bisitarien etorrera kudeatzea izango da helburu nagusia, eta hortaz, suposa daiteke oinarritzko eskaintza bat egingo dela taldeak hartzeko, bisita gidatuetan oinarritutakoa eta aldizkako jarduera bereziekin.



Irudia 7: Ikasleak Aquarium berriaren irekieran (Iturria: egilea)

Eskaintza hori zabaldu eta dibertsifikatzeko 2008 arte itxaron beharko da. Ohiko bisita gidatuei tailerrak gehituko zaizkio, baita ginkana jolasak ere, eta museoan gaueko egonaldia egiteko aukera eskaintzen duen “Arrainekin lotan” jarduera. Urte osoko eskaintzatik at, oporraldietako programak era egonkorrean errepikatuko dira: Jarduera batzuk Aquariumak berak era independentean proposatutakoak izango dira, eta beste hainbat Donostiako Museoen Sarearen baitako programazio bateratuaren parte bezala, *Hip Hip urri!* ekimenari lotuta¹⁹⁴ edota beste museo batzuekin programazio bateratua osatuz – Untzi Museoarekin, adibidez – . Oporraldiekin batera, Museoen Nazioarteko Eguna, Nazioarteko Ingurugiro Eguna edota Nazioarteko Ozeanoen Eguna bezalakoetan hitzaldiak, tailerrak eta bisita gidatu bereziak egin izan dira.

¹⁹³ “Se trató en la junta directiva de la conveniencia de confeccionar, cara al verano, una guía ilustrada del Acuario, que era muy solicitada por los visitantes” (Laburu, 1986: 204)

¹⁹⁴ “Hip-hip Urri! ekimena Donostian sortu da, beste hiri batzuetan ospatzen den October Children europar proiektuan oinarrituta. [...] Donostiako kultur eskaintza zabala aintzat hartu eta harekin koordinatuz, kultur erakunde, instituzio eta pertsonen arteko lankidetzak artistiko eta profesionala sustatzea du helburu” In <http://www.hiphipurri.org/> (2015ko maiatzaren 4an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

2008. urtean hezkuntza programa egonkortu eta ekimen eskaintza zabaltzen denean, material didaktikoaren sorrera ere emango da, urtetik urtera moldatuz eta osatuz joango dena. Hezkuntza helburu zehatzak eta adin talde bakoitzari egokitutako materialak diseinatzen dira gai ezberdinen inguruan. Material hauek fitxa pedagogikoak izango dira, ipuinak eta “Jolastu eta margotu” deitzen dituzten animalien margotzeko irudiak, formatu digitalean ere eskuragarri ipiniko dituztenak¹⁹⁵.

Publikoa

Hasieratik museoa turistentzako bisita leku derrigortua bilakatzen da, izan ere, “el Palacio del Mar se trataba de un elemento de atracción muy envidiable para los forasteros y extranjeros que llegaban a San Sebastián” (Laburu, 1986: 177). XX. mende hasierako turista etorrera hori diktadura garaia moztuko badu ere, 1998ko Aquarium Berriarekin batera joera hori berreskuratuko dela esan daiteke. Hala ere, bisitari mota honi zuzendutako eskaintza berezirik ez da topatu inoiz, eta publiko orokorrak duen eskaintza berdinarekin erabiltzaile izango direla pentsa daiteke. Hauxe gain, eta museoaren irekieratik jada nabarmendua dena, aditu eta erudituentzako gune bilakatzea du helburu GOE-k, beti ere herritar arruntak eta turistak ere bereganatu nahi dituztelarik. Laburuk (1986) aipatzen duenez, 1925. urteko artikulu batean, honakoa argitaratu du kazetari batek GOE-ko kideen iritzia buruz:

que al lado de las grandes pagodas del vicio y del placer, hubiera también un gran palacio de investigación, rico de cantidad y calidad, con muchas galerías recorridas por los sabios y los eruditos... Y también por los profanos [...]. El palacio sería visitadísimo. Sus vitrinas y sus estanques y sus pérgolas serían el paraíso del veraneante curioso (176 or.)

Adituei zuzendutako ikastaroak eta hitzaldiek argi utzi dute beraz zientzia-gizon eta jakitunei erreserbatutako jarduerak direla nagusi oraindik, eta bestelako bisitarien erakusketa eta Akuarioaz gozatzeko aukera besterik ez dutela mende hasieran.

Hala ere, eta ikaskuntzara bideratutako zentro bat izateko helburua izanik, hezkuntza arautuko zenbait talderen berri ere dugu: bisitari erregistroetan agertzen dira hainbat talde, hauentzako ezarritako sarrera prezio murriztuaz hitz egiten da eta oinarriko funtzionamendu arau batzuk finkatzen dira mota honetako bisitarien zuzenduta. Era berean, hezkuntza formalen taldeei buruzko erreferentziak ere prentsan agertuko dira. Gil Bare kazetariak, 1927. urtean, egunkari batean argitaratu duen berriaren arabera “antes de finalizar el curso se recibe con agrado en el Museo la visita de los escolares

¹⁹⁵ Material didaktikoa. Aquarium SS. In <http://aquariumss.com/Descarga-material-did%C3%A1ctico-an-ikusia> (2015ko maiatzaren 4an ikusia)

que asisten a las escuelas públicas, quienes, acompañados de sus maestros, realizan instructivos desfiles”. Hala nola 1932an *La Voz de Guipúzcoa*-n agertutakoa: “resulta el detalle simpático de la concurrencia de grandes masas escolares que proceden de toda España en viaje de instrucción y que no dejan de ver con afán esa atrayente instalación marítima” (Laburu, 1986: 221).

1998an eskola taldeen bisitak sustatzeko hitzarmen bat sinatzen du Donostiako Udalak eta diru-laguntza bat ezartzen du, “que servirán para subvencionar no sólo las visitas guiadas a este museo del mar, sino también para organizar talleres que propicien un aprendizaje más profundo de los alumnos” (Marín, 1998: 1 par.). Aquariumak, beraz, hezkuntza arautuko taldeei zuzendutako programa egonkorra diseinatzeko hasten da, eta 2008tik aurrera indartu egiten du. Adin-tarte desberdinei zuzendutako ekintza eta baliabide materialen kasuan, 4-7, 8-11 eta 12-16 urte bitartean desberdintzen dituzte. Azken urteetan, gainera, beste mota batzuetako taldeei zein banakakoei zuzendutako eskaintza ere finkatzen da. Horrela, bisita gidatu tematikoak edo “Arrainekin lotan” programa publiko orokorragoari ere zabalduko da. Jarduera puntualak ere izango dira talde honi bideratuta: bisita gidatu bereziak behin behineko erakusketetara, hitzaldiak, ikuskizunak, eta abar. Hauekin batera familientzako diseinatutako jarduerak agertzen dira, geroz eta protagonismo handiagoa izango dutenak. Oporraldietako programa bateratuetan ez ezik, Aquariumak berak diseinatutako jaiegun eta aisialdi garaiko tailer eta jolas ugari hauei egokitutakoak izango dira.

4. 5. Urgulleko Historia Militarraren Museoa/ Urgulleko Historiaren Etxea

Urgull mendia Donostiako hiriko gune estrategikoa izan da historikoki, militar egoitza ezberdinak bertan kokatu direlarik mendeetan zehar. Eraikin nagusia dugu Motako Gaztelua, XII. mende inguruan eraikia eta ondorengo mendeetako gerrateen ondorioz behin eta berriz berreraikia. 1813ko gertaeren ondoren erabat abandonatua geratzen da gaztelua, eta ez da XX. mendearen hasiera arte berriztatuko. Orduan, Donostiako Udala mendiko lursailak erosteko tramiteak hasten ditu, 1921an lortzen duen arte (Laburu, 1986) – nahiz eta jabetza osoa 1928 arte ez gauzatu¹⁹⁶ –.

Motako Gaztelua berritzeko ideiarekin eta bertan museo bat ipintzeko helburuaz, San Telmo Museoko Patronatuak bere gain hartzen du proiektua. 1959an arkitekturako berritze lanen memoria bat aurkezten du Patronatuak¹⁹⁷ eta hurrengo urtetik aurrera

¹⁹⁶ *Memoria referente a la rehabilitación del Castillo del Monte Urgull. 1959. Firmado por Jose Luis Banus y Aguirre. Patronato Museo. STMA. Sig. 56/12*

¹⁹⁷ «*Memoria referente a la rehabilitación del Castillo del Monte Urgull*». 1959. Firmado por Jose Luis Banus y Aguirre. Patronato el Castillo de Santa Cruz de la Mote y del Monte Urgull. STMA. Sig. 56/12

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

gazteluaren erreforma lanei ekiten zaie¹⁹⁸. Urte askotako eztabaida eta gorabeheren ondoren, 1963. urtean inauguratzen da Urgulleko Historia Militarraren Museoa, zeinaren bitartez “se obtendría, [...] una interesante labor de educación de las masas ciudadanas, [...] y un importante centro de atracción y visita para los considerables contingentes de turistas que pasan por nuestra ciudad¹⁹⁹”.

Irekiera urtearen ondorengo hamarkadetan museoak erakusketa iraunkor batekin eta dinamismorik gabeko erakunde bezala funtzionatuko du, Urgull mendira igotzen diren bisitarietzako interes gabeko gunea bihurtuta. Zenbait urtetako abandonuaren ostean, hiriko beste hainbat azpiegitura bezala, hura berreskuratu zein publikoaren artean ezaguna bihurtzeko lanak hastea erabakitzen du Donostiako Udalak hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran. Horretarako, Udaleko Aholkulari Militarrak egindako txosten batean agertzen denez, turistei Urgull eta Ulia mendien inguruko ezjakintasuna nagusiari aurre egiteko propaganda lan indartsu bat aurrera eramatea oinarritzakoa izango da²⁰⁰. Hala ere museoa berrindartzeko proposamenaren gauzatzea ez da aurrera eramango eta laurogeiko hamarkadaren hasieran aipatzen denez “el Museo Histórico Militar del Castillo de la Mota se encuentra cerrado dado su mal estado de conservación”²⁰¹.

Museoaren egoerak eragiten du 1982an erakusketan gordetzen diren bildumak San Telmoa eramatea (Fornells, 2003) eta, gainera, Urgull mendia bera ere egoera txarrean eta utzita aurkitzen denez, hiriko elkarte batek hura garbitu eta bideak atontzeko lanak egiteari ekitea²⁰². Honekin batera museoa berriz irekitzeko argiztapen sistemaren berritzea, zaharberritze lanak eta obren inguruko aurrekontua prestatzen da²⁰³, aldi berean San Telmo Museoa, Motako Gaztelua eta Urgull Mendiaren Patronatua eratuz 1986an²⁰⁴. Azkenik, 1989. urtean Urgulleko museoak berriz irekitzen ditu ateak²⁰⁵, kudeaketa orokorra Donostiako Udalaren menpe geratuz eta bisitarien harrera zen hezkuntza ekimena San Telmo Museoaren esku utziz.

Aldizkako irekieretan eta batez ere udako programazio batean oinarritzen den museoak 2000. urtetik aurrera hainbat aldaketa jasango ditu. Alde batetik, “Donostiari begira” erakusketa iraunkor berria egokitzen da eta museografiako elementuen

¹⁹⁸ *Aprobación del plan de rehabilitación el Castillo del Monte de Urgull por parte de la Junta del Patronato e los Museos Municipales de San Telmo y de la Casa de Oquendo*. STMA. Sig. 56/12

¹⁹⁹ «*Memoria referente a la rehabilitación del Castillo del Monte Urgull*». 1959. Firmado por Jose Luis Banus y Aguirre. Patronato el Castillo de Santa Cruz de la Mota y del Monte Urgull. STMA. Sig. 56/12

²⁰⁰ *Informe del estado del Castillo y mejoras hechas por el asesor militar del Ayuntamiento, Fernando Mexía*. 1973. DUA. Sig. 6338/12

²⁰¹ *Patronato del Castillo de Santa Cruz de la Mota y del Monte Urgull*. Septiembre de 1983. STMA. Sig. 227/8

²⁰² *Memoria de los trabajos realizados en el Monte Urgull por Kattagorri Taldea*. Abril 1980- septiembre 1981. STMA. Sig. 227/8

²⁰³ Motako Gazteluko aurrekontuak. STMA. Sig. 227/8

²⁰⁴ Patronatu berriaren sorrera. STMA. Sig. 57/24

²⁰⁵ *Urgull, Hiriko Historiaren Museoa*. STMA. Sig. 57/24

berritzea ematen da. Beste alde batetik, hezkuntza programa egonkor oinarritzko bat eskaintzen da San Telmoko programazioarekin batera eta udaldietan propioak diren ekimenak garatzen hasten da.

Hezkuntza saila

Urgulleko museoak ez du inoiz izan Hezkuntza Sailik ezta lantalde propiorik. Inaugurazio urtetik ez da jaso langileriaren inongo informaziorik, eta laurogeiko hamarkadako bigarren irekieraren ondoren, bertako hezkuntza ekimenaz San Telmo Museoko lantaldea arduratzen duela bakarrik jakin dezakegu. Udaldietako programa berezietarako, zenbait urtetan, kanpoko adituen kontratazioa egin denaren frogak topatu dira, landutako gaiari edota egindako jarduera motari lotutakoa.

Hezkuntza ekimenak

Aipatu bezala, San Telmoko hezkuntza eskaintzaren parte bihurtzen denean izango du Urgulleko Museoa eskaintza egonkor bat, bisita gidatuetan oinarritzen dena. Udaldietako programazioan ordea, tailer eta jolasak dira nagusi, sormenari lotutakoak edota arkeologia eta historiarekin erlacionatutakoak. 2002an, adibidez, “Arkeologia eta arkitektura” da udaldiko programaren gaia, bi asteko iraupena duen honetan bi arloetara gerturatzeko teknikak, jolasak eta tailerrak egiten direlarik²⁰⁶. Ondorengo udetan ere tankerako ekintzak egiten jarraituko da, ginkana, simulazio jolasak eta rol jokoak bezalakoak bateratuz²⁰⁷. Hezkuntza material propioaren sorreran ez da dokumentaziorik topatu, baina suposa daiteke ginkana jokoak, tailerrak eta bisitak egiteko material berezia sortu izan dela.

Publikoa

Azken urteetan eta San Telmoren eskaintzaren baitan, Urgulleko ekimenak hezkuntza arautuko taldeei zuzendu dira, zehazki LH eta DBH-ko etapei²⁰⁸. Oporraldietako programaren kasuan, haurrentzako eskaintza izan da nagusiki²⁰⁹.

²⁰⁶ *Urgull verano 2002* eskuorria. STMA. Sig. 207/3

²⁰⁷ *Actividades pedagógicas 2007-2008*. STMA. Sig. AC_051

²⁰⁸ San Telmo Museoa. Hezkuntza eskaintza. In

http://www.santelmomuseoa.eus/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=8192&cid=4&Itemid=115&lang=eu (2016ko urtarrilaren 15an ikusia)

²⁰⁹ Urgulleko eskaintza. Eskuorria. STMA. Sig. AC_051

4. 6. Ama Xantalen Ermitako Museoa

Irungo Ama Xantaleko ermitan, 1971an burutzen dira lehen prospekzio arkeologikoak²¹⁰, eta ondorengo urteetan Ignacio Barandiaran Maesturen zuzendaritzapeko indusketak gauzatzen dira bertan (Urteaga, 1998). Ondare gunearen eta aurkitutako piezen garrantzia ikusirik, Irungo Udalak, arkeologo taldearekin batera, museo baten irekieraren beharra azpimarratuko du Barandiaran Maestuk (1973) adierazten duen moduan “¿Por qué no pensar en un Museo monográfico del Irún romano, ahí, en Santa Elena? Ojalá que la Ciudad pueda contar con él dentro de pocos años” (28 or.). Horren aurrean, Irungo Udalak, ermitaren zaharberritze lanak sustatuko ditu²¹¹ eta ia hamarkada osoa iraun duten obren ondoren, 1981ko abenduan inauguratzen da²¹². Museoaren helburua izango da “conseguir que Santa Elena sea algo vivo, con un sentido cultural y turístico”²¹³.

1989.urtean, GFA-ren diru-laguntzaz babestuta, museografia berri eta talde gehiago hartzeko aukera zabaltzen da²¹⁴, erakusketa gunearen modernizazio eta erreformarako obrak burutu ostean (Urteaga, 1998). Aurreko urteetan izandako aldizkako irekieren ondoren eta musealizazioaren bigarren faseko lanak eta gero, badirudi Ama Xantaleko ermitako museoaren funtzionamendua egonkortuz joaten dela laurogeita hamarreko hamarkadan. Museoaren funtzio hezitzailea azpimarratzen da hasieratik, museoak eskaintzen baitu “la posibilidad (...) de aprender de una manera activa y participativa, con explicaciones y variados recursos didácticos”²¹⁵.

1996an indusketa arkeologiko berriak burutzen dira Irunen, Eskola Nazionalako eraikinaren atzealdean. Bertan erromatar garaiko aurriak aurkitu eta Irungo Udala proiektu handiago baten ideiarekin inguruan lanean hasten da (Barandiaran eta Urteaga, 2007), etorkizunean Oiasso Museoan islatuko dena alegia. Ama Xantaleko ermitaren irekiera lehen urteetan mantentzen bada ere, laster era independentean funtzionatzeari utziko dio eta museo berriaren kudeaketaren baitan geratuko da²¹⁶.

Materialei dagokienez, ermitako katalogoa soilik argitaratzen da, eta ez da bestelako material didaktiko gehigarriaren frogarik topatu.

²¹⁰ Jaime Rodríguez Salís eta M^a Teresa Christiansenek burututa. Aurrez, 1969.urtean, Irungo Juncal plazan beste indusketa batzuk gidatzen ditu Jaime Rodríguez Salisek (Urteaga, 2012)

²¹¹ *Motivo de la petición por parte del ayuntamiento de Irun al ministerio de Cultura para la obtención de ayuda con el fin de montar un museo arqueológico de la época romana y de la romanización*. IRUA. Sig. 6227/15

²¹² Ermita de Santa Elena. In http://www.bidasoaturismo.com/index.php?option=com_content&view=article&id=236&Itemid=378&lang=es (2015ko ekainaren 12an ikusia)

²¹³ *Motivo de la petición por parte del ayuntamiento de Irun al ministerio de Cultura para la obtención de ayuda con el fin de montar un museo arqueológico de la época romana y de la romanización*. IRUA. Sig. 6227/15. 1 or.

²¹⁴ *Dirulaguntza 1989-12-11*. IRUA. Sig. 6/759

²¹⁵ *Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991*. IRUA. Sig. 10/578. 1 or.

²¹⁶ Ikusi 4.42. *Oiasso Erromatar Museoa* atala

Hezkuntza saila

Ama Xantalen ermitak ez du inoiz Hezkuntza Sail propioa izango, eta funtzio honen inguruko ekimenak betetzeko zein beste jarduera guztietarako lantalde bera existitzen dela suposa daiteke. Hauei buruzko aipamen gutxi topatu badira ere, jakin dezakegu 1990an bi gidek osatzen dutela museoko lantaldea, harrera lanak eta taldeen ardura dutenak²¹⁷. Ondorengo urteetan eta Oiasso Museoa ireki arte, pentsa dezakegu dinamika antzekoa jarraituko dela eta lantalde txiki baten esku egongo dela museoaren egitekoa.

Hezkuntza ekimenak

Ama Xantaleko ermitaren hezkuntza programarik ez da garatuko eta ekimenak bisita gidatuetara mugatuko dira²¹⁸. Hala ere, eta 2006ko Oiasso Museoaren inaugurazioarekin batera, bertako bisita programazio zabalago baten parte bihurtuko da.

Publikoa

Museoaren inauguraziotik publikoaren aldetik erantzun ona jasotzen dela aipatzen da, batez ere hezkuntza arautuko zentroetatik jasotzen dituztelarik bisita gehienak, hauek baliabide pedagogiko berria eta desberdina delako baloratzen dutenak²¹⁹. Irungo eta inguruko herrietako eskola taldeak hartzaile nagusienak badira ere, esaten denez, “tambien han mostrado un gran interés los visitantes de otras localidades de la provincia, por lo que veríamos conveniente que se llevase a cabo una campaña informativa en centros escolares tanto de la provincia como fuera de ella”²²⁰.

Bestalde, publiko orokorrari zuzendutako bisitak egiten direla ere jakin dezakegu, “asteburuetako publikoa” deiturikoaren etorrera ere aipatzen baita jasotako dokumentazioan²²¹. Elkarte eta bestelako taldeen garrantziaz ere jabetzen dira, eta hezkuntza programa edo ekimen zehatzik diseinatzerantz heldzen ez badira ere, aipatzen da “(que) de cara al futuro haría falta una campaña de difusión más amplia, sobre todo respecto a centros culturales (Casas de Cultura, etc.), asociaciones”²²².

²¹⁷ *Visitas a la ermita-museo*. IRUA. Sig. 9/579

²¹⁸ *Visitas a la ermita-museo*. IRUA. Sig. 10/578

²¹⁹ *Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991*. IRUA. Sig. 10/578

²²⁰ *Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991*. IRUA. Sig. 10/578

²²¹ “En cuanto al carácter de las visitas, diremos que las provenientes los fines de semana han sido las que más interés han mostrado y más han aprovechado los recursos didácticos del Museo” *Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991*. IRUA. Sig. 10/578. 1 or.

²²² *Memoria Museo de Santa Elena. Septiembre 1990- febrero 1991*. IRUA. Sig. 10/578. 2 or.

4.7. Gorrotxategi Konfiteri Museoa

Gozogintzara dedikatzen den Tolosako Jose Maria Gorrotxategi Pikasarrrik²²³ urte luzez gordetzen du bere lanbideari lotutako material eta dokumentazio ugari²²⁴, eta guzti hor publikoari erakusteko espazio baten beharren inguruan pentsatzen hasten da. Oro har, gozogintza tradizioa aspaldikoa da herrian, eta Gorrotxategiren lehen negozioa kokatuko den eraikinean bertan konfiteri negozioa XVII. mendetik existitzen da; beraz, herriko historiari lotutako espazio baten beharrari ere guztiz lotuta agertzen da ideia hau.

Jose Maria Gorrotxategik gordetzen duen bilduma horren berri izango du Jose Migel Barandiaranek, honen aitaren laguna dena, eta gordetzen dituzten material etnografikoaren balioaz informaturik museo bat sortzeko gomendioa egiten dio. Honela, 1981.urtean, negozioko lokal zaharrean zenbait obra egin eta museora dedikatuko den espazioa inauguratuko da urtebete beranduago, Gorrotxategi Museoa bezala.

1986.urtean bilduma espazio berri batetara mugitzeko proiektua gauzatzen hasten da²²⁵; izan ere, negozioa bera ere eraikin berri batean kokatzen da orain. Hortaz, proiektu museografikoa osatu eta espazioaren egokitze obrak hasten dira, eraikin zaharrean museoak irekita jarraitzen duen bitartean. Obrak amaitu eta 1991an inauguratuko da museo berria. Gainera, aurreko hamarkadan jada garatzen hasian den euskal gastronomiarekiko interesa indartzen da garaian, gozogintzak ere bere lekua izan eta Gorrotxategi familiaren lanarekin batera museoak geroz eta ospe gehiago irabaziko duelarik.

Lehen hamarkadetan museoaren kudeaketa zein publikoaren harrera familiaren esku geratuko da, baina pixkanaka behar berriei erantzun beharko zaie eta taldeen artapena era egokian burutzeko zenbait aldaketa beharrezkoak izango dira. 1995. urtean ikastetxeetako taldeen bisitak Tolosako Zuloaga Txiki ingurumen eskolaren esku geratzen dira, hauekin elkarlan hitzarmena sinatu ondoren²²⁶. 2005. urtetik aurrera, museoaren harrera zerbitzuak zein bestelako taldeei erantzuteko eskualdeko garapen agentziaren hitzarmena sinatuko da, Gorrotxategi Museoa Tolosan deitzen den eskualdeko turismo bulegotik artatuko delarik²²⁷.

²²³ Bere aitaren eskutik jasotzen du negozioa, 1925. urtean irekitakoa. Konfiteri museoko informazio orokorra. Museoko bisiten gidioa. TTA

²²⁴ XX. mendeko 50eko hamarkadatik hasten da bilduma osatzen. Museoko bisiten gidioa. TTA

²²⁵ "el Departamento de Cultura está colaborando a que dicha colección se exhiba de forma digna en un local anexo al obrador de su establecimiento" (Izaguirre, 1988: 327)

²²⁶ *Gorrotxategi museoa 1995*. GFAAA. Sig. 8536/4

²²⁷ *Gorrotxategi konfiteri museoarekin lankidetzeta hitzarmena. 2005*. TTA

Hezkuntza saila

Museoko hezkuntza jarduera guztiak Gorrotxategi familiak burutzen ditu lehenbiziko urteetan, zentroaren kudeaketa eta taldeen harrera eurek egiten baitute inaugurazio egunetik²²⁸. Beraz, bildumaren jabea zen aldi berean museoaren dinamizazio lanak burutzen zituena. 1995tik aurrerako hezkuntza taldeetarako ordea Zuloaga Txiki ingurumen eskolako arduradunak izan ziren hezitzaile arduradunak, zentro honen kudeaketa ingurumen hezkuntzako bi enpresek egiten zutelarik. Eskualdeko garapen agentziarekin hitzarmena sinatu ondoren, Tolosaldea Tourreko turismo bulegotik kudeatu ziren bestelako publikoarentzako bisitak, ordutik bertako lantaldearen ardura izango zelarik museoak jarduerak burutzea.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren irekieratik eskaintza egonkorra bihurtzen diren bisita gidatuak egiten dira, museoak erakusketa ezagutzeko oinarritzko aukera direnak. Laurogeiko hamarkadan zenbait ikastaro eskaintzen dira museotik kanpora²²⁹, txokolatea egiten ikastekoak adibidez²³⁰. Era berean, txokolate dastatzea egiteko aukera txertatzen da bisita hauetan, bereizgarri moduan eta museoak edukiari guztiz loturik.

1995an eta Zuloaga Txikirekin hitzarmena sinatu ostean, "Tolosa Goxoa" izeneko programa garatzen da, non ikasleek elikadura eta gastronomiaren lanketa burutzen duten²³¹. Museora bisita gidatua egiteaz gain, programa honetarako sortutako koaderno didaktikoak lantzen dira²³². Zenbait urte beranduago, programaren osagarri moduan bizkotxo eta txokolatearen elaborazio tailerrak egiten hasten dira²³³.

Hezkuntza programa honetatik at, aldizkako jarduera bereziak ere antolatu izan dira museoan. 1996an "Semana europea del gusto" ospatzen da, eta Sara eta Tolosako zenbait ikastoletan gozogintza ikastaroak egiten dira²³⁴. 2012tik aurrera, herrian bertan eta turismo bulegoak kudeatuta, MNE edo Gau Zuria bezalakoak ospatzen hasten dira, eskualdeko hiru museoak eskaintza bateratua eginaz²³⁵.

"Tolosa Goxoa" programetatik haratago, museoan ez da sortuko hezkuntza baliabide materialik. Hala ere, azken urteetan eta dibertsitate funtzionaleko bisitarien harrerari zuzenduta, audio-gida bereziak sortzen dira museoa bisitatu ahal izateko, eta *braille* idazkeran moldatutako testuak ere sortzen dituzte.

²²⁸ Tolosako turismo bulegoko arduradunarekin izandako elkarrizketa 2014ko azaroaren 5an

²²⁹ Zaila da desberdintzea Gorrotxategi familiak museo bezala edo enpresa bezala burutzen dituen honako jarduera hauek; hots, formakuntza hori lanbidera bideratuta ala bestelako talde mota baten hezkuntza jarduera bezala kontsideratzen den

²³⁰ JM Gorrotxategi Pikasari 2004. GFAAA. Sig. 28790/4

²³¹ Xaxu 1990. GFAAA. Sig. 16951/6

²³² "Tolosa Goxoa" koaderno didaktikoak. AIZA.

²³³ JM Gorrotxategi Pikasari 2004. GFAAA. Sig. 28790/4

²³⁴ Gorrotxategi 1996. GFAAA. Sig. 1776/3

²³⁵ TOPIC eta Larraulgo Ekomuseoarekin batera

Publikoa

Badirudi museoa inauguratzen denetik mota askotako publikoak bisitatzen duela museoa, eskola taldeez gain euskaltegiak eta bestelako publikoa jasotzen duela aipatzen delarik²³⁶, baina talde edo bisitari mota bakoitzari zuzendutako programa bereziren dokumentaziorik ez da jaso. Beraz, pentsa daiteke, museoa bisitatzen duen ororentzat eskaintza berdina izango dela.

Desberdindutako hezkuntza eskaintza bakarra “Tolosa Goxoa” programaren barnekoa izango da, LHko taldeei zuzendutakoa. 2012tik aurrera bisita gidatuen gidoietan moldaketak egiten dira dibertsitate funtzionaleko bisitariarentzat egokitzeko, hau da, “deficiencia auditiva, visual, psíquica, orgánica e intelectual” duen bisitariarentzat²³⁷; baina ez da hezkuntza jarduerarik dokumentatu honi jarraiki.

4.8. Eskoriatzako Museo-Eskola / Eskoriatzako Etnografia Museoa/ Ibarraundi Museoa

1982. urtean, Aitzorrotz Etnologi Taldeak eta Eskoriatzako Udalak, historia eta etnografia era berritzaile batean haur eta gazteei erakusteko proiektu bat jartzen dute martxan. Horrela, alkatearen esanetan, “la Corporación de Eskoriatza en su afán de elevar el nivel cultural de nuestro municipio, y viendo la necesidad de que nuestros jóvenes y las generaciones posteriores puedan conocer mejor nuestra historia y nuestra cultura, ha decidido la creación de un museo local”²³⁸. 1982an museorako espazio egoki bat bilatu eta erabilgarriak izan daitezkeen piezen bilketari ekiten zaiou. Laurogeiko hamarkadaren hasieran udaletxearen beheko solairuko lokaletan hainbat obra burutzen hastekoak direnez, bertan museoa ipintzeko gunea egokitzea erabakitzen da. Horrela, 1983ko ekainaren 29an inauguratzen da Eskoriatzako Museoa²³⁹. Lehen urteetan *Museo Local* edota *Museo Etnográfico* izena hartzen badu ere, laster hasiko da erabiltzen *Museo Eskola-Escuela Museo* izendapena. Proiektu berritzaile honen harira aipatzen da “(que) no pretende convertirse en un cementerio de objetos, sino pretende se algo vivo, que desde el peincipio (sic) sirva de elemento

²³⁶ *Gozoginza museoa 1986*. GFAAA. Sig. 2220/1

²³⁷ *Gorrotxategi Konfiteri Museoa. Guión visitas guiadas*. TTA

²³⁸ *Instancia del alcalde Felix Barandiaran Zaldibar, el 21 de octubre de 1982*. EUA. Sig. 84/1. 1 or.

²³⁹ “pudo inaugurarse dicho Museo [...] el 29 de junio, tras la realización de la habilitación del local en los bajos del Ayuntamiento y recopilación del material adquirido por el Ayuntamiento para su exposición”. *Petición de subvencion que no ha sido aprobada. Firmado el 8 de noviembre de 1983*. EUA. Sig. 84/1

dinamizador de nuestra cultura y elemento de divulgación cultural e nuestros jóvenes”²⁴⁰.

Museoaren irekieratik bi urte igaro ondoren, Aitzorrotz Etnologi taldeak garairako berritzailea den proposamen pedagogikoa garatzen du; izan ere, hasieratik izango duten helburuetako bat da “darle a nuestra exposición (Museo Local) una función más pedagógica”²⁴¹ eta “unir estas exposiciones monográficas con el trabajo que se desarrolla en las aulas”²⁴². Erakusketaren bitartez, oro har, eskolako edukien osagarriak izan daitezkeen ekimenak burutzeko asmoa dago.

Eskoriatzako Museoaren funtzionamenduak eta izaerak tradizioetik aldendu nahiko du hasieratik. Erakusketa egonkor eta finko batetik haratago, eskaini nahiko dira “exposiciones cíclicas semipermanentes en tomo a la humanización del territorio” (Izaguirre, 1988: 236). 1988. urtean lehena inauguratzen da, “Gure historiaurrea - Nuestra prehistoria” deiturikoa, Aitzorrotz Taldea, Eskoriatzako Udala eta GFA-ren lankidetzatik sortua.

Era berean, haur eta gazteenek euren historia ezagutzeko jaiotako espazioa da, eskolako edukien osagarri bihurtu nahi dena. Izan ere, arduradunen hitzetan, garaiko museoak dira “lugares, con frecuencia no «pensados» para los niños y que, lógicamente, no resultan atractivos para ellos”²⁴³. Horri aurre egiteko helburua izango dute beraz, eta etengabe errepikatuko dute proiektuaren ardatz moduan:

Museo klasikoaren kontzeptua aldatu genuen, «Ez ukitu» edota «isilik mesedez» bezalako enborrekin, guk zentzumen guztiak erabiltzea proposatzen genuen, ez bakarrik ikusmena, baizik eta ukimena, usaimena... baita dastamena ere, tailer eta ikus entzunezkoen bitartez, gure jatorri eta historia hobeto ulertzeko²⁴⁴

Lehenbiziko urte haietan udaletxeko beheko solairuan kokatzen da museoa, baina laster etorriko dira espazio faltaren arazoak eta pieza gehiago ezin erakustearen oztopoa. Laurogeiko hamarkadaren amaieran udaletxearen aldamenean kokatzen den eraikin baten zaharberritzean hasteko da Udala, Hidalga kalean, bertan Kultur Etxea kokatzeko asmoz. 1989an eraikin haren erdi-sotoan museorako espazio bat egokitzen da, proiektu honetan jada kontutan hartuko direlarik publikoaren beharrak, izandako esperientziaren arabera, eta erdi iraunkorrak diren erakusketa ziklikoen ideia alderatu

²⁴⁰ *Museo municipal*. EUA. Sig. 84/1

²⁴¹ *Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985*. EUA. Sig. 83/7. 1 or.

²⁴² *Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985*. EUA. Sig. 83/7. 2 or.

²⁴³ *Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985*. EUA. Sig. 83/7. 4 or.

²⁴⁴ Ibarraundi Museoa. Debagoiena Turismoa. In www.turismodebagoiena.com/es/museoak/ibarraundi-museoa (2015ko maiatzaren 1an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

egingo da. Bertan egokitzen dira erakusketa gelak, bide-gela, tailerrak eta biltegia ere²⁴⁵.

Ondorengo urteetan museoak bere bidea egiten jarraitu du, bitartean herrian betetzen duen funtzioa eta lantaldearen egitekoak dibertsifikatuz joango direlarik. Izan ere, herriko kultur jarduerak eta baita hezkuntzari lotutako ekintzak gehienak museoaren esku geratu eta eskaintzan integratzen joango dira. 2004ko urrian Eskoriatzako ikastetxeek eta Udalak *Eskolako Agenda 21*aren hitzarmena sinatuko dute, programaren koordinazio eta gauzatzearen ardura museo lantaldearen esku ere geratuko delarik²⁴⁶.

Eskoriatzako eta eskualdeko historiaren erakusle izan nahi duen espaziotik abiatu eta laster bilakatzen da museoa herriko kultur ekintzen kudeatzailea. Aldaketa horretan erabakigarria izango da Eskoriatzako Udalak XVI. mendekoa den Ibarraundi jauregia erosi izana, herriko funtzio ezberdinak beteko dituen espazio bat egokitzeko asmoz. Horien artean, eta Hidalga kaleko lokala txikiegia geratu dela ikusirik, museoak ere bere lekua izango du. Eraikina zaharberritzeko obrekin batera lanean hasten dira “(para) la redacción de un proyecto museográfico que permita presentar los contenidos de una manera didáctica y atractiva”²⁴⁷ eta azkenik, 2005ko ekainaren 27an, Ibarraundi Museoa bezala inauguratzen da.

Museoan aldi baterako erakusketa programa bat planteatzen da hasieratik, herriko zein eskualdeko gizarte eta kultura eragile ezberdinekin elkarlanean arituta eta gai ezberdinak oinarritzat harturik²⁴⁸. Horrekin batera, Ibarraundi Museotik gertu kokatzen den Zubiate Labea gehituko da lantaldearen egitekoetara, ondare-gune eta zeramika erakusketa batez osatutako espazioa.

Hezkuntza saila

Museoak ez du inoiz Hezkuntza sail independenterik izango, batez ere proiektu guztia funtzio hezitzailea ardatza izanik garatuko baita. Museoeko proiektua Aitzorrotz Taldearen ideietatik jaiotakoa da²⁴⁹, eta hau osatzen duten kideetako batzuk herriko irakasleak direla kontutan izan behar dugu. Irakasle hauek garaian hezkuntzaren berrikuntza baterako tresnen gaineko interesa agertzen hasten dira, eta museo bat sortzea proiektu interesgarria eta erabilgarria izan zitekeela pentsatzen dute.

²⁴⁵ *Proyecto de Museo etnográfico. Noviembre 1989.* EUA. Sig. 280_129/90

²⁴⁶ *Eskoriatza 2005.* GFAAA.A. Sig. 20734/2. 19 or.

²⁴⁷ *Propuesta de abono de la subvención concedida al Ayuntamiento de Eskoriatza.* GFAAA. Sig. 28791/1

²⁴⁸ *Eskoriatza 2005.* GFAAA. Sig. 20734/2. 19 or.

²⁴⁹ Beti ere Eskoriatzako Udaleko laguntzaz. Garaiko alkate eta Udaletxeko kideen babesari esker gauzatu ahal izango da proiektua

Lehenbiziko urteetan Aitzorrotzeko kideek kudeatzen dute museoak²⁵⁰, jarduera ezberdinak eramateko zenbaitetan beste boluntarioen laguntza ere izanik²⁵¹. Beraz, hasierako urteetan hezkuntza arautuaren osagarri izateko bidea oso errotuta aurkituko da museoaren izaeran.

Museoa Hidalgo kaleko eraikinera lekualdatzen denean eta izaten ari den arrakasta ikusirik, lantalde finko bat eratzeko beharra antzematen dute. Hasieran, EJ-k hezkuntza sailetik irakasle bat liberatzen du museoaren proiektura dedikatzeko²⁵² eta urte batzuk beranduago bigarren bat ere gehitzen da lantaldera – soilik urte batzuetarako – . Ibarraundi jauregira lekualdatzean ordea, lantaldea irakasle liberatu batek eta Udalak kontratatutako pertsona batek osatzera pasatzen da²⁵³. Hala ere, aurrez esan bezala, lantalde txikia izanik ez da sail banaketarik izango, eta beraz, funtzio ezberdinak beteko dituzte bertako langileak, hezkuntzarena barne.

Museoko lantalde finkotik haratago, izaera ezberdineko bestelako eragileekin elkarlanak burutuko ditu hasieratik. Horietako lehena herrian kokatzen den Unibertsitateko Irakasle Eskolarekin gauzatzen da, 1985-1986 ikasturtean. Honela, Gizarte Zientzietako ikasleak museoko hezitzaile lanak burutzen dituzte urte osoan zehar eta aldi berean erakusketarako material osagarriak – fitxa didaktikoak, diapositibak – prestatzen dituzte. Honekin batera, lan berezi bat burutuko dute “(para) evaluar el aprendizaje de los niños y la eficacia de esta nueva propuesta metodológica”²⁵⁴. Elkarlan honek unibertsitateko ikasleei eskaintzen die “la posibilidad de tomar parte en una experiencia didáctica [...] en la seguridad de que ello les ha de motivar para continuar en la búsqueda de nuevas metodologías en el futuro”²⁵⁵.

Hezkuntza ekimenak

Museo tradizioaletik aldentzeko ahaleginean oinarriturik, hasieratik bisita gidatu arruntetatik desberdintzen diren hezkuntza ekimenak diseinatzen dira. Alde batetik, bisitak erakustaldiekin osatzen dira, non hezitzaile batek historiaurreko teknika ezberdinak erakusten dizkien bisitariei. Era berean, publikoak ere objektuak ukitu eta horiekin esperimintatzeko aukera izango du, tailer ezberdinak proposatuz garai

²⁵⁰ Material pedagogikoa sortzeko Arabako Arkeologia Museoarekin eta bertako pedagogia sailarekin harremanetan daudela aipatzen da, hala nola Bilboko eta Donostiako beste museo batzuekin. *Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985*. EUA. Sig. 83/7. 2 or.

²⁵¹ Carta de la secretaría del Ayto. a Eusebio V.A., encargado del Museo Local, el 18 de abril de 1985. EUA. Sig. 84/1

²⁵² *Solicitud de subvención a la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa del Aitzorrotz etnologi taldea para el Museo Local de Eskoriatza. Enero 1990*. EUA. Sig. 280_129/90


²⁵³ Museoko egungo arduradunekin izandako elkarrizketa 2015ko urtarraren 15ean.

²⁵⁴ *Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985*. EUA. Sig. 83/7. 2 or.

²⁵⁵ *Udaleko dirulaguntza eskaera. Aitzorrotz Etnologi taldearen proiektu pedagogikoa, 1985*. EUA. Sig. 83/7. 4 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

historiko hori ezagutzeko baliagarria izan daitekeena. Historiaurrearen gaia hizpide hainbat hitzaldi ere egingo dira museoan. Erakusketaz gain, herriko eta ingurunekeo paisaia eta historia ezagutzeko lehen ibilaldi gidatuak burutzen dira laurogeiko hamarkadan²⁵⁶.



Irudia 8: Arkeologia erakustaldietarako materiala (Iturria: Eskoriatza Museoko eskuorria. IMA)

Hasieratik, hezkuntza baliabide materialen sorrerari garrantzia emango zaio: “material, tanto fotográfico como escrito, que permita un mayor conocimiento de los materiales de que disponemos, así como su posible utilización por los Centros Escolares”²⁵⁷. Horrela, Gure historiaurrea erakusketa eta jardueri loturik, lehen material didaktikoa sortzen dute GFA-ren laguntzari esker²⁵⁸: ikasleentzat lan-koaderno bat eta irakasleentzako argibide liburuxka bat. Hauekin batera historiaurreari lotutako domino joko bat sortzen dela aipatzen da, beti ere museoak bilatzen zuen haurrenganako gerturatzea eta ekintzen izaera ludikoa azpimarratuz²⁵⁹. Hala ere, urteen poderioz, materiala zaharkituta geratzen da, eta lantaldean horien berrikuntzaren beharrei buruz hitz egiten bada ere, ez da koaderno edo fitxa berriagorik topatu²⁶⁰.


²⁵⁶ “con la ayuda de varios jubilados que se han prestado amablemente como guías”. *Solicitud de subvención a la Excma. Diputación foral de Gipuzkoa del «Aitzorrotz etnologji taldea» para el Museo Local de Eskoriatza. Enero 1990.* EUA. Sig. 280_129/90

²⁵⁷ *Propuesta de la comisión de Cultura en relación al museo local.* EUA. Sig. 84/1. 1 or.

²⁵⁸ “Gure historiaurrea” erakusketaren eskuorria. EUA. Sig. 83/7

²⁵⁹ *Solicitud de subvención a la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa del Aitzorrotz etnologji taldea para el Museo Local de Eskoriatza. Enero 1990.* EUA. Sig. 280_129/90

²⁶⁰ “el Museo ha generado diversos materiales pedagógicos que ofrecemos a los grupos que nos visitan fotocopiándolos pero pensamos que debido al tiempo transcurrido todos ellos han de ser revisados y adecuados a las nuevas directrices con las que trabaja la escuela”. *Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 1995. Eskoriatzako Museo Eskola.* EUA. Sig. 321/7. 1 or.



Irudia 9: Gure historiaurrea erakusketako lan koaderno (Iturria: IMA)

2000. urtetik aurrera eta Eskoriatzako Udalarekin sinatutako akordioaren ondoren – Agenda 21ko programa kudeatzekoa – historiaurretik haratago doazen gaiak oinarri izaten hasten dira museoko hezkuntza ekimenetan, egoera hori indartzen delarik Ibarraundi Jauregira lekualdatzean. Horrela, azken hamarkadetan Zuhaitz Eguna bezalakoak ospatzen hasten dira, ingurumenari lotutako programa berri bati lotuta; MNE-n jarduera desberdinak proposatzen dituzte, eta gai ezberdinak lantzen dituzten hitzaldiak antolatzen dira²⁶¹.

Publikoa

Eskoriatzako Museoa hasieratik planteatzen da haur eta gazteentzako erakargarria izan behar duen espazio bat bezala, eta hortaz, ekimenak adin desberdinetako hezkuntza formaleko taldeetara egokitzen dira. Historiaurrearen erakusketa antolatzean denean zehazten denez, “jende guztiarentzat zabaldurik egon arren, [...] Deba Garaiko eskualdeko eskoletan dabiltzanei zuzentzen zaie bereziki”²⁶². Hasieratik

²⁶¹ Ibarraundi Museoaren dokumentazioan Eskoriatzako Udaleko kultur jarduerak eta museoaren propioak nahasten dira. Honela, erakusketa mota ezberdinak, zinema emanaldiak, musika saioak, ezkontzak, bilerak, Eskolako Agenda 21ko bilerak eta hamaika ekintza gehiago biltzen dira erregistroetan, honek museoaren hezkuntza programatik desberdintzeko zailtasunak eskaintzen dituelarik

²⁶² “Gure historiaurrea” erakusketa foiletua. EUA. Sig. 83/7

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

hezkuntza arautuko taldeen erantzuna oso positiboa izango da²⁶³, baina baita ere asteburuetakako publikoarena ere – publiko orokor kontsideratu dezakeguna – . Hauentzako bisita gidatuak eta tailerrak ere eskainiko dira, hala nola hitzaldi ezberdinak publiko helduarentzako izango direnak.

Hauetaz gain, eta Ibarraundi Jauregira lekualdatzearekin batera, bestelako talde eta bisitari motak hartzen direla zehazten da museoko dokumentazioan, baina errealitatean ez da hezkuntza eskaintza banaturik egiten eta badirudi eskaeraren araberako moldaketak egiten direla museoko ekimenetan.

4.9. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa / Urrelur

Nicasio Aguadok, urteak ematen ditu mineral eta fosilen bilduma garrantzitsua osatzen. Laurogeiko hamarkadan Urretxuko Udalarekin harremanetan jartzen da, bilduma publikoari erakusteko espazio baten inguruan hitz egiteko, hau etorkizuneko museoaren abiapuntua izanik. Urretxuko Udala garai hartan berritzen ari da Aizpurua Eneako eraikina, herriko Kultur Etxea bihurtzeko. Bertako beheko solairuan museoa ipintzeko leku egokiena dela erabakiaz, 1987. urtean inauguratzen Urretxuko Mineral eta Fosilen Museo bezala. 1989an, bildumaren jabeak, piezen aldi baterako zesioa egingo dio Udalari²⁶⁴, eta zenbait urte beranduago bilduma guztiz erosi du Urretxuko Udalak²⁶⁵.

Badirudi museoaren irekieratik lehen urteak igaro ondoren, museoak ez dituela betetzen hasieran ezarritako helburu guztiak, eta hortaz, 1996an, museoaren berrikuntza eta aktibaziorako proposamen berrien inguruan lan egingo da. Lehenengo aldaketa museografiaren berritzearekin ematen da, behar berrietara egokituz eta bildumaren antolaketa egokiago bat eginaz. Alabaina, museoak beti mantenduko du hezkuntza funtzioa ardatz bezala, eta euskal museoen artean izaera didaktikoa duen gutxienetakoa bezala definitzen da garaian (Urkizu, 1997). Bigarren aldaketa hezkuntza ekimenen baitan geratuko da, ordutik aurrera enpresa espezializatu baten esku geratuko direlarik hauek. Azkenik, 2009an museoari izen berria emateko bozkatzea bat antolatzen dute herrian eta Mineral eta Fosilen Museoak “Urrelur” izena hartuko du²⁶⁶.

²⁶³ 1989 osoan zehar 44 ikastetxeetako taldeekin etorritako 2.455 ikasle gerturatzen dira museora. *Museo escuela de Eskoriatza. Memoria 1.989*. Aitzorrotz etnologi taldea. EUA. Sig. 129/90. 3 or.

²⁶⁴ *Cesión temporal de la colección*. 1989. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8

²⁶⁵ 2006. urtean Urretxuko Udalak bilduma erosiko du. *Informe de adquisición de los fondos del Museo de Minerales y Fósiles, 2006*. Urretxuko Udala K.S.-k emandako dokumentazioa

²⁶⁶ *Museoaren izen aldaketari buruzko dokumentazioa*. Urretxuko Udala K.S.

Hezkuntza saila

Museoaren irekiera urtetik Urretxuko Udaleko K.S.-k kudeatuko du zentroa²⁶⁷. Hasiera batean piezen mantenua eta taldeen bisita gidatuak bildumaren jatorrizko jabearen esku geratzen dira. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, Udalak pertsona bat kontratatzen du uda garaian erakusketa zaintzeko²⁶⁸.

1996an, museoan ematen diren berritze lanak direla eta, hezkuntza ekimenak burutzeaz arduratuko den enpresa bat kontratatuko du Udalak, ingurumen zerbitzuetan eta ekipamenduen harrera lanetan espezializatua. Momentu horretatik aurrera Urrelurren kudeaketa orokorra kultura sailaren esku geratzen da, bertako arduradun batek burutzen dituelarik antolaketa eta prestakuntza lanak; eta taldeen harrera, material didaktikoaren diseinua eta hezkuntza ekimenen gauzatzea enpresak egiten ditu.

Hezkuntza ekimenak

Mineral eta fosilen museoaren izaera eta funtzioa oso argia izango da hasieratik, eta lehen urteetatik erakusketa eta honen inguruko jardueren oinarria finkatuta geratuko da:

El museo también pretende ser dinámico. [...] con actividades que, a lo largo del año, complementarán la visita a las vitrinas.[...] la presentación física del museo no es más que la pieza base sobre la que giraran otras tales como exposiciones monográficas [...] exposiciones de «encuentros», [...] conferencias, proyecciones, excursiones en autobús a visitar yacimientos y puntos de interés geológico, certámenes escolares²⁶⁹

Museoaren irekieratik bisita gidatuak aipatzen dira oinarrizko eskaintza bezala, erakusketa bisitatu nahi duen orok bertako langileak gidaturiko bisita baten bidez egin dezakeela esanez²⁷⁰. Laurogeita hamarreko hamarkadaren lehen erdian hezkuntza programa egonkor bat diseinatzen da, urte osoan zehar taldeei zuzentzen dena. Honen baitan, museoko bisita gidatua egiten da, bertako espazio ezberdinetan dauden esperimendu eta frogak egiteko aukera duelarik, “(para) que el alumno pueda aprender por sí solo a través de la experimentación”²⁷¹. Bisita gidatuez gain hiru tailer mota eskaintzen dituzte: Batean fosilak modelatzen ikasten da; bestean material geologikoa atera, garbitu, osatu eta sailkatzeko teknikak erabiltzen ikasten dute, baita hauen azterketa mikroskopio eta lupen bitartez egiten ere harri eta mineralen ezaugarriak

²⁶⁷ *Urrelur* 1989. GFAAA. Sig. 7834/3.

²⁶⁸ Diru-laguntza eskaera, 1990an. UUA. 2. kutxa. Sig. 2.8

²⁶⁹ *Museoko katalogoa*. 1988. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8. 1 or.

²⁷⁰ “contando [...] con la posibilidad de realizar una visita dirigida y con explicación”. *Memoria actividades museo* 1993. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8. 7 or.

²⁷¹ *Memoria actividades museo* 1993. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8. 7 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

ikertzeko prozesuen berri izateko²⁷²; eta azkenik, historiaurreko pinturaren gaia oinarri izanik, lehen gizonen pintura teknikak ikasteko aukera eskaintzen da²⁷³. Bisita gidatua eta tailerrak irteera geologiko batekin osatu ahalko dira, inguruko paisaian museoan landutako edukiak ere lantzeko eta behatzeko aukerarekin.

Taldeek museoan zein euren jatorrizko zentroetan erabiltzeko hezkuntza materiala ere sortuko da. Alde batetik, irakasleen lana erraztu eta orientatzeko helburuaz sortzen dira dossier edo gida liburuxkak²⁷⁴. Bestalde, bisitaren aurretik zentroan ikusi daitekeen bideo bat ere egiten da, museoari zein gaiari buruzko oinarritzko informazioa ematen duena²⁷⁵.

Hauekin batera, 1996an maleta didaktiko ezberdinak sortuko dituzte museoan. Bertan koaderno didaktikoak, azalpen orriak eta mineral eta fosilak gordetzen dira, museotik at ere edukiak lantzeko guztiz erabilgarria suertatzen dena²⁷⁶.



Irudia 10: Maleta didaktikoak (Iturria: Urretxuko K.S.)

Museoa era indibidualean bisitatu nahi duenarentzat ere sortzen dira audio-gidak: hasieran zinta magnetofonikoak erabiliz eta azken urteetan formatu digital berrietara egokitutako euskarrietan.

Museoak hezkuntza programa egonkor bat garatuko du lehen urteetatik, urtero errepikatuko diren zenbait hezkuntza ekimen finkatu eta urtetik urtera indartuko direnak. Hots, hezkuntza programa orokorraz gain, aisialdi garaira egokitutako bestelako ekintzak ere sortuko dituzte. Horietako lehenbizikoak txango geologikoak izango dira, non ibilbide gidatu baten bitartez ingurunearen ezaugarriak *in situ* ikusteko aukera eskaintzen den (Urkizu, 1997), edota mineral eta fosilak jaso eta aztertzeko

²⁷² "Una actividad plenamente didáctica en la que los participantes se involucran totalmente". *Memoria 1994*. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8

²⁷³ "Museo 1989". UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8

²⁷⁴ *En su primera visita al museo de Urretxu Mineralogía paleontología*. UUA. 1. kutxa . Sig. 2.8

²⁷⁵ *Memoria actividades museo 1993*. UUA. 1. Kutxa. Sig.2.8

²⁷⁶ *Maleta didaktikoak*. Urretxuko Udala K.S.

antolatutako egun osoko irteerak egiten diren²⁷⁷: “Estas excursiones [...] están asesoradas por un paleontólogo y un veterano coleccionista [...]. Las excursiones hasta el día han tenido gran aceptación a nivel de toda la Comunidad autónoma Vasca”²⁷⁸. Ibilaldi gidatu hauek dira soilik Urretxu inguruan burutuko, eta Gipuzkoako zonalde ezberdinetara zein hortik kanpora ere antolatuko dira irteera bereziak, maiatzeko hilabetea finkatzen dutelarik horretarako eta horrela jarduera egonkorra bilakatuz Urrelurren eskaintzaren baitan.

Hauekin batera, MNE eta Mikologia Astea bezalakoak ere ospatuko dira urtero, hitzaldi, irteera eta erakusketak bezalako jarduez osatutako programak dituztenak²⁷⁹. Era berean, 1988tik aurrera, museoaren erakusleio eta festa garrantzitsuena bilakatuko den Mineralogia eta Paleontologia Astea ospatzen da lehen aldiz, ordutik udazkeneko errepikatuko dena²⁸⁰. Aste honek publiko zabalago batera heltzeko helburua izango du, museotik irten eta jendeari mineralogia eta paleontologiara gerturatzeko, hau bihurturik “una especie de semana cultural, festiva y comercial” (Delgado, 2006b: 123). Aste berezi honetan aurkeztuko dira ekimen eta espazio ezberdinak. Alde batetik Saloia deituriko erakusketa-azoka ospatzen da, non leku ezberdinetatik etorritako bildumagile eta saltzaile ezberdinak euren *stand*-ak ipintzeko aukera duten. Bestalde, gaiari lotutako hitzaldiak, bideo eta diapositiben emanaldiak eta irteera bereziak antolatzen dira. Eta azkenik, meatze edota urrearen bilaketa simulazioa egiteko tailerrak, historiaurreko gizonen pintatzeko modua ikastekoak zein jolas, festa eta lehiaketaz osatutako ospakizuna ere burutzen da²⁸¹.

Era puntualean zenbait hitzaldi ere antolatzen dira gai ezberdinen inguruan, geologia eta mikologia nagusi izanik²⁸². 1999an irakasleei zuzendutako ikastaro bat ere eskainiko da da mineral eta fosilen inguruan, hauek izan dezaten zen diren “(las) pautas pedagógicas para abordar estas materias de manera clara y atractiva para el alumno”²⁸³.

²⁷⁷ Lehenbiziko urteetan hilabetero egiten ziren honelako irteerak, baina zenbait urteren ondoren urtean behin egitea erabaki zen, beti maiatzeko egun bat finkatuz. *Urteko irteerak, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa*. Urretxuko Udala K.S.

²⁷⁸ *Memoria proyectos 1989*. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8. 3 or.

²⁷⁹ *Museo 1994. Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa*. GFAAA. Sig. 12923/3

²⁸⁰ *Museoa. Primera feria. 1988*. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8.

²⁸¹ Minearologia eta paleontologia astearen eskuorri eta programa guztietatik jasotako datuak, 1988. urtetik aurrerakoak. Urretxuko Udala. K.S.

²⁸² *Memoria 1996*. UUA. 2. Kutxa. Sig. 2.8

²⁸³ *Memoria 1999*. UUA. 2. Kutxa. Sig. 2.8. 8 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Publikoa

Museoak, hasieratik, bisitari eta talde mota guztiak jasotzen dituela zehaztuko du²⁸⁴, baina urtean zeharreko hezkuntza programa eta material didaktiko gehiena hezkuntza arautuko taldeei²⁸⁵ zuzendutakoa izango da hasieratik:

Estamos convencidos de que este proyecto se convertirá en un motivo más de Cultura [...]. Nuestra intención es la de intentar que el Museo sea un lugar de estudio y consulta, dirigido a la gente en general haciendo hincapié en los Centros escolares que sin duda podrían ser los mayores beneficiarios de su instalación²⁸⁶

Hortaz, inaugurazio urtetik aurrera Zumarraga, Urretxu eta inguruko beste hainbat herrietatik gerturatzen dira museora, pixkanaka lurralde osoko bestekoa zentroetara ere zabalduko delarik jarrera. Irakasleentzako eskaintza egonkorrik izan ez bada ere, aipatu beharrekoa da hauei museoak dituen baliabideak eta horiek gelan lantzeko aukerak ezagutarazteko antolatutako ikastaroa.

Hezkuntza arautuko taldeez gain, banakako bisitariei zuzendutako ekimenak ere antolatzen direla aipatu da aurrez. Hortaz, publiko orokorrarentzat antolatzen dira txangoak eta Mineralogia eta Paleontologia Asteko ekintzak. Publiko helduarentzako aldiz, hitzaldi saioak eta egun berezietako bideo eta dokumental emanaldiak nabarmendu daitezke; eta haur eta gazteentzako ospakizun egunetan zein Mineralogia eta Paleontologia Asteko jolas eta tailerrak proposatzen dira.

4.10. Umeen Museoa/ Ingurugiro Etxea

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika, Garraio eta Turismo sailak, Ingurumen Sailburuordetzaren bitartez, Azpeitiko Egibar baserriaren berreraikuntza obrei ekiten dio, bertan hezkuntzara bideratutako espazio bat eratzeko asmoaz. 1986ko abenduaren 14an Eusko Jaurlaritzak eta Azpeitiko Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatzen dute "Umeentzako Museoa" deitzen duten esperientzia baserrian bertan aurrera eramateko²⁸⁷, helburua izanik "encauzar y fomentar un conocimiento básico sobre el medio que vivimos, con el fin de realizar una labor fructífera en materia de educación y concienciación ambiental"²⁸⁸. Eskola eremura bideratutako proiektu honek ia urte erdi beranduago bere bidea hasiko du, 1987ko ekainaren 5an

²⁸⁴ *Memoria actividades museo 1993*. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8

²⁸⁵ Ez da zehazten zein etapari zuzentzen diren.

²⁸⁶ *Museo de mineralogía y paleontología. Centro Cultural Aizpuru Enea*. 1987. UUA. 1. Kutxa. Sig. 2.8

²⁸⁷ Hiru urte beranduago, 1989ko abenduaren 22an, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak eta Azpeitiako Udalak hitzarmen berria sinatzen du.

²⁸⁸ *Convenio de colaboración firmado entre el Departamento de Política Territorial y Transportes del gobierno asco y el Ayuntamiento de Azpeitia, para desarrollar la experiencia denominada «Umeentako Museoa-Museo de los Niños»*. 14 de noviembre de 1.986. AZPUA. Sig. 4257/02. 1 or.

inauguratzen delarik “meen Museoa - Museo de los Niños izenaz, uztailaren 1an publikora irekita geraturik ofizialki.

Museo honen sorrerarako ereduak oso argi azalduko dituzte garaian, administrazio publikoko kargu batek dioen moduan:

El Museo de los Niños no es un invento de las Administraciones Vascas. Creado a imagen y semejanza de «The Boston Children's Museum», «The Children's Museum of Chicago» o del «Museo de los Niños de Caracas», ha sabido captar la atención de la población escolar y educativa de la Comunidad Autónoma Vasca²⁸⁹

Hortaz, museoa ikasgela ireki bat izateko helburuz planteatuko da, “que aunque no pueda sustituir a la escuela, propicie un aprendizaje más abierto y más dispuesto a decir que el niño aprenda en libertad”²⁹⁰. Era berean, hasieratik ingurumenaren gaia izango da ardatza, helburu nagusiak izanik ingurumena eta haren irakaskuntzaren bitartezko etorkizuneko pertsonak heztea, hots, ingurumenaren zainketa eta babesa bultzatzea, honetan existitzen diren arazoaren aurreko sentsibilizazioa eta interesa sustatzea eta Euskadin ingurumen arloan egiten ari denaren inguruko informazioa ematea. Guzti hori era ludikoan aurkeztuko da museoan, “Ezagutza dibertigarria”-ren lelopean²⁹¹.

Hasieratik publikoaren aldetik jasotako erantzuna oso positiboa izango da eta denbora gutxian eskaera eskaintza baino askoz ere handiagoa bihurtzen da. Oro har, milaka bisitari izango dituzte Umeen Museoan, 1994. urtearako ia 160.000 bisitari igaroko direlarik bertatik, taldeka zein banaka²⁹².

1998an Umeen Museoak erabateko aldaketa jasango du: Alde batetik, aurreko izena alde batera utzi eta “Ingurugiro Etxea” izatera pasatzen da museoa. Bestalde, erakusketa iraunkorreko museografian ere berrikuntza lanak burutzen dira, lau erakusketa gela sortuz gai ezberdinen inguruan: lurra, bioaniztasuna, demografia eta energia²⁹³. Guzti honek, noski, museoaren hezkuntza programa eta baliabideetan ere aldaketak suposatzen ditu.

2001an, Ingurugiro Etxetik sortutako jarduera eskaintzaz gain, bestelako funtzio batzuk egokitzen zaizkio museoko lantaldeari: Azpeitiko *Tokiko Agenda 21* euren esku geratuko da²⁹⁴ eta 2004tik aurrera *Herriko A21a* ere²⁹⁵. Honek beraz, museotik

²⁸⁹ *Umeentzako museoaren txostena 1987-1991*. EAE-HAAN. Sig. E-329-2. 1 or.

²⁹⁰ *Carta de autorización de gasto. Gobierno Vasco. Viceconsejería de Medio Ambiente*. EAE-HAAN. Sig. 26/ E-329-2

²⁹¹ *Informe Museo de los Niños*. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

²⁹² *Visitas al museo de los niños. Estadísticas, informes, programas, 1993-1995*. AZUA. Sig. 4221/01

²⁹³ *Memoria 98-99*. IEA

²⁹⁴ *Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2000*. IEA

²⁹⁵ Aurrez enpresa batek burutzen zuen lan hau. *Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2004*. IEA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

haratago herriko ingurugiro arloko dinamizatzailerik bilakatzea eragiten du, erakusketa gunearen kudeatzaile izatetik udalerri horretako zein eskualdeko hainbat jardueren ardura jasoz. Era berean, museografiaren zein espazioen lehen aldaketatik hamar urte igaro ondoren, 2008an “Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020”-ra moldatzeko lanak burutu beharko dituzte²⁹⁶. Erakusketa berria etorkizunean lortu beharreko bost helmugei lotuta agertuko da ordutik aurrera, eta hortaz, museoaren helburuak ere berriz planteatu beharko dira: beharrei egokitutako eta curriculumari lotutako hezkuntza zerbitzu bat eskaintzea; *Eskolako Agenda 21* eta *Udal Agenda 21* programetan integratzea eskaintza hori; bost helmuguen lorpenerako laguntza eskaintza eta ingurugiroari lotutako informazio eskariari erantzutea²⁹⁷.

Hezkuntza saila

Museoak inaugurazio urtetik lantalde finko eta egonkorra izango du, urteetan zehar mantenduko dena hein batean. Lehen urtetik OHOk²⁹⁸ bi irakasle liberatzen ditu EJ-k museoeko hezitzaile taldea osatzeko, eta EJ zein Azpeitiko Udalaren arteko koordinazio lanetan arituko den profesional bat kontratatzen da²⁹⁹. Hala ere, museoan ez da Sailen banaketarik emango eta beraz, hezkuntza funtzioa beste egitek guztiekin batera lantaldearen egitekoetan barneratzen da.

Bi hezitzaileak etengabe hartuko dute parte trebakuntza saio ezberdinetan³⁰⁰ - PIEA, CEIDA ikastaroak, lurraldeko jardunaldiak eta beste hainbat – , eta Autonomia Erkidegoko beste museo batzuetara bisitak burutuko dituzte, edukiak lantzeko modua eta hezitzaileen lan egiteko erak ezagutzeko. 1993-1994 ikasturtean aipatzen denez, hezitzaileen funtzioak dira

(la) formación [...], contactos con otros centros [...], actividades de mantenimiento [...], actividades de preparación [...], asistencia al público [...], atención al profesorado [...], otras funciones (como) atender a los medios de comunicación (y) envío de cartas a colegios³⁰¹

Hezkuntza ekimenak

Hezkuntza programa egonkor eta osatua garatuz joango da lehen urteetatik, eta hasierako eskaintza murrizta bada ere, laster aukera anitzak proposatuko zaizkie talde

²⁹⁶ *Ingurugiro Etxearen historia laburra*. IEA

²⁹⁷ *Ingurugiro Etxearen historia laburra*. IEA

²⁹⁸ OHO: Oinarrizko Hezkuntza orokorra, egungo Lehen Hezkuntza etaparekin parekatu daiteke. http://eu.eustat.eus/documentos/elem_12807/definicion.html (2016ko urriaren 4an ikusia)

²⁹⁹ *Umeentzako museoaren txostena (1.987-1.991)*. EAE-HAAN. Sig. 26/ E-329-2

³⁰⁰ Ingurugiro Etxeko memoria txostenetan urtero lantaldeak buruturiko trebakuntza ikastaroen berri agertzen da, hauek laurogeiko hamarkadaren amaieratik jada gauzatu zirelarik. IEA

³⁰¹ *Memoria 1992-1993*. EAE-HAAN. Sig. 26/ E-329-2. 2 or.

zein banakakoei. 1996an 10 programa desberdin eskaintzen dira, 1998an 92³⁰² eta 2004an 141 izateraino iritsiko dira, adin-tarte eta talde mota bakoitzari egokitu zein jarduera desberdinen konbinaketatik eratorritakoak.

Erakusketa gunearen bisita gidatuak egiteaz gain, laster bestelako ekipamendu edo ondare-guneak ezagutzeko aukera ere emango zaie bisitariei. Laurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera txertatuko da museoko eskaintzan Lapatxeko Zabortegia, Oñatzeko ur araztegia, Lasako araztegia eta Igarako Errota³⁰³. Hauetako espazio batzuetan, gainera, bisitak erakustaldiekin osatzen dira, zenbait makinariaren martxan jartzea edota funtzionamenduaren aztertzea zuzenean egin dezaketelarik bisitariek. Bisitekin batera, museotik kanpoko zenbait ibilaldi gidatu eskainiko dira laurogeiko hamarkadan, lehenak Izarraitz mendira edota Azpeitiko alde zaharrera eginik³⁰⁴, baina hauek protagonismoa galduko dute eta eskaintza egonkorretik baztertuko dira beranduago.

Kontutan izanik museoa haurrentzako esperimendazio gune bat izateko sortua dela, tailer mota ezberdinak diseinatzen dira hasieratik. Mota askotakoak izango dira: esperimendazioaren alorrekoak, soinu-kutsadura neurtzekoak³⁰⁵ edota uraren erabilerari buruzko esperimenduak³⁰⁶; edo eskulangintzarekin lotuagoak, paper birziklatua sortzekoa adibidez – . Ingurugiro gaia era ludikoan lantzeko jolasak ere proposatuko dira museotik, 2001ko “Tantaz tanta” jolasa bezalakoa³⁰⁷.

Ikasleez gain, irakasleen trebakuntzan arreta jarriko dute museoan. 90. hamarkadaren amaiera arte irakasleek museoko edukiak lantzeko aukerarik onenak eta estrategiak erabiltzen ikasteko formakuntza saioak antolatuko dira. Aipatzekoa da ere Ingurugiro Etxeak irradian ere bere lekua izango duela 1999an, Herri Irratiarekin hitzarmena sinatu ondoren asteartero inguruarekin lotuta dagoen informazioa eta aholkuak eskainiko dituelarik³⁰⁸.

Ekitaldi bereziek ere bere lekua izan dute hasieratik Umeen Museoan, Uraren Astea, Ingurugiro Eguna eta Zuhaitz Eguna bezalakoak ospatuko direlarik. Hauetan zuhaitzen landaketa, ikastetxeei zuzendutako lehiaketak edota mendian zehar eginiko ibilaldiak egiten dira. 1999tik aurrera, Ingurugiro Etxearen Astea ere ospatuko da, bisita gidatu berezi eta ate irekiekin³⁰⁹. Museoko eskaintza egonkorretik at, 2010tik aurrera zenbait

³⁰² Memoria 1999. IEA

³⁰³ Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2004. IEA

³⁰⁴ Urteko memoriak. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³⁰⁵ Jarduera eskaintza umeentzako, 1989-1990. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³⁰⁶ Umeentzako jarduerak 1989-1990. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³⁰⁷ Museo medioambiental Ingurugiro Etxea. Memoria de actividades 2001. IEA

³⁰⁸ Museo de los Niños. Memora de actividades (trimestrales) 1999. IEA

³⁰⁹ Memoria 1999. IEA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

hitzaldi ere antolatzen dira museoan, barazaintza eta hondakinen prebentzioaren gaiak bezalakoak hizpide³¹⁰.

Museoa inauguratzen denetik, ikasleek gelan zein museoko bisitan erabiltzeko lan-koadernoak eta fitxak sortzen dituzte, eskolako etapa ezberdinetara egokitutako jarduera eta edukiak agertuz³¹¹. Aldi berean argitaratuko dute “Mini guía/ gidagarri txikia” izeneko liburuxka, eta egunkari formatua duen “Dinotsuren abotza” deiturikoa, non museoari lotutako albisteak agertzen diren³¹². Haez gain txosten txikiak ere idazten dituzte zaborraren edo birziklapenaren inguruan, gidaliburu moduko koadernoak sortuz³¹³. Ibilaldi gidatuen jardueretarako ere prestatuko dira mapa ezberdinak, ibilbidean zeharreko gunek garrantzitsuen inguruko informazio laburtuarekin, “Dino ibilbidea” edota “Izarraitz mendikatea” bezalakoak³¹⁴, eta museoa bakarka bisitatu nahi duen ororentzat sortuko dira ere audio-gidak, kaseteetan grabatutakoak izango direnak³¹⁵.

Museoaren izaera ludikoa ahaztu gabe, jolas desberdinak ere sortzen dituzte: lehen urteetan “Dominó monstruoso”, “Dinotxu eta elikatze-katea” eta “Cuadernos para pintar y completar por puntos”³¹⁶ diseinatu ziren; 1989an “zaborrarekin erlazionatuta jokuak eta denborapasak”³¹⁷ eta geroago baita “Joku garbia” deiturikoa, oka jolas moldatua dena³¹⁸. Tallerrei loturik, 1996-1997 ikasturtean esperimentuak agertzen dituen bideo bat grabatzen dute, ikastaldee zuzendutakoa³¹⁹.

Publikoa

Umeen Museoak, izenak berak lehenbiziko etapan dioen moduan, umeentzako espazio bat izateko helburuarekin jaiotzen da; hortaz, hezkuntza arautuko taldeei baina batez ere txikienei zuzendutako espazio bat bezala aurkezten da. Hasiera batean 7 eta 16 urte bitartekoentzat programazioa eratzen da eta gerora beste adin tartetara zabalduz joaten da. 1998rako jada HH-tik DBH-ko maila guztietarainoko eskaintza osatuta egongo da. Irekiera urtetik eskola taldeen eskaria eskaintza baino askoz ere

³¹⁰ Memoria 2010-2011. IEA

³¹¹ Umeen museoa 1. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³¹² Umeen museoa 1. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³¹³ Umeen museoa 1. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³¹⁴ Umeen museoa 1. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³¹⁵ Informe sobre el funcionamiento del museo de los niños de Azpeitia durante el curso escolar 1991-1992 (septiembre 1991-julio 1992). EAE-HAAN. Sig. 26/ E-329-2

³¹⁶ Informe de las actividades realizadas en el museo de los niños durante los nueve meses que lleva en funcionamiento (1 de julio de 1.987-31 de marzo de 1.988). Gobierno Vasco. Dto. De Urbanismo, vivienda y medio ambiente/ Hirigintza, etxebizitza eta ingurugiro Saila. AZPUA. Sig. 4257/02

³¹⁷ Umeen museoa 1. EAE-HAAN. Sig. E-329-2

³¹⁸ Memoria curso 1993-1994. EAE-HAAN. Sig. 26/E-329-2

³¹⁹ Memoria final curso 96-97. IEA

altuagoa izango da eta EAE-ko ikasleen etorrera masiboa bizi izango dute museoan, horrek itxaron zerrendak osatu behar izatera eramango dituelarik³²⁰.

Hezkuntza arautuarekin lotuta, irakasleen protagonismoa ere garrantzitsua izango da; aurrez aipatu zenbait ikastaro antolatuko baitira museoaren erabilera egokiagoa izan dadin. Horrekin batera, eskola taldeen etorreraren aurretik irakasleekin saioak antolatzen dira eta aholkularitza jarraitu bat eskainiko zaie:

nuestro trabajo como monitoras se centra primordialmente en el trabajo con los profesores. Estos concertan previamente un día de visita para ellos en el que les mostramos todas y cada una de las áreas del museo, intentando adaptar sus contenidos a las edades de los alumnos que les acompañarán. Además de una explicación minuciosa y pormenorizada de las 10 áreas actuales [...] se les muestra el material de trabajo complementario³²¹

Hezkuntza arautuko taldeetatik at, publiko orokorrak³²² museoa bisitatuko badu ere, oso portzentaje baxua izango da eta hezkuntza eskaintza ere oso murriztua izango da³²³. Beste mota batzuetako taldeak ere gerturatuko dira Umeen Museoa ezagutzera: eliza-taldeak, aisialdikoak, udalekuetakoak eta jubilatutakoak hartzen dituztela aipatzen da³²⁴, baina talde mota bakoitzari egokitutako hezkuntza ekimenik ez da topatu.

Azkenik, aipagarria da 1997tik aurrera ebaluazio lanak burutzen dituztela museoan, publikoaren asebate maila neurtzeko edota hezkuntza programen inguruko iritzia ezagutzeko.

4.11. Zumalakarregi Museoa

Ormaiztegin aurkitzen den Iriarte-Erdikoa baserria. 1938. urtean erosten du Gipuzkoako Aldundiak, geroago Monumentu historiko-artistiko Nazional izendatua izango dena ("Museo Zumalakarregi de Ormaiztegi", 2002: 76). XVIII. mendeko baserri honetan bizi izan zen bere haurtzaroan Tomas Zumalakarregi jeneral karlista – nahiz eta erosketaren urtean bere jaiotetxea dela pentsatzen den –, eta jada 1940tik, Iriarte-Erdikoa Museo-Etxe³²⁵ izena hartzen du, eraikinak jatorrian izango zuen itxura

³²⁰ Umeen Museoko urteko memoriak. IEA

³²¹ *Memoria final de curso 96-97*. IEA1 or.

³²² Hasieran "Asteburuetako eta oporraldietako publikoa" deituko zaio bisitari mota honi eta gerora "Nor bere konturako bisitak"

³²³ *Visitas al museo de los niños. Estadísticas, informes y programas 1993-1995*. AZPUA. Sig. 4771/01 eta *Visitantes 1987*. AZPUA. Sig. 4257/02

³²⁴ *Memoria final de curso 96-97*. IEA

³²⁵ *Iriarte Erdikoa (Museo Zumalakarregi) (1987)*. KOZNAB. Sig. KO:62002:20x. In <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1062548> (2015ko martxoaren 2an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

agertzen duten espazioak erakutsiz (Alberdi, 2008). GFA-k, 1988.urtean, Iriarte-Erdikoa baserria Zumalakarregi Museo bezala egokitzeko erreforma lanei ekiten dio³²⁶ eta museoa izango denaren aurkezpen bat ere egiten da Ormaiztegin bertan, non zentro berriaren inguruko oinarrizko informazioa eskaintzen den erakusketa baten bitartez³²⁷.

1989ko maiatzean Zumalakarregi Museoa inauguratzen da, garai historiko zehatz baten irakurketa zientifikoa egiteko jaiotako gunea eta Euskal Herriko XIX. mendearen erreferentziazko ikerketa eta hedakuntza gunea bilakatuko dena (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2014). Lehen urtean erakunde ezberdinekin harremanetan jarri, dokumentazioa bilatu, ikertu, etorkizuneko argitalpenak prestatu, aldi baterako lehen erakusketa antolatu eta beste hainbat ekintzetara bideratzen da lana. Adierazgarria da, hasieratik, erakunde akademiko ezberdinekin harremanetan jartzen dela museoko lantaldea – unibertsitate ezberdinetako historia sailekin adibidez – , materialen sorrerarako eta artxiboaren inguruko ikerketetarako ezinbestekoa suertatzen dena.

Laurogeita hamarreko hamarkada abiadura handiz hasiko du Zumalakarregi Museoak, izan ere, gunea aktibo eta ireki bat izateko helburuaz jaioa izanik, bisitariei museoa bertan eskainitako zerbitzuetatik haratago, biztanleriara heltzen saiatzeko ekintza ezberdinak ere programatuko dira hasieratik. Era berean, aldi baterako erakusketen antolaketa eta baliabide didaktikoen sorreran arituko da lantaldea. Hamarkada honetan zehar gainera, museoko zenbait espaziok aldaketak jasaten dituzte, erakusketa iraunkorrean zein lantegi edo tailer aretoan bezala.

Erakusketa gunea izateaz gain, museoa ikertzaileentzako ikasgune izateko helburua izango du, eta hala, 1991tik aurrera, urteroko beka bat eskainiko da Euskal Herria eta XIX. mendearen inguruko lanak burutzeko (Alberdi, 2008). Herriko gazteenei heltzeko asmotan ere, Zumagazte Kluba sortzen da. Honetan, adin tarte zehatz bateko gazteei aukera ematen zitzaien klubeko kide egin eta asteroko ekintza desberdinetan parte hartzeko, hala nola jarduera berezi eta ospakizunetan ekintzak burutzeko ere.

Zumalakarregi Museoko museografia zaharkitua aurkitzen dela nabarmendurik, bertan erreforma lanak burutzea erabakitzen da eta hala, 2008an zenbait hilabetez museoa itxita mantentzen da³²⁸. Moldaketen ondoren, museoa berriz irekitzen da publikora museografian, irisgarritasun arloan eta artxiboan aldaketak egin ondoren³²⁹.

³²⁶ Eraikinaren egoera 1987.urtean eta erreforma lanak 1988.urtean agertzen dituzten argazkiak. KOZNAB. Sig. KO:62002:20x In <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1062548> (2015ko martxoaren 2an ikusia)

³²⁷ *Exposición informativa sobre el Museo Zumalacarregui celebrada en Ormaiztegi entre los días 14 y 24 de noviembre de 1988.* GFAAA. Sig. 2221/2

³²⁸ *Contrato K6 2008.* GFAAA. Sig. 4718/2

³²⁹ *Memoria 2008. Zumalakarregi Museoa.* ZMA

Erakusketa berriak eragingo du ere hezkuntza programan zenbait aldaketa burutu behar izateak.

Hezkuntza saila

GFA-k lehiaketa bidez esleitzen du museoko kudeaketa, eta Zumalakarregiren kasuan, inaugurazio urtetik kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa berdinen esku egongo da. Enpresa parte diren langilez osatuko da museoko lantaldea, hasieratik nahikoa egonkorra izan dena. Hasiera batean bi sail ezberdinetan banatzen dira: Dokumentazio Zerbitzua, artxiboa eta horren ikerketaz arduratzen dena; eta Difusio Zerbitzua, honen helburua izanik “actuar como «puente cultural» entre el propio museo y las personas o entidades externas a él”³³⁰ eta funtzio nagusiak bisitak antolatu eta programa didaktikoa garatzea³³¹. Difusio Zerbitzuaren hasierako ekintza nagusienetako bat Estatuko pedagogi kabineteekin elkar truke bat egitea izango da³³², hala nola Euskal museo ezberdinetara bisitak burutzea, lantaldearen trebakuntzarako eta proiektu berrien sorkuntzarako oinarrizko jarrera bat erakutsiz³³³.

Bi zerbitzuak izanik ere, lantalde txikia osatuko dute museoan. Hezkuntzari dagokionez, lehenengo urtean difusioaz arduratzen den pertsona bakarra aipatzen da dokumentazioan – arduradun teknikoa, laguntzailea, aholkulari historikoa eta administrari laguntzaile batek museoko lantaldea osatzen dutelarik – eta 1991an, material didaktikoa eta hezkuntza programaren diseinuaren lan handiena egiteko hiru pertsona izateraino iristen direla zehazten da, KEHS Zerbitzua sortzeko helburuarekin³³⁴. Horrekin batera, Espainian antolatzen diren DEAC Jardunaldietan parte hartuko dute museoko kide batzuk 1990tik aurrera.

Urteetan zehar, hezkuntzaz arduratuko den sailaren izena aldatuz joango da: Difusio Zerbitzua deitzen da 1989an, Komunikazio eta Zabalkunde Zerbitzua 1993an, Animazioa 1995an, Animazioa eta didaktika 1996an, Hezkuntza eta animazioa 1997an eta azken urteetan jada Hezkuntza Saila deituko zaio³³⁵.

Hezkuntza funtzioa beteko zutenen formakuntza hasieratik izan zen ezinbestekoa museoaren garapena eta jardueren eboluziorako. KEHS jardunaldietan parte hartzearen frogak goiztiarrak dira, 1991tik aurrera museoko lantaldeko kideak bertan

³³⁰ *Rueda de prensa. Diputación 9 de octubre de 1990. ZMA. 1990 kutxa. 1 or.*

³³¹ *K6. Puesta en marcha del museo. 1999. GFAAA. Rekalde. Sig. 7581/7*

³³² *Informe sobre las actividades del museo T. Zumalacarregui durante el año 1989. ZMA. 1989ko kutxa. 5 or.*

³³³ “Nuestra intención va más allá de realizar una simple explicación de los materiales expuestos y para ello nos hemos puesto en contacto con especialistas en difusión y didáctica en los museos, con el fin de que elaboren un plan didáctico que complete los resultados de las visitas escolares al museo”. *Segunda fase. Puesta en marcha del museo T. Zumalacarregui. 1989. ZMA. 1989 kutxa*

³³⁴ *Presupuesto según fases de realización del proyecto para la creación de un Servicio de Educación y Acción Cultural en el Museo Zumalacarregui de Ormaiztegui. ZMA. 1989 kutxa*

³³⁵ Urteroko memorietatik jasotako datuetan oinarrituta

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

egon zirelarik entzule zein hizlari moduan³³⁶. Hauekin batera Euskal Herrian zein nazio mailan antolatutako kultura, museo, turismoa eta teknologia berriei lotutako hamaika kongresu eta ikastarotan parte hartuko dute, hezitzaile taldearen prestakuntza azpimarragarria izanik.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren irekieratik hezkuntza programa finkoaren parte dira “ibilbide tematikoak” deiturikoak; hasiera batean bi bisita eredu diseinatu eta ondorengo urteetan horiek osatu, moldatu edota berritzen joango dira, sei ibilbide propio izateraino iritsiz. Hauen helburua argia izango “dar un apoyo didáctico a los visitantes individuales o de grupo”³³⁷. Ibilbide tematiko hauetan mota ezberdinetako jarduerak nahasten dira: bisita gidatu arruntak material zehatzaren erabilerarekin edota tailer eta jolasen osaketarekin; bisita gidatuaren ondorengo ibilaldiak museotik kanpora; eta eskaintza bateratua edo elkarlanak, ekipamendu bat baino gehiago egun berean bisitatzeko aukera ematen dutenak. Era berean, aldi baterako erakusketen bisita gidatuak ere egingo dira; izan ere, museoak behin behineko erakusketa interesgarri ugari sortuko ditu lehenbiziko urteetatik eta, gainera, ibiltariak izateko diseinatuak egongo dira horietako asko³³⁸. Bisita gidatu hauei loturik sortuko dituzte irakasleentzako lehen dossierrak eta hezkuntza etapa bakoitzari egokitutako koaderno didaktikoak. Horrekin batera, bisitaren aurretik museoko edukiak ezagutu nahi dituen ororentzat bideo bat sortzen da³³⁹.

Elkarlan eta eskaintza bateratuaren kasuan, lehena 1996an egingo da, Azpeitiko Tren Museoarekin elkarlanean sortutako bisita gidatua; urte berean eta 1998 arte, Zeraingo Herri Museoarekin batera “Kultura eta gastronomia” deituriko eskaintza bateratua existituko da; eta 1999tik aurrera Zerain eta Legazpirekin batera “Burdinaren Bideak” programaosatzen da, hiru ekipamendu desberdinak bisitatzeko aukerarekin. Horrekin batera, zenbait proiektu berezitan ere parte hartuko du. 1996-1999 bitartean “Educación por la paz” izeneko esperientzia pilotua garatzen da, garaiko hezkuntza erreformaren harira. Zeharkako diseinu kurrikular berria lantzeko proposamen bat garatzen da, non eskolako irakasle eta museoaren arteko elkarlana gauzatzen den.

Ibilbide gidatuen eskaintza, hezkuntza programa finkoari dagokionez, beranduago garatzen da. 1993an Ormaiztegitik Zegamaraino doan ibilaldi bat eskaintzen da lehen

³³⁶ Aurrez 1990ko jardunaldietara museoko bi kide joango dira, 1991an ere eta 1996an pertsona bakarra. Urte batzuetako partehartzaileen zerrendak ez dira dokumentatu, beraz, jaso direnen aipamenak soilik egin dira hemen.

³³⁷ Zumalakarregi museoa. *Proyecto de gestión. Abril-diciembre 1993*. ZMA. 1993 kutxa. 7 or.

³³⁸ Honek ahalbidetuko du “museoa museotik” ateratzeko joera oso goiztiarra, egoitza bisitatu ezin duenei zuzenduko diren erakusketa ibiltari horiek EAE-ko gune ezberdinetan zehar mugituko direlarik

³³⁹ 1992ko eskuorriak. ZMA. 1992 kutxa

aldiz³⁴⁰, eta hortik aurrera elkarlanetik sortutako zein museoak diseinatutako ibilbide gidatuak burutzen hasten dira. Ormaiztegin bertan tren-zubiaren inguruan lan handia egingo dute Udalarekin batera – seinaleztapena, zabalkundea – eta hura ezagutzeko ibilaldia txertatuko dute eskaintza egonkorrean.

Aipaturiko bisita eta ibilaldiez gain, museoan tailerrak eta jolasak ere diseinatzen dira. Bi modalitate desberdinetan aurkezten zaizkio publikoari: Alde batetik, museoeko espazio bat dedikatuko da jolas eta tailerretarako, “Lantegia” deiturikoa, non material ezberdinak sortzen dituzten bisitariak modu librean erabiltzeko, esperimintatzeko eta jolasteko. Bestalde, sortutako baliabide material guztiak oinarri izanik, tailer eta jolas horiek ibilbide tematikoetan txertatuko dira ekintza moduan, bisitaren ondoren burutzeko aproposak suertatzen direlako. Aldi berean, horiek aprobetxatuko dira jaiegun, oporraldi eta egun berezietako ospakizunetan eskaintzeko.



Irudia 11: Zumalakarregi Museoeko lantegia 1996an (Iturria: ZMA)

Lantegian zein taldeek erabiltzeko sortzen dira ZumaKIT deiturikoak 1990an³⁴¹. Maleta didaktikoak izango dira hauek, “el aprendizaje por medio de la participación”³⁴² ahalbidetzen dutenak. Lehenbizi bi ZumaKIT sortu eta ondorengo urteetan hiru izateraino iritsiko dira: XIX. mendeko janzkerari buruz, garraiobide eta komunikazioena eta Euskal Herria XIX. mendean gaitzat hartzen dutenak. Gai hauek lantzeko jantziak, testuak, mapak, irudiak, eta beste hainbat tresna gordetzen dira (Alberdi, 2008).

Aurrez aipatu bezala, 1994an Zumagazte Kluba sortzen da³⁴³, publiko gazteena fidelizatzeko proposamena³⁴⁴. Horientzako prestatzen da “Zumagazte Lantegia” programa berezia: hasiera batean modu puntualean zenbait ekimen egiten dira, baina pixkanaka indarra hartuz joango da, eta astean behin egun bat finkatuko da tailer, jolas

³⁴⁰ Memoria 1993. ZMA. 1993 kutxa

³⁴¹ Zumalakarregi museoa. Kudeaketa proiektua '95. GFAAA. Sig. 8534/8

³⁴² Líneas generales de actuación 1992. GFAAA. Sig. 9443/17. 12 or.

³⁴³ Zumalakarregi museoa. Kudeaketa proiektua '95. GFAAA. Sig. 8534/8

³⁴⁴ Memoria 1994. ZMA. 1994ko kutxa

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

eta ikastaro ezberdinak burutzeko: ikonografiari buruz ilustrazioen azterketa egitekoa tailerrak, mozorrotzekoak, musika eta dantzari lotutako ikastaroak, jostuntzakoak, filma saioak³⁴⁵ eta beste mota askotako jarduerak egiten dituzte³⁴⁶.

Aipagarria da Zumagazte klubeko kideek antolatutako “Tirabira Ormaiztegin” jolasa MNE-n errepikatu dela urtero 1994tik. Hemen rol joko bat egiten da, non bi taldetan banatutako bisitariak froga ezberdinak osatu behar dituzte, mapak irakurriz, espazioan orientatuz eta elementu desberdinak topatzen³⁴⁷. Era berean, zenbait urtetan taldeko kideak museoko hezitzaile bihurtuko dira herriko festetan, museoko erakusketa ikusteaz gain eraikinaren gune ezkutatuak ere erakutsiko dituztelarik, biltegia eta artxiboa bezala³⁴⁸.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erditik aurrera, oporraldietako programak sortzen dira, udaldi zein gabonetan eskaintza berezia eratzen delarik³⁴⁹. Hauetan, gehienetan, ibilbide tematikoetan, aldi bateko erakusketei lotutako jardueretan, Lantegian edota Zumagazte Klubarekin erabilitako tailer eta jolasak proposatzen dira – nahiz eta zenbaitetan oporraldietarako ekimen zehatzak diseinatu –

Hezkuntza programa egonkorretik at, Zumalakarregi Museoan aldizkako ekintza ezberdinak ere antolatu izan dira. Ikerketa eta difusioaren garrantzia handia izanik, ohikoak dira hasieratik XIX. mendeko solasaldi eta hitzaldi saioak, museoko erakusketa egonkorra edota behin behineko erakusketei loturikoak. Saio horietako asko museotik kanpora burutuko dira, unibertsitate, ikastetxe, beste museo edota kultur etxeetan. Aipagarria da ere, 1999an museoko baliabide didaktikoen inguruko ikastaro bat antolatzen dela, Goierriko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irasleei zuzenduta. Honetan, museoak eskaintzen dituen baliabideak eta horiek gelan lantzeko aukeraz hitz egingo da³⁵⁰. Ikuskizunen alorrean ere aldizkako emanaldiak antolatu dira. 1992ko MNE-n XIX. mendeko musika kontzertua antolatuko da eta 1998an Zumalakarregi Museoak, Errenteriako Eresbilgo Artxibo Musikalarekin elkarlanean, XVIII eta XIX. mendeko musika kontzertua antolatuko du Ormaiztegiko elizan.

Azkenik, laurogeita hamarreko egingo den jarduera berezietakoak irrati saioak izango dira. 1995an Euskadi Irratian astean behin 20 minutu irauten duen tarte bat eskaintzen zaio Zumalakarregi Museoari³⁵¹ *Pareak bai!* saioaren barnean. Honetan Zumalakarregiren garaikide izan ziren pertsonaia euskaldunen bizitzak ezagutzeko

³⁴⁵ Memoria 1998. ZMA. 1998 kutxa

³⁴⁶ Contratación K6. 1996-1997. Plan de gestión. ZM. GFAAA. Sig. 1776/4

³⁴⁷ Contratación K6 1996-1997. Plan de gestión ZM. GFAAA. Sig. 1776/4. 18 or.

³⁴⁸ Memoria 1994 eta Memoria 1995. ZMA. 1994 kutxa eta 1995 kutxa

³⁴⁹ Memoria 1996. ZMA. 1996 kutxa

³⁵⁰ Expediente contratación K6. 1999. GFAAA. Sig. 16947/7

³⁵¹ Memoria 1995. ZMA. 1995ko kutxa. 14 or.

istorioak kontatzen dira. 1996an saio hau mantendu eta beste bat gehituko da Segura Irratian, formatu antzekoa erabiliz. 1998an, Euskadi Irratian berriz ere, *Salako Leihoan* saioan parte hartzen hasten dira, beti ere XIX. mendeko historia ezagutzera emateko helburuaz³⁵².

2000. urtetik aurrera, ibilbide tematikoak jarraituko dute izaten hezkuntza programa egonkorraren oinarria, eta soilik 2008ko museografiaren aldaketarekin berrituko dira guztiz. Horrekin batera, hasieratik jarraitutako dinamika emango da, eta elkarlan proiektu berriak garatuko dira: 2004an Igartubeiti Baserri Museoarekin bono bateratua osatzen da eta oporraldietako zein larunbatetako eskaintza programa elkartua osatzen dute; eta 2013tik aurrera Barandiaran Museoarekin eskaintza bateratu bat burutzen da. Huez gain, 2011tik aurrera “Komiki hezigarri digitala” programan parte hartzen dute museoak eta herriko ikastetxeak, argialetxe batekin elkarlanean. Honetan bisita eta tailerrak konbinatzen dira, non historiaren lanketarako komikiaren erabilera sustatzen den.

Ibilaldi gidatuekin ere, bisitekin bezala, eskaintza mantendu egingo da. Hala ere Ormaiztegitik Mutiloara doan Bide Berdean zeharreko ibilaldia eskaintzen hasten dira, egun zehatzetan hainbat proposamenekin baina batez ere Bide Berdeen Eguna ospatzeko³⁵³. Ibilbide gidatu honetan Goierriko meatze paisaiak ezagutzeko aukera eskaintzen da. Inguruko espazioetatik haratago, egun osoko irteerak ere programatzen dira zenbait urtetan, Zumalakarregi zein XIX. mendeari lotutako guneak bisitatzeko: 2009an eta museoaren 20. urteurrena ospatzeko, Lizarrara bidaiaria egiten da, karlismoaren kokaguneak ezagutzeko helburuaz, 2010an Lakarrera birsortze historiko bat ikustera eta 2011an Tolosara ere irteera egingo da alardearen gaia ardatz harturik. Jolas eta tailerrak moldatu eta berrituz joango dira. Maleta didaktikoen erabilera galduz joango da eta formatu digitaleko ekimenak nagusitzen hasiko dira. Hala ere, *Munduari buelta 80 egunetan* bezalako jokoak sortzen dituzte³⁵⁴, bisitetan edota egun berezietan erabiltzen direnak. 2004tik aurrera *Zatoz jolastera museora* programari hasiera ematen zaio, Igartubeiti Baserri Museoarekin eskaintza bateratua egiten delarik oporraldi garaian. Museo honekin ere larunbateroko tailerrak eskaintzen hasten dira geroago, uda eta gabonetako egunetatik haratago luzatuz eskaintza. Azken urteetan sukaldaritza, mozorroak, antzerkia, zeramika, papiroflexia, marrazkigintza eta beste hainbat ekintzen bidez bi museoetako edukiak lantzeko ekimen erakargarria eratuko dituzte .

³⁵² *Memoria 1995*. ZMA. 1995 kutxa

³⁵³ 2011an bide bera bizikletaz egiteko ibilaldia antolatzen da

³⁵⁴ *Contratación K6. 2005*. GFAAA. Sig. 20736/4

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Tailerrei loturik aipatzekoa da *Zumakontakizuna* programa sortzen dela 2007an³⁵⁵, objektu historiko batekin edo agiri batekin taldean egiteko solasaldi-tailerra, hirugarren adineko talde eta elkarteei zuzendutakoa. 2010tik aurrera Zumalakarregin belaunaldi-arteko tailer egonkor bat ere aurkezten du hezkuntza programaren eskaintzaren baitan. Tailer hauetan bi norabideetako ikasketa lortzea da helburuetako bat³⁵⁶, adin desberdineko pertsonen taldeek gai berdinen inguruan lan egiten dutelarik, horrela esperientziak eta jakinduria partekatuz.

Aurreko hamarkadan bezala, aldizkako hitzaldi saioak antolatzen jarraitzen dute, eta horrekin batera bi jardunaldi desberdin ere burutzen dira. 2000. urtean *Baztertuak Euskal Herrian (XVIII-XIX. mendeak)* gauzatzen da eta 2002an *Grabatua mundu digitalean: esperientziak eta proiektuak zabalkuntzaren aurrean* sinposioa. Museoak berak antolatutakoaz gain, beste hainbat kongresu eta jardunaldietan komunikazio eta ponentziak aurkeztuko ditu, Euskal Herrian zein nazio mailan. Ikastaroak ez dira hain ugariak izango: 2008an *Bi mundu aurrez aurre* eta kultur ondarearen didaktikari buruzkoa bi ikastaro egingo dira; 2009an eta aldi baterako erakusketa bati lotuta, lore-jana sukaldaritza ikastaroa eskaintzen da.

Ikuskizunen baitan, Zumalakarregi Museoaren 20. urteurreneko ospakizunean kontzertuak eskainiko dira³⁵⁷, hala nola 2009an ere *Loreak asmatzen* erakusketaren harira egiten den musika emanaldia³⁵⁸.

Azkenik, ikuskizunen baitan aipatu beharrekoa da 2012tik aurrera urtero egiten den ekimen berezia: *XIX. mendeko Eleganteen Bilkura*. Ormaiztegin, herriko jaiekin batera ospatu ohi da Eleganteen Eguna, baina beste hainbat herrietan bezala, ospakizunaren izaera eta tradizioak galduz joan dira, batez ere jantzigintzaren aldetik garaikidea den estetika bat gailendu delarik. Egoera horren aurrean eta jaia aitzakiatzat harturik, Zumalakarregi Museoak XIX. mendeko janzkeren irudi proiektio bat eskaintzen du 2012an, inspirazio iturri bezala funtzionatzeko eta jatorrizko janzkeraren inguruko informazio gehiago izan dezaten herritarrek. Hurrengo urtean Elegante Egunean ipintzeko jantzi tailer bat proposatuko da, hala nola hitzaldi eta erakusketa bat. Ekimenak arrakasta handia izango du, eta herri osora zabaltzeko asmotan hurrengo urtean beste eragile batzuekin elkarlanean antolatzen da edizio berria, aurreko urteetako tailerra eta informaziorako tresnak mantenduz. Birsortze historikoaren errealismoa areagotzeko asmoz, azken edizioan garaiko garraiobideak erabili eta espazio ezberdinen errekreazioak – saloiak, eraikinak – egiten dira eguna ospatzeko.

³⁵⁵ *K6 contratación 2007*. GFAAA. Sig. 31025/1

³⁵⁶ Belaunaldi arteko tailerren informazioa. In <http://www.zumalakarregimuseoa.eus/eu/ekintzak-eta-zerbitzuak/hezkuntza/lantegiak/belaunaldi-arteko-lantegiak> (2016ko azaroaren 17an ikusia)

³⁵⁷ *Contratación K6 2009*. GFAAA. Sig. 5059/4

³⁵⁸ *Memoria 2009*. Zumalakarregi Museoa. ZMA. 2009 kutxa

Era berean, herriko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuen inplikazioa sustatzeko asmoz, hauek ere animatzen dira XIX. mendeko janzkera eta euren lokalen nolabaiteko birsortzea egiteko, lehiaketa eta ekitaldi ezberdinak antolatzearekin batera. Hezkuntza baliabide materialei dagokionez, aurreko hamarkadako euskarriak mantenduko dira ibilbide tematikoetarako, hots, koaderno didaktikoak eta irakasleentzako dossierrak³⁵⁹ – hauek, noski, garaira eta eduki berriei egokituz –, eta aurretik existitzen den museoko bideoa DVD formatuan kaleratuko dute 2002an³⁶⁰. Era berean, Zumalakarregi Museoak teknologia berriek eta Internetek eskaintzen dituen baliabideak erabiltzeko joera goiztiarra erakutsiko du, horiek hezkuntza jardueran zein erabilgarriak izan daitezkeen antzemandak. Horietako lehena izango da 2000. urtean sortzen den *Wilhem von Humboldt modulu elkarreragilea*, antzinako irudiak eta testuak zein esploratzailearen historia ezagutzeko aukera eskaintzen duenak (Alberdi, 2008). Modulu hau, erakusketak bezala, ibiltaria izateko diseinatuko da eta hala beste museo eta kultur etxeetan ipiniko dute, baita ospitale batean ere.

Web orriaren erabilera hezitzailea ere nagusi izango da, eta informazio hutsa edo baliabideen formatu digitala eskaintzeaz gain, plataforma honetan ipintzeko eskusiboki diseinatuko dira hainbat ekimen. Espazio honek, ZM Virtual izena hartzen duena, oro har, Zerbitzu onenari saria irabaziko du *Salón de Recursos para la Educación Exponidáctica 2008*-n, “Servicio Virtual de formación y aprendizaje” atalean³⁶¹.

Web orrian, alde batetik, irudi, testu eta soinu artxibo digital aberatsa osatuko dute, hala nola zenbait erakusketa birtualak ere. Bestalde, *online* jokoak sortuko dituzte *Historia online*, *XIX. mendean bizi* eta *XIX. mendeko Tribiala* bezalakoak.

Ebaluazioari dagokionez, 1989. urtean zenbait froga egiten dira taldeen iritziak eta programen inguruko balorazioa egiteko. Horretan oinarrituko dira ondorengo ibilbide tematikoak sortzeko, oro har. 1991tik aurrera bisitariei inkesta bat egiten zaiela esaten da museoak ikusi ondoren, asebeste maila eta zerbait ikasi al duten galdetzen zaielarik. Urte batzuetara, ebaluazio lan hauek bisitarien perfilak ezagutzera bideratzen dira, eta hortaz, gaien inguruko interesari zein publiko mota ezagutzeari moldatutako ikerketak burutzen dituzte³⁶².

Publikoa

Zumalakarregi Museoan eskolako taldeek arreta nagusia jasoko badute ere, beste taldeekiko eskaintza bat osatzea ere helburua izango da, eta museoak hasieratik

³⁵⁹ Rueda de prensa. Diputación 9 de octubre de 1990. ZMA. 1990 kutxa

³⁶⁰ Memoria 2002. ZMA

³⁶¹ ZM Virtual. In http://zm.gipuzkoakultura.net/zm_virtual.php?op=4&act=22 (2015ko martxoaren 15an)

³⁶² 1995an esaten da ere “publikoaren azterketaren analisi konparatiboa” egiten dutela. *Zumalakarregi museoak. Kudeaketa proiektua '95*. GFAAA. Akobe. Sig. 8534/8

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

izango du ikuspegi zabalago bat zentzu honetan ere. Alabaina, lehen hezkuntza programaren oinarria hezkuntza arautuko taldeek zein bisitari orokorrek baldintzatuko dute, eta bestelako publiko motari zuzendutako hezkuntza ekimenak beranduago helduko dira.

Alberdik (2008) aipatzen duen bezala, “desde la apertura [...] estuvo clara su vocación divulgativa. Uno de nuestros principales objetivos fue atraer a los alumnos de distintas edades ofreciéndoles itinerarios didácticos adaptados a sus programas de estudios” (237). Gauzak honela, hezkuntza eskaintzaren sorrera prozesuan hainbat froga burutuko dituzte 1989ko maiatzetik ekainera bitartean, ondorengo ikasturteko programaren egokitasuna aztertzeko helburuaz. 340 ikaslerekin egindako froga hark balio izango du “para comprobar la necesidad de diversificar la oferta pedagógica del museo”³⁶³.

Lehen urtean 15-17 urteko ikasleentzako ibilaldiak diseinatzen dira eta laurogeita hamarreko hamarkadan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako mailetara zabaltzen da. Urteek aurrera egin ahala, eskaintza murriztu eta DBH eta Batxilergoko ikasleentzako hezkuntza programara mugatzen da, zenbait jarduera berezi LH-ko azken ziklora ere zuzenduz.

Publiko orokorra edo banakako publikoak lehen urtetik izango du eskaintza zehatza, “ibilbide alternatibo” izenekoarekin. Eskaintza honetan museoa ezagutu nahi duen pertsona orok aukera izango du hezitzaile baten laguntzaz erakustaretoak bisitatzeko. Honen baitan kontsideratuko dira lehen urteetan mota guztietako taldeak ere, hezkuntza arautik kanpo aurkitzen direnak, alegia. Era berean, zehazten ez bada ere, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera antolatzen diren irteera, hitzaldi eta ikuskizunak helduei zuzendutakoak izango dira batik bat.

Haur eta gazteek ere protagonismoa izango dute eta hasieratik ekimen bereziak diseinatzen dira hauei zuzenduta. Zumagazte kluba sortzen denetik, urte osoko hezkuntza eskaintza finkoa izango dute. Hasieran 8 urtetik gorakoei zuzendutako programa osatzen da, baina laster 6-12 urtera mugatuko dute adin tartea. Zumagazte klubak, beraz, eskolako orduz gain museora gerturatzeko eta beraren parte aktibo izateko aukera bat eskainiko die haurrei. Udaldietako eta asteburuetako programazioak ere – Zumalakarregi Museoak berak diseinatutakoak zein ondoren Igartubeitirekin batera osatutakoak – haurrei zuzendutakoak izango dira, 5-12 urte bitartekoentzako jarduera ezberdinak proposatuz batez ere.

³⁶³ Informe sobre las actividades del museo T. Zumalacarregui durante el año 1989. ZMA. 1989ko kutxa. 5 or.

2006tik aurrera, programa horietako batzuen hartzaile berriak agertuko dira: familiak. Hortaz, guraso edo tutoreen garrantzia ere azpimarratzen da honela, museoaren hezkuntza jardueretan taldean murgildu eta belaunaldi arteko elkartrukea sustatzeko. Azken urteetan gainera, ibilbide tematiko batzuk ere egokitzen dira familientzako, museoa bisitatzeko modu berriak proposatuz.

Familia bereko kideak izan gabe, belaunaldi-arteko *Zumakontakizuna* tailerrak izango dira berrikuntza handienetakoa azken urteetan, haur eta gazteek eta 60 urtetik gorakoek museoaren inguruko gaiak ardatz harturik ikas dezaten planteatutakoak. Hirugarren adinekoentzat den ekimen hau “museoan zein beste zentroetan burutzeko pentsatua (dago) eta memoria, pentsamenduak, antzinako istorioak hitzezko komunikazio bidez lantzeko garatua”³⁶⁴.

Esperientzia Eskolek edota helduen hezkuntzakoek euren lekua izango dute, eta 2005 eta 2007 urteetan hauentzako bereziki prestatutako hitzaldi-ikastaroak burutuko dira zentro bakoitzeko instalakuntzetan, gerora museora bisita gidatuarekin osatzen ahal dena³⁶⁵, hezkuntza eskaintza orokorreko ibilbide tematikoetako batzuk eurentzako ere egokituko direlarik. Azkenik, 2003tik aurrera aisialdi taldeentzako programa bat eskainiko da udaldian, haurrei zuzendutako museoko jarduerak egokituz³⁶⁶.

4.12. Pagoetako Parkea/ Iturraran Parketxea

1956.urtean GFA-k Aian kokatzen den Laurgain lursaila erosten dio Lardizabalgo Markesari³⁶⁷ “con el fin de realizar unas experiencias que permitieran el logro de una mejora general en el ámbito rural de la Provincia”³⁶⁸. Esperimentazioko gune honetan lanean hasten dira ondorengo urtetan, espezie berriak landatuz eta basoberritze metodologia ezberdinak praktikan jarriz, 1968. urtera arte lan egiten dutelarik bertan. Laurogeiko hamarkadaren hasieran, eta nazioarte mailan ere garatzen ari diren bestelako planei jarraiki, GFA-k espazio babestuen eta ingurumenarenarekin erlazioa duten espazioen inguruko zenbait ikerketa eta txostenak idazten ditu³⁶⁹.

³⁶⁴ *K6 contratación 2007*. GFAAA. Sig. 31025/1

³⁶⁵ *Contratación K6 2005*. GFAAA. Sig. 20736/4

³⁶⁶ *Memoria 2003*. ZMA. 2003 kutxa

³⁶⁷ *Laurgaingo lursailaren erosketari buruzko testu soltea, non lursailari buruzko historia laburra agertzen den*. IPA

³⁶⁸ *Estudio previo para la realización de un Parque Natural en Laurgain. Tomo I. MEMORIA*. Mario Michel. Diputación Foral de Guipúzcoa. Servicio Forestal, 1981. IPA. 1-2 or.

³⁶⁹ 1981.urtean *Laurgainen Parke Naturalaren inguruko Aurre Ikerketa* eta 1982an *Laurgainen Baso Parke bat eratzeako proiektua. Proyecto de Parque Forestal en Laurgain*, 1982. IPA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Espazio natural haren indarra antzemandakoa, Aldundiak lursail gehiagoren erosketa zein eraikin ezberdinen birgaitzeari ekingo dio laurogeiko hamarkadan. Aurrez Sagastizabal eta Amezketa-Lardi baserriak erabiltzen hasi badira ere, “el Parque experimentó en 1.984 (sic) una notable mejora, (con) la compra de su más importante enclave, el caserío Iturrarán, la de la ferrería Agorregi³⁷⁰ [...], y la de la finca de Alzola de Aia”³⁷¹. Ondare-gune guzti hauen berreskurapena eta berritze lanak ezinbestekoak bilakatzen dira Pagoeta ingurumena eta naturaren ezaguerari dedikatutako espazio bihurtzeko. Oro har, 1985an bigarren txosten bat aurkeztu du GFA-k³⁷², non Pagoeta ingurumen hezkuntzara bideratzeko eman beharreko pausoen azterketa sakonagoa agertzen den. Aurreko urteetako txosten batzuetan aipatzen diren Natur Zientzia Museoa, Museo etnografikoa edota zoo bat eraikitzeo ideiak alderatu³⁷³ eta eraginkorra izango den proiektu bati hasiera ematen zaio³⁷⁴. Alde batetik, Sagastizabal baserrian Ingurumen hezkuntzako eskola bat sortzen da – gerora Natur Eskola deitua – eta bertara joandako ikasle taldeek Amezketa Lardi baserrian egonaldia egiteko izango dute, hau aterpetxe bihurtu ondoren. Iturraran baserriaren kasuan, bisitarientzako harrera gunea bihurtuko da ondorengo urteetako birgaitze lanen ondoren, non maketa, panel eta beste hainbat elementu didaktikoekin Parkeko informazioa jaso ahalko den.

Espazioen berreskurapen eta egokitzapena ez ezik, ezinbestekoa izango da 1985.urtean, Donostiako Elizbarrutiko OHO-ko Irakasleen Unibertsitate Eskola Natur Zientzien Didaktika eta Biologiako irakasle dena, Pagoetako Parkearen Natur Eskolako zuzendari izendatu izana³⁷⁵. Izan ere, hurrengo urtean bertan GFA-k proposamen bat jasoko du Donostiako Elizbarrutiko OHO-ko Irakasleen Unibertsitate Eskolatik, hain zuzen ere Ingurumen Hezkuntza Zentro baten sorrera Pagoetako Parkean³⁷⁶. Bertan funtzio bikoitza beteko duen planteamendu bat aurkeztuko dute: Alde batetik, OHOk ikasleentzako klase praktikoak eskaintzea natura ingurune batean; bestetik, irakasleentzako zein hezitzaileentzako formakuntza eta birziklatze gune bat izatea³⁷⁷. Proposamen honi baiezkota eman eta bien erakunderen arteko lankidetzak hitzarmena

³⁷⁰ Agorregiko berreskurapenerako indusketa arkeologikoak burutzen dira 1986. urtean. (Urteaga, 1990)

³⁷¹ *Proyecto Parque de Pagoeta*. Mario Michel, 1985. Diputación Foral de Gipuzkoa. IPA

³⁷² *Proyecto Parque de Pagoeta*. Mario Michel, 1985. Diputación Foral de Gipuzkoa. IPA

³⁷³ *Proyecto de Parque Forestal en Laurgain (Aya)*. Marzo 1982. IPA. 29 or.

³⁷⁴ “posee abundantes recursos pedagógicos y didácticos [...] que dan al conjunto amplias posibilidades de aprovechamiento para la Educación Ambiental, así como para el paseo y entretenimiento”. *Proyecto de creación de un centro de Educación ambiental en el Parque de Pagoeta a la Diputación Foral de Guipuzcoa*. 1986. IPA

³⁷⁵ Xabier Zabala Ibarbia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/144647/137993> (2015ko maiatzaren 14an ikusia).

³⁷⁶ Unibertsitatearen proposamena Pagoetako Parkerako. 1986. IPA

³⁷⁷ *Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria de la Escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta*. 23 de mayo de 1988. Hirigintza, arkitektura eta ingurumen zuzendaritza nagusia. Ingurumen Zerbitzua. GFA. IPA. 1 or.

sinatzen da 1986ko ekainean bertan³⁷⁸, ordutik Pagoeta Parkeko azpiegitura ezberdinak erabiliz ingurumen hezkuntza proiektua abian jartzeko.

Honekin batera, GFA-k zentro horien kudeaketa eskumena banatuko du, horrek ere etorkizuneko ibilbidean eragina izango duelarik: Parkearen mantenua eta konponketa Nekazaritza Sailaren menpe geratzen da, Amezketeta-Lardi aterpetxea Kultura Sailaren menpe eta Natura Eskola Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen sailaren menpe³⁷⁹. Hiru sail ezberdinen eskuetan geratzen dira beraz Natura Parkeko arloak.

1986an Natura Eskola eta aterpetxea irekitzen badira ere, 1990ko iraila arte³⁸⁰ itxaron beharko da Iturraran (EITB, 1996), harrera eta erakusketa gunearekin³⁸¹, Lorategi Botanikoa eta erlategi didaktikoa inauguratzeko. Agorregiren kasuan, GFA-k burdinola zaharberritu ondoren, 1992an irekiko da publikora (Zabala Llanos, 2007). Laurogeita hamarreko hamarkadan, Iturraran eta Agorregiko kudeaketan aldaketak ematen dira, eta pixkanaka, hezkuntza programa egonkor bat osatuz joango dira.

Hezkuntza saila

Iturrarango irekieraren aurrekariak aipatzekoak dira sortzen den lehen lantaldearen jatorria ulertzeko. Hots, Donostiako Elizbarrutiko OHO-ko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleak izango dira lehen hezitzaileak Parkean, eta hauek, behin irakasle bihurtuta, parkeko hezkuntza ekimenak kudeatuko duten lehen lantaldea osatuko dute. Erronka honetan aritzeko hezitzaileen profila ere zehaztuta geratzen da laurogeiko hamarkadako txostenean, hezitzaileen ezaugarriak izanik:

tener capacidad para ejercer una actividad educativa que cree un interés hacia la Naturaleza, haga reconocer sus valores y muestre la relación entre el Medio Ambiente, el hombre y su cultura, intentando conculcar un código de comportamiento en relación con la naturaleza y su conservación. Para ello debe contar con personal especializado en este tipo de enseñanza que tenga capacidad de comunicación y participación en este tipo de actividades³⁸²

Iturrarango irekiera ematen denean, Magisteritza Eskolako ikasle horietatik sortzen den talde berria bihurtzen da Pagoetako ekipamendu desberdinen arduraduna³⁸³. Agorregiren kasuan, 1990 eta 1996 bitartean kudeatuko dituzte bertako bisitak; eta

³⁷⁸ *Informe de las actividades de la Escuela de Educación Ambiental en el Parque de Pagoeta*, 1984. GFAAA. Sig. 2176/13

³⁷⁹ *Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria a la escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta*, 1988. Hirigintza, arkitektura eta ingurumen saileko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumen Zerbitzua. GFA. IPA. 2 or.

³⁸⁰ *Plan de actividades en el Parque de Pagoeta (septiembre-diciembre 1990)*. IPA

³⁸¹ Pagoetako Parkea. In <http://www.aiapagoeta.com> (2015ko maiatzaren 15an ikusia)

³⁸² *Proyecto Parque de Pagoeta*. Mario Michel, 1985. Diputación Foral de Gipuzkoa. IPA. 30 or.

³⁸³ *Memoria de las actividades realizadas por el grupo Enara durante el segundo semestre de 1990 en el parque Pagoeta*. IPA.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Iturrarani dagokionez 1990 eta 1994 bitartean. Irakasle taldeak, oraingoan *begirale-hezitzaile* bihurturik³⁸⁴, harrera lanak taldeen kudeaketa, materialaren sorrera, difusioa eta beste hainbat funtzio beteko ditu urte horietan.

Laurogeita hamarrek hamarkadan Aiako herrian kultur talde bat sortzen da, hasieran batean Iturrarango eta inguruneko kudeaketaz arduratuko dena 1994tik aurrera. Hauek, hezkuntza programa osatzen eta garatzen jarraituko dute, taldeen eskaera geroz eta handiago bati erantzunez. 1996an Agorregiko irekiera eta bisitak ere gehituko zaizkio taldearen lanari³⁸⁵. Natura Eskolak, ordurako, funtzionamendu propioa izango du eta Iturraran-Agorregiko funtzionamendutik aldentuta arituko da. Kultur taldea, geroago enpresa bihurtua, ordutik aurrera izango da Iturraran Parketxeko kudeaketa orokorraren zein hezkuntza ekimenen arduraduna. Hala ere, Iturraran zein Agorregiko lantaldearen baitan ez da inoiz Hezkuntza sail bat izango, eta harrera lanak, ekimenen diseinu eta garapena zein bestelako oinarrizko kudeaketa lanak lau pertsona finkoz osatutako lantalde baten esku geratzen dira, funtzio ezberdinak partekatuz (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2009).

2009an, GPS Fundazioaren sorrerarekin batera, Iturrarango harrera gunea Parketxea bilakatzen, eta Gipuzkoako Natura Parkeetako beste ekipamenduak bezala, Foru Aldundiaren baitan sortu den Fundazio honek kudeatuko du. Honela, Iturrarango hezkuntza ekimenak eta eguneroko funtzionamendua geratuko da enpresaren esku. Iturrarango dinamizazioa lantalde finkoen esku egonda ere, jarduera berezietarako edota ekitaldietarako zenbaitetan kanpotik kontratatuko dira adituak, Agorregiko errota martxan jartzeko edota erlategi didaktikorako³⁸⁶ adibidez; eta beste batzuetan museoaz kanpoko erakundeekin elkarlana egingo da, Ogiaren tailerra egiteko bezala, non Gipuzkoako okinen elkartearekin burutzen den elkarlana³⁸⁷.

Hezkuntza ekimenak

Iturraran Parketxetik proposatutako hezkuntza jardueren aurrekariak Pagoetan aurrera eramandako Natur Eskolako programa da. Honetan jada ikastaldeein zein publiko orokorrari zuzendutako ibilaldi gidatuak eta materialen bitartezko ingurunearen azterketa egingo dute, hala nola zenbait ikastaro eta ekitaldi berezi ere. Baina Iturrarango harrera gunea, erakusketa eta Agorregi zein beste espazioen inaugurazioarekin batera, eskaintza hori osatuz eta dibertsifikatuz joango da. Oro har, inaugurazio urtetik hezkuntza programa oso definitua agertu da, "paseos guiados, [...]".

³⁸⁴ *Memoria de las actividades realizadas por el grupo Enara durante el segundo semestre de 1990 en el parque de Pagoeta.* IPA.

³⁸⁵ *Arreta Kultur taldea. Agorregi. Informe 1996.* GFAAA. Sig. 1775/1

³⁸⁶ Azken urteetan Iturrarango hezitzaile taldeak hartuko du bere gain funtzio hau, kanpoko kontratazioa ekidinez.

³⁸⁷ *Agorregi 1999-2000.* IPA.

cursillos, [...] jornadas, [...] exposiciones temporales[...] (y) publicación de boletín”³⁸⁸ bezalakoak proposatuz.

Hezkuntza eskaintzari dagokionez, 1991n bost programa ezberdin proposatzen dira Iturrarango erakusketa, Agorregi, erlategi didaktikoa eta lorategi botanikoa ardatz izango dutenak. Ondorengo urteetan programak aldatuz eta egokituz joan badira ere, oinarrizko edukiak eta horiek lantzeko baliabide eta espazioak mantendu dira hezkuntza eskaintza egonkorraren baitan.

Hezkuntza programa hauetan zein horietatik kanpo - jaiegun, ospakizun berezi edo oporraldi garaietan – bisita gidatuak egingo dira, Iturraranen inguruan kokatzen diren eremu desberdinak ezagutzeko. Gainera, Agorregi eta erlategi didaktikoaren kasuan, erakustaldiak ere egingo dituzte aldizka, burdinola funtzionamenduan ikusteko aukera eskainiz zein erlezainen lana erakusteko helburuaz³⁸⁹. Era berean, zenbaitetan bisita gidatu bereziak izango dira adituen eskutik; edota gastronomiarekin lotutakoak, ezta dastatzeko³⁹⁰ edota artisau gazta katak egiteko bisita-tailerrak antolatuz.

Ibilaldi gidatuen kasuan, jada laurogeiko hamarkadaren erdialdetik burutzen direnen jarraipena izango dira, non Natura Parkea ezagutzeko ibilbide ezberdinak burutzen diren, bidean zehar azalpenak emanaz eta “modu aktibo, sortzaile, eraikitzaile eta partehartzailean lan egiteko aukera eskaini(z)”³⁹¹. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran ibilaldi gidatu hauek hileru antolatzen hasten dira asteburuetan – nahiz eta hezkuntza eskaintza egonkorrean urte osoan zehar mantendu – , baina zenbait urte geroago ibilaldi hauen asteburuetako eskaintza egun berezi edota oporraldi garaietan bakarrik egingo da.

Tailerrak ere lehen urtetik izango dute protagonismoa Iturraranen: Kandelak egiteko tailer bat eskaintzen zen eta lanbideei zein elikadurari lotutakoan ogia egitekoa ere, aurrez Agorregiko errotaren bisita eginaz. Era berean, hezkuntza arautuko etapa batzuen bisita gidatuetan, jolas ezberdinak txertatzen dira, helarazi nahi diren edukiak era ludikoan landuz.

³⁸⁸ *Plan de actividades en el Parque de Pagoeta (septiembre-diciembre 1990)*. IPA. 2 or.

³⁸⁹ *Parques, Pagoeta y varios*. 1993. GFAAA. Sig. 5918/1

³⁹⁰ *Pagoetako Parke Naturalean ikasleei zuzendutako bisitaldiak 2004*. GFAAA. Sig. 28787/6

³⁹¹ *Enara C.B. hileko memoriak*. GFAAA. Sig. 12806/4. 3 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA



Irudia 12: Ogi tailerra (Iturria: GPS Fundazioa)

Hitzaldiei dagokionez, lehen urteetan soilik topatu dira mikologiari edota oreinei buruz egindakoak³⁹². Egun berezien ospakizunak ere izango dira Iturraranen. Lehen urteetan Ingurumen Eguna edota Zuhaitz Eguna ospatzen dute, ikastetxeei zuzendutako jarduerak eginaz³⁹³ eta beti ere aurreko hamarkadan Natura Eskolak egiten duenari jarraiki.

Ondorengo hamarkadetan MNE bezalakoak ere egun berezi bilakatzen dira eta hortaz, ekimen desberdinak antolatzeko aukera. Baina benetan Pagoetako Parkean urteroko ekitaldi nagusia bihurtzen da Landare Azoka, “ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duen (eta) eskulangintzako jarduerak erabiliz”³⁹⁴ lan egiten dutenen landareak ezagutzera emateko eguna. 2003an ospatzen da lehen aldiz eta arrakasta izugarria izango du ordutik egundaino³⁹⁵. Azkenik, GPS Fundazioaren kudeaketaren ondotik, udaldietako programa bateratuak eskainiko dituzte Gipuzkoako lau Natura Parkeetan, hauetan adituen eskutik bisitak, tailerrak, ibilaldi bereziak eta bestelakoak proposatuz.

Pagoetako Parkean abian jarritako lehen jardueretan jada ikasleei zuzendutako fitxa didaktikoak diseinatzen direla jakin dezakegu: “durante los recorridos, monitores especializados van dando explicaciones a los alumnos que siguen los trabajos mediante fichas que van rellenando”³⁹⁶. Honi jarraiki, 1991an, Agorregi eta errotei buruzko liburuxka bat osatzen da Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat eta urte batzuk

³⁹² Memoria 1992. Parque de Pagoeta. IPA

³⁹³ Escritos sobre Pagoeta. IPA

³⁹⁴ Aia Pagoeta. Landare Azoka. In

http://www.aiapagoeta.com/index.php?option=com_content&view=article&id=23&Itemid=51&lang=eu (2015ko ekainaren 12an ikusia)

³⁹⁵ Lehen urtean, gainera, bi alditan ospatu zen: udaberrian eta udazkenean; baina lehenengoak izan zuen arrakastarik handiena. Ia 8000 pasa ziren udaberriko aldian. Agorregi 2003. IPA

³⁹⁶ Informe acerca de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta de Aia y petición de propuesta presupuestaria a la Escuela Universitaria Diocesana de San Sebastián para la prórroga de contrato de la Escuela de la Naturaleza de Pagoeta. 23 de mayo de 1988. IPA. 4 or.

beranduago, ikasleentzako gidaliburu hori beste etapetara zabaltzen da³⁹⁷, pixkanaka programa adin tarte bakoitzari egokitzen zaion material didaktikoa osatuz.

Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta hezkuntza formaleko taldeei zuzendutako programa ezberdinei egokituz, material bereziak sortzen dira edukiak modu ezberdinetan lantzeko: fitxa didaktiko eta liburuxkez gain, formatu handian erabili daitezkeen jokoak ere diseinatzen dira, edota erakusketako elementuak txikientzat ulergarriagoak egiteko azalpen fitxak. Baliabide material hauek Iturraranen bertan erabiltzekoak izango dira eta ez dira inoiz formatu digitalean eskainiko publikoari.

Publikoa

Iturrarango publikoa bi talde handitan banatu daiteke. Alde batetik, hezkuntza formaleko taldeak ditugu, hauek hasieratik hezkuntza ekimenen hartzaile nagusiak izan direnak. Izan ere, Pagoetako proiektua “se crea [...] con el objetivo de acercar a los escolares guipuzcoanos al conocimiento del medio que nos rodea y desarrollar en ellos actitudes de respeto y conservación hacia este medio”³⁹⁸. Hezkuntza formalaren adin-tarteei dagokionez, aldatuz joango da: Hasiara batean Lehen Hezkuntzako azken etapako ikasleentzako programa osatzen da; gerora, kultur taldearen kudeaketarekin bat eginik, HH, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako mailei ere egokitutako programak eratzen dira³⁹⁹; eta azken urteetan Lanbide Heziketako eskaintza alde batera utziko da, beste etapetako taldeentzako programak mantenduz.

Bestalde, publiko orokorrak ere eskaintza berezia izango du – txangozaleak deiturikoak hasierako urteetako dokumentazioan – , bisita gidatu eta ibilaldi gidatuetan oinarrituta hasierako urteetan. Gerora, egun berezi edota oporraldietan bestelako jarduera puntualak ere agertuz joango dira, aisialdian Iturraran ezagutzeko aukera desberdinak eskainiz. Agorregiren irekierak ere hasieratik eskolaz kanpoko publiko asko erakarriko du⁴⁰⁰, bertako lantaldeak bestelako bisitariantzako eskaintzaren beharra azpimarratuz: “garrantzitsua iruditzen zaigu, jendeari orokorrean bere inguruneari gerturatzeko aukera amatea (sic), honela ezagutu eta errespetatzen ikas dezaten. Helduaren etengabeko prestakuntzaren beharra ere ikusten dugulako”⁴⁰¹. Azkenik, eta eskaintza espezifiko bat osatuko ez den arren, bisitari datuetan aipatzen dira hezkuntza bereziko taldeak⁴⁰² edota euskaltegien bisitak jaso izana.

³⁹⁷ *Hileko memoriak. Enara C.B. GFAAA. Sig. 12806/4*

³⁹⁸ “*Pliego de prescripciones técnicas particulares del concurso público para la contratación de monitores-educadores en el Parque de Pagoeta: Plan de Actividades didáctico-educativas. GFA*”. GFAAA. Sig. 5918/1. 1 or.

³⁹⁹ *Arreta 2005. GFAAA. Sig. 20737/2.*

⁴⁰⁰ *Visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991. GFAAA. Sig. 9445/1*

⁴⁰¹ *Visitas ferrería de Agorregui. Enara. 1991. GFAAA. Sig. 9445/1. 6 or*

⁴⁰² *Memoria de actividades realizadas por el grupo Enara durante el segundo semestre de 1990 en el parque de Pagoeta. IPA*

4.13. Untzi Museoa

Donostian, Itsas Jauregitik oso gertu kokatzen da XVIII. mendeko Kontsulatu Etxea, 1813ko gertaeretatik hirian zutik geratzen den eraikin gutxietako bat (Unsain, 2009). Espazio historiko honetan untzigintzari lotutako museo bat sortzeko ideia planteatuko du GOE-k jada laurogeiko hamarkadan⁴⁰³, Itsas Jauregian kokatzen diren pieza batzuk lekualdatu eta ontzi modelismoari dedikatutako espazio bat eratzeko helburuarekin. Modu honetan, Itsas Jauregia Aquariumera eta ozeanografiara bideratu eta museo berria untzigintzaren historiara dedikatu ahalko da.

Idea honen egokitasuna kontuan izanik, GFA-k Untzi Museoa izango denaren proiektuari ekingo dio. Zenbait urteetako obra eta plangintza lanen ondoren, 1991ko maiatzaren 23an inauguratzen Untzi Museoa-Museo Naval, Donostiako kaian eta Aquariumetik oso gertu. Eraikinaren espazio eskasa eta bildumaren izaerak⁴⁰⁴ zailtasun eta traba ugari eskaini ditu hasieratik, baina museoaren helburuak betetzeko lana are eta indartsuagoa bilakatzen da horrela. Museoaren oinarria izango da “(la) salvaguarda, investigación y difusión del patrimonio marítimo del País” (Unsain, 2009: 570). Era berean, Unsainek (2002a) adierazten duen moduan, “la creación de un museo [...] respondía a una clara necesidad. Siendo el mar uno de los factores preponderantes en la configuración de la sociedad vasca [...] resultaba patente la insuficiencia de equipamientos museísticos relacionados con el tema” (70. or.).

Ikerketan eta difusioan berebiziko lana egingo da hasieratik Untzi Museoan, eta erakusketa iraunkorraren erakusketaz gain, aldi baterako erakusketen eraketan ere arituko dira, hauei lotutako hezkuntza ekimen esanguratsuak buruturik.

Zenbait urteen ondoren, 2007an museoaren zenbait hilabetez itxiko da, eraikinak zein erakusketa guneek duten beharrezko erreforma lan batzuk burutzeko, museografian ere aldaketa nabaria emanez⁴⁰⁵. Irekiera berriaren ondoren ere Untzi Museoak dinamika berdina jarraituko du, difusioa, hezkuntza eta ikerketaren inguruan lan eginez.

Hezkuntza saila

Untzi Museoaren kudeaketa kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da, eta irekiera urtetik 2014 arte mantenduko da lantalde bera. 1991an taldea zuzendaria, aholkularitza tekniko eta historikorako pertsona bat eta arduradun

⁴⁰³ *Propuesta de la SOG para el museo*. 1986. GFAAA. Sig. 7864/18

⁴⁰⁴ Pieza kopurua geroz eta handiagoa, tamaina handiko objektuak (ontziak, eta abar)

⁴⁰⁵ *Airu 2007*. GFAAA. Sig. 31025/3

teknikoaz osatuta egongo da. Azken honen menpe difusio zerbitzuko teknikaria, liburutegi, dokumentazio eta bideotekako teknikaria eta mantenua eta segurtasun lanekoak⁴⁰⁶.

Hezkuntza funtzioa beteko duen sailak izen ezberdinak hartuko ditu⁴⁰⁷, eta 1991an Difusio Zerbitzua izango dena gerora Hezkuntza Zerbitzua izatera pasako da⁴⁰⁸. Saileko kideen – zein museoko bestelako langileen – formakuntzari ere garrantzia emango zaio: Espainian antolatzen diren DEAC Jardunaldietan izango dira hasieratik⁴⁰⁹, eta nazio zein nazioarte mailan antolatzen diren ondare eta museoiei buruzko jardunaldietan ere parte hartuko dute⁴¹⁰.

Museoko lantaldetik at eragile eta pertsona ezberdinek ere parte hartuko dute uneren batean hezkuntza ekimen edo proiekturen batean. Praktika aldiak dauden ikasleak hartuko dira 1998tik, lehenbizikoak Euskal Herriko Unibertsitatekoak: Pedagogiako ikasleek programa eta jardueren ebaluazio lanak burutuko dituzte eta Gizarte Hezkuntzakoak material didaktikoak ezberdinak diseinatzeaz arduratuko dira⁴¹¹. Hauekin batera, Deustuko Unibertsitateko Kultur Kudeaketa ikasketak burutzen ari direnekin eta Donostiako Magisteritza eskolakoekin tailer batzuk garatuko dira ere⁴¹²; eta azkenik, Deustuko ikasle batzuk ere publikoarentzat inkestak prestatzen trebatuko dira museoan 2000. urtean⁴¹³.

1994tik aurrera eta gai ezberdinak landuz, tailer zentzuanizdunak sortzen dituzte ONCE eta ATZEGI bezalako erakundeekin elkarlanean⁴¹⁴, baina baita unibertsitateko psikologia edota irakasle-eskolako ikasleekin zein animatzaile sozio-kulturalekin⁴¹⁵. Beraz, erakunde eta unibertsitatearekin arteko elkarlana ematen da hasieratik, horrek museoaren ikuspegia ez ezik, eskaintza zabaltzako aukera ematen duelarik.

Hezkuntza ekimenak

Untzi Museoak hezkuntza programa egituratua eta argia diseinatzeko du irekiera urtetik, publiko desberdinari zuzendutako proposamenak eginik modu indibidual zein taldean

⁴⁰⁶ *Proyecto Airu 1991*. GFAAA. Sig. 10734/10

⁴⁰⁷ 1995an Difusio eta Didaktika Jarduerak, 1996an Kultur Ekintza eta Hezkuntza Saila, 1999an Hezkuntza Ekintza, eta 2014an Hezkuntza Programa eta Akzio soziokulturalerako programa artean banatuko da sailaren egitekoa

⁴⁰⁸ *Proyecto de gestión del Untzi museoa (24 de enero de 1997- 23 de enero de 1998)*. GFAAA. Sig. 14300/12

⁴⁰⁹ *Untzi. Proiektua 1994*. GFAAA.. Sig. 12809/6

⁴¹⁰ *Memoria 90-91 y propuesta 1992. Airu*. GFAAA. Sig. 9445/4

⁴¹¹ *Airu contratación 1998*. GFAAA. Sig. 14562/1

⁴¹² *Proyecto de gestión del Untzi Museoa. 24 enero 1997- 23 enero 1998*. GFAAA. Sig. 14300/12. 13. or.

⁴¹³ *Airu 2000*. GFAAA. Sig. 18838/8

⁴¹⁴ "ONCerekin, Martuteneko Espetxearekin, Proyecto Hombrearekin, Donostiako Osasun Mentaleko Zentroarekin, lanean hasi zen. Elkarlan hau Caritas, Sortu, Txertatu, Gipuzkoako Kale Hezitzaileekin, etab.. jarraitu zuen". Untzi Museoaren 25. urteurrena. In <http://untzimuseoa.eus/eu/museoa/historia/744-25-aniversario-trayectoria-del-untzi-museoa-museo-naval-1991-2016> (2017ko urtarrilaren 9an ikusia).

⁴¹⁵ *Airu 1994*. GFAAA. Sig. 12809/6

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

bisitatzen duenari. Hauetako batzuk finakoak izaten dira, urte osoan zehar eskaintzen direnak; beste batzuk ordea egun berezien ospakizunetan edota oporraldietan gauzatutakoak.

Museoaren barruan bisita gidatua edozein programaren oinarritzko parte bihurtzen da, erakusketa iraunkorrean zein aldi baterakoetan, normalean bestelako jarduera batekin osatzen dena. Alde batetik, tailerrak eskaintzen dira, gai bakoitzaren arabera diseinatutakoak: arrantza teknikak edota nabigazioari buruzkoak adibidez. Bestalde, jolas hezitzaileak ere egiten dira kartografiaren inguruko mahai jolas baten bitartezkoa adibidez, Elkanoren bidaiak ezagutzeko edota museo propio bat sortzeko jolas-tailerra. Azkenik, antzerkiaren erabilera ere txertatzen da bisitari txikienei egokitutako programaren parte bezala, *Balearen antzerkia* deituriko jarduerarekin, “una representación teatralizada en la que intervienen diferentes instrumentos”⁴¹⁶.

Museotik at hirian zehar zenbait ibilaldi gidatu ere egiten dira⁴¹⁷; portuan eta alde zaharrean eskaintza egonkorraren parte direnak eta beste gunek batzuen bisitak ekitaldi edo erakusketaren baten osagarri bezala – Barojaren ibilbidea kasu – . Izan ere, hasieratik aipatzen da “(que) no limita sus actividades al recinto en que se ubica [...] (ya que los) itinerarios culturales [...] convierten al Museo en el centro de interpretación del patrimonio local” (Unsain, 2009: 576).

Ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak ere hezkuntza eskaintzaren protagonista izango dira lehenbiziko urtetik. Aldi baterako erakusketek loturik ohikoa da adituen edota museoko ikerketa taldearen hitzaldiak eskaintzea, eta era berean oso maiz agertzen dira museotik kanpo lantaldeak emandako hitzaldi edo parte hartutako mahai inguruei buruzko erreferentziak – honek ere museoko ekimenen difusiorako balio duelarik – . Ikastaroei dagokionez, museoan bertan aipagarria den 1994ko irakasleentzako prestakuntza ikastaroa⁴¹⁸ soilik topatu da.

Egun bereziei lotuta, hezkuntza ekimen desberdinak programatzen dira hasieratik. Inaugurazio urtetik errepikatu dena MNE izango da, non bisita gidatuak, poesia errezitaldiak⁴¹⁹, dokumentalen emanaldiak⁴²⁰, graffitiaren margotzea⁴²¹ eta beste hainbat ekintza egingo diren. Museoaren 15. urteurrenarekin batera animazio marrazkiak, *performance* bat eta musika kontzertua antolatzen dituzte 2006an⁴²².

Azkenik, beste erakunde eta eragileekin elkarlana lehenbiziko urteetatik ematen dela aipatu dugu. Hortaz, 2005an, Musika Hamabostaldiaren antolatzaileekin lankidetzan,

⁴¹⁶ Airu 2004. GFAAA. Sig. 28787/1

⁴¹⁷ Airu 2004. GFAAA. Sig. 28787/1

⁴¹⁸ Airu 1994. GFAAA. Sig. 12809/6

⁴¹⁹ Airu 2001. GFAAA. Sig. 19252/10

⁴²⁰ Airu servicios. 1996. GFAAA. Sig. 1899/1

⁴²¹ Airu 1997ko jarduerak. GFAAA. Sig. 14300/12

⁴²² Airu 2006. GFAAA. Sig. 30838/1

ipuin kontaketa saioa egiten da museoan⁴²³; Donostiako Museoen Sarea sortzen denean oporraldietako programan parte hartzen du eta *Hip-Hip Urri!* proiektuan familientzako jarduerak proposatzen ditu. Era berean, 1994tik tailer zentzuanizduna egiten da urtero, Fundazio eta unibertsitateekin elkarlanean burutua. Bestelako programetan ere parte hartu du Untzi Museoak, eta hala, 1998an, Gesto por la Paz programarekin bat eginik aldi baterako erakusketa berezi bat osatzen dute, eta baita honi lotutako hezkuntza ekimen bereziak.

Materialei dagokionez, lehen urtetik irakasleentzako dossierrak zein ikasleentzako lan koadernoak diseinatzen dira, bisitaren aurretik, bisitan zehar eta ondoren lantzekoak⁴²⁴. Ibilbide edo hezkuntza programak gehitu edo aldatuz joan heinean, material hauek ere moldatuz joango dira, eta aldi baterako erakusketei loturiko material berezia ere sortuko dute.

Koadernoak ez ezik, tailer eta jolasetarako material propioa ere diseinatzen da museoan: maleta didaktikoak egiten dira (Unsain, 2009: 575), mahai jokoak Elcanoren bizitzari lotutakoa jarduera burutzeko, baita bideo eta diapositibak zein tailerretarako beharrezko materialak⁴²⁵.

Ebaluazio lanak ere garrantzizko elementua izan dira Untzi Museoan, oro har, “desde su apertura al público, el Museo Naval ha venido efectuando un estudio sistemático de los grupos de visitantes que hacen uso del Servicio de Educación”⁴²⁶. Honela, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera museoako lantaldeak zein beste eragile batzuekin elkarlana burutuz – unibertsitatearekin batik bat⁴²⁷ – inkestak erabiltzen dituzte publikoaren perfilak ezagutu eta Hezkuntza Zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko helburuarekin.

Publikoa

Hezkuntza programa egonkorren hartzaile nagusiak hezkuntza arautuko taldeak izango dira, erakusketa iraunkorra zein aldi batekoei lotutako eskaintza osatuko dutelarik. Hasiera batean LH-ko etapara⁴²⁸ mugatzen bada ere, 1997tik aurrera DBH-ko ikasleei ere zabaltzen da⁴²⁹. Azken urteetan gainera, HH-ko ikasleak ere barne hartzen dira eta Helduen Hezkuntzari zuzendutako programa bat diseinatzen dute. Gainera, irakasleentzako ikastaro bat ere egiten da laurogeita hamarreko hamarkadan, publiko mota honentzat aurkitu den eskaintza zehar bakarra.

⁴²³ *Airu 2005 hileko txostenak*. GFAAA. Sig. 20737/1

⁴²⁴ *Proyecto Airu 1991*. GFAAA. Sig. 10734/10

⁴²⁵ *Proyecto abril 1996-diciembre 1999*. GFAAA. Sig. 1899/1

⁴²⁶ *Proyecto abril 1996-diciembre 1999*. GFAAA. Sig. 1899/1

⁴²⁷ *Airu 2000*. GFAAA. Sig. 18838/8


⁴²⁸ *Proyecto Airu 1991*. GFAAA. Sig. 10734/10. 56 or.

⁴²⁹ *Proyecto de gestión del Untzi museoa (24 de enero de 1997- 23 de enero de 1998)*. GFAAA. Sig. 14300

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Eskola taldeez gain bestelako publikoaren garrantzia ere azpimarratzen da hasieratik: “el Servicio de Difusión [...] debe trascender el aspecto de su utilización como recurso del sistema educativo, para ofrecer y convertir el espacio-museo en lugar de encuentro de todos aquellos interesados, ya sean personas especializadas o público en general”⁴³⁰. Horrela, bisita eta ibilaldi gidatuak urte osoko eskaintzan finkatzen dira, eta hitzaldi, ikastaro eta tailer berezi batzuk ere proposatzen dira asteburu eta jaiegunetan, haur zein helduentzako eskaintza zabalduz.

Aurrez aipatu bezala, fundazio eta erakunde ezberdinekin elkarlana oso goiztiarra da. Horrela, dibertsitate funtzionaleko taldeei zuzendutako tailer zentzuanizdunak diseinatzen dira⁴³¹. Gainera, 1997tik aurrera, *Gizona Helburu-Proyecto Hombre* fundazioarekin elkarlanean proposatzen da lehen aldiz eskusio sozialeko arriskuan dauden taldeentzako jarduerak⁴³².



Irudia 13: Kartografia tailerra (Iturria: Untzi Museoa)

4.14. Donostiako Elizbarrutiko Museoa

Donostiako Amara auzoan Familia Santuaren eliza aurkitzen da, 1962an eraikia Antonio Camuñas arkitektoaren lanetik. Elizaren albo batean arkitektoak egindako espazio txiki bat txertatzen da, ospakizun aretoa izateko diseinatua dena (Arruti eta Kortadi, 1988). Laurogeiko hamarkadaren amaieran espazio hau erabat abandonaturik aurkitzen denez “el Obispado de San Sebastián decide la conversión de este edificio en Museo de Arte Sacro dadas su positivas cualidades” (Arruti eta Kortadi, 1988: 386). Honen ondoren, Donostiako Gotzaindegiaren eta GFA-ren hitzarmenari esker, elizaren

⁴³⁰ *Proyecto Airu 1991*. GFAAA. Sig. 10734/10. 50 or.

⁴³¹ “El museo presta atención al público con discapacidades físicas y psíquicas” (Unsain, 2009: 575)

⁴³² *Proyecto de gestión del Untzi museoa (24 de enero de 1997- 23 de enero de 1998)*. GFAAA. Sig. 14300

ondoko espazio hartan obrak burutu eta 1991an inauguratzen da Donostiako Elizbarrutiko Museoa (Gómez eta Sáez, 2013).

Irekieratik bost urte pasa ondoren instalakuntza eta museografiaren hobekuntza bat beharrezkotzat jotzen da, eta hala “Proyecto Museográfico DEM-96” izenekoari ekiten zaio, bi fasetako plana dena (Tenorio, 1997). Lehen fasean bildumaren antolaketa berria egin eta museografia egokia diseinatzen da. Bigarren fasean dinamizazio kultural bat izateko proiektua diseinatzen da, beste museoek bezala publikoarentzat jarduera ezberdinen programa bat osatu nahian. Publikoarentzako eskaintza eginda ere, baliabide faltak eta erakusketak berak dituen mugak bisitariarentzako eskaintza egonkor eta indartsu bat izatea galaraziko du. Hortaz, publikoaren irekierara mugatuko da bertako jarduera urte luzez.

XXI. mende hasierarekin batera museoaren berrindartzerako neurriak hartuko dira, kudeaketan aldaketak eginez eta hezkuntza eskaintza berrituz. Era berean, museoa DMS-n integratzen da, eta bertako partaidetzak ere bestelako bultzada bat suposatuko du erakundearen egunerokotasunean. Honekin batera, irekiera ordutegia zabaltzen da eta informazio eta seinaleztapenaren inguruko berrikuntzak gehitzen dira. Baina planteamendu berri honek urte gutxi iraungo du eta jada 2005an museoaren egunerokotasuna publikoaren irekierara mugatzen da, bisitari kopuruen jaitsiera nabarmenak jasanezina bihurtzen baitu hezkuntza programazioa egonkor mantentzeak. Aldizkako irekiera eta hezkuntza jarduerekin jarraitzen bada ere, 2010.urtean guztiz itxiko da museoa. Ordutik aurrera espazio berri batean egokitzeko museoaren proiektuan lanean hasten da Donostiako Elizbarrutia, eta hala, 2014. urtean Donostiako Santa Maria Elizaren nabe batean kokatuko den museoaren obrak hasita egongo dira.

Hezkuntza saila

Museoaren irekierako lehen urteetan publikoaren arretaz Donostiako Elizbarrutia arduratuko da, ez baita hezkuntza programa finkoren frogarik topatu. 2002. urtean eta museoaren berrindartze faseari loturik, kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat kontratatzen da, zeinak museografia lanez gain hezkuntza ekimenak burutuko dituen. Hala ere, museo txikia izanik eta hezkuntza eskaintza oso zabala izan gabe, ez da Hezkuntza Sail bereizirik sortzen lantaldearen barruan, eta arduradun berdinak arituko dira harrera lanetan, taldeak hartzen edota jarduerak burutzen.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Hezkuntza ekimenak

Lehen urteetako ekimenak bisita gidatuetan soilik oinarritzen dira. 2002tik aurrera ematen den garai berriarekin batera, publiko zehatzari egokitutako bisita gidatuak, tailerrak eta jolasak diseinatzen dira, urte osoan zehar zein jaiegun eta egun berezietan egingo direnak⁴³³.

Hezkuntza programatik at, egun zehatzetara mugatuko dira jarduera bereziak. 2007an MNE ospatzeko kontzertu bat antolatuko da Musikalisekin elkarlanean; 2008 eta 2011an eskulangintza tailerrak eskaintzen dira, 2009an belaunaldi arteko tailer bat egingo dute eta 2012an jolasak eta gailera tailer bat⁴³⁴.

Publikoa

Hezkuntza programa egonkorraren hartzaileak hezkuntza arautuko taldeak izango dira nagusiki: tailer formatukoak LH-ko taldeentzako diseinatuko dira, eta bisita gidatu formatukoak LH-ko azken zikloa, DBH eta helduentzako.

Programa berezien kasuan, helduei zuzendutako jardueraren bat izan bada ere, gehienetan haurrentzat prestatutako ekimenak nagusitzen dira. Aipagarria da urte batean belaunaldi arteko tailerra eskaintzen dela oporraldi garaian, aitona-amona eta euren biloben arteko jarduera berezia garatuz.

4.15. Trenaren Euskal Museoa/ Burdinbidearen Euskal Museoa

XX. mendeko laurogeiko hamarkadan Eusko Jaurlaritzak EAE-n existitzen den tren-ondarearen berreskuratzeari ekiten dio, horretarako lehen pausoa inbentario baten eraketa izanik, 1989an sortuko dena. Behin egoera ezagututa babes neurriak hartzea beharrezkoa dela konturatu eta Garraio eta Herri Lan sailak sustatutako Tren Museorako lehen pausoak ematen dira (Olaizola, 2004). Gipuzkoan existitzen diren espazioen artean, Azpeitiko tren geltoki zaharra aukeratzen da museoa ipintzeko, Urolako trenaren bideko kokagune nagusienetako bat delako eta eraikinak berak eta inguruak aukera asko eskaintzen dituelako.

1992ko urtarrilaren 20an zabaltzen da Trenaren Euskal Museoa Azpeitian, erakusketa iraunkorreko lehen atala soilik irekiz (Iraeta, 2000). Eraikinaren barneko erakusketaz egonkorraz gain, inguruan existitzen diren gune eta piezen berritzea ere egiten hasiko dira pixkanaka: Azpeititik Loiolara doan trenbide zaharraren zati bat, geltokiaren

⁴³³ Bisita gidatuak *Ikusten ikasteko* eta *Nor da nor? izango dira*; eta tailerrak *Belengo estalpea* eta *margotu argia!* deiturikoak. *Urteko memoriak*. KZKA

⁴³⁴ Donostiako Elizbarrutiko Museoaren dokumentazioa. KZKA

ondoko kotxetegia, eta abar. Gainera, EAE-ko beste toki batzuetan galtzear dauden trenak eta piezak berreskuratzen joaten dira, bilduma handituz.

1994ko urrian erakusketa iraunkorraren bigarren fasearen irekiera ematen da, hala nola tailerrera bideratutako espazio bat. Urte horretan bertan museoko kudeaketa Eusko Trenbideak (Euskotren) konpainiaren esku geratzen da – EJRen menpekoa –. Hurrengo urtean Azpeitia-Loyola bideko trenbide guztia kentzen da, gune hori betirako galduz; baina 1998an Azpeitiatik Lasarako bidea berreskuratzen da eta trenak baimena lortzen dute ibilbide hori burutzeko museoko jarduerari loturik (Olaizola, 2004).

Mende berriarekin batera bi aldaketa nagusi ematen dira. Alde batetik, eta Azpeitiko Ingurugiro Etxearekin elkarlanean buruturik, Trenaren Euskal Museoan *Garraibidearen Ingurugiro Gela* sortzen da, bi museoetan lantzen diren gaiak uztartzen dituenak⁴³⁵. Bestalde, BEM – Burdinbidearen Euskal Museoaren – Fundazioa sortzen da eta Trenaren Museoak izen berria bereganatzen du: Burdinbidearen Euskal Museoa, alegia.

Hezkuntza saila

Museoko kudeaketa osoa Euskotrenen esku dago lehenbiziko urtetik, BEM Fundazioa sortzen den arte. Hezkuntza ekimenak ere bi erakunde hauen ardura izango dira hasieratik, baina ez da hezkuntza sailik sortuko museoaren lantaldean. Trenaren Museoan, oro har, zuzendariak hartzen du programazioa eta difusio lanak bideratzeko ardura, eta bisitari eta taldeen harrerarako zein hezkuntza ekimenetarako pertsona kontratatuak izango direla pentsa daiteke, baina ez da hauen inguruko informaziorik topatu.

Museoko lantaldetik at, Euskal Trenaren Museoan Museoko Lagunen Elkarteak ere sortzen da laurogeita hamarreko hamarkada, eta honen lanak ere garrantzi handia izango du hezkuntza ekimenetako zenbait arlotan. Beraien esku geratzen da, oro har, tren ibilbidea irekitzen denetik bidaiak eta bisitari horiek kudeatzeko eskumena⁴³⁶.

Hezkuntza ekimenak

Museoko bisita gidatu ohikoaz gain, 1998tik aurrera lurrin trenaz bidaiak egiteko aukera ematen den ibilaldia eskaintzen da; hots, Azpeiti eta Lasaroko tartea lotzen duen burdinbidearen zaharberritzeren ondoren burutzen dena, garai bateko bidaiatzeko modua ulertzeko jarduera berria izanik⁴³⁷. Egun berezietan bisita gidatuak ere

⁴³⁵ *Memoria 2000*. BEMA

⁴³⁶ Euskal Burdinbidearen Museoeko Lagunak, BML. In <http://www.euskalbml.com/quienessomos.htm> (2015ko maiatzaren 25an ikusia)

⁴³⁷ *MUSEO memoria 1998*. BEMA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

erakustaldiekin osatzen dira, MNE ospatzekoetan bezala, non zenbait urtetan makinaren piztea egiten den⁴³⁸; edota musika kontzertu bereziak antolatzen dituzte museoko kokagune berezietan.

Kontserbazioa eta zabalpenean lan berezia egiten da museotik, eta hasieratik oso presente dagoen ikerketa lanei lortutako informazio guztia jendearengana helarazteko ekimenak oinarritzekoak izango dira. Hortaz, hitzaldi eta jardunaldi ezberdinen antolatzaile zein beste askoren parte-hartzaile bihurtzen da museoa⁴³⁹, honek nazioarte mailan ere leku garrantzitsua izatea suposatuz. Laurogeita hamarreko hamarkadan gainera, zenbait ikastaro eskaintzen dira: “Iniciación a la tracción vapor”⁴⁴⁰ edota “Curso de maquinistas y fogoneros” izenekoa.

Material didaktikoen kasuan, ez da topatu hezkuntza taldeei edota bestelako bisitariei zuzendutako baliabide material berezirik museoan.

Publikoa

Hezkuntza programaren baitan ez da bisitari edo publiko talde desberdinketarik aurkitu, eta bisitari datuetan banakakoak edo taldekoak izan diren soilik desberdindu da. Hortaz, pentsa daiteke edozein hezkuntza jarduera, hartzaileak edozein izanda ere, momentuan egokituko direla edota diskurtso bera erabiltzen dela publiko guztiarentzat. Aipatzekotan, laurogeita hamarreko ikastaroetan adituei bideratutako ekimenak direla esan daiteke eta hitzaldietako hartzaile nagusienak publiko heldua izango dela.

4.16. PHOTOMUSEUM. Argazki Euskal Museoa/ PHOTOMUSEUM. Argazki & Zinema Museoa

Photomuseum Argazki Euskal Museoa, Ramón Serras eta Leopoldo Zugazaren bilduma pribatuen elkartzetik jaiotzen da, hauek argazkigintzari lotutako pieza eta dokumentazio ugari gordetzen baitute (Oliví, 1998; Zugaza, 1999; Ziarrusta, 2001). Pieza guzti hauen kontserbazio zein erakusketarako espazio baten bilaketan hainbat saiaketa egin ondoren, azkenik Zarauzko Villa Manuelako guneko bat horretarako egokitzea lortuko dute, Udalarekin egindako akordioari esker. Museoaren irekiera aurretik proiektua herritarrei aurkeztea beharrezkoa dela ikusirik, 1992an Zarauzko Sanz Enea Kultur Etxean “Photomuseum. Esbozo de un museo” erakusketa

⁴³⁸ *MUSEO memoria 1998* eta *MUSEO Memoria 1999*. BEMA

⁴³⁹ *MUSEO memoria 1998*. BEMA

⁴⁴⁰ *Museo vasco del ferrocarril. Diez años de preservación del Patrimonio Ferroviario*. Juanjo Olaizola. 2004ko urriaren 6a. BEMA

inauguratzen da, Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxa eta Zarauzko Udalaren laguntzaz (Olivíe, 1998; Sánchez Vigil, 2012).

Aldi baterako erakusketa horren ondoren eta behin proiektua definituta, museoa inauguratzen da 1993ko udan⁴⁴¹, Villa Manuela eraikineko bi solairu hartuz (Olivíe, 1998). Museoaren helburuak argiak dira hasieratik: “vocación de permanencia y propósito no lucrativo [...] (y constituir) una fundación privada de carácter cultural” (Zugaza, 1999: 54). Museoaz gain, Photomuseumen eratuko da hemeroteka espezializatua, artxiboa eta liburutegi bat⁴⁴².

Erakusketa iraunkorraz gain, museoak indar berezia jarriko du aldi baterako erakusketa ugariaren prestakuntzan, baina baita ondare materiala berreskuratu eta kontserbatzen, ikerketa lan garrantzitsuak burutzen eta aldi berean publikoaren arreta zerbitzuaz arduratzen. Zenbait urtetan horrela iraun arren, Udalak utzitako espazioak museoaren funtzio guztiak era egokian betetzeko nahikoak ez direla konturatuko dira; material bolumena geroz eta handiagoa da, bai piezen aldetik zein dokumentazio aldetik. Hori dela eta, 2003an Zarauzko Udalak Villa Manuelako bi solairu ez ezik, eraikin osoa Photomuseumera dedikatzea erabakitzen du, eraikinaren beste espazioak hartzen dituzten beste elkarteak lekualdatuz. Urte amaieran museoa ixten da beharrezko erreformak burutu eta museo berria egokitzeko. Itxiera horrek ordea ez du museoaren egitekoa etengo, eta hala, behin behineko erakusketa bat egokitzen da Torre Luzeako areto batean. Zenbait urteko obren ondoren, 2005ko azaroaren 7an Photomuseum berria inauguratzen da⁴⁴³, espazio gehiago eta zerbitzu hobeagoak eskainiko dituen gunea.

Hezkuntza saila

Museoak, inaugurazio urtetik, lantalde propio bat izango du, gehien bat ikerketa, difusio, eta kontserbazio lanetara bideratuta. Kabinete pedagogikoaren sorreraren berri ere badugu (Zugaza, 2006), hau elkarte, ikastetxe eta bestelako taldeei zerbitzua eskaintzeko sortua. Museoak horrela nabarmentzen du hezkuntza ekimenetara bideraturiko arloa, baina ez da bertako lantaldearen eta funtzionamenduaren informaziorik jaso.

Hezkuntza ekimenak

Zarauzko Photomuseumen hasieratik zehazten da edukien difusiorako ekimenak garrantzitsuak direla, erakusketa eta jarduera kultural deiturikoen bitartez (Sánchez

⁴⁴¹ Museoaren irekierarako aldi baterako erakusketarako erakunde laguntzaileei GFA ere gehitzen da

⁴⁴² Museoaren historia eta zerbitzuei buruzko dokumentazioa. PA

⁴⁴³ *Photo 2006*. GFAAA. Sig. 30695/7

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Vigil, 2012). Hori dela eta, irekiera urtetik programa finkoa baino gehiago, aldizkako ekintzetara bideratuko dira lantaldearen hezkuntza lanak, eta eskaintza egonkorretan bisita gidatuak izango dira nagusi.

Aldi baterako erakusketak ugariei loturik antolatzen dira mahai inguruak, hitzaldiak, bideo proiektzioak, poesia errezitaldiak edota zinema eskainiko dituzte⁴⁴⁴, eta 2000.urtean baita rock kontzertu bat ere. Hauekin jarraituz, egun bereziak ospatzean – Argazkigintza Eguna edota Argazki Bilera – ere hitzaldi eta mahai inguru saioak egiten dira eta 2005-2009 bitartean *Argazkigintzaren Historia Kongresuak* antolatzen dituzte⁴⁴⁵. Ikastaroak, gutxiago izan badira ere, gai zehatzak lantzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute; bromoleoari, argazki zaharberitze eta Polaroidari buruzkoak burutzen dira urte hauetan⁴⁴⁶.

Baliabide materialen kasuan, informazio eta dibulgaziorako lanak nagusitzen dira, eta argitalpen propioak ere izango dituzte⁴⁴⁷. Hezkuntzari loturik, taldeen bisitei eskaintzen zaien material pedagogikoa sortzen dela aipatzen da: “Con relación a los objetivos didácticos se acometerán las siguientes actividades: -guias de expo temporales, creación de guias del visitante de la colecc permanente (y) diseño de materiales de trabajo para las exposiciones temporales”; baina ez da horien izaera eta edukiaren inguruko informazio gehiagorik topatu⁴⁴⁸.

Publikoa

Lehenbiziko urteetatik aipatzen denez, museoak “dedicará especial atención a las relacionadas con la población escolar organizando visitas guiadas y otras actividades”⁴⁴⁹, eskola taldeak, oro har, museoa bisitatzen dutela jakin dezakegu. Hala ere, ez da hezkuntza programa finkorik topatu eta suposa daiteke bisita gidatuetara mugatzen dela taldeei zein banakakoei egiten zaien urte osoko eskaintza.

Alabaina, aldi baterako erakusketei zein egun bereziei lotutako jardueretan, helduentzako programazioak nabarmentzen dira nagusiki, baina honetan ere ez dago eskaintza zehatzik non publiko mota desberdintzen den.

⁴⁴⁴ *Photo 2006*. GFAAA. Sig. 30695/7

⁴⁴⁵ *Photo 2005*. GFAAA. Sig. 20730/3

⁴⁴⁶ *Photo 2000*. GFAAA. Sig. 17842/5

⁴⁴⁷ *Archivos de la Fotografía, Photo-Album*, Kongresuetako aktak, *Photo-carnet, Photo-pocket* eta postal bildumak. PA

⁴⁴⁸ *Photo 2008*. GFAAA. Sig. 4730/2

⁴⁴⁹ *Photomuseum. Propuesta 1994*. GFAAA. Sig. 12804/4

4.17. Zeraingo Herri Museoa/ Zerain Paisaia Kulturala

Zeraingo Herri Museoa 1993.urtean inauguratzen bada ere, ezin daiteke era isolatu eta independente batean aztertu. Izan ere, Zeraingo herri proiektuak era holistiko batean bereganatzen ditu ez soilik bertako ondarea berreskuratu eta hedatzeko ideia, baizik herria beraren izate eta nortasuna indartzerako egindako ekintza guztiak; ekonomikoak, turistikoak eta kulturalak bereizi gabe.

Museoaren irekieraren jatorria aurreko urteetan izandako gertaera ezberdinei loturik agertzen zaigu. Alde batetik, herriak berak biztanleriaren beherakada nabari bat jasaten du XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan: meatzaritza guneen uztea eta bailarako herri handiagoetara emigrazioak nabarmenki eraldatzen du herriko egoera (Errekondo, 2011). Horren aurrean, Zeraingo gazteak elkartu eta aldaketa bat bultzatzeko ekintza ezberdinak martxan jartzen dituzte, estrategia ezberdinak erabiliz: auzolanean oinarritutako jarduerak, itxitako zerbitzuak zabaltzea, azpiegituren hobetzea eta abar. Ondoren, Zeraingo Udalak “Zerain Proiektua” deituriko komisio bat osatzen du, herriaren etorkizuna garapen ekonomikoaren baitan izango delakoan. Bertan bilduko dira komunitateko agente sozioekonomiko guztiak, ondorio nagusizat lehen sektore eta zerbitzuen arteko loturaren inguruan indarra egin behar dela adostuz. Honetatik abiatuz, 1996an “Zerain Dezagun Fundazioa” sortzen da Udala, Oa Kultur Elkarte eta herriko beste eragile batzuekin batera (Errekondo, 2011), “herrian garatu zitezkeen ekimen ekonomikoak sortu, sustatu eta garatzea”⁴⁵⁰ helburu izanik.

Bestalde, *Zaharkiñak* proiektuaren lehen edizioetako bat egiten da Zerainen 1990. urtean: Oa Kultur Elkarteko gazteen lanaren bidez herriko ondare etnografikoaren inbentarioa egin eta herritarrek utzitako piezekin erakusketa zabaltzen da, benetako arrakasta lortuz⁴⁵¹. Honen aurrean, Udalaren erantzuna, ondare-gune ezberdinen berreskurapenari ekitean gauzatuko da⁴⁵²: Larraondoko zerrategia eta 1711ko kartzela zaharberritzen dira lehenbizi (Errekondo, 2013) hala nola turismora bideratutako azpiegitura berriak sortzen dira: Apaiz etxearen eraikinaren ganbaran Zeraingo Herri Museoa inauguratzen da 1993an eta urtebete beranduago turismo bulegoa kokatzen da ondoko eraikinean – turismo informazioa eskaintzeaz gain herriko produktuak saltzeko denda izango dena –.

Proiektua ordea ez da horretara mugatuko, eta ondare-gune ezberdinen berreskurapena eta herriaren garapenerako ekintzekin aurrera jarraitzen da gerora ere:

⁴⁵⁰ “Zerain dezagun Fundazioa XXI. Mendeko auzolana”. *Zerain urtekaria* 1997, 22 or. ZUA

⁴⁵¹ Garain 225 biztanle zituen herriak, eta erakusketak iraun zuen egunetan 11.924 bisitari ziren, publikoa Goierriko herri txiki hartara erakartzeko indarra zenbaterainokoa zen nabarmenduz (Leizaola eta Leizaola, 2008)

⁴⁵² 1988an jada San Blas ermitaren zaharberritzea gauzatu zen. *Zerain urtekaria* 1988. ZUA. 38 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

1996an diaporama bat sortzen da Herri Museorako⁴⁵³, 1997an Aizpeako meategien berreskurapenerako lehen pausoak ematen dira segurtasun neurriak ipiniz europar proiektu bateko diru-laguntzak lortuta⁴⁵⁴; eta herriko aterpetxea irekitze da⁴⁵⁵, Zerainek eskaini ahal duena egun bat baino gehiagoko bisita bat izan daitekeela argi utziz (Errekondo, 2013).

2003-2004 ikasturtetik aurrera Aizpitta Adieraztegiaren berritze lanak hasten dira, zonaldeko meatzaritzaren garrantziaren inguruko ikuspegia emateko espazio bat⁴⁵⁶ eta aldi berean, ondoan kokatzen diren labe eta meategien zaharberritzeri ekiten zaio; baita beste ondare-gune batzuenak ere⁴⁵⁷. 2008an Aizpitta Adieraztegia inauguratzen da azkenik, minen harrera bulegoa eta erakustokia dena eta urtebete beranduago zenbait galeria berri eta publikoari irekiko zaizkio⁴⁵⁸. Zonaldeak "Burdinaren Mendia" monumentu multzoa izendapena jasoko du EJ-ren eskutik⁴⁵⁹.

Hezkuntza saila

Zerainen, museoaren irekieraren aurretik, auzolanean aritutako herritarren lana ez da soilik herriko ondare-guneen zaharberritze eta mantentze lanetara mugatuko; hots, hauek herrira gerturatzen diren bisitariei erakusteko ardura ere hartzen dute. Hasieran boluntarioen lanetan oinarritzen bada ere, Herri Museoaren irekierarekin batera Udalak pertsona bat kontratatzea erabakitzen du, harrera lanak egin eta taldeak kudeatzeko. Urte batzuk beranduago, enpresa kontratatzen da museo eta turismo bulegoa kudeatu eta hezkuntza ekimenak ere bideratzeko egitekoarekin⁴⁶⁰. Zenbait urtetan horrela funtzionatu ondoren, 1999an herriko jardueretan boluntario izandako kide batzuk enpresa bat sortzen dute, zerbitzu turistikoak emateko eta beraz, Zeraingo multzoko kudeaketa eramateko⁴⁶¹. Urte horretatik enpresa hori izango da ekipamendu guztien zein hezkuntza ekimenen arduraduna, baina lantalde txikia izanik ez da benetako hezkuntza sailik sortzen eta egiteko guztiak langileen artean banatzen dira, bereizketarik egin gabe difusio, administrazio lan orokor edota hezkuntzaren artean.

⁴⁵³ *Zerain urtekaria* 1996. 14 or. ZUA

⁴⁵⁴ *Zerain urtekaria* 1998. 33 or. ZUA

⁴⁵⁵ *Zerain urtekaria* 1998. 22 or. ZUA

⁴⁵⁶ *Zerain urtekaria* 2004. 24 or. ZUA

⁴⁵⁷ Aurreko hamarkadan egin zen bezala, *Zerain Dezagun* Fundazioak herriko proiektua aurrera eramatea ahalbidetuko duten diru-laguntzen lorpena eta ekimen ezberdinen parte izateko ahaleginak egingo ditu, Estatu zein nazioarte mailako laguntzak jasotzeraino helduz

⁴⁵⁸ *Zerain urtekaria* 2010. 26 or. ZUA

⁴⁵⁹ *Zerain urtekaria* 2008. 36 or. ZUA

⁴⁶⁰ Zeraingo Herri Museoko lantalearen arduradunarekin egindako bilera, 2015ko apirilaren 21an

⁴⁶¹ *Zerain urtekaria* 1999. 6 or. ZUA

Hezkuntza ekimenak

Aurrez esan bezala, lehenbiziko urteetatik bisita gidatu arruntak izango dira eskaintzaren oinarri, “bisitaldi pedagogikoak” deiturikoak. Hauetan, Herri Museoko erakusketak ikusi ez ezik, beste ondare-gune batzuetara ere bisitak egiten dira. Espazio berriak zaharberritu ahala, bisita gidatu eta ibilaldien konbinaketa ezberdinak diseinatu dituzte meategiak, zerrategia, herriko ondare-guneak – eliza, kartzela – zein natu-guneak ezagutzeko aukera ematen dutenak; eta aterpetxearen irekierak gainera, egun bat baino gehiagoko programazio bat izatea eskainiko die bisitariei.

Honekin batera eta lehen sektorearen berrindartze ideiarekin loturik, baserrietara bisita gidatuak egin edota antzinako lanbideen erakustaldiak antolatzen dira jada laurogeita hamarreko hamarkadan: behiak hazteko moduak ezagutu, gazta egiteko prozesua ikusi gaztagileen eskutik eta baita erlategien lana ikusteko aukera emanaz⁴⁶². Landa eremuetan galtzen ari diren ohitura batzuen berreskurapenaren baitan, antzinako lanbideen erakustaldiak protagonista dituzten egun bereziak ere antolatzen dira bisita gidatu arruntetatik at: 1995an txondorraren prozesu osoa ikusteko aukera izango dute bisitariek; hurrengo urtean karobi batean karea ere egingo da antzinako eran⁴⁶³; eta ondorengo urteetan lixiba egiteko antzinako teknika bezalakoak ere erakutsiko dira.

Eskaintzaren barruan, ohikoak izango dira beste museo zein eragile batzuekin proposatutako elkarlanak. Lehena *Burdinaren Bideak* proiektua izango da, Legazpiko Lenbur eta Zumalakarregi Museoarekin batera garatua. Azken urteetan “Gazta eta Sagardoaren mendia” programa eratzen da, honi lotuta “Gozagunea” deituriko espazioa egokitzen delarik herrian, bi produktuen katak burutzeko gunea alegia. Honela herriko sagardoa eta produzitutako gazta sustatzeko eta ezagutarazteko bide berriak zabaltzen dira eta ekoizleen lana ezagutzeko modu esanguratsua ere bada.

Bisita antzeztuen programa bat eratzen da 2011an, Irrien Lagunak Elkarterekin elkarlanean sortua, era dibertigarri eta ludikoan Zerain eta bere historia ezagutzeko aukera berria eskainiz. Proiektu honetan bisita gidatua Elkarteko pertsonaia ezberdinen esku geratzen da, zeinak antzezpenearen bitartez, ondarea haurrengana gerturatzeko beste modu bat planteatzen duten.

⁴⁶² Jarduera ezberdinei buruzko dokumentazioa Zeraingo urtekarietan bildu zen. ZUA

⁴⁶³ Txondorraren erakustaldia hurrengo urte batzuetan ere errepikatu zen, periodikotasun zehatzik gabe

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA



Irudia 14: Irrien Lagunak Elkartearekin elkarlanean egindako bisita antzeztuak (Iturria: Zerain Paisaia Kulturala)

Bisitez gain, ibilaldi gidatuak herria ezagutzeko modu erakargarria bihurtzen dira⁴⁶⁴: herrigunean zehar espazio historiko ezberdinak ezagutzeko ibilbidea zein naturaguneetara egindakoak diseinatzen dira lehenbiziko urteetatik, hezkuntza programa finkoaren parte bilakatuz. Bisita eta ibilaldien programen osagarri moduan tailerrak ere eskaintzen dira: erlategiaren bisitaren ondoren kandela bat egiteko edota ogia egiteko aukera dute taldeek. Egun berezietan tailer hauei gehituko zaizkie bolo jolasa edota ipuin kontalaria bezalako jarduerak.

Urte osoko eskaintzaz gain, Zeraingo kultur astearekin bat eginik, herriko ondareari lotutako zenbait hitzaldi antolatzen dira museoaren eskutik, ondarea hizpide dutenak⁴⁶⁵. Era berean, 1999an Zerainen antolatzen da “Ondarea eta Turismoaren garrantzia landa-garapenean” Nazioarteko Jardunaldia⁴⁶⁶. Honetan, Zeraingo landa garapen proiektua eta ondarearen inguruko planak ezagutzera emateko aukera izango da, hala nola nazioarte mailako hainbat aditurekin harremana izateko.

Baliabide materialei dagokionez, 2000. urtetik aurrera sortzen dira eskola taldeentzako koaderno didaktikoak, gai ezberdinak ardatz harturik: Burdinaren Mendia, Larraondoko zerrategia, Artzaintza eta gaztagintza, Bolatea, Txondorra eta Hezeguneak⁴⁶⁷.

⁴⁶⁴ Zeraingo kultur astea dela eta, urtero antolatzen ziren hiruzpalau hitzaldi herrian. Horietako batzuk kultur ondareari lotutakoak ziren eta horregatik kontsideratu dira museoaren jarduera baina beste askok gai oso anitzak lantzen zituzten eta museoaren zein ondarearen edukietatik aldendutakoak zirelako baztertu dira

⁴⁶⁵ Zeraingo urtekariak. ZUA

⁴⁶⁶ Zeraingo Udala, GFA, Frantziako “Conseil General de la Dordogne” eta Grexiako Xanthiko hiriarekin batera. *Zerain urtekaria* 1991. 33 or. ZUA

⁴⁶⁷ *Zeraingo Herri Museoa Euskadiko Museoen Erregistroan barneratzeko eskaria. 2012ko otsaila*. ZUA

Publikoa

Lehen urteetan diseinatutako eskaintza publiko orokorrari zuzendutakoa izango da: bisita gidatuak banakakoentzat ordu finkoetan burutzen dira eta taldeek aurrez eskaera egindako erresebaren arabera. Aipatzen denez, “hirugarren adinekoak, elkarteak, euskaltegiak, Emakume taldeak”⁴⁶⁸ jasotzen dituzte, baina suposa daiteke hauentzako hezkuntza jarduera publiko orokorarentzat prestatutakoaren berdina izango dela.

Bestalde, hezkuntza formaleko taldeentzako ere eskaintza egiten da, batez ere 1999tik indartzen dena. Honela, adin tarte desberdinei zuzendutako koaderno didaktikoak jaso diren heinean, talde mota bakoitzari egokitutako ekimenak ere eskaintzen direla pentsa daiteke. Hala ere, ez da topatu, hezkuntza programa egonkorraren baitan, etapa bakoitzari egokitzen zaion eskaintza mota.

4.18. Lizarrusti. Aralar Natura Parkeko Interpretazio Zentroa/ Lizarrusti Parketxea (Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua)

Gipuzkoan Aralar izango da Natura Parkea izendapena lortzen duen lehenengoa, 1994.urtean⁴⁶⁹. Parkeko informazioa eskaini eta bisitarien harrera gune izateko espazio baten beharra ikusirik, GFA-k Ataungo Lizarrusti auzoan kokatzen den Arbitrio edo Mikelete Etxea erosten du, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan. Eraikina eraberritu eta bertan egokitzen da Lizarrusti Interpretazio Zentroa 1996an, jatetxea eta aterpetxe zerbitzua ere eskaintzen duen espazio bat⁴⁷⁰.

Lizarrustiko Interpretazio Zentroaren irekieratik hamar urte igaro ondoren, eraikinaren berritzea eta irisgarritasun neurrietara egokitzea beharrezkotzat jotzen da. Hori dela eta, 2006 eta 2009 bitartean zentroa itxita mantentzen da eta obra hauen baitan museografia berri bat ere diseinatuko da⁴⁷¹. Lizarrusti berriz ireki ondoren⁴⁷² hasierako zerbitzuak mantenduko dira – aterpetxea eta taberna – eta era berean Natura Parkeko informazio gune izateko gunea izango da. Urte horretan bertan, sortu berria den GPS Fundazioaren esku geratuko da ekipamendu guztia - Gipuzkoako beste Natura Parkeetako zentroak bezala – eta honela hezkuntza ekimenen indartze bat emango da. 2010an Ataunen bertan Barandiaran Museoa inauguratzen da; bi ekipamenduak Aralarrekin duten lotura estua nabarmenduta zein ondarearen inguruan duten

⁴⁶⁸ *Zeraingo Herri Museoa Euskadiko Museoen Erregistroan barneratzeko eskaria. 2012ko otsaila. ZUA*

⁴⁶⁹ 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena. EHAA - 1994ko uztailak 4, astelehena. 126. Zkia.

⁴⁷⁰ Lizarrustiko Parketxea. In <http://parketxesarea.org/lizarrusti/> (2015ko maiatzaren 4an ikusia)

⁴⁷¹ “esta reforma estructural ha dotado al centenario edificio de nuevas tecnologías que permiten interpretar el patrimonio natural y cultural del parque de Aralar” (Ruiz Goñi, 2009: 11)

⁴⁷² GFA-k eta La Caixa-k sinatutako espazioen kudeaketa eta kontserbaziorako elkarlan hitzarmenaren baitan (Ruiz Goñi, 2009)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

ikuspuntua antzemanda, kudeaketa bateratu bat hitzartzen da GFA eta Ataungo Udalaren artean. Honela, Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua izena hartuko dute bi ekipamenduek.

Hezkuntza saila

Lizarrustiko lehen irekieraren ondoren, hezkuntza ekimenak eta oinarrizko bisitarien harrera lanetarako ingurumen eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat kontratatzen da. Bigarren irekierarekin, eta aldi berean GPS Fundazioaren baitan, Barandiaran Museoarekin baterako kudeaketa lana egiten da, hezkuntza ekimenetarako ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat arituko delarik. Enpresa honen baitan lantalde bat sortuko da bisitarien harrerarako eta bertako jardueren dinamizaziorako – bi edo hiru pertonez osatutakoa –, baina ez da hezkuntza sailik eratuko honen baitan. Enpresak berak, oro har, egoitza nagusitik burutuko ditu publikoari zuzendutako oinarrizko programa eta eskaintzaren kudeaketa orokorra, hala nola materialen diseinua eta bestelako lanak.

Hauetaz gain, bestelako eragileekin elkarlanak burutuko dituzte eskaintza berezietarako: Suhar arkeologia taldearekin tailerrak, Felix Ugarterekin espeleologia irteerak, Ataungo Jentilbaratzako Lagunen Elkartearekin ibilaldi magikoak⁴⁷³ eta gazta tailerrarako Ramon Lizeaga gaztagilearekin.

Hezkuntza ekimenak

Lizarrustin, 2009an berrireki baino lehenago, bisitariantzako hezkuntza eskaintza bat izango dela suposa daiteke, baina ez da dokumentazio gehiegirik topatu. Jasotako informazioaren arabera, eskalada, ibilaldiak, erreka jaitsierak eta orientazioa lantzeko jarduerak burutzen dira, abentura esperientziak eskainiz⁴⁷⁴.

2010tik aurrera hezkuntza programa bat osatzen da eta aldizkako jarduera egutegiak ere proposatzen dira. Gainera, aterpetxea izanik, egun bat baino gehiagoko programa osatua garatzeko aukera eskainiko da, Ataungo herrian bertan dauden bi ekipamenduekin eskaintza bateratua diseinatuz. Hots, Barandiaran eta Lizarrustiko ekipamenduetan eskaintza bateratua egingo da, espazio bakoitza banaka edota hauek konbinatuz egin daitekeelarik.

Lizarrustin arkeologia, historiaurrea, espeleologia, bioaniztasuna, toponimia eta paisaia zein mitologia gaiak lantzeko eskaintza diseinatuko da. Erakusketako bisita gidatu oinarrizkoek gain, ibilaldi gidatuak bihurtzen dira Aralar ezagutzeko aukera anitzena, horietan megalitoak edota kobazuloak ezagutzeko ibilbideak daudelarik. Hauek

⁴⁷³ Lizarrusti-Barandiaran Parketxe hedatuko hezkuntza eskaintza. LBPHA

⁴⁷⁴ Lizarrusti Parkea. Aralar Parke Naturaleko Ataria. Eskuorria. BUA. Sig. 793-05

osatzeko, Parketxean bertan tailer mota ezberdinak egiten dira: sormenari lotutakoak, bioaniztasuna lantzekoak eta arkeologia esperimentalak oinarri dutenak. Tailerrez gain, jolasak diseinatzen dira ibilaldietan landutakoarekin lotura dutenak: *Jentilen jolasa* deiturikoa – Antzarraren jolasaren bertsioa – , *Pagotxoren Kiniela* edota orientazio jolasa.



Irudia 15: Ibilaldi magikoa Aralarren (Iturria: AIZA)

Urte osoko hezkuntza programaz gain, egun bereziekin lotuta edota jaiegun eta oporraldietako garaian bestelako ekimenak eramango dira aurrera. Alde batetik, ibilaldi gidatu bereziak antolatzen dira adituen eskutik gai ezberdinak lantzeko⁴⁷⁵, hala nola indusketa arkeologikoak bisitatzeko aukera ematen dutenak uda garaian. Ibilaldi antzeztua izaten da ere urteroko ekitaldi arrakastatsuenetako bat, “Ibilaldi mitologikoa” deiturikoa, non euskal mitologiako pertsonaien antzezpenak nahasten diren hezitzaileek egindako ibilaldi gidatuarekin. Horrekin batera, urri garaian espeleologia irteerak ere antolatzen dira, Parkeko kobazulo ezberdinak bisitatzeko aukera emanaz publikoari.

Erakustaldiak ere azken urteetako eskaintza esanguratsuenetako bat bihurtu dira, hain zuzen ere *Ikazkintza Aralarren* deituriko ekimenaren baitan, 2014an antolatzen dena lehen aldiz. Honetan, Lizarrustin bertan txondorra eraikitze eta ikatza egiteko prozesu osoa ikusgai ipintzen da. Erakustaldiari loturik antolatzen dira bisita gidatuak eta beste hainbat ekintza, publiko mota ezberdinari egokitutakoa. Tailerren kasuan ere berriak diren proposamenak egiten dira urte osoko eskaintzatik at: ukendu tailerra, artisau gazta dastatzekoa, historiaurreko gizakien bizimodua ezagutzekoa eta abar. Azken urteetan, gainera, oporraldietako programazio bateratua egingo da Gipuzkoan dauden lau Natura Parkeen artean – GPS Fundazioak kudeatutakoak diren heinean – .

⁴⁷⁵ Basogintzari buruzkoak, saguzarrak ezagutzekoak, narrasti eta anfibioenak eta sarroiei buruzkoak, adibidez. *Ebentoak. Lizarrusti-Barandiaran Parketxe hedatua*. LBPHA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Azkenik, baliabide materialen kasuan, 2010tik aurrerakoak topatu dira eta guztiak hezkuntza arautuko taldeei zuzendutakoak dira – oporraldi garaian haurren eskaintzarako ere erabiliak – . Hortaz, ikasleentzako lan koadernoak diseinatu dira etapa bakoitzaren arabera. Hauetan galdera-erantzunak, denbora-pasak eta identifikazio jolasak nagusitzen dira. Joko eta tailerrak egiteko ere material berezia sortzen dute: kiniela jolaserako fitxak egiten dira, oka jolas erraldoi bat diseinatu da galdera-erantzunak dituzten txartelekina batera eta orientazio jolaserako beharrezko mapa bereziak sortzen dituzte.

Publikoa

Lizarrustiko hezkuntza ekimenak urte osoan zehar eskaintzen dira. Ikasturtean zehar hezkuntza arautuko taldeentzako programa bat eratzen da 2010tik aurrera, non LH eta DBH-ko etapetara zuzentzen diren ekintzak. Bestalde, asteburuetan, ospakizun berezien egunetan oporraldietan ere eskaintza berezia izaten da era egonkorrean. Bisita eta ibilaldi gehienak publiko orokorrari zuzendutakoak dira. Tailerren kasuan, familiei egokitutakoak diseinatu dira ere, eta horietako batzuk haurrentzako soilik eskaintzen dira.

4.19. Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra

Irunen, munduko tximeleten eredu ugari baten jabe den Manuel Aguirresarobek, hauek erakusteko espazio baten bila hasten da. Irungo Udalarekin harremanetan jartzen da horretarako, eta honek, bildumaren garrantzia antzemanda, hitzarmen bat sinatzen du bildumagilearekin udaleko lokal batean hura erakusteko. Horrela, Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra inauguratu da 1996an (Marín, 2013).

Zenbait urte irekita izan ondoren, 2006an Irungo Udalak bilduma osoa erosiko dio bere jabeari⁴⁷⁶, kudeaketa eta funtzionamendua aurrekoaren berdina izaten jarraitzen badu ere. Museografia zaharkiturik eta bildumaren kontserbazio baldintza hobeen beharra ikusirik, denbora batez museoa ixten da eta erreforma lanak burutzen dira. 2013an berriz irekitzen da publikora (Sagarzazu, 2013).

Hezkuntza saila

⁴⁷⁶ *Irungo Udala. Mariposas del mundo. 2006. GFAAA. Sig. 30822/2*

Museoaren irekieratik “todas las visitas han sido atendidas y guiadas por el responsable y dueño”⁴⁷⁷, hau da, museoan lantalderik ez da existitu eta bildumaren jabearen esku geratzen dira egiteko guztiak. 2006tik ordea, entomologian aditua den elkarte batek “programa pedagogikoaren garapena” burutzen duela aipatzen da, baina lantaldearen inolako informazio gehiagorik ez da topatu⁴⁷⁸.

Hezkuntza ekimenak

Museoan, hasierako urtetik, bisita gidatuak izango dira ia jarduera bakarra bilduma ezagutzeko. Bisita hauetan erakusketako azalpenak ematez gain, dokumental bat ikusteko aukera eskaintzen da. Zenbait urtetan mendian ibilaldiak ere proposatu direla jakin dezakegu, bilduman bertan ikusitakoa naturan aztertu ahal izateko⁴⁷⁹; eta 1998an entomologiari buruzko hitzaldi bat ere egin zela jaso da⁴⁸⁰. Museografiaren parte diren 90 azalpen fitxa informatibo izan dira dokumentatutako material didaktiko bakarra⁴⁸¹

Publikoa

Ez da topatu bisitari mota bakoitzari edo taldeei egokitutako hezkuntza programarik, beraz, suposa daiteke publiko guztia bisitari orokor moduan kontsideratu eta jarduera zein diskurtso bera erabiltzen dela museoan.

4.20. Mirandaola Parkea/ Lenbur Lurralde Museoa/ Legazpi Burdin - Harana⁴⁸²

Legazpiko herria eta berau kokatzen den eskualdea burdinari lotutako gunea izan da aspalditik. XIV eta XV. mendeen industria honek oparotasun garaiak bizitzen ditu, baina XIX. mendetik aurrera ematen diren aurrerakuntza teknikoek burdinari lotutako azpiegitura eta jarduera guztien pixkanakako desagerpena eragingo du. XX. mendearen erdialdean ordea, Legazpiko ekonomiaren suspertzea emango da Patricio Echeverriari esker, zeinak altzairua eta burdin tresnak sortzeko enpresa irekitzen duen Legazpin (Arrieta, 2010). Langileria askoren beharrak eragingo du, herriko biztanleriaren hazkunde nabaria ez ezik, sozialki bultzada esanguratsu bat

⁴⁷⁷ *Dirulaguntza mariposas 1998*. GFAAA. Sig. 14563/5

⁴⁷⁸ *Irungo Udala. Mariposas del mundo 2006*. Sig. 30822/2

⁴⁷⁹ *Dirulaguntzen eskaera. Exposicion mariposas*. GFAAA. Sig. 14563/5

⁴⁸⁰ *1998 jarduerak*. GFAAA. Sig. 16951/5

⁴⁸¹ *Manuel Aguirresarobe Huegun*. GFAAA. Sig. 17838/6

⁴⁸² Lenbur Lurralde Museoak – egun Legazpi-Burdin Haran dena – ez du soilik Mirandaolako Parkea barne hartzen, baina hau proiektuaren aurrekaria dela kontutan izanik, era bateratuan azaltzea erabaki da. Lenbur Fundazioak berak ekipamendu eta espazio ezberdinak kudeatuta ere, Mirandaolak ardatz moduan funtzionatzen duela argi dago. Ondorengo ataletan ordea Fundazioaren menpe dauden beste museoak azalduko dira dagokion ordenean; hots, irekiera urtearen arabera.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Legazpirentzat, eta familien beharrei erantzuteko azpiegitura desberdinak sortzen joango dira lantegiaren inguruan. Hortaz, burdinaren industriari loturiko aztarnak – antzinakoak zein garaikideak – ugariak dira zonalde honetan.

Aldaketa ekonomiko eta sozialez gain, ondarearen inguruan ikuspegi berritzailea agertuko du enpresari honek. Legazpin maiatzaren 3an ospatzen da Mirandaolako gurutzearen miraria⁴⁸³, Mirandaolako burdinolaren inguruan festa ospatuz. 1952. urtean eta Legazpiko herritarrentzat gune honek duen garrantzia ikusirik, Patricio Echeverriak burdinola – egoera txarrean aurkitzen dena – berritzen du, makinak zaharberritzen ditu eta makinaria guztia funtzionamenduan jartzen du berriz ere. Konponketa lanak ez ezik, Mirandaola publikoari ireki eta funtzionamenduan ikusteko aukera izaten du publikoak ordutik aurrera, Gipuzkoan honelako ekimen bat gauzatzen den lehenengo aldia bihurturik.

1980. urtean Mirandaolak berriz ere protagonismoa izango du mirariaren 400. urteurrenaren harira. Urte honetan antolatzen da ospakizun berezia burdinolaren inguruan eta herriko historiazale talde batek Ferrerías de Legazpi liburua argitaratzen du, herriko ondare industrialari lotutakoa. Mirariaren ospakizunean izandako publiko ugariaren parte-hartzea zein liburuko ikerketa lanarekiko agertutako interes handia antzemanda, eskualdeko ondarearen berreskurapen sakonagoa eta horren inguruko ikerketa lanak sustatzeko erabakia hartzen du historiazale talde horrek. Izan ere, Arrietak (2010) dioenez, “más allá de la relevancia científica que tuvo la obra [...] lo reseñable [...] fue que esos seis vecinos establecieron y legitimaron una vinculación estrecha entre la identidad cultural local y la producción del hierro” (310. or.).

Emandako lehen pausoetako bat herriko ikastetxearekin burututako programa baten eraketa izango da. Honetan, eskualdeko ondarea ikasgelan lantzeko materiala sortzen du historiazale taldeak, eta horren ondoren burdinolaren bisita eta hura funtzionamenduan ikusteko aukera eskaintzen zaie ikasleei. Ekimen honek estatu mailan ere oihartzuna izango du, esperientzia pedagogiko berritzaile eta interesgarri bezala definitu zelarik, Gizarte Zientziak lantzeko proposamen gutxietako bat dena oraindik.

Legazpiko Udala, ondarearen eta historiaren inguruan sortutako interes berria antzemanda, museo bat sortzeko proiektuaren inguruan lan egiten hasten da, lehenbiziz Bikuña Jauregian burdinaren museo bat irekitzeko planteamendua aurkeztuz (Izaguirre, 1988). Bitartean, historiazale talde legazpiarrak burdinolaren

⁴⁸³ Kondairak dioenez, 1580an Mirandaolako burdinolan lanean aritu ziren olagizonak igande batean, baina egoera ezohikoa bizi zuten, pieza onik atera ezinik eta prozesuan zehar egokiak ez ziren baldintzak bizi zituztelarik. Gauzak honela olagizonak etxera joan eta hurrengo egunean burdinolara bueltatzean pieza txiki bat aurkitu zuten bertan, gurutze forma zuena. Mirari horren eguna ospatzen hasi ziren urtero, maiatzaren 3an. Ferrería de Mirandaola. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/96224> (2015ko apirilaren 24an ikusia)

ikerketa ezberdinen inguruan lan egiten jarraituko du eta burdinolaren irekitzea eta mantenuaz arduratuko dira.

Laurogeiko hamarkadaren amaieran, Legazpiko Udalaren proiektuaren diseinuarekin aurrera jarraitzen da, baina talde politiko ezberdinen, udal teknikarien eta elkarteen desadostasun jarraituak oztopo eta traba bihurtzen dira burdinaren inguruko proiektua aurrera eramanez. Mirandaolarekin hasitako prozesuari jarraitzeko planaren aurrean iritzi ezberdinek talka egingo dute etengabe: Alde batetik, historiazaleek Bikuña Jauregian burdinaren museoa ezartzeko proposamena babesten dute; bestalde, udal teknikari batek museo bakarra baino lurralde osoa bere baitan hartzen duen proiektu bat proposatuko du, burdina eta herriaren arteko lotura hori espazio bakar batetara ez mugatzearen. Zenbait urtetan luzatzen diren eztabaiden ondoren azken aukera hau jorratzeko erabakia hartuko du Udalak. Honela, eta erakunde zein partikular ezberdinen laguntzari esker, Europar Batasuneko zenbait proiekturen parte bilakatuz edota diru-laguntzak lortzen oinarri egonkor bat izango dute proiektu handiari ekiteko (González, 2012).

1993an Legazpiko ikerketa historikoa burutzen duten herritar historiazaleek Burdinaren Museoko Lagunen Elkarteak sortzen dute, *Burdiñola*. Honen helburuak izango dira “la localización, recuperación, potenciación o divulgación de cualquier elemento [...] que estuviera relacionado con Legazpi, en particular, y con Gipuzkoa, en general” (Arrieta, 2012b: 318). Aurreko urteetan bezala, museoa ireki bitartean beraien ardurapean egongo dira burdinolari lotutako hezkuntza ekimen guztiak.

1995an Legazpiko Udalak Komisio bat eratzen du “Legazpi, burdinaren natura eta artisautza”⁴⁸⁴ deituriko plana aurrera eramateko. 1996an Mirandaola Parkea inauguratzen da, burdinola ardatz duen espazio ireki eta gune anizduna (Zabala, 2007). Honela, aurreko hamarkadetatik jada aurrera eramaten ari diren burdinolaren bisita gidatuak eta erakustaldiak publiko guztiari eta era egonkorragoan zabaltzen hasten dira eta, Bikuña Jauregiko museoaren ordez, Mirandaolari lotutako lurraldearen inguruan garatzen den proiektuari hasiera ematen zaio.

Ideia honetan oinarriturik 1997an Lenbur Fundazioa jaiotzen da⁴⁸⁵ – Legazpi, Natura eta Burdina – Urola Garaiko eskualdean sortzen hasi den Lenbur lurralde-museoaren proiektua garatu eta kudeatzeko, eta aldi berean Gipuzkoan zein Estatu mailan erreferentzia bilakatzen den ekimen bati aurre egiteko. Fundazioak Legazpiko Bikuña

⁴⁸⁴ Urteetan zehar proiektuak izen ezberdinak jaso zituen, bai Udalak berak sortutakoak zein kanpo aholkularitza enpresa batek aurkeztutako planetan proposatutakoak

⁴⁸⁵ “de la mano del Ayuntamiento de Legazpi y de empresas como Corporación Patricio Echeverría, S.A., Cie Automotive, GKN Driveline Legazpi, Urola Sociedad Coop., Zorrotz Comercial, Goiber, Construcciones Metálicas Urretxu, U.Z., fundaciones como la Fundación Inasmet o personalidades como Eduardo Chillida e instituciones como el Ayuntamiento de Ezkio-Itsaso y la Mancomunidad Urola Garaia” (González, 2007)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Jauregian ezartzen du bere egoitza zein Dokumentazio Zentro espezializatu bat, eta bertatik kudeatzen hasten dira ez soilik Mirandaola Parkeko jarduerak, baizik ingurunean ere garatzen diren bestelako proiektu kulturalak, museoak eta ondareari lotutako ekipamendu berriak. Lurralde museoaren proiektuaren baitan sortu nahi da “un producto turístico auténtico, evitando la «Disneyficación» y utilizando espacios reales, basándose en una rigurosa investigación que favorece la comprensión de ese pasado” (Conde, 2012b: 107).

Lenbur Fundaziotik, oro har, ikerketa lan garrantzitsuak burutuko dira ondare industrialaren inguruan, eta hortaz, industriaren memoria berreskuratzeko ekimenak gauzatuko dira: elkarrizketak egin, grabatu, liburu eta ikus-entzunezkoak argitaratu eta horiekin lan egiteko material egokituak sortu, hala nola ondare materiala berreskuratu – makinak, jantziak, eguneroko bizitzako objektu arruntak – .

Ekipamendu eta ondareguneen kudeaketari dagokionez, honakoak izango dira Lurralde-Museoaren baitan funtzionatuko dutenak⁴⁸⁶: Alde batetik, Mirandaola Parkean bertan aurkitzen den Euskal Burdinaren Museoa eta Mirandaola Burdinola daude; Baserrien bisitak egiten dituzte ere: Erreizabal, artzantzaren ekomuseoa; Ogiaren Txokoa; Aikur, erleen Museoa. Eta azkenik, bi espazioen irekiera euren esku aurkitzen da, Legazpin bertan musealizatutako espazioak izanik: Chillida Lantoki eta Langileen ibilbidea, Mirandaola Burdinola; Euskal Burdinaren Museoa; eta Chillida Lantokia.

4.20.1. Artzantzaren ekomuseoa

Mirandaola Parkeatik at Lenbur Lurralde Museoan txertatzen den lehen ekipamendua dugu hau. Legazpin kokatzen den Erreizabal baserrian, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera zenbait hezkuntza jarduera burutzen hasten dira, baserriko bizitza eta artzaintzaren inguruko programa ezberdinetan parte hartuz. Edukien erakusketarako eta jardueren garapenerako espazio bat egokitzea erabakitzen dute orduan, eta hala sortzen da Artzantzaren Ekomuseoa, 2003an inauguratzen dena. Erakusketa espazio eta bertako jardueraz gain, baserrian ekoizle lanetan jarraitzen dute, gaztagintzaren produkzio eta salmentara dedikatzen delarik bertako familia⁴⁸⁷.

⁴⁸⁶ Museoak diren ekipamenduak ondorengo ataletan azalduko dira, inaugurazio urtearen araberako azalpenarekin eta dagokion aldagaien azterketarekin batera

⁴⁸⁷ Artzaintzaren Ekomuseoa. Gipuzkoako Museoak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1261654097> (2015ko maiatzaren 22an ikusia)

4.20.2. Ogiaren Txokoa

Legazpiko Tibur Agirre auzoan kokatzen den Igaralde baserria Ogiarten Txokoa bezala irekitzen da 2005an. Baserrian bertan museo bezala egokitzen da erakusketa espazio bat, ogia egiteko lantokia, labea eta errota, guztiak bisitatu daitezkeelarik.

4.20.3. Langileen ibilbidea

2003an Langileen Ibilbidea osatzen duten hiru espazioren irekiera ematen da, Legazpiko herritarren bizitzarekin lotura dutenak: herriko kapera, eskola eta etxebizitza. Gune hauek ez dute funtzionamendu autonomorik; hots, eskaeraren arabera irekiera puntuala egiten da. Hiru gune hauek berrogeita hamarreko hamarkadan girotuta agertzen dira, eta Lenbur Fundaziotik bideratzen den langileen ibilbidearen parte nagusi dira. Honekin "lanaren kultura" deiturikoaren erakusketa bat aurkezten da, non langile bizitzaren jarrerak eta funtzionatzeko moduak ikusgai dauden (Conde, 2012a).

4.20.4. Burdinaren Euskal Museoa

Mirandaolako Parkean bertan dagoen pabilioi zaharberritu batean irekitzen da Burdinaren Euskal Museoa 2005an. Aurretik existitzen den burdinola zein beste espazioen mantentzea ematen bada ere, burdinari eta industriari loturiko erakusketa baten beharrari erantzuteko sortzen da.

4.20.5. Aikur: Erleen Museoa

Urretxun, Irimo mendiaren magalean kokatzen den baserri batean ezartzen dira Josune Epelde eta Elías Otegi senar-emazteak erlezaintzara dedikatzeko. Natur Eskola Bizia proiektuaren barnean erlategietara eta euren baserrira bisitak eskaintzen hasten dira 1995tik⁴⁸⁸, baina museo didaktiko bat sortzeko ideiaren inguruan lan egiten ere hasiak dira aspalditik, egiten duten lana publiko guztiari zabaltzeko asmotan⁴⁸⁹. Honela, proiektu museografikoaren proiektua abian jarri ondoren, 2007ko irailean inauguratzen da Aikur, erleen Museoa. Ogiaren Txokoa eta Artzantzaren Ekomuseoa bezala, honetan ere lanbideari eta ekoizpen propioari loturik espazio bat topatzen dugu, ezti eta kandelagintzara dedikatutakoa hain zuzen ere.

⁴⁸⁸ Aikur Erle Museoa. Aurkezpena. In <http://www.aikur.com/> (2015ko ekainaren 1an ikusia)

⁴⁸⁹ *Aikur 2009*. GFAAA. Sig. 5051/3

4.20.6. Chillida Lantoki

Legazpiko ondare industrialaren berreskurapena eta honen zabalkuntzarako azken espazioaren irekiera 2010ko uztailean burutzen da Chillida Lantoki inauguratuz. Herriko antzinako papelera baten espazioa erabiliz industrializazio prozesuko makinak, bideoak eta argazkiak eskaintzen dira, eta aldi berean Chillidak hauekin izandako harreman artistikoaren espazioa ere bihurtzen da. Era berean bertako langileen testigantzak zein industria munduaren egunerokotasuna eta bizimodua ezagutzeko gune bat bihurtzen da, herriko historiari estuki loturik.

Hezkuntza saila

Mirandaolako Burdinolaren kudeaketa, aurrez aipatu bezala, herritar historiazale taldearen esku geratzen da lehenbiziko urteetan; eta Mirandaola Parkea sortzen denean horretan iraungo badute ere, informazio gunea eta kudeaketa orokorretarako langileak kontratatuko ditu Udalak.

Behin Lenbur Fundazioa sortuta 1997an, lantalde propio bat eratuko da, eta bertan hezkuntza saila bereizirik egongo da, pertsona batek honen koordinazio eta zuzendaritza burutzen duelarik. Hezitzaile taldea, ordea, bertatik kontratatutakoa izango da, eta beharren arabera lantaldea osatzen da ekipamendu ezberdinetako harrera lanak eta hezkuntza ekimenak burutzeko.

Hezkuntza ekimenak

Lehenbiziko urteetan Mirandaolako Parkearen eskaintza burdinolaren bisita eta erakustaldietan oinarritzen da. Behin beste ekipamenduak inauguratzen doazen heinean eta Lenbur Fundazioaren egonkortzearekin batera, eskaintza eta programa bateratu bat osatzeari ekiten zaio.

Bisitak erakustaldiekin egingo dira Mirandaolan, Artzantzaren Ekomuseoan gazta nola egiten den ikusi edota arkumeen bizitza ezagutzeko, Aikurren ezti eta kandelagintza prozesuak ezagutu, eta Ogiaren Txokoan lanbideari loturiko egitekoak eta errota martxan ikusteko aukera du publikoak.

Tailerrak eta jolasak ere egiten dira lurraldeko museo ezberdinetan: ogia egitekoa, gazta egitekoa, kandelak egitekoa, adibidez; edota Mirandaola Parkeko kanpoaldea zein Chillida Lekuko espazio handiak aprobetxatzen antolatzen diren jolasak. Aipagarria da azken urteetan memoria industrialaren berreskurapenerako "Iraganera bidaia" belaunaldi arteko solasaldi-tailerra sortzen dela, garaiko eskola bizipenei eta

herri industrialaren eguneroko bizimoduari buruzko pasadizo eta kondairak elkartrukatzeko⁴⁹⁰.

Urte osoko eskaintzaz gain, oporraldi garaian eta jaiegunetan programazio berezia osatzen da Lenburren. Horrela, urtaro bakoitzari loturik agertzen diren egunen ospaketak egiten dira: udaberrian Artzaitxo Egunak ospatuz edota gabonetan “Olentzero Ikazkina Mirandaolan” ekimena burutuz⁴⁹¹.

Materialari dagokionez, laurogeita hamarreko hamarkadan, Lenbur Fundazioa sortuta, unitate didaktikoak sortzen dira bisitaren aurretik, bitartean zein ondoren lantzeko. Gainera, museoko bisita gidatuan zehar erabiltzeko jokoak ere diseinatzen dituzte, era ludikoan edukiak landu eta erakusketako mezua transmititzeko, eta CD bat egiten dute ere Fundazioaren 10. urteurrena ospatzeko⁴⁹².

Publikoa

Lehenbiziko urteetan publiko orokorrari zuzendutako programa bat osatzen da, oinarrizko bisita gidatu eta erakustaldien baitan. Behin Fundazioa sortuta eta sarea eratuta ekipamenduak inauguratu heinean, publiko mota ezberdinetara egokitzen diren programak eratzen dira. HH, LH, DBH eta DBH ondorengo mailak barne hartzen dituzten eskaintzak osatuko dira, hala nola familientzako programak – asteburu eta jai egunetarako – edota haur eta gazteentzako jarduera bereziak.

4.21. Larraulgo Museo Etnografikoa / Larraulgo Ekomuseoa

Larraulgo herri txikian, laurogeita hamarreko hamarkadan, industria eta merkataritza jarduerarik apenas existitzen da (Arrieta, 2003). Herriaren garapena sustatzeko nahian “Turismo Cultural en Larraul” proiektua osatzen du Udalak 1996.urtean, “(para) dinamizar la oferta turística del pueblo, analizando las posibilidades de apertura de nuevas explotaciones que sirvan para generar el empleo y la riqueza revertida directamente en los habitantes del mismo”⁴⁹³. Proiektu honetarako EJ 1995tik ematen ari den turismo sustapenerako diru-laguntza eskuratzen du Larraulgo Udalak, eta oinarri hori izanik proposamenari ekingo dio. Herrian hainbat egitasmo gauzatuko dira ondorengo urteetan: herri museo bat sortuko da, mendi bideen errekupeazioa egingo da, artisau produktuen denda bat ireki eta ondare guneen zaharberritze lanak burutuko dira⁴⁹⁴.

⁴⁹⁰ Tailerrak. Lenbur Fundazioa. LFA

⁴⁹¹ Urtaroetako programak. Lenbur Lurralde Museoa. LFA

⁴⁹² *Lenbur Fundazioa 2008*. GFAAA. Sig. 4723/1

⁴⁹³ *Plan para el desarrollo del Municipio de Larraul. Mayo de 1996*. LUA. Sig. 220-03. 10 or.

⁴⁹⁴ *Turismo cultural en Larraul*. LUA. Sig. 220-03

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Museoa irekiko da “(para) ofrecer al público [...] un reencuentro con nuestra historia, (y) explicar cuál ha sido nuestra evolución histórica”⁴⁹⁵. Beste udalerrri batzuetan gertatzen den moduan, museoan erakusgai ipintzeko bilduma baten beharra dauka herriak, eta hortaz, herritarrek dohaintzan emandako piezez osatuko da museoko erakusketa. 1997.urtean, GFA-ren diru-laguntza baten bidez, tresneriaren bilketari ekiten zaio eta hurrengo urtean⁴⁹⁶ museografia proiektuaren enkargua egiten da. Azkenik, 1998ko azaroaren 18an inauguratzen da Larraulgo Museo Etnografikoa, erakusketa iraunkorrean euskal landa munduari loturiko tresna eta objektuak erakusgai ipiniz Udaletxeko azken solairuko areto batean (Arrieta, 2003).

Behin museoa irekita, eguneroko funtzionamenduari loturiko arazoak suertatuko dira, lantalde egonkor bat izateko zailtasunekin eta kudeaketan ere aldaketak etengabeak izanik. Horrekin batera, publikoaren erantzuna ez da izango espero bezain ona, eta bisitari eskasiak eragiten du Udalak, irtenbide bat emateko nahian, etengabeak aldaketak burutzea museoaren kudeaketa formatuan. Azken urteetan eta herritar boluntario talde bati esker, museoaren inguruko programazioa ezarri eta bisitariei zuzendutako ekimenak garatzen joango dira.

Hezkuntza saila

Aurrez aipatu bezala, kudeaketa eta lantalde egonkor baten gabezia sumatuko da hasieratik Larraulgo Museoan, eta noski, ez da sail banaketarik emango pertsona bat edo biz osatutako lantalde baten baitan. 1998 baino lehen Larraulgo Udalak turismo teknikari bat kontratatzen du piezen inbentarioa egin eta museoa inauguratu aurreko lanak burutzeko. Hurrengo urtean beste bi herritar gehitzen zaizkio objektuen garbiketa eta zaharberritze lanetarako (Arrieta, 2003). Museoa inauguratu ondoren beste arazo bat agertzen da, izan ere “(la) contratación de una persona responsable del museo o subcontratación (es) imposible de asumir por parte del ayuntamiento” (Arrieta, 2003: 117); hori dela eta Herriko Ostatuaren kudeaketarako lehiaketaren baitan museoa eta eliza irekitzeko betebeharra gehitzen ditu Udalak⁴⁹⁷, zenbait urtez funtzionamendu eta irekiera aldizkakoarekin aurrera egingo dutelarik.

1999an eta eskualdeko garapen agentziaren bitartez, diru-laguntza bat jaso eta pertsona bat kontratatzen da museoan gida lanak egiteko, hala nola haurrentzako jolas ezberdinak diseinatzeko⁴⁹⁸. Ordutik zenbait urtetan aldizkako irekierak ematen direla

⁴⁹⁵ *Plan para el desarrollo del Municipio de Larraul (mayo de 1996)*. LUA. Sig. 220-03

⁴⁹⁶ EJK eskainitako diru-laguntza bati esker eskatu ahal izan zen proiektua. *Museo etnografikoa. 1996-2000 bitartean eskatutako diru-laguntzak*. LUA. Sig. 220-03

⁴⁹⁷ Herriko taberna kudeatuko zuten pertsonen arduraren bitartez museo irekitzea edota eliza bera ere. Beraz, pentsa daiteke urte hauetan zehar ez zela inolako jardueraren bidez antolatutako museoetiko, eta talderen bat izanez gero Larraulgo boluntarioaren batek gidatuko zituela. LUA. Sig. 229-06.

⁴⁹⁸ “1999. Urteko Larraulgo Udal Museo etnografikoko memoria”. LUA. Sig. 221-03

pentza daiteke, udaldi eta jaiegun garaian museoaren harrera lanak burutuko dituen pertsona bat egongo delarik. Azkenik, 2009an herriko kultur elkarte batek museoa eta bere jarduerak dinamizatzeko ardura hartzen du⁴⁹⁹.

Hezkuntza ekimenak

Larraulgo museoa espazio bakar eta itxia ez dela kontutan harturik, eskaintzen diren bisita gidatu gehienetan museoko erakusketa aretoak eta herriko beste ondare-guneak erakusten dira – errota eta eliza bezala –, Larraulen zehar ibilbide historikoak eginez. Bisita gidatuetako batzuk gainera erakustaldiekin osatzen dira, baserrietara egindako programen harira behiak nola hazten ziren erakutsiz bisitari⁵⁰⁰, antzinako errota baten funtzionamenduan ikusiz edota eskultore baten lana tailerlean ezagutzeko aukeraz. Hezkuntza programaren baitan bost tailer didaktiko eskainiko dira: ogia, egurra, ukenduak, bertsolaritza eta buzingintzari lotutakoak⁵⁰¹. Eskaintzari lotutako baliabide material bereziren sorrerari buruzko informaziorik, ordea, ez da topatu.

Programa egonkor honetaz gain, urtean zehar egun berezietan ere jarduera desberdinak egingo dira, baina jarraipen edo egonkortasunik gabe: hitzaldi, ibilaldi gidatuak, bertsolaritza emanaldiak, antzinako jolasak eta filma emanaldiak⁵⁰²; gehienetan herriko kultur astearekin bat eginik, MNE edota Gau Zuria ospatzeko⁵⁰³. Azken urteetan antolatutako ekitaldi berezi hauek Tolosaldeako turismo bulegotik koordinatuko dira, eskualdeko hiru museoek eskaintza bateratua eginik.

Publikoa

Larrauko ekomuseoak proposatutako jardueren hartzaileak zeintzuk diren ez da topatu jasotako dokumentazioan. Suposatu dezakegu hezkuntza programa eskariaren arabera moldatzen dela bisitari mota bakoitzari, eskolako taldeak edo helduak izatearen araberako ekintza mota bat ala bestea proposatuz.

⁴⁹⁹ Larraulgo ekomuseoaren kudeaketa dokumentuak. 2009. LUA. Sig. 361-01

⁵⁰⁰ *Museoa 2009. Larraulgo ekomuseoa*. LUA. Sig. 361-01

⁵⁰¹ Larraulgo ekomuseoa eskuorria. TTA

⁵⁰² *Larraul 2000*. GFAAA. Sig. 17842/1

⁵⁰³ MNE eta Gau Zuria eskuorriak. TTA

4.22. Makina-Erremintaren Museoa

Industria alorrean, elektronika eta informatikak ohiko makinaria zaharkitua geratzea eragiten duela oinarri harturik, 1991tik aurrera Elgoibarko MH Institutuak XX. mende hasierako makina ezberdinak gordetzeari ekiten dio, eta urte batzuk beranduago hauek espazio museografiko batean erakusteko proiektuaren inguruan lanean hasten da⁵⁰⁴. Horrela, MH Fundazioaren baitan – MH Institutuarekin partekatzen duena – Makina-erremintaren Museoa sortzen da, 1998ko abenduaren 18an inauguratuz⁵⁰⁵. Museoa honetako lana makinen kontserbazio eta zaharberritzean zentratuko da, baina egiten den lanaren zein industria ondarearen difusioa alderatu gabe. Fundazioaren helburuen artean aipatzen dira “eboluzio teknologikoa erakusteko baliabide didaktiko gisa baliagarri izatea” eta Elgoibarko “turismo eta kultura eskaintza sendotzea”.⁵⁰⁶

Hezkuntza saila

Makina Erreminta Museoak inaugurazio urtetik bi pertsonaz osatutako lantaldea izango du: bata, ondarearen zaharberritze eta kontserbazio lanetara dedikatutakoa, eta bestea, zuzendaria, bestelako jarduera eta egiteko guztiak gain hartzen dituena. Egoera honetan beraz, ez da hezkuntza sailik osatzen, eta zuzendaria bera da hezkuntza ekimenen arduradun bakarra⁵⁰⁷. Honekin batera, 1999an Makina-erremintaren Museoaren Lagunen Elkarteak sortzen da⁵⁰⁸, baina batez ere babes ekonomikoa eskainiko duen taldea izango da.

Hezkuntza ekimenak

Museoko hezkuntza eskaintza bisita gidatuetan oinarritzen da, non industriari zein museoaren izaerari lotutako bideo bat ikusi ondoren, erakusketa aretoak ezagutzen diren. Gainera, bisita batzuk erakustaldiekin osatzen dira, bertan dauden makinak funtzionamenduan ikusteko aukerarekin⁵⁰⁹. Hezkuntza programa finko honetatik at, aldizkako jarduerak ere eskaintzen dira, baina oso modu puntualean eta normalean ekitaldi bereziren bati lotuta. Museoaren 10. urteurrenean armagin eta errementari

⁵⁰⁴ Museoaren historia. In <http://www.museo-maquina-herramienta.com/eu/museoa/nortzuk-gara/museoaren-historia/> (2015ko ekainaren 27an ikusia)

⁵⁰⁵ Makina Erremintaren Museoeko Eskuorria. MMA

⁵⁰⁶ Museoeko helburuak. In <http://www.museoa.eus/eu/museoa/nortzuk-gara/helburuak/> (2016ko abenduaren 10an ikusia)

⁵⁰⁷ MH 1999. GFAAA. Sig. 16952/2

⁵⁰⁸ MH 2005. GFAAA. Sig. 28788/4

⁵⁰⁹ “En las visitas se compaginan operaciones de mecanizado con explicaciones técnicas e históricas”. MH 2001. GFAAA. Sig. 19252/14

grabatzaileen erakustaldi bat antolatzen da⁵¹⁰; 2011an *Actualidad de la Máquina-Herramienta* filmaren emanaldi eskaintzen dute⁵¹¹; 2012an “Burdinolen ibilbide gidatua” egiten da egun batez eta 2014an *Kataiak* ikuskizuna aurkezten da, makina erremintaren urteurrenaren harira, museoko makina guztiak martxan jarrita eta aldi berean haizezko instrumentuekin kontzertu berezia gauzatuz.

Baliabide materialen kasuan, zenbait informazio eskuorri eta argitalpen sortu badira ere, ez da hezkuntza programari lotutako materia didaktikorik sortzen. *Online* material bezala aipatu dezakegun baliabide bakarra, azken urteetan sortutako bisita gidatu birtuala da.

Publikoa

Esaten zenez, 1999an jada “se está desarrollando un programa de actividades dirigido a centros de educación con el objetivo de impulsar el interés y conocimiento de los visitantes sobre la materia”⁵¹² eta urteko memorietan, hezkuntza taldeez gain aipatzen dira makina-erremintaren alorrekin lotutako bisitariak, ikastetxeak, bisita komertzialak, langileak, sektoreko erretiratuak eta industria-ondarean interesatutako pertsonak ere hartzen dituztela. Alabaina, ez da jaso talde mota desberdinei zuzendutako hezkuntza programarik, eta suposa dezakegu publiko orokorrari zuzendutako jarduera motak izan direla kasu guztietan taldeei zein banakakoei zuzendutakoak.

4.23. San Martin ondaregunea

Azkoitian, Iraurgiko San Martin elizan, 1993 eta 1995 bitartean zenbait indusketa arkeologiko burutzen dira⁵¹³, GFA-k eta Azkoitiko Udalak sustatuta (Urteaga, 1993). Aztarnategian hainbat errauts kutxa, Erdi Aroko nekropoli bat, kanpaien fundiziorako labe bat eta beste hainbat arrasto aurkitzen dira (Amondarain, Urteaga eta Seva, 2009-2010). Ondare-gunearen garrantzia eta piezen esanguratsutasuna antzemanda, jasotakoaren musealizazioaren nahia agertuko du Azkoitiko Udalak, Arkeolan Fundazioak zein Munibe Kultur Taldeak lanak bere gain hartuko dutelarik (Urteaga,

⁵¹⁰ “El Lehendakari presidió el X aniversario del Museo de Máquina-herramienta de Elgoibar”. Makina Erreminta Museko albisteak. In <http://www.imh.eus/es/noticias/el-lehendakari-presidio-el-x-aniversario-del-museo-de-maquina-herramienta-de-elgoibar> (2015ko ekainaren 28an ikusia)

⁵¹¹ *MH memoria 2011*. MMA

⁵¹² *MH 1999*. GFAAA. Sig 16952/2

⁵¹³ “Iraurgiko San Martin” koaderno didaktikoa. AZKUA. Sig. 3851/02

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

1999). Honela eraten dira eliza barruan gai unitateak eta erakusketa iraunkorra, 1999ko maiatzaren 28an inauguratuz museoa⁵¹⁴.

Publikoari zenbait urtetan irekita egon eta hezkuntza programa interesgarri eta landua⁵¹⁵ garatu ostean, 2003tik 2009ra bitartean⁵¹⁶ museoaren jarduna aldizkako irekieretara mugatuko da. Azkenik, asteburuetako publiko eskasiak eta hezkuntza formalera bideratzeko programa indartsu baten gabezia, San Martin ixtea erabakitzen da guztiz. Azken urteetan ekitaldi bereziren bati loturik edota eskaera berezien arabera soilik ireki izan da.

2014. urtearen amaieran, eta programa zabalago baten baitan, zenbait bisita gidatu berezi egin ziren aditu baten eskutik eta Udalak sustaturik, baina hauek jarduera puntual bat besterik ez ziren izan.

Hezkuntza saila

Museoaren irekierarekin batera, kultur elkarte batek hartzen du hura dinamizatzeko ardura. 2001. urtetik aurrera, tailerrak prestatu eta gauzatzeko elkarteaz kanpoko bi pertsona kontratatzen dira, eskariaren araberako zerbitzua eskaintzen dutenak. Itxiera partzialekin bat eginik, kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da museoaren irekiera eta harrera lan oinarrizkoena.

Hezkuntza ekimenak

Irekiera urtetik jada hezkuntza programa egonkor bat diseinatzen da. Alde batetik, ikasturtean zeharreko eskaintza bat egiten da hiru gai ardatz harturik: “Ingurugiro erakusketa”, “Azkoitiko ondarea ikertzen” eta “historiaurreko tailerra”⁵¹⁷. Honen baitan, bisita gidatu antzeztuak egiten dituzte historiaurreko gaiak lantzeko edota ermitaren sorrerari buruzko azalpenak emateko. Honekin batera, 2001-2003 bitartean tailerrak egiten hasiko dira⁵¹⁸, arkeologia esperimentalean oinarritutako historiaurreko teknikak ikasteko aukerarekin. Herriko historiari lotutako programan Azkoitian zehar ibilaldi historikoak burutzen dira. Programa honetaz gain, ez da topatu asteburu edota jaiegunetarako sortutako hezkuntza ekimen berezirik, eta museoaren aldizkako itxieratik aurrera, suposa daiteke museoko ekimenak bisita gidatuetara mugatuko direla.

⁵¹⁴ *San Martin Ondare-gune*. GFAAA. Sig. 16950/4

⁵¹⁵ Eskola taldeekin aurrera eramandako proiektuaren zehaztasun guztiak biltzen dira proposatutako proiektu txostenean. *Ondare-gunea*. AZKUA. Sig. 3830-03

⁵¹⁶ Itxiera data finkoaren frogarik ez da gorde, baina Azkoitiko Udaleko arduradunek 2009 inguruan kokatzen dute itxiera definitiboa. Azkoitiko Udaleko Kultura Saileko arduradunarekin izandako elkarrizketa 2014ko abenduaren 10an.

⁵¹⁷ *San Martin ondare-guneko eskuorria*. AZKUA. Sig. 3851-01

⁵¹⁸ Azkoitiako Udaleko kultur teknikariarekin egindako bilera, 2014ko abenduaren 10an



Irudia 16: Bisita antzeztuak
(Iturria: AZKUA)

Baliabide materialen kasuan, lehen urteetatik jada diseinatzen dira bisita eta tailerretan erabilgarria izan daitekeena. Alde batetik, bi koaderno egiten dira, herriko historia eta ermitaren aztarnategiari buruzkoa bata; eta bestea historiaurrearen gaia lantzekoa. Koaderno hauei, gainera, bideo bat ere gehitzen zaio, taldeek bisitaren aurretik ikusi dezaketena. Horrekin batera eta museoko azalpenen osagarri ziren bi bideo egin ziren: bata ermitari buruzkoa eta bestea historiaurreari buruzkoa⁵¹⁹.

Publikoa

Hezkuntza ekimenak, nagusiki, hezkuntza arautuko taldeei zuzenduta diseinatzen dira. Eskaintza, oro har, Azkoiti eta Azpeitiko ikastolentzako egingo da, zehazki LH eta DBH-ko etapei⁵²⁰. Bestalde, publiko orokorrari zuzendutako jarduera bakarrak bisita gidatu arruntak izango direla pentsa dezakegu.

4.24. Igartza Jauregia/ Igartza Monumentu Multzoa

Igartzako multzo arkitektonikoaren garrantzia Dela eta, laurogeiko hamarkadan Beasaingo Udala hura berreskuratzeko proiektu ezberdinen inguruan lan egiten hasten da. 1986an egiten den txosten batean jada Igartzako Jauregian museo etnografiko bat egokitzeko aukeraz hitz egiten da⁵²¹ eta beranduagoko beste informe batean ondare-gunearen interes arkeologikoa azpimarratzen da⁵²². 1994. urtean, Aranzadiko talde bat, Igartza Jauregian lan arkeologikoak burutzen hasten da Beasaingo Udalaren laguntzari esker, ("El descubrimiento de la ferrería", 2002) eta gerora, errota berreskuratzeko

⁵¹⁹ *San Martin ondare-gunearen dokumentazioa*. Azkoitiko Udaleko K.S.

⁵²⁰ *San Martin de Iraurgi. Azkoitiko ondarelekua*. AZKUA. Sig. 3830-03.

⁵²¹ Jauregiaren erabilera berriaren inguruko proposamenak oso ezberdinak izan ziren: Beasaingo industrializazioaren museo bat, miniaturazko trenen museoa edota Beasaingo Udal Artxibo Historikoaren egoitza. "Beasaingo kultura batzarreko Akta, 1991ko irailaren 30ekoa". BUA. Sig. 1937-03.

⁵²² *Informe sobre la zona de presunción arqueológica de la ferrería de Yarza*. Arkeolan. BUA. Sig. 1967-03

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

asmotan – zeina 1982tik abandonaturik dagoen –, EJ-k antolatutako lehen gazte auzolandegiak gauzatu dira herrian⁵²³, hurrengo urteetan errepikatzen direnak⁵²⁴.

Ondare-guneak eskainitako material eta informazioaren garrantziaz jabeturik, arkeologia lanen jarraipena emango da zenbait urtetan, multzoaren espazio ezberdinak induskatu eta zaharberritzeko. Aldi berean, Beasaingo Udala ondare-gunea publikoari erakusteko proposamenaren inguruan lanean jarraitzen du. 1998an Igartzako gunearen inguruko lehiaketa bat antolatzen da gunearen berreskuratzearen inguruko ideiak jaso nahian, “Igartza. Patrimonio cultural y juventud” lanak irabazten duelarik⁵²⁵. Proiektu honi jarraiki lehen lanak burutzen hasten dira espazioa musealizatzeko⁵²⁶ eta 1999ko urrian Igartza Jauregia publikora irekitzen da, ondare-gunearen erakusketa zein turismo bulego funtzioak betetzeko⁵²⁷. 2000. urtean Igartza Jauregia – ermita, zubia eta errotarekin batera – Ondare Kultural izendatzen du EJ-k, eta horrekin batera Beasaingo Udalak multzo historikoa erosteko erabakia hartzen du. GFA-k emandako diru-laguntzei esker aurreko hamarkadan indusketa arkeologiko ezberdinak burutu badira ere, oraindik zaharberritze eta arkeologia lanen jarraipena beharrezkoa bihurtzen da. Hortaz, ondorengo urteetan, Jauregia publikora irekita mantentzen da turismo bulego funtzioa betez, eta aldi berean beste guneetan arkeologia indusketek aurrera egingo dute.

2007an Igartzako eraikin ezberdinen berrikuntza lanen fase berri bat hasiko da, Beasaingo Udala eta GFA-ren arteko hitzarmena sinatu ostean, EJ eta Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak ere emandako laguntzarekin. 2011n eraberritze obrak amaituta, Igartza Monumentu Multzoa izenaz berrirekiko da, oraingoan jada jauregiak gain beste ondare guneak ere erakusteko aukerarekin.

Hezkuntza saila

Beasaingo Udaleko kultura sailak Igartzaren kudeaketa eta hezkuntza ekimenen ardura izango du irekiera urtetik 2003 arte. Sail horretako bi kide arduratuko dira asteen zeharreko taldeen harrera eta ekimenak burutzeaz⁵²⁸. Asteburu eta jaiegunetako turismo bulegoaren harrera lanetarako ordea, zientzia elkarte batekin hitzarmena sinatzen du Udalak.

⁵²³ *Auzolandegiak Igartza, 1994*. BUA. Sig. 277-01

⁵²⁴ 1996an eta 1998an Kutxak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak auzolandegi berriak antolatzen ditu Beasaingo Udalaren laguntzarekin. *Gaztekutxa auzolandegiak 95*. BUA. Sig. 0347-07

⁵²⁵ *Igartza. Patrimonio cultural y juventud. Beasain, 1998*. Juantxo Aguirre Mauleón. “Candidatura joven y brillante” Beasaingo Udaleko programaren barnean aurkeztua. BUA. Sig. 0615-03

⁵²⁶ *GFAk emandako diru-laguntzak, ezohiko kultura iharduerak antolatzeko. 1998*. BUA Sig. 621-01

⁵²⁷ *Igartza. Oficina de Información turística*. BUA. Sig. 2769-10

⁵²⁸ *Programa didaktikoa Igartza (ikastetxeentzako materiala) 1999*. BUA. Sig. 777-01

2004an Beasaingo Udalak “multzoko koordinatzaile lanak egin eta aholkularitza eta asistentziarako pertsona bat kontratatzeko” hartutako erabakiaren baitan⁵²⁹, Igartzako arduradun bat izendatzen da, bide batez multzoko arkeologia indusketak zuzentzeko ardura ere izan duena. Harrera lanak egiteko eta taldeekin hezkuntza ekimenak gauzatzeko ordea, bi hezitzaile kontratatzen ditu Udalak.

2010an eta multzoko eraikin baten zaharberritze lanekin batera, hotel eta jatetxe bat inauguratzen da Igartzako multzoan. 2011an hotela beraren kudeaketa eta Igartzako harrera eta bisita gidatu lanen eskumena lehiaketara ateratzen da bloke berean. Hortaz, ostalaritzara dedikatzen den enpresa batek hotela kudeatzeko ardura hartzen du ordutik aurrera, baina bere esku geratzen da ere monumentu multzoaren kudeaketa eta hezkuntza ekimenak⁵³⁰. 2014an bi espazioen kudeaketa banandu eta Igartzako multzoaren ardura turismo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek hartuko du.

Hezkuntza ekimenak

Beasaingo Udalak “Igartzako hiru ardatzetan”⁵³¹ proiektua aurkezten du 2000. urtean⁵³², non ekintza, erakusketa eta ondarearen inguruko plangintza bat proposatzen duen herriko historiaren ikerketa eta hedapenerako. Honen baitan, irekiera urtetik jada egiten diren bisita gidatuak mantentzen dira Igartzako multzoa ezagutzeko oinarrizko jardura bezala⁵³³, erakusketa programazio bat proposatzen da – Igartzan bertan zein herriko beste guneeetan erakutsiko direnak – , liburu eta aldizkarien argitalpenak, eta ondarea berreskuratzeko inbentariatze eta errestaurazio lanak herrian.

Hemen kokatzen da ere Igartzari lotutako “Proiektu didaktikoa” deitzen dutena, herriko ikastetxei zuzendutako hezkuntza programa bat, hiru egunetan zehar banatutako ekintzez osatua. Honetan bi aukera eskaintzen zaizkie taldeei: Batean, lehenengo egunean gelan bideo bat ikusi eta fitxa batzuetako galderei erantzuten zaio, bigarren egunean bideoa eta diapositiben bidez azalpenak ematen zaizkie ikasleei gelan bertan, eta hirugarrenean multzora bisita egiten da, ogia egiteko tailer batekin amaituz. Beste aukeran ordea klase teorikoak eta ariketa fitxak betetzen dituzte ikasgelan eta antzar-jokuan aritzen dira edukiak lantzeko, bigarren egunean bideo eta diapositibak ikusten dituzte eta hirugarren egunean multzora bisita eta ogia egiteko tailerra egin dezakete⁵³⁴. 2002. urtetik aurrera programako zenbait atal berritzen dira⁵³⁵: klasean

⁵²⁹ *Igartzako koordinatzailearen kontratazioa. 2003ko abenduaren 15ean, 18,30etan Igartzako monumentu multzoaren batzorde berekiak egindako bileren akta.* BUA. Sig. 2116-01

⁵³⁰ Dolarea Hotelaren inaugurazioa. BUA. Sig. 3887-01

⁵³¹ *Igartzako 2000.* GFAAA. Sig. 17839/1

⁵³² 1999an jada abian jarritako programa didaktikoaren lehen frogak eta multzora bisita gidatuak barne hartu zituen.

⁵³³ *Igartzako 1999.* GFAAA. Sig. 16950/3

⁵³⁴ *Proiektu didaktikoa LH-DBH. Igartzako 2000.* GFAAA. Sig. 17839/1

⁵³⁵ *Educación. proyecto educativo 2002.* BUA. Sig. 2994-02

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPUZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

ipuin bat lantzen dute argazkien bidezko jolas bat eginez, puzzle bat osatu eta bertso bat kantatzen dute. Igartzan bertan ogia egiten jarraitzen da tailer bezala eta joko berriak txertatu dituzte, antzerkiak, altxorraren bila eta olinpiada jolasak bezalakoak.

Hezkuntza proiektu honi lotuta material ugari sortuko du Beasaingo Udalak: gelan edukiak lantzeko bideo ezberdinak egiten dituzte⁵³⁶ – lehenbizi VHS formatuan eta gerora CD-an – , fitxa didaktikoak sortzen dira etapa bakoitzari egokituta⁵³⁷, jolas tradizionaletan oinarritutako mahai jokoak diseinatzen dira – antzarraren jolasa, Igartzako tribiala – eta Loi “margotu-moztu-eraiki” errekortable liburuxkak ere argitaratzen dira. Material hauek, hurrei zuzendutakoak direnak “beren jarrera aktiboa bilatzen dute [...]. Horrela oso modu didaktiko eta atseginez Igartzari buruz informazioa jaso eta barneratzen dute ia konturatu gabe”⁵³⁸. Programa hau ebaluatzeko, gainera, ikasle zein gurasoen iritzia ezagutzeko ebaluazio lanak egiten dira urtero⁵³⁹.

Hezkuntza programa finko honetatik at, herriko kultur jarduerak burutuko dira Igartzako multzoan. Horrela, *Igartzako Musikaldia*⁵⁴⁰ eta *Igartzako ostegunak*⁵⁴¹ deiturikoak antolatzen dira musika zein antzerki emanaldiekin; aldi baterako erakusketak egiten dira; liburuen aurkezpenak edota elkarte eta talde ezberdinen ekintzak burutzen dira; beti ere museoaren funtzio eta edukietatik aldentuta. Igartzako multzoari lotutako jarduera gutxietako bat 2000. urteko *Errota eta energia berriztagarriak Euskal Herrian* jardunaldiak izango dira, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean gauzatutakoa⁵⁴².

2007-2011 bitartean museoa itxita egon ondoren irekitzen denean, bisita gidatuak izango dira Igartzan eskainitako jarduera bakarrak, eta oso ordutegi murriztua izango da hura bisitatzeko. Era berean, aurreko garaian bezala, herriko kultur jarduera gutxi batzuk egiteko edota ezkontzak ospatzeko espazioa bihurtzen da zenbait urtez. 2014tik aurrera eta bere kudeaketa berriz lehiaketara atera ondoren, museoaren hezkuntza funtzioa berreskuratu eta programazio bat eratzeko lanari ekiten dio lantalde berriak.

Publikoa

Museoa irekita egon den urte guztietan publiko orokorrari zuzendutako bisita gidatuak eskaini dira eta ez da eskaintza zehazturik egongo banakako bisitari motentzako.

⁵³⁶ Ibai errotak, Burdinola, Erdi Aroa, San Martin eta Igartza gaiein ingurugko VHS bideoak. BUA Sig. 777

⁵³⁷ Programa didaktikoa Igartza (ikastetxeentzako materiala) 1999. BUA Sig. 777-01

⁵³⁸ Difusioa. BUA. Sig. 2603-02

⁵³⁹ Igartza 1999. BUA. Sig. 16950/3 eta Igartzako proiektu didaktikoa 2005. BUA. Sig. 3367-01

⁵⁴⁰ Igartzako II musikaldia. BUA. Sig. 2603-09

⁵⁴¹ GFAk emandako dirulaguntzetarako proiektua. Igartza Jauregia. BUA. Sig. 2995-05

⁵⁴² Igartza 2000. GFAAA. Sig. 17839/1

Taldeen kasuan, hezkuntza arautuko taldeei zuzendutako programa didaktikoa aurkitzen dugu, eta soilik LH eta DBH-ko etapetara zuzentzen da.

4.25. Ontziola, itsasontzi tradizionalen ikerketa eta eraikuntza zentroa/ Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroa / Albaola Itsas Kultur Faktoria

Laurogeita hamarreko hamarkadan, Pasaian, itsasoaren kulturaz ardura berezia agertzen duen pertsona talde bat hasia da itsas ondarearen inguruan lan egiten, eta hauek Albaola Elkarte bezala eratzen dira 1998an⁵⁴³. Elkartearen helburua “euskaldunen itsas ondarea ezagutaraztea eta bultzatzea” (Calderón, 2004a: 1 par.) da, eta horretarako hainbat ekimen sustatuko dituzte. Lehenbizi, Ontziola deituriko espazio bat irekitzen dute 2000.urteko ekainean, eskualdeko garapen agentzia eta Albaola Elkartearen arteko elkarlanetik sortua⁵⁴⁴. Espazio honetan ontzien zaharberritze lanak egin eta antzinako ontzien horien erreplika zehatzak sortzen dituzte jendaurrean (Rubio, 2009), espazio hari erakusketa bat ere gehitzen zaiolarik ondoko guneei. Ondoren, itsas kulturaren gizarteratzerako hainbat proiektu aurrera eramaten dituzte, horien artean ezagunena “Ameriketatik” izanik, XIX. mendeko arrantza-traineru baten erreplika eraiki eta itsas kostaldean zehar nabigatzen dutelarik.

Ontziola espazioaren aukerak mugatuak direla ikusirik, 2010. urtean Ondartxo, Itsas Kulturaren Zentroa inauguratzen da Pasaiaiko antzinako ontziolan kokaturik. Aurreko urteetan jarraitutako ildo zein egindako lanekin batera, GFA-ko itsasontzi bildumaren zati bat gorde eta kontserbatzen dute egoitza berrian. Era berean, itsas ondarearen inguruko proiektuen inguruan lan egiten jarraitzen dute eta hala, XVI. mendeko euskal ontzi baten erreplika eraikitzen hasten dira garaiko teknika eta tresna berdinekin. Jatorrizko ontzia, San Juan galeoia, Kanadako Red Bay-en aurkitua izan zen hirurogeita hamarreko hamarkadan, munduan hoberen kontserbaturiko bat bihurturik. Erakunde ezberdinen laguntzari esker eta Elkarreak proposaturiko proiektu guztia aurrera eramateko, 2014an inauguratzen da ontziola eraberrituta eta ontziaren proiekturako egokituta, Albaola Itsas Kultur Faktoria izen berriarekin⁵⁴⁵. Ordutik, eta hasierako Ontziolaren espazioko filosofia bera mantenduz, ondarearen difusio eta

⁵⁴³ *Albaola Itsas Kultur Faktoria Prentsa Dosierra 2014.*

https://www.google.es/search?q=albaola+prentsa+dossierra&oq=albaola+prentsa+dossierra&aqs=chrome..69i57j69i60.3065j0j9&sourceid=chrome&es_sm=93&ie=UTF-8 (2015ko ekainaren 5an ikusia)

⁵⁴⁴ *Ontziola zer da?*. <http://www.pasaia.eus/documents/90521/236798/Ontziola/abc7ffd7-3e5d-4a0f-882e-90bf47cf034d> (2015ko ekainaren 5an ikusia)

⁵⁴⁵ Erakunde kolaboratzaileen artean GFA, EJ, Pasaiaiko eta Donostiako Udalak, Oarsoaldea Garatzen, Espainiako Gobernua, Pasaiaiko Portua eta Kanadako Parkeak. “Albaola Itsas Kultur Faktoria Prentsa Dosierra 2014”. In

https://www.google.es/search?q=albaola+prentsa+dossierra&oq=albaola+prentsa+dossierra&aqs=chrome..69i57j69i60.3065j0j9&sourceid=chrome&es_sm=93&ie=UTF-8 (2015ko ekainaren 5an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

zabalpenean indar handia jartzen da, eta erreplikaren eraikuntza zuzenean ikusteko zein tekniken erabilera ezagutzeko espazio irekia bilakatzen da Albaola, bisitari oro esperientziaren parte bihurtuz.

Hezkuntza saila

Lehen urteetako lantaldearen informaziorik topatu ez bada ere, suposa daiteke Elkarteko kideak izango direla eraikuntza prozesuaren azalpenak emateko arduradunak, hala nola difusio lanak bideratzen dituztenak. Behin Albaola Faktoria bezala irekitzen denean 2014an lantalde propio bat sortzen da, non bi edo hiru pertsoez osatutako hezitzaile talde bat arduratuko den hezkuntza ekimenez.

Hezkuntza ekimenak

Ontziola irekitzen denetik erakustaldietan oinarritutako bisita gidatuak dira eskaintzaren ardatza, ontzien zaharberritze zein eraikitze prozesua ikusten dutelarik bisitariak. Lehen urteetan eskaintza egonkorretik at aldizkako zenbait ekimen aurrera eramaten dira. Ondartxon, 2012an, "Pasaiako Itsas Zinemaldia" antolatzen da hiru egunetan zehar 18 filma proiektatuz⁵⁴⁶.

Baina benetako hezkuntza ekimenen indarra Albaola Faktoriarekin irekierarekin batera etorriko da. Bisita gidatu oinarritzoez gain, tailerrak ere diseinatuko dira publiko ezberdinari zuzenduta: balearen tailerra, txaluparen tailerra eta Beothuk ipuinaren tailerra, guztiak eskulangintzan eta sormenean oinarrituta⁵⁴⁷; eta etorkizunean ontzigintza eskola bihurtuko denaren aurrekari bezala, zurgintza eta nabigazio ikastaroak antolatzen hasten dira ere⁵⁴⁸.

Eskaintza berriaren baitan Marinel Gazteak programa sortzen da, esperientzia zein lankidetzan oinarritzen dena. Bertan "nabigazioan eta ontzigintza tradizionalan formakuntza ematen zaie ikasleei, lana aisiarekin uztartuz, boluntariotza sustatuz eta ikaslearen motibazio pertsonala bultzatuz"⁵⁴⁹.

Irrien Lagunen Klubarekin elkarlanean bisita gidatu antzeztuak eskaintzen zaizkie txikienei, eta pertsonaia bat sortzen da Albaolarako Txo izeneako. Pertsonaia berri hau oinarri duen koaderno didaktikoa diseinatzen da gainera.

⁵⁴⁶ "Pasaiako Itsas Zinemaldia". <http://www.naiz.eus/eu/agenda/evento/pasaiako-itsas-zinemaldia> (2015ko ekainaren 4an ikusia)

⁵⁴⁷ Albaola Itsas Kultur Faktoriako hezkuntza saileko dokumentazioa. AIKFA

⁵⁴⁸ "Albaola Itsas Kultur Faktoria Prentsa Dosierra 2014".

https://www.google.es/search?q=albaola+prentsa+dosierra&oq=albaola+prentsa+dosierra&aqs=chrome..69i57j69i60.3065j0j9&sourceid=chrome&es_sm=93&ie=UTF-8 (2015ko ekainaren 5an ikusia)

⁵⁴⁹ Albaola Itsas Faktoria. Hezkuntza. <http://www.albaola.com/eu/site/heziketa-eskaintza/marinel-gazteak> (2015ko ekainaren 26an ikusia).

Azkenik, Albaolan Itsas Antzokia deitzen den espazioan, zeina egunerokotasunean arrotzen lanerako gunea den, ekitaldi eta ikuskizun ezberdinak antolatzen dira: antzerkiak, hitzaldiak, pailazoen ikuskizunak eta haur jolasak bezala.

Publikoa

Irekiera urtetik publiko orokorrari zuzendutako eskaintza bat nagusitzen da. Albaola irekitzearekin batera, programa ezberdinak egokitzen dira, batez ere, hezkuntza arautuko taldeentzako. Horrela, LH, DBH eta dibertsifikazio taldeentzako eskaintza bereizten da.

4.26. Gatz Ekomuseoa

Leintz-Gatzagako herrian mendeetako jatorria duen gatz produkzioaren arrasto materialak aurkitzen dira, 1974 arte gatzaren ustiaketari dedikatutako industriaren funtzionamendua existitu delarik herrian. 1975an Leintz-Gatzagako Udalak azken lantegi zaharra erosi eta laurogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera indusketa arkeologiko batzuk burutzen dira zonaldean (Urteaga, 1990), oso garrantzitsuak suertatu diren aurkikuntzak eginez. Ordutik Leintz-Gatzagako Udala zonaldearen berreskurapenaren inguruan lanean hasten da, gatz lantegi multzoa berreskuratzeko asmotan eta publikoari zabaltzeko ideiarekin. Indusketen ondorengo urteetan garatzen joan da proiektu hau, zaharberritze lanak 1998 aldera amaituz eta museoa izango denaren piezak eramaten hasita⁵⁵⁰. Gauzak honela, 2000ko uztailaren 19an museoa inauguratzen da (Crespo, 2000), harreralekua, dorlak eta biltegiak osatutako multzoa⁵⁵¹.

Lehen urteak museoaren irudi korporatiboa, difusio lanak eta museografiaren osaketari dedikatuz emango dituzte, beti ere proiektua amaitutzat jo gabe – oraindik ondare material ugari eta berritzeko zonaldeak geratzen dira – . Museoaren difusio lan ugari egiten da urte horietan, telebista eta irrati nagusienetako publizitate kanpaina bat abian jarritz⁵⁵². Ondorengo urteetan museoak erakustoki zein turismo bulego funtzioa betetzen du, baina 2014. urtearen amaieran gatz produkzioa berreskuratzeko proiektu baten inguruan lanean hasten da berriz ere Udala, Plan horrek eragin dezakeelako zonaldearen garapen ekonomikoa ere:

no sólo una actividad museística y cultural, que impulse otras actividades relacionadas con el turismo rural, siempre relacionados con la sal, de indudable interés, sino también

⁵⁵⁰ *Gatz museoa 1998*. GFAAA. Sig. 14562/4

⁵⁵¹ "Gatz Museoa. Leintz Gatzaga" eskuorria. LGUA

⁵⁵² *Leintz Gatzagako Udala 2003*. GFAAA. Sig. 26439/4

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

una actividad industrial moderna y adaptada a nuestros días que dé salida a la generación de empleo futuro y sostenible para el municipio⁵⁵³

Hezkuntza saila

Leintz Gatzagako Udala bera izango da hasieratik museoaren kudeaketaren arduradun, dinamizazioaren ardura urte luzez enpresa baten esku egongo delarik. Azken urteetan ordea, eta proiektu berria martxan jarri bitartean, Udalak berak hartuko du bere gain eskumen hori eta pertsona bat kontratatuko du museoaren harrera lanak zein proiektuaren garapenaren ardura izateko⁵⁵⁴.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren proiektuko lehen urteak izanik, bisita gidatu arruntak izango dira oraindik eskaintzen den jarduera bakarrenetakoa, non gatza ukitu, usaindu eta probatu egiteko aukera eskaintzen zaien bisitariei. Horrekin batera, erakustaldiak ere egiten dira, museoko labea eta errotak martxan ikusteko aukerarekin.

4.27. Chillida-Leku

Laurogeiko hamarkadaren hasieran Eduardo Chillida bere obrarentzako kokagune baten bila hasten da Gipuzkoan, urte luzez bere lanak mundu osoan zehar barreiatu ondoren garai bakoitzaren adierazle izango diren piezak ipintzeko leku egoki bat izateko helburuaz. Espazioaren bilaketa horretan 1983an aurkitzen dute Chillidak eta bere emazteak Zabalaga baserria eta lursaila, Hernani eta Donostiako mugan (Plazaola, 2001; Guillén, 2008). Baserriaren zaharberritze lanei ekiten diote orduan, urteetan luzatuko den proiektu batean murgilduz. 1997rako baserriko zaharberritzea aurreraturik dago eta tamaina handiko zenbait obra lorategira eramanez ere⁵⁵⁵. Orduan, gune hura bere lantegi bilakatzen du, baita adiskide eta arte-munduko ezagunei erakusteko espazio berezia ere.

Baserriaren ondoren, obrak publiko guztiari erakusteko proiektuan jarraituko du Chillidak, lantegia eta lursaila museo ireki bat bihurtzeko asmotan. Orduan eraikitzen dira denda eta harrera guneko eraikina, hala nola bulegoak eta liburutegi espezializatu bat ere⁵⁵⁶. 2000. urtean obra guztiak amaitu eta irailaren 16an Chillida-Leku izenez

⁵⁵³ *Proyecto de explotación de recurso salino en Leintz-Gatzaga. 15 de noviembre de 2014.* LGUA. 3 or.

⁵⁵⁴ Udaleko teknikariarekin izandako elkarrizketa, 2014ko urriaren 28an

⁵⁵⁵ "10 urte betetzen ditugu". Chillida-Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d0> (2015ko otsailaren 1an ikusia)

⁵⁵⁶ "10 urte betetzen ditugu". Chillida-Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d0> (2015ko otsailaren 1an ikusia)

inauguratzen da, museo tradizionaletik haratago lurralde-museo bilakatutako espazioa. Laster bihurtzen da aditu eta bisitari ugarietzako *arte garaikidearen kobazuloa* (Guillén, 2008) eta inaugurazioaren unetik aurrera publiko ugariaren bisitak jasotzen hasten da.

2002an, Eduardo Chillidaren heriotzaren urtetik aurrera, familiak proiektuarekin aurrera jarraituko du. Museoan ez ezik, kanpora begirako ekimen ugari martxan jarriko dira ondorengo hamar urteetan zehar, elkarlanak gauzatuz eta kultur ekintza askoren eskenatoki bilakaturik. Baina kudeaketaren baitan izandako arazoak – politikoak eta ekonomikoak – eragiten dute hamarkada oso bateko ibilbidearen ondoren 2010ko abenduan⁵⁵⁷ museoa ixtea. Ondorengo urteak Chillida-Lekuko berririkieraren inguruko eztabaida zein akordio saiakeren baitan murgilduko da erakundea, aldi berean nazioarte mailako proiektzioa zuten ekimenetan lanean jarraitzen duelarik Fundazioak.

Hezkuntza saila

Museoaren inauguraziotik sailen banaketa eta lantaldearen baitako funtzio banaketa oso argia izango da. Chillida-Lekuren kasuan, Donostiako Udalarekin egindako hitzarmen batek lagundurik sortzen da hezkuntza-zerbitzua 2001an, eta lantalde propioaz osatutako talde bat arduratzen da jarduerak diseinatu eta gauzatzeaz ordutik aurrera. Bertako hezitzaileen lana argia da ere hasieratik: “bitartekari-lanak egite(a) [...] publiko desberdinen eta museoko edukien artean, haietaz gozatzeak eta haiek ulertzeak dituen zailtasunen jakitun baita”⁵⁵⁸. Hezkuntza zerbitzuko lantaldeak formakuntza jarraitua izango du gainera, bildumaren zein Chillidaren ezagutza zabalagoa eskuratzeko zein hezitzaile lanetan hobekuntza etengabeak lortzeko.

Hezkuntza ekimenak

Hezkuntza zerbitzuen programak eta kultura sailekoak desberdinduta agertzen dira Chillida-Lekuko barne antolaketaren baitan. Hortaz, bi departamentuek aurrera eramandako ekimenak batzen dira hemen.

Hezkuntza programetan “ikuslearen parte-hartze aktiboa; pertzepzio-gaitasuna indartzea; norbere sentsazioekiko kontaktua indartzea; (eta) sentsazioak adierazi eta komunikatzea”⁵⁵⁹ izango dira lortu nahi diren gaitasunak. Horretarako diseinatzen dira bisita gidatuak – bisitariekin komunikazio-kanal funtsezkoak kontsideratzen dituztenak – , hiru mota ezberdinetakoak izanik: aurrez hitzartutakoa museoko ordutegiaren

⁵⁵⁷ Chillida-Leku. Prentsa oharra. In

<http://www.museochillidaleku.com/Detalle-Noticia-General.207+M57ac076b3c4.0.html> (2010ko otsailaren 4an ikusia)

⁵⁵⁸ Chillida Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5>


⁵⁵⁹ Chillida Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2010ko otsailaren 4an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

barruan; edozein bisitarirentzako bisita gidatua, zehaztutako ordu finko batzuetan; eta ordutegiz kanpoko taldeentzako bisita eskusiboak.

Eskolako taldeei zuzendutako programen kasuan, ikasturte bakoitzean gai desberdin baten inguruan lan egiten da⁵⁶⁰. Bisita gidatu hauek urtero aldatu ez ezik, ikasle eta irakasleek erabiliko dituzten dossier eta koaderno didaktikoak ere urtero diseinatzen dira.

2002tik aurrera bi tailer mota proposatzen dira txikiagoei zuzenduta – jolas ere kontsideratu daitezkeenak – : *Eskulturekin jolasean* eta *Begiratu eta ulertu egiten dut*. Lehenengoan pista joko moduan planteatzen zaie eskultura ezberdinen bilaketa belardian zehar, oinarri bezala ematen zaizkien aztarna batzuk erabiliz; bigarrean eskolan lantzen dute koaderno didaktiko bat eta gerora, museoko bisitan, horren inguruko galdera-erantzun jokoa burutzen dute. Sortzen diren koadernoak familientzako bisitetan ere erabiltzen dira⁵⁶¹ hauetan margotu, aztertu, moztu eta itsatsi bezalako ariketa motak txertatzen dira. Gainera, haurrei zuzenduta ere bi liburu argitaratzen dira: “Eduardo Chillida el escultor del espacio” eta “Chillida eta ni”.



Irudia 17: Koaderno didaktikoak (Iturria: CA)

Tailer ohikoez gain, azken urteetan programa bereziagoak ere abian jarriko dira. Alde batetik, artisten eta ikastaldearen arteko proiektu bat proposatzen da, Chillidaren lanaren inguruko ezagupena eta artearekiko interesa sustatzeko asmoarekin. Honetan, artista garaikide batekin tailerrak egiten dituzte ikasleek eta museoa bisitatzen dute, hezitzaile taldeetik at bestelako ikuspegi emango duen figura bihurtzen delarik artista bera. Era

⁵⁶⁰ Eduardo Chillida eta haren omenaldiak (2002/2003), Eduardo Chillida. Materia eta espazioa (2002/2003), Eduardo Chillida gaien bitartez (2003/2004), Eduardo Chillida eta Giza Eskubideak (2004/2005), Eduardo Chillida eta Ingurumena (2005/2006), Eduardo Chillida eta Hirigunea (2006/2007), Eduardo Chillida eta Musika (2008/2009) eta Raíces-Etxetik-World-L'Univers (2009/2010)

⁵⁶¹ Chillida-Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2015ko otsailaren 2an ikusia)

berean, 2010an *Artistaren kaxa* ekimena sortzen da Joan Rioné artistaren eskutik. Honakoa “etxe magiko bat, jakin-nahientzako paradisu bat” bezala definitzen duelarik autoreak, ikasleei esploraziorako gune bat eskainiz⁵⁶². Urte berean *LUPO joko*a erabiltzen da museoko zenbait bisitetan, Fermín González Blanco arkitektoak diseinaturiko eraikitze-sistema batekin *Haizearen Orrazia* sortzeko joko-tailerra. Azkenik, behin behineko jarduera moduan eskaintzen da belaunaldi arteko tailer bat, non eskultura arteko bisiten ondoren sentipenen esploraziorako lantegi bat proposatzen den⁵⁶³.

2004tik aurrera Udako Lantegia programa garatzen da abuztuko hilabetean, oporraldietako eskaintza zehatza finkatzen delarik museoan gazteei zuzenduta. 2008tik aurrera, gainera, beka batez lagunduta, Lantegi honetarako proiektu hezigarriak lehiaketa bidez aukeratzen hasten dira, hezkuntza arloko proiektu berritzaileak gauzatzeko aukera eskainiz. Era berean, aisialdi taldeentzako udako programak ere eskaintzen dira.

Ikastaroen kasuan, adierazgarriak dira 2002.urtetik aurrera irakasleei zuzendutakoak antolatzen direla, museoak eskaintzen dituen aukerak eta programaren aurkezpena ezagutzeko gonbitea direnak. Ikastaro saioez gain, urte osoko aholkularitza-zerbitzua martxan ipintzen dute gainera, bisitak antolatu eta jarduerak gauzatzeko beharrezko argibideak jasotzeko aukera eskaintzen dutenak. Kongresuen baitan, bi urtean behin antolatuko da Filosofia Fakultatearekin elkarlanean Ontologia Kongresua museoan bertan, programa egonkorraren parte bihurtuz.

Urte osoko hezkuntza eskaintzatik at, Chillida-Lekun ohikoak izango dira jarduera eta ekitaldi bereziak, programazio interesgarria osatuz erakunde zein artista anitzen elkarlanaren ondorioz. 2004tik aurrera, udaberrian, Sagardo Eguna ospatzen da musika eta dantza emanaldi zein zuhaitzen landatzearekin; Udako Solstizioa ospatzeko ikuskizun ezberdinak eskaintzen dira 2003tik: dantza, musika, olerkiak, zirkua eta abar; *Jazzaldia* eta *Musika Hamabostaldiari* loturik kontzertuak antolatu dituzte Chillida-Lekun; Haurren Egun Unibertsala 2004tik urtero ospatzen dute haurrei zuzendutako jarduera ludiko ezberdinekin; 2006rik aurrera *Udako Musikariak* gauzatzen da eta *Neguko Kontzertuak* 2004-2008 bitartean⁵⁶⁴; Chillidari buruzko bideo

⁵⁶² Chillida-Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2015ko martxoaren 4an ikusia).

⁵⁶³ Chillida-Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2015ko martxoaren 4an ikusia).

⁵⁶⁴ “Hamar urte bete ditugu”. Chillida-Leku. Kultura. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d4> (2015ko ekainaren 6an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

proiektzioak eskaintzen dira urte batean Zinemaldiaren harira⁵⁶⁵; eta beste hamaika kolaborazio eta ekitaldi puntual ere egiten dituzte urte osoan zehar sakabanatuta.

Azkenik, elkarlanei dagokionez, DMS sortzen denetik aurrera bertako parte aktibo bihurtzen da Chillida-Leku, eta hortaz “Gabonak zurekin” programan edota MNE ospatzeko tailer eta jolas proposamen ezberdinak garatzen dituzte. Aipagarria da Haizearen Orraziaren 30. Urteurrena ospatzeko ekitaldi programa zabala osatzen duela DMS-n, eskultura multzoaren gunean bertan tailerrak eskainiz eta museoan dantza, musika emanaldiak eta erakusketa bereziak antolatuz.

Publikoa

Hezkuntza jardueren hartzaille bezala eskolaumeak, irakasleak, familia-ikusleak eta beste kolektibo batzuk desberdintzen dira, hauentzako bisitak neurritan prestatzen dituztela adieraziz, “pertsonen soslai eta behar desberdinetara moldatuz”.

Hezkuntza formaleko taldeei zuzendutako programa indartsua garatzen da museo irekita dagoen hamar urtetan: 4-7 urte bitarteko haurrentzako eskaintza egiten da eta DBH eta Batxilergoko etapetarako bisita mota zein baliabide materiak ezberdinak diseinatzen dira.

Hauekin batera irakasleak ere kontutan izan beharreko taldetzat jotzen ditu museoak: “Gure ustez, irakasleen egitekoa garrantzi handikoa da ikastetxeak museo bisitatzea erabakitzerakoan eta jarduera egoki garatzean. Horregatik, kolektibo horri informazio eta prestakuntza egokiak eman behar zaizkio”⁵⁶⁶.

Aisialdi taldeei zuzendutako oporraldi programak ere euren lekua izango dute. 2003tik hasita, udaro, mota honetako taldeentzako bisita gidatuak eskaintzen dituzte, “museoan esperientzia on bat eskainiz, hezigarria eta aldi berean jolasekoa”⁵⁶⁷; beraz, izaera ludikoagoan planteaturiko proposamenak izaten dira. Uda garaian ere, 2004tik gazteei zuzendutako Lantegiak sortzen dira, oporraldi garaian jolastu eta esperimentatzeko lekua bilakatuz museoak.

Familiak, 4-12 urte bitarteko haurrak dituztenak, egun berezietan izaten dituzte zehazki eurentzat diseinatutako ekintzak, eta urtean zeharreko museoko bisitetarako liburuxka bereziak prestatzen dira. Horrekin batera, belaunaldi desberdineko kideentzako prestatutako jarduera bakarra tailerrak izango badira ere, adierazgarria da publiko mota honetarako egokituta dagoen jardueri ere garrantzia ematea. Bestalde, ekitaldi berezietako musika, dantza eta bestelako emanaldiak publiko orokorrari zuzenduta

⁵⁶⁵ Kultura jarduerak. Chillida-Leku. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d4> (2015ko martxoaren 4an ikusia)

⁵⁶⁶ Chillida-Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2015ko martxoaren 4an ikusia)

⁵⁶⁷ Chillida-Leku. Hezkuntza. In <http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d5> (2015ko martxoaren 4an ikusia)

daudela suposa daiteke, hala nola bisita gidatu orokorrak. Azkenik, eta eskaintza edo programa berezirik izan ez badute ere, dibertsitate funtzionaleko taldeen heziketara bideratutako ekimenak egiten direla aipatzen da, neurrira egindako bisitak eta jarduerak eskatzeko aukera aurkeztuz 2004tik. Ebaluazioaren kasuan, gogobetetze-inkestak egiten zaizkie bisitariei museoan izan ondoren⁵⁶⁸.

4.28. Museum Cemento Rezola

Donostiako Añorga auzoa, Cementos Rezola enpresaren inguruan sortu den gunea da. XIX. mendearen erditik aurrera bertan eraikitzen dira zementu lantegiko langileen bizitzarako beharrezko azpiegitura guztiak: etxebizitzak, eskola edota denda. Hain zuzen ere, auzoko ikastetxe izandako eraikina berreskuratuz eta Cementos Rezolaren 150. urteurrena ospatzeko, Museum Cemento Rezola inauguratzen da 2000ko urriaren 4an (Marín, 2000). Enpresa eta lantegiaren inguruko ezagutzaz gain “industria honek gizartean eginiko ekarpena gogorarazi eta ikusleei egunero gurekin bizi den ezezagun hori, zementua alegia, hurbilarazteko”⁵⁶⁹ helburua izango du museoak.

Horrela, aldi bateko erakusketak antolatzen dituzte, hezkuntza programa egonkor bat garatzen dute eta hainbat ekimen ezberdin burutzen dira museoko edukiak gizarteratzeko. Museoa, oro har, Añorgako lantegiaren historia eta zementuaren garrantzia hedatzeko jaiotzen da (Llorente, Gillate eta Ibáñez, 2016).

Honekin batera Añorgako auzoaren bilgune izateko asmoa nagusituko da: bertako bizilagunek elkartzeko espaziorik ez dutenez (Isasa, 2015), museoa auzoko ekintza ezberdinak burutzeko gunea bihurtzen da, horrek ere erakundea eta auzo-identitatearen arteko lotura indartuko duelarik. Añorgatarrak beraz, lantegiarekin, eta bide batez museoan erakusten denarekin, duten lotura antzemanda, museoa memoria industrialaren berreskurapenerako gunea ere bihurtzen da.

Hezkuntza saila

Museoa inauguratzen denetik, kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da bere kudeaketa. Honen egoitza nagusitik oinarrizko kudeaketa eta antolaketa egingo bada ere, museoan bi pertsonaz osatutako lantalde finko bat osatzen da, beharren arabera aldizkako hezitzaile gehiagoren kontratazioa egiten delarik. Lantaldearen trebakuntza oinarrizkoa bihurtzen da hasieratik, eta hala,

⁵⁶⁸ Bisitak eta gidariak. Chillida-Leku. In

[http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d8\(2015ko_otsailaren_2an_ikusia\)](http://www.museochillidaleku.com/2000-2010/content/eusk.html#d8(2015ko_otsailaren_2an_ikusia))

⁵⁶⁹ Museum Cemento Rezola. Historia. In <http://museumcementorezola.org/museoa/> (2015ko martxoaren 27an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

hezkuntza eta museoari zein ondareari lotutako jardunaldi eta kongresuetan parte hartzen dute, entzule bezala zein komunikatzaile moduan⁵⁷⁰.

Aipatzekoa da ere museoak unibertsitate ezberdinekin elkarlanean egin direla hainbat proposamen, bertako hezkuntza arloan esanguratsuak diren ondorioekin. Horrela, Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Oviedoko Unibertsitatearekin zein Granadakoarekin hainbat proiektu garatu dira, hezkuntza eskaintzaren ebaluazio lanak zein eskaintzaren baitako zenbait ekimenen ikerketa lanarekin batera.

Hasieran, batez ere, aldi bateko erakusketak antolatzen zein bisitarien harrerara bideratzen da museoko eguneroko lana (Isasa, 2015), baina pixkanaka hezkuntza programa sendo bat garatuz joango dira. 2002tik aurrera talde desberdinei zuzendutako eskaintza bat osatzen da, non oinarritzako bi bisita gidatu egiten diren: batetik, museoaren erakusketara egiten dena, eta bestetik museoaz gain Rezola lantegira egindakoa. Tailerrak ere proposatzen dira bisiten osagarri modura: eskulangintzari lotutako bi tailer ezberdin egiten dira, artelan txikiak sortzekoak; "Kontaiguzu" deiturikoa ere garatzen da, industria ondareari buruzko solasaldia; eta "Memoria industrial" belaunaldi arteko tailerra, gazte eta helduen arteko esperientzia transmisioan oinarritzen dena eta jolas moduan planteatzen zaiena bisitariari. Honetaz gain, beste jolas batzuk ere izango dituzte museoan, "Denboraren bidaia" adibidez, arkitektura eta paisaia lantzeko erabilgarria.

Eskaintza orokorrak gain, urtean zehar hainbat proiektu garatzen dira Rezolatik, ondareari lotuta baina Añorgako auzoaren iragan industrialari loturikoak batez ere. 2010an "Añorgatarrak" proiektuari hasiera ematen zaio⁵⁷¹, auzoko memoria biltzeko egitasmo bat. Bertan, fototeka fisiko zein digitala osatzen da, auzotarren testigantzak jasotzen dira elkarrizketa bidez, liburuak eta bideoak argitaratu eta hainbat ekitaldi burutzen dira guzti horien aurkezpenerako.

2012an Ondare Bizia egitasmoa abian jartzen da, Oiaso Erromatar Museoa eta Rezolaren arteko elkarlanetik, ondarearen inguruko sentsibilizaziorako proiektu bat. Honetan jardunaldiak izaten dira bi urteaz behin, argazki lehiaketak ondareari loturik eta ikerketa lan jarraitu bat garatzen da ondareari buruz.

Programa egonkorretik at, aldizkako zenbait ekimen ere burutzen dira museoan. Museotik at zenbait irteera antolatzen dira: Hendaiara bunkerrak bisitatzera edota Design Houses erakusketari lotuta bi etxeren bisita gidatua arkitektoen eskutik.

Museoaren 10. urteurrena ospatzeko kontzertu, dantza, bertso saioak eta interbentzio artistikoak egiten dira. Horrekin batera, Rezola DMS-ren parte izango da sorrera urtetik

⁵⁷⁰ Museoko arduradunarekin izandako elkarrizketa, 2014ko abenduaren 17an

⁵⁷¹ Proiektu hau eta FYM Cementos Rezola enpresak bultzatuko du (Italcementi taldea), EJ-ko Kultura Sailaren laguntzarekin. *Añorgatarrak proiektua*. MCRA

eta horren baitan burutzen dira eskaintza bateratuan hainbat jarduera 2007tik aurrera: Olatu Talka egitasmoaren harira bertso saioa antolatzen da museoan 2013an; eta oporraldietan zein MNE ospatzeko hainbat bisita gidatu berezi eta tailer ere eskaintzen dira.

Hezkuntza ekimen ezberdinen ebaluazio lanak egin dira Rezolan, unibertsitate ezberdinekin elkarlanean: Oviedoko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea edota Granadakoarekin bezala. Hauetan, jarduera ezberdinen bitartezko ikaskuntza prozesua aztertu edota publikoaren inguruko ikerketak burutu dira.

Publikoa

Museoak hiru publiko mota desberdintzen ditu: Bisitari orokorrak, hezkuntza formaleko taldeak eta hirugarren adinekoak. Lehenengoaren kasuan bisita gidatu arruntak eskaintzen zaizkie, hala nola irteerak eta beste egun berezietako ekimenak. Publiko orokorraren baitan, helduei zuzendutakoak bezala berezi daitezke jardunaldiak, ondarearekin lotura zuten profesional perfilei bideratutako ekimena izanik batik bat. Haurrentzako asteburu eta oporraldi garaietan antolaturiko tailerrak eta jolasak izango dira; eta familiei azken urteetan ere eskaini izan zaizkie horietako jarduera batzuk.

Hezkuntza arautuaren kasuan, LH, DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketako taldeei zuzendutako hezkuntza programak diseinatzen dira. LH-ko ikasleentzat bisita gidatuak, jolasak eta tailerrak daude, eta DBH-tik gorakoentzat soilik bisita gidatuak eta lantegira bisita erakustaldiarekin.

Azkenik, hirugarren adinekoentzat bi jarduera mota diseinatzen dira. Bata LH-ko taldeen eskaintzarekin bateratua, beaunaldi arteko tailerra dena; eta bestea soilik hirugarren adinakoei zuzendutako tailerra, azken hau jubilatuta elkarte eta Eguneko Zentroein zuzenduta⁵⁷².



Irudia 18: Belaunaldi arteko tailerra
(Iturria: MCRA)

⁵⁷² Honi lotuta, Matia Fundazioarekin hitzarmen bat ere sinatzen da, helduentzako hezkuntza informal programa egonkor bat osatuz. *2004ko urtarrileko memoria*. MCRA

4.29. Miramon Zientziaren Kutxagunea/ Eureka! Zientzia Museoa

Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak Miramon Parkea erosten du 1960.urtean, eta ordutik zenbait azpiegitura sortzen dira espazio horretan (Euskal Telebista, Gipuzkoako Poliklinika eta abar). 1990. urtean lursailaren erabileraren oinarriak finkatzen dira, Miramon Parke Teknologikora bideratutako gunea ezarri eta beste espazioa etxebizitzetarako dedikatuko delarik. Lehenengoaren kasuan, museo bat sortzeko ideia planteatuko du Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxak, hasiera batean ekonomia eta banku munduaren teknologiarri lotutako proiektu bat proiektatuz.

Alabaina, ekimen honen prozesuan kolaboratzen duten aditu batzuen artean *Zientzia XXI Elkarte*a sortzen da eta zientzia museo bat eratzeko proiektu bat garatzen dute.

Horrela

el proyecto llegó a la Obra Social de Kutxa, quien estimó que el proyecto de museo de la ciencia encajaba en un edificio libre que había sido un centro educativo en Miramón, y compró el proyecto a aquella asociación. Ya bajo la responsabilidad de Kutxa se empezó un nuevo diseño tanto del edificio como de los contenidos (Ares eta Martínez, 2010: 2 par.)

Museoaren obrek iraun bitartean etorkizuneko espazio berri hark eskainiko duen guztiaren berri emango da, hainbat jarduera antolatzeari ekiten zaiolarik etorkizuneko proiektuaren difusiorako. Azkenik, Zientziaren Kutxagunea. Miramon Zientziaren Museoa inauguratzen da 2001ko urtarrilaren 17an (Ares eta Martínez, 2010), zientzia herritarrengana hurbiltzeko helburua duen espazioa, izaera ludikoa eta aldi berean dibulgatzailea uztartuz. Erakusketa iraunkor bat eraten da arlo ezberdinetan banatuta eta 160 esperimendu elkarreragile txertatzen dira bertan, hala nola Planetario Digital bat (Ares, 2005).

Urteetan zehar Kutxaguneko erakusketa aretoak ez dira zerbait egonkorra izango; esperimendu eta makinaren aldaketa eta berrikuntzak etengabekoak izango dira alegia. Aipagarriak dira horien artean GAIA espazio elkarreragilea, 2009an irekitzen dena ingurumenari loturik (Santamaría, Odériz & Tomasa, 2011) edota TXIKIKLIK, haurrentzako espazio bat non zentzumenak lantzeko aukera eskaintzen den. Azkenik, 2011n, Miramon Zientziaren Kutxagunea izatetik Eureka! Zientzia Museoa izatera igarotzen da, hain justu museoaren 10. urteurrena betetzen denean.

Hezkuntza saila

Eureka museoak lehen urtetik lantalde propioa izango du eta hezkuntza programazioaz arduratuko da Berrikuntza eta Dibulgazio Saila. Hemendik antolatzen dira urteroko

hezkuntza eskaintzak, erakusketak eta ekitaldiak. Hezitzaile taldea ordea kanpoko zerbitzu batez osatuko da; hots, gida zerbitzuak eskaintzan dituen enpresa baten esku geratzen da programazioa aurrera eraman eta hezkuntza jarduerak burutzeko lana.

Museoa zenbait elkarlan lan eta proiektu berezi gauzatu ditu unibertsitatearekin batera. Oro har, EHU-ko Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktikako Sailarekin hainbat ikerketa aurrera eraman, ebaluazio lan burutu eta material didaktikoak sortzen dira; eta unibertsitate beraren Udako Ikastaroetarako bat garatzen da ikasleen formakuntzara bideratua.

Hezkuntza ekimenak

Bisita gidatu guztiak esperimentaziorako espazioa uzten dute, hain zuzen ere zientzia museoak duen manipulazioa, simulazioa eta behaketa bidezko ikasketaren filosofian oinarriturik. Zenbaitetan erakustaldiez osatzen dira bisita hauek, adituek egindako esperimentuen bitartez erakusketako hainbat eduki ulertzeko aproposak direnak, eta esperimentu hauek tailerretan praktikan jartzeko aukera ere ematen zaie bisitariei. Taldeei zuzendutako proposamenek konbinatu ohi dituzte bisita gidatua eta tailer hauek, “Sesiones didácticas” deiturikoak⁵⁷³ eta gerora “ibilbide tematikoak”⁵⁷⁴ izena hartzen dutenak, curriculumera orientatutako ekintzak proposatuz.

Ibilbide edo eskaintza programa horietako bakoitzari lotuta koaderno didaktikoak sortzen dira, EHU-ko Zientzia Esperimentalen Sailarekin elkarlanean. Gainera, irakasleentzako gida edo dossierrak ere sortzen dituzte (Ares, 2004). Lehenbiziko urteetan soilik formatu fisikoan argitaratzen badira ere, azken urteetan formatu digitalean ere eskuratzeko aukera eskaintzen zaio publikoari museoko web orriaren bitartez.

“Kanpaldi zientifikoak” deiturikoak ere antolatzen dira, non gaueko ekintzak burutzen diren museoan bertan zientziarekin lotuta⁵⁷⁵. Hauekin batera, “txango zientifikoak” deiturikoak ere antolatzen zituzten aldiro, izarrak edota eklipseak behatzeko kokagune zehaztutara egindakoak⁵⁷⁶. Zenbait urtetan, zinema zikloak hala nola solstizio egunean Euskadiko Orkestrarekin elkarlanean antolatutako musika emanaldiak errepikatzen dira gainera. Horrekin batera, fenomeno ezberdinak ezagutzeko egun berezietan ere, eklipseak adibidez, ikustaldiekin erlazionatutako ekintzak burutzen dira (Ares, 2005) edota Uraren Eguna zein oporraldietan antolatzen diren jolas, ikuskizun eta tailerrak. DMS sorrerarekin batera, programa bateratuak osatzen dira oporraldi garaietan eta

⁵⁷³ *Oferta escolar 2004-2005*. EZMA

⁵⁷⁴ *2006-2007*. EZMA

⁵⁷⁵ Zientziaren Kutxaguneako jardueren eskuorriak. EZMA

⁵⁷⁶ “V aniversario del museo. 5 urte etengabe berritzen”. *Prensa oharra*, 2005. EZMA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

MNE bezalako egunetan, hauetan nagusiki tailer eta jolasak aurkeztuko dituelarik museoak.

Hitzaldi eta kongresuei dagokionez, saio ugari antolatzen dira lehenbiziko urtetik, bai museoan bertan zein kanpoko beste gunen batzuetan⁵⁷⁷. Hauekin batera ikastaroak ere eskaintzen dituzte astronomia, robotika, astrofisika eta beste hamaika zientzia gaien lotutakoak⁵⁷⁸. Irakasleei zuzendutako *Suspertu* egitasmoa ere abian jartzen da 2008an, EJ-ko Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerkuntzako arloarekin hezkuntza zientifikorako sinatutako lankidetzaren hitzarmenean oinarrituta, "hezkuntza zientifikoa hobetzen eta irakasleen etengabeko trebakuntza sustatzen"⁵⁷⁹ lan egiteko.

Urte osoko eskaintzaren erreferente bihurtuko diren zenbait proiektu ere garatzen dira museoan. *Experimentalia*, *Zientziaren Astea* deituriko ekimenean antzerkiak, jolasak, hitzaldiak eta beste hainbat jarduerak osatutako programa zabala garatzen da. 2012tik aurrera *Bizitza Zientifikoak* programa antolatzen da, zientzialari eta ikasleak hurbiltzeko ekimena, non zientzialari ezberdinek euren lana ikasle gazteei azaltzeko aukera duten ideien azoka erara antolatutako ekitaldi batean.

Publikoa

Museoko hezkuntza ekimenei hartzailerik nagusiak bi izango dira: alde batetik, hezkuntza arautuko taldeak, eta bestetik, haur eta gazteak. Hezkuntza arautuaren kasuan HH-tik batxilergora arteko programa ugari diseinatzen dira, urteetan zehar egokituz eta moldatuz joan direnak – baina beti ere eskaintza zabala mantenduz – . Gainera, urte osoko eskaintza horren baitan, zenbait ekimen edo programa berezi DBH-ko ikasleei bideratzen dira, Bizitza Zientifikoaren kasuan bezala.

Bestalde, haur eta gazteentzako tailerrak, jolasak, irteerak eta beste hamaika ekimenak ere antolatzen dira. Aipagarria da "Txikiklik" udalekuetako programa ere eskaintzen dela, haur eta gazteentzako kanpaldi zientifikoak.

4.30. Txingudi Ekoetxea

Laurogeita hamarreko hamarkadan, EJ-k Eremu Babestua izendatzen du Plaiaundiko Parke Ekologikoa, horren ondoriozko berreskuratzeko eta kontserbaziorako neurrien beharrak nagusituz. Parkearen inguruko lanek agerian utziko dituzte garrantziko

⁵⁷⁷ "V aniversario del museo. 5 urte etengabe berritzen". *Prentsa oharra*, 2005. EZMA

⁵⁷⁸ *Zientziaren Kutxaguneako jardueren eskuorriak*. EZMA

⁵⁷⁹ *Suspertu egitasmoaren akordioa*. Prentsa oharra. In

http://www.eurekamuseoa.es/images/stories/AreaEducativa/Nota_prensa_9_07_2008_suspertu_bilingue.pdf (2015ko apirilaren 24an ikusia)

hainbat espazio: hezegune berezia, balio ekologiko handia eta hegazti espezie askotako migrazio bidean kokatutako gunea⁵⁸⁰.

1994an Irungo Udalerrian, eta apur bat beranduago, 2001an, Hondarribian, “Txingudiko Baliabide Naturalak Babestu eta Antolatzeke Plan Berezia”-ren onarpena egingo du EJ-k⁵⁸¹. Honen ondoren inauguratzen da 2001ko apirilean Txingudi Ekoetxea, Plaiaundiko Interpretazio Zentroa. Irekiera urtetik, espazio museografikoaz gain, inguruko guneeetan jarduera ezberdinak programatu eta eragile desberdinekin ekimenak burutuko dira; beti ere ingurumen hezkuntzara zuzendutako jarduerak garatzeko asmoaz.

Hezkuntza saila

Eusko Jaurlaritzaren jabetzako Interpretazio Zentroan lantalde propio bat eratuko da, Jaurlaritzak berak kontratatutakoa. Honi buruzko dokumentaziorik ez da topatu ordea.

Hezkuntza jarduerak

Plaiaundiko Padura ezagutzeko Interpretazio Zentroa eta inguruneke pasabideetan zehar bisita gidatuak izango dira eskaintzaren oinarria. Bisita gidatu bereziak ere antolatuko dira bertan, non hegaztien eraztun-jartzaile espezialisten lan egiteko modua ikusteko aukera eskaintzen den⁵⁸² edota aditu ezberdinen ikuspegiak ezagutzeko bisitak. Horrekin batera, ingurunea ezagutzeko itsasontzizko ibilaldi gidatuak ere egingo dira badian zehar, Plaiaundi ikuspuntu berri batetik aztertzeke aukera eskainiz. Bisita eta ibilaldi gidatuen osagarriak diren tailerrak ere egingo dira Txingudin, non espezie ezberdinen azterketak egiten diren, behaketaren bitartez lehenbizi eta Ekoetxeake fitxen bidezko sailkapenekin osatuz; txorien kutxak eraikitzekeak; mozorrotzekeak;

Egun berezi eta oporraldien harira ere zenbait jarduera puntual burutuko dira, Bioaniztasunaren Eguna ospatzeko landaredia inbaditzaileei buruzke bisita gidatuekin edota saguzarrak ezagutzeko gaueke ibilaldi gidatua 2013an. Era berean, hitzaldia eta ikastaroak ere izango dituzte adituen eskutik, ornitologiari buruzkeak, hegaztien kantuak ezagutzeko, edota kostaldeke flora eta faunari lotutakoa, besteak beste.

⁵⁸⁰ Txingudi. Aurkezpena. In http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3036/eu/contenidos/informacion/txingudi/eu_1099/presentacion.html (2015ko maiatzaren 2an ikusia)

⁵⁸¹ Txingudi. Aurkezpena. In http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3036/eu/contenidos/informacion/txingudi/eu_1099/presentacion.html (2015ko maiatzaren 2an ikusia)

⁵⁸² Eskaintza. Txingudi Ekoetxea. In <https://www.euskadi.eus/informazioa/txingudi-ekoetxeke-jarduerak/r49-4152/eu/> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Materialen kasuan, lehen urteetatik jada irakasleentzako dossierrak eta ikasleentzako koaderno didaktikoak sortzen dituzte. Biak formatu digitalean eskuragarri ipintzen dituzte web orrian, etapa bakoitzaren baitan zikloka banatutako materiala izanik.

Publikoa

Txingudiko eskaintza bi taldeei zuzentzen da: Alde batetik publiko orokorrari eta bestalde, hezkuntza arautuko taldeei, azken honetan LH eta DBH-ko etapak desberdinduz⁵⁸³.

4.31. Igartubeiti Baserri Museoa

Ezkio-ltsason kokatzen den Igartubeiti Baserria GFA-k erosten du 1992an hura zaharberritzeko asmotan, erakin paregabea baita arkitektura tradizionala eta baserri giroa ezagutzeko (AAAA, 2003). Foru Aldundiko Kultura sailaren asmoa da “eraikin berezi hau birgaitzea eta Museo bilakatzea [...] eta [...] honek XVII. mendeko Gipuzkoako baserri bateko bizimodua islatu (ahal izatea) [...] giroa eta baserri barneko altzaritan bezala etxe esparruaren arkitektura-egituran ere” (Santana eta Torrecilla, 1995: 460). Honela, urte luzez jasandako interbentzioetan galdutako atalak berreraiki eta XVI. mendeko baserriaren forma berreskuratzen du. 2001eko udan Igartubeiti Baserri-museoa inauguratzen da, espazioaren errekreazioan oinarritzen den gune bat; hots, ondare-gunea *in situ* ezagutzeko aukera paregabea.

Urte batzuk beranduago proiektuaren fase berri bati hasiera emango zaio, izan ere

(Goenaga, Vives, Ugarteburu eta Azpiazu, 2013). Horrela, erakusketarako gune ez ezik, hainbat ekimen burutzeko leku aproposa izango den eraikina altxatzen da baserriaren ondoan, Interpretazio Zentroa 2007ko ekainean inauguratuz⁵⁸⁴. Hasieratik, baserriak berak eskaintzen dituen aukeraz gain, baserri mundua eta euskal historiari lotutako ikerketa eta hezkuntza lanek izango dute protagonismoa, adin desberdinetara egokitutako eskaintza eta elkarlanetan oinarritutako programazio aberasgarriak gauzatuz, horietako batzuk urteetan zehar egonkortu eta benetako Igartubeitiko marka bilakatzera heltzen direnak.

⁵⁸³ Eskola taldeei zuzendutako hezkuntza programa. http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-3036/eu/contenidos/informacion/txingudi/eu_1099/actividades_escolares.html (2015ko apirilaren 24an ikusia)

⁵⁸⁴ “Igartubeitiko Interpretazio Zentro Berria”. *Gipuzkoa Kultura*. GFA. In <http://www.gipuzkoakultura.eus/index.php/eu/museoak-eta-ondareak/51-museos-y-patrimonio-2/476-nuevo-centro-de-interpretacion-de-igartubeiti.html> (2015ko apirilaren 18an ikusia)

Hezkuntza saila

Museoa inauguratzen denetik kultura zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek kudeatuko du, eta hezkuntza funtzioa bertan sortzen den lantaldearen esku geratzen da. Igartubeitiko sail edo atalak “Hezkuntza programak eta animaziokoak” izena hartzen du hasiera batean, gerora hezkuntza eta jarduerak/ekitaldiak desberdinduz.

Datuen arabera, 2001an museoko lantaldea honakoez osatzen da: zentroaren kudeaketarako pertsona bat, jardueren koordinaziorako beste bat, zentroko eduki zientifiko eta hezkuntzakoaren arduraduna, difusio lanetarako pertsona eta azken bat publikoaren harrerarako, administrazio lanetarako eta bisiten koordinaziorako⁵⁸⁵. Ondorengo urteetan eta Interpretazio Zentroko irekierarekin batera, lantaldea murriztu eta egunerokotasuneko lanetara bideraturiko bi-hiru pertsonaz osaturikoa bihurtzen da, ekitaldi eta taldeen eskaeraren araberrako aldizkako kontratazioak egingo direlarik.

Hezitzaile hauen formakuntza osagarriari buruzko datu asko jaso ez diren arren, zenbait kurtso eta kongresuetan parte hartu izanaren frogak topatu dira: 2006an inklusioaren inguruko ikastaro batean parte hartzen dute; 2008tik aurrera EHU-k, Oiassok eta San Telmo Museoak antolatutako Museoen Kongresuan izaten dira; eta 2014 Museoetako Hezkuntza Topaketetan parte hartzen dute Bilbon, besteak beste.

Hezitzaile taldeaz gain, bestelako eragile eta adituekin elkarlana etengabekoa izango da hasieratik. Arkitekturari lotutako bisita gidatu berezietarako adituen kolaborazioa izango dute, ikuskizunak antolatzeko eskualdeko eragileekin proiektuak garatuko dituzte – musika kontzertuak edo bertsio saioetarako – eta Sagardo Astea bezalakorako herriko kultur elkartearen laguntza ezinbestekoa bihurtuko da. Azken hauen kasuan, dolarearen martxan jartzea edota herriko boluntarioekin batera gauzatutako bisita gidatu antzeztuak egingo dira.

Hezkuntza ekimenak

Igartubeitiko hezkuntza jarduerak bi arlo desberdinetan banatzen dira: alde batetik hezkuntza programa, urtean zeharreko eskaintza aurkezten duena – “hezkuntza zerbitzua” deitua; eta beste alde batetik ekitaldiak, urtero errepikatuko diren egun edo aste bereziak – “Aisialdi jarduerak” deitua. Guztiak, noski, urteek aurrera egin ahala, egokituz eta finkatuz joango dira eta pixkanaka museoaren ikur bilakatzen dira.

Hasieran baserrira bisita gidatuak soilik egiten dira, bi motatakoak izanik: banakakoentzakoak ordutegi finkoan eta beste talderentzakoak eskaeraren arabera.

⁵⁸⁵ Orden foral para la adjudicación del contrato a K6 Gestión Cultural S.L. Anexo III. Caserío Igartubeiti. Propuesta de puesta en marcha. Servicios de promoción, difusión y vigilancia. Donostia, julio 2011. GFAAA. Sig. 19251/3. 12 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

2007an, Interpretazio Zentroa irekitzearekin batera, museoan bertan zein elkarlanetatik eratorritako bisita mota desberdinak eskaintzen hasten dira, ibilbide didaktikoak deituak. Hauetan konbinatzen dira bisitak, tailerrak eta jolasak, adin edo talde mota ezberdinei egokituta.

Bisita gidatu arruntez gain, aldizkako erakustaldiak ere egiten dira: Sagardo Astean baserriko dolarean sagar zampaketa erakustaldia aurkezten da, eta 2006tik egun horietan ere egiten dira bisita antzeztuak, non XVI. mendeko pertsonaia ezberdinek baserriko bizimoduaren berri ematen duten – Yartu Elkartearekin elkarlanean –. Erakustaldiez lagundutako jarduerak ere izango dira 2008 eta 2009an, saskigile eta abarkagile tailerren aurretik artisauek hauek egiteko moduak erakutsiz bisitariei⁵⁸⁶. Gastronomiak ere bere lekua izango du Igartubeitin: Sagardo botilatzearen aurretik egindako dastatzeak eskaintzen baitira 2006tik museoan Barrikote egunean, eta Sagardo Astea dela eta 2012tik aurrera sagardo eta gazta dastatze komentatuak ere egin dituzte⁵⁸⁷. Orobat, Interpretazio Zentroan bertan kupela ipintzen da, bisita gidatuen osteko dastatzea egitea ahalbidetzen duena. Horrekin batera, bisita gidatu bereziak noiznahi antolatu izan dira museoan, urteren batean adituek gidatutako ibilbideak egin direlarik, baserri mundua edota eraikinaren zaharberritze lanei buruzko informazio zehatzagoa eta espezializatuagoa emateko asmoaz.

Programa egonkorraren baitan ibilbide gidatuak eskaintzen ez badira ere, zenbait ibilaldi eta irteera egin egiten dira egun zehatzetan: 2009an Sagardoetxeara, museo berria ezagutzeko bisitaldia antolatzen da⁵⁸⁸; urte berean eta Baserri Egunaren harira, Chillida-Lekura bisita gidatua egiten dute; 2012an Kizkitzara ibilaldi gidatua egin zen eta 2014an, Munduko Ondarearen Nazioarteko Egunean Ezkioko San Migel eliz ezagutzekoa eskaintzen da.

Tailerren kasuan, oporraldietako programen baitan gauzatzen dira lehenbizi museoan; 2004tik Zumalakarregi Museoarekin eskaintza bateratua eginaz, eta bost urte geroago larunbateroko familientzako tailerrak bihurtuz. Hauei “tailer dinamizatuak” deitzen zaie, eta helburua da “trabajar con jóvenes de modo lúdico para familiarizarse con la historia y la sociedad rural”⁵⁸⁹. Tailerrak mota ezberdinetakoak izango dira, baserri eta landa eremuko bizitzari loturikoak beti ere: lanbide tradizionalak – saskigintza, abarkagintza, kandelagintza, zeramika – ; gastronomikoak – gaztaina eta sagarrak bildu eta erretzekoak, gazta, gailetak, mermelada egitekoak, sukaldaritza sagarrekin – ; sormena sustatzen dutenak – jantzigintza, mozorroak egin, erretableak, komikiak,

⁵⁸⁶ *Contratación K6. 2008. GFAAA. Sig. 4720/1*

⁵⁸⁷ *Memoria 2012. IBMA*

⁵⁸⁸ *Memoria 2009. IBMA*

⁵⁸⁹ *Propuesta memoria K6 2005 junio. GFAAA. Sig. 20738/2. 15 or.*

antzerkia, dolare baserri maketa eraikitzeak; baratza eta naturari loturikoak – haziak landatu, landareen eraldaketa, lore lehorrak, ukenduak, baratze ekologikoa – .

Pixkanaka, tailer hauek hezkuntza programa finkoan integratzen dira, bisita gidatuaz gain jarduera osagarria egin nahi duen talde ororentzat. Horrela, 2008tik aurrera, hiru tailer ezberdin eskaintzen dira urte osoko programaren baitan, eta ondorengo urteetan hauek zabaltzen dira bost aukera desberdin izateraino. Gainera, azken urteetan, tailer horietako batzuk belaunaldi arteko tailerrak bihurtzen dira.

Hitzaldi eta mahai inguruak aldi baterako erakusketei zein ekitaldiei loturik antolatuko dira batez ere Igartubeitin. Beste museo batzuetan bezala, zentroan zein kanpoan egingo dira honelakoak, zenbaitetan ikastaro moduan ere planteatuko direlarik: 2005an Igartubeitiko eraikinaren zaharberritze prozesuaren hitzaldiak⁵⁹⁰; 2009-2011 bitartean sagardo eta sagar motei buruzkoa⁵⁹¹; eta 2009an Chillida-Lekuko baserriaren inguruko hitzaldia egiten da bertan Baserri Egunaren harira. 2011an sagar motei buruzko jardunaldia antolatzen dute, San Telmo Museoarekin elkarlanean⁵⁹²; eta 2012an sagardoa eta gaztari buruzkoa⁵⁹³ ezein artzaintzaren gaiaren ingurukoa⁵⁹⁴. *Emakumeak landa ingurunean* jardunaldiak lehen aldiz 2013an antolatzen dira eta hemen ere hitzaldi eta mahai inguru ezberdinak eskaintzen dituzte.



Ilrudia 19: Sagardo Astea (Iturria: www.gipuzkoakomuseoak.net)

⁵⁹⁰ *K6 contratación 2005*. GFAAA. Sig. 20738/2

⁵⁹¹ *Igartubeiti Baserri Museoko memoriak*. IBMA

⁵⁹² *Igartubeiti Baserri Museoko memoriak*. IBMA

⁵⁹³ San Telmo Museoa, bertako jatetxea, Gipuzkoako Sagardogile Elkarte, Idiazabal Gazta Izendapena eta Zerain Dezagun Fundazioarekin elkarlanean. *Memoria 2012*. IBMA

⁵⁹⁴ Artzaintza Euskal Herria. In <http://www.igartubeitibaserria.eus/eu/artxibo-digitala/artzaintza-euskal-herria> (2016ko urriaren 24an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Ikuskizun artistikoez ere bere lekua izango dute Igartubeitin, beti ekitaldi berezietan egindako kontzertuak edota espazioa aprobetxatuz beste erakunde edo talde batzuek antolatutakoak: Sagardo Astearen inaugurazioetarako antolatutako musika eta dantza emanaldiak, Zumarragako Musika Hamabostaldian urtero egiten den kontzertua dolarean, Zumarraga Urretxuko Bertso Eskolakoek antolatutako Bertso Barrikotean saioa, eta Baserri Egunean dantza, bertsoak, txalapartariak, trikitilariak eta beste hainbat ikuskizun artistiko programatu dira⁵⁹⁵. Zinema emanaldiren bat ere izango dute, baina oso kasu berezia bezala, 2011ko gabonetan eta hurrei zuzendutako oporraldietako programaren baitan edota 2013an MNE ospatzeko animazio film laburren emanaldiarekin. *Emakumeak landa ingurunean* jardunaldietan bideo emanaldiak, dokumentalak eta filmak ere izango dituzte.

Urteroko ekitaldiei dagokionez 2002tik aurrera Sagardo Astea antolatzen hasten dira iraila-urria aldera; 2006an Barrikotea martxoan – Urretxu Zumarragako Bertso Eskolarekin elkarlanean – ; Baserri Eguna urtean behin antolatzen da 2009tik; Musika Dolarean 2009tik; eta Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko 2013tik *Emakumeak landa ingurunean* jardunaldiak antolatzen dituzte.

Azkenik, aipagarriak dira Igartubeiti Baserri Museoak parte hartu edota garatu dituen zenbait proiektu berezi, “Egitasmoak” deiturikoak. Lehenengoa dugu *Igartuberdea*, ingurugiroarekin eta natur ondarearekin erlazionatutako jarduerak antolatzeko konpromisoa hartzen duen museoak, hala nola lan prozesuetan eta jardueretan ingurumenaren gaineko eragina txikiagotzearena⁵⁹⁶. Beste proiektu bat izango da *Artea eta Natura Zikloa* deiturikoa⁵⁹⁷, hasieran LH eta DBH-ko ikasleei zuzendutakoa eta gerora publiko guztiari zabaldua. Hau artearen bitartez ondareari gerturatzeko programa bat izango da, “gure ingurune kolektiboarekin harremana mantentzea [...], behaketa aktiboa eta ikus-entzunezko lengoia erabiliz, ondarearen inguruko begirada berriak sortzeko”⁵⁹⁸. Honela, adin tarte desberdinei zuzendutako tailerrak proposatzen dira, horietako batzuk artistak edota adituak bideratuak izanik.

2014an aurkezten da *Areago* proiektua. Bertan “ondarearen inguruko lan modu berriak aztertze eta sorkuntza zein esperimendazio gune berriak sortzeko asmoz” kontakizun laburren lehiaketa antolatzen da, gerora Baserri Museoko ibilaldietan txertatzekoak. Kontakizun hauek sistema mugikorretan entzun ahalko dira eta beraz, ibilbide autogidatu bat egiteko aukera ematen zaio bisitariari. Urte berean *Laneko kultura* programari hasiera ematen zaio, belaunaldi gazteenei baserriko eta landa eremuko

⁵⁹⁵ *Contratación K6. 2008*. GFAAA. Sig. 4720/1

⁵⁹⁶ Igartubeiti Baserru Museoko Zerbitzuek Kartak. http://www.igartubeitibaserrria.eus/eu/files?b_start=int=0 (2015ko maiatzaren 29an ikusia)

⁵⁹⁷ Igartubeiti Baserri Museoa, Centro de Estudios Ambientales de Vitoria, Centre d'Education au Patrimoine eta Artelekuren artean sortutako proiektua. *2011ko memoria*. IBMA

⁵⁹⁸ *Artea eta Natura zikloa. Memoria 2013*. IBMA

lanak gerturatzeko egitasmoa. Azkenik, *Urola Garaiko emakumeen testigantzak* jasotzeko asmoaz, beste proiektu bat garatzen hasi ziren, urteroko Emakumeen Nazioarteko Egunaren ondoren sorturiko ideia bezala.

Elkarlanak ere – puntualak edo egonkorak – ugariak izan dira Igartubeitin. Zumalakarregi Museoarekin bono bateratua, oporraldietako programa eta larunbateroko tailerren eskaintza egiten da. Bestalde, aldizkako elkarlanak ere egin ditu Untzi Museoa, Aikur Museoarekin, Iturraran Parketxearekin, Barandiaran Museoarekin, Sagardoetxearekin, D'elikatuz edota Gaztaren I.Z.-rekin.

Baliabide materialei dagokionez, taldeei zuzendutako eskaintzaren baitan koaderno didaktikoak sortzen dira, formatu fisiko zein digitalean eskuragarri daudenak⁵⁹⁹. Tailer eta jolasetarako ere material propioa diseinatzen dute museoan: maketa didaktikoa, baratzeko tailerra burutzeko erruleta, puzzle bat, panel mugikor bat, froga jokoak eta galdera-erantzunezkoak egiteko materialak, guztiak formatu fisikoan.

Material digitalari dagokionez, museografiaz kanpo sorturiko proposamen berriak ere izango dituzte. Bisita birtuala egiteko modulu interaktibo bat sortzen da 2003an, erakunde ezberdinetan erabilgarria egoten dena zenbait hilabetez: “Este dispositivo ofrece la reproducción virtual del caserío a través de una aplicación interactiva, que consiste en un joystick, unas gafas para apreciar los efectos tridimensionales, una pantalla de proyección, [...] un ordenador y un proyector multimedia” (Akordagoitia, 2004: 80). Azkenik, *Areago* programaren baitan, gailu mugikorretan entzungai dauden grabazioak ere sortzen dituzte, museoaren inguruan ibilaldi autogidatua egiteko aukera eskaintzen duena.

Publikoa

Banakako bisitariei zuzendutako eskaintza bisita gidatu arruntetara mugatzen da hasiera batean, asteburu eta jaiegunetan ordutegi finko batean egiten direlarik eta publiko orokorra bezala kontsideratua. Gerora, jarduera honetaz gain, ekitaldiei lotutako eskaintza ere publiko orokorrari zuzentzen da: erakustaldiak, bisita antzeztuak, ibilaldi eta irteerak, hitzaldi eta jardunaldiak eta ikuskizunenak.

Honen baitan, haur eta gazteentzako eskaintza zabala eta egonkorra izango da, asteburu eta oporraldi garaiko tailerrak, jolasak edo zinema emanaldiak izango dituztelarik. Helduen kasuan, programa bereziak ere diseinatuko dira hauei zuzenduta, hala nola 2011 eta 2013an proposatutako tailerrak edota jardunaldi bereziak. Familiei zuzendutako programak 2009tik aurrera ere izango dira – larunbateroko tailerrak, Zumalakarregi Museoarekin eskaintza bateratua eginik – , eta belaunaldi arteko

⁵⁹⁹ *Propuesta memoria K6 2005 junio*. GFAAA. Sig. 20738/2

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

tailerrak ere proposatuko dira non 65 urtetik gorakoak eta haurrak elkarrekin aritu ahal diren museoan.

Taldeentzako programazioaren baitan, lehen urteetan bisitari motaren arabera bitak moldatzen dituztela pentsa daiteke. 2008ko dokumentazioaren arabera, hirugarren adinekoak, elkarteak, adituak eta desgaituentzako eskaintza dute, baina hauentzako jardura edo ibilaldi gidatu berezirik diseinatu izanaren frogarik ez da topatu, beraz, pentsa daiteke publiko orokorrari zuzendutako eskaintza berdina garatuko dela. Hala ere, programa finkorik garatu ezean, hirugarren adinekoei zuzendutako hitzaldiak egiten dira aldizka, hala nola aisialdi taldeentzako oporraldietako programak udaldietan.

Hezkuntza formaleko taldeen kasuan, aipatzen da hasieratik Igartubeitik badituela “unos valores propios culturales y educacionales, fácilmente utilizables como recurso pedagógico adecuando las visitas guiadas a las necesidades específicas de cada segmento educacional”⁶⁰⁰. Hasiera batean DBH, Batxilergo eta Goi Mailako formakuntza jasotzen ari diren ikasleentzako bitak eskaintzen dira. Urte batzuk geroago LH-ko taldeetara zabaltzen da eta azken urteetan HH-ko ikasleentzako jardueraren bat ere diseinatzen dute. Hezkuntza programaren barruko ibilbide tematiko bat ere Helduen Hezkuntzako taldeentzako egokitzen da.

2005an lehen aldiz aipatzen da bisitarien iritzia ezagutzeko inkestak burutzen dituztela⁶⁰¹. 2001an Deustuko Unibertsitateko ikasle bekaduna inkestak egiten daudela jakin dezakegu, ikerketa bat burutzeko helburuarekin⁶⁰². Honekin batera, aipagarria da azken urteetan Zerbitzuen Karta argitaratzen dueka GFA-ren beste museoek bezala, non zehazten den bisitari kopuruen neurketa bat egiten dela.

4.32. Herri Musikaren Txokoa/ Soinuenea

Oiartzunen, Juan Mari Beltranek bilduma musikal interesgarria osatzen du urte luzeetan zehar. Herri musikaren dokumentazio zentro bat osatzeko asmotan Oiartzungo Udalarekin harremanetan jartzen da 1994an. Honekin akordioa sinatu eta utzitako Ergoingo eskola zaharretan espazioa egokitzen hasten dira. 1995an eta behin lokala prest izanik, bilduma pribatua bertara eramaten da: liburuak, instrumentuak, diskoak, zintak, filmaketak eta abar (“Nace la fundación Soinuenea, 2011). Guzti horrekin pixkanaka liburutegi, fonoteka eta irudi artxibo bat sortuz sortzen

⁶⁰⁰ Orden foral para la adjudicación del contrato a K6 Gestión Cultural S.L. Anexo III. Caserío Igartubeiti. Propuesta de puesta en marcha. Servicios de promoción, difusión y vigilancia. Donostia, julio 2011. GFAAA. Sig. 19251/3. 5 or.

⁶⁰¹ K6 contratación 2005. GFAAA. Sig. 20738/2

⁶⁰² Memoria 2011. IBMA

da, hala nola tresnak egin eta konpontzeko tailerra egokitu ere (Beltran, 1999). Erakusketa iraunkorreko prestakuntza lanek zenbait urte iraun ondoren, 2002ko martxoaren 1an inauguratzen da Herri Musikaren Txokoa (aurrerantzean HMT) museo bezala

Zenbait urtetan irekita egon ondoren eta mota ezberdinetako ekimenak aurrera eraman eta gero, 2011ko abenduan aldaketa bat ematen da: Soinuenea Fundazioa sortzen da zentroari egonkortasuna eta izaera juridikoa emateko ("Nace la fundación Soinuenea, 2011) eta izen berria hartzen du museoak, HMT izatetik Soinuenea izatera igaroz.

Hezkuntza saila

Museoaren funtzio guztiak – irekiera, taldeen harrera, programazioa – pertsona bakar batek burutzen ditu, bildumaren arduradunak alegia. Hortaz, ez da hezkuntza sailik bereizten eta egiteko guztiekin batera burutzen dira arlo honetako ekimenak. Jardunaldi eta emanaldietarako kanpotik kontratatutako profesionalak izango dira eta ikerketa zein artxibo lanetan boluntario ezberdinen laguntza izango du ordea.

Hezkuntza ekimenak

Soinueneako hezkuntza eskaintza bisita gidatuetan oinarritzen da hasieratik: "Erakusketako bisita gidatu hauetan mota guztietako hartzaileei Herri Musika eta herri soinu-tresnak era didaktiko, ulergarri eta entretenigarrian aurkezten"⁶⁰³ zaizkiela esaten da. Bisita gidatu hauek erakustaldiekin osatzen dira, eta museo tradizioaletako bitrina itxietatik aldenduz, bertako piezak atera, ukitu eta jo ere egin daitezke, hezitzaile zein bisitariak aukera hori izanik.

Bisitez gain, hitzaldi eta jardunaldiak ere oinarrizkoak izango dira museoko ikerketa lanen difusiorako. 2002tik aurrera HMT Jardunaldiak antolatzen dira eta 2004tik musikari lotutako zenbait ikastaro ere egingo dira. Museoko bilduma eta gaiari jarraituz, ezinbestekoak da musika emanaldien programazio bat izatea, eta hortaz, urtaro bakoitzari eskainitako kontzertu ugari antolatzen dituzte.

Era berean, eskualdean egiten diren ekitaldi bereziei loturik aipatzekoa da Oiartzunen ospatzen den Santa Barbara Egunerako elkarlana, Arditurri Parketxea eta Luberri Museoarekin batera ekitaldiak antolatuz. HMT-ren kasuan musika emanaldi bereziak egiten dira honelako egunetan.

Baliabide material propioei dagokionez, informazioa zabaltzeko buletin bat argitaratzeaz gain, ez da topatzen publikoari zuzendutako inolako hezkuntza material

⁶⁰³ Soinuenea. Jarduerak. <http://www.herrimusika.org/ekitaldiak/bisitak.php?&a=1&id=eu> (2015ko otsailaren 4an ikusia)

propiorik. Alabaina, CD, liburu eta beste hainbat argitalpen izango dituzte formatu fisikoan zein digitalean eskuragarri.

Publikoa

Ez da topatu publiko mota desberdinari zuzendutako hezkuntza eskaintzarik. Beraz, suposa daiteke publiko orokorentzat diseinatutako jarduerak burutuko direla eta, agian, taldearen adin motaren arabera behin behineko egokitzapenak egingo direla.

4.33. Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real - Arkeologia eta monumentu multzoa

Zarautzen, Santa Maria La Real elizako kanpandorrean indusketa arkeologikoak burutzen hasten da Aranzadi Zientzia Elkarteak 1997an, Erdi Aroko nekropoli baten aurkikuntza egiten dutelarik.. Indusketek aurrera jarraitu ahala geroz eta emaitza interesgarriagoak lortuz joango dira, eta hauek publikoari erakusteko beharra nabarmentzen da. Hortaz, 2001ko abenduan, arkeologia indusketaren irekiera puntualak egiten hasiko dira. Herritarren erantzuna zein egindako lana zabaltzeko interesagatik, Zarauzko Udala museo bat sortzeko ideiarekin inguruan lanean hasten da, eta hala, 2002ko ekainean, Zarauzko Arte eta Historia Museoa (aurrerantzean ZAHM) inauguratzen da elizako kanpandorrean⁶⁰⁴.

Urteek aurrera egin eta indusketek jarraitu zuten, ondare-gunearen tamaina handituz joango da: kanpandorreaz gain eliza lur-azpian hainbat arrasto topatzen dituzte. Hauek ere museoarekin batera erakusteko helburuarekin, Zarauzko Udala Santa Mariako Parrokiarekin akordio batera heltzen da 2004an⁶⁰⁵. Aldi berean GFA-rekin elkarlan hitzarmena sinatzen du ondare-guneen inguruan hezkuntza ekimenak aurrera eraman ahal izateko (Aranburu eta Vicent, 2009). 2005eko uztailetik aurrera Santa Maria La Real – Arkeologia eta Monumentu Multzoa izenez irekitzen da, ZAHM, kanpandorreko ondare-gunea eta elizakoa bere baitan hartzen zituena. Era berean, kanpandorreko erakusketa gunearen berrikuntza egiten da.

Azken urteetan, babes instituzionalaren gabeziak eta aurrekontuen beherakadak eragingo du museoaren irekiera geroz eta gehiago murriztua (Vicent, 2013), eta horrek ere ezinbestean eragingo du hezkuntza programa egonkor baten garapena eta gauzatzeari.

⁶⁰⁴ Zarauzko Arte eta Historia Museoa 2003. GFAAA. Sig. 25440/4

⁶⁰⁵ Zarauzko Udalak eta GFAk hitzarmena sinatu zuten 2004an gune horren aurrean jarraitu beharreko ildoak finkatzeko eta Lurralde-Museo bat eratzeke (Aranburu eta Vicent, 2009)

Hezkuntza saila

Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran egiten diren indusketetako emaitzen garrantzia dela eta, herriko elkarte batek – gerora enpresa bihurtuko dena – Zarauzko ondarea gizarteratzeko proiektu bat abian jartzen du. Hortaz, museoa inauguratzen denean hezkuntza eta ingurumen zerbitzuak eskainiko dituen enpresa honen esku geratzen da museoaren kudeaketa eta hezkuntza ekimenen ardura. Honen baitan lantalde propio bat sortzen da museoan, era egonkorrean arituko diren bi pertsonen osatutakoa eta aldizkako kontratazioekin beharren arabera. Lantalde txikia izanik eta enpresaren menpe egonaz, ez da hezkuntza sailik bereiziko, eta langile berdinen esku geratuko dira harrera lanak, taldeen arreta eta hezkuntza ekimenen gauzatzea. Enpresaren egitekoa kudeaketa orokorra, materialen diseinua eta koordinazio lanak izango dira, besteak beste.

2005an, kanpandorreko museoaz gain Santa Maria ondare-gunea irekitzen denean, bi enpresa ezberdinetan banatzen dira museoko lanak: Elizaren eta bertako ondarearen erakusketarako harrera lanak kultura zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa berri batek burutuko ditu; Dorreko museoaren, indusketako gunearen harrera eta dinamizazioa eta taldeekin hezkuntza ekimenak hasieratik horren ardura izan duen enpresaren baitan mantenduko dira (Aranburu eta Vicent, 2009).

Museoko lantaldeaz gain, jarduera berezietarako elkarlanak ere egingo dira. Alde batetik, EHU-rekin hezkuntza proiektu bat aurrera eramango da, non jarduera zein material ezberdinak proposatuko diren bisitari mota ezberdinei zuzenduta. Bestalde, ekitaldi berezietan herritar boluntarioen laguntza ere izango dute, Erromatarren Jardunaldietarako adibidez.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren irekieraren aurretik jada, aurrekari kontsideratu daitekeen hezkuntza proiektu bat gauzatzen da Zarautzen. 1998tik aurrera, gerora museoa kudeatuko duen enpresak, herriko ikastetxei zuzendutako proiektu didaktiko bat sortzen du, gai ezberdinak ardatz dituzten unitate didaktiko eta jardurekin. Era berean, 2001 amaieran, Zarauzko Udalak, indusketen emaitzak gizarteratzeko proiektu baten eskaera egiten dio enpresa honi zein indusketak burutzen ari den zientzia elkarteari. Horrela, 2001eko abenduan zenbait bisita gidatu egiten dira ondare-gunera adituen eskutik (Aranburu eta Vicent, 2009).

2002an museoa inauguratzen denean, proiektu ezberdinak abian jartzen dira. Alde batetik Museoaren Astea antolatzen da, non bisita gidatuez gain hitzaldi ezberdinak eskaintzen diren. 2003an bi programa berri diseinatzen dira museoari lotuta. Lehenengoa, “Hi bai artista!”, herriko sortzaile ezberdinen lanak ezagutzeko

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

erakustaldien bidezko bisitak gidatuak dira, artisten tailerretara egiten direnak⁶⁰⁶. Jarduera honi loturik, gainera, bideo bat ere sortuko da bisitaren aurretik eta ondoren erabili daitekeena. Bigarrenari dagokionez, EHU-ko ikerketa eta berrikuntza talde batekin elkarlanean arituta sortzen da, geroago M-Ondare deitzen den proiektua hain zuzen ere. Proposamen honen baitan zenbait ekimen burutzen dira. Abiapuntua *Menoscaren bila: arkeologiarekin jolasean* tailer arkeologikoak izango dira, beti ere lan egin delarik “bajo un modelo educativo constructivista, buscado (sic) la participación directa del alumno buscando un método que permita respetar el ritmo de cada individuo y que aporte libertad a la hora de trabajar” (Aranburu eta Vicent, 2009: 420). Ikerketa talde berak buruturik, 2004ean garairako berritzailea den proiektua aurkezten da, oraingoan jada M-Ondare izenarekin, “un programa educativo basado en el descubrimiento del patrimonio de manera activa y participativa, dando lugar a un aprendizaje basado en problemas” (Vicent, 2013: 225). Hortaz, hiru ibilbide proposatzen dituzte herrian zehar, Webquestetan oinarrituta, non gailu mugikorrek erabiliz ibilaldi autogidatua egiten duten bisitariak. Webquest hauek internet bidez deskargatzen dira, eta aldi berean web orri bat prestatzen da bestelako informazio gehigarria eskuratzeko.

Ibilbide hauen lehen frogak 2005ean egingo dira, eta gerora museoak kudeatzen duen enpresaren esku geratuko da programa, zeinak 2006an honen egokitzapena egingo duen museoako eskaintzan txertatzeko. Frogatutako hiru ibilbideetatik bat aukeratu eta zenbait moldaketen ondoren Menosca Espedizioa bezala aurkeztuko zaio publikoari. Era berean Zarautz Zure Eskuetan⁶⁰⁷ deituriko mapa digital bat diseinatzen du ikerketa taldeak, eta museoaren eskaintzan txertatzeko hau ibilbide gidatu bat bilakatzen da:

Gracias [...] al uso de los dispositivos móviles como GPS y PDA, los alumnos en poco más de una hora están preparados para realizar una visita autoguiada por la localidad. En ese recorrido definido por ellos mismos deberán recopilar la información que se les pide en cada punto, que posteriormente transformarán en una original guía turística (Vicent, 2013: 230)

⁶⁰⁶ *Zarauzko Arte eta Historia Museoa 2003*. GFAAA. Sig. 25440/4

⁶⁰⁷ Hau Euskal Herriko Unibertsitateak sortutako mapa kartografiko batzuk oinarritzat izanik diseinatzen da



Irudia 20: PDA-ren bitarteko jarduera (Iturria: ZAHM)

Hezkuntza jarduera hauekin batera, ipuin-kontaketa bidezko bisita gidatuak eskaintzen dira beranduago, eta hasierako urteetan frogatutako arkeologia tailerra ere eskaintza egonkorrean txertatzen da. Azkenik, Denboraren Bila programa diseinatzen da, joko baten bitartez “herri identitatea sustatu eta giza jarduerak ingurunean sortarazten dituzten eraginak”⁶⁰⁸ lantzeko.

Urte osoko eskaintza egonkor honetatik at, museoa inauguratzen denetik izaten dira aldizkako ekimen ezberdinen proposamenak. Alde batetik beste ondare-gune batzuk ezagutzeko irteerak antolatzen dira: Gasteizera, Oiasso Erromatar Museora, Santimamiñera edo Oteiza Museora; hitzaldi saioak eskaintzen dituzte museoan zein beste jardunaldi edo kongresuetan⁶⁰⁹; eta zine-forumak ere eskainiko dira Photomuseum-ekin elkarlanean.

2006an ekitaldi erakargarri bat aurkezten da Zarautzen: *Egun Erromatarra*, hurrengo urtetik aurrera *Erromatar Jardunaldiak* deituko dutena. Ordutik 2011ra bitartean urtero errepikatuko da programa honetan birsortze historikoa egiten da, artisauen erakustaldiak, tailerrak, jolasak eta abar ere eskainiz⁶¹⁰.

Azkenik, 2007an, memoria historikoaren berreskurapena oinarri duen Zarautz Zure Oroimenean proiektua abian jartzen dute museoan, herritarren testigantzak jasotzeko zein objektu materialen berreskurapen programa, aldi baterako erakusketa baten harira jaiotzen dena eta pixkanaka eskaintza egonkorrean txertatzeko ekintzak eginaz⁶¹¹.

⁶⁰⁸ “Zerbitzu didaktikoak”. Santa Maria La Real monumento multzoa. http://www.menosca.com/servicios_didacticos.php?idioma=eu (2015ko ekainaren 2an ikusia)

⁶⁰⁹ *Zarauzko Arte eta Historia Museoa 2003*. GFAAA. Sig. 25440/4

⁶¹⁰ *Memoria 2008*. ZAHM. Zarauzko Udala K.S.

⁶¹¹ *Memoria 2008*. ZAHM. Zarauzko Udala K.S.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Publikoa

Hezkuntza arautuko taldeei zuzendutako hezkuntza eskaintzari dagokionez, M-ondare proiektua DBH-ko etapara zuzentzen da lehenbizi, gerora batxilergora ere zabalduz. Museotik proposatzen diren beste tailerrak⁶¹² eta Denboraren bila programa aldiz LHko ikasle taldeei ere eskainiko dira. 5 eta 9 urte bitarteko haurrentzat gainera, bisita gidatuak ipuinen bidez eskaintzen dira.

Oinarrizko bisita gidatuak eta bestelako hezkuntza ekimenak – hitzaldiak, zinema zikloak eta ekitaldiak – publiko orokorrari zuzentzen direla pentsa daiteke. Honen baitan haurrentzako aldizkako eskaintza ere izango da, egun berezietako jolas eta tailerrekin. Azkenik, aipagarriak dira herritarrei zuzendutako programa bereziak, oroimenaren berreskurapenerako antolatutako tailerrak eta mahai-inguruak bezala.

Amaitzeko, sarreran aipatu bezala, Naiara Vicentek (2013), bere tesian, PDA-ren erabileraren inguruko hezkuntza programaren, eta horren intzidentziari buruzko lana burutzen du. Era honetara, museoak eta UPV-EHU-ren arteko elkarlanetik jaiotako proiektuari jarraiki, ebaluazio lan bat aurkitzen dugu.

4.34. Luberri. Oiartzungo Ikasgune Geologikoa

2000. urtetik aurrera, Aranzadi Zientzia Elkarteko geologia sailaren eskutik, fosil eta mineralen erakusketa ibiltariak sortu eta herriz herri lekualdatzen dituzte, lurraldeko bisitari banakoek zein eskola taldeek bisitatu ditzaten. Erakusketen interesa ikusirik eta ikaskuntzarako baliagarriak izan daitezkeela antzemanda, Oiartzungo Udalak Aranzadi-rekin hitzarmen bat sinatzen du, zeinaren bitartez museo bat egokitzeko espazioa, materiala eta laguntza ekonomikoa eskaintzen zaion elkarteari. Horrela jaiotzen da Luberri, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa, 2003ko martxoan inauguratzen dena.

Espazio horretan fosil eta mineral bilduma kokatzeaz gain, geologiaren ezagupenerako hainbat ekimen burutzen dira, beste eragile batzuekin elkarlanean edota Aranzadiren eskutik abiatutakoak⁶¹³, aldi baterako erakusketa zikloak zein hezkuntza programa bat garatuz lehen urtetik.

Hezkuntza saila

Museoaren irekieratik bildumaren jabea den zientzia elkarteak izango du bertako kudeaketaren ardura. Honen baitako geologia saileko bi pertsonak osatuko dute

⁶¹² Memoria 2006. ZAHM. Zarauzko Udala K. S.

⁶¹³ Luberri memoria 2003. LOIGA

museoaren lantalde egonkorra, eta aldizkako hezitzaileen kontratazioa egingo da beharren arabera⁶¹⁴.

Hezkuntza ekimenak

Inaugurazio urtetik aurrera bisita gidatuak izango dira eskainitako jarduera nagusia. Urte batzuk igaro ondoren eta behin beharrezko materiala prestatuta, tailerrak ere eskainiko dituzte, “Lantegi didaktiko”⁶¹⁵ deituak. Tailer hauetan material geologikoa atera, garbitu, osatu eta sailkatzeko teknikak ikasteko aukera ematen da; hauen azterketa burutzen da mikroskopia eta lupen bitartez; edota harri eta mineralen ezaugarriak ikertzeko prozesuak ikasten dira⁶¹⁶.

Hezkuntza jardueri loturik, “Luberriren koaderno didaktikoak” diseinatzen dira, eskolako etapa bakoitzera egokitutakoak, hala nola irakasleei zuzendutako dossierrak⁶¹⁷. Hauei jarraiki, 2005an bisita gidatuetan erabiltzen hasten dira ere karroak. Hauetan eramaten dituzten erakusketan zehar landuko diren gaiak lotutako fosil eta mineralen ereduak, bisitariak ikusi, ukitu eta ezagutu ditzaten modu zuzenago batean, hala nola material grafiko lagungarria azalpenak emateko⁶¹⁸.

Museotik at, *Geolantegiak* deiturikoa eskaintzen da: “salidas, visitas guiadas, prospección supervisada de rocas y minerales, talleres de clasificación, (y) excavaciones paleontológicas”⁶¹⁹ barne hartzen duen jarduera mota. Irteera gidatu hauek hezkuntza programaren parte badira ere, ekitaldi edo egun berezien harira antolatuko dira ere, publiko orokorrari ere parte hartzeko aukera eskainiz.

Zenbait taldeen interesa dela eta, 2013 eta 2014an bi ikastaro eskaintzen dira jubilatutaldee zuzenduta Geologia eta Meatzaritzari buruz; eta 2014an hitzaldi batzuk ere egiten dituzte ikastetxe batzuetan. Eskualdeko beste museoak bezala, ekitaldi berezietan ere parte hartzen dute hezkuntza eskaintza berezia sortuz Santa Barbara Eguna edota MNE ospatzeko helburuz.

Publikoa

Bisitari orokorrei irekita egonda ere, Luberrik hasieratik “tiene una clara orientación didáctica, se ha diseñado pensando en que pueda servir a los escolares (Bidegain, 2003). Bisitarien zifrek adierazten dutenez, oro har, portzentaje oso altua da eskola taldeena eta hortaz, hauei zuzendutako hezkuntza programa izango da nagusi hasieratik.

⁶¹⁴ Memoria 2003. LOIGA

⁶¹⁵ Luberrí memoria 2006. LOIGA

⁶¹⁶ Memoria Luberrí 2009. LOIGA

⁶¹⁷ Oíartzungo Udala 2004. GFAAA. Sig. 28794/3

⁶¹⁸ Luberrí Memoria 2005. LOIGA

⁶¹⁹ Memoria Luberrí 2009. LOIGA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Bestalde, 2012tik aurrera, oporraldi programa bereziak ere diseinatzen dira, aisialdi taldeak hartzen dituzte udaldietan eta urtean zehar eskainitako jarduerak – bisitak eta tailerrak – moldatzen dira hauentzako programazioa osatzeko⁶²⁰. Era berean, jubilatutaldeenentzako ere antolatu izan dira zenbait ikastaro eta hitzaldi ere; baina, orokorrean bestelako ekimen guztiak publiko orokorrari zuzendutakoak direla esan daiteke.

4.35. Egurraren Museoa/ Aizkorriko Ataria/ Anduetza Parketxea

Imanol Artolak urte luzez jaso eta biltzen ditu egur pieza ezberdinak, bertakoak zein atzerrikoak diren egur moten bilduma garrantzitsua osatuz. Arantzazuko seminario zaharreko biltegi batean hainbat urtetan gordeta izan ondoren, pieza haiek museo batean erakusteko proposamenaren inguruan lanean hasiko da Zegamako Udalarekin batera (Requena, 2007). GFA-ren laguntzari esker Udalak Anduetza Baserrira zaharberitzen du, herriaren tontor batean aurkitzen den eraikin historikoa, eta bertan inauguratzen da Egurraren Museoa 2003ko uztailan.

Lehen urteetan museoak ez du irekiera jarraitua izango: Zegamako turismo bulegotik bideratuko dira zenbait talderen bisitak, hots, beharren arabera irekitzen da museoak eta eskaripean. Hiru bat urte beranduago, eta museoak indartu nahian, aldi baterako zenbait erakusketa antolatzen hasten dira bertan, irekiera jarraituagoa izanik eta aldi berean turismo bulegoaren funtzioa betez.

2010an museografia eta diskurtsoa aldatu eta Aizkorriko Natura Parkeko harrera gunea izateko prestatzen da, “para poner en conocimiento de la sociedad el valor de los recursos naturales de este lugar” (Rekondo, 2010). Museoa berriz irekitzen da Aizkorriko Ataria izenarekin eta erakusketa iraunkor berri batekin. Baina irekieratik denbora gutxira, eta museoak Aizkorriko Natura Parkean kokatzen denez, GPS Fundazioaren menpe geratzen da eta Anduetza Parketxea bilakatzen da orain, Gipuzkoako beste Natura Parkeetako harrera guneen maila berean ipiniz.

Hezkuntza saila

2003-2005 bitartean Zegamako Udalak kudeatuko du museoak, Egurraren Museoaren ardura turismo bulegoaren lantalde berak izango duelarik. 2005an turismo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da, non pertsona bat kontratatzen den harrera lanak egin eta bisitak bideratzeko. Urte batzuk beranduago, bertako langileak enpresa propioa sortu eta museoaren kudeaketaz arduratuko da 2014 arte, beste bi lankiderekin batera.

⁶²⁰ Memoria 2012. LOIGA

Azkenik, 2014an eta behin GPS Fundazioaren menpe, ingurumen hezkuntzara dedikatzen den enpresa batek jasotzen du museoaren dinamizatzeko ardura. Orduetik aurrera bi pertsonaz osatutako lantalde egonkor bat sortzen da, aldizkako hezitzaile gehiagoren laguntza izango dutelarik. Ingurumen enpresako egoitza nagusitik kudeaketa orokorra, administrazio lanak eta beste hainbat eginkizun orokor bideratuko dira, eta Anduetzan bertan taldeen harrera, programazioaren osaketa eta ekimenen gauzatzea burutuko da. Hala ere, ez da inoiz hezkuntza sailik bereiziko, museoaren lantalde txikia dela eta egiteko guztiak kideen artean banatzen direlarik.

Hezkuntza ekimenak

Lehen urteetan museoeko jarduerak bisita gidatu arruntetara mugatzen dira, turismo bulegotik kudeatzen diren herriko ondare-guneen beste geldiune bat bilakaturik. Pixkanaka, beste zenbait jarduera ere eskaintzen hasiko dira: tailerrak ikastetxeentzat eta ibilbide gidatuak museoaren eta beste ondare-guneak lotuz⁶²¹.

Hamarkadaren amaieran eta behin turismo bulegoaren menpekotasuna alderatuta, hezkuntza programa bat osatzen da sei ibilbide gidatu ezberdinekin – museora bisita ere barne hartuz – eta bi tailer mota aurkezten dituenak. Honekin batera, lehen material didaktikoak sortzen dituzte eskolako etapa desberdinetara egokituta.

Museoaren Parketxe bihurtzetik aurrera eta GPS Fundazioko programazio dinamikaren baitan, hezkuntza programa indartu egiten da, mota ezberdinetako jarduerak eta adin-tarteak handitzen direlarik. Hauei zuzendutako material berriak ere sortzen dira ibilbide eta tailer berriei egokitutakoak – ikasleentzako koadernoak – .

Egun berezi eta ekitaldiak ere antolatzen hasiko dira urte osoko programaziotik haratago – nahiz eta museoak, hasieratik parte hartzen duen herrian antolatzen diren ekitaldi kultural ezberdinetan –. Urtero Aizkorriko Lagunen eguna ospatzen da, hauetan ibilaldi gidatuak eginaz Natura Parkera. Bestalde, Erlezain Eguna edota Zuhaitz Eguna bezalakoetan ere ibilbide gidatuak zein tailerrak eskaintzen dituzte: taloak egitekoa eta kandelagintzakoak. Urte osoan zeharreko asteburu eta jaiegunetan gainera, gai ezberdinak ardatz dituzten ibilbide gidatu bereziak antolatzen dira: sarrietara, saguzarrak ezagutzekoak, indusketa arkeologikoetara, artzainen lana ezagutzekoak; erakustaldi eta tailerrak egiten dira: gazta eta mamia ezagutu eta egitekoa edota indusketa batean parte hartzeko aukera eskaintzen dutenak; mitologiako ipuin kontaketa proposatzen dituzte txikienentzako; eta hitzaldi bat ere izango dute arkeologo baten eskutik.

⁶²¹ Zegamako turismo bulegoaren eta Egur Museoaren sustapena eta dinamizazio lanak. 2008ko martxoa. ANPA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Publikoa

Lehenbiziko urteetan bisita eta ibilbideen eskaintza orokor bat egongo dela suposa daiteke, hots, publiko orokorrari zuzendutako ekimenak izango direla. Hamarkadaren amaieran zenbait aldaketa eman badira ere, oraindik honakoa aipatzen a hezkuntza eskaintzaren harira: “Unitate didaktiko hauetan lantzen diren edukiak eta ematen diren azalpenak ikasleen adinera egokituak izango dira”⁶²². Beraz, zuzentzen diren etapa edota talde motaren inguruko daturik ez da jasotzen.

Parketxe bihurtzarekin batera hiru bisita mota desberdintzen dira: bananakoek egindakoa; hezkuntza formaleko taldeena eta “txangoak” edo beste talde mota batzuek egindakoak. Banakako eta txangoen kasuan erabilitako materialak eta edukiak oso antzekoak dira, publiko orokorrari zuzendutako ekimenak izango dira gehien bat. Hala ere, ekitaldien baitan, haurrei zehazki proposatutako ekimenak izango dira, ipuin kontaketa edota tailerrak kasu. Hezkuntza formaleko taldeen kasuan eskaintza hori material zehatzez osatzen da eta hiru talde motei zuzentzen da: LH, DBH eta Batxilergoko etapakoak.

4.36. Bentalekua

Mutrikun, XVI. mendeko arrantzaleek osatutako San Pedro kofradiaren eraikinetako bat zaharberitu, eta bertan kokatzen du Udalak Bentalekua Museoa. Herria eta itsasoaren arteko erlazio estuaren erakusgarri izango den gune bilakatzeko helburuaz⁶²³ irekitzen den espazio honetako ardatza “Mutriku eta itsasoa” erakusketa iraunkorra izango da⁶²⁴. 2003an museoa inauguratzen da, eta hurrengo urtean turismo informaziorako funtzioa izango duen espazio bat atxikitzen zaio, “un punto de información exterior y recepción de visitantes”⁶²⁵. Orduetik, erakusketa espazio izateaz gain, turismo bulego funtzioa betetzen hasten da Bentalekua, Mutrikun bertan zein kostaldeko jarduera turistikoak kudeatuz. Euskal Kostaldeko *Geoparkea*⁶²⁶ sortzen denean, museoa sarearen parte izatera igarotzen da, eta orduetik eskaintza bateratuan parte hartuko du bertako ekimenetan, zenbait jarduera bertatik bideratuz.

⁶²² Aizkorriko Atariaren Hezkuntza eskaintza. ANPA

⁶²³ *Proyecto Debabarrena turismo. Elaboración del Documento del Plan de Dinamización 2004-2006*. Memoria global. Fondo social europeo. 2000-2006. BMA

⁶²⁴ Bentalekua. Mutriku turismoa. In

http://www.mutriku.eus/turismoa/museoak/bentalekua/bentalekua/view?set_language=eu (2015ko apirilaren 4an ikusia)

⁶²⁵ *Bentalekua 2004*. GFAAA. Sig. 28794/1

⁶²⁶ Geoparkea. In <http://geoparkea.com/es/> (2015ko urriaren 30an ikusia)

Hezkuntza saila

Museoaren inaugurazio urtetik eskualdeko garapen agentziaren esku geratzen da. Honetatik kontratatutako pertsonak izango dira museoko eta turismo bulegoko lantaldea osatuko dutenak, hala nola bertatik eskaintzen diren jarduerak burutzeko arduradunak.

Hezkuntza ekimenak

Bentalekutik bi jarduera mota eskainiko dira hasieratik: bisita gidatuak erakusketara eta ibilaldi gidatuak. Azken hauek herriko zonalde historikoan egiten dira edota Flyscha ezagutzekoak kostaldean, 2007tik aurrera martxan jartzen direnak. Jarduera hauei loturik ez da inolako baliabide material berezirik sortzen.

Publikoa

Publiko orokorrari zuzendutako eskaintza bakarra egiten da hasieratik, eta suposa dateke eskaeraren araberrako moldaketak egingo direla, adina zein talde motari egokituz eduki eta jarduerak.

4.37. Ardixarra Etxea. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa

Segurako herriak hoberen kontserbatu den Erdi Aroko herri guneeetako du lurraldean, monumentu-multzo izendatua izan dena. Hainbat mendeetan zehar mantendu izan du bere forma urbanoa eta baita zenbait eraikin eta egitura ere. Segurako Udalak, herri-gunean aurkitzen den XVI. mendeko Ardixarra Etxearen balio historikoa kontutan izanik, eraikina erosten du laurogeita hamarreko hamarkadan, eta jarraian hasten dira bertan turismo eta kulturara bideratutako espazio baten sorrerarako birgaitze lanetan⁶²⁷.

Zenbait urteko lanen ondoren irekitzen da eraikina 1999an, hasiera batean soilik Segurako turismo bulego bezala⁶²⁸. Baina espazio hark eskaini ahal dituen aukerak antzemanda eta bide batez herriko historiarekin lotura izango duen gunee bat eratzeko, Ardixarra Etxean Erdi Aroari lotutako erakusketa iraunkor bat sortzeko proiektuari ekingo zaio. Honela, 2004ko uztailaren 30an inauguratzen da Erdi Aroko Interpretazio Zentroa eraikineko hirugarren solairuan, turismo bulegoa eta erabilera anitzeko

⁶²⁷ GFA eta EJ-ren diru-laguntzaren babesarekin. 1.997ko urtarrilaren 30eko Ohiko bilkura. Segurako Udala. SUA. Sig. P97-1-30

⁶²⁸ *Ardixarra etxearen historia laburra*. Segurako Udala K.S.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

espazioarekin partekatzen duen gunea⁶²⁹. Orduetik I.Z.-a eta turismo bulegoa aldi berean kudeatuko dira, herriko kultura jarduerak ere bertatik bideratuz.

Hezkuntza saila

Museoaren kudeaketa Udalaren esku geratzen da lehen urteetan, harrera lanak zein taldeekin jarduerak burutzeko langileak kontratatzen dituelarik. 2006 eta 2014 bitartean turismo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da museoak, pertsona bat kontratatzen delarik bertako funtzio guztiak betetzeko. 2014ko udan, Udalak kudeaketa bere gain hartu eta bi pertsona kontratatzen ditu museoaren jarduerak eta harrera lanak burutzeko, beti ere turismo bulegoko egitekoekin batera. Egoera guztietan Ardixarrako lantaldeak oso txikiak izan dira – pertsona bat edo bi – eta beraz, ez da hezkuntza sailik sortu. Hortaz, funtzio guztiak beteko dituzten arduradunak berdinak izango dira, egunerokotasunari lotutakoak alegia.

Hezkuntza ekimenak

Lehenbiziko urteetan museoaren irekiera udako garaietara mugatzen da, eta burutzen diren jarduera bakarrak erakusketara bisita gidatuak eta herrian zeharreko ibilaldi gidatuak izango dira.

2006tik aurrera eskaintza zabaltzen da eta zenbait programa diseinatzen dira publiko motari egokitu. Gainera, “ikastetxe ezberdinek, nahiz bestelako taldeek [...], bisitaldiak egiteaz gain, unitate didaktiko ezberdinak lantzeko [...] aukera (dute)”⁶³⁰. Bisita gidatu arruntez gain, ibilaldi antzeztuak ere egingo dira egun zehatz batzuetan edo eskaripean⁶³¹. Tailerren kasuan, gaztagintza, erlezaintza eta bolatearenak proposatuko dira. Urte osoko programa hauetaz gain, herriko egun berezietan ere parte hartuko du museoak era aktiboan. Bereziki azpimarragarria da “Segura Gure Erroetan Murgilduz”, bi urtez behin herrian egiten den Erdi Aroko festa, non museoarekin elkarlana oinarrizkoa den. Era berean, herrian antolatzen diren hitzaldi edota bestelako kultur ekimenak ere Ardixarra etxean gauzatuko dira.

Publikoa

Publiko orokorra izan zen eskaintzaren hartzaile nagusia, bisita zein ibilaldi gidatuei dagokionez, hala nola ekitaldi berezietarako antolaturiko ekintzenak. Hasieratik jarduera guztiak, oro har, “produktu turistiko” bezala diseinatzen ziren eta beraz, hezkuntza funtzioa bera eskolako taldeekin egiten ziren ekintzetara mugatzen zen.

⁶²⁹ *Erdi Aroaren Interpretazio Zentroko irekiera prentsaurrekoa 2004an*. Segurako Udala K.S.

⁶³⁰ Segurako eskaintzaren eskuorria

⁶³¹ Erdi Arora Bidaia. Aldabe Z.T. In <http://aldabe.com/top-esperientziak/erdi-arora-bidaia/> (2015ko ekainaren 26an ikusia)

Azken kasu honetan ez zen zehazten zein mailari zuzentzen zen eskaintza hori, baina suposa dezakegu eskaeraren araberrako moldaketak emango zirela ekintza zein materialetan.

4.38. D'Elikatuz. Elikadura eta gastronomia gunea eta Goierriko Interpretazio Zentroa

2003an Ordiziako Udalak herrian aurkitzen den Barrenetxe eraikinaren erabilpenerako "Plan de Actuación Municipal. Plan Estratégico y de Gestión de D. Unanue" aurkezten du. Honen baitan, espazio horretan turismoari lotutako zein elikadurarekin erlazioa duen gunea bat irekitzeko ideia planteatzen da, eta plana onartu bezain laster hau errealitate bihurtzeko eraikinaren obrak hasten dira⁶³². 2005ko martxoaren 17an⁶³³ inauguratzen da ofizialki D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia gunea eta Goierriko Interpretazio Zentroa, "(para) ser un centro de referencia en la cultura de la gastronomía y la alimentación saludable a nivel del estado, con proyección mundial"⁶³⁴. Hasieratik bi ardatzen inguruan lan egingo da: Goierriko turismoa sustatzea eta elikadura osasuntsuaren inguruko zentro eredugarria izatea. Lehenengoari loturik indar berezia egin zen Zentroa eta Goierriko erreferentziazko elikadura gunek lotzeko – Ordiziako Azoka protagonista izanik –, bide batez eskualdeko ezagupenerako jarduerak sustatuz; eta bigarrenarekin erlazionatuta D'elikatuzetik kanpo difusio eta ikerketa lan ezberdinak abian jarriko dira, elikadura osasuntsuaren inguruko kanpaina adierazgarriak gauzatuz.

Hezkuntza saila

Museoa inauguratzen denetik hezkuntza zein kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek kudeatzen du zentroa, eta honen egoitza nagusitik kudeaketa orokorra bideratzen den bitartean, bi pertsonetako lantalde bat osatzen da museoan bertan, egunerokotasuneko lanak burutzeko. 2008an, herrian bertan sortzen den enpresa batek hartuko du erreleboa, eta ordutik honen esku egongo da museoaren kudeaketa. Enpresa berri honek bi pertsonaz osatutako lantalde egonkorra izango du, eta hirugarren pertsona baten aldizkako kontratazioa egingo da hezkuntza ekimenak zein harrera lanak burutzeko.

⁶³² K6 enpresak aurkeztutako "Proyecto del Espacio de Alimentación y Gastronomía" eraman da aurrera. *Contratación K6. Espacio Alimentación y Gastronomía 2004*. OUA. Sig. K831

⁶³³ *Proyecto de dinamización del centro D'elikatuz*. OUA. Sg: K688

⁶³⁴ *Proyecto de dinamización del centro D'elikatuz*. OUA. Sig. K688

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Hezkuntza ekimenak

Lehenbiziko urteetatik D'Elikatuzeko urte osoko hezkuntza programak bi oinarri izango ditu. Alde batetik, zentrora egiten diren bisitak eta herrian burutzen diren ibilaldi gidatuak; eta beste alde batetik baserrietara edota ekoizle gunetara egiten diren bisitak. Hortaz museoko erakusketa ikusi, Ordiziako azoka bisitatu, edota baserrietan gaztagintza, frutagintza edota ogigintza bertatik bertara ezagutu daiteke⁶³⁵. Urte osoko programazio honen baitan tailer eta jolasak ere gehituko dira ondorengo urteetan, bisiten osagarri direnak - *A ze marka!* adibidez –⁶³⁶. 2013tik aurrera, gainera, txikien herriko historia ezagutzeko ipuin kontakizun bidezko bisita gidatuak ere eskaintzen hasiko dira. Hezkuntza arautuko taldeentzako material didaktikoa ere sortuko dute, koaderno eta fitxak ezberdinez osatuta eta adin-tarte bakoitzari egokituta.



Irudia 21: Ikasleak azoka bisitatzen (Iturria: DEGZA)

Eskaintza egonkor horren baitan, D'Elikatuzen, 2006tik hasita, elikadurari, baratzari edota bizitza osasuntsuari buruzko hitzaldi saioak antolatuko dira, "D'Elikatuz bizi" programaren parte direnak⁶³⁷. Hitzaldiez gain hainbat ikastaro egingo dira sukaldaritza osasuntsua edota elikadura jokabideei buruzkoak.

Hauekin batera, jaiegun eta oporraldi garaiko ekimenak ere proposatuko dituzte museotik, hala nola Elikaduraren Eguna, Nutrizioaren Estatu Mailako Eguna edota MNE bezalakoak ospatzeko. Oporraldiei dagokionez, "Gabonak D'Elikatuz" programa gauzatzen da 2006tik aurrera, non azokan erostea sustatzeko helburuarekin hainbat jarduera proposatzen diren: jolasak, tailerrak, kafe-kontzertuak eta hitzaldiak, adibidez. Udaldietan ere tailer eta jolas ezberdinez osatutako programak diseinatzen dituzte.

⁶³⁵ Bi programa hauek eskualdeko elkarte batekin elkarlanean burutzen dira

⁶³⁶ *Memoria 2005*. DEGZA

⁶³⁷ *2006ko txostena. D'Elikatuz*. DEGZA

Bestelako egunetan, azokako produktuei lotutako sukaldaritza ikastaroak, bisita gidatuak produktu ezberdinen dastatzeekin edota sagardotegira bisita eta dastatze saioak antolatzen dira. Era berean, beste museo eta eragile batzuekin eskaintza bateratua ere egingo dute: Idiazabal Gaztaren Interpretazioaren Zentroarekin batera edota Tolosaldea eta Goierri ezagutzeko eskaintza bereziaren parte izango dira⁶³⁸. Aldizkako jarduerak izan badira ere, aipagarria da 2009an “*Idiazabal gaztaren eragin turistikoa*” jardunaldiak antolatzen direla⁶³⁹; edota bideo eta dokumentalen emanaldiak egiten dituztela zenbait urtetan elikadura, kirola edota herriko historiari lotutakoak.

Publikoa

D’Elikatuz Zentroak banakako zein taldeentzako hezkuntza eskaintza izango du hasieratik. Banakakoen kasuan publiko orokorrari zuzendutako jarduerak nagusitzen dira. Hauen baitan, ordea, haurrentzako eskaintza berezia izango da oporraldi garaian, tailer eta jolas bereziak diseinatuz horientzat.

Taldeei dagokionez bi eskaintza desberdintzen dira. Hezkuntza arautuko taldeen kasuan, hasieran LH eta DBH-ko etapentzako programak soilik sortzen dira, eta gero HH-ra ere zabaltzen dute. Beste talde moten kasuan ez da desberdintzerik egiten, nahiz eta bisitari datuetan aipatzen diren elkarteak, jubilatutako taldeak eta helduen hezkuntzako bisitariak izan dituztela. Hortaz, suposa daiteke beste motako taldeei egokitzen diren jarduerak antzekoak izango direla, bisita eta ibilaldi gidatuetan oinarritzen direnak.

4.39. Algorri. Zumaiako natur baliabideen Interpretazio Zentroa

Zumaiako Udalak herrian kokatutako antzinako hiltegiaren eraikina zaharberritzen du bertan Algorri, Zumaiako Natur Baliabideen Interpretazio Zentroa irekitzeko. 2005ko ekainean inauguratutako espazio berria jaiotzen da “con el objetivo de investigar, proteger y sobre todo divulgar el impresionante patrimonio geológico de uno de los afloramientos más espectaculares e importantes del mundo: el Flysch de Zumaia” (Hilario, 2006: 54).

Algorrin erakusketa iraunkor bat egokitzen da ingurune geologikoari buruzko informazioa jasotzeko, baina aldi berean, Flyscha ezagutzeko ibilaldien abiapuntu

⁶³⁸ Ordizian Turismoa. In <http://www.delikatuz.com/eu/zerbitzuak/ordizian-turismoa> (2016ko abenduaren 15an ikusia)

⁶³⁹ Memoria 2009 urria. DEGZA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

izateko ere sortzen da, ingurune natural hark duen bisitarien fluxua bideratzeko asmotan. Museoa ez ezik, ikerketa gune izateko helburua ere izango du hasieratik, ikerlarientzat laguntza eta aholkularitza zerbitzu bezala funtzionatuko duelarik, hala nola lanak burutzeko beharrezko elementu guztiak eskainiz: Internet konexioa, liburutegia, egonaldiak burutzeko erraztasunak eta abar.

Algorriren irekieratik urte batzuk igaro ondoren Flyscha biotopo babestua izendatuko da eta horrek, noski, I.Z.-ren izaera eta funtzioa indartuko ditu (Hilaro, 2008). Era berean, Geoparkearen sorrerarekin batera eskaintza bateratuaren parte bihurtzen dira Algorriko zenbait ekimen.

Hezkuntza saila

2005 eta 2009 bitartean turismo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek kudeatuko du zentroa. Enpresakako egoitza nagusitik gestio orokorrak, administrazio lanak eta antolaketa burutuko dira, eta Algorriko egunerokotasuneko lanetarako lantalde bat osatuko da, hots, hezkuntza ekimenak burutu eta harrera lanetarako⁶⁴⁰. Honi lotuta azpimarratzen da “(que) las salidas son guiadas por personal licenciado bien cualificado y buen conocedor del afloramiento, lo cual transmite sensación de seriedad y de calidad” (Hilaro, 2008: 8).

2009tik aurrera hezkuntza eta ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek jasotzen du zentroaren kudeaketaren ardura. Honek ere antolamendu sistema bera jarraituko du, lantalde propioa sortuz museoan hezkuntza ekimenak burutzeko.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren “eskaintza didaktikoaren helburua da bioaniztasuna eta paisaia balioan jartzea eta babesteko beharraz kontzientziaztea, iraunkortasun-parametroekin, Zumaian dauden natur-guneak eta ondare geologikoa ezagututa eta aztertuta⁶⁴¹. Honen baitan, museo bertara egiten diren bisita gidatu arruntez gain ingurune naturalera ibilaldiak ere gehitzen dituzte lehenbiziko urtetik. Bi ibilaldi mota eskaintzen dira Algorritik: oinezkoa eta itsasozkoa. Oinezkoetan lau bide mota egiteko aukera dago eta itsasontzizkoetan Urola ibaia, Algorri edo Zumaia-Deba ibilbidea eskaintzen da. Museoko bisita edota ibilaldiak osatzeko tailer didaktiko bat sortzen dute, non mapa, arroka, fosil eta paisaiak erabiliz puzzle bat osatzen den (Hilaro, 2006); eta oporraldi garaian sormenari loturiko tailerrak ere eskainiko dituzte.

⁶⁴⁰ Trabajos realizados. Begi Bistan. In http://www.begi-bistan.com/es/trabajos_realizados.asp (2014ko urriaren 27an ikusia)

⁶⁴¹ Ikastetxeak. In <http://www.algorri.eu/eskolak/#two> (2014ko urriaren 27an ikusia)

Hezkuntza programa egonkor hauei loturik unitate didaktikoak diseinatzen dira, Algorri Zentroan bertan erabiltzeko lan fitxak, eta “helburu nagusia ingurumenarekiko jarrera arduratsuak bultzatzea”⁶⁴² delarik. Horrekin batera, ibilaldi gidatueta erabiltzeko euskarri grafikoak ere sortzen dituzte: “una herramienta fundamental ya que las nuevas tecnologías permiten eralborar gráficos, esquemas, dibujos y montajes fotográficos atractivos y fáciles de entender” (Hilario, 2006: 59). Gailu mugikorren erabilera ere sustatuko da Algorrin azken urteetan, ibilaldi gidatuak bakarka egiteko audio-gida den APP bat sortzen baitute⁶⁴³.

Publikoa

Algorriko eskaintza bitan banatzen da bisitari motaren arabera: “Bisitak” deiturikoa, publiko orokorrari zuzendutakoa; eta “ikastetxeak”, hezkuntza formaleko taldeentzako. Azken hauen kasuan, LH eta DBH-ko taldeei zuzendutako programak soilik sortzen dira, baina 2009tik aurrera LH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketara ere zabaltzen dute. Aipagarria da ekitaldi edo egun berezietan haurrentzako hezkuntza jarduerak ere proposatzen dituztela, tailerrak kasu; hala nola helduei zuzendutako hitzaldi, ikastaro eta ikuskizunak ere.

4.40. Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa

Idiazabal gaztagintzari estuki lotuta dagoen herria da. Hori dela eta, laurogeita hamarreko hamarkadan gaztaren jatorrizko izendapenaren inguruko ekimen bati ekiten dio Udalak, eta honetatik abiatuta jaiotzen da museoaren ideia:

museo bat beharrezkoa ikusi genuen, praktikan gertatzen den bezala, asko dira, Idiazabalen, gaztaiaren inguruko gaiak, eta herriak ez du honen inguruan zer eskeinia (sic). Adibideak izan dira. Batere publizidade (sic) eta propagandarik gabe, jende batek, gaztaia (sic) egiten zen lekua ikusi nahi zuela eta, herrira hurbildu ziren⁶⁴⁴

Museoaren sorreraren aurretik, beraz, artzainen lana ikusteko zenbait bisita gidatu burutzen dituzte jada eskualdeko elkarte batzuk, baina gaztaren inguruan sortu ahal den proiektu indartsuago bati ekiteko unea antzematen du Udalak. Hortaz, herrialde ezberdinetako gazta museoak bisitatuko du talde batek, espazioaren antolaketa eta zerbitzuak ezagutzeko, hala nola jarduera didaktiko eta turistikoa nolakoa den

⁶⁴² Unitate didaktikoak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/actividades/actividad.php?id=eu&Nactivid=1268669580&Nmu seo=1257176519&desde=0> (2014ko urriaren 27an ikusia)

⁶⁴³ App. In <http://www.algorri.eu/zumaia-audio-gida-app/> (2016ko abenduarek 4an ikusia)

⁶⁴⁴ *Gazta* Museoaren inguruko dokumentazioa. IDUA. Sig. 223-4. 1 or.

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

ezagutzeko⁶⁴⁵. Proiektu honek, oro har, oso argi duen ikuspegi bat planteatzen du hasieratik: “Potenciar, dinamizar y desarrollar actividades relacionadas con el queso de Idiazabal desde un enfoque tractor para el turismo”⁶⁴⁶.

Urteetan zehar museoa sortzeko zein herriko interes-gune ezberdinak egokitzeko lanak gauzatzen dira. Azkenik, 2005ko abenduaren 14an inauguratzen da Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa⁶⁴⁷. Espazio horretara mugatu baino, hasieratik gazta ekoizleekin eta produktuari lotutako beste eragileekin elkarlana proiektuaren oinarria bilakatzen da, beti ere turismoa ardatz nagusi izanik.

Hezkuntza saila

Lehenbiziko bi urteetan hezkuntza eta kultura zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek kudeatzen du museoa, oinarrizko harrera lanetarako pertsona bat kontratatzen delarik. 2007tik aurrera turismo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratu da eta honek, aurreko enpresaren antzera, pertsona baten kontratazioa egiten du, kudeaketa lan orokorrak enpresaren egoitzatik bideratzen direlarik.

2011an herriko Gazta Elkarteak hura ireki eta dinamizatzeko ardura hartuko du hilabete batzuek, baina 2012an, berriz ere, enpresa baten esku geratzen da museoa, honek antolakuntza berdina errepikatzen duelarik; kudeaketa orokorra egoitza nagusitik eta harrera lanetara bideraturiko pertsona baten kontratazioa⁶⁴⁸.

Hezkuntza ekimenak

Lehenbiziko urtetik jarraitu den programa dinamika oso antzekoa izango da: Bisita gidatuak museora, gazta dastatze batez amaitzen direnak, eta bisitak erakustaldiekin, non gazta ekoizleen produkzio-guneetara bisitak egiten diren. Hauetaz gain, hezkuntza eskaintza egonkorrean bisitaren osagarri modura txertatzen dira zenbait jolas, ginkana moduko proposamen bat non herriko gune ezberdinak ezagutzeko aukera ematen zaien bisitariei. Tailerrak ere eskainiko dira: gazta egitekoak baserri batean eta eskulangintzari lotutakoak, bisitarien sormena bultzatzeko⁶⁴⁹, eta baita herrian zehar ibilaldi gidatuak ere.

Beste museo batzuekin elkarlan edo eskaintza bateratuen kasuan, Ordiziako D'Elikatuzekin batera Idiazabalgo ibilbidea eta Igartubeiti Baserri Museoarekin batera sargardoarena proposatuko dira azken urteetan.

⁶⁴⁵ *Gazta* Museoaren inguruko dokumentazioa. IDUA. Sig. 223-4. 3 or.

⁶⁴⁶ *Turismo-IdiazabalGazta* 1993. IDUA. Sig. 180/5. 1 or.

⁶⁴⁷ *Turismo*. 2005. IDUA. Sig. 507/1

⁶⁴⁸ Museoaren kudeaketari lotutako hainbat dokumentu. IDUA

⁶⁴⁹ Hezkuntza eskaintza. In <http://www.idiazabalturismo.com/images/pdf/Idiazabalheziketaker.pdf> (2016ko abenduaren 14an ikusia)

Publikoa

Jarduera guztiak publiko orokorrari zuzentzen dira hasiera batean, eta suposatzen da talde motaren arabera egokitzapenak egingo direla. 2012tik aurrerako eskaintza bi publiko motari bideratutakoa da: “Bisita turistikoak”, non publiko orokorra kontsidera daitezkeen banakakoak zein taldeak barne hartzen diren; eta “hezkuntza eskaintza”, LH eta DBH-ko etapetara egokituta.

4.41. MATER Itsasontzi Museoa

Pasaian itsasoarekin erlazio estua duen lagun talde batek Itsas Gela Elkarteak sortzen du 2001an, itsas kulturaren ezagutza sustatu eta hau udalerraren garapen jasangarriaren medio bihurtzeko asmoz (Suberbiola, Gartzia, León, Aramberri eta Correa, 2012). Elkarteak urtetan Pasaian gordetzen den ondare materiala kontserbatu eta itsas munduarekin erlazioa dutenen testigantzak jasoko dituzte. Desagertzearen ondare ugariaren artean, Mater izeneko Getariako ontzi bat berreskuratzen dute; izan ere, garai hartan EJ-k egurrezko flota zaharkitua ordezkatzeko dirulaguntzak eskaintzen hasia da eta ontzi hauetako asko galtzeko arriskuan aurkitzen dira. Honela, Mater itsasontzia berreskuratu eta museo bezala egokitzen dute, 2005an publikoari irekiez eta Espainian ur gaineko lehen museoa bihurtuz (Suberbiola et.al., 2012). Itsas Gela elkarteak abian jarriko du orduan

una actuación de pedagogía pública en Pasaia con un marcado carácter experimental [...] (que) nace de las fronteras de disciplinas como la pedagogía y la museología, y está orientada a promover la acción social, la mejora de la comunidad en la que hemos ubicado nuestra actuación (León Guereño, 2015: 107)

Ontzitik haratago, Pasaia eta gertuko kostaldearen ezagupena zabaltzea izango dute helburu hasieratik, eta espazio horretara mugatu baino, beste jarduera ezberdin asko burutzeko oinarria bihurtzen da MATER museoa. Proposaturiko jarduera guztiek bi ildo nagusi izango dituzte oinarrian: turismo arduratsua eta ingurugiro hezkuntza.

Hezkuntza saila

Museoa irekitzen den urtetik Itsas Gela Elkarteak izango da itsasontzia eta bere jardueren kudeaketaren arduradun bakarra:

un equipo interdisciplinar de profesionales: científicos marinos, historiadores, guías turísticos, animadores, marineros, pescadores, y en general, amantes de la mar [...]. Además [...] su equipo de trabajo se encuentra en constante proceso de formación y evaluación para la mejora de sus servicios (Leon Guereño, 2015: 141)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

2008an aipazen denez, museoak du “una tripulación de 3 personas para atender las labores de educación ambiental”⁶⁵⁰. Lantalde propioaz gain, hainbat elkarlan proiektu gauzatuko dira: 2001an Saiotek ikerketa proiektua garatzen da EJ-rekin batera; eta EHU-ko Berril@b taldearen baitan “Pasaialde irudikatzen” proiektua aurrera eramaten da, ondarearen inguruko egitasmoa (Leon, Suberbiola, Gartzia, Aramberri eta Correa, 2013).

Hezkuntza ekimenak

MATER-eko oinarrizko jarduerak bisita gidatuetan oinarritzen dira, non itsasontzia nolakoa zen, zein funtzio betetzen zuen, bertako arrantzaleak nola bizi ziren eta abar ezagutzeko aukera eskaintzen duen ontziak. Era berean, ontzian itsasoratzeke aukera ere eskaintzen da eta inguruko paisaia ezagutzeko aukera ematen zaie horrela bisitariei. Arrantzaleen esperientzia bizitzeko proposamena ere egiten da 2008tik aurrera, “Itsastar gaua” ekintza aurkeztuz eta gaueko egonaldia eginaz ontzian bertan⁶⁵¹.

Museoko bisita eta itsasoratzeek gain, herriko kokagune garrantzitsuak ezagutzeko ibilaldi gidatuak ere egingo dira 2006tik, Ontziola eraikuntza gunea, San Pedroko lonja, AZTI ikerketa gunea, Pasaiako Portua eta beste hainbat espazio bisitatzeko aukeraz⁶⁵².

Hezkuntza programaren baitan zenbait tailer ere proposatzen dira: 2006tik biodibertsitatea, historia, arrantza, kostaldea, kutsadura eta ozeanografia eta klima gaiak ardatz dituzten tailerrak egin dira; eta pirata eta arrantza jokoak ere egiten dituzte, altxorraren bila modukoak, bisita gidatua era jostagarrian egiteko⁶⁵³.

Egun berezietan eta oporraldietan bisita, ibilaldi, tailer eta jolas hauetako batzuk eskainiko dira. Horrekin batera eta egun zehatz batzuetako eskaintzaren baitan, dokumental emanaldi bat izan antolatzen da 2012an, eta urte beretik aurrera “Itsas solasaldiak” deituriko hitzaldi saioak programatzen dira. Era berean, eta paisaiaren zainketaren inguruan kontzientziatzeko, hondartza zein kostako zonaldeak garbitzeko jarduerak antolatzen dira, espazio hauen kutsaduraren eta egoeraren agergerri direnak⁶⁵⁴.

⁶⁵⁰ *Itsas Gela. Memoria de actividades pedagógicas a bordo del buque escuela MATER 2008*. GFAAA. Sig. 471976. 8 or.

⁶⁵¹ *Itsas Gela jarduera programa - Ikastetxeak 08-09*. MIMA

⁶⁵² *Propuesta de abono de la subvención concedida a Itsas Gela- Aula del Mar*. GFAAA. Sig. 30824/3

⁶⁵³ *Itsas Gela jardueren txostena 2005-2006*. MIMA

⁶⁵⁴ “Ekojarduera” deituriko programen barruan, “Azterkosta/Coastwatch” edo “Hondakinen arrantza” bezalakoak. <http://www.matermuseoa.com/index.php/eu/ekoaktibitateak> (2016ko abenduaren 27an ikusia)

Programa ezberdinen ebaluazioa ere aipatzen da topatutako dokumentazioan: “dentro de su metodología de trabajo realiza varias evaluaciones para poder mejorar la actividad en sí. Una de estas evaluaciones es la que el visitante realiza sobre la actividad en cuestión”⁶⁵⁵.

Material didaktikoari dagokionez, jada 2006an aipatzen da “maila ezberdinetara egokitutako Unitate Didaktiko bereziak garatu ditu(ztela), baliabide ikus-entzunezkoak, simulazio jolasak, laborategi esperimentuak edota barku irteerak erabiliz, honela, ikasleek ukituz eta jolastuz itsasoaz ikas dezaten”⁶⁵⁶.

Publikoa

Museoa inauguratzen denetik “se crea un amplio programa de actividades dirigido al público en general, y en especial a jóvenes y niños en edad escolar que complementa la propia exposición” (Suberbiola et.al., 2012: 492). Hezkuntza formaleko taldeen kasuan LH, DBH eta Batxilergoko taldeentzako eskaintza sortzen da. Publiko orokorraren kasuan, talde eta bisitari motaren arabera edukiak eta metodologia egokitzen direla soilik aipatzen da.

4.42. Oiaso Erromatar Museoa

Irunen eta Oarsoaldeako eskualdean hirurogeiko hamarkadaren amaieratik burutzen hasiak dira zenbait indusketa arkeologiko, zonaldearen iragan erromatarraren aztarnak agerian uzten dituztenak: Ama Xantaleko ermitakoak, Juncaleko elizaren plazako aurriak edota antzinako portu batekoak. Laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera indusketak areagotu egingo dira Arkeolanen eskutik (Barandiaran eta Urteaga, 2007).

Erromatar garaiko aztarna guztien garrantzia ikusirik, Irungo Udala museo baten sorrerarako proiektuaren inguruan lanean hasten da 1996tik aurrera. Lehenengo pausoa espazio egoki baten bilaketa izango da, Irunen bertan existitzen diren eraikin zaharrak birgaitu eta museo bezala egokitzeko ideia oinarri izanik. Ekimena martxan hasia den bitartean, Udalak aukeran duen eraikinetako baten atzealdean erromatar garaiko terma batzuk aurkitzen dira, hain zuzen ere antzinako eskola publikoetan. Gertaera hori erabakigarria izango da museoa bertan ipintzearen erabakia hartzeko (Urteaga, 2012).

Eraikinaren zaharberritze lanei ekiten zaion bitartean proiektu museografikoa prestatu eta lehen jarduera didaktiko eta difusiozkoak gauzatzen dira, herritarrek irekiko den

⁶⁵⁵ *Itsas Gela. Memoria de actividades pedagógicas a bordo del buque escuela MATER 2008.* GFAAA. Sig. 471976. 9 or.

⁶⁵⁶ *Ingurugiro Hezkuntza Jarduerak 06/07.* MIMA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

museoaren eta bere bildumaren berri izan dezaten. Azkenik, 2006ko uztailaren 21an Oiasso Erromatar Museoa inauguratzen da, zentro aktiboa, dinamikoa eta jasangarria izateko helburua izango duena hasieratik. Era berean, Irunen bertan existitzen den Ama Xantalen ermitako museoa Oiassoren baitan geratzen da une horretatik aurrera, era independentean funtzionatzeari utzi eta eskaeraren araberako aldizkako irekierara mugatuko delarik.

Hezkuntza saila

Arkeologia fundazio batek eta kultur zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batetik sortutako ABEB batek kudeatu du hasieratik museoa. Bertako lantalde egonkor bat osatzen da, eta horren baitan hezkuntza sail propioa eratzen da koordinatzaile bat eta zenbait hezitzailez osatua. Langileen etengabeko formakuntzak garrantzi handia izango du, eta hortaz, hezkuntza arloa, ondarea zein erromatar garaia buruzko hainbat ikastaro eta kongresuetan parte hartuko dute.

Hezkuntza ekimenak

Museoko bisita gidatuak lehenbiziko urtetik egiten dira, bai Oiasso Museora zein Ama Xantalen ermitara. Bi gune hauek bisitatzeko gainera Tren Berdean mugitzeko aukera ematen zaie bisitariei, bide batez hiriko beste gune batzuk ezagutzuz. Irteerei dagokionez, erromatar ondarearen ezagupena zabaltzeko asmoz, museotik hainbat bidaiak antolatzen dituzte bestelako hiri erromatar batzuk zein museo desberdinak ezagutzekoak, nazioarte mailako egonaldiak ere eginaz.

Hauekin batera, erakusketa iraunkor,aldi baterako edota egun bereziei loturik tailer eta jolas ezberdinak diseinatzen dira, bisita orokorren osagarri moduan: Erroma eta zinema deiturikoan erromatar garaiko antzerkiak egiteko aukera ematen zaie bisitariei, hauek grabatu, bideoa editatu eta hura sare sozialetan partekatuz⁶⁵⁷; *Alea jacta est* izenekoan erromatar garaiko jolas erraldoia sortzen dute, non “lau taldek hainbat proba gainditu beharko dute azken helburua lortu ahal izateko eta erromatarren garaiko jokorik ohikoenen arteko batzuk ezagutuko dituzte: dadoak, tortolosak, hiru lerroan, ludus latruncularum edo duodecima scripta⁶⁵⁸; eta azkenik, Montserrateko estela eraikitzen tailerrean, arkeologoek nola lan egiten duten ezagutu ahal dute eta “Egiptoko misterioak” deiturikoan idazkera hieroglifikoa ikasi, mahai jolasetan aritu eta komikiak sortu. Egonkorrek diren jolas eta tailer hauen osagarri moduan, 2009. urtean belaunaldi arteko tailer bat egiten da “Las escuelas del museo”⁶⁵⁹ izenekoak: “Se trata

⁶⁵⁷ K6- Arkeolan UTE IRUN. GFAAA. Sig. 4721/6

⁶⁵⁸ Alea jacta est. In <http://www.irun.org/oiasso/home.aspx?tabid=828> (2014ko otsailaren 24an ikusia)

⁶⁵⁹ Oiasso 2009. GFAAA. Sig. 5057/2

de encuentros entre personas mayores y niños de 7 a 11 años, en los que las diferentes generaciones comparten un espacio de intercambio y de transmisión de la memoria vivida por lo mayores hacia los jóvenes” (Barandiaran eta Urteaga, 2007: 95). Jokoei loturik, 2014an “Herkulesen 12 probak” deituriko APP bat sortzen dute museoan, jolas hezitzaile bat gailu mugikorretan erabiltzekoa⁶⁶⁰. Aplikazio honek ez du bisitarietzako audio-gida arrunta izateko helburua, baizik era ludikoan museoaren sekretuak ezagutzeko tresna erakargarri bat. Joko honen bidez bisitariak museoan zehar mugitzen dira eta erakusketan ikusten dutena erabiliz hainbat froga igaro behar dituzte, Herkulesek bezala, 12 ezberdin gainditu arte. Era berean, Alea jacta est jokorako taula erraldoia eta material gehigarriak sortzen dituzte, eta baita beste jolasetan erabiltzeko mozorro eta tresnak ere.

Museoko ikerketa jarraitu eta difusio lanei loturik, 2005. urtetik antolatzen dute EHU San Telmo Museoarekin batera museo eta ondare-guneei buruzko kongresu bat; eta 2012tik bi urtean behin *Ondare Bizia* proiektuaren baitan beste jardunaldi batzuk burutzen dira Museum Cemento Rezolarekin elkarlanean⁶⁶¹. Hauetaz gain, irekiera urtetik jada hitzaldi eta ikastaro ugari antolatzen dira, museoan bertan zein kanpoan – EHU-ko Udako Ikastaroen baitan adibidez – .

Ekitaldiei dagokienez bi dira nagusiki aipatu beharrekoak. Alde batetik, nazioarte mailan ospe handia lortuko duen FICAB – Festival Internacional de Cine Arqueológico del Bidasoa –, museo beraren irekiera aurretik jada martxan jartzen dena (Urteaga, 2012). Bertan arkeologia, historia eta ondarearekin erlazionatutako filmen proiektzioa eta lehiaketa ospatzen da, hala nola beste hainbat jarduera osagarri, ikastaro eta hitzaldi zikloak bezala. Bestalde, 2010tik aurrera *Dies Ojassonis* jaialdia ospatzen da Irunen, Isis jainkosari eskainitako itsas irekieraren zeremonia, *Navigium Isidis* delakoa birsortzen duen festa (Noain, 2012), urteroko ekintza geroz eta osatuagoak direlarik eta Irungo panorama kulturalaren txertatze arrakastatsu batekin. Honetan ere musika emanaldiak, kaleko birsortzeak, tailerrak eta beste hainbat jarduera burutzen dira, herriko eta eskualdeko eragile ezberdinekin elkarlanean.

⁶⁶⁰ Herkulesen 12 probak. In <http://www.irun.org/ojasso/home.aspx?tabid=901> (2015ko ekainaren 4an)

⁶⁶¹ Ondarearen inguruko egitasmo zabalagoa da, non, beste jardueren artean, bi urtean behineko jardunaldiak antolatzen diren

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Irudia 22: Dies Oiassonis
(Iturria:
www.txikisdelbidasoa.com)



Publikoa

Publiko orokorrari zuzendutako ekintzak ekitaldi berezietara, bisita arruntetara, ikuskizunetara eta irteeretara mugatzen dira. Honen baitan helduentzako zehazki antolaturiko hitzaldi eta ikastaroak zein zinema jaialdia aurkitu daiteke⁶⁶². Haur eta gazteen kasuan, oporraldi eta asteburu-tako tailer eta jolasak izango dira nagusi.

Taldeei dagokienez, mota ezberdinetako taldeei egokitutako eskaintza dago: hezkuntza arautu, aisialdi talde eta elkarteei zuzendutako bisita, tailer eta jolasak egiten dira urte osoan zehar, eta suposa daiteke adin eta talde motaren arabera egokitzen direla berdina den eskaintza honen baitan. Aldizkako proposamen bat izaten bada ere, euskaltegi-tarako sortzen dute “hitzetan murgilduz” ekimen berezia, museoko bisita bereziak euskaraz hitz egin eta praktikatzeko aukerarekin⁶⁶³.

4.43. Sagardoetxea. Euskal Sagardoaren Museoa

Sagardoari dedikatutako espazio bat sortzeko proiektua aspalditik existitzen da Gipuzkoan, eta jada 1986an GFA-ren Kultura Sailak materialen berreskurapena eta kokalekuaren bilaketari ekiteko gomendioa egiten du (Izaguirre, 1988). 2003an Sagardun Elkartea sortzen da “turismoaren bitartez Euskal Herriko sagardoaren

⁶⁶² *Oiasso Erromatar Museoko memoria 2009*. OEMA

⁶⁶³ Oiasso programa 2011. In http://www.liceus.com/cgi-bin/ac/age/ej11_actividadesoiasso.pdf (2016ko azaroaren 9an ikusia)

kulturaren sustapen soziokulturala egiten duen Partzuergo publiko-pribatua⁶⁶⁴, Astigarragako Udalak, sagardotegi ezberdinak eta kultur talde batzuk osatuta. Elkartearen ekimenenetako bat izango da sagardoari dedikatutako museoaren sorrera, eta horrela, zenbait urteko lanen ondoren, 2006ko urrian inauguratzen da Sagardoetxea, Astigarragako Kultur Etxea izandako erakinean.

Museoan sagarraren historiara zein egungo egoerara gerturatzeko espazio ezberdinak sortzen dira, barneko erakusketara mugatzen ez direnak eta jardueren baitan aukera zabala eskainiz: erakusketa gunea, sagastia eta dastatze-gunea. Beste espazio batzuetan gertatzen den bezala, kasu honetan ere museoak ez du funtzionatuko entitate isolatu bat bezala eta Elkartek berak garaturiko programei estuki lotuta egongo da hasieratik, askotan bien arteko jarduerak banaezinak bihurtuz.

Hezkuntza saila

Museoaren irekiera urtetik Sagardun Partzuergoak du museoaren kudeaketa osoaren ardura, eta hortaz, honek kontrataturiko lantalde propioa sortzen da, hezkuntza ekimenak ere hauen baitan geratuz.

Hezkuntza ekimenak

Urte osoko hezkuntza eskaintzaren baitan bisita gidatuak egiten dira nagusiki, erakusketa eta kanpoko espazioetara bisita arrunta edota txikienei zuzenduta “Dasti ipuin kontalari”aren bitartez egiten dena, ipuin baten bidez sagardoaren inguruko edukiak lantzeko aproposa⁶⁶⁵. Era berean, bisitak urtaroaren arabera aldatu egiten dira, lau programa ezberdinetan banaturik urteko eskaintza.

Gainera, bisitez gain tailerrak egiteko aukera ere eskaintzen da hauetan, non zuhaitzen landaketa, sagar bilketak, inausketak edota produktuen dastatzea egiten den. Sagardoetxean gainera hezkuntza material berezia sortuko dute jarduera hauek aurrera eramateko: lau karro ezberdin diseinatzen dira, mugikorrek diren lau laborategiren antzera, urtaro bakoitzeko edukiak landu eta zentzumenen bidez ezagutzeko sagardoaren prozesu osoa: landaketa, polinizazioa, podatzea eta abar⁶⁶⁶. Era berean, bisiten aurretik zein ondoren erabiltzeko fitxa eta koadernoak sortzen dituzte, hala nola “Sagardoaren hiztegia” liburua⁶⁶⁷. Tailerrekin batera, museoko edukiak lantzeko jolasak ere eskaintzen dira taldeentzako. “Sagardogileak aurrera!”

⁶⁶⁴ Sagardun. Sagardoaren bizitza. Astigarraga. In <http://www.sagardun.com/eus/nor-gara/> (2015ko ekainaren 1an ikusia)

⁶⁶⁵ Museoko jarduerak. In <http://www.sagardoetxea.com/eu/museoaren-jarduerak> (2015ko ekainaren 1an ikusia)

⁶⁶⁶ *Actividades 2009*. SMA

⁶⁶⁷ *Actividades 2008*. SMA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

oka jolasaren moldaketa egiten dute, bisitan agertutako edukiak era ludikoan lantzeko joko moduan.

Eskaintza egonkorraren baitan ere zenbait ikastaro antolatzen dituzte: fruitukulturari buruzkoak, sagar landaketaren errendimenduaren ingurukoak, fruituen kudeaketarako, udako zainketarako edota sagardoaren analisirako; bai museoan bertan zein beste gunen batzuetan. Horrekin batera, 2008tik aurrera *Sagardo Forum* jardunaldiak ospatzen dira⁶⁶⁸.

Eskaintza egonkorraren baitan, urtean zeharreko jaiegun eta ospakizunei lotutako ekimenak ere proposatzen dira Sagardoetxeatik, zenbait urtetan aldatzen diren ekimen motak tartekatuz. Urte osoko tailerrez gain, sagar prentsatzea edota kirikoketa ikastaroak antolatzen dira, sagardotegietan bisita gidatu eta gazta zein sagardo dastatzea egunak finkatzen dira, udaberrian Musika Sagastian deituriko ekimena aurkezten da Norberto Almandoz Musika Eskolako hurren elkarlanean, edota Barrikotea egiten da, gaztaina eta sardina zaharren dastatze eguna. Era berean, herrian bertan zein eskualdean antolatzen diren bestelako ekitaldietan ere parte hartzen du museoak, Sagardo Berriaren Eguna edota Txotxaren hasierako ekitaldian; eta beste museo batzuekin ere aldizkako bono bateratua proposatzen da – Ondartxo edota Aquariumarekin adibidez – .

Publikoa

Lau bisitari mota desberdintzen ditu Sagardoetxeak: banakakoak, taldeak, ikastetxeak eta euskaltegiak. Banakakoen kasua publiko orokorra deiturikoaren barnean kontsideratu genezake. Taldeen baitan ez da desberdintzerik egiten, beraz, suposa dezakegu hauentzako programa adin eta talde motara egokituko direla; baina aisialdi taldeentzako eskaintza berezia egiten dutela zehazten da. Hezkuntza arautuaren kasuan, LH eta DBH-ko etapetara egokitutako eskaintza sortzen da eta euskaltegientzat “Mintza praktika Sagardoetxean” programa eskaintzen da non bisita gidatu batez gain sagardo munduko hitzak ezagutu eta lantzeko ekintzak burutzen diren⁶⁶⁹.

⁶⁶⁸ “Gran afluencia de gente en «Sagardo Forum»”. Sagardoetxea. In http://www.sagardoetxea.com/noticias-y-agenda/noticia-detalle/archive/2009//news/gran-afluencia-de-gente-en-sagardo-forum/?tx_ttnews%5BbackPid%5D=22&cHash=d7295d5a2271e59ad420153a04f6e9ee (2015ko ekainaren 22an ikusia)

⁶⁶⁹ Sagardoetxea-Euskaltegiak: Jardunaldi baterako proposamena. In http://www.sagardoetxea.com/eu/berriak-eta-agenda/berri-xehetua/archive/2009//news/sagardoetxea-euskaltegis-propuesta-para-una-actividad-conjunta/?tx_ttnews%5BbackPid%5D=22&cHash=7cf0d06daae9e3e6d497ee578e324dbd (2015ko ekainaren 4an ikusia)

4.44. Nautilus. Mutrikuko geologiaren Interpretazio Zentroa

Urte luzez Esperanza Azkarraga eta Jesús María Narvaez fosil eta pieza ugariaren bilduma bat osatzen dute. Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean⁶⁷⁰ horiek erakusteko espazio baten proiektuari ekiten diote orduan. Mutrikun erakusketarako espazio bat egokitu ondoren inauguratzen da Nautilus, Mutrikuko Geologiaren Interpretazio Zentroa, 2007ko abuztuaren 3an, Mutrikuko Udala, Debegesa eta Aranzadiren arteko lankidetzatik (Chico, 2007). Geoparkearen sorrerarekin batera eta Mutrikuko Bentalekua bezala, herriko eskaintza turistikoa zein museoetakoa sarearen eskaintzaren parte bihurtzen da.

Hezkuntza saila

Irekiera urtetik aisialdi zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek kudeatuko du zentroa⁶⁷¹. Honela, lantalde txiki bat osatuko da museoko harrera lanak eta ekimenak burutzeko, enpresako egoitza nagusitik kudeaketa orokorra zein koordinazio lanak egingo direlarik. Egoera honetan ez da hezkuntza sail berezirik eratuko eta egiteko guztiak lantaldeko kideen baitan banatuko dira.

Hezkuntza ekimenak

Nautiluseko erakusketa iraunkorreko bisita gidatuez gain, oinarrizkoak izan dira natur-gunean egindako ibilaldi gidatuak. Oinezko bisitak egingo dituzte Flyschera edota Saturraranera, baina baita barku bidezko ibilaldiak ere⁶⁷². Bisiten osagarri moduan, 2012tik aurrera, taldeei zuzendutako tailer didaktikoak diseinatzen dira fosilak eta geologiari buruzkoak⁶⁷³.

Publikoa

Alde batetik, bisitari orokor deiturikoentzat bisita gidatu arruntak eta ibilaldiak eskainiko dira. Bestalde, hezkuntza arautuko taldeentzako programa zehatzak eta etapa bakoitzari egokitutakoak diseinatzen dira, LH, DBH, Batxilergoa, Unibertsitatea eta

⁶⁷⁰ Oiarzungo Luberrri Ikasgune Geologikoaren lantaldearekin harreman estua izango du proiektu honek, bertako kideak zein museo berriaren sustatzaileak Aranzadi Zientzia Elkarte bereko partaide baitira

⁶⁷¹ *Trabajos realizados*. Begi Bistan. http://www.begi-bistan.com/es/trabajos_realizados.asp (2014ko urriaren 27an ikusia)

⁶⁷² *Memoria Nautilus 2009*. NMGIZA

⁶⁷³ *Hezkuntza eskaintza 2012-2013*. In <https://es.scribd.com/doc/105811394/nautilus-2012-2013-1#fullscreen> (2014ko urriaren 27an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Lanbide Hezkuntzakoentzat zehazki. Bisita eta ibilaldiak etapa guztietarako egokitzen badira ere, LH eta DBH-koentzat soilik eskaintzen dira tailerrak.

4.45. Arditurri meatze gunea/ Arditurri parketxea

Oiartzunen, Aiako Harria Natura Parkearen barnean aurkitzen da meatzaritza gunea garrantzitsu bat, erromatarren garaitik ustiatzen dena. Mendez mende kokaleku hura gizatalde ezberdinentzako lehengai iturri izango da, 1985 bertako ustiaketa lanak eteten diren arte (Rekondo, 2009). Meategi zuloa eta horren inguruan sortutako azpiegitura guztiak utziak dauden garaian Arkeolan taldeak, Felix Ugarte Elkartearen laguntzaz, bertako zonaldearen azterketa burutuko du (Rementeria, 2005).

Lehen indusketa eta ikerketa lanetatik abiatuta zein aurkitutako aztarnen garrantzia antzemanda, Oiartzungo Udalak 1989an lursailak erosten ditu, eta 2006tik aurrera meategiaren zein inguruko azpiegituren berreskurapenerako ekimena martxan jartzen du.

Meategiaren berreraikuntza eta publikoaren bisitarako egokitzearekin batera – non 800 metrotako pasagune bat ipini eta argiztapen sistema bat ezartzen den –, bertako harrera gunea izango den laborategi zaharren eraikina zaharberritzen da. Espazio hau Arditurriko Interpretazio Zentroa bezala inauguratzen da 2008ko ekainean⁶⁷⁴, oraindik lanean diharduen arkeologo taldearen ikerketak guztiz amaitu baino lehen. Urtebete beranduago, GPS Fundazioan integratzen da ekipamendu hau, Arditurri Parketxea bilakatuz eta Gipuzkoako beste Natura Parkeetako ekipamenduekin batera funtzionatuz.

Hezkuntza saila

Arditurri inauguratzen denean bi lantalde ezberdin arituko dira hezkuntza ekimenak burutzen: Alde batetik, meategira bisitak egingo ditu arkeologia fundazio batek; bestetik, Interpretazio Zentroa kudeatzeko eta bertatik hezkuntza programa garatzeko ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat kontratatzen da. GPS Fundazioaren integratzearekin batera, bi espazioak era bateratuan kudeatuko dira eta hortaz, Arditurriko harrera lanen ardura duen ingurumen enpresaren esku geratzen da Parketxeko ardura. Horrela, enpresaren egoitza nagusitik burutuko da kudeaketa orokorra eta koordinazio lan nagusia, eta Parketxean hezitzaile talde bat osatuko da,

⁶⁷⁴ Oiartzungo Udalak sustatuta eta GFA zein EJren laguntzaz (Rekondo, 2009)

lau pertsona egonkorrez osatutakoa. Lantalde txikia izanik, ez da hezkuntza sailik osatuko eta ekimenen diseinu eta gauzatzea guztien artean banatuko da⁶⁷⁵.

Hezkuntza ekimenak

Lehenbiziko urteetan hezkuntza eskaintza bisita gidatuetara mugatuko da, non I.Z.-z gain meategia ere ikusteko aukera dagoen. Azken honetan bi aukera desberdin proposatzen zaizkio publikoari: meategira bisita arrunta edo “meategia sakonean” deiturikoa, egokitutako pasabidetik kanpora irten eta beste galeria batzuk ezagutzekoa⁶⁷⁶.

2010-2011 ikasturtearekin batera, taldeei zuzendutako hezkuntza programa bat egonkor eta zabalago bat osatzen da. Aurretik existitzen diren bisita gidatuez gain, oraingoan ibilaldi gidatuak ere egiten dira Aiako Harria Natura Parkean zehar. Bisita eta ibilaldien osagarri moduan, jolas ezberdinak diseinatzen dira Arditurrin, edukien lanketarako altxorraren bila, oka jolasa, zuhaitzen identifikazio jolasa eta orientazio jolasa bezalakoak proposatuz. Hauekin batera, tailerrak ere egiten dira, taloa egitekoak adibidez⁶⁷⁷.

Hezkuntza programari lotuta hezkuntza arautuko etapa bakoitzari egokitzen diren koaderno didaktikoak sortzen dira, hala nola jolas eta tailerretarako beharrezko materialak: oka jolas erraldoia “Intxisuen jolasa” egiteko taula eta fitxak, edota altxorraren bila zein orientazio jolaserako mapak eta frogak. Azken urteetan, gainera, Arditurrin bertan burutzen diren jolas eta tailer horiek beste espazio batzuetan egiteko aukera eskainiko da, elkarte edota ikastetxeetara mugitu daitezkeen jarduera ibiltariak sortuz⁶⁷⁸.

Asteburu eta oporraldi garairako programazio egonkorra ere osatuz joango dira. Horrela, hainbat bisita gidatu berezi eskaintzen dira adituen eskutik: erromatarren garaiei buruzkoak, narrasti eta anfioak ezagutzekoa, txori kantuak entzutekoak edota leku izenei buruzkoak. Tailerrak ere antolatuko dira urte osoko eskaintzatik at: gastronomikoak – artisau gazta dastatzea – edota arkeologiari lotutakoak – tekniken erakustaldiak eta frogatzeko aukera – .

Honekin batera, Arditurrik eskaintza egonkor bat finkatuko du urteko egun zehatzei lotuta. 2011tik aurrera Arditurri Eguna antolatzen da, Bide Berdeen Eguna 2012tik, eta Santa Barbara Eguna ere Oiartzungo beste eragileekin batera. Guzti hauetan bisita bereziak, jolasak eta tailerrak nahastuko dira. Era berean argazkigintza ikastaroa

⁶⁷⁵ Arditurriko arduradunarekin izandako elkarrizketa, 2015ko otsailaren 23an

⁶⁷⁶ *Arditurriko historiaren memoria laburra*. AIZA

⁶⁷⁷ Arditurri Parketxea. Hezkuntza eskaintza. ARPA

⁶⁷⁸ *Hezkuntza ekimenak. Materiala*. AIZA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

antolatzen da urtero, gaueko nahiz kobazulo barruan argazkiak ateratzeko teknika ezberdinak ikasteko⁶⁷⁹.

2012tik Txondorraren inguruko proiektu bat garatuko dute ere, non txondorra egiteko prozesu osoa ikusgai izango den Parketxeko eraikinaren kanpoaldean. Prozesuari hasiera zein amaiera emateko festa egunak antolatzen dira, eta era berean hezkuntza arautuko taldeentzako bisita bereziak prestatzen dituzte, baita honi egokitutako material berezia ere.



Irudia 23: Txondorra Arditurrin (Iturria: GPS Fundazioa)

Publikoa

Lehenbiziko urteetan garatzen den eskaintza publiko orokorrari zuzenduta dago. 2010tik aurrera hezkuntza arautuko taldeei zehazki zuzendutako programa bat garatzen da, LH, DBH eta Batxilergoko taldeentzako hain zuzen ere – azken urteetan LH eta DBH-ra soilik mugatuz –.

Banakakoen kasuan, helduei zehazki zuzendutako jarduera bakarra argazkigintza ikastaroa izango da, eta tailer eta jolasak haurrei egokitutakoak izango dira. Beste ekimen guztiak publiko orokorrentzat diseinatuak dira ordea. Era berean, talde mota ezberdinen arabera eskaintza berezirik sortzen ez den arren, suposa daiteke beharren arabera moldatzen direla Arditurritik osatzen den hezkuntza eskaintza.

4.46. Leitzarano. Uraren Interpretazio Zentroa

Andoainen, Leitzarango biotopoaren natur ondarea ezagutzeko espazioa irekitzen da 2008ko uztailaren 31an: Leitzarano Bisitarien Etxea. Multzo hau bi espaziorik osatuta egongo da: Alde batetik Uraren Interpretazio Zentroa, eta bestetik Arrantza Eskola

⁶⁷⁹ *Ebentoak*. AIZA

(Olano, 2008). Ekimen hau Andoaingo Udalak sustatuko du, GFA eta EJ-ren laguntzarekin batera. Proiektu honek Andoaingo eta eskualdeko turismoa sustatzeko helburua izateaz gain, natur ondarearen inguruko kontzientziazio eta kontserbaziorako jarreraren sustapena izango du hasieratik oinarri, horretara bideratutako jarduera eta baliabideak sortuko direlarik.

Zenbait urte irekita egon ondoren, 2012.urte inguruan Bisitarien Etxea Turismo Aktibo Gune bihurtzen da⁶⁸⁰; I.Z. edo museo izaera alde batera utzi eta kirol jarduerak eta natura uztartzen dituen proiektu berri baten funtzionatuko du hurrengo urteetan. Funtzio berria bereganatu eta hilabete batzuk geroago Leitzarango zentroa itxi egingo da, eta aldizkako irekierara mugatuko du bere jarduera.

Hezkuntza saila

2008 eta 2012 bitartean ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da zentroaren kudeaketa. Honen baitan, pertsona bat kontratatzen da harrera lanak zein taldeekin jarduerak burutzeko.

Hezkuntza ekimenak

Zentrorra bisita gidatuak egiteaz gain, ibilbide gidatuak burutzen dira inguruko bideetan zehar. Ibilbide hauetako batzuk, gainera, bizikletaz zein segway-ez egiteko aukera eskaintzen zaio publikoari. Egun bereziei loturik antolatzen dira ere zenbait ekimen, eta hala, Bide Berdeen Eguna ospatuko da urtero Leitzararen bisita gidatu eta ibilaldi bereziekin⁶⁸¹. Guztiak publiko orokorrari zuzendutako ekimenak dira, eta eskaeraren arabera taldeei egokitzen direnak⁶⁸².

4.47. Ekainberri

Ekaingo kobak 1969an aurkitzen dira Deban, Antxieta Arkeologia Taldeko kide ziren Andoni Albizuri eta Rafael Rezabali esker. Horren ondoren, Jose Migel Barandiaranek, lehen indusketa arkeologikoak zuzentzen ditu 1969 eta 1975 bitartean (Barandiaran eta Altuna, 1969, Asensio, Aramburu eta Ibáñez Etxeberriak aipatua, 2012). Bertan aurkitzen dira aro koaternarioko labar margo esanguratsuenetakoak Bizkaiko golkoan, Unescok Gizateriaren Ondare izendatutako hirurogeita hamar animalia figura ezberdin (Aramburu, Gillate eta Ibáñez, 2016).

⁶⁸⁰ “Leitzarano Turismo Aktibo Gune aisialdi eta kirol ekintzetara zuzenduta dago”. In <http://www.leitzarano.org/> (2015ko ekainaren 24an ikusia)

⁶⁸¹ *Leitzarano. Dokumentazioa*. AIZA

⁶⁸² *Leitzarano. Dokumentazioa*. AIZA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Gunearen garrantzia dela eta, espazioaren erakusketa beharrezkotzat joko da hasieratik; kontserbazio eta irisgarritasun irizpideak kontutan hartuta koba originala erakusteko oztopoei aurre egiteko erreplika baten eraikuntza proposatzen da orduan (Asensio et. al., 2012), gerora Ekainberri izena hartuko duena. Ondare-gune honen zein proiektuaren kudeaketarako Ekain Fundazioa sortzen da 2004an, GFA, EJ eta Zestoako Udalak osaturiko erakundea⁶⁸³.

Zortzi urte irauten duten obren ondoren inauguratzen da Ekainberri 2008ko irailean, neokoba bera erakusketa areto batez eta espazio didaktikoaz osatuta⁶⁸⁴. Museoak hasieratik sustatuko ditu ikerketa lan ezberdinak, historiaurrearen inguruan zein gaiaren lanketa didaktikoari buruzkoak, publiko mota ezberdinetara bideratutako ekintza eta ekitaldien programazioak atzean utzi gabe.

Hezkuntza saila

Ekainberri irekitzen denetik zentroaren kudeaketa orokorra Fundazioaren esku geratzen da. Museoaren harrera lanak zein hezkuntza ekimenen ardura, ordea, ingurumen eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa batek jasoko du. Honen egoitza nagusitik programazio orokorra eta gestioari lotutako lanak bideratzen dira, baina Ekainberrirako lantalde propio bat ere sortzen da, hezitzaile ezberdinez osatuta.

Hezkuntza ekimenak

Bisita gidatuak neokobara eta erakusketa aretora eskaintzaren oinarria izango dira. Honekin batera, historiaurreko tailerrak ere sortzen dira bisiten osagarri moduan. Ehiza tailerrean “el alumnado participa en la caza de animales simulados con arcos y azagayas” (Aramburu et.al., 2016); sua egiten dutenekoan historiaurreko tekniken bidez nola egiten den ikasten dute; eta azkenekoak labarretako artistak bihurtzen dira, historiaurreko tekniken bitartez muralak margotzeko aukerarekin. 2009tik aurrera, bisita gidatu eta tailerrak arkeologia esperimentalean oinarritutako erakustaldiekin osatzen hasten dira⁶⁸⁵.

Urtean zehar talde ezberdinei zuzentzen diren jarduera hauek asteburu eta oporraldi garaietan ere eskainiko dira 2012tik aurrera. Horrela, bi programa berezi sortzen dira

⁶⁸³ Ekain Fundazioa. In <http://www.ekainberri.com/historiaurreko-ibilbidea/> (2015ko maiatzaren 14an ikusia)

⁶⁸⁴ Ekainberriz gain Zeraingo turismo bulegoaren kudeaketaren ardura ere jasoko du ABEB-ak. *Ekain Fundazioaren Patronatua. Ekainberri Proiektuaren kudeaketa eta gainbegiraketa teknikoa eta Fundazioaren Sekretaritzaren Teknikoa*. GFAAA. Sig. 5052/5

⁶⁸⁵ “Bost urtez arkeologia esperimentalaren bidetik mugak zabaltzen”. <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/noticias/noticia.php?id=eu&Nmuseo=1259065407&Nnoticia=1378993082&desde=10>. (2015ko martxoaren 22an ikusia)

bisita eta tailerrak barne hartzen dituztenak: Ekain Abentura – publiko mota guztiarentzat – eta Ekain Familia – guraso eta seme-alabentzako ekintzak – .

Hautaz gain, urteko egun berezietan edo ospakizunei lotutako ekimenak ere gauzatuko dira. 2010tik aurrera antolatzen dituzte Kobazuloen Eguna zein Ekaindarren Eguna – gerora Ekainfest izena hartuko duena – , hauetan bisita berezi, jolas eta tailerrak egiten direlarik jai giroan. Ekaindarren Egunaren kasuan gainera, Zestoako plazan ospatzen dira olinpiada jolasak, eta “Suaren Etorrera” deituriko antzezlanak ere egiten da⁶⁸⁶. Zenbait urtetan dokumental proiektzioak edota hitzaldiak ere gehitu dira egun berezi hauetako programazioetan.

Hezkuntza baliabideei dagokionez, hezkuntza arautuko etapa ezberdinei egokitzen diren fitxa didaktikoak sortzen dituzte, formatu digitalean eskuragarri daudenak museoko web orrian. Era berean, “Ekain klik batean” deituriko joko edo jarduera bat sortzen dute webgunean, digitalki museoko edukiak aztertzeko modu ezberdin bat, animazio eta marrazki bizidunen bitartezkoa. Honekin batera, gailu mugikorretan erabiltzeko aplikazio bat ere sortzen dute, audio-gida funtzioarekin⁶⁸⁷.

Publikoa

Hasieran, oinarrizko eskaintza orokorra bi publiko motarentzat proposatzen da Ekainberrietik: publiko orokorra eta hezkuntza arautuko taldeak. Azken hauen kasuan LH, DBH eta Batxilergoko etapetara egokitzen dira.

Publiko orokorraren baitan, azken urteei dagokionez, familientzako eskaintza berezia diseinatzen da asteburu eta jaiegunetan gauzatzen direnak; egun berezietan lotuta edota ospakizunetan haurrentzako jolas eta tailerrak ere proposatzen dira; eta Ekaindarren Eguneko olinpiadak helduei zuzentzen dira.

Irudia 24: Ekainfest (Iturria: www.ekainberri.com)



⁶⁸⁶ “Ekaindarren Eguna”. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/actividades/actividad.php?id=eu&Nactivid=1278497736&Nmuseo=1259065407&desde=0> (2015ko martxoaren 22an ikusia)

⁶⁸⁷ “Ekaingo audio-tourra”. In <http://www.ekainberri.com/ekainberri/ekaingo-audio-tourra/> (2015ko martxoaren 25an ikusia)

4.48. TOPIC. Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa

Tolosan, 1967an, TEE izena hartzen duen Tolosako Ekinbide Etxea sortzen da⁶⁸⁸, elkarte pribatu bat zeinak hiribilduko ezagutza eta kultura sustatu nahi duen⁶⁸⁹. 1994an elkarte publiko bilakatzen da, eta Tolosako kutur ekimenen erreferente bilakatzen diren hainbat proiekturen sustatzaile bihurtzen dira: Tolosako Abesbatza Lehiaketa, Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia Titirijai eta Eskulturastea. Hauekin batera TOPIC, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroaren proiektua garatuko dute urteetan zehar. Herrian bertan existitzen den antzinako Justizia Jauregiaren eraikina birgaitu eta bertan irekitzen dute 2009ko azaroan txotxongiloei dedikatutako espazioa⁶⁹⁰, “el único centro dedicado al arte de la marioneta de manera integral [...] que existe en Europa” (“El TOPIC de Tolosa”, 2011: 63).

TOPIC bera “museo bat baino gehiago” bezala definitzen dute sortzaileek. Espazio berean, oro har, funtzio ezberdinak batzen dira: nazioarte mailako txotxongilo konpainia ezberdinei irekitako sormen gunea izatea, txotxongiloen kontserbazio lanetarako espazioa, gaiaren difusioa egitea, aldi baterako erakusketen antolaketa eta eragile ezberdinen elkarlanak sustatzeko zentroa. Hortaz, museoko aurkezpenean esaten denez, “horrelako espazio batek ez luke espazio publiko ofizial baten antzirik izan beharrik ezta Museo edo Antzoki baten antzirik ere. Bakarrik bere antza, Txotxongiloen etxe baten antza”⁶⁹¹.

Hezkuntza saila

TOPIC-ek lantalde propioa izango du hasieratik, eta funtzio ezberdinak betetzeko espazio bezala diseinatzen den heinean, hezkuntza departamentuak – Pedagogia saila izena hartzen duena⁶⁹² – bere gain hartuko du ez soilik museoko arloa, baita zentroko beste edozein hezkuntza funtzio beteko duen ekimenena ere.

Hezkuntza ekimenak

Museoko erakusketak ezagutzeko bi bisita mota eskaintzen dira: bisita arrunta eta antzeztua – azken hau talde zehatzei zuzendutakoa soilik. Hauen osagarri modura tailer eta ikuskizunak ere proposatzen dira. Tailerren kasuan sormenari lotutakoak

⁶⁸⁸ Tolosako Udala, GFA, Sustapen Ministerioa, EJ eta Kutxaren laguntzaz. TOPIC gida eskuorria. TTA

⁶⁸⁹ Ibilbidea. CIT. In http://www.cittolosa.com/index.php?option=com_content&task=view&id=12&Itemid=31 (2015ko ekainaren 4an ikusia)

⁶⁹⁰ Obrak amaitu aurretik Tolosaldea Tourren eskutik zenbait bisita gidatu burutzen dira Zentrora, eraikuntza eta sortze prozesu guztia ikusi eta etorkizunean izango denaren zabalkuntza lanak egiteko. “TOPIC gida”. TTA

⁶⁹¹ Museoa. TOPIC. In <http://www.topictolosa.com/eu/museoa.html> (2015ko ekainaren 4an ikusia)

⁶⁹² Sailaren datu zehatzik topatu ez bada ere, TOPIC-eko lantalde osoaren informazioa jaso da kontsultatutako dokumentazioan. Horrela, 2009ko datuen arabera, zentro osoa 9 langilez osatzen da, ondorengo urteetan 15 pertsona izateraino.

izango dira guztiz, normalean txotxongiloak eraikitzeak, gidoiak idaztekoak edota grabatzekoak. Ikuskizunen kasuan, museoko antzokian egiten diren txotxongilo, irudi, musika edota narrazioa nahasturik aurkezten duten saioak ikusteko aukera ematen zaio publikoari. Hauek TOPIC-en elementu erakargarrietakoa bihurtzen dira hasieratik eta konpainia ezberdinek proposaturiko programazio indartsua osatzen da. 2014an, museoaren jarduerak eta aukerak espazio fisiko batera mugatu ez daitezela, TOPIC-ek zenbait hezkuntza ekimen diseinatzen ditu zentrotik kanpora burutzekoak. Alde batetik, tailerrak eta ikastaroak beste gune batzuetan burutzen hasten dira, eskaeraren arabera eta aurre-erreserba bidez egiten direnak. Bestalde, *online* ikastaroak eskainiko dituzte, txotxongilo tailerrak burutu ahal izateko TOPIC-era gerturatu gabe baina era berean aditu baten laguntzarekin hezkuntza jarduera burutzeko aukera emanaz⁶⁹³.

Hezkuntza programa hauei lotuta sortzen dira “dosieres de trabajo de cada ciclo, que se envían antes de la visita del centro escolar al TOPIC, (y) están adaptados a la edad de los participantes⁶⁹⁴. *Online* ikastaroaren kasuan zenbait bideo ere sortzen dituzte *Platopic, jolastuz ikasi* izenarekin.

Era berean, eta museoko eskaintza egonkorraren parte bihurtuz, zenbait proiektu berezi garatzen dira. 2010an eta *Manoviva* deiturikoa gauzatzen da, “un proyecto intergeneracional y terapéutico que pone en contacto a niñ@s y ancianos con adolescentes⁶⁹⁵. Tailer-solasaldi forma hartzen duen hezkuntza jarduera hau oinarritzen da “(en la) utilización de la marioneta como herramienta terapéutica y como instrumento socializador⁶⁹⁶. Hau da, gazteak tailerrak prestatu eta gauzatzeko arduradunak bihurtzen dira, eta hauek erabiliz harremanetan jartzen dira eskolaz kanpoko beste espazio batzuetan aurkitzen diren taldeekin, ospitaleetako edota zaharren egoitzako adinduekin adibidez.

2010an ere *Garatu* proiektua garatzen da EJ-ko Hezkuntza Sailarekin elkarlanean. Hauek txotxongiloak hezkuntza arloko esparru ezberdinetan erabiltzen ikasteko ikastaroak izango dira, hala nola balore eta hizkuntzarekin lotutako proposamenak aurkezteko⁶⁹⁷. Proiektu honen harira sortzen da argitaletxe batekin elkarlanean osatutako liburua: *Ixor bat eskuartean: txotxongiloak*.

2011an Adis Fundazioarekin batera eskulio sozialeko arriskuan dauden gazteekin proiektu bat garatzen da. TOPIC-en txotxongilo tailerrak burutzen dituzte astean behin

⁶⁹³ Memoria TOPIC y TIRIJAI 2014. TTNTZA

⁶⁹⁴ Memoria TOPIC año 2010. TTNTZA. 4. or.

⁶⁹⁵ TOPIC memoria 2012. TGA

⁶⁹⁶ Memoria actividades TOPIC 2013. TTNTZA. 5. or.

⁶⁹⁷ TOPIC urteko memoriak. TTNTZA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

eta sortutako obrak ikasle horien jatorrizko ikasgelan antzezteko aukera ematen zaie⁶⁹⁸.

Urte osoko hezkuntza eskaintza finkotik zein proiektu zehatzetatik at, asteburu eta oporraldietako zein MNE ospatzeko jarduerak proposatuko dira. Era berean, Txotxongiloen Nazioarteko Eguna ospatzekoa ikuskizun programazio zabala diseinatzen a urtero, tailer bereziak egin dira, zenbaitetan bideo proiektuaren bat edota kontzerturen bat ere antolatzen dute eta ikastaro mota desberdinak egokitzen dira egun horietan burutzeko.

Elkarlanak ere emango dira TOPIC eta beste eragile batzuen artean: 2012an Donostiako Aquariumarekin antolatzen dute tailer bat⁶⁹⁹, 2013an Donostiako Zinemaldiarekin beste bat⁷⁰⁰ eta urte horretan ere ingeles akademia batekin elkarlanean tailerrak ingelesez eskaintzen dituzte⁷⁰¹.

Publikoa

TOPIC-en banakako zein talde mota anitzei zuzendutako eskaintza osatzen da hasieratik. Hezkuntza arautuari dagokionez HH, LH eta DBH-ko taldeentzako bisita eta tailerrak diseinatzen dira. Banakakoen kasuan haur eta helduentzako prestatzen dira tailer eta ikastaro desberdinak jaiegun eta oporraldietan, eta ikuskizunak publiko orokorrari zuzentzen dira. Irakasleentzako ikastaroak ere antolatzen dituzte txotxongiloen erabileraren inguruan. Azkenik, Manoviva proiektuaren baitan, 65 urtetik gorako adinduak eta gazteak harremanetan jartzen dituen proposamena aurkezten da era egonkorrean, belaunaldi arteko tailerra kontsideratuz.

Hauetaz gain bestelako taldeentzako hezkuntza ekimenak “se diseñan a partir de la petición expresa del grupo y en base a la edad de los participantes, habilidades motrices, etc.”⁷⁰². Azkenik, Adis Fundazioarekin batera zenbait proiektu burutu ziren eskusio sozialeko arriskuan zeuden gazteekin lan eginaz⁷⁰³.

4.49. Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa

Elgetako kokaguneak zein inguruan izandako gertaera historiko ezberdinen garrantziak berak, Elgetako Udala memoria historikoari dedikatutako espazio bat sortzera bultzatuko du bertako Udala. Herriko boluntario askoren lanari esker zein Intxorta 1937

⁶⁹⁸ Memoria actividades TOPIC 2011. TTNTZA

⁶⁹⁹ Memoria actividades TOPIC 2012. TTNTZA

⁷⁰⁰ Memoria actividades TOPIC 2013. TTNTZA

⁷⁰¹ Memoria actividades TOPIC 2013. TTNTZA

⁷⁰² Memoria TOPIC año 2010. TTNTZA

⁷⁰³ Memoria actividades TOPIC 2011. TTNTZA


Kultur Elkarteari esker⁷⁰⁴, 2010ko maiatzean inauguratzen da Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa. Herriko Kafe Antzokiaren beheko solairuan kokatuta, Espainiako Gerra Zibileko ondarea zein informazioa erakusten duen gunea egokitzen da, horrekin batera frontean bertan babesleku, lubaki eta parapetoak ere erakusgai ipiniz⁷⁰⁵.

Hezkuntza ekimenak

Erakusketako bisita gidatu arruntaz gain, Intxorta mendiaren magalera ibilaldi gidatuak izango dira eskaintzaren oinarria. Hauen bidez bertako frontean emandako gertaerak ezagutzeko aukera dute bisitariak. Hala ere, 2013tik aurrera urtero errepikatuko den birsortze historikoa izango da eskaintza egonkorraren ardatz nagusia, Intxortako batailaren birsortzea egiten baita kokaleku errealean bertan.

Hezkuntza jardueretan erabiltzeko material zehatzik sortu ez bada ere, web orri bat diseinatzen da non Elgetako gertaerak zein Intxortako batailari buruzko material ugari atxikitzen den. Horrekin batera, ibilbidearen mapa digital bat sortzen dute, kokagune bakoitzeko informazioarekin, eta baita APP bat ere *Elgeta Memoria* izena, non ibilbidea era autogidatuan egiteko aukera eskaintzen den gailu mugikor batean deskargatu ezker. Honekin batera *online* eran kontsultatu daitekeen mapa eta informazio gehigarria ere aurki daiteke, ibilaldia era birtualean eginez.

Jarduera guztiak publiko orokorrari zuzendutakoak dira, baina suposa daiteke talde motaren zein adinaren araberako moldaketak egingo direla bisita zein ibilaldi gidatuetan.



Irudia 25: Elgeta Memoria APP (Iturria: www.play/google.com)

⁷⁰⁴ GFA eta EJ-ren laguntzaren bitartez ere

⁷⁰⁵ Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa. Gipuzkoako Museoak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?Nmuseo=1320313869> (2015ko ekainaren 12an ikusia)

4.50. Barandiaran Museoa (Lizarruti-Barandiaran Parketxe Hedatua)

Ataungo Udalak zenbait urte jardungo du bertakoa zen Jose Migel Barandiarani dedikatutako espazio bat sortu nahian. Etnografo eta arkeologoaren bizitzak zein obraren bolumenak zaildu egingo du ordea museo batetara egokitzeko diskurtso bat eratzeak, eta hainbat proposamen ezberdinen inguruan lan egingo dute hainbat urtetan. Azkenean, herriko San Gregorio auzoan kokatzen den antzinako Larruntza Multzo Hidraulikoa – bi errota, zerrategi eta labe batez osatua – zaharberritu eta bertan museoa ipintzea erabakitzen da, bide batez espazio hartan gordetzen den ondarea publikoari erakusteko aukera ere izango delako. Inguruaren zein multzoko eraikinen birgaitze lanak amaitu ondoren inauguratzen da Barandiaran Museoa 2010ko ekainaren amaieran.

Irekiera urtetik museoa GPS Fundazioaren menpe geratuko da, Aralar Natura Parkean jada existitzen den Lizarrusti Parketxearekin era bateratuan funtzionatuko duelarik. Horrela, Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua delakoa eratzen da eta bertako kudeaketa zien hezkuntza ekimenak lantalde beraren esku egongo dira⁷⁰⁶.

Hezkuntza saila

Museoa inauguratzen denetik ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da bere kudeaketa – Lizarrusti Parketxearekin batera – eta bertako eguneroko lanetara bideratuko den lantalde egonkorra eratzen da orduan, bi-hiru hezitzailez osatuko dena. Lantalde txikia izanik eta museoaren eguneroko lan guztien bateratzearen ondorioz, ez da hezkuntza sailik sortuko, eta ekimenen diseinu eta programazioa enpresatik koordinatu eta lantaldeak garatuko ditu, beste egiteko guztiekin batera.

Hauekin batera, bestelako eragileek ere parte hartuko dute hezkuntza ekimen zehatzetan. Alde batetik, herriko boluntarioen lankidetzak izango dute egun berezi eta ospakizunetarako. Bestalde, Jentilbaratza Kultur Elkartearekin elkarlanean arituko dira zenbait ibilaldi, ipuin kontaketa eta antzerki eskaintzeko⁷⁰⁷.

Hezkuntza ekimenak

Hezkuntza eskaintza finkoaren baitan, museora zein multzo hidraulikora bisita gidatu arruntak egingo dira lehen unetik, eta azken honetan gainera, zenbait berritze lanen ondoren, bisitak erakustaldiekin burutuko dira. Horrela, errotetako bat eta zerrategia

⁷⁰⁶ *Museoaren historia laburra*. AIZA

⁷⁰⁷ *Ebentoak*. AIZA

funtzionamenduan ikusteko aukera izango dute bisitariek, hala nola egun berezietan multzoan kokatzen den antzinako labea martxan ikusi ere.

Bisitekin batera ibilaldi gidatuak egingo dira herrian zehar, Barandiaranen jaiotetxea eta etxebizitzaren ondotik doan bidea eginez herriko historia, ondare-guneak eta mitologia kondairak ezagutzeko aukeraz. Urte osoko programazioaren baitan, gainera, ibilaldi bereziak ere eskainiko dira adituen eskutik, txorien kantuak ezagutzekoak, narrasti eta anfibioak ikustekoak eta abar. Horrekin batera, azken urteetan txikienei zuzendutako ibilaldi antzeztuak ere txertatutak dira urte osoko hezkuntza eskaintzan⁷⁰⁸.

Ibilaldi eta bisita gidatuen osagarri moduan tailer eta jolasak diseinatuko dira, astean zehar taldeei eta asteburu eta jaiegun zehatzetan haurrei zuzenduko direnak: indusketa arkeologikoa burutzekoa, historiaurreko labarretako pinturarena, maskarak eta txotxongilo mitologikoak sortzekoa eta taloak egitekoa. Jolasak ere eskaintzaren parte izango dira hasieratik: ibilbide gidatuaren baitan talde batzuei zuzendutako proba-jolas bat burutzen da, azalpenei zein ezagututako guneei loturik; orientazio jolasa diseinatzen da museoaren inguruan egiteko edota altxorraren bila moduan planteatzen den jarduera egiten da haur eta gazteekin⁷⁰⁹.

Eskaintza honetaz gain, asteburu eta oporraldi garaian proposatzen dira hainbat jarduera ezberdin, programazio aberasgarria sortuz. Horrela, ibilaldi gidatu bereziak egiten dira adituen eskutik, jolas eta tailer berriak proposatzen dituzte – gazta dastatzea, txapa tailerra, oka jolasa, maskarak egiteko eskulanak – eta ipuin kontaketa saioak ere izaten dira.

Hezkuntza baliabide material propioak sortzen dira museoan eskaintza honen harira. Alde batetik, etapa bakoitzari egokituta eta jarduera motaren araberako koaderno didaktikoak sortzen dira. Horrekin batera, arkeologia tailerrera piezen erreplikak, indusketa kuxak eta katalogazio fitxak sortzen dituzte, baita jolasetan erabiltzeko oka jolas erraldoia, orientazio jolaserako mapak eta maskara zein txapa tailerretan erabiltzeko ereduak ere.

Gainera, urtero errepikatuko diren zenbait ekitaldiren hasiera emango da 2011an. Talo, Arto edota Errota Eguna deiturikoak antolatzen dira, non multzo hidraulikoa martxan ikusteko aukera izateaz gain, labean erretako opilak dastatzeko aukera dagoen eta jolas zein tailer bereziak egiteko ere.

2011an Jentilak Errotaxon antzerkia egingo da lehen aldiz museoan, herriko Jentilbaratza Kultur Taldearekin batera, zeinak mitologiako hainbat kondaira ezberdinak antzezten dituzten museoaren inguruan. Elkarlan honetatik abiatuz 2012an lehen aldiz Gau Ibilaldi Magikoa egiten da zen, herrian zeharreko ibilaldi gidatu

⁷⁰⁸ Lizarrusti-Barandiaran Parketxe hedatuko hezkuntza eskaintza. LBPHA

⁷⁰⁹ *Ebentoak Lizarrusti-Barandiaran*. AIZA

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

antzeztua non mitologiako pertsonaia ezberdinen agerpena ematen den bidean. Horrela, ondorengo urteetan errepikatuko da ekitaldi hau⁷¹⁰, urtero berrikuntzak txertatuz kondaira, pertsonaia eta kokaguneei dagokionez.

2014aren amaieran ere, Jose Migel Barandiaranen jaiotzaren 125. urteurrena ospatzeko, programa zabala eskainiko da Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatuan: kontakizunak, erakusketa berezia, ipuin kontaketak eta ibilaldi antzeztua.

Elkarlan eta eskaintza bateratuaren kasuan, GPS Fundazioaren baitan dauden beste Parketxeekin batera osatzen da oporraldietako programa bat, mota ezberdinetako jarduerak udako hilabeteetan zehar sakabanatzen direlarik. Era berean, 2012tik, Igartubeiti Baserri Museoarekin zein Zumalakarregi Museoarekin eskaintza bateratu bana osatzen da, bi zentro horiek eta Barandiaran Museoaren arteko loturak ezarriz.

Azkenik, 2013rik aurrera, museoak jarduera batzuk egokitzen ditu eskaeraren arabera beste gune batzuetara mugitu ahal izateko: kultur etxe edota hezkuntza zentroetara garraiatu daitezkeen jolas eta tailerrak diseinatzen dira eta hezkuntza eskaintzan txertatzen dira.

Hezkuntza formaleko taldeei zuzenduta sortu ziren koaderno didaktikoak, etapa bakoitzera egokitutakoak eta formatu fisikoan soilik eskuratu ahal zirenak⁷¹¹. Horrekin batera sortu ziren arkeologia tailerrerako materialak: indusketetako azalpenetarako informazio txostenak eta aurkitutako piezen fitxak; edota txotxongilo eta maskara tailerretarako erabiltzen ziren irudiak. Jolasei dagokionez orientaziorako mapak egin ziren museoko multzoa agertzen zutenak, oka jolaserako taula erraldoia eta ibilaldian zehar egiten zen jolaserako fitxak sortu ziren.

Publikoa

Publiko orokorrari zuzenduta antolatzen dira museoan bisita gidatuak – asteburu eta ekitaldi berezietan egiten direnak – hala nola ibilaldiak edota egun batzuetako tailerrak – gazta dastatzearena adibidez – . Hauen baitan, haurrentzako zehazki diseinatzen dira tailer, jolasak eta ipuin kontakizunak ere, asteburu jakin batzuetan zein ekitaldi berezietan eskaintzen direnak.

Hezkuntza arautuko taldeen kasuan, HH, LH eta DBH-ko etapetara egokitutako jarduerak daude. Beste mota batzuetako taldeak hartzen badituzte ere – jubilatutako, euskaltegiak, aisialdi taldeak – ez da sortzen hauentzako zehazki egokitzen den jarduera berezirik. Hala ere, aldizkako egokitzapenak edo ekimen bereziak egin dira horietako batzuekin. 2012 eta 2013ko udan euskaltegi talde ezberdinentzako sortzen

⁷¹⁰ Lizarrustin ere Ibilaldi Mitologikoa Aralarren egingo da, museotik abiatuz egiten denaren bertsio antzekoa baina Natura Parkeko mendi ibilaldia eginez.

⁷¹¹ Barandiaran Museoa. Koaderno didaktikoak. LBPHA

dira ibilaldi gidatu eta bisita bereziak; eta baita herriko aisialdi taldearentzat programa berezia garatu ere, non jolas eta tailer ezberdinak eskaintzen zaizkien bi urtez⁷¹².

4.51. Arrikutz - Oñatiko kobak

Oñatiko Arrikutz kobak publikoari ireki baino zenbait hamarkada aurreagotik ezagutzen dira jada, geologo, espeleologo eta arkeologo ezberdinek berau aztertzen dutelarik. Baina egindako aurkikuntzen garrantziaz jabeturik zein ikerketen emaitzek agertutakoarekin lotuta, Oñatiko Udalak kobak bisitariei irekitzea erabakitzen du 2007an, natur eskaintza hobetu eta kultur ondarearen balioa handitzeko helburuaz (Irazabal, 2012). Bertan ikusgai ipintzen da Iberiar Penintsulan aurkitutako lehen haitzetako lehoiaren eskeletoa, elementu erakargarrietakoa bihurtuz; baina baita paisaia karstiko beraren ikuspegia ere, lurpeko munduaren erakuslehoi aproposa⁷¹³. Era berean, Gipuzkoako multzo karstiko handiena eta Euskadiko luzeenetako bat dena (Rekondo, 2007), publiko mota ezberdinak bisita dezan egokitzen da, pasabide baten bitartez eta soinu zein argi jokoez lagundutako ibilbide bat egin dezaketelarik.

Baina irekiera jarraitua eta bertako kudeaketa propioa 2010an emango da, non kobazuloaren kanpoaldean kokatzen den Interpretazio Zentroa. Bertan erakusketa gune, harrerarako espazio eta oinarrizko beste zerbitzuak eskainiko dira, ordutik aurrera kobazuloko bisitak eta beste hezkuntza ekimenak bertatik bideratuz.

Hezkuntza saila

I.Z.-ren irekierarekin turismo zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen da bertako kudeaketaren ardura. Hala ere, Oñatiko turismo bulegoarekin harreman jarraitua izango dute hasieratik eta herrian antolatzen diren ekimen ezberdinetan elkarlanean arituko dira.

Hezkuntza ekimenak

Hezkuntza eskaintza 2010.urte amaieran diseinatzen da Hasieratik programa sei gai desberdinetan banatuko da: Aurrehistoria, Ekosistemak, Ohiko bisita, Karstologia, geologia eta A21⁷¹⁴. Guztietan kobetara bisita gidatu arrunta egiten da lehenbizi,

⁷¹² Barandiaran uda eta udalekuak. LBPHA

⁷¹³ Arrikutz – Oñatiko kobak. In

<http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/museo.php?id=eu&Nmuseo=1271770340>
(2015ko maiatzaren 3an ikusia)

⁷¹⁴ "Eskaintza didaktikoa". OTB

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

pasabidean zeharreko ibilbide bat osatuz, non hezitzailearen azalpenekin batera audio bidezko kontakizun bat entzun dezaketen bisitariak. Bisita eta ibilbide hauekin lotuta koaderno didaktikoak sortuko dira irekiera urtetik, gai eta ziklo bakoitzari egokitutakoak. Honetaz gain, *Espeleoabentura* – gerora *Espeleoarrikrutz* – deituriko eskaintza ere egingo da, espeleologiako bisita berezia non kobazuloa sakonean ezagutu dezaketen bisitariak; eta bertsio bera moldatuko dute gerora “Espeleolotxiki” eskaintzarako, txikienek ere esperientzia hori bizi dezaten.

Urte osoan zeharreko eskaintzatik at, zenbait egun berezi ere ospatuko dituzte: MNE, Ingurumen Eguna, Koben Eguna eta Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren Eguna. Hauetan proposatuko dira maskara eta marrazki tailerrak haurrentzako, musika eta poesia emanaldiak, ipuin kontaketa musikatua edota dokumentalen proiektzioak⁷¹⁵. Azkenik, Geolodia egitasmoaren baitan zenbait bisita berezi eta hitzaldiak ere eskainiko dira.

Publikoa

Bisitari orokorrek, bisita gidatu arrunta egiteaz gain, espeleologiako ibilaldi bereziak egiteko aukera ere izango dute, eta egun berezietako hitzaldi eta ikuskizun saioen hartzaile nagusiak izango dira. Haurren kasuan, egun berezietako tailerrak zein espeleologia abentura moldatua aurkeztuko zaie, baita kasu batzuetan familian egiteko zenbait jardura ere. Hezkuntza arautuen kasuan, LH eta DBH zikloetara egokitutako programak izango dira nagusiki⁷¹⁶.

4.52. Cristobal Balenciaga Museoa

Cristobal Balenciaga Fundazioak, Getariako Udalak eta arte-sortzailearen jarraitzaile talde batek, diseinatzailearen lana gorde, kontserbatu, ikertu eta erakusteko gune baten sorreraren inguruan lanean hasten dira laurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran. Getarian bertan kokatzen den Aldamar Jauregia zaharberritzeari ekiten zaio, hura museoaren egoitza nagusia izango delakoan; eta gerora honi atxikiko zaion eraikin berri eta handiago baten obrak hasiko dira. Zenbait urtetako lanen ondoren, 2011ko ekainean inauguratzen da Cristobal Balenciaga Museoa (Azurmendi, 2011), ordura arteko lurraldeko panorama museistikoan – zein Euskal Herrikoan – modari dedikatutako lehen museo bihurtuz. Bertan gordeko dira XX. mendeko hainbat jantzi eta osagarri, diseinatzaile getariarraren obrak agertzen dituztenak 50. hamarkadatik aurrerako sorkuntza agertaraziz (Porcel eta Artetxe, 2015).

⁷¹⁵ Arrikruz Oñatiko kobak. Berriak eta ekitaldiak. Gipuzkoako Museoak. In <http://www.gipuzkoakomuseoak.net/museos/actividades/index.php?id=eu&Nmuseo=1271770340> (2015ko maiatzaren 3an ikusia)

⁷¹⁶ “Eskaintza didaktikoa”. OTB

Hezkuntza saila

Cristobal Balenciaga Fundazioa museoaren arduraduna izango da, eta honen baitan sortuko dira funtzio ezberdinak beteko dituzten sailak. Hortaz, hezkuntza sail propioa ere eratuko da, non pertsona bakarra izango den bertako partaide, hezkuntza ekimenen programazio eta diseinuaren arduradun zein koordinatzaile⁷¹⁷. Hezitzaileen kasuan ordea, hezkuntza eta ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen dira, eta hauek kontrataturiko lantaldea osatuko da, museoko sailaren menpe egongo direnak.

Hezkuntza ekimenak

Museoaren eskaintza bisita gidatu arruntean oinarritzen de, erakusketa aretoak hezitzaile baten bitartez ikustekoak. Hauekin batera VIP bisitak proposatzen dira ere, esperientzia bakar eta eksklusiboa izateko helburuz sortuak: talde murriztu batek burutzekoak, ohiko ordutegitik kanpo eta erakusketa aretoez gain normalean publiko orokorrarentzat ikusgai ez dauden espazioak ezagutzeko aukeraz (biltegiak, kontserbaziorako guneak eta abar).

Tailerrak ere lehen urteetatik proposatzen dira, urte osoan zeharreko eskaintzan bisita gidatuen osagarri bezala edota jarduera independente moduan asteburu eta jaiegunetan (Alberdi, 2013). Tailer hauek sormena eta modari lotutakoak dira, noski. Hauekin batera, Master Class-ak eskaintzen dituzte, non moda komunikazioa, argazkigintza, joskintza eta beste hainbat arloren inguruko goi mailako trebakuntza eskaintzen den; hots, profesionalei zuzendutako programak dira.

Tailerrez gain, jolasak ere diseinatzen dituzte museoan bertan zein Getariako herrian zehar burutzekoak, era ludikoan Balenciagaren bizitza zein herriko historia ezagutzeko aukera ematen dutenak.

Hauekin batera, aldizkako zenbait ekitaldi ere antolatzen dira Balenciaga Museoan, festa kutsua izango dutenak horietako askok: ospe handiko musikarien kontzertu eta eskaintza gastronomikoak edota gau girotuak XX. mendeko hamarkada ezberdinetan inspiratuak. 2014an International Fashion Code Event jardunaldia antolatzen da, moda eta zuzenbideari buruzko hitzaldi saioak⁷¹⁸, non moda munduko protagonisten hitzaldiak, eta zinema emanaldiak eskainiko diren. Bestelako esparru bati loturik, zenbait programa berezi ere sortzen dira Emakumeen Nazioarteko Eguna edota MNE ospatzeko.

⁷¹⁷ Hezkuntza saileko arduradunarekin bilera, 2015ko otsailaren 20an

⁷¹⁸ Cristobal Balenciaga Museoa. Programazioa. In <http://cristobalbalenciagamuseoa.com/International-Fashion-Code-Event--2.html> (2015ko ekainaren 22an ikusia)

Publikoa

Hasieratik, publiko orokorrari zuzendutako bisita gidatu, ikuskizun eta ekitaldi bereziak antolatzen dira. Hala ere, publiko helduari garrantzia emango zaio, eta hortaz, zenbait tailer, jardunaldiak eta gaueko festak hauentzako programatzen dira bereziki. Era berean, moda adituentzako eskaintza ere garrantzitsua izango da⁷¹⁹, Master Class eta tailer ezberdinak hauei zuzenduko direlarik. Haurrei dagokionez, oporraldi eta jaiegunetako jolas eta tailerren hartzaile izango dira.

Taldeen kasuan, hezkuntza arautuentzako eskaintza diseinatzen da hasieratik, LH, DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Diseinu Eskoletako ikasleentzako egokitutako programekin. Bestelako taldeak hartzen badituzte ere, ere ez da zehaztu perfil desberdinei egokitutako ekimenik.

4.53. Arantzazuko Parketxea

Aizkorri-Aratz Natura Parkea izendatzen dute 2006an⁷²⁰, eta 2012ko otsailean irekitzen da Parketxea Arantzazuko auzoan, Gandiaga II Topaguneko eraikin berrian. Espazio handiak eskaintzen dituzten erakustaretoetan paisaia kulturalaren inguruko informazioa eskaintzen da, ikus-entzunezko zein teknologia berrien bidezko elementuen bitartez. Aizkorri ez ezik, Parketxea Gipuzkoako babestutako beste eremuen erakusleihu ere izateko asmoarekin sortzen da. Aldi berean, Parkeari lotutako elementuak ekimenen ardatz izango dira: artzaintza, paisaia karstikoa eta santutegiko izpiritualtasuna.

Hezkuntza saila

Arantzazuko Parketxea GPS Fundazioaren jabetzako lehen espazioa izango da, eta hortaz, kudeaketa honen baitan geratzen da hasieratik. Bertako harrera lanak zein taldeen artapena Fundazio baten esku geratzen da 2012tik aurrera, honetan bi-hiru pertsonaz osatutako lantalde bat osatzen delarik.

Hezkuntza ekimenak

Parketxeko bisita gidatu arrunta egiteaz gain, inguruko espazioak ere ibilbide gidatuak burutzeko gune izango dira, Natura Parkean barrena hainbat bide desberdin burutuz. Eraikinetik gertu kokatzen den ibilbide irisgarrian gainera jolas moduan planteatuta dagoen jarduera bat eskaintzen dute, itsu-mitsuka jolasa deitutakoa. Era berean,

⁷¹⁹ Museoaren hasierako proiektuan sortzaileen gune eta laborategia ezartzeko proposamena existitzen da, eta beraz, adituei zuzendutako nolabaiteko programazioa etorkizuneko proiektu honekin lotu daiteke

⁷²⁰ 76/2006 DEKRETUA, apirilaren 4koa, Aizkorri-Aratz aldea Parke Natural deklaratzeko duena

zenbait bisita gidatu ere ipuinen bitartez egiten dira, Paulo pagomotzaren istorioa kontatuz Parkea ezagutzeko aukera eskainiz txikienei⁷²¹. Bisita eta ibilbide hauei loturik koaderno didaktikoak sortzen dituzten Arantzazun, edukien lanketarako ariketa eta jokoekin.

Oporraldietako programa eta ekitaldi bereziak ere antolatuko dira lehenbiziko urtetik, zenbaitetan eskaintza bateratua proposatuz GPS Fundazioaren beste Parketxeekin batera. Eskaintza honetan olerki saioak, bideo emanaldiak edota argazkigintza ikastaroak aurki daitezke.

Publikoa

Bi publiko mota izango dira Arantzazuko Parketxeko hartzaileak: publiko orokorra – zeinaren baitan hurrei zuzendutako jarduera bereziak diseinatzen diren asteburu eta oporraldietan – eta hezkuntza arautuko taldeak. Azken hauei dagokionez LH, DBH eta Batxilergoko etapari egokitutako programak diseinatzen dira.

4.54. Lili Jauregia

Zestoan XV. mende amaiera - XVI. mende hasiera bitarteko Lili Jauregia aurkitzen da, familia boteretsu baten bizileku izandakoa. Eraikinaren zaharberritzeko obrei ekiten zaio 2009. urte inguruan eta azkenik 2013an inauguratu eta publikoari irekitzen da. Espazio honek ordea ez du museo independente bezala funtzionatuko, ezta hezkuntza programa finkoa izango ere hasieran. Jauregia, oro har, egun mugatuetan irekiko da eta soilik jarduera zehatz batzuk burutzeko helburuarekin. Eraikin historiko baten musealizazio tradizionaletik urrunduz, Lili Jauregia modu berri batean erakustea erabakitzen da, alegia, garaiko espazioak birsortzen dira San Telmo Museoa eta Gordailuko pieza historikoekin⁷²² eta bisita gidatu arruntetik at publikoari Lili Jauregiaren historia ezagutzeko aukera desberdin bat aurkezten zaio

Hezkuntza saila

Zestoako Udalarena den Lili Jauregiko jarduerak hezkuntza eta ingurumen zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa baten esku geratzen dira. Oro har, ez da lantalde finko bat osatzen, eta hauek koordinazio lanetara bideratuko dute euren lana, gidaien osaketa eta aktoreen kontratazioarekin batera.

⁷²¹ Arantzazuko Parketxea. Hezkuntza eskaintza. In <https://parketxesarea.files.wordpress.com/2014/01/heziketa-eskaintza-eta-txango-gidatuak-arantzazu.pdf> (2015ko martxoaren 21an ikusia)

⁷²² Lili Jauregia. In <http://www.lilijauregia.com/palacio-lili/?lang=eu> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

4. DATUEN ANALISIA ETA EMAITZAK: GIPIZKOAKO MUSEOAK ETA HEZKUNTZA EKIMENEN GARAPEN DIAKRONIKOA

Hezkuntza ekimenak

Lili jauregian bisita gidatu antzeztuak soilik burutzen dira: dramatizazio bidezko emanaldi batean murgiltzen da publikoa eraikina bisitatzen duen aldiro, lilitarren leinuko azken biztanleak aretoetatik gidatzen dituelarik⁷²³. Bisita antzeztuak publiko orokorrari zuzentzen dira.



Irudia 26: Lili Jauregiko bisita antzeztua (Iturria: www.ekainberri.com)

⁷²³ Lili Jauregia. Bizipena. In <http://www.lilijauregia.com/experiencia-teatral/?lang=eu> (2015ko ekainaren 25an ikusia)

**5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN
HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA**

Jasotako eta katalogatutako museo bakoitzaren egoera deskribatu ondoren, horietatik abiatuta eratu da Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen antolaketa eta interpretaziorako faseen banaketa. Lurraldeko hezkuntza ekimenen historia lau etapa diakroniko ezberdinetan egituratzea proposatzen dugu. Honela, era metaforiko batean deskribaturik, eta ikusitako datuetan oinarriturik, ehun eta hamabi urteetan zehar emandako banaketa ikusi daiteke, eta museo bakoitzak fase horietan burututako ekimenak zein zuzendu diren publiko motaren aldaketak nabarmendu daitezke (ikus IV. eranskina).

Lehen fasea, Loaldia deritzoguna, 1902tik – San Telmo Museoa inauguratzen denetik – 1980ra doana da. Ia laurogei urteetan museoen inaugurazio eskasa topa daiteke lurraldean, eta hauetan hezkuntza funtzioa loaldi etapa batean dagoela esan daiteke, oraindik erakundeetan kontserbazioa eta ikerketa nagusitzen direlarik.

Bigarren fasea 1980-1990 bitartean ematen da, eta Esnatze baten moduan deskriba daiteke. Oraindik era mugatuan ematen bada ere, proposamen berritzaileak agertzen dituzte etapa honetan inauguratzen diren zenbait museo, aurrez existitzen direnetako batzuk ere barneratzen dutelarik hezkuntza funtzioa museoaren atal banaezin bezala.

1990tik aurrera hirugarren etapa bat aurkitu daiteke, Esplorazio unea deitu genezakeena, non museo gehiago inauguratzen diren, mota ezberdinetakoak, lurralde osoan zehar sakabanatutakoak eta pixkanaka hezkuntzaren baitan burutu daitezkeen ekimenak eta museora joaten den publikoaren inguruko esplorazio eta saiaketa berriak egiten dituztenak.

Azkenik, 2000. urtetik aurrera eta 2014. urtera arte, Lasterketa etapa bati ekiten zaio, museoen inaugurazioa biderkatzea antzematen delarik eta Gipuzkoako mapa erakunde berriez betetzen den unea bihurtuta. Irekieraz gain, hezkuntza ekimen motak dibertsifikatu, publiko gehiagora zabaltu eta jarrera ezberdin batekin ekiten zaio mende berriari, egun aurki daitezkeen panoramara iritsi arte. Egoera honetan, erakundeen arteko lehia zabaltzen da, bisitariengana heltzeko lasterketa baten antzerako jarrera erakusten dutelarik museo askok.

1902	1980	1990	2000
LOALDIA	ESNATZEA	ESPLORAZIOA	LASTERKETA
1	2	3	4

Taula 15: Gipuzkoako museoen hezkuntza ekimenen faseen lerro kronologikoa

Fase horietako bakoitzean emandako aldaketak eta aldagaietan antzemandako eboluzioa corpus zabalago batean interpretatu da, nazioarte mailan emandako berrikuntzak zein Espainian sorturiko proposamenen garapenarekin konparatuz eta horien arteko lotura posibleak ezarriz.

Horrela antzeman daiteke museoen historian egoera politikoaz haratago dauden bestelako jazoera edo egoerek eragiten dutela hezkuntza arloan berrikuntzak ematea, herrialde bakoitzeko marko legalaren aldaketak, administrazio publikoak hartutako erabakiak, unibertsitateak eskainitako formakuntza, enpresen sorrera edota gizabanako zehatzen taldeen interesetik sorturiko proposamenak eragina izango dutelarik.

5.1. Lehen fasea: Loaldia

XX. mendearen lehen erdian Gipuzkoan irekitzen diren bost museoen funtzio nagusia bildumen erakusketa izango da, balore berezia izanagatik gordetako pieza eta objektu ezberdinak ikertu eta kontserbatzeaz gain, noski. Etapa honetako museoek hiru helburu nagusiak agertuko dituzte 1980 arte, mundu mailan XIX. mende amaieratik sortutako museo europarren ereduari jarraiki: goi klaseentzako zientzia eta kulturarako espazio izatea, turismoari eskaini beharreko gune erakargarri bihurtzea eta herri kulturaren maila igotzea.

Lehenengoaren kasuan argia da zientzia arloan, eta batez ere ozeanografiak garaian hartutako garrantziari loturik, Aquariumak izango duela protagonismo nagusia. Aurreko mendeetako ilustrazioaren ideiak berreskuratu eta, Espainiako hiriburuan botanika eta beste Natur Zientziekin egingo den bezala, Donostian ere honekiko interesa zabalduko da. Era berean, kultura eta arteak gizarte kultuarengan eragin handia izango du, eta aristokraziaren gustu eta begirada estetikoaren mesedera ipini beharreko bilduma irekiak biderkatuko dira.

Bigarren gaian, XIX. mendetik aurrera, turismoak bereganatzen duen garrantziari jarraiki, Donostiako hirian atzerritar bisitariak protagonista izango dira XX. mendean zehar: Gerra Zibila iritsi bitartean ematen den garaian, zein gerora, hirurogeiko hamarkadan emandako bultzadarekin berreskuratzen duenekoan. Hirian bertan, turistentzako erakargarriak izan daitezkeen bestelako atrakzioekin batera, museoak saiatuko dira kultura eta artearen sustapen intelektuala egiten.

Bukatzeko, batez ere Gerra Zibila amaitu ondoren, herritarren – eta ez soilik goi klaseen – kultura maila handitzearen aldeko interesa agertuko da, eta jada hirurogeiko hamarkadan zehazten da San Telmoko izan behar duela herri orientazioa eta ez, zientifikoa.

Egoera honek nazioarte mailan ematen ari den jarrerarekin bat egiten du; izan ere, Bigarren Mundu Gerra ostean populazioaren alfabetatzea eta hezkuntza maila igotzeko planei ekingo zaie. Espainian, eta NBE-ren sarrerarekin indartuta, zenbait aldaketa sustatzen hasiko dira Europen ematen ari den egoerarekin nolabait parekatzeko. Hezkuntza alorrari dagokionez, museoen erabilera hezitzailea sustatzen saiatuko dira, tokian tokiko beharren eta baliabideen arabera egingo delarik. Museoetara egindako irteerak “lezio praktikoak” kontsideratzen hasiko dira, eskolako ikaskuntza osatzeko baliagarriak.

Aipatzekoa da Diktadura garaian museoen eta bertako bildumen erabilera Erregimenaren mesedera ipiniko dela, aurreko mendetik bestelako Estatu Nazioek egin duten moduan, bildumak nazio identitatearen indartzerako eta zabaltzeko nahi den mezua

transmititzeko tresna bihurtzen direlarik. Hots, herriaren historia eta irudia agertzeko espazio bilakatzen da, adibidez, San Telmo Museoa bera; edota Urgull Historia Militarraren museoa inauguratzea agergarri delarik.

Guzti honekin batera, museoen baitan ematen diren aldaketak – espazialak, antolamendukoak, finantzaziokoak – eragiten dute hezkuntza funtzioa, edo behintzat museoen erabilera didaktikoa agertzea museo ezberdinetan, fase honen amaieran. Bildumak “modu didaktikoan” erakustea edota “antolaketa pedagogikoa” izatea bilatuko dute museoek diktaduraren azkeneko urteetatik aurrera, baina oraindik ere hezkuntzaren funtzioaren agerpena loaldi luze baten baitan agertzen da Gipuzkoaren kasuan.

5.1.1. Hezkuntza sailak

Hezkuntza funtzioaren agerpen espliziturik gabe eta helburu hori betetzeko jarrera orokortuaren gabezia, Gipuzkoako museoak era inprobisatuan egingo diote aurre aurkeztuko zaizkien egoerei. Kasu guztietan, bisitarien harreraz arduratzen den pertsona edota beharrezko materialaren sorrerarako – postalak, katalogoak – museoaren jabetza duen taldeko norbait izango da, edo honek zuzenean kontratatutako lantaldeko norbait. Victor Hugoren kasuan une bakoitzean etxearen jabea denak irekiko die bisitariei, Armagintzan Eskolako arduradunen batek, Aquariumean GOE-ko kideren bat eta San Telmori dagokionez kontserbadore edota atezainak aipatzen dira horren arduradun bezala.

5.1.2. Hezkuntza ekimenak

Etapan honetan burutzen diren jarduerak oso eskasak dira, eta aurre planifikaziorik gabeko, zein publikoaren interesei erantzuteko programazio ezean gauzatuko dira. Mendearen hasieran, oro har, kontenplazio hutsean oinarritutako ikasketa edo gozamen estetikoa ematen da museoetan.

1980 arte sortzen diren museoetatik San Telmo eta Aquariumek burutuko dituzte bisitariei zuzendutako ekimenak nagusiki, oraindik era inprobisatuan eta oinarri pedagogikorik gabeak. Bisita gidatuak eskaeraren arabera burutuko dituzte, bildumen azalpen teorikoa eskainiz bisitariei. Aquariumen kasuan aipatzen da laborategi praktikak egiteko aukera eskaintzen zaiola talderen bati, baina beti ere anekdotikoa den zerbait izango da. Honetaz gain hitzaldiak izango dira zientzia eta arteari buruzkoak eta baita ikuskizunak ere hiriko kultura eskaintzaren programazio bati jarraiki. Era egonkorrean burutzen den jarduera bakarrenetakoa dugu Aquariumeko biologia ikastaroa, hirurogeita hamarreko hamarkadan zehar eskaintzen dena baina oraindik ere adituei zuzendutako ekimena izanik.

Museoetan ematen diren ekimen gutxi hauetan hezkuntza sistemaren modelo tradizionala errepikatzen da, non bisitariak hartzaile pasiboak diren eta jakinduriaren jabe denak transmisio hutsean oinarritzen duen edukien irakaskuntza. Diskurtso guztiak objektuan oinarritutakoak dira eta ez da hartzailearengan interesik jartzen. Bildumen bisitak, hitzaldiak edota ikuskizunetan jarraitzen den modelotik desberdintzen den ekimen gutxietakoa izango dira ikastaroetan proposatzen diren laborategi praktika eskasak, GOE-ren zientzia hedakuntzaren funtzioari lotutakoa, baina salbuespena kontsideratu daitekeena Gipuzkoako egoera honetan.

Materialei dagokionez garai honetan oraindik ez dira baliabide didaktiko propioak sortzen, eta argitalpen zientifiko zein katalogoak izango dira sortzen diren bakarrenetakoak. Hala ere, zenbait museoen aldetik badago publikoarengana bildumak gerturatzeko intentzio bat, erabilgarria izan daitekeen gida bat sortzeko ideia agertzen baitute Aquariumek eta San Telmok. Mende hasieratik jada, museografiaren baitan ematen hasten dira zenbait aldaketa: kartelak ipintzen dira, bildumen ordenamenduari ekiten zaio era ulergarriagoan aurkezteko erakusketak, eta abar. Gainera, San Telmo eta Aquariumen postalen argitalpenaz ere hitz egiten da, hauek irakasle eta adituentzako erabilgarriak izan daitezkeelakoan. Salbuespena dugu San Telmon hilarrien ezagupenerako sortzen diren fitxak, argazki eta marrazkiz lagundutakoak, bisiten erabileran ulergarriak izateko; baina hala ere, oraindik kontenplazioan eta edukien transmisioaren bitartezko ikaskuntzan oinarritzen direnak.

5.1.3. Publikoa

XIX. mendeko museoetako bisitarien gehiengoa goi klaseetako taldeetara mugatzen bada ere, mende berriarekin batera bisitari mota apur bat zabaltzen hasiko da, biztanleriaren sektore ezberdinetara heldu nahiko delarik. Adierazgarria da gainera, biziraupenerako dituzten baliabide eskasien aurrean, publikoaren etorrera zein garrantzitsua den nabarmentzen dutela museoek. Hauek bisitari kopurua handitzea ardatzetako bat bihurtzen da hasieratik eta administrazio publikoak zein komunikabideek azpimarratuko duten alderdi bat izango da.


Etaparen honetan ez dago hezkuntza ekimen programazio finkorik eta, hortaz, ez da aurkitzen publiko hartzaile nagusi bat jarduera bakoitzerako. Hala ere jakin daiteke adituak eta turistak izango direla lehen bisitari nagusiak, batez ere Bigarren Mundu Gerraren iritsi arte. San Telmoren kasuan aipatzen dira ere kopistak, bildumetatik ikasteko joandako arte ikasleak direnak; edota Armagintza Museoa, zeina Armagintza Eskolako ikasleentzako eredu diren piezen erakusketarako espazio bezala jaiotzen den. San Telmora iristen diren hezkuntza arautuko ikasle eskasiak atzerriko

eskoletakoak izango dira, non eskolaz kanpoko jardueren garrantzia hedatzen hasia den jada.

Berrogeiko hamarkadaren amaieratik aurrera, Donostiako hirian hezkuntza arautuko ikasleak museoetara joatea bultzatuko duten ekimenak abian jartzen dira: prezioak jaitsi, difusio lanak egin eskoletan, irakasleak gonbidatu eta abar. Eskola Berriak proposaturiko klasetik kanpoko ekintzen edo txangoen ideia berreskuratzen da garai honetan, eta hezitzailea izan daitezkeen bestelako espazio batzuk erabiltzeko joera zabaltzen da pixkanaka. Beti ere hiriburuan ematen delarik, geroz eta ikasle gehiago gerturatzen dira San Telmo eta Aquariumera. Egoera honek islatzen du nazioarte zein Estatu mailan ematen ari den eskolatze masiboaren ondorioetako bat. Izan ere, eskolatutako haur gehiago izateak eta biztanleriaren kulturarekiko eta hezkuntzarako aukera handiagoak aurkitzeak eragiten du museo bihurtzea talde gehiagoren gune desiragarria.

Hala ere, egoera hau ez dago oraindik orokortua eta, biztanleriaren egunerokotasuna, museoetako bizitzari bizkarra emanez garatzen da, hautsez betetako gune aspergarria kontsideratzen dutenak. Hiriburuko festa eta aisialdi girotik aldenduz, kulturaren mesedera dauden espazioak bilakatu nahiko badute ere – kasinoak, zezenketak edota udaldiko deskantsu guneak izatetik – oraindik egoera hori ez da emango.

GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1912-1980



5.2. Bigarren fasea: Esnatzea

Gipuzkoako museoen bigarren fasea, 80garren hamarkadan ematen dena, Esnatze garai bat bezala definitu daiteke, urte luzeegien ondoren hezkuntza funtzioa erakunde hauetan txertatzen hasten baita pixkanaka. Ordura arte nazioarte mailan emandako berrikuntzek apenas izan dute eragina lurraldeko museoetan, eta beraz, laurogeiko hamarkadako egoera sozio-politikoak ahalbidetuta batez ere, panorama berri baten bideak irekitzen hasten dira. Hots, Diktadura eta Trantsizioko egoera ezegonkorretik, Autonomia Estatutuak zein Diputazioen eskumen berriek baimentzen dituzten aldaketak gauzatzen hasten dira erakunde hauetan.

Probintziaren barnealdean museo berriak inauguratzen dira – ordura arteko hiriburuaren nagusitasuna baztertzen hasita – eta horietako batzuetan egingo diren planteamenduak bereziki interesgarriak izango dira ondorengo urteetako museoen hezkuntzaren alorrerako. Izan ere, garai honetatik aurrera, landa eremuetako edo lurraldearen barnealdeko zonalde askoren nagusitasuna emango da, industriari esker batez ere aberastu diren zonaldeak protagonismoa izango dutelarik eta hiriburuko menpekotasunetik pixkanaka aldentuko direlarik.

Horrekin batera ekimenak ugaritzen hasten dira eta beharrezko baliabide espezifikoak – giza baliabideak zein materialak – agertuko dira Esnatze faze honetan, publikoaren mesedera dagoen erakundea bezala ulertzen hasten den bitartean.

Ekimenean eta antolamenduan ez ezik, museoen izaera eta funtzioaren aldaketak nabarmentzen hasiko dira. Alde batetik, garaian gehien errepikatzen den helburua izango da “museo bizia” eta “gizarteari irekita” izatearena, erakunde guztien desio nagusienetakoa bilakaturik. Honek lotura izan dezake aurreko hamarkadatik hedatzen hasiak diren Museologia Kritikoaren ideiekin, non erakunde zaharkitu eta geldoaren aurkako museoak erreklamatzeko hasten diren (Hernández Cardona eta Santacana, 2006). Gainera, kontutan izan behar da Frantzian Museologia Berriak bereziki eragina izango duela, eta Gipuzkoara ideia berrien helduera goiztiarra izango da, mugan kokatu izanagatik, zein mugaz bestaldeko erakundeekin ematen den hartu-emanetik sortu daitekeena. Honekin batera, ICOM-ek garaian sustatzen dituen ideien nolabaiteko helduera nabari da, gizarteari irekita egon behar den erakundea eta aldi berean komunitatearen parte den museoaren garrantzia azpimarratzen baita. Estatu mailan hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik jada hedatzen hasia den gizartearen zerbitzura dagoen erakundearen ideia heltzen da beraz Gipuzkoako zenbait erakundeetara ere.

Bestalde, nazioarte mailako museoetan – hezkuntza sistema, orokorrean – metodologia aktiboen eta pedagogia ideia berrien txertatzea aurreko hamarkadan

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

emango bada ere, laurogeiko hamarkada arte itxaron beharko da Gipuzkoako museoetan jarrera berri hau nabarmentzeko. Horrela, eskolaz kanpoko ikaskuntza ematen diren espazio berriek nagusitasuna izango dute, museoak horien artean, ardatz bihurturik. Gipuzkoari dagokionez, bi izango dira etapa honetako berrikuntzaren ardatz alor honetan: Eskoriatzako Museoa eta Azpeitiko Umeen Museoa. Bi kasuetan, bereizgarriak diren elementuak partekatzen dituzte: Irakasleen protagonismoa – proiektuaren sustatzaile bezala edota lantaldearen osaketan – eta ikaskuntza aktiboaren oinarria duten ekimenen garapena.

Hauekin batera, bilduma oinarri izaten jarraituko duten museoak irekiko dira, bilduma pribatuen erakusketarako – Gorrotxategi Museoa – zein ondare arkeologikorako “in situ” erakusteko – Ama Xantalen ermita –. Aurrez existitzen diren museoak biziraupen fasean jarraituko dutela esan daiteke, eta soilik San Telmo Museoaren kasuan nabarmenduko da garai berrietara egokitzeko nolabaiteko jarrera. Azkenik, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa, zein Zumalakarregi Museoaren irekiera emango da hamarkadaren amaieran, aurreko bi ereduaren uztartzea burutuz: museo tradizionalago baten oinarriari helduko diote, ondarearen kontserbazio, ikerketa eta erakusketaren garrantzia azpimarratuz, baina aldi berean hezkuntza funtzioa museoaren ardatz nagusia izanik.

5.2.1. Hezkuntza sailak

Laurogeiko hamarkadatik aurrera Gipuzkoako museoetan lehen hezkuntza sailak edota funtzio hau beteko duten lantaldeak osatzen dira. Alabaina, izendapen hori jasoko duten talde bereziak soilik San Telmo Museoan eta Zumalakarregi Museoan topatuko ditugu; besteen kasuan lantalde berak egiteko ezberdinen artean izango ditu hezkuntza ekimenen diseinu eta gauzatzea – eginez gero, noski –.

Hezkuntza sailen sorrera Espainiara berandu heltzen bada, are gehiago Gipuzkoaren kasuan. Hala ere, estatu mailan ematen ari den museoetako hezkuntzarekiko interes berri horretan murgilduko dira zenbait museo, horrek ere lurraldean ematen den arlo honen garapenean eragina izango duelarik. Lehen urteetako DEAC-eko partehartzaileei dagokionez, jakin dezakegu jada 1983tik San Telmo Museoko arduradunak presente egongo direla jardunaldi hauetan. Honetaz gain, administrazio publikoaren interesa nabarmendu daiteke, EJ edota GFA-ren ordezkariak ere agertzen direlarik. Azkenik, Zumalakarregi Museoa ireki bezain pronto jada parte hartzen dute 1989ko jardunaldietan Albaceten. Guzti honek museoaren antolaketan, joera berrietan edota museoko sailen sorreran eragina izango du, bertan aurkezten diren hausnarketa gaien parte bihurtu eta proposatzen diren planteamendu berrien hartzaille izango direlarik.

Zkia.	Urtea	Erakundea	Partehartzaile kopurua
1	1980	Gipuzkoako erakunderik ez du parte hartzen	
2	1981	Partehartzaileen daturik ez da topatu	
3	1983	EJ (Kultura Saila)	3
		San Telmo Museoa	1
4	1985	GFA	2
		San Telmo Museoa	2
5	1986	Partehartzaileen daturik ez da topatu	
6	1988	Partehartzaileen daturik ez da topatu	
7	1989	San Telmo Museoa	1
		Zumalakarregi Museoa	2
		GFA	1

Taula 16: DEAC Jardunaldietako gipuzkoar museoen partaidetza (1980-1990)

Hezitzaileei dagokionez, aurreko garaietako kontserbadore eta atezainek lekua utziko diote bestelako protagonistei. Alde batetik, irakaslearen figura agertzen da museoaren baitan, hauek pedagogian formakuntza duten pertsonak izanik museoeko hezkuntza ekimenak burutzeko profesionalak egokienak direla ulertzen delako; eta era berean, museoeko hezitzailearen figura profesionalik existitzen ez delako oraindik hemen. Eskola publikoetako irakasleen liberazioa emango da Eskoriatzako eta Umeen Museoen lantaldea eratzeko, eta San Telmoren kasuan, irakasle batekin elkarlana burutzen da material didaktikoaren sorrerarako. Beste kasuetan, museoaren jabetza duen erakundea arduratuko da publikoaren harreraz, zein egiten diren ekimenez, izan ere, askotan kultur saileko teknikariak edota bildumaren jabeak arituko direlarik publikoaren harrera lana eta bisitak burutzen.

Profesionalizazioaren lehen zantzua hamarkadaren amaieran soilik topatu daiteke, non lehen aldiz administrazio publikoak lehiaketara aterako duen Zumalakarregi Museoaren kudeaketa, hau K6 Kultur Kudeaketa enpresaren esku geratuz.

Nazioarteko unibertsitateak hirurogeiko hamarkadatik eskaintzen hasiak diren espezializazio eta formakuntza ikastaroa, herrialdearen araberrako izendapen eta trebakuntza maila desberdina izango delarik. Espainiaren kasuan laurogeiko hamarkadaren amaiera arte ez dira iritsiko, horietako lehenengoa Euskal Herriko Unibertsitatearen esku egongo delarik; baina honen eragina eta ondorioak ez dira oraindik antzemango garai honetako museoetan.

5.2.2. Hezkuntza ekimenak

Fase honetan sortzen diren museo guztiek hasieratik izango dute oinarrian publikoari eskaini beharreko ekimenen bat sortzea. Hortaz, aurreko hamarkadetatik existitzen diren hiru museo soilik aurkitzen ditugu irekiera tartekatu eta jarduerarik gabekoaren

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA


baitan funtzionatzen dutenak, eta inauguratzen diren ekipamendu berri guztiek eskaintza bat aurkeztuko dute.

Jarduera motei dagokionez, bisita gidatuak jarraituko dute protagonismoa izaten; oraindik museoa eta bertako erakusketak aditu batek erakutsi eta kontatu beharreko zerbait bezala ulertzen da nagusiki. Adierazgarria da museo batzuk agertzen dutela aktibo edo bizia izatearen nahia, baina errealitatean hori gauzatzeko ekimenik ez dela aurkezten. Bestalde, aldizkako hitzaldiak edota ikastaro batzuk osatzen dute programazio tradizionalago bat kontsideratu daitekeena, hots, edukien transmisio hutsean oinarritzen direnak.

Berrikuntzei begiratuz, bi jarduera klaberren agerpena emango da: tailerrak eta jolasak. Hirurogeita hamarrekotan hamarkadan zenbait museo espainiar proposatzen hasten dira batez ere haurrei zuzendutako jarduerak, non izaera ludikoa duten tailerrak eta jolas ezberdinak planteatzen diren museoko bildumak edo erakusketak ezagutzeko. Honek lotura zuzena du hezkuntza alorrean eragina berreskuratzen hasiak diren ikaskuntza aktiboaren metodologiak. Era berean, museoa antzemango da entretenimendu hezitzaile baterako espazio bezala, hezkuntza arautuko egitura zurrunik at beste modu baterako deskubrimendua sustatzeko eremua alegia.

Azkenik, eta oraindik oso adierazgarria ez bada ere, zenbait museok ibilaldi gidatuak eskaintzen dituzte. Oraingoan museoa bere eraikinetik haratago doan erakundea bezala ulertzen da, gordetzen duen bilduma baino inguratzen duen ondarrera gerturatzeko tresna bezala ulertuz. Laurogeiko hamarkadan administrazio publikoaren aldetik egiten diren natur-guneen zainketa eta ezagupenaren sustapenak lotura izan dezake honekin, museoak kokatzen diren herrietako paisaia ezagutzeko ibilaldiak antolatzen baitira. Era berean, museo askok irteera horietan aurkituko dute erakusketan landutako edukiak ingurune erreal batean ikertzeko espazioa, XX. mende hasierako txangoen ideiak berreskuratuz.

Museoak eta hezkuntza Gipuzkoan. Kartografia historiko bat



Grafikoa 1: Hezkuntza ekimenak. Jarduera motak (1980-1990)

Amaitzeko, aipagarria da hamarkada honetan aurrera eramaten diren proiektu edo museoetako ekimen batzuk, garaieren adierazgarri direnak eta dudarik gabe ondorengo hamarkadetan burutuko diren proposamen askoren oinarriak.

Alde batetik, San Telmo Museoan gauzatzen den Arte Laborategia dugu. Urte batzuetan aurrera eramandako proiektu hau guztiz berritzailea izango da, laborategi pedagogiko honetan artearen bitartezko ikaskuntza sustatzen baita. Italian Bruno Munariren proiektutik abiatutako proposamen hau ezagutuko dute lurraldeko pedagogia profesional batzuek, zeinak San Telmori hura aplikatzeko planteamendua egingo dioten laurogeiko hamarkadan. Gainera, Munari berak Donostian hainbat hitzaldi eman izanak ere eragina izan dezake ez soilik museoeko profesionalengan, baita hezkuntza arautuan aritzen diren profesional ezberdinengan.


Bestalde, Eskoriatzako Museoaren eredia dugu. Hau irakasle talde baten ideiatik abiatutako proiektua da, zeinak ikasleek euren herriko historia ezagutzeko beharra sumatzen duten hamarkada honen hasieran. Pedagogia berritzaileetan oinarritutako proposamen bat egingo dute: zentzumenen bitartezko ikaskuntza, praktikak eta tailerrak, erakustaldiak, material didaktiko berritzailea eta beste hainbat ekintza. Honek ere oihartzuna izango du lurralde osoko beste museoetan eta praktikan jarritako ekimen askoren arrakastak eragingo du beste espazio batzuetan ere hauek aplikatzeko joerak garatzea.

Azkenik, Azpeitiko Museoa administrazio publikotik abiatutako nahi batean oinarritzen da, ingurumenak garaian hartutako garrantziari jarraiki. Jasangarritasuna edota

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

birziklapena bezalako gaien agerpena emango da autonomia erkidegoan indar handiarekin, eta hortaz, etorkizuneko biztanleak hezteko espazio bat bezala ulertuko da museoak. Era berean, eredia bera AEB-ko zientzia museoak izatea adierazgarria da, esperimentazio eta praktika bidezko ikaskuntza batean oinarritzen baita museoko jarduera. Gainera, etengabe errepikatzen da umeentzako dibertigarria den ikaskuntza bat sustatu nahi dutela, izaera ludikoko ekimenak nagusituko direlarik.

Aurreko urteetan sortzen diren katalogo edota argitalpen zientifikoak mantentzen badira ere, hamarkada honetan berrikuntzak ematen dira hezkuntza baliabideen alorrean. Museoko eskuorri edota gida orokorraz gain, non ordutegi, prezio edota bildumari buruzko informazioa eskaintzen den, orain publiko zehatzari zuzendutako baliabideak sortzen dira. Gipuzkoan irekita dauden museoen portzentaje txiki batek soilik egiten baditu ere, zenbait museoek sortuko dituzte batez ere irakasleei eta ikasleei zuzendutako materialak.



Grafikoa 2: Hezkuntza baliabideen sorrera (1980-1990)


Etapa honetan Eskoriatzako Museoak, Azpeitiako Umeen Museoak, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoak eta San Telmo Museoak diseinatzen dituzte irakasleentzako dossierrak, eta horiei lagundutako ikasleentzako koaderno didaktikoak ere. Material hauek eskolako baliabideen errepikapenak izango dira nagusiki, baina badira aurrera pauso bat alor honetan, bisitari motaren arabera egokitzapenak eskaintzen baititu edukiak ezagutu eta mezua ulergarri egiteko.

Jolasak egiten diren museoetara dagokionez, bik sortzen dituzte joko propioak – Eskoriatzakoak eta Azpeitikoak –, konkretuki museoan lantzen diren edukien ezagupena era ludikoan egiteko proposamena direnak. Ikus-entzunezkoen agerpena ere ematen da garai honetan baina oraindik kasu bakar batean, Urrelurrek bisiten aurretik ikusteko proposatzen duen bideo bat delarik. Hala ere, aipatu beharra dago

laurogeiko hamarkadan irekitzen diren museo batzuk jada berriak diren museografia teknika eta tresnak erabiltzen dituztela Horien artean, adibidez, museoetan bisita autogidatua egitea errazten duten zinta magnetofonikoak eskaintzen dituzte Azpeitiako Umeen Museoan, Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoan eta Eskoriatzako Museo-Eskolan: grabazioen bitartez azalpenak entzuteko aukera eman eta era autonomoan erakusketa ikusteko aukera ematen zutenak.

Material hauen egileak, kasu gehienetan, museoko lantaldeak izango dira. Hala ere, San Telmoren kasua jakin izan dezakegu irakasle batekin elkarlanean burutzen direla materialak, berriz ere hamarkada honetan irakasleei ematen zaien protagonismoari jarraiki.

Beraz, nazioarte eta estatu mailan ematen den egoera antzekoa topatzen dugu lurraldean; eskolaren luzapen bezala ulertzen dira askotan museoak eta hortaz, bertako materialen errepikapen edo kopiak nagusitzen dira oraindik. Era berean, ulertu behar dugu hamarkada honetan oraindik baliabide teknologiko berriak ez direla hedatu eta paperean egindako koaderno eta fitxak izango direla eskuragarria den elementu nagusia.




Grafikoa 3: Hezkuntza ekimenak. Baliabide material motak (1980-1990)

5.2.3. Publikoa

Laurogeiko hamarkadan publiko motarekiko nolabaiteko jarrera aldaketa ematen bada ere, oraindik oso museo gutxi dira talde zehatzen araberako programak edota eskaintzak osatzen dituztenak. Ekimen gehienak publiko orokorrera zuzentzen dira, eta hezkuntza arautuko taldeen kasuan ez da zehazten zein mailalara edo hezkuntza etapara egokitzen den jarduera bakoitza.

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

Salbuespen bezala aipatu beharra dago lau museo definitzen dituztela talde zehatzak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako etapetara zuzenduz.



Grafikoa 4: Hezkuntza ekimenen publiko mota (1980-1990)


Erreferentziazko talde bakarrak hezkuntza arautukoak izango dira, museoak curriculumean finkatzen dituen oinarrietatik abia daitezkeelako ekimenak sortzerakoan. Haur eta helduentzako eskaintza berezia egiten duen museo bakarra badago ere, aipagarria da antzematen delako eskolako taldeetatik at badagoela biztanleriaren baitan museoa bisitatu nahi duten bestelako banakakorik ere, normalean asteburu eta jaiegunetan mota honetako espazioak bisitatzeko hasiko dena. Beste kasuetan publiko orokorrari zuzendutako ekimenak direla uler dezakegu, eta talde ezberdinak hartzen dituztenaren frogak topatu badira ere, hauek beharren arabera edo eskariaren baitan moldatuko dituzte.

Egoera honetan ematen den arazo nagusia publiko mota ezberdinen gaineko ezagupen eza egon daiteke. Hots, Espainian oraindik bisitarien ikerketak eta horien beharrak aztertzen dituzten lanak ez dira existitzen; hortaz, ezin dira diseinatu talde zehatzei egokitzen diren jarduerak zein materialak. Gipuzkoaren kasuan, noski, ez da horrelakorik emango eta ebaluazio lanak egiten badira bisitarien asebetetutako mailari lotutakoak izango dira gehien bat. Orokortzen den egoera nagusia lantaldearen behaketa zuzenean zein intuizio hutsean oinarritzen diren jarduerak eta programak izango dira.

Bestalde, eskola taldeen etorrera masiboaren ideia, jada hirurogeita hamarreko hamarkadan Espainian ematen dena, orain antzemango da Gipuzkoaren kasuan.

Inauguratzen diren museo berrien artean Azpeitikoa eta Eskoriatzakoek jasoko dituzte talde gehienak. Umeen Museoaren dokumentazioan etengabe aipatzen denez, eskaria eskaintza baino askoz ere handiagoa izango da hasieratik, itxaron zerrendak osatzera eramateraino. Beraz, aukerak oraindik gutxi badira ere, hezkuntza arautuaren aldetik badago museoek eskaintzen dituzten aukeraz baliaitzeko joera orokortua, ordura arte existitu ez diren espazio horien berritasunak eta eskolan egiten ez diren ekimenak erakarrira.

GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1980-1990



5. 3. Hirugarren fasea: Esplorazioa

Esnatze fasearen ondoren, esan daiteke laurogeita hamarreko hamarkadan, mende aldaketaraino iritsi arte, museoen mundua eta eskaintzen dituen aukera ezberdinen esplorazio bat emango dela Gipuzkoan, non mota ezberdinetako ekipamenduak ireki, jarduerak diseinatu eta materialak sortuko diren, oraindik ziurtasun handirik eskaintzen ez duen panorama batean murgilduta, baina era berean, zentzu guztietan aberasgarria izan daitekeena. Aurreko hamarkadaren amaieran nabarmentzen den tendentziari jarraiki, museoak inauguratuko dira hiriburutik kanpora ere, pixkanaka mapako zonalde guztiak estaltzen hasiko diren museo kopurua handituz.

Alde batetik, administrazio publikoaren museoekiko jarrerak eragingo du mota honetako erakunde kulturalen jaiotza ugartzea. Honela, 1995eko martxoaren 28ko Aginduaren arabera⁷²⁴, 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan museo bat sortzeko gomendioa ezarriko du EJ-k.

Politika horretan, Museoak eskualdeetako garapen ekonomikorako tresna bilakatu ahal direla ulertzen da, hein batean, Frantziako lurralde museoek kontzeptua hartu eta bereganatuz, suposatuz, aplikazioa arrakastatsua izango dela. Hala ere, helburu horretarako erreminta izateak testuinguru zehatz bateko aplikazioa duela azpimarratu behar da, museoaren inaugurazio hutsak *per se* udalerrri edo zonaldearen garapena ekarriko ez duelarik ulertzen baita. Hau ordea ez da modu berdinean bereganatuko eta hortaz, Gipuzkoa osoan inauguratuko diren hainbat museoek gainbehera nabarmenduko da hasieratik.

Ekonomiarekiko lotura turismoarekiko ere emango da hamarkada honetan. Aurreko hamarkadetakoz atzerritar turismoa ez ezik, oraingoan bertakoen bisitak eta horientzako eskaintza erakargarria osatzea izango da helburutako bat.

Honela sortzen dira 90. hamarkadan natur-guneek lotutako espazioak, ingurumen hezkuntza indartzen dutenak (Lizarrusti eta Iturraran); lurralde-museoaren ideiei jarraituko dioten espazioak (Zerain, Larraul eta Mirandaola); tradizioari eutsiko dioten bildumen erakusketak (Donostiako Elizbarrutiko Museoa, Tren Museoa, Photomuseum, Tximeleten Munduko Erakusketa Iraunkorra eta Makina Erreminta). Hauekin batera, aipatu beharrekoak dira arkeologia indusketetatik abiatuta musealizatzen diren espazioak (Igartza eta San Martin ondare-guneak), eta baita Untzi

⁷²⁴ AGINDUA, 1995eko martxoaren 28koa, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen turismo-azpiegitura sortu eta hobetzeko laguntzak emateko eta turismo-produktu berriak aztertu, diseinatu, abian jarri eta merkaturatzeko. In http://www.irekia.euskadi.eus/eu/orders/199501730?criterio_id=822837&track=1 (2015ko ekainaren 5an ikusia).

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

Museoa ere, Zumalakarregiren antzera izaera tradizionalako bildumaren erakusketa egiten duena baina aldi berean hezkuntza arloan berrikuntzak aurkeztuko dituenak.

Museo bakoitzaren izaera eta helburuak desberdinak izanik, burututako hezkuntza ekimenak ere erabat desberdinak izango dira oraingoan. Museo horietako askok, oro har, bisita gidatuetara mugatu dute euren eskaintza eta apenas nabarmenduko dira hezkuntza jarduera edota material adierazgarriak egiteagatik. Hala ere, joera orokortu bat antzemango da, eskolaren luzapen bezala ulertzen diren museoak izatetik, publiko mota ezberdinetara irekita dauden espazioak izatera igaroko diren, aisialdiko denboran izaera kulturalako ekimenak burutu nahi dituzten bisitariak geroz eta gehiago direlarik; beti ere eskolako taldeak mantenduz.

5.3.1. Hezkuntza sailak

Hezkuntza sail ofizialen eraketa Untzi Museoan, Photomuseumen eta Mirandaolan soilik emango da museo berriei dagokionez. Aurretik existitzen direnetakoak mantentzeaz gain, Aquariumean sortuko da hezkuntza departamentua laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran. Hala ere, beste museoetan eratzen diren lantaldeak – txikiak izanik – hezkuntza funtzioa beteko dute ere, beste egitekoen artean txertatzen delarik ekimenak sortu eta gauzatzeko ardura.

Kuadeaketa motari dagokionez, 14 museoetan, titularrak azpikontratatu egiten du kudeaketaz arduratuko den enpresa bat (B erako sistema) eta 10 museok soilik izango dituzte lantalde propioak (A erakoak).

Aurreko urteetan ematen den irakasleen presentzia jatorrizko museo batzuetan mantentzen bada ere, oraingoan egoera berri bat emango da, profesional berria agertzen duten lantaldeek ordezkatzeko dituztelarik. Zumalakarregi Museoarekin hasiera ematen zaio museoek enpresa pribatuei esleitzeko joera berria, eta hortaz, hamarkada honetan sortuko dira zerbitzu mota ezberdinak eskaintzen dituzten enpresak. Museo bakoitzaren funtzio eta helburuei loturik – edota alderantziz, kontratatutako enpresaren izaeran oinarriturik – burutuko diren hezkuntza ekimenak oso desberdinak izango dira. Hau da, kultur zerbitzuak edota turismokoak eskaintzen dituzten enpresen kontratazioak eragingo du, askotan, museoko hezkuntza funtzioaren garapenak bide bat ala bestea jarraitzea. Gipuzkoan, 1989tik 2000 bitartean hamaika enpresa ezberdin sortzen dira.

Enpresen izaera/ zerbitzu mota	Enpresa kopurua	Enpresen izenak
Zerbitzu kulturalak / hezkuntza	3	K6, Airu, KOMA
Ingurugiro zerbitzuak / hezkuntza	3	Artelatz, Arazi, Arreta
Zerbitzu turistikoak	2	Aldabe, LasteBide
Animazio zerbitzuak	1	Astixa
Museoen kudeaketa orokorra	2	Erro, Begi Bistan
GUZTIRA	11	

Taula 17: Museoetako kudeaketa enpresak Gipuzkoan (1989-2000)

Hezitzaileen trebakuntzak ere panorama berria aurkezten du Gipuzkoan. Nazioarte mailan ordurako hedatuta daude museologiako alor ezberdinei lotutako eskaintza akademiko egonkorrak, eta museoko hezitzailearen formakuntza definitu bat emana dago kasu askotan. Espainiaren kasuan, aldiz, laurogeiko hamarkadaren amaieran ematen da lehen pausoa: Euskal Herriko Unibertsitatean eskaintzen den museologiako espezializazioak eragiten du historia edota artearen historiaren alorreko ikasle askok bide berri hau jorratu eta lurraldean existitzen diren museoetako lantaldeen parte bihurtzea. Ordutik aurrera estatu osoan zehar hedatuko dira espezializazio, master edota ikastaroak unibertsitate ezberdinen eskutik, horrek, pixkanaka, museoko hezitzailearen profila eratuko duelarik.

Hala ere, marko legal baten gabezia mugitzen diren profesionalak izango dira hamarkada honetako museoko hezitzaileak, diziplina ezberdinetatik etorriak, eta normalean museoko edukietan aditua den pertsonak bihurtuko direlarik hezkuntzaren arduradunak. Testuinguru horretan, Aguinalek (1988: 253) Eusko Ikaskuntzaren X, Kongresuan aipatzen du: "los perfiles profesionales son difusos, y quedan a merced de todo género de vaivenes en un «cualquiera sirve para cualquier cosa»".

Gipuzkoaren kasuan ere egoera hau emango da, eta sortzen diren lantaldeak izaera ezberdinetako profesionalak izango dira: historialariak, biologoak, ingurugiro hezitzaileak eta arte historialariak, besteak beste. Zenbait kasutan, museoko harrera lanak egiteko kontratatuko dira turismo alorreko pertsonak, edota kudeaketa orokorra burutzeko enpresa munduan mugitzen diren profesionalak agertuko dira. Egoera honek, beraz, zaildu egingo du museoetako hezkuntzan indarra jarriko duten lantaldeak osatzea.

Egoera honi aurre egiteko, eta egoeraren jabekuntzaz adierazle, Espainiako DEAC jardunaldietan parte hartuko duten Gipuzkoako museoak gehiago izango dira hamarkada honetan. Horrela, garaian ematen ari diren berrikuntzak, zein sortutako

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

hausnarketa eta eztabaidaren berri izango dute, honek museoko jardunean eragina izan dezakeelarik. Dokumentazio publikoan topatu denaren arabera, San Telmo Museoko arduradunak aurkituko ditugu hamarkada honetan ere partehartzaile bezala, Zumalakarregi Museoko lantaldeko kideen jarraipenarekin batera. 1996ko jardunaldietan Gipuzkoako museo gehiagoren partaidetza nabarmentzen da, urte honetan Bilbon burutzen baita edizio hori. Bestetik, azpimarratzekoa da ere GFA-ren presentzia laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, eta baita erakusketa areto bezala irekitzen den Koldo Mitxelena Kulturgunearen agerpena.

Zkia.	Urtea	Erakundea	Partehartzaile kopurua
8	1991	San Telmo Museoa	1
		Zumalakarregi Museoa	2
		GFA	1
9	1994	Ez da daturik topatu	
10	1995	Ez da daturik topatu	
11	1996	Koldo Mitxelena Kulturgunea	1
		San Telmo Museoa	1
		Eskoriatzako Museoa	1
		Zumalakarregi Museoa	1
		Untzi Museoa	4
		Photomuseum-Argazki Euskal Museoa	1
1996tik aurrera ez da partehartzaileen daturik topatu			

Taula 18: DEAC jardunaldietako gipuzkoar museo partaidetza (1990-1996)

DEAC Jardunaldiez gain, Gipuzkoan nabarmentzen da museoetan dauden profesionalen trebakuntza beharrerako antzematea. Horrela, laurogeita hamarreko hamarkadan eskaintzen dira turismoa eta garapenari lotutako jardunaldi ezberdinak – berriz ere museo ardatz ekonomiko bihurtzeko eredu errepikatuz – edota ingurumen hezkuntzarako ikastaro ezberdinak, gai honi lotutako museoetarako erabilgarriak. Hortaz, ondarea edota museologiaren gaineko trebakuntza osagarri zehatzik ez da eskainiko lurraldean, horrek ere ekimenen izaera eta formetan eragingo duelarik.

Alabaina, badira zenbait museotako lantalde euren aldetik formakuntza burutuko dutenak edota beste profesionalekin harremanetan jarriko direnak hezkuntza ekimenen inguruan hobekuntzak emateko. Zumalakarregiren kasuan, adibidez, Estatuko pedagogi kabineteeekin elkar-trukea egiten dutela zehazten da, eta Euskal museo ezberdinetara bisitak burutzen dituztela euren hezkuntza programa eta materialak

prestatu aurretik. Beraz, honek funtzio honekiko jarrera desberdin bat erakusten du, hurrengo urteetan antzemango dena.

Amaitzeko, hezkuntza sailtako profesionalez gain bestelako eragile batzuen agerpena ematen da hamarkada honetan. Alde batetik Museoen Lagunen Elkarteak sortzen dira Espainiako beste kasu batzuen antzera, museoko ekimen zehatzak burutzeko edota babes ekonomikoa emateko jaiok. Bestalde, boluntarioen lanari esker eramango dira aurrera hainbat ekimen, batez ere herri txikietan sortzen diren museoetarako. Azkenik, praktika aldian dauden ikasleak izango dira zenbait museoetan, profil akademiko ezberdinetakoak – irakasleak, pedagogoak, turismo ikasketetakoak – , erakunde askotan sortzen diren baliabide didaktikoen sortzaile izango direnak – fitxak, koadernoak – edota burutzen diren ebaluazio lan eskasien arduradunak. Egoera honek, hein batean, unibertsitatearen eta museoaren arteko elkarlan baten hasiera markatuko du, kolaborazioak aberasgarriak bilakatzen direlarik bi aldeetarako.

5.3.2. Hezkuntza ekimenak

Museoetako ekimen motaren baitan bariazioak sortzen badira ere, oraindik tradizioari eusten dioten proposamenak gailentzen dira laurogeita hamarreko hamarkadan. Hala ere, museo mota eta bildumen izaeraren arabera eskaintza dibertsifikatu egingo da, eta aberasgarria den panorama bat aurkituko da ere ekimen eskaintzari dagokionez.

Bisita gidatuak eskaintzaren ardatz izaten jarraituko dute, eta aurretik existitzen diren tailer eta jolasak ere barneratuko dira museoen programetan. Hauekin batera, gehien bat aldizkako proposamen moduan egiten diren hitzaldiak ere aurkitu daitezke kopuru handian, ikastaroek ere indarra hartuko dutelarik.

Adierazgarria da jarduera mota bakoitzaren baitako modalitate ezberdinak sortzen direla etapa honetan. Hots, bisita gidatu arruntaz gain bestelako gehigarri bat agertzen duten bisita motak egiten hasiko dira museoetan: erakustaldiekin, bereziak direnak edota antzeztuak – nahiz eta hauek oraindik oso kopuru baxuan – .


Egoera honetan antzeman daiteke, alde batetik, turismoaren joera berriaren eragina; izan ere, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera zonalde ezberdinetako ondarea eta eskaintza indartzeko proposamenak ugaritzen dira, geroz eta lehiakorragoa den panorama batean nagusitasuna lortzeko lanean diharduten museoak geroz eta gehiago direlako. Horrela, turismoari lotutako formak – esperientziak eskaintzea, zerbait berria eta berezia dena proposatzea – bereganatuko dira museoetan ere. Gainera, museoak eraikinetik atera eta ingurunekeo paisaia eta espazioen erakusle ere

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

bihurtuko da, hein batean, turismoaren alorrean burutzen diren ibilaldi gidatuekin bat egiten dutelarik – askotan euren arteko mugak ezin direlarik bereizi – .

Era berean, museoek euren bildumak edota edukiak erakusteko bestelako moduak daudela ulertzearekin ere erlaziona daiteke. Hau da, bide edo ibilbide batean zehar informazioaren transmisio hutsa egiten den jarduera batetik, bestelako modu batean ulertarazteko formak agertzen dira: produktuaren dastatzea, lan-prozesuak zuzenean ikusteko aukera, makinariaren funtzionamendua ikustekoa eta beste hainbat forma.

Azkenik, fenomeno bat ematen da soilik bi museoek eskutik garai honetan eta hamarkada honetan, ondoren jarraipena izango ez duena: irratsaioetan parte hartzea. Izan ere, aurreko urteetan ematen den gizartearengana iristeko helburua eta museoak biztanleriara gerturatzeko nahiari jarraituz, Zumalakarregi Museoa eta Azpeitiako Umeen Museoa irrati ezberdinetako saioetan kolaboratzen hasiko dira, landu nahi dituzten edukiak edota museoko hezkuntza ekimenei loturiko gaien trataera eta difusioa egiten delarik. Pentsatu behar dugu laurogeita hamarreko hamarkadan oraindik Internetaren erabilera ez dagoela guztiz zabaldua, eta beraz, komunikabideen erabilera hau bihurtzen dela museoentzako aukera paregabea jende gehiagorengana heltzeko.



Grafikoa 5: Hezkuntza ekimenak. Jarduera motak (1990-2000)

Beraz, Estatu mailan gertatzen den bezala, Gipuzkoan ere tradizioari eutsiko dioten jarduerak nagusituko dira oraindik. Tailer eta jolasak bezalako ekimen parte-hartzaileak txertatzen badira ere, oraindik protagonismoa izango dute publikoaren paper pasiboa

eskutzen duten proposamenak. Nahiz eta elementu berriak txertatzen diren bisitarien motibazioa, arreta eta interesa pizteko baliagarriak izan daitezkeenak, oraindik, nagusiki, museoak eta publikoak bananduta aurkitzen diren bi eremu dira, bata bilduma eta edukien gordailu eta erakusle dena eta bestea hartzailea.

Azkenik, aipatzekoa da eskaintza geroz eta egonkorragoak aurkezten dituztela museoek, pixkanaka ekimenen finkatzea ematen delarik eta programa geroz eta garatuagoak sortuz. Gainera, astean zeharreko eskaintzaz gain, asteburu eta jaiegunetan ere programazioak osatzen hasiko dira. Izan ere, hamarkada honetan guztiz barneratzen da turismo lokala deiturikoa; hots, museoak aisialdi garaiaren parte bihurtzen dira gizartearen parte geroz eta handiago batean. Egoera honen aurrean eta eskaintza geroz eta zabalago bat osatzen ari dela antzemanda, zenbait museoek indarrak batuko dituzte eta elkarlanak zein eskaintza bateratuak osatzen hasiko dira; Zumalakarregi Museoak Zeraingo Herri Museoarekin eta Legazpiko Lenburrekin; edota Zumalakarregi Museoa eta Azpeitiako Tren Museoaren artean. Horrela, zonalde berdinetan edota gai antzekoak ardatz dituzten museoek errepikapenak egingo eta bisitariak erakartzeko estrategia bezala erabiliko da.

Jarduerekin batera, hamarkada honetan sortzen diren hezkuntza baliabide materialak apur bat aldatuko dira. Hala ere, existitzen diren museoek erdiak baino gutxiagok soilik diseinatzen dituzte material propioak, eta beraz, orokortu gabeko jarrera bat da oraindik honakoa.


Aurreko urteetan bezala, irakasleentzako dossierak eta ikasleentzako koadernoak eta fitxak dira nagusi. Hauekin batera, joko propioak sortzen dituzten museo gehiago izango ditugu garai honetan – eskaintzaren baitan jolasak gehitzen diren heinean – eta baita ikus-entzunezkoen kasua ere.

Adierazgarria da esperimenezko materialak agertzen direla lehen aldiz, hain zuzen ere, hiru museoek proposatzen dituztelarik baliabide berdina: maleta didaktikoa. Mundu mailan berrogeiko hamarkadatik aurrera agertzen dira mota honetako lehen tresnak museo arloan – V&A Museum-ean adibidez –. Espainiaren kasuan beranduago heltzen badira ere, zenbait museoek egiten dituzte jada horrelako proposamenak laurogeiko hamarkadatik aurrera – Valladolideko Eskultura Museoan – .

Gipuzkoari dagokionez, laurogeita hamarreko hamarkadan eta metodologia aktiboek txertatzea emanik ere, oraindik ez da horrelako materialik sortzen, eta hurrengo urteetara itxaron beharko da. Horrela, Urretxuko mineral eta fosilen museoak, Untzi Museoak eta Zumalakarregi Museoak diseinatzen dituzte maleta edo kit bereziak. Kontuan izan behar da azken bi museoetako kideek, Espainiako DEAC Jardunaldietan parte hartzen dutela, eta bertan egiten diren komunikazio eta aurkezpenetan estatu

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

osoko museoen berrikuntzak agertzen direla. Hortaz, pentsa daiteke baliabide hauen garapenarekin lotuta egon daitekeela; hots, berritzailea den tresnaren berri izan eta lurraldean proposatuko dutela horietatik abiatuz, edota ideia propioetatik abiatuta, forma eman jasotako esperientzi berriekin.



Grafikoa 6: Hezkuntza ekimenak: baliabide material motak (1990-2000)


Azkenik, interesgarria da zehaztea Zumalakarregi Museoan aurrera eramandako proposamena. Izan ere, ikerketa eta erakusketara bideratutako gunea izateaz gain, esperimentaziorako eta jolaserako espazio bat egokitzen dute eraikinean bertan, Lantegia deiturikoa hain zuzen ere. Bertan erabilgarri ipintzen dituzte museoak sortzen dituen hainbat jolas, liburu, irudi eta material.

5.3.3. Publikoa

Etapan honetan publiko motaren arabera eskaintza finkatzen hasten dela ikusi daiteke; hau da, museoan ekimen ezberdinak burutu edota erakusketak ikustera joaten diren bisitarien profilak bereizten hasten dira, euren beharretara edota izaerara egokituz joango direlarik pixkanaka. 1990 arte aurkitzen dugun panoraman existitzen dira oraindik publiko orokorrari eskaintza bakarra osatzen duten museoak, edota gehienez jota, taldeei – orokorrean ere, zehaztu gabe zein talde mota den – zuzendutako programa edo ekintzak egiten dituztenak. Hala ere, publiko motaren arabera desberdintzea burutzen duten museoak, geroz eta gehiago dira, eta hamarkada honetan jada, nabaritzen da joera hau.

Nazioarte mailan hirurogeita hamarreko hamarkadatik jada bisitari motaren inguruan ikertzen hasiak dira zenbait talde, *visitor studies* delakoan jarraipena ematen delarik. Gainera, zenbait museotan marketing estrategiak erabili, edota publikoaren eskaera

zehatzera egokitzen diren proposamenak garatzen hasiko dira jada hamarkada honetan, eta erakusketa handien harira, geroz eta interes handiagoa izango dute bisitarien nahiei erantzuteko ikerketek. Estatu mailan oraindik eskasak izango dira horrelako tendentziak, nahiz eta hiriburuetako museo nagusienetan txertatzen hasiak diren. Hortaz, Gipuzkoaren kasuan, beharren arabera egokitu ziren programa ezberdinak, eta soilik museo batzuek egingo dituzte ordura arte aurkeztu gabeko proposamenen bat.



Grafikoa 7: Publiko motaren banaketa (1990-2000)


Publiko motaren banaketari erreparatzen badiogu, oraindik ere bisitari orokorren eskaintza nagusitzen da museo gehienetan. Baina hauetaz gain aurreko hamarkadetan protagonismo eskasia duten bisitari mota berriak desberdintzen hasiko dira. Hezkuntza arautuari dagokionez, LH eta DBH-ko taldeentzako eskaintza egiten da batez ere, eta maila baxuagoan HH-ko etapa zein DBH ondorengo mailetarako. Zenbait museoen kasuan eskola taldeak hartu baziren ere, herrira edo eskualdera soilik mugatuta egon ziren programa batzuk. Horrela, programak ikastetxe zehatzei soilik bideratzen ziren (Beasainen, Azkoitian)

Banakako bisitarien aldetik esan daiteke haurrentzako proposamenak egiten direla nagusiki, eskolaz kanpo aisialdi garairako espazio erakargarriak bihurtu nahi direlarik museoak. Helduentzako eskaintza bat sortzearen beharra ere nabarmentzen hasiko da, hitzaldi edota ikuskizunetatik haratago doana. Izan ere, laurogeiko hamarkadatik hasita baina laurogeita hamarrean batez ere indartuta, aisialdi garaian museoak bisitatu eta bertako ondarea ezagutzeko joera zabaltzen hasia da; hortaz, asteburu eta jaiegunetan helduentzako proposaturiko ekimenak diseinatzea ere beharrezkotzat joko da, eskariaren aurreko jarrera moduan. Era berean, turismoaren hedapena – atzerrikoa zein lokala – eta administrazio publikoek sustaturiko programa ezberdinen garapenak ere egoera hau bultzatuko du.

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

Irakaslegoaren protagonismoa txikia bada ere, badira bi museo eurentzako zehazki prestatutako eskaintza bat burutzen dutenak. Izan ere, zenbait erakunde konturatzen dira museoeko eramaile soilak baino gehiago direla, eta museo bakoitzak eskaini ahal dizkion baliabideak ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko aukerak ematea garrantzizkoa dela. Hala ere, nazioarte mailan ez bezala, irakaslegoarekin harreman edo elkar-trukea ez da hedatuko eta puntuala den proposamenak izango dira.


Azkenik berriak diren bi talde aipatu behar dira: dibertsitate funtzionalekoak eta bazterketa sozialeko arriskuan daudenak. Bi kasuetan, Untzi Museoak soilik diseinatuko du eskaintza zehatza profil honi egokituta, oraindik oso hedatua ez dagoen jarrera bat dela agerian utziz.



Grafikoa 8: Hezkuntza ekimenen publiko mota (1990-2000)

Aipagarria da etapa honetan ematen den berrikuntzetako bat Zumalakarregi Museoaren eskutik ere jasotzen dela, zeinak Zumakluba sortzen duen, herriko haur eta gazteenei zuzendutakoa. Kontutan izan behar da 1989an DEAC Jardunaldietan egoten direla museoeko kideak, eta bertan Graham Carterrek (1990b) museoeko bisitariei buruz hitz egiten duela. Honetan, haur klubak sortzearen ideia plazaratzen du, astean behin egiten diren bilerak edota hilabetean behin burutzen direnak. Hortik abiatuta Zumalakarregik bere klub propioa sortzen du hurrengo urteetan.


GIPUZKOAKO MUSEOAK. 1990-2000



5. 4. Laugarren fasea: Lasterketa

Laurogeita hamarreko hamarkadan estatu mailan eta bereziki EAE-n museoen irekieraren boom-a ematen bada ere, Gipuzkoan, 2000. urtetik aurrerako museoen irekiera biderkatu egingo da eta lasterketa fase bat bezala izenda daitekeen etapari hasiera ematen zaio. Etapa honetan, museoen inaugurazio frenetikoak ematen da, eta honeki batera ekimen ugari programatzeko nahia zein ahalik eta bisitari gehien erakartzeko lehia ere. Aurreko urteetako egoerari jarraiki, museoek Gipuzkoako mapa guztiz estaliko dute, eta egoera ezegonkorrei aurre egin beharko dioten ekipamenduak aurkituko dira 2014. urtearen amaierarako.

Kontuan izan behar dugu, hamarkada honetatik aurrera eratzten dela museoen marko legala EAE-n, eta aldi berean GFA ari dela lurraldeko museoen antolaketa eta funtzionamendu egoki baterako plana diseinatzen. Babes legal eta administrazio publikoaren interes hori nabarmenduta, udalerrri asko izango dira euren herrian museo bat irekitzeko joera agertuko dutenak eta 2000. urtetik aurrera, mota guztietako museoak, eta era guztietako proposamenak aurki daitezkeela nabari da. Ondare-guneen musealizazioa ematen jarraituko da, industria eta bertako artisautzari lotutako espazioak irekiko dira, natur zientziak eta geologia oinarri dutenak, itsas kulturari lotutako gunek, artegintzarekin erlazionatutakoak, gastronomia ardatz duten museoak, historia oinarri dutenak edota natur-guneen interpretazio zentro berriak.



Grafikoa 9: Gipuzkoako museoen irekieraren kronologia eta hezkuntza jardueren eskaintza

Hezkuntza funtzioaren asimilazio zabaldua ematen bada ere, oraindik jarduerarik burutzen ez duten museoak existitzen direla ikusi daiteke. Hau da, museoaren irekiera egiten dela baina publikoari zuzendutako inolako ekimenik ez dela aurrera eramaten. Egoera honek talka egiten du laurogeiko hamarkadako egoerarekin, orduan ez baita museorik irekitzen soilik erakusketako ateak. Egoera honek, Gipuzkoan emandako museoaren irekieraren sukarrari egotzi daiteke, non ekipamenduak inauguratzea den helburua, nahiz eta publikoari zuzendutako inolako proposamenik garatzen ez den. Oro har, museo askok kultur etxe edo turismo bulego funtzioa beteko dute, eta izendapena edota bertako erakusketa, praktikoki bigarren maila batean geratzen da.

Honen harira, nabarmena da ere urte honetatik aurrera jasotako dokumentazioa – existitzen den kasuan – bisitari zifretara mugatzen dela kasu askotan, egiten diren ekimenen inguruko azalpenik edota txostenik ez dagoen bitartean. Hortaz, museo berri hauen helburua edota ardatza, publikoa erakartzera eta bisitari zifrak igotzera mugatzen denaren egoera ematen da kasu askotan, erakundearen jatorrizko funtzioak alderatuz.


Era berean, urte hauetako museoaren izaeraren distortsio bat ere ematen dela esan dezakegu, udalerrri askorentzat bizitza kulturalaren dinamizatzaile bihurtu nahi delarik museoak. Horrela, herriko kultur jarduera zein beste motako ekintzak museoan bertan edo museoaren izenean burutzen dira.

5.4.1. Hezkuntza sailak

Hezkuntza sailen sorrerari dagokionez, laurogeita hamarretik aurrerako joeraren hazkunde nabaria ematen da; hots, museoaren kudeaketa titularra ez den bestelako erakunde publiko edo pribatu baten esku uztekoa. Horrela, B erako kudeaketa izango da errepikatuena, non museoaren titularrak kudeatzaile nagusi baten esku uzten dituen bertako egiteko guztiak, enpresa edota fundazioen nagusitasuna emanaz. Etapa honetan ematen den berezitasun nagusia da enpresa berak museo ezberdinak kudeatzeko joera hedatzen dela, eta hortaz, ekipamendu ezberdinetan burutzen diren ekimenak edota funtzionatzeko moduen errepikapenak nabaritzen direla, enpresa horren izaera eta helburuetan oinarritutakoak: Artelatz Ingurumen Zerbitzuak Arditurriko Parketxea, Leitzaran eta Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua; K6 Kutur Kudeaketak Igartubeiti Baserri Museoa, Zumalakarregi Museoa eta Museum Cemento Rezola; Erro-k D'Elikatuz Gastronomia Zentroa eta Idiazabalgo Gaztaren I.Z-a; edota Aldabe Zerbitzu Turistikoak Zerain Paisaia Kulturala eta Segurako Ardixarra Etxea, besteak beste.

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

Honekin batera, A motako kudeaketa, non museoaren jabea edo titularrak berak osatzen duen lantaldea, oraindik indarrez mantenduko da, eta horrela, hezkuntza ekimenak burutzeko arduradunak bestelako funtzioak betetzen dituzten sailekin batera integratuko dira erakundearen organigraman. Hala ere, badira oraindik museo asko non lantalde propioa izanik ere, hezkuntza sailik ez den bereizten eta funtzio guztiak betetzen diren era bateratuan.



Grafikoa 10: Museoen kudeaketa mota (2000-2014)

Aipatzekoa da D erako kudeaketa, hain zuzen ere museoaren titularrak kudeatzaile baten esku gestioa uzten dueneko eta honek, aldi berean, hezkuntza lanak azpikontratatzeko dituen, Gipuzkoako lau Natura Parkeetan ematen da soilik, eta hau GFA-k 2009tik aurrera planteatutako proposamenaren oinarritutako lehen pausoetako bat dela. Horrela, ekipamenduen kudeaketa GPS Fundazioaren menpe geratzen da, eta horren baitan tipologia edo gai berdina ardatz duten espazioak koordinatzen dira – Natura Parkeak eta babestutako espazioak – . Lurraldeko museoaren taldekatzea eta horietako bakoitzaren kudeaketa koordinaturako pausuak etorkizunean emango lirateke bide honi jarraiki.

E motako kudeaketako erakundearen kasua, non museoaren titularrak bertako dinamizazio orokorra eta hezitzaile taldea azpikontratatzeko dituen baina hauen arduradunak lantalde propioaren parte izanik, museo handienetan topatzen dugu: San Telmo Museoan, Balenciaga Museoan edota Eureka! Zientzia Museoan. Izan ere, hauen baitan eratzeko dira sail edo departamentu ezberdinak baina zenbait zerbitzu azpikontratatu egiten dira. Horrela, hezkuntza saila izanik ere, hezitzaileak kanpoko enpresa baten baitan aurkitzen dira, hauek ekimenak gauzatzeko funtzioa dutelarik.

Joera hau ez da oso ohikoa izan nazioarte mailako herrialde nagusienetan, non museoen baitako organigraman integratu diren hezkuntzari loturiko langile guztiak, bai diseinu eta programazioaz arduratzen direnak zein hezitzaileak, bestelako departamentuekin elkarlana sustatzen delarik geroz eta gehiago.

Hezitzaileen profilari dagokionez, ez da aurrerapenik ematen profesionaltasun bidean. Hala ere, estatu mailan biderkatzen hasten dira museologia eta museoetako hezkuntza espezialitateetan aritzekoak. 2000tik aurrera jasotako datuen arabera, gehien errepikatzen diren hezitzaile profilak hauek dira: herriko kultur teknikariak, turismo dinamizatzaileak, gidak eta monitoreak, irakasleak eta museoko gaiari lotutako adituak – arkeologoak, historialariak, biologoak, geologoak eta abar – . Hortaz, nazioarte mailan geroz eta profesionalizatuago dauden langileen panorama bat aurkitzen badugu museoetan, estatu mailan zein Gipuzkoan egoera hau ez da ematen, eta oraindik desoreka handiak nabari dira museoetako beste lanpostuekin alderatuz.

Formakuntza osagarriari dagokionez, apenas topatu dira hezitzaileek parte hartu duten jardunaldiei buruzko informazioak. Jasotako datu gutxien arabera, zenbait museoetako kidek DEAC Jardunaldietan, turismoari buruzko zein ingurumen hezkuntzari loturikoetan parte hartzen dute. Garrantzizkoa da hemen aipatzea Gipuzkoan bertan bi jardunaldi nagusi antolatzen direla museoen aldetik, bata museoei buruzkoa – EHU, Oiasso eta San Telmo Museoen eskutik – eta bestea ondareari buruzkoa – Rezola Museoa eta Oiassok antolatua – .

Beste eragileen kasuan, datu gutxi topatu dira praktika aldiko ikasleen kasuan edota Museoen Lagunen Elkartek bezalakoetan. Aldiz, boluntarioen lana aipatzen duten zenbait museo badira eta baita ere kanpotik jarduera puntualak burutzeko kontratatutako profesionalena, azken hauen hazkunde nabaria ematen delarik proposatzen diren jarduera berri eta espezializatuei loturik: bisita gidatu bereziak, ibilaldi antzeztuak, tailer eta ikastaroak gai zehatzen inguruan edota ikuskizunak, besteak beste.

5.4.2. Hezkuntza ekimenak

Fase honetako hezkuntza ekimenetan dibertsitatea eta heterogeneotasuna da nagusi. 2000. urtetik aurrera topatzen ditugu ordura arteko jarduera mota ezberdin gehienak, museoek geroz eta eskaintza geroz eta osatuagoa agertzen dutelarik. Orokortutako jarrera hau izango dute erakunde askok: programazio zabalak eta ekintzez betetakoak

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

eratzea helburu nagusietako bat izango da, bisitariei beti zerbait eskaini eta publiko berria erakartzeko jarduera deigarriak sortzeko nahia agertuz.

Bisita gidatuak nagusi izaten jarraituko dute Gipuzkoako ekimenen panorama orokorrean, ibilaldi gidatuek ere protagonismoa hartzen dutelarik, baina horien baitan sortzen diren modalitate ezberdinen hazkundera nabaritu da era berean. Horrela, bereziak direnak edota erakustaldiekin osatzen direnak topa daitezke museo askotan, egunerokotasuneko errutinatik atera eta zerbait berria eskaini nahi izango delarik. Proposamen berri hauekin, museoak aisialdia eta turismoaren zirkuituan txertatuta daudela nabarmen daiteke, bisitariak erakartzeko eta beste eragile batzuen estrategiak eta formak bereganatzeko joera nabarmentzen baita. Etapa honetan, oro har, nahastu egiten dira museoek burututako ekintzak eta beste enpresa edota taldeetatik burutzen direnak, topa daitezkeelarik adibidez herrigune baten ibilaldi gidatua egiten duten museoa, turismo bulegoa eta enpresa ezberdinak aldi berean.

Irteerak ere antolatuko dituzte museo gutxi batzuk, edukiakin erlazionatutako ondare-guneetara joateko proposamena eginaz bisitariei, edota beste museo batzuetara bertatik gerturatzeko aukera emanaz. Honetan ere aurreko egoera berdina nabarmentzen da.

Bisita eta ibilaldi antzeztuak gutxi badira ere, adierazgarria da honen agerpena ematen dela lehen aldiz Gipuzkoako museoetan. Era honetako jarduerak espektakuloaren kulturarekin erlazio handia dute, non bisitariak ez duten soilik historia bat entzun nahi, bizi egin nahi dute. Proposamen hauen hedapena txikia bada ere egonkortasuna lortzen dutela antzeman daiteke, erakarrirako publiko kopurua handia delako kasu hauetan.

Bisita antzeztuekin batera aipatzekoak dira garai honetan Gipuzkoan lehen aldiz agertzen diren birsortze historikoak. *Living history* taldeek eta horietatik abiatutako ekitaldiek garrantzia hartzen dute nazioarte mailan. Espainiari dagokionez laurogeita hamarreko hamarkadan agertzen dira, lehen proposamena izanik Erromatar Jardunaldiak Zarautzen eta gerora Oiaso Erromatar Museoaren Dies Oiassonis-ekin. Azken urteetan Zumalakarregi Museoak burutzen duen Eleganteen Bilkura eta Elgetako Intxortako batailaren errekreazioak ere aipagarriak dira eremu honetan.

Bestalde, tailerrek indar berezia hartuko dute, ikaskuntza aktiboak garai honetan hezkuntza alorrean bereganatzen duen protagonismoarekin parekatu daitekeena. Era berean, museo askok ulertzen dituzte tailerrak bisita gidatuen osagarri bezala, non edukien azalpena entzun ondoren bisitariak praktikan jarri dezaketen horiei loturiko ekintzaren bat. Proposatutako gehienak, aurreko hamarkadetakoen errepikapenak izango dira, eskulangintzan edota sormenari lotutakoak batik batik.

Jolasen kasuan ere egoera berdina antzematen da, erakundeek izaera ludikoko proposamenen ugaritzea nabarmentzen delarik. Adierazgarria da jarduera hauen hazkundera aisialdiaren garaian aprobetxamendurekin lotzen dela, asteburu, jaiegun eta oporraldi garaian museoak *heztretenimendurako* gune bilakatzen direlarik. Hots, eskola eta lanorduetatik at egiteko zerbait proposatuko dute etengabeen museoek.


Hauekin batera, hitzaldi eta jardunaldiak mantentzen dira, lehenengoen kasuan aldizkakoak izaten jarraitzen dutelarik nagusiki. Museo batzuek oraindik edukien zein ikerketen difusiorako tresna erabilgarritzat jotzen dituzte hitzaldiak, askotan aldi baterako erakusketei lotutakoak. Jardunaldiak gutxi badira ere adierazgarriak dira bi motatako publikoari zuzenduta eratzen baitira: publiko orokorrari, non museoeko edukiak azaltzen diren; eta museoetako profesionaleri bideratutakoak, ondarearen eta museologiaren inguruko hausnarketa zein eztabaidarako espazio bezala eratuak. Ikastaroak ere, batez ere aldizkako eskaintza bezala programatu badira ere hazi.

Ikuskizunak oraingoan ere mota guztietakoak izango dira, eta horiek proposatzen dituzten museoen kopurua nabarmenki handia da. Izan ere kultur etxe bezala ulertuko dira hauek espazio asko, eta ekimen hauek burutzeko guneak ulertuko dituzte museoak.

Hezkuntza ekimenetan aipagarriak dira zenbait ezaugarri. Alde batetik, mende berrietik aurrera museoek ordura arte erabili dituzten formak eta ekintzak bereganatuko dituzte beste eragileek. Horrela, bisita gidatu eta tailerrak burutzearen eskaintza egingo da adibidez jatetxeetatik, produktu ekoizleen eskutik – sagardogileak, gaztagileak – , edota merkataritza alorretik – gune komertzial handiak – . Hau da, aisialdi garaian bisitariak burutu ahal dituzte adibidez bitxigintza tailerrak merkataritza gune handi batean, baina baita asteburu berean museo batean ere. Ondorioz, museoetako hezkuntza ekimenen distortsio bat ematen da zenbait kasutan, kultur erakundeetatik at aurkitzen direnekin lehiatzen saiatzen direlarik.

Bestalde, turismo sektorean barneratzen diren museoek alde batera uzten dituzte erakundearen berezko funtzioak, eta programen eraketa, edukien lanketa, zein ebaluazio lanaren garrantzia alderatzen da. Askotan ez da muga bereiztuko – museo asko herriko turismo bulego ere direlako aldi berean – eta horrela ulertuko delako biztanleriarengan ere. Egoera honek eramaten ditu museo asko turismo eskaintzarekin bateratzera edota horrekin lehiatzera, esperientzia berriak eskaintzeko nahia, hezkuntza funtzioan gailenduko delarik. Askotan, turismo agentziek eta museoek egiten dituzten eskaintzak antzekoak izango dira.

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA




Grafikoa 11: Hezkuntza ekimenak. Jarduera motak (2000-2014)

Amaitzeko zehaztu beharra dago garai honetatik aurrera ematen dela museoen “marka” edo irudi bihurtzen diren jarduera asko, egonkortasuna lortzen dutenak eta bisitari askoren erakartzea eragiten dutenak. Hauek dira horietako eredu batzuk:

Museoa	Ekimena
Elgetako Memoria Historikoa	Intxortako Fronteko batailaren birsortzea
Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua	Ibilbide magikoak
Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua/ Arditurri Parketxea	Ikazkinak: Txondorra piztea
Oiasso Erromatar Museoa	Dies Oiassonis eta FICAB
Ekainberri	Ekainfest
Zumalakarregi Museoa	XIX. mendeko Eleganteen Bilkura
Igartubeiti Baserri Museoa	Sagardo Berriaren Eguna, Barrikota, Sagar Uzta Festa, Kirikoketa
Lenbur Lurralde Museoa	Olentzeroren etorrera
Eureka! Zientzia Museoa	Zientzia Astea, Bizitza Zientifikoak

Taula 19: Hezkuntza ekimen nagusienak Gipuzkoako museoetan (egun mantendu direnak)

Hezkuntza baliabide materialetan ere berriak diren euskarriak agertuko dira Gipuzkoako museoetan, baina oraindik museoek gutxiengoak sortzen dituzten euskarri zehatzak jardura edo programei lotuta. Hots, gehiago dira baliabide materialik sortzen ez dituzten museoak egiten dutenak baino; eta beraz, askok jardura zehatzen gauzatzera mugatuko dute euren egitekoa eta publikoari egokitutako bestelako tresnarik ez dute sortuko.



Grafikoa 12: Hezkuntza ekimenak: baliabide materialen sorrera (2000-2014)

Egiten direnen artean oraindik nagusitasuna izango dute koaderno eta fitxak. Huetan, aurreko hamarkadetako eta eskolaren tradizioan oinarritutako formak mantentzen jarraitzen dira: galdera-erantzunak, denbora-pasak, museoeko edukietan oinarritutako hutsuneen osaketa eta abar. Aurreko urteetan parekatutako irakasleen dossierrak eta ikasleentzako materialaren haustura bat ematen da orain, eta gutxiago izango dira dossierren bidezko informazioa eta argibideak eskaintzen dituzten museoak.

Euskarri fisikoan sortzen diren jokoak ere sortuko dira, jolasen eskaintzaren hazkundearekin pareka daitekeena dudarik gabe. Hauekin batera, ikus-entzunezkoak sortzen dituzten museo gehiago aurki ditzakegu, baliabide honek eskaintzen baitu publikoarengana gerturatzeko elementu erakargarria eta edukiak transmititzeko erraztasuna.


Esperimentaziorako sortutako baliabideak ere aurki daitezke fase honetan. Aurrez sortutako maleta didaktiko batzuk mantentzen badira ere indarra galtzen joango dira. Baina bestelako elementuen agerpena ematen da ordea: karroen erabilera egiten dute zenbait museoek, jardueretan zehar ikusi, ukitu edota usaindu daitezkeen elementuak garraiatzeko aproposa.

Interneten hedapena zein teknologia berrien eboluzio garrantzitsuari lotuta, zenbait museoek horien erabilera egingo dute funtzio hezitzailearen mesedera. Museoetako

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

web orriak informatzeko erabiltzeaz gain, badira zenbait erakunde horietan erabilgarri ipintzen dituztenak sortutako material propioak: bideoak, audioak, ikerketa lanak, irudiak eta abar. Horietaz gain, *online* jolasteko jokoak edota elkar-eragileak diren jarduerak proposatzen dituzte. Hauekin batera sortzen dira hainbat bisita birtual eta modulu elkar-eragileak, museotik kanpo erabili daitezkeenak.

Azken urteetan gailu mugikorretako aplikazioak arrakasta handia izan dute eskaintzen dituen aukerak ugariak direlako. Museo gutxi batzuek erabili badituzte ere, oraindik hezitzaileak diren material moduan erabiltzeko proposamenak oso eskasak izan dira. Aipatu daitezke Oiassoren *Herculesen 12 frogak* jokoak, Elgetako Memoria Historikoaren Euskal IZ-ko *Elgeta Memoria*. Ekainberriren *Second Canvas Ekain* eta *Ekain audio-Tour*.




Grafikoa 13: Hezkuntza ekimenak: baliabide material motak (2000-2014)

5.4.3. Publikoa

Hezkuntza ekimenekin gertatzen den moduan, publiko motarengan ere dibertsifikazio eta zabalpen nabaria antzeman daiteke 2000. urtetik aurrera. Ordura arte museoek ekimenen hartzaile izan diren bisitari motak mantentzen badira ere, berriak diren taldeak agertuko dira, izan ere, museoak errealitate heterogeneo batetara egokitu beharko dituzte, eta gizarteak erreklamatzeko dituen proposamen geroz eta pertsonalizatuagoi aurre egin beharko diote.

Hortaz, aurreko hamarkadatik desberdintzen den egoera bat antzemango da: publiko orokorrarentzat soilik diseinatzen diren ekintzetatik haratago, oraingoan museoek portzentaje oso handiak desberdinduko dituzte jarduerak eta material mota bakoitzaren

hartzaille mota. Adin edota jatorri motaren arabera bananduko dituzte publiko taldeak, eta ordura arreta jaso ez duten publikoak agertuko dira.



Grafikoa 14: Hezkuntza eskaintzaren publiko hartzaille banaketa (2000-2014)

Banakako bisitarietan, ohiko bisitari orokorren nagusitasunetik at, nabarmenki hazten da haurrentzako eskaintza egiten duten museo kopurua. Aisialdi garaian burutzeko jarduerak proposatuko dituzte geroz eta museo gehiagok, batez ere jolas eta tailer formatuan aurkezten diren ekimenen bidez.

Hauekin batera, helduentzako eskaintza ere handituko da eta, publiko orokorrarenetik haratago, bisitari mota honen beharrei erantzuten saiatuko dira. Ordura arteko jarduera motak errepikatuko dira helduen kasuan, hitzaldi, jardunaldi edota ikuskizunetan oinarrituz. Oraingoan ordea, zenbati museoak – oraindik gutxi badira ere – helduentzako zehazki diseinatutako tailerrak edota ikastaroak gauzatzen hasiko dira, ekintzaren bitartezko ikaskuntza eta izaera ludikoko jardueren balorea haurren taldetik at ere erabilgarria izan daitekeela ulertzen delarik.

Aurreko bi bisitari moten harira, familiek ere protagonismo handia izango dute garai honetan. Izan ere, museo askok antzematen dute museora eramaile hutsak baino, gurasoak ere haurrentzako diseinatutako ekimenetan parte hartzeko eta bertan eragile garrantzitsua izateko aukera eskaintzen dutela. Museoak, beraz, aisialdi garaia familiako kide ezberdinen arteko harremana izateko espazio bat eskainiko du.

Era berean, belaunaldi arteko ekimenak – tailerrak, nagusiki – ere protagonismoa izango dute urte honetatik aurrera. Horrela, haur eta gazteak helduenekin harremanetan egoteko espazioak eratzen dira. non solasaldian oinarritzen diren ekintzen bitartez bi norabideetako komunikazioa eratzen den, edukien lanketaren inguruan sortua. Ideia hau hedatzen hasia da nazioarte mailako komunitate museoetan

5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA

jada XX. mende osoan zehar, identitatearen zein historiaren parte diren protagonistengan ipintzen den garrantzia. Era berean, lotura izan dezake laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera ondare ez materialaren errekonozimendu eta balorazioarekin, eta UNESCO-ren eskutik sortutako eremu berria eta galtzear dauden ohitura eta tradizio askoren jakitun direnen testigantzak jasotzeko joera zabaltzen joaten da pixkanaka. Gipuzkoako museoetako askok objektu materialen bilduma propio bat izan gabe, ondare ez materialean ardaztuko dute diskurtso aberasgarri bat, honen jasotze eta biltzearekin eratuko dituztelarik euren edukiak.

65 urtetik gorakoengana iristeko formula berriak ere planteatzen dira, askotan museo bertatik ateratzea eskatzen duten jarduerak egiten direlarik herrietako helduen egoitzetan edota elkarteetan. Jubilatu elkarteen eskaintza zehatza ere agertzen dela nabarmendu behar da arlo honetan; hala nola Helduen Hezkuntzako zentroetarako. Mende berriarekin batera jada aurretik finkatzen den *life long learning* ideia berreskuratzen da, museoak ikaskuntzarako espazio izanik adinekoentzat ere. Gainera, talde honek gizartean jokatzen duen rola eta bizi kalitate maila hobea izateak eragingo du jarduera mota ezberdinak burutu eta kultur espazioen erabiltzaile ere bilakatzea.

Azkenik, banakako bisitariei dagokionez, aurreko hamarkadetan irakasleen garrantzia azpimarratu bada eta hauei zuzendutako ikastaro, bilera eta informaziorako baliabideak eskaini badira, 2000. urtetik aurrera nabarmenki jaitsiko da hauen protagonismoa. Alde batetik, eurei zuzendutako jarduerak apenas aurkitzen dira; bestalde, material espezifikoen kopurua ere gutxituko da irakasleen lana bideratu edota erraztuko duena. Horrela, ikasleentzako koaderno eta fitxak diseinatzen dituzten museoak asko badira ere, dossierrak egiten dituztenen kopurua nabarmenki txikiagoa da.


Taldeen kasuan, hezkuntza arautuko taldeak dira nagusi, hauetan LH eta DBH-ko etapak gailentzen direlarik. Egoera hau eman daiteke etapa hauetan ematen direlako erraztasun handienak eskolatik irten eta museoak bisitatu ahal izateko. Era berean, HH-ri zuzendutako eskaintza oraindik eskasa da, museoek edukien transmisioa bezala ulertzen delako oraindik kasu askotan egiten diren bisitak, eta horretan, HH-ko haurrak kanpo geratzen direla pentsatzen da. Honekin batera museoetako profesionalen ezaguera eza etapa honen inguruan aurki daiteke. Hala ere, horren aurrean zenbait museok estrategia berriak landu zituzten txikiak museoetara gerturatzeko eta haientzako espazio egokiak ere bazirela defendatzeko: ipuin kontalarien bidezko bisitak egitea, egokitutako espazioak eratzea museografiaren baitan eta material deigarriak eta erakargarriak sortzea.

Hezkuntza ez arautuko taldeen baitan euskaltegientzako proposamenak egingo dituzte zenbait museok, baina oraindik gutxi izanda. Material berezia sortzen duten bakarrak izango dira Sagardoetxeakoak, eta jardueren kasuan museo hau, Oiasso eta Barandiaran Museoa aurki daitezke. Talde mota honen berezitasuna da maila ezberdinetara egokitu behar dela diskurtsoa eta taldearen arabera alde handiak daudela.

Elkarteen kasuan, aisialdi taldeek jasoko dituzte. Oporraldi garaian egiten diren programez gain, zehazki urtero errepikatuko diren aisialdi taldeentzako eskaintza berezia egingo dute zenbait museok.

Dibertsitate funtzionaleko taldeak eta bazterketa sozialeko arriskuan daudenentzako eskaintza oso mugatua da oraindik ere. Aurreko hamarkadatik Untzi Museoak mantenduko du abian jarritako urteroko proposamenak, eta honi gehituko zaizkio TOPIC-ek aurrera eramaten dituen proiektu berriak. Materialen kasuan, Gorrotxategi museoan soilik topatu dira gidoi bereziak dibertsitate funtzional ezberdineko pertsonei egokitutako bisitetarako eta braille idazkeran dauden eskuorrien sorrera ere.


5. GIPUZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENEN HISTORIA: FASEEN BANAKETA ETA ALDAGAIEN EBOLUZIOA




Grafikoa 15: Hezkuntza ekimenen publiko mota (2000-2014)

Beraz, aurreko hamarkadatik eman den salto nagusia da ezberdindutako taldeak nabarmenki hazi direla eta publiko orokor homogeneoa kontsideratzen diren bisitariak gutxiago direla. Taldeei eskainitako ekimenen kasuan ere talde mota zehazten da oraingoan kasu ia guztietan.

GIPUZKOAKO MUSEOAK. 2000-2014



GIPUZKOAKO MUSEOAK 2014



6. AZKEN ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEKO ILDOAK

6. AZKEN ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN ILDOAK

Ikerketa honetan Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen deskribapen diakronikoa burutu da, erakunde bakoitzaren jatorria, izaera eta garapena banaka aztertuz. Katalogo honetan oinarrituta museoen hezkuntza ekimenen fase banaketa bat proposatu da, etapa bakoitzean emandako aldaketak eta berrikuntzak nazioarte zein estatu mailan sorturiko proposamenekin alderatuz eta erlazio posibleak ezarriz.

Oraingoan, jasotako datu guztien zein egindako interpretazioari jarraiki, ondorio nagusi batzuk aurkezten dira, Gipuzkoako Lurralde Historikoan ireki diren museoen eta horiek buruturiko hezkuntza ekimenetan oinarrituz. Ondorio hauei estuki loturik proposatu dira ikerketan etorkizuneko ildo nagusiak, eta era berean, ikerketa honetan topatutako ikerketaren mugak ere zehaztu dira.

Museoak eta hezkuntza Gipuzkoan. Kartografia historiko bat




Figura 9: Azken ondorioak eta etorkizuneko ildoak

6. 1. Ondorioak

Lehenengo helburuari jarraituz (H1), non Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen katalogo historiko bat sortzea izan den oinarria, hezkuntza ekimenak balorean jartzeko garrantzizkoa izan da ikerketa hau. Honek agerian utzi du Gipuzkoako Lurralde Historikoan hezkuntza ekimen ugari burutu direla historian zehar, proiektu eraginkor eta interesgarri askoren agerpenarekin.

Era berean, jasotako jarduera eta material ugariaren desagerpena edota galtzeko zorian dagoen informazio askoren berreskurapena eman da honela, iraganean burututako hezkuntza ekimen askoren erreferentziak bezala. San Telmon izandako Bruno Munariren Laborategia edota Eskoriatzan sorturiko museo hezkuntza proposamenak lurraldeko ekimen nagusi eta eraginkorrenak izan direla erakutsi dute, eta egun ezagunak ez diren arren, jatorrian lurraldean emandako proposamen berritzaileenak bezala agertu dira. Era berean, gaur egun indartsuak diren proiektu ugariaren jatorria eta testuingurua ezagutzeko baliagarria izan da; Pagoetako ingurumen hezkuntza proiektua, Azpeitian umeei zuzendutako lehen museo proposamena, Zerainen herritik sorturiko ondarea balorean jartzeko proposamenak zein Zumalakarregi Museoan sorturiko ideia berritzaileenak agerian geratu dira.

Katalogo honek, beraz, museoen historian hezkuntza funtzioak duen paperaren errekonozimendurako ere balio du, bigarren plano batean geratu ohi den eremua izan delarik.

Ikerketa prozesuan, eta hasieran adierazi bezala, argi geratu da hezkuntza ekimenen katalogazio tresna bateratu baten beharra topatzen dela, lanean aurkeztutako bigarren helburuari jarraiki (H2), eta beraz, honen sorrera Gipuzkoan burutu diren eta burutuko diren katalogazioa era bateratuan egiteko erabilgarria dela. Alde batetik, tresna honen bidez aldagaien definizio eta sailkapen bat eskaintzen da, museoetan burutzen diren ekimenen inbentariatzea erraztuz; eta bestetik, etorkizuneko ikerketetarako euskarri bat izateko baliagarria suertatzen da.

Gipuzkoako museoen, eta horien hezkuntza ekimenen ikerketa osotasunean burutzen duen lanen gabezia, honetan proposatzen denak lehen museoaren irekieratik 2014 bitartean sorturikoetan oinarriturikoa aurkezten da, hirugarren helburuari jarraiki (H3). Horrela, Gipuzkoako Lurralde Historikoari zehazki egokitzen diren lau faseetan banatu da, historian zehar emandako aldaketak eta etapak desberdintzeko.

6. AZKEN ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN ILDOAK

Garrantzitsua da faseen banaketa propio bat egitea, museoen historiari egokitzen dena eta era berean hezkuntza funtzioa ardatz hartzen duena, argi geratu baita historian emandako aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialen azterketarako ezarri diren irizpideak ez direla guztiz baliagarriak museoetako hezkuntzan eman den eboluzioa aztertzeko. Era berean, proiektu batzuen arrakasta edo porrota ere etapa bakoitzean zabalduko ideia eta jarrerekin erlazionatzeko erabilgarria izan da, unean uneko proposamenek zein oinarri izan duten eta zergatik sortu diren une zehatz batean ulertzeko aukera emanaz.

Faseak ezartzeko muga horien baitan aldagaietan oinarritutako aldaketak eman badira ere, egoera desorekatua ematen da Gipuzkoako museoetan, erritmo ezberdinetara mugitu diren erakundeak izan direlarik. Museo bakoitza, era berean, mikrokosmos bat bezala uler daiteke, izaera ezberdineko erakundeek eta testuinguru txiki bakoitzean emandako tokian tokiko gertaerek sortu dutelako museo bakoitzaren historia propio bat.

Katalogoziotik abiatuta eta aztertutako aldagaiak fase bakoitzean izandako garapena deskribatuta, horien arteko aldaketak eta eboluzioa nolakoa izan den antzeman da, laugarren helburuan zehaztu bezala (H4). Hots, hezkuntza sailen izaera eta eraketa, burututako ekimen motak eta hauek zuzendu diren publikoaren garapena ezagutzeko baliagarria da.

Hezkuntza sailei dagokionez, esan daiteke Gipuzkoako museo gehienek izaera lokala eta tamaina txikia dela eta gehienetan ez da Hezkuntza Sailik existitzen. Hau da, museoaren kudeaketa edota dinamizazioaz arduratzen den lantalde beraren baitan geratzen dira egiteko guztiak, ekimenen diseinu eta gauzatzea ere horien barnean ulertuz. Kudeaketari dagokionez, ezin izan dira ezarri sistema edo modelo desberdinen eta hezkuntza ekimenen izaeraren arteko lotura finkorik; bai ordea proiektu berritzaile askoren jatorria eta arrakasta gizabanako zehatzen borondatek eta interesetik abiatuta gauzatu direla eta horiek une zehatz batzuetan eta babesarekin izan duten bitartean iraun dutela.

Oro har, pertsona hauen zein hezkuntza sailak osatzen dituzten hezitzaileen protagonismo falta nabarmendu da historian zehar, horiek egindako lan askoren jatorria eta esfortzua itzalpean geratu delarik.

Era berean, hezkuntza funtzioaren barneratze desorekatua eman da erakunde bakoitzean: zenbait museoek hezkuntza zerbitzu bezala ulertu dute, merkatu sistema baten baitan barneratuz museoko jarduna; beste batzuk ordea, erakundearen egitekoaren ardatz bilakatu dute, proposamen interesgarriak aurrera eramanez.

Egoera honek, beraz, ekimenen kalitatea eta museoen izaeraren inguruko hausnarketa baterako bidea irekitzen da.

Hezkuntza ekimenen eremuan, jarduera moten eboluzio eta dibertsifikazio nabaria antzeman da denboran aurrera egin ahala. Era berean, jarduera hauen izaera eta ere aldatuz joan da, pixkanaka publikoaren izaera aktiboa zein ikaskuntza prozesuan erabilgarriak diren praktikak diseinatu direlarik. Aldikotasunari dagokionez, geroz eta egonkorragoak diren ekimenak nagusitu dira, museo askotan aldiro errepikatzen diren jarduera edo programak indarra hartu dutelarik; eta eskaintza kopuruaren hazkundera ere izugarria izan da 2000. urtetik aurrera, lurraldeko museoen programazio amaigabe batean aurkiturik.

Hala ere, Gipuzkoako museoetan oraindik publikoaren izaera pasiboa oinarri duten jarduerak gailentzen dira. Geroz eta tailer, ikastaro zein joko erako eskaintzak hedatuz joan badira ere, bisita eta ibilaldi gidatu zein hitzaldi eta jardunaldiak bezala proposamenak indar handia dute.

Hezkuntza alorrari loturik, azken hamarkadaetan hedatu da ikaskuntza eta entretenimendua uztartu nahi izan duten eskaintzak. Museoak aisialdiko espazio kontsideratzearen ideia indarturik, hauek eremu honetako beste eragile batzueki lehiatzera eta horien forma eta estrategia antzekoak bereganatzera eraman ditu, eta bisitarien zifren garrantzia oinarrizkoa izatera igaro da. Horrela, zenbait kasutan museoaren edukiak eta funtzioak abandonatu gabeko proposamen arrakastatsuak egin direla ikusi da, publikoarengana heltzeko jarduera erakargarriekin; besteetan, ordea, helburuen distorsio totala nabarmendu da, museoen alorrari ez dagozkion ekintzak gauzatu direlarik.

Hezkuntza ekimenei jarraiki, museoek sorturiko baliabide materialetan ere egoera antzekoa topatzen da: dibertsifikazioa geroz eta handiagoa da eta baita hauek sortzen dituzten museoen kopuruaren hazkundera. Alabaina, material motetan oraindik hezkuntza sistema tradizionalen erabiltzen diren baliabideak dira nagusi, batez ere gida eta koaderno didaktikoak. Zenbait museoek ikus-entzunezko eta esperimentaziorako material berritzaileak proposatu badituzte ere, gutxiengo bat izan dira eta ez dute jarraipen luzeegia izan. Era berean, azken hamarkadetako teknologia iraultzaren zein sozialki eman den gailu digitalen erabilera ez da apenas Gipuzkoako museoetara hedatu. Zenbait museo web materiala eta baliabide digitalen erabilera esanguratsua egin dute, baina oraindik izaera informatibo bati loturiko proposamenak dira gehienak.

Hezkuntza ekimenen hartzaile diren publikoan aldaketa handiak nabarmendu dira XX. mende hasieratik hona. Publiko motaren aldaketa emanda eta horiei zuzendutako

6. AZKEN ONDORIOAK ETA ETORKIZUNEN ILDOAK

eskaintza desberdina antzeman da, baina oraindik ere bisitari zehatzei zuzenduriko programa zehatzagoen falta aurkitzen da. Hots, museoetako hezkuntza ekimenen hartzaileei egokitutako jarduera eta materialak ez dira hain ugariak, eta orokortutako talde zehatzak dira protagonista nagusiak. Horrela, bisitari orokorrak edota hezkuntza arautuko taldeak dira, batik bat, museoetako ekimenen hartzaile tradizionalak gaur egun. Gainera, museo askotan topatu den joera da “beharren arabera moldatuta” edo “eskaeraren baitan” sortutako jarduerak honek erakusten duelarik museo gehienek eskaera/eskaintza-ren araberrako funtzionamenduan oinarritzen dutela beren hezkuntza programazioa.

Era berean, errotuta dauden ekimen mota eta publiko motaren arteko loturak mantentzen dira, tradizioetik ateratzen diren proposamenak gutxi izanik. Hortaz, tailer eta jolasak haur eta gazteentzako, bisita eta ibilaldiak publiko orokorarentzat eta helduentzako hitzaldi eta ikuskizunak dira nagusi oraindik, dinamika horretatik mugitzen diren museoak apenas agertuz.

Aipagarria da ebaluazio lanen eskasia topatu dela hezkuntza ekimenei dagokionez. Hots, Gipuzkoako museoen historian jarduera, materialak eta publikoa ebaluatzeko sortu diren planak eta programak apenas topatu dira, eta egin denetan jarraipen egonkorrik gabeko ekintza puntual kontsideratu dira. Hala ere, museo eta unibertsitatearen arteko zenbait proiektu egin dira azken urteetan, eta horien erabilgarritasuna dela eta, etorkizunean bide hori esploratu beharko litzatekeela uste dugu.

Azkenik, Gipuzkoako museoetan historian zehar eman diren aldaketak, sorturiko proposamen berriak eta hezkuntza funtzioaren baitan aurrera eramandako proiektuak ezin dira era isolatuan ulertu, eta beraz, corpus zabalago batean interpretatzea oinarritzkoa da (H5). Hortaz, Gipuzkoan emandako egoera eta hezkuntza ekimenen garapena nazioarte mailakoarekin alderatuta era atzeratuan eman dela baina estatu mailakoaren pareko garatu dela ondorioztatu da.

Ikerketa honek agertzen du nazioarte mailan emandako garapenetik desberdintzen dela lurraldeko museoen hezkuntza historia, eta Diktaduraren amaieratik hasitako prozesu baten ondoren heltzen hasten direla atzerriko ideia berriak. Hots, hasiera batean ematen den atzerapenari aurre egingo zaio, laurogeita hamarrek hamarkadatik aurrera indarra hartzen duten proiektu interesgarriekin, eta unean oso berritzaileak diren proposamenak aurrera eramanez.

Estatu mailako markoan txertaturik, antzekotasun handiagoak topatu daitezke, eta beraz, parekotasunak ematen direla esan dezakegu. Alde batetik, Espainiako gune

batzuetan ematen diren berrikuntzak Gipuzkoara heltzen direla nabarmendu da, lantalde zehatzen ekintzen zein administrazio publikoak harturiko erabakien ondorioz.

6.2. Etorkizuneko ildoak

I. Inbentario baten beharra eta katalogazio tresnaren hedapena

Gipuzkoako museoen hezkuntza ekimenen inbentario baten sorreraren beharra aurkitzen da, non museo bakoitzak historian zehar aurrea eraman dituen jarduerak, sortu dituen baliabide materialak eta egin dituen ebaluazio lanak jasotzen diren. Inbentario honetan dokumentu ezberdinak jasotzea eraginkorra litzateke, dokumentazio idatzia – formatu fisikoan eta/edo digitalean – , irudi bidezkoa edota protagonista ezberdinen elkarrizketak bezalakoak. Azken honi dagokionez, azpimarragarria da museo ezberdinetako protagonista askoren historia eta ekimenak jaso gabe daudela, eta horietan biltzen dela galdu beharko ez litzatekeen iraganeko informazio ugari.

Inbentaria artxibo fisiko edo/eta digital batean eratu ahalko litzateke: Digitalki GFA-k sorturiko Gipuzkoako Museoak web plataformarekin lotuta egotea aukera egokia izango litzateke; eta era fisikoan Gordailua edota San Telmo Museoan kokatzea interesgarria izan daiteke, lehenengoa lurraldeko ondarearen biltegi izateaz gain, 2017an GFA-k Museoen Zerbitzua eta Gordailua sortu berri duenari jarraiki, eta bigarrena, proiektuaren jatorrian “Museoen Museo” edo Gipuzkoako bestelako museoen bilgune izateko sortua izan baitzen.

Era berean, inbentario hau kontsultagarria eta irekia izatea interesgarria litzateke, erakundeez gain hiritar orok bertan informazioa osatu eta gehitzeko aukera izango lukeelarik, jasotako dokumentazioa zein esperientziak txertatzeko aukeraz.

Espazio honen eraketarako katalogazio tresnaren erabilera hedatzea komenigarria litzateke, museo guztiek irizpide berberak erabili eta katalogazio zehatzaren garrantzia azpimarratuz. Modu honetan, etorkizuneko ikerketa, sailkapen edota azterketetarako erraztasunak izango lirateke, eta Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenaren historiaren galera bat suposatuko luke.

Gainera, proposatzen den tresna hau beste lurralde batzuetan aplikagarria izan daitekeela uste dugu, tokian tokiko moldaketak egiteko oinarri bat ere bihurtu daitekeelarik. Hots, aplikatuko den eremuan sortu nahi diren tresna berrietarako abiapuntu bat izan daiteke.

II. Museo kontzeptuaren inguruko hausnarketa

Gipuzkoako museoek hezkuntza ekimenaren historiaren harira, erakunde hauen izaera eta funtzioen inguruko hausnarketa baten beharra planteatzen da, urteetan zehar ia inertziaz sortu diren proposamen askoren garapena eta etorkizuneko panoramaren aurrean hartu beharreko erabakiek oinarri egonkor bat izan dezaten.

Alde batetik, lurraldean existitzen diren espazioak museo diren ala ez eta horiek zein funtzio betetzen duten aztertu behar da. Izan ere, egun existitzen diren erakunde askok museo baten funtzioak – kontserbatu, ikertu, gorde, hezi – ez direnak betetzen baitituzte, udalerrri ezberdinen beharrei erantzuteko sorturiko irudiak baino ez direlarik. Era honetan, turismo bulego, piezen biltegi, bilduma pribatuen erakusketa gune hutsak edota kultur etxe funtzioa betetzen ari diren museoak topatzen dira, eta beraz, espazio horiek bihurtu beharko liratekeela uste da. Hots, zenbait erakunde nekez kontsidera daitezke museoak, eta are gehiago hezkuntza funtzioa betetzeko helburua izatea.

Bestalde, museo izendapena jaso eta jarduera horretara bideraturiko erakundeek bete beharreko baldintzak birplanteatu beharko lirateke. Gipuzkoan aztertu diren museoetako portzentaia batek ez du inolako hezkuntza ekimenik burutu, eta aldizkako irekierara zein publikoaren harrera hutsera mugatu dira, askotan publikorik ere apenas jaso gabe. Espazio askok, gainera, babes administratiboa eta, batez ere, ekonomikoa galdu dute azken urteotan, museo askoren prekarietatea areagotu delarik. Hortaz, etorkizunean burutu beharreko proiektuen aurrean irizpide eta baldintza zehatzen finkatzea beharrezkotzat jotzen da, museo baten inaugurazio hutsetik haratago berauren egitekoak ziurtatuko dituen erakundea izateko gaitasuna frogatuz.

III. Hezkuntza sailen eta hezitzaileen errekonozimendua

Museoetako hezkuntza ekimenak sortu eta garatzea hezkuntza saileko edota funtzio hori betetzeaz arduratzen den lantaldearen esku aurkitzen dira. Bertako hezitzaileak dira erakunde hauetan ematen den irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren arduradunak, eta hortaz, hauen errekonozimendua oinarrizkoa da; hauek gabe museoak biltegi eta erakustegiak izango bailirateke. Historian zehar Gipuzkoan antzeman den – Estatu mailan ere – profesional hauen protagonismo ezak eramaten gaitu hauen papera erreibindikatzen.

Lehenik, administrazio publikoaren eta erakundearen aldetik jarrera aldaketa bat beharrezkotzat jotzen da: Prekarietate egoeran egon diren lantaldeen normalizaziora jo den heinean, hauen egoera okertu besterik ez da egin. Gainera, profil profesional zehatzaren gabezia, museo hezkuntzan espezializatu gabeko eta hortaz, hezkuntza arloan formatu gabeko langileen hedapena eman da. Era berean, museoetako lantaldeen dokumentazioa eta informazioa era pribatuan mantentzen da, eta beraz,

oso zaila suertatzen da hauei buruzko azterketa sakonak egitea. Hortaz, museoetako eta berai kudeatzen duten eragileen jarreraren aldaketa bat ere beharrezkoa da, hezkuntza sailei buruzko informazio baten gabezia ez baita ulertzen horien izaera, interesak, buruturiko jarduerak edota proposaturiko proiektuen jatorriak.

Ondoren, profesional hauen formakuntzarako erraztasunak eta aukerak beharrezkoak direla ulertzen da, beste eremu batzuetan ematen den birziklapen eta formakuntza aukera jarraitu bat izateko – beste hezitzaile mota batzuen antzera – . Hots, museoetako hezitzaileak hezkuntza arautuko edota beste esparruetako profesionalak dituzten aukerak izan beharko lituzketela uste da, hauek ere herritarren hezkuntzan parte hartzen duten heinean. Unibertsitate mailan ere egonkortutako programak zein ikastaro zehatzak beharrezkoak dira, hala nola administrazio publikoak sustatu edo babestutako formakuntza saio berezi zein jardunaldi eta kongresuen hedapena.

Azkenik, eragile ezberdinen arteko elkarlana eta komunikazioa erraztea oinarrizkoa da: Museoko sail eta langile ezberdinen artekoa; administrazio publikoarekin; unibertsitate zein bestelako hezkuntza arautuko hezitzaile eta ikertzaileekin; zein beste eragile batzuekin – fundazioak, elkarteak – .

IV. Hezkuntza ekimenen eta publikoaren ebaluazioa

Gipuzkoako museo bakoitzaren hezkuntza ekimenetan zehaztu bezala eta historian zehar emandako jazoeren analisiaren ondoren, hauen inguruan sortu diren ebaluazio lan eta proiektu zehatzen eskasia antzeman da behin baino gehiagotan. Jarduera, material zein publikoaren inguruko ebaluazioak oinarrizkoak kontsideratzen dira hauen diseinu, birplanteaketa eta etorkizunerako proiektu berrien proposamenerako; hauek gabe ezin baita ulertu ikaskuntza ematen den ala ez eta nola gertatzen den museoak proposaturiko ekimenetan.

Horregatik, etorkizunean Gipuzkoako museoetan aurrera eramaten diren hezkuntza ekimenak eta horien hartzaile den publikoaren ebaluazio lanen beharra azpimarratzen da, horiek gabe ezingo baitira zuzendu egokiak ez diren praktikak, ez eta erabilgarriak izan daitezkeen proposamen arrakastatsuak ezagutu ere. Arrakasta hau, oro har, bisitari zifretan eta aurrekontuetatik haratago zehaztea oinarrizkoa da, gaur egun hedatuta dagoen ideiarene aurkako jarrera bat sustatzea oinarrizkoa delarik.

Ebaluazio lan hauek, era berean, etorkizuneko proiektu berrien aurretiko lan bezala ere ulertzen dira. Hau da, erakunde berrien irekieraren aurreko aurre-ebaluazio lanak eta planen eraketak beharrezkoak direla uste dugu, biziraupen ekonomikorako ez ezik, ondarearen inguruan aurrera eramaten diren ekimenen baliagarritasun eta egokitasuna bermatzen baitute.

6.3. Ikerketaren mugak

Ikerketa hau osatzeko aurkitutako muga nagusia, dokumentazioaren kontsultari eta existitzen den dokumentazioari loturikoa izan da. Lehenik eta behin, zenbait museotan ez da buruturiko hezkuntza ekimenik dokumentatu, edo egin bada ez da era egokian artxibatu eta inbentariatu kontsultarako erabilgarria izateko. Askotan, jasotako datu bakarrak jardueren bisitari kopuruak izan dira, eta edukiak, helburuak edota metodologiari buruzko aurre-dokumentazioa zein ondorengo ebaluazio lana – egin bada – ez da inon jaso.

Honekin batera, museo batzuetan ezinezkoa izan da arduradunekin harremanetan jartzea, eta beraz, ikerketatik kanpo geratu dira erakunde gutxi batzuk, egindako hezkuntza ekimenen inguruko informazio osatu baten gabeziaren aurrean.

Kontsultarako oztopo hauek ez ezik, erakunde batzuen uneko egoerak ere baldintzatu du iturrien azterketa. Zenbait museoek, kudeatzaile desberdinak izan dituzte urteetan zehar, eta horien aldaketa bat eman den aldiro, kudeatzailea izan den entitate edo arduradunak sorturiko material guztia eraman du. Horrela, museo batzuetan, egun existitzen den gestio arduradunak ez du aurreko urteetako ekimenen berririk, eta beraz, ezinezkoa da iraganeko praktiken berri izatea bide honetatik. Hori gehitu behar zaio zenbait erakundek sortzen duten materiala, kudeatzaile arduradunaren dokumentazio pribatu kontsideratzen dutela, eta nahiz eta erakunde publiko baten zerbitzura dauden, horiek kontsultatu eta aztertzeke aukerarik ez dutela eskaintzen.

Dokumentazioarekin jarraituz, aztertutako zenbait museoen artxiboaren berrantolaketa eman da ikerketaren kontsulta fasea burututako unean. Hori dela eta, material asko jasotzea zailagoa izan da, edota kasu batzuetan ezin izan da burutu.

Egoera hauetan bestelako iturrietara jo da informazio ahalik eta osatuena izateko, edota topatutako informazioarekin lan egin da. Horregatik, ikerketa honetako museo bakoitzaren deskribapen diakronikoan, desoreka nabariak eman dira, zenbait museori buruzko atalak oso landuak eta osatuak izanik, eta beste zenbaitenak, ordea, laburragoak eta informazio gabezi handiagoarekin.

Aldagaien dagokionez, kontsultatutako dokumentazioan erabilitako kontzeptuak eta denominazioak oso anitzak izan dira, eta hezkuntza ekimen kontsiderazioaren inguruko kontzepzio ezberdinak ere topatu dira Gipuzkoako museoetan baitan. Ikerketaren hasieran Gipuzkoako museoetako hezkuntza ekimenen garapena

aztertzeko aldagaiak kontsideratu dira: baliabide espazialak – non burutu diren hezkuntza ekimenak – ; hezkuntza sailen eraketa eta hezitzaileen profila; ekimenen intenzionalitatea; eta azkenik, ebaluazio lanen inguruko ikerketa. Denboran aurrera egin ahala aldagai hauek desagertu egin dira ikerketatik; nahiz eta hezkuntza ekimenen garapena ulertzeko ezinbestekoak kontsideratzen diren, horiei buruzko datuak topatu ez izanak eragin du azterketa burutu ezin izatea era sakon batean.

Honekin batera, museo bakoitzak, aldagaien izaera eta erabilera zein kontzeptuen inguruko ikuspegi oso desberdina dutela nabarmendu da. Hau da, funtzio hezitzailearen inguruko kontsiderazio ugariak aurkitu daitezke eta ikaskuntzarako jarduera eta materialak nolakoak izan behar diren edota bestelako funtzio bat betetzeko sortzearen inguruko ideia anitzak izan dira.

Egoera honetan malgutasun handiz jokatu behar izan da, eta *a priori* hezkuntza ekimen kontsideratzen ez ditugun zenbait jarduera eta material gehitu dira ikerketan, horien benetako funtzioa eta erabilgarritasuna zein den edota benetan hezitzailea den frogatu ez bada ere. Hots, hauen ebaluazio baten gabezia, museoek adierazten duten eskaintza eta programazioaren deskribapenera mugatu gara, lurraldeko errealitatean oinarrituz markoa zabaldu delarik, era askeagoan interpretatuz.

Amaitzeko, beharrezkoa da azaltzea lan hau ez dela Gipuzkoan burutu diren hezkuntza ekimen guztien inbentario zehatza, katalogo zabal bat baizik; eta etorkizuneko inbentario zabalago baterako tresna edo oinarri bat izateko helburua duela – berriz ere dokumentazio gabeziarekin erlazionaturik – . Era berean, ez da ebaluazio lan bat, jarduera, material, lantalde eta publikoaren deskribapena baizik, non oinarriak finkatzen diren ebaluazioaren garrantzia ere azpimarratzeko eta horien hutsunea agertarazteko. Gainera, topatutako informazioaren interpretazio bat izan da, kasu askotan ezinezkoa izan baita museoek jasotako ekimenak programa zabalagoen parte diren, beste eragile batek sustaturikoa den edo museoak berak garatu duen proposamena desberdintzea zaila izan baita.

ERREFERENTZIAK

- AAAA (2003). *Igartubeiti: Gipuzkoako baserri bat: Ikerketa, zaharberrikuntza, zabalkundea = Un caserío guipuzcoano: Investigación, restauración, difusión*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua = Departamento de Cultura, Euskera, Juventud y Deportes.
- AAAA (2011). *El movimiento de las ikastola. Un pueblo en marcha. El modelo IKASTOLA 1960-2010*. Bilbo: Euskal Herriko Ikastolak - Euskaltzaindia.
- Abad Liceras, J. M. (1999). La distribución de competencias entre el Estado y las Comunidades Autónomas en materia de patrimonio cultural histórico-artístico: soluciones doctrinales. *Revista Española de Derecho Constitucional*, 19 (55), 133-184.
- Abella, R. (1996). *La vida cotidiana en España bajo el régimen de Franco*. Madrid: Temas de hoy.
- Abós Ugarte, Á. (1987). Bases para el estudio de museos y monumentos de Euskal Herria. *Mediatika: cuadernos de medios de comunicación*, (2), 11-86.
- Abt, J. (2006). The origins of the public museum. In S. Macdonald (Ed.), *A companion to museum studies* (115-134 orr.). Oxford: Blackwell Publishing.
- Agirre Arriaga, I. (2013). El papel de la educación en el acceso democrático a la cultura y las artes. Encuentros y desencuentros entre escuela y museo. (*Pensamiento*), (*Palabra*) y *Obra*, 10(10), 7-21.
- Aguaded Gómez, J. I. (2002). Nuevos escenarios en los contextos educativos: la sociedad postmoderna, del consumo y la comunicación. *Agora digital*, (3), 1-19.
- Aguirre Iturralde, C. (1995). Un museo para la cultura vasca: Renovación del Museo de San Telmo en San Sebastián. *Revista de Museología*, (4), 39-41.
- Ait Moreno, I. (2007). Modernización y política artística: El Centro Nacional de Exposiciones entre 1983 y 1989. *Anales de historia del arte*, (17), 223-245.
- Akordagoitia Murua, M. (2004). El Caserío Igartubeiti: Análisis de la musealización de un museo desde su vertiente presencial y virtual. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (39), 77-83.
- Akordagoitia Murua, M. (2002). Hilarriak biribilketan maleta didaktikoa. *Hik Hasi*, (70), 58.
- Alarcón, R. (2007). Sociología y estudios de público en los museos españoles. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (12), 233-246.
- Alberdi, I. (2013, otsailak 22). Talleres de creación para niños en el Museo Balenciaga. *El Diario Vasco*.

- Alberdi Sagardia, M. (2008). El Museo Zumalakarregi de Ormaiztegi. *Gerónimo De Uztariz*, (23), 234-243.
- Alcocer, S., & Calvo, P. (2014). El museo en el aula. *Boletín de la Real Sociedad Española de Historia Natural. Sección aula, museos y colecciones*, (1), 189-198.
- Alderoqui, S. (1996). *Museos y escuelas: Socios para educar*. Barcelona: Paidós.
- Aliki Koutora (2014). *Edutainment in museums: A tool for disseminating knowledge*. In https://www.academia.edu/10377338/Edutainment_in_Museums_a_Tool_for_Disseminating_Knowledge (2016ko maiatzaren 5an ikusia)
- Alonso de Val, M. A., Hernández Minguillón, R. J., & Mitxelena, S. (2007). Proyecto de renovación de Arantzazu - Gandiaga Topagunea. *Arketypo: revista de arte, arquitectura y diseño vasco*, (9), 44-55.
- Alonso Fernández, L. (1993). *Museología: Introducción a la teoría y práctica del museo*. Madrid: Istmo.
- Alonso Fernández, L. (2012). *Nueva museología: Planteamientos y retos para el futuro*. Madrid: Alianza.
- Álvarez Arias de Saavedra, M.A. (1996). Los museos y la educación: actividades didácticas para un museo de historia local. *Antiquitas*, (7), 135-142.
- Álvarez Domínguez, P. (2008). Espacios educativos y museos de pedagogía, enseñanza y educación. *Cuestiones pedagógicas: Revista de ciencias de la educación*, (19), 191-205.
- Álvarez Domínguez, P., & Benjumea Cobano, J. (2011). Aproximación al museo contemporáneo: Entre el templo y el supermercado cultural. *Arte y Políticas De Identidad*, (5), 27-42.
- Álvarez Enjuto, J. M. (1993). *Museos de España*. Madrid: F&G.
- Álvarez Guillén, M. (2016). Del boom museístico a los laboratorios del procomún: Un recorrido por la crítica a la institución en el caso español. *Kultur: revista interdisciplinària sobre la cultura de la ciutat*, 3(5), 77-94.
- Álvarez Munárriz, L. (2007). Conciencia y conducta medioambiental: los paisajes culturales. *Intersticios: Revista sociológica de pensamiento crítico*, 1(1), 60-66.
- Álvarez Rodríguez, D. (2007). El museo como comunidad de aprendizaje. In Huerta, R., Calle, R. d.I. (Eds.), *Espacios estimulantes: Museos y educación artística* (109-127 orr.). Valencia: Universitat de València.
- Álvarez Rodríguez, D. (2010). Recursos para comprender el museo como agente educativo. *Aula de innovación educativa*, (196), 36-40.
- Amondarain, L., Urteaga, M., & Seva, R. (2009-2010). Producciones cerámicas altomedievales de Gipuzkoa. *Boletín Arkeolan*, 16, 59-76.

- Ángeles, M. d.I. (1986). Una maleta de préstamo. *Cuadernos de pedagogía*, (134), 25-27.
- Antoñazas Cristóbal, M. V., & Zulaika Ruiz, R. (1990). ¡Vive tu museo! ¡Zure museoa bizi!: El visitante individual descubre el DEAC. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *VII Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos [Albacete, 1990]* (39-42 orr.). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, Dirección de los Museos Estatales.
- Aramburu Lasa, J. J., Gillate, I., & Ibáñez-Etxeberria, A. (2016). Ekainberri. Un museo réplica para comprender la prehistoria. In Calaf, R., & Suárez, M.A. (2015), *Acción educativa en museos. Su calidad desde la evaluación cualitativa* (151-164 orr.). Gijón: Trea.
- Aranburu Lasa, J. J.; & Vicent, N. (2009). Santa María La Real-conjunto arqueológico monumental de Zarautz. Investigar, conservar y divulgar para crear un recurso adecuado a todos los zarautzarras. *Munibe Suplemento*, (27), 412-431.
- Araujo Sánchez, C. (1875). *Los Museos de España*. Madrid: Medina y Navarro.
- Arbués, E., & Naval Durán, C. (2014). Los museos como espacios sociales de educación. *ESE: Estudios Sobre Educación*, (27), 133-151.
- Ares, F. (2004). Cómo satisfacer las expectativas de un centro. *Cuadernos de pedagogía*, (340), 75-77.
- Ares, F. (2005). Miramón. KutxaEspacio de la ciencia: un espacio para la divulgación en San Sebastián. *Boletín informativo de la SEA*, (14), 2-4.
- Ares, F., & Martínez, A. (2010). Historia de Zientziaren Kutxagunea. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/152190> (2016ko urtarrilaren 15an ikusia)
- Arguiñano, J. L. (2004, abuztuak 22). Erdi Aroaren ispilu. *El País*.
- Armengol, M. (2000). Maletas didácticas: El museo viaja a la escuela. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (23), 103-112.
- Arnaldo Alcubilla, F.J. (2008). El educador de museos: Formación y reconocimiento de una profesión. *Amigos de los museos: boletín informativo*, (27), 15.
- Arriaga, A. (2011). Desarrollo del rol educativo del museo: narrativas y tendencias actuales. *Revista Digital do LAV*, 7(4), 1-23.
- Arrieta Urtizberea, I. (2003). Expectativas y limitaciones en la puesta en marcha de un proyecto patrimonial y turístico en un municipio rural vasco. *Pasos. Revista De Turismo y Patrimonio Cultural*, 1(1), 111-122.
- Arrieta Urtizberea, I. (2006). Élités, instituciones públicas, identidad cultural y turismo en los orígenes del Museo Municipal de Donostia-San Sebastián. In Arrieta

- Urtizberea, I. (coord.), *Museos, memoria y turismo* (45-76 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Arrieta Urtizberea, I. (2009). Comunidades, científicos y especialistas en los proyectos patrimoniales y museísticos: De "arriba-abajo", de "abajo-arriba". In Arrieta Urtizberea, I. (coord.), *Activaciones patrimoniales e iniciativas museísticas: ¿por quién? y ¿para qué?* (11-20 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Arrieta Urtizberea, I. (2010). El campo patrimonial y museístico: Un espacio cultural conflictivo. *Revista de dialectología y tradiciones populares*, 65(2), 303-335.
- Arrieta Urtizberea, I. (2012a). Hacia una aproximación compleja al patrimonio cultural. In Díaz Balerdi, I. (coord.), *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (41-61 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz: ARTIUM
- Arrieta Urtizberea, I. (2012b). Historia centenaria del Museo San Telmo: Breve crónica político-cultural de idas y venidas. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 38-48.
- Arrieta Urtizberea, I. (2012c). Los museos del País Vasco. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 5-6.
- Arrieta Urtizberea, I. (2012d). Museologías tradicional, posmoderna y social en el País Vasco. *Revista de Museología*, (53), 80-90.
- Arrieta Urtizberea, I. (2013). Museos en la posmodernidad: Retos y desafíos. In Arrieta Urtizberea, I. (coord.), *Reinventando los museos* (11-26 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Arruti, C., & Kortadi, E. (1988). Propuesta de "museo sacro" de la Diócesis de San Sebastián. In Congreso de Estudios Vascos, *Archivos, bibliotecas y museos = Artxiboak, liburutegiak, museoak / X Congreso de Estudios Vascos (Iruñea, 1987)* (385-389 orr.). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- Artola, M. (2001). *Donostiaren historia*. Hondarribia: Nerea.
- Asenjo Hernanz, M. E. (2014). *Aprendizaje informal y nuevas tecnologías: Análisis y medición del constructo de interactividad en contextos de exposición del patrimonio* [Doktoro tesia]. Universidad Autónoma de Madrid, Madrid. In <https://repositorio.uam.es/handle/10486/661648>
- Asensio, M., Aramburu, J. J., & Ibáñez-Etxeberria, A. (2012). Vislumbrando el arte en la penumbra: Ekainberri, sensaciones e impactos de sus públicos. In Asensio, M., Asenjo, Y., Castro, A., Ibáñez-Etxeberria, A., & Caldera, M.P. (Eds.), *SIAM*.

- Series iberoamericanas de museología. Vol. 3* (89-107 orr.). Madrid: Laboratorio de Interpretación del Patrimonio de la Universidad Autónoma de Madrid - Internacional Council of Museums.
- Asensio, M., Fernández Betancor, H., Cuenca López, J. M., Fontal Merillas, O., & Ibáñez Etxeberria, A. (2012). Una reflexión sobre WEBS, museos y turismo cultural a partir de un estudio cualitativo de indicadores expertos. In Asensio, M., Asenjo, Y., Castro, A., Ibáñez-Etxeberria, A., & Caldera, M.P. (Eds.), *SIAM. Series iberoamericanas de museología. Vol. 3*. (89-107 orr.). Madrid: Laboratorio de Interpretación del Patrimonio de la Universidad Autónoma de Madrid - Internacional Council of Museums.
- Asensio, M., & Pol Méndez, E. (2003). Aprender en el museo. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 62-77.
- Ávila Ruiz, R. M. (2003). La función de los itinerarios en la enseñanza y el aprendizaje del patrimonio histórico-artístico. Una reflexión didáctica. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 36-46.
- Ávila, N., & Megías Martínez, C. (2011). Cuando el museo sale del museo. In Acaso, M., Alcaide, E., & Antúnez, N. (Eds.), *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (106-109 orr.). Madrid: Fundación Telefónica - Ariel.
- Ayerbe, E. (1994). *Donostia-San Sebastian: Vida, paisajes, símbolos*. Donostia: Sendoa.
- Azcue Brea, L. (2001). Museos: Oferta y demanda. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (6), 247-255.
- Azurmendi, N. (2011, abenduak 24). Preparados para el año de despegue. *El Diario Vasco*.
- Ballart, X. (1992). *¿Cómo evaluar programas y servicios públicos?: Aproximación sistemática y estudios de caso*. Madrid: Ministerio para las Administraciones Públicas.
- Ballart, J. (1997). *El patrimonio histórico y arqueológico: Valor y uso*. Barcelona: Ariel.
- Ballart, X. (2002). La formación de los museólogos: Balance y expectativas de una mirada académica. *Revista de Museología*, (23), 11-18.
- Ballart, X. (2004). Un nuevo público para unos nuevos museos. *PH: Boletín Del Instituto Andaluz Del Patrimonio Histórico*, 12(48), 94-100.
- Ballart, J., & Juan i Tresserras, J. (2001). *Gestión del patrimonio cultural*. Barcelona: Ariel.
- Barandiaran, I. (1973). Irun romano. *Munibe*, (1), 19-28.

- Barandiaran, K. (2008). El museo Zumalakarregi virtual. Un servicio virtual de formación y aprendizaje. *Revista de Museología*, (41), 45-51.
- Barandiaran, K., & Urteaga, M. (2007). Museo Romano Oiasso (Irún). Un museo de gestión novedosa y prácticas culturales innovadoras. *Revista de Museología*, (40), 86-98.
- Barrio Fernández, T., & Zubiaur Carreño, F. J. (2015). La situación de los museos españoles ante la crisis. El patrimonio implicado. *Complutum*, 26(2), 189-197.
- Bazin, G. (1969). *El Tiempo de los museos*. Barcelona: Daimon.
- Bazin, G. (2010). The Museum Age. In Messias Carbonell, B. (Ed.), *Museum Studies. An Anthology of Contexts* (18-22 orr.). Oxford: Blackwell Publishing.
- Bellido Gant, M. L. (2012). Patrimonio y museos en la era de lo virtual. In Díaz Balerdi, I. (coord.), *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (127-139 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz: ARTIUM
- Beltrán Argiñena, J. M. (1999). Herri musikaren dokumentazio zentru bat egiteko, antolatze eta funtzionamendurako egitasmoa. *Musiker: cuadernos de música*, (11), 183-201.
- Benejam Arguibau, P. (2003). Los objetivos de las salidas. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 7-12.
- Bergeron, Y. (2009). Los museos y la crisis. Tendencias en los museos norteamericanos. *Museos.es*, (5), 58-67.
- Bidegain, M. (2003, irailak 21). Millones de años en un museo. *Diario de Noticias de Gipuzkoa*.
- Bilbao, B., & Pérez, K. (2008). Euskal curriculum lehen eta orain. *Ikastaria: cuadernos de educación*, (16), 83-108.
- Black, G. (2015). Developing audiences for the Twenty-first-century Museum. In McCarthy, C. (Ed.), *Museum Practice* (123-151 orr.). Oxford: Wiley Blackwell.
- Blanco, P. (2005). Prácticas artísticas colaborativas en la España de los años noventa. *Desacuerdos. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado Español*, (2), 188-205.
- Blanco, R., Benayas del Álamo, J., & Gutiérrez Pérez, J. (2000). Evaluación de la calidad de las visitas guiadas a espacios naturales protegidos. *Tópicos en educación ambiental*, 2(5), 69-78.
- Bolaños, M. (2002). *La memoria del mundo: cien años de museología (1900-2000)*. Gijón: Trea.
- Bolaños, M. (2008). *Historia de los museos en España*. Gijón: Trea.
- Bolaños, M. (2009). La belleza de las crisis. *Museos.es*, (5), 18-27.

- Bonet i Agustí, L. (2005). Luces y sombras del patrimonio cultural como yacimiento de empleo. *PH: Boletín Del Instituto Andaluz Del Patrimonio Histórico*, 13(54), 36-43.
- Botkin, J. W., Elmandjra, M., & Malitza, M. (1982). *Aprender, horizonte sin límites: Informe al Club de Roma*. Madrid: Santillana.
- Bourdieu, P., Darbel, A., & Schnapper, D. (2003). *El amor al arte: Los museos europeos y su público*. Barcelona: Paidós.
- Boylan, P.J. (2006). The Museum Profession. In Macdonald, S. (Ed.), *A Companion to Museum Studies* (415-430 orr.). Oxford: Blackwell Publishing.
- Brazuelo, F., & Gallego, D.J. (2011). *Mobile learning: Los dispositivos móviles como recurso educativo*. Sevilla: Eduforma.
- Brunelli, M. (2016). La comunicación y la interpretación del patrimonio educativo en los museos: Espejo y reflejo de una disciplina en la transformación. In Dávila Balsera, P., & Naya Garmendia L.M. (coords.), *Espacios y patrimonio histórico-educativo* (79-95 orr.). Donostia: Erein.
- Burbules, N. (2012). El aprendizaje ubicuo y el futuro de la enseñanza. *Encounters/Encuentros/Rencontres on Education*, (13), 3-14.
- Caballero Zoreda, L. (1980). El museo: Funciones, personal y su formación. *Boletín de la ANABAD*, 30(3), 377-385.
- Calaf Masachs, R. (2009). *Didáctica del patrimonio. Epistemología, metodología y estudio de casos*. Gijón: Trea.
- Calaf Masachs, R., Gillate Aierdi, I., & Gutiérrez Berciano, S. (2015). Transitando por la evaluación de los programas educativos de museos de arte del proyecto ECPEME. *Educatio Siglo XXI: Revista De La Facultad De Educación*, 33(1), 129-150.
- Calderón, E. (2004a). Pasai Donibaneko Ontziola Museoa. *Euskonews & Media*, 278. In <http://www.euskonews.com/0278zbk/gaia27825eu.html> (2015ko abenduaren 15an ikusia)
- Calderón, E. (2004b). Victor Hugo Etxea. Pasai Donibane. *Euskonews & Media*, 278. In <http://www.euskonews.com/0278zbk/gaia27826eu.html> (2015ko abenduaren 15an ikusia)
- Calle, R. d.l. (1975). Munari, Bruno "diseño y comunicación visual". *Teorema: Revista internacional de filosofía*, 5(2), 308-311.
- Cambil Hernández, M. E. (2010). Las nuevas tecnologías y los itinerarios didácticos: El Museo de la Memoria de Granada. In Universitat de Girona, *CiDd. II Congrés Internacional de Didactiques. L'activitat del docent: Intervenció, innovació, investigació*. In

<http://dugi-doc.udg.edu/bitstream/handle/10256/2982/448.pdf?sequence=1>

(2016ko urtarrilaren 22an ikusia)

- Cambor, J. d. L. (1985). IV Conferencia Internacional sobre educación de adultos. *Revista de educación*, (276), 155-168.
- Cameron, D. F. (1971). The Museum: a Temple or the Forum. *Curator, The Museum Journal*, 14(1), 11-24.
- Camino Ortiz de Barón, I., & Murua Cartón, H. (2013). *Mugimendu pedagogikoak eta hezkuntza sistema*. Bilbao: Euskara eta eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena. Euskal Herriko Unibertsitatea. In <http://testubiltegia.ehu.es/Mugimendu-pedagogikoak/mugimendu-pedagogikoak.pdf> (2016ko urtarrilaren 22an ikusia)
- Camino Ortiz de Barrón, I., & Olarra Villanueva, A. (2009). Espainiako Bigarren Errepublikaren garaia hezkuntza berrikuntzari begira. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, 21(1), 23-54.
- Camp, Mayhew, K., & Camp Edwards, A. (1936). *The Dewey School The Laboratory School Of The University Of Chicago 1896-1903*. In http://www.archive.org/stream/deweyschoolthela008095mbp/deweyschoolthela008095mbp_djvu.txt (2016ko otsailaren 4an ikusia)
- Carreño, M. (2006). (2008). Los nuevos museos de educación, un movimiento internacional. *Encounters on education = Encuentros Sobre educación = Recontres Sur l'Éducation*, (9), 75-91.
- Carrión Santafé, E. (2006). La formación museológica en España. *Museos.es*, (2), 34-49.
- Carter, G. (1990a). Informal educational activities. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *VII Jornadas de Departamentos de Educacion y Acción Cultural de Museos [Albacete, 1990]* (21-24 orr.). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, Dirección de los Museos Estatales.
- Carter, G. (1990b). The individual museum visitor. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *VII Jornadas de Departamentos de Educacion y Acción Cultural de Museos [Albacete, 1990]* (15-20 orr.). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, Dirección de los Museos Estatales.
- Casado Soto, J. L. (2009). Museos y centros dedicados al patrimonio marítimo que jalonan la costa norte de España. *Itsas Memoria: Revista de estudios marítimos del País Vasco*, (6), 41-56.
- Casanova Lorens, T. (1988). Museos de Bizkaia. In Congreso de Estudios Vascos, *Archivos, bibliotecas y museos = Artxiboak, liburutegiak, museoak / X*

- Congreso de Estudios Vascos (Iruñea, 1987)* (323-324 orr.). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- Casares, P., & Larrode, A. (2009). Aquarium. *Auñamendi Eusko Entziklopedia*. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/101178/136871?&idi=eu> (2015ko irailaren 5an ikusia)
- Casso, R. d. (1981). Formación pedagógica del museólogo. *Boletín de la ANABAD*, 31(4), 671-675.
- Castellanos Pineda, P. (2008). *Los museos de ciencias y el consumo cultural: Una mirada desde la comunicación*. Barcelona: UOC.
- Castells Arteché, L. (1999). *El rumor de lo cotidiano: Estudios sobre el País Vasco Contemporáneo*. Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio de Publicaciones.
- Castells Arteché, L., Cajal Valero, A., & Molina, F. (2007). *El País Vasco y España: Identidades, nacionalismos y Estado (siglos XIX y XX)*. Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio de Publicaciones.
- Castillo Ruiz, J. (2008). El observatorio del patrimonio histórico español (OPHE). In Bellido Gant, M.L. (coord.), *Difusión del patrimonio cultural y nuevas tecnologías* (13-35 orr.). Sevilla: Universidad Internacional de Andalucía.
- Chen, C.C., & Huang, T.C. (2012). Learning in a u-Museum: Developing a context-aware ubiquitous learning environment. *Computer & Education*, (59), 873-883.
- Chico, A. (2007, abuztuak 4). Mutriku, según los fósiles. *El Diario Vasco*.
- Claes, F., & Deltell Escolar, L. (2014). Museos sociales: Perfiles museísticos en Twitter y Facebook 2012-2013. *El profesional de la información*, 23(6), 594-602.
- Clara, A., Asensio, M., Pol Méndez, E., Real, N., Gomis, M., Llera, B., & Angeles, M. d. I. (1998). El proyecto "público y museos". *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (3), 123-148.
- Clover, D. (2012). Educación de personas adultas en museos públicos y galerías de arte: Una exploración de campo. *Cuestiones pedagógicas: Revista de ciencias de la educación*, (22), 161-180.
- Codina i Mir, M. T. (2002). Rosa Sensat y los orígenes de los Movimientos de Renovación Pedagógica. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, (21), 91-104.
- Colom Cañellas, A. J. (2005). Continuidad y complementariedad entre la educación formal y no formal. *Revista de educación*, (338), 9-22.

- Coma, L., & Sallés Tenas, N. (2010). Recursos y materiales didácticos interactivos. In Santacana, J., & Martín, C. (coords.), *Manual de museografía interactiva* (415-462 orr.). Gijón: Trea.
- Conclusiones de las II Jornadas de Museología. (1997). *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (2), 303-305.
- Conde, O. (2012a). La Fundación Lenbur recupera la memoria del trabajo. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 77-84.
- Conde, O. (2012b). La fundación LENBUR recupera la memoria industrial y del trabajo. In Álvarez Areces, M.A. (coord.), *Patrimonio inmaterial e intangible de la industria: Artefactos, objetos, saberes y memoria de la industria* (107-116 orr.). Gijón: CICEES.
- Coombs, P. H. (1985). *La crisis mundial de la educación: Perspectivas actuales*. Madrid: Santillana.
- Coombs, P. H. (1994). Los sistemas educativos: algunos cambios deseables. In Fundación Santillana (Ed.), *Aprender para el futuro: educación para la salud: documentos de un debate* (57-58 orr.). Madrid: Fundación Santillana.
- Coombs, P. H., & Ahmed, M. (1975). *La lucha contra la pobreza rural*. Madrid: Tecnos.
- Cordón Benito, D., & González González, D. (2016). Museos y comunicación: Los nuevos medios como herramienta de diálogo y sociabilidad de la institución. El uso de Twitter por el Museo del Prado, Museo Thyssen-Bornemisza y Museo Reina Sofía. *Fonseca, Journal of Communication*, (12), 149-165.
- Correa Gorospe, J. M., & Ibáñez Etxeberria, A. (2004). Territorio, museo y nuevas tecnologías: propuestas de desarrollo en Territorio Menosca. In Vera Muñoz, M.I., & Pérez i Pérez, D (Eds.), *Formación de la ciudadanía: Las TICs y los nuevos problemas*. (61-74 orr.). Alicante: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Crespo, T. (2000, irailak 9). La memoria de un manantial salado. *El País*.
- Cuenca López, J. M. (2004). "Iter-itineris": un ejemplo de juego on-line para el aprendizaje de la historia. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (41), 68-76.
- Cuenca López, J. M., & Martín Cáceres, M. J. (2014). *Manual para el desarrollo de proyectos educativos de museos*. Gijón: Trea.
- Dabouza, A. (1988). Educación y acción cultural en los museos de la Diputación Foral de Alava. In Congreso de Estudios Vascos, *Archivos, bibliotecas y museos = Artxiboak, liburutegiak, museoak / X Congreso de Estudios Vascos (Iruñea, 1987)* (339-442 orr.). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.

- Davidson, L. (2015). Visitor Studies. Toward a Culture of Reflective Practice and Critical Museology for the Visitor-Centered Museum. In McCarthy, C. (Ed.), *Museum Practice* (503-527 orr.). Oxford: Wiley Blackwell.
- Dávila Balsera P. (2004). *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Del papel al hierro. Chillida Lantoki, Legazpi (Guipuzcoa). (2010). *Arquitectura Viva*, (131), 50-51.
- Delannoy, F. (1998). Reformas en gestión educacional en los 90s. *CSHD Paper Series*, 21, 1-23.
- Delgado Buscalioni, Á. (2006a). Luberry, Centro de Interpretación Geológica de Oiartzun. In Rábano, I., & Delgado, A. (coords.), *Rutas por museos y colecciones de paleontología: Asturias, Cantabria, Galicia, La Rioja y País Vasco* (125-127 orr.). Madrid: Instituto Geológico y Minero de España.
- Delgado Buscalioni, Á. (2006b). Museo de minerales y fósiles de Urretxu. In Rábano, I., & Delgado, A. (coords.), *Rutas por museos y colecciones de paleontología: Asturias, Cantabria, Galicia, La Rioja y País Vasco* (122-124 orr.). Madrid: Instituto Geológico y Minero de España.
- Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos. Jornadas (1990). A modo de actas del debate subsiguiente a la presentación del Informe de estudio y valoración de las Jornadas de Educación de Museos. In Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos. Jornadas, *VII Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos*. Madrid: Dirección General de Bellas Artes y Archivos.
- Desvallées, A., & Mairesse, F. (2009). *Conceptos claves de la museología*. ICOM, Armand Colin. In http://icom.museum/fileadmin/user_upload/pdf/Key_Concepts_of_Museology/Museologie_Espagnol_BD.pdf (2016ko apirilaren 1an ikusia)
- Dewey, J. (2004). *Experiencia y educación*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Díaz Balerdi, I. (1987). Formación de museólogos y programas de museología. In Congreso de Estudios Vascos, *Archivos, bibliotecas y museos = Artxiboak, liburutegiak, museoak / X Congreso de Estudios Vascos (Iruñea, 1987)* (447-450 orr.). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- Díaz Balerdi, I. (1994). El museo: territorio, ritual y metáfora. *Bitarte: Revista cuatrimestral de humanidades*, (4), 135-146.
- Díaz Balerdi, I. (1996). La formación del museólogo. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (1), 43-57.

- Díaz Balerdi, I. (1997). Historia, museos e imaginarios objetuales. *PH: Boletín del Instituto Andaluz del Patrimonio Histórico*, 5(19), 100-103.
- Díaz Balerdi, I. (2002). ¿Qué fue de la nueva museología?: El caso de Québec. *Artigrama: Revista del Departamento de Historia del Arte de la Universidad de Zaragoza*, (17), 493-516.
- Díaz Balerdi, I., & Unzu Iraola, A. (2003). La mirada que construye. Competencias y extravíos. In Lorente, J.P., & Almazán, D. (coords.), *Museología crítica y arte contemporáneo* (185-201 orr.). Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza.
- Díaz Balerdi, I. (2006a). Museos y patrimonio: De la distancia retórica a la interlocución democrática. In Arrieta Urtizberea, I. (coord.), *Museos, memoria y turismo* (15-32 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Díaz Balerdi, I. (2006b). Patrimonio, museos y placeres virtuales. In Alzúa Sorzabal, A. (coord.), *Tecnologías de la información y comunicación (TICs), arte y patrimonio cultural: Aplicaciones, desarrollo local y aprendizaje informal: Primer seminario internacional celebrado en Donostia-San Sebastián el 5 de mayo de 2003* (244-250 orr.). Donostia- San Sebastián: Universidad de Deusto = Deustuko Unibertsitatea, Servicio de Publicaciones.
- Díaz Balerdi, I. (2006d). Universidad, museos, museología: una ecuación inacabada. In Belda Navarro, C., & Marín, M.T. (coords.), *La museología y la historia del arte* (21-50 orr.). Murcia: Universidad de Murcia, Servicio de Publicaciones.
- Díaz Balerdi, I. (2008). Museos en la encrucijada. estructuras, redes y retos en el país vasco. In Roigé, X., Fernández de Paz, E., & Arrieta Urtizberea, I. (coords.), *El futuro de los museos etnológicos: consideraciones introductorias para un debate* (69-86 orr.). Donostia: Ankulegi Antropologia Elkartea.
- Díaz Balerdi, I. (2010a). *Archipiélagos imaginarios. Museos de la CAPV*. Donostia: Nerea.
- Díaz Balerdi, I. (2010b). La formación de profesionales de museos. De la mística de la conservación al absolutismo de la gestión. *Revista de Museología*, (47), 8-16.
- Díaz Balerdi, I. (2010d). Nuevos museos: Nuevas (viejas) museologías. In Iglesias Gil, J.M. (coord.), *Actas de los XX cursos monográficos sobre el patrimonio histórico [Reinosa, julio de 2009]* (369-384 orr.). Santander: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cantabria - Ayuntamiento de Reinosa.
- Díaz Balerdi, I. (2012a). De ciudadano a consumidor. los retos de la participación en las mecánicas museísticas y patrimoniales. *Revista de Museología*, (53), 35-42.

- Díaz Balerdi, I. (2012b). Heráclito en el museo. In Díaz Balerdi, I. (coord.), *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (71-83 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz: ARTIUM.
- Díaz Balerdi, I. (2012d). Un siglo de museos en el País Vasco. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 8-14.
- Díaz Balerdi, I. (2014). Pinceladas sin cuadro: residuos, museos y patrimonio industrial en el País Vasco. In Roixé, X., Frigolé, J., & Mármol, C.d. (Eds.), *Construyendo el patrimonio cultural y natural: parques, museos y patrimonio rural* (223-234 orr.). Alcira : Editorial Germania.
- Díaz Gijón, J.R. (1998a). La transición. De los primeros gobiernos de la monarquía a las elecciones de 1977. In Díaz Gijón, J., Fernández Navarrete, D., González González, M. J., Martínez Lillo, P. A., & Soto Carmona, A. (1998), *Historia de la España actual. 1936-1996. Autoritarismo y democracia* (225-243 orr.). Madrid: Marcial Pons.
- Díaz Gijón, J.R. (1998b). Época socialista (1982-1996). In Díaz Gijón, J., Fernández Navarrete, D., González González, M. J., Martínez Lillo, P. A., & Soto Carmona, A. (1998), *Historia de la España actual. 1936-1996. Autoritarismo y democracia* (293-315 orr.). Madrid: Marcial Pons.
- Díez, R. (2002). Territorio, patrimonio y turismo: El caso del país vasco. In Vidal Casellas, D. (coord.), *Cultura i turisme: Cultura y turismo = culture et tourisme: Actes del seminari dut a terme a Barcelona el novembre de 1999* (41-54 orr.). Girona: Servei de Publicacions de la Universitat de Girona.
- Domínguez Domínguez, C., & García García (2005). La escuela de la II República. In Flores Tristán, F. (Aut.), *La Escuela de la II República* (21-37 orr.). Madrid: Fundación de Investigaciones Educativas y Sindicales.
- Domínguez, C., Estepa, J., & Cuenca, J. M. (1999). *El museo: Un espacio para el aprendizaje*. Huelva: Universidad de Huelva.
- EITB (1996). *Pagoeta. Euskal Herriatik* [bideoa]. In <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/euskal-herriatik-1-ataletik-100era/4106892296001/4104617960001/pagoeta/> (2015ko ekainaren 20an ikusia)
- EITB. (1997). *Cro-magnonen ondoren* [bideoa]. In <http://www.eitb.tv/eu/bideoa/euskal-herriatik-101-ataletik-200era/782584653001/788061773001/cro-magnonen-ondoren> (2015ko ekainaren 20an ikusia)
- El TOPIC de Tolosa: Un centro único en Europa. (2011). Primer Acto: Cuadernos de Investigación teatral, (339), 63-66.
- Entrevista a Mikel Asensio. (2008). *Amigos De Los Museos: Boletín Informativo*, (27), 10.

- Errekondo Salsamendi, J. (2002). Zerain parque cultural. In Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (Ed.), *Gestión del patrimonio industrial en la Europa del siglo XXI: octubre 2001* (289-294 orr.). Bilbao: Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.
- Errekondo, J., & Galdós, A. (2010). Paisaia kulturala. *Zehar: Revista De Arteleku-ko Aldizkaria*, (67), 52-59.
- Errekondo, J. (2011). Zerain paisaje cultural: patrimonio, paisaje y sostenibilidad. *Ambienta: La revista del Ministerio de Medio Ambiente*, (97), 106-117.
- Errekondo, J. (2013). Zerain paisaje cultural. Paisaje y sostenibilidad. el patrimonio y la participación comunitaria son el futuro. In Álvarez Areces, M.A. (coord.), *Paisajes culturales, patrimonio industrial y desarrollo regional* (119-128 orr.). Gijón: CICEES.
- Escolano Benito, A. (2002). *La educación en la España contemporánea: Políticas educativas, escolarización y culturas pedagógicas*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Escuela Armería de Eibar (1914). *Guía oficial de la exposición vasca de industrias guipuzcoanas*. Eibar: Escuela de Armería.
- Eskoriatzako Museo Eskola ya es Ibarraundi Museoa. (2005). *Aranzadiana*, (126), 108.
- Espinós, A (2017). Museums on social media: Analyzing growth through case studies. *MW2016: Museums and the Web 2016*. In <http://mw2016.museumsandtheweb.com/paper/museums-on-social-media-analyzing-growth-through-case-studies/> (2016ko urriaren 6an ikusia)
- Esteban, I. (2007). *El efecto Guggenheim: del espacio basura al ornamento*. Barcelona: Anagrama.
- Esteban Frades, S. (2016). La renovación pedagógica en España: un movimiento social más allá del didactismo. *Tendencias pedagógicas*, (27), 259-284.
- Estepa, J. (2013). *La educación patrimonial en la escuela y el museo: investigación y experiencia*. Huelva: Universidad de Huelva.
- Estepa, J., & Domínguez, C. (2001). *Museo y patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales*. Huelva: Universidad de Huelva.
- Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco. (1995). *Museoak Euskadi museos*. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco. (2014). *Euskadiko Museoak eta Bildumak. Estatistika Txostena*. In http://www.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/estadistica_museos/eu_mu_seos/adjuntos/museoak2014.pdf (2016ko azaroaren 9an ikusia)

- Exposición histórica y de Artes Retrospectivas (1899). *Euskal-Erria: Revista bascongada*, 41(2), 142-147.
- Falk, J. H., & Dierking, L. D. (1992). *The museum experience*. Washington: Whalesback Books.
- Falk, J. H., & Dierking, L. D. (2000). *Learning from Museums. Visitor experiences and the making of meaning*. Lanham: Altamira Press.
- Fernández, M. (1998). Gabinetes didácticos, servicios pedagógicos, servicios educativos... ¿para qué?: Hablemos de didáctica y difusión. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (15), 51-56.
- Fernández, M. (2003). Los museos: espacios de cultura, espacios de aprendizaje. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (36), 55-61.
- Fernández, H., & Asensio, M. (2010). ¿Un museo disfrazado de turismo o un turismo disfrazado de museo? *Amigos de los museos: boletín informativo*, (30), 7.
- Fernández Olaskoaga, L., Correa Gorospe, J. M., & Ochoa-Aizpurua Agirre, B. (2013). Eskola 2.0: un curso completado. Tiempo de evaluación. *Fuentes: Revista de La Facultad de Ciencias de la Educación*, (13), 239-262.
- Fernández de Bobabilla, A. (2007). Patrimonio y ciudadanía: La experiencia de Chillida-Leku. In Ávila Ruiz, R.M., López Atxurra, R., & Fernández de Larrea, E. (coords.), *Las competencias profesionales para la enseñanza-aprendizaje de las ciencias sociales ante el reto europeo y la globalización* (241-256 orr.). Bilbao: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Fernández Salinas, V. (2013). Los paisajes culturales: aspectos generales y una mirada desde España. In Álvarez Areces, M.A. (coord.), *Paisajes culturales, patrimonio industrial y desarrollo regional* (45-51 orr.). Gijón: CICEES.
- Fernández, G., Stengler, E., & Viladot, P. (2015). Actividades educativas en el museo científico: de ciencia divertida a ciencia seductora. *Revista de Museología*, (63), 11-25.
- Ferrando Rodríguez, N. (2006). Los departamentos de educación y acción cultural de los museos y centros de arte. In Naranjo Santana, M.C. (coord), *Museos y Educación ¿está el banquete servido?* (100-104 orr.). Vega de San Mateo: Ayuntamiento de San Mateo.
- Findlen, P. (2010). The Museum. It Classical Etymology and Renaissance Genealogy. In Messias Carbonell, B. (Ed.), *Museum Studies. An Anthology of Contexts* (23-50 orr.). Oxford: Blackwell Publishing.
- Fontal Merillas, O. (2003). *La educación patrimonial: Teoría y práctica para el aula, el museo e internet*. Gijón: Trea.

- Fontal Merillas, O. (2016). El Observatorio de Educación Patrimonial en España. *Cultura y Educación: Culture and Education*, 28(1), 261-266.
- Fontal Merillas, O., García Ceballos, S., & Ibáñez Etxeberria, A. (2015). *Educación y patrimonio: visiones caleidoscópicas*. Gijón: Trea.
- Fontal Merillas, O., & Marín Cepeda, S. (2011). Enfoques y modelos de educación patrimonial en programas significativos de OEPE. *Educación artística: revista de investigación (EARI)*, 2, 91-96.
- Fontal, O., & Juanola, R. (2015). La educación patrimonial: una disciplina útil y rentable en el ámbito de la gestión del patrimonio cultural. *Cadmo. International Journal of Educational Research*, XXIII, (1), 9-25.
- Fornells, M. (2003). *SanTelmo: crónica de un centenario*. Donostia: Michelena.
- Franco Avellaneda, M. (2013). Museos, artefactos y sociedad: ¿cómo se configura su dimensión educativa? *Universitas humanística*, (76), 97-124.
- Friera Suárez, F. (2003). Itinerarios didácticos: Teoría y experiencias en defensa del patrimonio. In Ballesteros, E., Fernández, C., Molina, J.A., & Moreno, P. (coords.), *El Patrimonio y la Didáctica de las Ciencias Sociales* (339-346 orr.). Cuenca: Universidad de Castilla-La Mancha - Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Gainza Barrencia, X., & Unceta Satrustegui, K. (2011). Los factores socio-territoriales y su incidencia en las estrategias locales de desarrollo: el caso de las agencias de desarrollo local en el País Vasco. *Revista de estudios regionales*, (92), 113-146.
- Galarraga Aiestaran, A. (2007). Algorri, iragana haitz bihurtua. *Elhuyar: zientzia eta teknika*, (231), 32-37.
- Garayo Urruela, J. M. (1996). Los espacios naturales protegidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco (1992-1994). *Agricultura y Sociedad*, (78), 61-112.
- García Blanco, A. (1980). *Función pedagógica de los museos*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- García Blanco, A. (1990). Educación y comunicación en el museo: La exposición. *Boletín del Museo Arqueológico Nacional*, 8(1), 17-28.
- García Blanco, A. (1996). El departamento de educación y la exposición. In Diputación Provincial de Jaén (Ed.), *IX Jornadas estatales Deac-museos, 3 al 6 marzo de 1994: La exposición* (55-82 orr.). Jaén: Diputación Provincial de Jaén.
- García Blanco, A., & Sanz Marquina, T. (1979). El departamento educativo en el museo. *Boletín de la ANABAD*, 29(4), 45-49.
- García Blanco, A., & Sanz Marquina, T. (1985). Museo y educación: la visita escolar. *Análisis e investigaciones culturales*, (22), 63-90.

- García Fernández, I. (2014). Veinte años. una mirada de la museología desde la universidad. *Revista de Museología*, (59), 75-79.
- García Fernández, J. (2007). La regulación y la gestión del patrimonio histórico-artístico durante la Segunda República (1931-1939). *E-Rph: Revista Electrónica de Patrimonio Histórico*, (1), 1-46. In <http://www.revistadepatrimonio.es/revistas/numero1/legislacion/estudios/articulo.php> (2016ko abenduaren 5an ikusia)
- García Garrido, J. L., & García Ruiz, M. J. (2005). *Temas candentes de la educación en el siglo XXI*. Madrid: Ediciones Académicas
- García Marcos, J. A. (2005). *Eduardo Chillida: El hombre y su obra: Una encrucijada en el espacio Chillida-Leku*. San Sebastián: Txertoa.
- García Retes, E. (1988). Museos comarcales y locales de alava. In Congreso de Estudios Vascos, *Archivos, bibliotecas y museos = Artxiboak, liburutegiak, museoak / X Congreso de Estudios Vascos (Iruñea, 1987)* (485-488 orr.). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- García Sáiz, M. C. (1997). La documentación en los museos: Una para todos y todos para una. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (2), 104-111.
- García Sánchez, J. (1983, abenduak 10). La casa de Victor Hugo en Pasajes. *La Voz*.
- García Sastre, A. A. (1986). El museo otra educación. *Cuadernos de pedagogía*, (134), 4-6.
- Garmendia Larrañaga, J. (2008). Gipuzkoako landa auzoetan udalek eta aldundiak garatu duten hezkuntza-jarduera. *Ikastaria: cuadernos de educación*, (16), 193-225.
- Gaya Nuño, J. A. (2000). *Historia y guía de los museos de España*. Madrid: Espasa-Calpe.
- Géal, P. (2002). La creación de los museos en España. *Anuario del Departamento de Historia y Teoría del Arte*, (14), 289-298.
- Gebhard, B. (1949). Man in a science museum of the future. *Museum*, 2(3), 162-170.
- Gil Molina, P. (2013). *Hezkuntzaren psikologia: Teoria eta praktika*. UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatea. In <http://testubiltegia.ehu.es/Hezkuntzaren-psikologia/hezkuntzaren-psikologia.pdf> (2014ko urriaren 2an ikusia)
- Gilbert González, L. M. (2011). *La gestión de museos: análisis de las políticas museísticas en la Península Ibérica* [Doktore tesia]. Universidad de Murcia, Murcia. In <http://www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/77896/TLMGG.pdf>
- Gillate Aierdi, I. (2014). *Programas de educación patrimonial en contextos informales: análisis y valoración de su influencia en el alumnado de ESO de la zona*

- minero-industrial de Bizkaia* [Doktore tesia]. UPV-EHU. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.
- Gillate Aierdi, I., Ibáñez Etxeberria, A., & Vicent, N. (2012). Educación y memoria viva: Los programas intergeneracionales. In Alba-Fernández, N., García-Perez, F., & Santiesteban, A. (coord.). *Educación para la participación ciudadana en la enseñanza de las ciencias sociales* (63-70 orr.). Sevilla: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2009). *Gipuzkoako Lurralde Historikoko Museoen Antolaketa Plana*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, Argitalpen Zerbitzua.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2014). *El Museo Zumalakarregi de Ormaiztegi celebra su 25 aniversario*. In <http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/es/1610/museo-zumalakarregi-orm aiztegi-celebra-su-25-aniversario>
- Goenaga, N., Vives, G., Ugarteburu, K., & Azpiazu, L. (2013). El caserío Museo Igartubeiti. *ICOM CE Digital*, 7, 46-73.
- Goenechea Permisán, C., & Benítez Muñoz, F. J. (2007). El aprendizaje a través de las visitas teatralizadas: Un estudio empírico. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (54), 95-104.
- Goenechea Permisán, C., Mateos Moreno, D., & Moreno Martín, M. d. C. (2010). Estudio sobre la utilidad de las visitas didácticas teatralizadas como herramienta para la transmisión del patrimonio histórico. In Mateos Moreno, D., & Moreno Martín, M. d. C. (coords.), *Didáctica de la cultura andaluza: Actas del I congreso nacional* (605-620 orr.). Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.
- Gómez Alonso, R. (2006). El turismo no es un gran invento: aperturismo y recepción del ocio y consumo a través del cine español de los 60. *Área Abierta*, (15), 1-10.
- Gómez Izaguirre, S. (1952). El Museo Municipal donostiarra va a cumplir medio siglo. 1902-1952. *Diario de San Sebastián*, 18, 35-41.
- Gómez Martínez, J. (2006). *Dos museologías: Las tradiciones anglosajona y mediterránea: Diferencias y contactos*. Gijón: Trea.
- Gómez Orfanel, G. (1976). Panorama de las diversas tendencias educativas del siglo XX. *Revista de educación*, (242), 5-22.
- Gómez Piñeiro, J., & Sáez García, J. A. (2013). *Geografía e historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia-San Sebastián: Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urdaneta" = Euskal Geografi Elkargoa.

- Gómez Vílchez, M. S. (2012). Museos españoles y redes sociales: evaluación de preferencia y participación. *Telos: Cuadernos de comunicación e innovación*, (90), 79-86.
- Gómez Vílchez, M. S. (2014). Debates culturales a través de Twitter. *PH: Boletín Del Instituto Andaluz Del Patrimonio Histórico*, 22(86), 9-11.
- González, A. (2007, azaroak 7). 10 años de LENBUR Fundazioa: del escepticismo a la realidad. *El Diario Vasco*.
- González, A. (2012). Museo Territorio Lenbur. In Díaz Balerdi, I. (coord.), *Otras maneras de musealizar el patrimonio* (245-257 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz: ARTIUM
- González-Anleo Grande de Castilla, J. (1996). El reconocimiento social de una profesión: la museología. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (1), 59-69.
- González de Durana Isusi, F.J. (2013). Fulgor y crisis de los museos en España: tres décadas de un desarrollo impredecible. *Anales De La Real Academia Canaria De Bellas Artes De San Miguel Arcángel: RACBA*, (6), 93-104.
- González González, M.J. (1998). La exonomía del franquismo. In Díaz Gijón, J., Fernández Navarrete, D., González González, M. J., Martínez Lillo, P. A., & Soto Carmona, A., *Historia de la España actual. 1936-1996. Autoritarismo y democracia* (159-191 orr.). Madrid: Marcial Pons.
- González Moreno, F. (2003). La exposición temporal como precedente del museo permanente. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (8), 177-185.
- González Pineda, J.A. (2002). *Manual de Psicología de la Educación*. Madrid: Pirámide.
- González Rodríguez, E. (1988). *Sociedad y educación en la España de Alfonso XIII*. Madrid: Fundación Universitaria Española.
- Goñi Santamaría, M., Rubio Odériz, M. L., & Tomasa i Garrosset, E. (2011). Nueva interactividad, al servicio de una nueva relación con el público. "Gaia", exposición permanente en KutxaEspacio de la Ciencia (Donostia-San Sebastián). *Revista de Museología*, (50), 97-105.
- Goode, W. & Hatt, P. (1976). *Métodos de investigación social*. México: Trillas.
- Gordon, B. M. (2002). El turismo de masas: Un concepto problemático en la historia del siglo XX. *Historia Contemporánea*, (25), 125-156.
- Gortzak, J. (1981). Los museos, los niños y el tercer mundo. *Museum*, 33(1), 51-56.
- Graburn, N. (1998). En busca de identidad. *Museum*, 199(3), 13-18.

- Granja Sainz, J.L. d.l., & Pablo, S. d. (2002). *Historia del País Vasco y Navarra en el siglo XX*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Guasch Canals, M. T. (1986). La escuela va al museo. *Cuadernos de pedagogía*, (134), 19-23.
- Guillén, D. (2008). Museo Chillida-Leku. *Revistart: Revista de las Artes*, (131), 4-5.
- Guisasola Aranzábal, J., & Intxausti, S. (2000). Museos de ciencia y educación científica: Una perspectiva histórica. *Alambique: Didáctica de las ciencias experimentales*, (26), 7-14.
- Guisasola Aranzábal, J., & Morentin Pascual, M. (2007). ¿Qué papel tienen las visitas escolares a los museos de ciencias en el aprendizaje de las ciencias?: una revisión de las investigaciones. *Enseñanza de las ciencias: revista de investigación y experiencias didácticas*, 25(3), 401-414.
- Gutiérrez Berciano, S., & Calaf Masachs, R. (2013). La evaluación pedagógica: una realidad en el museo. *Pulso: revista de educación*, (36), 37-53.
- Hein, G. E. (2006). Museum education. In Macdonald, S. (Ed.), *A Companion to Museum Studies* (340-352 orr.). Oxford: Blackwell.
- Hein, G. E. (2013). Progressive museum education: examples from the 1960s. *International Journal of Progressive Education*, 9(2), 61-76.
- Henri Rivière, G. (1949). The organization and functions of the musem. *Museum*, 2(4), 206-214.
- Henri Rivière, G. (1985). Definición evolutiva del ecomuseo. *Museum*, 37(148), 182-183.
- Hernández Díaz, J. M. (2011). La renovación pedagógica en España al final de la Transición: El encuentro de los Movimientos de Renovación Pedagógica y el Ministro Maravall (1983). *Educació i història: Revista d'història de l'educació*, (18), 81-105.
- Hernández Cardona, F. X (1998). Museología y didáctica. Consideraciones epistemológicas. *Iber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia* (15), 31-38.
- Hernández Cardona, F. X., & Rubio Campillo, X. (2009). Interactividad didáctica y museos. *Enseñanza de las Ciencias Sociales: revista de investigación* (8), 91-96.
- Hernández Cardona, F. X., & Santacana Mestre, J. (2006). *Museología Crítica*. Gijón: Trea.
- Hernández Cardona, F. X., & Santacana Mestre, J. (2009). La revolución didáctica de los museos: democratizar el acceso a la cultura. *Cuadernos de pedagogía*, (394), 45-51.

- Hernández Hernández, F. (1992). Evolución del concepto de museo. *Revista General de Información y Documentación*, 2(1), 85-98.
- Hernández Hernández, F. (1998). *El museo como espacio de comunicación*. Gijón:Trea.
- Hernández Hernández, F. (2004). *Los museos europeos: del Louvre a la isla de los museos*. *RdM. Revista de Museología: Publicación científica al servicio de la comunidad museológica*, (30-31), 70-80.
- Hernández Hernández, F. (2006). *Planteamientos teóricos de la museología*. Gijón:Trea.
- Hernandez Perelló, M. C. (2014). La Institución Libre de Enseñanza como iniciadora de la Educación Patrimonial en España. In Congreso Internacional de Educación Patrimonial, *I Congreso Internacional de Educación Patrimonial. Mirando a Europa: Estado de la cuestión y perspectivas de futuro*, (64-71 orr.). Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. Subdirección General de Documentación y Publicaciones.
- Herrera Escudero, M. L. (1980). *El museo en la educación: su origen, evolución e importancia en la cultura moderna*. Madrid: Junta Coordinadora de Actividades y Establecimiento Culturales, Ministerio de Cultura.
- Herrerias Moratinos, B. (2013). El patrimonio cultural: los paisajes industriales en el País Vasco. In Álvarez Areces, M.A. (coord.), *Paisajes culturales, patrimonio industrial y desarrollo regional* (367-373 orr.). Gijón: CICEES.
- Herrerias Moratinos, B., & Zaldúa Goena, J. (1997). *Patrimonio industrial en Legazpi*. Legazpi: Fundación Lenbur.
- Hidalgo Gil, J. (2012). La adaptación al cambio de los Departamentos de Educación y Acción Cultural en la evolución de los museos: Del *simply watching* al *learn by doing*. *Educación y futuro: revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, (27), 67-79.
- Hilario Orús, A. (2006). (2006). El Flysch de Zumaia (País Vasco). Centro de Interpretación Algorri. *Tierra y Tecnología: Revista de información geológica*, (30), 54-59.
- Hilario Orús, A., Arrese-Zabala, A., Mendiola Gómez, I., & Zulaika-Isasti, J. (2011). El flysch de zumaia: Gestión integral de un biotopo muy geológico. In Fernández Martínez, E., & Castaño de Luis, R. (Eds.), *Avances y retos en la conservación del Patrimonio Geológico en España: IX Reunión Nacional de la Comisión de Patrimonio Geológico (Sociedad Geológica de España)*, León, 14-18 de junio de 2011 (145-151 orr.). León: Universidad de León, Servicio de Publicaciones.
- Hooper-Greenhill, E. (1998). *Los museos y sus visitantes*. Gijón: Trea.

- Hooper-Greenhill, E. (1999a). Museum education. In Hooper-Greenhill, E. (Ed.), *The educational role of the museum* (229-257 orr.). London: Routledge.
- Hooper-Greenhill, E. (1999b). Who goes to museums?. In Hooper-Greenhill, E. (Ed.), *The educational role of the museum* (47-60 orr.). London: Routledge.
- Hooper-Greenhill, E. (2007). *Museums and Education. Purpose, Pedagogy, performance*. London: Routledge.
- Hubert, F. (1985). Los ecomuseos en Francia: Contradicciones y extravíos. *Museum*, 37(148), 186-190.
- Hudson, K. (1989). Un museo innecesario. *Museum*, 162(2), 114-116.
- Huerta, R. (2015). La mediación cultural en los museos. Interpretaciones y estudios. *Pulso: revista de educación*, (38), 229-233.
- Huerta, R., & Calle, R. d. I. (2008). *Mentes sensibles: Investigar en educación y museos*. Valencia: Universitat de València.
- Huizinga, J. (1972). *Homo Ludens*. Madrid: Alianza.
- Ibáñez Etxeberria, & A., Aranburu Lasa, J. J. (2005). Del yacimiento de Santa María La Real a Territorio Menosca: Origen, evolución y perspectivas del Museo de Arte e Historia de Zarautz. In Francia Gómez, C.d., & Erice Lacabe, R. (coords.), *De la excavación al público: procesos de decisión y creación de nuevos recursos* (287-292 orr.). Zaragoza: Institución Fernando el Católico Ayuntamiento de Zaragoza.
- Igartza: El descubrimiento de la ferrería. (2002). *Aranzadiana*, (123), 83-88.
- Inauguran el restaurado Palacio de Igartza tras cuatro años de obras (2011, martxoak 8). *El Diario Vasco*.
- Insa, Y. (2002). Itinerarios urbanos, recursos y materiales didácticos para explicar la ciudad. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (32), 89-95.
- Iraeta Usabiaga, A. (2000). Trenaren Euskal Museoa. *Euskonews&media*, (70), 19-26. In <http://www.euskonews.com/0079zbk/gaia7904eu.html> (2016ko otsailaren 18an ikusia)
- Irazabal Tamayo, N. (2012). Euskal Herriko hiru kobazulo ikusgarri: Pozalagua, Arrikruz eta Mendukilo. *Elhuyar: zientzia eta teknika*, (292), 48-53.
- Iribarren, M. (1987). El patrimonio histórico de la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Bilduma*, (1), 91-97.
- Isasa, E. (2015). Amaia Llorente: «Oso museo didaktikoa da Museum Cemento Rezola». *Ikasbil Aldizkari Digitala*. In http://www.ikasbil.eus/web/ikasbil/artikuloaren-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_q8LS&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p

[mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1735229](#)

- Iza, F. d. (1952). Lo que es y lo que puede ser nuestro Museo Naval Provincial. *San Sebastián: Revista anual ilustrada*, (18), 43-46.
- Izaguirre Lacoste, M. (1988). Museos de Guipuzcoa. In Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos. *Archivos, bibliotecas, museos* (325-328 orr.). Iruñea: Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos.
- Izarzugaza Lizarraga, I. (2001). Tres proyectos museológicos para tres industrias: La Encartada, La Algaba, y Agorregi. In Incuna. Asociación de Arqueología Industrial (Ed.), *Arqueología industrial, patrimonio y turismo cultural* (221-232 orr.). Gijón: CICEES.
- Jiménez, M. (2008). La arquitectura de "los otros" museos del País Vasco. *Ondare. Cuadernos de Artes Plásticas y Monumentales*, (26), 301-313.
- Jiménez, R., & Cuenca, J.M. (2015). El uso didáctico de los videojuegos. Concepciones e ideas de futuros docentes de ciencias sociales. *Clío: History and History Teaching*, (41). In <http://clio.rediris.es/n41/articulos/JimenezCuenca2015.pdf> (2017ko otsailaren 3an ikusia)
- Jiménez-Clavería Iglesias, L. (2007). Museos: de templos del arte a empresas de gestión cultural. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (12), 67-87.
- Jiménez de Aberasturi Apraiz, E., Ibáñez Etxeberria, A., Correa Gorospe, J. M., & Noarbe De la Casa, R. (2005). Aprendizaje del patrimonio: una experiencia de integración del m-learning en el Museo de Arte e Historia de Zarautz. *Comunicación y pedagogía: Nuevas tecnologías y recursos didácticos*, (203), 36-39.
- Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural (1988). *Educación y acción cultural en una nueva estructura del museo: VI Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, Valladolid, marzo 1988*. Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección de los Museos Estatales
- Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos (1990), *VII Jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de Museos [Albacete, 1990]*. Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, Dirección de los Museos Estatales.
- Jornadas de Difusión de Museos (1983). *III museoen zabalkunde jardunaldiak = III jornadas de difusión de museos = III jornadas de difusión de museos = III*

- xornadas de difusión dos museo (Bilbao)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza = Gobierno Vasco.
- Jornadas de Difusión Museística (1980). *I Jornadas de Difusión*. Barcelona: Ajuntament, Serveis de Cultura Barcelona.
- Jornadas Estatales de Departamentos de Educación y Acción Cultural (2003). *XII Jornadas DEAC: Salamanca 2003: Actas*. Salamanca: Junta de Castilla y León. Museo de Salamanca.
- Juanola, R., & Fàbregas, A. (2012). Los efectos de la sociedad en los museos: del boom a la crisis de ideas. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(3), 52-59.
- Juanola i Terradellas, R. (2011). Una cartografía de los museos y la educación: territorios para ubicar los modelos educativos. In Ácaso López, M., & Alcaide Suárez, C. (coords.), *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (42-51 orr.). Madrid: Ariel - Fundación Telefónica.
- Kaplún, M. (1998). *Una pedagogía de la comunicación*. Madrid: Ediciones de la Torre.
- Kelly, L. (2009). *The impact of Social Media on Museum Practice*. Paper presented at the National Palace Museum, Taipei, 20 October. In <https://australianmuseum.net.au/uploads/documents/9307/impact%20of%20social%20media%20on%20museum%20practice.pdf> (2017ko otsailaren 18an ikusia)
- Kerejeta, F. J. (1993). El visitante individual en el Museo Zumalacárregui de Ormaiztegui, Guipuzcoa. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *VIII jornadas estatales DEAC-museos: Museo Nacional de Arte Romano, Mérida 7, 8, 9 y 10 de noviembre 1991* (119-120 orr.) Madrid: Dirección General de Bellas Artes y Archivos
- Kortadi Olano, E., & Ormazabal Altuna, J. Á. (1987). Censo de museos del País Vasco. *Mediatika: cuadernos de medios de comunicación*, (3), 11-127.
- Kerejeta, X. (2006). TICs al servicio de la comunicación cultural: El caso del Museo Zumalakarregi. In A. Alzua-Sorzabal (Ed.), *Tecnologías de la información y comunicación (TICs), arte y patrimonio cultural: Aplicaciones, desarrollo local y aprendizaje informal: Primer seminario internacional celebrado en Donostia-San Sebastián el 5 de mayo de 2003* (237-244 orr.). Bilbao: Universidad de Deusto; Deustuko Unibertsitatea, Servicio de Publicaciones.
- Kukulska-Hulme, A. (2007). Mobile Usability in Educational Contexts: What have we learnt?. *The International Review of Research in Open and Distributed Learning*, (8), 2. In <http://www.irrodl.org/index.php/irrodl/rt/printerFriendly/356/879> (2017ko urtarrilaren 27an ikusia)

- Labandeira, S. (2008). Breve recorrido por la evolución del concepto museo. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (13), 320-325.
- Laburu, M. (1986). *75 años de historia de la Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa (1908-1983)*. Donostia-San Sebastián: SOG.
- Larrañaga, R. (1984). *Museo de Armas*. San Sebastián: Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Guipuzcoa.
- Lavado Paradinas, P. J. (1992). Exposiciones didácticas, maletas y talleres: el museo en casa. In Consello Galego de Museos (Ed.), *Coloquios galegos de museos* (111-137 orr.). Vigo: Consello Galego de Museos.
- Lavado Paradinas, P.J. (2008). Educar en el museo: inicios, evolución y desarrollo de los departamentos de educación en los museos españoles. *Amigos de los museos: boletín informativo*, (27), 15.
- Leizaola Egaña, A., & Leizaola Calvo, F. d. (2008). Un ejemplo de no-museo: El proyecto zaharkiñak. In Roigé, X., Fernández de Paz, E., & Arrieta Urtizberea, I. (coords.). *El futuro de los museos etnológicos: consideraciones introductorias para un debate* (195-214 orr.). San Sebastián: Ankulegi Antropologia Elkarteak.
- León, A. (1996). *El museo: teoría, praxis y utopía*. Madrid: Cátedra.
- León Guereño, M. S. (2015). *Pasaialdea irudikatzen, estudio de caso: Museo, narración transmedia y pedagogía pública en la cultura de la participación* [Doktore tesia]. UPV-EHU. Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia-San Sebastián. In <http://hdl.handle.net/10810/17874>
- Lindoso-Tato, E., & Vilar Rodríguez, M. (2015). La literatura de viajes y el transporte en galicia desde el último tercio del siglo XVIII hasta mediados del XIX. *Cuadernos de estudios gallegos*, 62(128), 207-247.
- Llorens Serra, T., & Bozal Fernández, V. (1996). Los museos en España. *Revista De Occidente*, (177), 85-101.
- Llorente, A. (2015ko maiatza). Añorgatarrak: ahozko oroimena iraganaren oroipen tresna gisa. In *Ondare inmateriala. Hausnarketak, esperientziak eta praktikak*. Ondare Biziak II Jardunaldiak, Ondare Bizia, Donostia.
- Llorente, A. (2009). Los programas intergeneracionales en los museos. In Mosquera Cobián, M. (coord.), *Museos para la participación: Actas* (326-332 orr.). La Coruña: Museo de Belas Artes da Coruña.
- Llorente, A., Gillate, I., & Ibáñez Etxeberria, A. (2016). El Museum Cemento Rezola. Transformando lo industrial en patrimonial en el proceso de enseñanza-aprendizaje. In Calaf Masachs, R., Suárez Suárez, M.A. (coords.), *Acción*

- educativa en museos. Su calidad desde la evaluación cualitativa* (93-106 orr.). Gijón: Trea.
- López, E., & Alcaide, E. (2001). A solas con una educadora de museos: Una conversación sobre su trabajo, situación y visión de la educación artística contemporánea. *Revista Digital do LAV*, 4(6), 1-12.
- López, E., & Alcaide Suárez, E. (2011). Una historia sobre los departamentos de educación y las educadoras en los museos españoles: Mirando atrás para poder seguir adelante. In Acaso, M., Alcaide, E., & Antúnez, N. (Eds.), *Perspectivas: Situación actual de la educación en los museos de artes visuales* (13-30 orr.). Madrid: Fundación Telefónica Ariel.
- López Benito, V. (2010). Museo ilustrado, *periods rooms* y talleres didácticos: Tres momentos clave en los museos de arte. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 2(3), 93-98.
- López Benito, V. (2014). *Estudio exploratorio sobre la interpretación didáctica del arte en el museo a través de tecnologías móviles* [Doktore Tesia]. Universitat de Barcelona, Barcelona. In <http://www.tdx.cat/handle/10803/134505>
- López Benito, V., Martínez Gil, T. & Santacana, J. (2014). Aplicaciones: ¿también instrumentos educativos para descodificar el mundo de los museos y la cultura?. In Santacana, J., & y López Benito, V. (coords), *Educación, tecnología digital y patrimonio cultural. Para una educación inclusiva* (71-84 orr.). Gijón: Trea.
- López Borraxeiros, X. (2004). El museo y los medios de masas: la mediación de la memoria. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (9), 157-163.
- López Rodríguez, J. R. (2010). *Historia de los museos de Andalucía, 1500-2000*. Sevilla: Universidad de Sevilla.
- López Torrijo, M. (2009). La inclusión educativa de alumnos con discapacidades graves y permanentes en la Unión Europea. *Relieve: Revista ELección de Investigación y EValuación Educativa*, 15(1). In http://www.uv.es/RELIEVE/v15n1/RELIEVEv15n1_5.htm
- López Tubía, E. M. (2010). La protección de los espacios naturales en el País Vasco y el desarrollo del agroturismo. Los casos de Txingudi y la Reserva de biosfera de Urdaibai. In López Olivares, C. (Ed.), *Turismo y gestión de espacios protegidos: XII congreso internacional de turismo, universidad y empresa* (541-560 orr.). Valencia: Tirant lo Blanch.
- Lorente, J. P. (2006). Nuevas tendencias en la teoría museológica: a vueltas con la museología crítica. *Museos.es*, (2), 24-33.

- Lorente, J. P. (2010). Los estudios de Museología en las universidades españolas. *RdM. Revista de Museología: Publicación científica al servicio de la comunidad museológica*, (47), 72-80.
- Lorente, J. P. (2012). *Manual de historia de la museología*. Gijón: Trea.
- Lorente, J. P. (2013). Las revistas museológicas en la actualidad: una panorámica global. *Midas: Museus e Estudos Interdisciplinares*, (1), 1-10.
- LUBERRI, Oiartzungo Ikasgune Geologikoa (2003). *Aranzadiana*, (124), 212-215
- Luberri, un museo didactico sobre geología vasca (2002). *Aranzadiana*, (123), 170-172.
- Luque Cortina, M. (2001). Prohibido no tocar. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (29), 37-44.
- Mairesse, F. (2013). Museos y ética. un enfoque histórico y museológico. *Museos.es*, (9), 25-39.
- Maldonado Esteras, M. S. (2015). Educación patrimonial y redes sociales. Análisis y evaluación de acciones en los medios de comunicación social para la definición de una cartografía educativa [Doktore tesia]. Universidad de Valladolid, Valladolid. In <http://uvadoc.uva.es/handle/10324/16879>
- Manso de Zúñiga, G. (1976). *Museo San Telmo*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.
- Marco Such, M.C. (1998). *Estudio y analisis de los museos y colecciones museograficas de la provincia de Alicante* [Doktore tesia]. Universitat d'Alacant, Alicante. In <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/9884/1/Marco%20Such,%20Mar%C3%ADa.pdf>
- Marín, M. (1998, abenduak 31). El Aguarium de San Sebastián ofrecerá talleres para 8.000 escolares. *El País*.
- Marín, M. (2000, irailak 27). Rezola inaugura el 4 de octubre en San Sebastián un museo que repasa la historia del cemento. *El País*.
- Marin, I. (2013, urtarrilak 6). *Evolución y mariposas en Irun*. El Diario Vasco.
- Marín Torres, M.T. (2000). Los museos de museos: Utopías para el control de la memoria artística. *Imafronte*, (15), 123-144.
- Marks, R. B. (2015). *Mundu modernoaren sorrera: kontakizun global eta ekologiko bat, XV. mendetik XXI. mendera arte*. Bilbao: Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial.
- Martín, E. (2007). Sistema Amara Berri: competencias para el desarrollo de un proyecto global. In Ávila Ruiz, R.M., López Atxurra, J.R., & Fernández de Larrea, E. (coords.), *Las competencias profesionales para la enseñanza-*

- aprendizaje de las ciencias sociales ante el reto europeo y la globalización* (55-70 orr.). Bilbao: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Martín Cáceres, M. (2012). *La educación y la comunicación patrimonial: Una mirada desde el Museo de Huelva* [Doktore tesia]. Universidad de Huelva, Huelva. In <http://rabida.uhu.es/dspace/handle/10272/6048>
- Martín Cáceres, M., Cuenca López, J. M., & Estepa Giménez, J. (2008). La educación patrimonial en los museos: análisis de concepciones. In Ávila Ruiz, R. M., Cruz Rodríguez, M. A., & Díez Bedmar, M. d. C. (coords.), *Didáctica de las Ciencias Sociales, currículo escolar y formación del profesorado: La didáctica de las Ciencias Sociales en los nuevos planes de estudio* (667-682 orr.). Jaén: Universidad de Jaén, Servicio de Publicaciones.
- Martín Cáceres, M., López Cruz, I., Morón Monge, H., & Ferreras-Listán, M. (2014). La educación patrimonial en los museos. análisis de materiales didácticos. *Clío: History and History Teaching.*, (40). In <http://clio.rediris.es/n40/articulos/martincaceres.pdf>
- Martín Martín, F. (1994). Reflexiones en torno al museo en la actualidad. *Laboratorio de Arte: Revista del Departamento de Historia del Arte*, (7), 263-282.
- Martínez Lemos, M., & Rodríguez López, J. (2015). Arte y salud social. Programas de participación sociocultural para personas con diversidad funcional. *Revista española de discapacidad (REDIS)*, 3(2), 125-131
- Martínez Lombó, E. (2009). Arte ¿para todos?: La creación de los museos provinciales en el siglo XIX: ideología, intereses y logros. In Peña, M. d.I., Pérez, M., Albero, M.M., Marín, M.T., & González, J.M. (coords.), *Congreso Internacional Imagen y Apariencia. Murcia, 2008*. Murcia: Universidad de Murcia, Servicio de Publicaciones.
- Martínez Medrano, E. (1999). El boletín de la institución libre de enseñanza. BILE. *Contextos educativos: revista de educación*, (2), 71-78.
- Martínez Valdajos, A. (2014). Museos y museología: las ideas de Georges Henri Rivière. *ArtyHum: Revista Digital de Artes y Humanidades*, (1), 86-94.
- Mayer, R. E. (2002). *Psicología de la educación: el aprendizaje en las áreas de conocimiento*. Madrid: Prentice-Hall.
- Mayrand, P. (1985). La proclamación de la nueva museología. *Museum*, 37(148), 200-201.
- Mayrand, P. (2012). La museología, boca abajo: Miradas a la museología actual (Panfleto de un altermuseólogo). In Díaz Balerdi, I. (coord.), *Otras maneras de*

- musealizar el patrimonio* (9-13 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco. Vitoria-Gasteiz: ARTIUM.
- Medizabal Idiazabal, M. (2004). Arditurriko mina eremuaren antolaketa proposamena: ingurumen zentro baten sorkuntza proiektua. *Azkoaga: cuadernos de ciencias sociales y económicas*, (12), 207-245.
- Melgar, M. F., & Donolo, D. S. (2011). Salir del aula...aprender de otros contextos: patrimonio natural, museos e internet. *Revista Eureka sobre enseñanza y divulgación de las ciencias*, 8(3), 323-333.
- Méndez Rodríguez, L. R. (2006). La gran exposición de Londres 1851: un nuevo público para el mundo. *Artigrama: Revista del Departamento de Historia del Arte de la Universidad de Zaragoza*, (21), 23-42.
- Ministerio de Educación, Cultura y Deporte (2015). *Proyectos educativos y culturales en museos. Guía básica de planificación. Laboratorio Permanente de Públicos de Museos*. Madrid: Secretaría General Técnica. Centro de Publicaciones. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- Molina Puche, S. (2011). Las salidas escolares para la enseñanza de la historia en la educación primaria. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (67), 79-86.
- Montanyà, O. (2007). Caserío Zabalaga (Euskadi). El sueño de Chillida. *Cambio 16*, (1859), 69-69.
- Montero, M. (2008). *Historia general del País Vasco*. Donostia-San Sebastián: Txertoa.
- Montero, Y. (2002, uztailak 25). Una función de teatro popular recreará la breve estancia de Victor Hugo en Pasaia. *El País*.
- Montero, Y. (2006, urriak 1). Los secretos de la manzana. *El País*.
- Moreno, A. (2016, azaroak 21). *Frente a una tendencia de 'macdonalización' nosotros proponemos 'proyectos'*. In <http://www.arteinformado.com/magazine/n/ana-moreno-frente-a-una-tendencia-de-macdonalizacion-nosotros-proponemos-proyectos-5300>
- Moreno Burriel, E. (2005). La educación en la primera década franquista (1939-1951). In Sabio Alcutén, A., & Forcadell Álvarez, C. (coords.), *Las escalas del pasado: IV congreso de historia local de Aragón (Barbastro, 3-5 de julio de 2003)* (411-442 orr.). Huesca: Instituto de Estudios Altoaragoneses Barbastro: UNED
- Moreno Martínez, P.L. (1992). La Ley General de Educación y la educación de adultos. *Revista de educación*, (1), 109-130.
- Morentín Pascual, M. (2010). *Los museos interactivos de ciencias como recurso didáctico en la formación inicial del profesorado de Educación Primaria*

- [Doktore tesia]. UPV-EHU. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao. In <https://addi.ehu.es/handle/10810/6874?mode=full>
- Morley, G. (1948). Museums and Unesco. *Museum*, 2(2), 11-35.
- Mottola Molino, A. (2013). Museos en la encrucijada. Entre negocio, espectáculo, marketing, exposiciones y educación. *Museos.es*, (9), 54-69.
- Mujika Goñi, A. (1995). Los museos etnográficos en el País Vasco: una visión general y un proyecto particular: el Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico Vasco. *Anales del Museo Nacional de Antropología*, (2), 283-302.
- Murua Cartón, H., & Camino Ortiz, d. B. (2012). Las escuelas normales de Gipuzkoa durante el franquismo. *Historia Social y de la Educación*, 1(3), 248-275.
- Museo de Armas (1964). *Museo de Armas. Escuela de Armería de Eibar*. Eibar: Escuela de Armería de Eibar.
- Museo de Zaragoza (1981). *Actas de las II Jornadas de los Departamentos de Educación en los museos*. Zaragoza: Museo de Zaragoza.
- Museo Zumalakarregi de Ormaiztegui. (2002). *Album, Letras, Artes*, (71), 76.
- Nace la Fundación Soinuenea (2011). *HM Berriak. Herri Musikaren Txokoko buletina*, (40), 1.
- Nautilus. Nuevo Centro de Interpretación Geológica sobre el Flysch de la costa vasca (2007). *Aranzadiana*, (128), 260-261.
- Navajas corral, O. (2015). *Nueva Museología y Museología Social. Análisis de su evolución y situación actual en España y propuestas de futuro* [Doktore tesia]. Universidad de Alcalá, Alcalá de Henares.
- Newbery, C. (1996). La formación del personal de museos en el Reino Unido. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (1), 71-84
- Nieto Gallo, G. (1973). *Panorama de los museos españoles y cuestiones metodológicas*. Madrid: Asociación Nacional de Bibliotecarios, Archiveros y Arqueólogos.
- Noain Maura, M. J. (2012). Dies oiassonis: Una propuesta de recreación histórica desde el Museo Romano Oiasso de Irun. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 60-69.
- Obregón Fernández, A. (2012). Estudio de los recursos educativos para público familiar en los museos de arte europeos y norteamericanos. *Arte, Individuo y Sociedad*, 24(1), 9-20.
- Olaizola Elordi, J. J. (2002). La recuperación del patrimonio ferroviario en Euskadi. In Congreso Vasco de Patrimonio Industriak, *Gestión del patrimonio industrial en la Europa del siglo XXI: Octubre 2001* (129-132 orr.). Bilbao: Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.

- Olaizola, J. (2004). Museo Vasco del Ferrocarril. *Kobie (Serie Anejos)*, 2(6), 751-756.
- Olano, M. (2008, uztailak 30). El centro de interpretación del agua abre sus puertas. *El Diario Vasco*.
- Olivié Morgado, G. (1998). Photomuseum (Zarautz): recorrido didáctico por la historia de la fotografía. *FV: Foto-Vídeo Actualidad*, (113), 73-76.
- Onandia, M. (2017). *Museo de Bellas Artes de Bilbao: Los orígenes de una colección. Las colecciones del Museo de Bellas Artes y del Museo de Arte Moderno de Bilbao 1908-1936* [Doktore tesia]. UPV-EHU. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao.
- Orígenes de Centro de Atracción y Turismo (2006). *El Diario Vasco*.
- Orús, A. H. (2006). El flysch de Zumaia (País Vasco). Centro de Interpretación Algorri. *Tierra y tecnología: revista de información geológica*, (30), 54-59.
- Padró i Puig, C. (1996). La metodología de la educación en el museo: un cambio de mirada. *Curriculum: Revista de teoría, investigación y práctica educativa*, (12), 113-128.
- Padró i Puig, C. (2003). Cambiar la mirada sobre la educación en el museo a partir de una investigación cualitativa. In Mañero Gutierrez, A., & Arañó Gisbert, J.C. (coords.), *Actas congreso INARS: la investigación en las artes plásticas y visuales* (305-314 orr.). Sevilla: Universidad de Sevilla, Servicio de Publicaciones.
- Padró i Puig, C. (2006). Repensar los museos, la educación y la historia del arte. In Marín Torres, M.T., & Belda Navarro, C. (coords.), *La Museología y la Historia del Arte* (51-74 orr.). Murcia: Universidad de Murcia, Servicio de Publicaciones.
- Padró i Puig, C. (2009). Visitantes. Museos. Visitas. Práctica cultural. In Mosquera Cobián, M. (coord.), *Museos para la participación: Actas* (153-176 orr.). La Coruña: Museo de Belas Artes da Coruña.
- Parcerisa Aran, A. (2010). Materiales didácticos de los museos: un recurso para el aprendizaje. In A.A.A.A., *Recursos y estrategias para estudiar ciencias sociales* (13-19 orr.). Barcelona: Graó.
- Pardo, J. (2003). Museos. Ponencia sobre museos para el Consejo Vasco de Cultura. In http://nuevamuseologia.net/wp-content/uploads/2016/01/museos_c.pdf (2014ko urriaren 22an ikusia)
- Pardo, J. L. (2013). Ética, cultura e instituciones. *Museos.es*, (9), 16-24.
- Parra Monserrat, D., Talens Molla, J. M., & Rangel López, N. (2014). El uso didáctico de itinerarios teatralizados para socializar el patrimonio rural: El proyecto "Rutas por el moixent medieval". *Tejuelo: Didáctica de la Lengua y la Literatura. Educación*, (9), 257-267.

- Pastor Homs, I. (2004). *Pedagogía museística: Nuevas perspectivas y tendencias actuales*. Barcelona: Ariel.
- Pastor Homs, M. I. (2003). La oferta educativa museística destinada a las personas mayores. Tendencias actuales. *Revista española de pedagogía*, 61(226), 527-546.
- Peña Puente, S. (2006). *La importancia histórico-artística de la copia y la reproducción escultórica. Coleccionismo, exhibición y educación artística. Museo de Reproducciones Artísticas de Bilbao* [Doktore tesia]. UPV-EHU. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Pérez Santos, E. (2000). *Estudio de visitantes en museos. Metodología y aplicaciones*. Gijón: Trea.
- Pericacho Gómez, F.J. (2014). Pasado y presente de la renovación pedagógica en España (de finales del siglo XIX a nuestros días). Un recorrido a través de escuelas emblemáticas. *Revista complutense de educación*, 25(1), 47-67.
- Pierre Ballofet, F. H., & Courvoisier, J. L. (2014). From museum to amusement park: the opportunities and risks of edutainment. *International Journal of Arts Management*, 16(2), 4-67.
- Pinar, M. (2011). *Museistikaren historia eta garapena*. Auñamendi Eusko Entziklopedia. In <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee153961> (2016ko azaroaren 27an ikusia)
- Plazaola, J. (2001). Chillida leku. *Ars sacra: Revista de patrimonio cultural, archivos, artes plásticas, arquitectura, museos y música*, (18), 37-45.
- Poldi Allai, P. (1991). *Pedagogie del museo*. Genova: Sagep.
- Pollán Rufos, M. (2001). GOLEMAN, Daniel: Adimen emozionala, autokontrollean aurreratzan. *Hik Hasi*, 58, 40-42.
- Polo Herrador, M., & González, M. (1994). Los Departamentos de Educación y Acción Cultural en los museos. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (2), 7-28.
- Porcel Ziarsolo, A., & Artetxe Sánchez, E. (2015). Cristobal Balenciaga museoko bildumako ikerketa. XX. mendeko jantzi bildumetako materialen identifikazioa eta kontserbazioa. *Ekaia: Euskal Herriko Unibertsitateko zientzi eta teknologi aldizkaria*, (28), 125-138.
- Prior, N. (2006). Postmodern Restructurings. In Macdonald, S. (Ed.), *A Companion to Museum Studies* (509-524 orr.). Oxford: Blackwell
- Puelles Benítez, M. de (1991). Historia de la educación en España. In Ministerio de Educación y Ciencia (Ed.), *Historia de la educación en España. Tomo III (de la*

- Restauración a la II República*) (11-44 orr.). Madrid: Secretaría General Técnica. Centro de Publicaciones. Ministerio de Educación y Ciencia.
- Recalde Rodríguez, M. I. (2001). Una historia controvertida: La gestión de la enseñanza primaria en Euskadi durante la Guerra Civil. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, (20), 333-367.
- Recalde Rodríguez, I. (2002). Las Misiones Pedagógicas en el País Vasco. *Boletín de la Institución Libre de Enseñanza*, (47), 107-122
- Recalde Rodríguez, I. (2009). *Una sociedad escolar en guerra: la educación durante la Guerra Civil en el País Vasco*. Salamanca: Amarú.
- Reeve, J. & Woollard, V. (2015). Learning, education, and public programs in museums and galleries. In McCarthy, C. (Ed.), *Museum Practice* (551-575 orr.). Oxford: Wiley Blackwell
- Rekondo, J. (2007). Arrikutz, un vistazo a las entrañas de Gipuzkoa. *Sustrai: revista agropesquera*, (81), 24-25.
- Rekondo, J. (2009). La apertura de Arditurri en Oiartzun permite recorrer 2.000 años de historia minera. *Sustrai: revista agropesquera*, (87), 26-27.
- Rekondo, J. (2010). El Parque Natural de Aizkorri-Aratz estrena un nuevo Centro de Interpretación. *Sustrai: revista agropesquera*, (94), 52-53.
- Rementeria Argote, N. (2005). Arditurri, mendeetan aberastasun-iturri. *Elhuyar: zientzia eta teknika*, (215), 20-22.
- Requejo Osorio, A. (1998). Sociedad del aprendizaje y tercera edad. *Teoría de la educación*, (10), 145-167.
- Requena, J.M. (2007). El tesoro de la madera en Zegama. *El Diario Vasco*.
- Revuelta Domínguez, F. I., Valverde Berrocoso, J., & Esnaola Horacek, G. A. (2013). Edutainment en modelos 1 a 1: Una propuesta con videojuegos en redes sociales. *Revista de la Facultad de Ciencias de la Educación*, (13), 139-154.
- Rico Cano, L. (2009). *La difusión del patrimonio en los materiales curriculares: El caso de los gabinetes pedagógicos de Bellas Artes* [Dokore tesia]. Universidad de Málaga, Málaga. In <http://www.biblioteca.uma.es/bbl/doc/tesisuma/17678018.pdf>
- Rico, J. C. (1994). *Museos, arquitectura, arte: los espacios expositivos*. Madrid: Silex.
- Rico, J. C. (2003). *La difícil supervivencia de los museos*. Gijón: Trea.
- Rico Romero, L. (2005). Sobre culturas educativas en los museos como centros difusores del patrimonio: ¿educación o servicio?. *Investigación en la escuela*, (56), 67-76.
- Río, N. del (2013). Recursos educativos en museos online de arte contemporáneo: tipología e implantación. *Arte, individuo y sociedad*, 25(2), 233-246.

- Roa Zubia, G. (2004). Albaola, ontzi tradizionalei begira. *Elhuyar: zientzia eta teknika*, (200), 32-35.
- Rodà, C. (Ed.) (1988). *La Investigació de l'educador de museus*. Barcelona: Ajuntament de Barcelona.
- Roigé, X. (2007). Ecomuseos, museos de civilización y museos de sociedad. In Arrieta Urtizberea, I. (coord.), *Patrimonios culturales y museos: más allá de la historia y del arte* (19-44 orr.). Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio de Publicaciones = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.
- Roigé, X., & Arrieta Urtizberea, I. (2014). ¿Una sociedad congelada?: La representación de la sociedad rural en los museos. *Arxiu de sociologia*, (30), 73-86.
- Rojas Claros, F. (2006). Poder, disidencia editorial y cambio cultural durante los años sesenta. *Pasado y Memoria: revista de historia contemporánea*, (5), 59-80.
- Romero de Tejada Picatoste, P. (1995). Exposiciones y museos etnográficos en la España del siglo XIX. *Anales del Museo Nacional de Antropología*, (2), 11-48.
- Romita, T. (2011). Del turismo al turismo de nicho. Algunas consideraciones sobre las perspectivas del turismo en la sociedad postmoderna. *Gran Tour*, (3), 101-111.
- Rubiales García, R. (2015). Reflexiones desde la educación contemporánea. El visitante en el centro de la acción museística. *ICOM Education*, (26), 21-46.
- Rubio Ardanaz, J. A. (2009). El concepto de patrimonio marítimo y de cultura: gestión museística e iconos públicos en el país vasco. *Itsas memoria: revista de estudios marítimos del País Vasco*, (6), 57-82.
- Ruiz, A. (2007). El impulso a los movimientos de renovación pedagógica. *Participación educativa*, (1), 45-50.
- Ruiz Goñi, L. (2009). Inaugurado el nuevo Parketxe de Lizarrusti en Aralar. *Sustrai: revista agropesquera*, (89), 10-11.
- Ruiz Román, C. (2010). La Educación en la sociedad postmoderna: Desafíos y oportunidades. *Revista complutense de educación*, 21(1), 173-188.
- Russo, A.; Watkins, J., Kelly, L., & Sebastian, C. (2006). How will social media affect museum communication?. *Proceedings Nordic Digital Excellence in Museums (NODEM)*. In http://eprints.qut.edu.au/6067/1/6067_1.pdf (2017ko otsaiaren 25an ikusia)
- Sada Anguera, J. M. (2008). La Sociedad de Oceanografía de Gipuzkoa. *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 53(2), 621-646.
- Sada, J. (2009). *125 agostos En la Historia de San Sebastián*. Andoain: Txertoa.
- Sáenz Aliaga, A. M. (1991). La educación en el museo. *Boletín de arte*, (12), 79-100.

- Sáenz Aliaga, A. M. (1993). La verdadera razón de ser del museo: el público. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *VIII jornadas estatales DEAC-museos: Museo Nacional de Arte Romano, Mérida 7, 8, 9 y 10 de noviembre 1991* (79-86 orr.) Madrid: Dirección General de Bellas Artes y Archivos.
- Sagarzazu, X. (2013, urriak 9). El Museo de las Mariposas vuelve a Irún. *Diario Noticias de Gipuzkoa*.
- Sagüés Baxeiras, R. (1985). Los departamentos de "difusión cultural" de los museos. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *Actas de las IV jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de museos* [Madrid: 1985] (5-10 orr.). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, Dirección de los Museos Estatales.
- Sagüés Baxeiras, R. (1996). Los DEAC: la vivencia de un proceso. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *Memoria, realidad, expectativas. Actas XI jornadas estatales DEAC - MUSEOS Bilbao, 30/09/96 03/10/96* (9-21 orr.). Bilbao: Museo de Bellas Artes de Bilbao.
- Sagües Subijana, M. (2005). *Urgull: historia de San Sebastián*. Donostia: Hariadna.
- Sampsons, D. G. & Zervas, P. (2013). Context-Aware Adaptive and Personalized Mobile Learning Systems. In Sampson, D.G., Isaiais, P., Ifenthaler, D., & Spector, M. (Eds.), *Ubiquitous and Mobile Learning in the Digital Age* (3-17 orr.). New York: Springer.
- San Martín, N. (2002). Museo Chillida-Leku, el aroma de Chillida. *Revista de Museología*, (23), 78-80.
- San Telmo Museoa. Gaurko eta lehengo euskal gizartea ezagutzeko museoa (2011). *Hik Hasi*, (163), 40-41.
- Sánchez de Serdio, A., & López, E. (2011). Políticas educativas en los museos de arte españoles. Los Departamentos de Educación y Acción Cultural. *Desacuerdos. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado Español*, (6), 205-225.
- Sánchez Erauskin, J. (1998). El nacionalcatolicismo como instrumento cultural y legitimador del franquismo en el País Vasco (1936-1945). *Vasconia: Cuadernos de Historia - Geografía*, (27), 235-244.
- Sánchez Laws, A. L. (2015). *Museum Websites & Social Media. Issues of Participation, Sustainability, Trust and Diversity*. New York: Berghahn Books.
- Sánchez Vigil, J. M. (2012). La biblioteca del Photomuseum de Zarautz. In Ministerio de Educación Cultura y Deporte (Ed.), *Primeras Jornadas sobre Bibliotecas de Museos. Nuevos medios y nuevos públicos* (203-214 orr.). Madrid: Secretaría General Técnica. Centro de Publicaciones. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.

- Santacana Mestre, J. (1998). Museos, ¿al servicio de quién?. *Iber: Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, (15), 39-50.
- Santacana Mestre, J.; Serrat Antolí, N. (2005). *Museografía didáctica*. Barcelona: Ariel.
- Santacana, J., & Martín, C. (2010). *Manual de museografía interactiva*. Gijón: Trea.
- Santana Ezquerro, A., & Torrecilla Gorbea, M. J. (1995). Caserío Igartubeiti (Ezkio-Itsaso). *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (1995), 460-468.
- Santiago Restoy, C. I. d. (1999). *Los museos de arte moderno y contemporáneo: Historia, programas y desarrollos actuales* [Doktorre tesia]. Universidad de Murcia, Murcia. In <https://digitum.um.es/jspui/bitstream/10201/201/1/SantiagoRestoy.pdf>
- Sanz de Acedo, M.L. (2000). Gardner, Howard. Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (I). *Hik Hasi*, (51), 37-42.
- Sarasola Etxegoien, N. (2010). El poblamiento medieval de Gipuzkoa. Revisión crítica del registro arqueológico. *Munibe*, (61), 339-393.
- Serrat Antolí, N. (2000). Museos virtuales: nuevos entornos de aprendizaje. *Comunicación y pedagogía: Nuevas tecnologías y recursos didácticos*, (170), 29-40.
- Serrat Antolí, N. (2007). Materiales didácticos en entornos educativos no formales: Museos y patrimonio. *Aula de innovación educativa*, (165), 37-40.
- Serrat Antolí, N., & Rajadell i Puiggròs, N. (2007). El aprendizaje significativo traspasa los límites de la escuela: los museos como nuevos entornos para el aprendizaje significativo. *Indivisa: Boletín de estudios e investigación*, (8), 603-612.
- Serrat Antolí, N., Santacana, J., & Rajadell, N. (2004). *Acciones didácticas en el marco de los museos: estado de la cuestión y análisis* [Doktorre tesia]. Universitat de Barcelona, Barcelona.
- Shelton, A. A. (2015). Museum Practice and Mediation: An Afterword. In McCarthy, C. (Ed.), *Museum Practice* (613-634 orr.). Oxford: Wiley Blackwell.
- Siemens, G. (2005). Connectivism: A learning theory for the digital age. *International Journal of Instructional Technology and Distance Learning*, 2(1), 3-10.
- Simmons, J. E. (2010). History of Museums. In Bates, M.J. & Maack, M.N. (Eds.), *Encyclopedia of Library and Information Sciences* (2096–2106 orr.). New York: Taylor and Francis
- Simmons, J.E. (2015). Collection care and management. History, Theory and Practice. In McCarthy, C. (Ed.), *Museum Practice* (221-247 orr.). Oxford: Wiley Blackwell.

- Solano Ruiz, A. (1985). Política educativa de los museos. realidad y perspectiva. In Jornadas Nacionales D.E.A.C. Museos, *Actas de las IV jornadas de Departamentos de Educación y Acción Cultural de museos* [Madrid: 1985] (23-25 orr.). Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General de Bellas Artes y Archivos, Dirección de los Museos Estatales.
- Soto, S. (2008). El museo de San Telmo en Donostia-San Sebastián. *Museo: Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (13), 189-198.
- Soto Aranzadi, S. (2009). San Telmo, hacia un nuevo museo. *Museos.es*, (5), 198-207.
- Soto Carmona, A. (1998). El regimen de Franco. In Díaz Gijón, J., Fernández Navarrete, D., González González, M. J., Martínez Lillo, P. A., & Soto Carmona, A., *Historia de la España actual. 1936-1996. Autoritarismo y democracia* (3-31 orr.). Madrid: Marcial Pons.
- Soto Carmona, A. (1998). Estructura social. Relaciones laborales y huelgas. In Díaz Gijón, J., Fernández Navarrete, D., González González, M. J., Martínez Lillo, P. A., & Soto Carmona, A., *Historia de la España actual. 1936-1996. Autoritarismo y democracia* (192-222 orr.). Madrid: Marcial Pons.
- Stake, R. E. (2005). *Investigación con estudio de casos*. Madrid: Morata.
- Sterry, P. (1998). Extender los límites de la interpretación: entorno antiguo, visión novedosa. *Museum International*, (199), 19-23.
- Suberbiola, I., Gartzia, L., León, M., Aramberri, J., & Correa, J. M. (2012). Barco Museo Mater: Testigo y voz de la cultura marítima de Pasaialde. In Álvarez Areces, M. (coord.), *Patrimonio inmaterial e intangible de la industria: Artefactos, objetos, saberes y memoria de la industria* (491-496 orr.). Gijón: CICEES.
- Sung, H. Y., & Hwang, G. J. (2013). A collaborative game-based learning approach to improving students' learning performance in science courses. *Computers & Education*, (63), 43-51.
- Taller de Escuela de San Pedro Andatza (1980). San Telmo o el abandono hecho institución. *ERE*, (39), 52-53.
- Tapia G. (Dir.) (2007). *Las Misiones Pedagógicas: 1931-1936* [dokumentala]. España: Acacia Films.
- Tejera Pinilla, C. (2013). *La cibermuseografía didáctica como contexto educativo para la enseñanza y el aprendizaje del patrimonio: estudio de páginas web educativas de museos virtuales de arte* [Doktore tesia]. Universidad de Murcia, Murcia.

- Tenorio Vera, R. (1997). Museo Diocesano de San Sebastián. *Revista de Museología*, (11), 79-83.
- Tercero, S. (Dir.) (2010). *La escuela olvidada* [dokumentala]. Espainia: Time Zone. In <http://www.rtve.es/alicarta/videos/el-documental/escuela-olvidada-20110116-2140-169/989251/> (2016ko martxoaren 21an ikusia)
- Tiana Ferrer, A. (2013). Veinte años de políticas de evaluación general del sistema educativo en España. *Revista de Evaluación de Programas y Políticas Públicas*, (2), 1-21.
- Tolosa, I. (2004). Luberrri, harrizko biografiak irakasgai. *Aranzadiana*, (125), 240-242.
- Tonelli, M. (2010). Museo de San Telmo: Una esperada reforma, una maravillosa realidad. *Revistart: revista de las artes*, (154), 4-5.
- Torres Vega, S. (2016a). *El archivo de educación en museos: Tate y el Museo Pedagógico de Arte Infantil como casos de estudio* [Doktore tesia]. Universidad Complutense de Madrid, Madrid. In <https://es.scribd.com/document/329263257/The-Museum-Education-Archive-Tate-and-the-Pedagogical-Museum-for-Children-s-Art-as-case-studies-Sara-Torres-Vega>
- Torres Vega, S. (2016b). Museum education archive (meCHive), conectando las experiencias de los DEAC. In Museo Nacional del Prado (Ed.), *Actas 18 DEAC, Puentes. Jornadas de Museos, Noviembre 2014, Museo del Prado* (217-224 orr.). Madrid: Museo Nacional del Prado. In <https://content.cdnprado.net/doclinks/pdf/deac/actas-18-DEAC.pdf>
- Trilla, J. (1997). *Animación sociocultural: Teorías, programas y ámbitos*. Barcelona: Ariel.
- Trilla, J. (1998). La educación no formal. Definición, conceptos básicos y ámbitos de aplicación. In J. Sarramona (Ed.), *La educación no formal* (9-50 orr.). Barcelona: Ceac.
- Trilla Bernet, J., & Gros Salvat, B. (2003). *La educación fuera de la escuela: ámbitos no formales y educación social*. Barcelona: Ariel.
- Tusell García, G. (2003). La internacionalización del arte abstracto español: el intercambio de exposiciones con los Estados Unidos (1950-1964). *Espacio, tiempo y forma*, (16), 223-232.
- Tusell Gómez, J. (2009). El patrimonio artístico español en tiempos de crisis. In Argerich Fernández, I., & Ara Lázaro, J. (coords.), *Arte protegido: memoria de la Junta del Tesoro Artístico durante la Guerra Civil [exposición]* (17-26 orr.). Madrid: Secretaría General Técnica, Subdirección General de Publicaciones, Información y Documentación.

- Unsain Azpiroz, J. M. (1997). Recuperación patrimonial, investigación y difusión etnográfica en el Museo Naval de Donostia. *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, (15), 301-305.
- Unsain Azpiroz, J. M. (1998). El Untzi Museoa-Museo Naval y la protección del patrimonio flotante. *Itsas Memoria: Revista de estudios marítimos del País Vasco*, (2), 483-486.
- Unsain Azpiroz, J. M. (2002a). Gestión de la memoria marítima: la experiencia de Untzi Museoa-Museo Naval (San Sebastián). *RdM: Revista de Museología, Publicación científica al servicio de la comunidad museológica*, (23), 70-74.
- Unsain Azpiroz, J. M. (2002b). Untzi Museoa. Museo Naval: San Sebastián. *Album, Letras, Artes*, (71), 74-75.
- Unsain Azpiroz, J. M. (2009). La Casa-Torre del Consulado, edificio de servicios portuarios transformado en Museo Marítimo /Untzi Museoa-Museo Naval. *Itsas Memoria: Revista de estudios marítimos del País Vasco*, (6), 565-580.
- Urkidi Elorrieta, P. (1984). San Sebastián: un ejemplo de la relación entre la producción científica la realidad territorial y social. *Lurralde: investigación y espacio*, (7), 299-322
- Urkizu, U. (1997). Urretxuko Mineral eta Fosilen Museoa. *Elhuyar, zientzia eta teknologia*, (120), 42-44.
- Urteaga Artigas, M. M. (1990). Arqueología medieval en Guipúzcoa: Estado actual y perspectivas de futuro. *Munibe Antropologia - Arkeologia*, (42), 389-398.
- Urteaga Artigas, M. (1993). Ermita de San Martín de Iraurgi (Azkoitia). *Arkeoikuska: Investigación arqueológica*, (1993), 352-362.
- Urteaga Artigas, M. M. (1998). El museo de la Ermita de Santa Elena, Irún. *Boletín Arkeolan*, (4), 22-27.
- Urteaga Artigas, M. (1999). El Ondarelekua de San Martín de Iraurgi. *Boletín Arkeolan*, (6), 22-28.
- Urteaga Artigas, M. (2009). El Museo Romano Oiaso de Irún. Un ejemplo de iniciativa público-privada. In Mariné, M. (coord.), *V Encuentro Internacional Actualidad en museografía. Palencia, 1 – 3 de octubre de 2009* (183-205 orr.). Madrid: ICOM-España - Diputación Provincial de Palencia.
- Urteaga Artigas, M. M. (2012). El Museo Romano Oiaso de Irún. *Her&Mus: Heritage & Museography*, 4(2), 15-23.
- Urteaga, M., & Noain, M. J. (2009). El Museo Romano Oiaso, Irún. El descubrimiento de las instalaciones portuarias altoimperiales y el programa de investigación, promoción y difusión de los recursos arqueológicos de la ciudad. *Museo. Revista de la Asociación Profesional de Museólogos de España*, (14), 91-115.

- Valdés Sagüés, C. (1999). *La difusión cultural en el museo: servicios destinados al gran público*. Gijón: Trea.
- Valdés Sagüés, C. (2008). La difusión, una función del museo. *Museos.es*, (4), 64-75.
- Vallejo Pousada, R. (2003). Estado y economía en la España democrática, 1975-1999. *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, (9), 159-184
- Vallejo Pousada, R. (2015). ¿Bendición del cielo o plaga? El turismo en la España franquista, 1939-1975. *Cuadernos de historia contemporánea*, (37), 89-113.
- Vélez de Mendizabal Etxabe, Z. (2000). Leintz Gatzagako Ekomuseoa. *Euskonews & Media*, 93. In <http://www.euskonews.com/0093zkb/gaia9305eu.html> (2015ko irailaren 14an ikusia)
- Vélez, E. (1992). *Historia del museo de Bellas Artes de Bilbao, 1908-1986* [Dokore tesia]. Universidad Complutense de Madrid, Madrid. In <http://biblioteca.ucm.es/tesis/19911996/H/0/AH0011901.pdf>
- Vicent Otaño, N. (2013). *Evaluación de un programa de educación patrimonial basado en tecnología móvil* [Dokore tesia]. Universidad Autónoma de Madrid, Madrid. In https://repositorio.uam.es/bitstream/handle/10486/14321/66930_tesis_Vicent_Naiara.pdf?sequence=7
- Vicent Otaño, N., Asensio, M., & Ibáñez Etxeberria, A. (2011). Evaluación de las unidades educativas "Zarautz en tus manos" y "Expedición Menosca". Aprendizaje informal a través del patrimonio mediante el uso de tecnología móvil. Miralles, P., Molina, S., & Santiesteban, A. (coords.). *La evaluación en el proceso de enseñanza y aprendizaje de las ciencias sociales* (305-312 orr.). Murcia: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Vicent Otaño, N., Asensio, M., & Ibáñez Etxeberria, A. (2012). Aprendizaje informal, patrimonio y dispositivos móviles: evaluación de una experiencia en educación secundaria. *Didáctica de las ciencias experimentales y sociales*, (26), 3-18.
- Vicent Otaño, N., Asensio, M., & Ibáñez Etxeberria, A. (2013). *Evaluación de un programa de educación patrimonial basado en tecnología móvil*. *Virtual Archaeology Review*, 6(13), 20-27.
- Villaespesa, E. (2012). Museos y apps, creando experiencias en el móvil del visitante. *ICOM CE Digital*, (5), 18-23.
- Villaespesa, E. (2013). El museo en la web social y su impacto en los visitantes. *Revista de Museología*, (56), 57-61.

- Viñarás Abad, M., & Caerols Mateo, R. (2016). #5Museos: Un caso de éxito sobre la oportunidad de las redes sociales para generar engagement. *Revista Internacional de Relaciones Públicas*, 6(12), 169-190.
- Vives Almandoz, M. (2012). Museos de Gipuzkoa. Compartir para sumar. *Heritage & Museography*, 4(2), 94-102.
- Wagensberg, J. (1992). Prohibido no tocar: Los nuevos museos. In Gomarín Guirado, F. (coord.), *Museos para aprender* (99-107 orr.) Santander: Universidad de Cantabria.
- White, R. (2003). *That's Edutainment*. Chicago: White Hutchinson Leisure & Learning Group. In <https://www.whitehutchinson.com/leisure/articles/edutainment.shtml> (2016ko abenduaren 15an ikusia)
- Winnifred Godwin, M. (1953). Museum educational facilities. *Museum*, 6(4), 224-227.
- Yanes Cabrera, C. (2007). El patrimonio educativo intangible: un recurso emergente en la museología educativa. *Cadernos de História da Educação*, (6), 71-85.
- Zabala Ibarbia, X. (1997). La conservación de la naturaleza en la Comunidad Autónoma del País Vasco. *Revista Internacional de Estudios Vascos RIEV*, 42(2), 325-341.
- Zabala LLanos, M. (2007). Ferrerías-museo. Patrimonio y difusión de la siderurgia tradicional vasca. *Revista Internacional de Estudios Vascos RIEV*, 52(1), 287-302.
- Zabala, M. E., & Roura Galtés, I. (2006). Reflexiones teóricas sobre patrimonio, educación y museos. *Revista de Teoría y Didáctica de las Ciencias Sociales*, (11), 233-261.
- Zabaleta Imaz, I., Garmendia Larrañaga, J., & Murua Cartón, H. (2015). Movimiento popular y escuela en el franquismo: Las ikastolas en Gipuzkoa. *Historia de la educación: Revista interuniversitaria*, (34), 305-336.
- Zepp, E. (1949). The museum and the press. *Museum*, 2(2), 227-230.
- Ziarrusta Campo, J. J. (2001). Photomuseuma, aisiarako ekimen bat. *Adoz: revista de estudios de ocio*, (21), 12-14.
- Zuazo, J. A. (2002). Aspectos de la rehabilitación del complejo preindustrial de Agorregi. In Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública (Ed.), *Gestión del patrimonio industrial en la Europa del siglo XXI: octubre 2001* (301-306 orr.). Bilbao: Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública.
- Zubiaur Carreño, F. J. (2004). *Curso de museología*. Gijón: Trea.
- Zugaza, L. (1999). Photomuseum. Argazki Euskal Museoa. *Revista de Museología*, (16), 53-55.

- Zugaza Miranda, A. (2006). Argazki Euskal Museoa. Zarautz. *Revista Internacional de Estudios Vascos RIEV*, 51(1), 205-215.
- Zulaika, R. (1998). Nuevos criterios para la organización de un nuevo museo (centenario). El proceso de renovación del Museo San Telmo. In Consello Galego de Museos (Ed.), *Coloquios galegos de museos* (395-401 orr.). Vigo: Consello Galego de Museos.
- Zulaika, R. (2002). El museo Municipal de San Telmo. *Album, Letras, Artes*, (71), 56-61.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: BISITATURIKO ARTXIBOAK

MOTA	Udalerrria	Artxiboa
ADMINISTRAZIO PUBLIKOKO ARTXIBOAK	Azkoitia	Azkoitiko Udal Artxiboa
	Azpeitia	Azpeitiko Udal Artxiboa
	Beasain	Beasaingo Udal Artxiboa
	Donostia	Donostiako Udal Artxiboa
	Donostia	Gipuzkoako Foru Aldundiko Artxibo Administratiboa
	Eskoriatza	Eskoriatzako Udal Artxiboa
	Gasteiz	Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia (Eusko Jaurlaritza)
	Idiazabal	Idiazabalgo Udal Artxiboa
	Irun	Irungo Udal Artxiboa
	Larraul	Larraulgo Udal Artxiboa
	Ordizia	Ordiziako Udal Artxiboa
	Pasaia	Pasaiaiko Udal Artxiboa
	Segura	Segurako Udal Artxiboa
	Urretxu	Urretxuko Udal Artxiboa
Zarautz	Zarauzko Udal Artxiboa	
UDALETAKO KULTURA SAILAK	Azkoitia	Azkoitiako Udaleko Kultura Saila
	Zarautz	Zarauzko Udaleko Kultura Saila
MUSEOAK	Aia	Iturraran Parketxea
	Ataun	Lizarrusti-Barandiaran Parketxe Hedatua
	Azpeitia	Euskal Burdinbidearen Museoa
	Azpeitia	Ingurugiro Etxea
	Donostia	Aquarium SS
	Donostia	Chillida-Leku
	Donostia	Eureka Zientzia Museoa
	Donosti	Museum Cemento Rezola
	Eibar	Armagintza Museoa
	Elgoibar	Makina-erremintaren Museoa
	Eskoriatza	Ibarraundi Museoa
	Ezkio-Itsaso	Igartubeiti Baserri Museoa

	Getaria	Cristobal Balenciaga Museoa
	Irun	Oiasso Erromatar Museoa
	Legazpi	Lenbur Fundazioa
	Oiartzun	Arditurri Parketxea
	Ordizia	D'Elikatuz Elikadura eta Gastronomia Zentroa
	Ormaiztegi	Zumalakarregi Museoa
	Pasaia	Albaola Itsas Kultur Faktoria
	Pasaia	Mater Itsasontzi Museoa
	Segura	Ardixarra Etxea
	Tolosa	TOPIC
	Zarautz	Photomuseum Argazki & Zinema Museoa
	Zegama	Anduetza Parketxea
	Zerain	Zeraingo Herri Museoa
ENPRESAK	Donostia	KOMA zerbitzu kulturalak
	Tolosa	Artelatz ingurumen zerbitzuak
BESTEAK	Tolosa	Tolosaldea Tour. Tolosaldeako turismo bulegoa

II. ERANSKINA: KATALOGAZIO FITXAK

HEZKUNTZA EKIMENAK				
IZENA				
MUSEOA		HASIERA	AMAIERA	
JARDUERA	BAI/ EZ	MATERIALA	BAI / EZ	
Programa zabalago baten parte?	BAI / EZ	Programa mota	Proiektua/ Egitasmoa	
			Erakusketa	
			Ospakizuna/ ebentoa	

HEZKUNTZA JARDUERA			
TIPOLOGIA			
Bisita gidatua	Arrunta	Ibilaldi gidatua	Arrunta
	Berezia		Berezia
	Eraustaldiekin		Antzeztua
	Antzeztua		Irteera
Tailer eta jolasak	Tailerra	Hitzaldi eta jardunaldiak	Hitzaldia
	Jolasa		Jardunaldia
Ikastaroak		Ikuskizunak	Artistiko-literarioak
Irratsaioak			Birsortze historikoak
FUNTZIOA/ XEDEA			
Hezkuntza			
Difusioa			
Entretanimendua eta aisialdia			

HEZKUNTZA BALIABIDE MATERIALA	
TIPOLOGIA	
Gida/ dossiera	Ikus-entzunezkoa
Koadernoak/ fitxa	Esperimentaziokoa
Jokoa	Web materiala
Modulu digitala/ App	
FORMATUA	FUNTZIOA/ XEDEA
Fisikoa	Hezkuntza
Digitala	Difusioa
Biak	Entretenimendua eta aisialdia

PUBLIKOA			
BANAKAKOAK			
Publiko orokorra		Adituak	
Haur eta gazteak		Helduak	
65 urtetik gorakoak		Familiak	
Irakasleak		Belaunaldi ezberdinetakoak	
TALDEAN			
Hezkuntza arautua	HH	Beste taldeak	Euskaltegiak
	LH		Aisialdi taldeak
	Bigarren Hezkuntza		Jubilatuak / hirugarren adina
	Unibertsitatea		Dibertsitate funtzionalekoak
			Bazterketa sozialeko arriskuan daudenak

III. ERANSKINA: GIPIZKOAKO MUSEO EKIPAMENDUEN INAUGURAZIO ETA ITXIERA URTEAK (2000-2014)

ID	MUSEOA	INAUGURAZIOA	ITXIERA
1	San Telmo Museoa	1902	
2	Victor Hugo Etxea	1902	
3	Armagintza Museoa	1914	
4	Z Espacio Zuloaga	1921	
5	Aquarium Donostia-San Sebastián	1928	
6	Oquendo Etxea	1950	1986
7	Urgull Historiaren Etxea	1963	
8	Miniaturen museoa	1963	1974
9	IMK Pasaia Planetario	1968	
10	Julio Beobide tailer-etxea	1979*	
11	Ama Xantalen ermita	1981*	2008
12	Gorrotxategi Konfiteri Museoa	1982	
13	Ibarraundi Museoa	1983	
14	Jasokundeko eta Sagarrondoko Andre Maria eliza	1987*	**
15	Urrelur Mineral eta Fosil Museoa	1987	
16	Ingurugiro Etxea	1987	
17	Zumalakarregi Museoa	1989	
18	Iturraran Parketxea	1990	
19	Untzi Museoa	1991	
20	Donostiako Elizbarrutiko Museoa	1991	
21	MUFOMI. Mineral eta Fosilen Museoa	1992	
22	Burdinbidearen Euskal Museoa	1992	
23	PHOTOMUSEUM. Argazki eta Zinema Museoa	1993	
24	Zerain Paisaia Kulturala	1993	
25	Nuarbeko sokatiraren museoa	1995	**
26	Lizarrusti Parketxea	1996	
27	Munduko Tximeleten Erakusketa Iraunkorra	1996	
28	Laia. Euskal Herriko Artisau Produktuaren Museoa	1997	**
29	Mirandaola Parkea	1997	
30	Larraulgo Ekomuseoa	1998	
31	Makina Erremintaren Museoa	1998	
32	Igartza Monumentu Multzoa	1999	
33	San Martin Ondaregune	1999	**
34	Albaola Itsas Kultur Faktoria	2000	
35	Gatz Ekomuseoa	2000	

36	Chillida-Leku	2000	2010
37	Museum Cemento Rezola	2000	
38	Eureka! Zientzia Museoa	2001	
39	Txingudi Ekoetxea	2001	
40	Igartubeiti Baserri Museoa	2001	
41	Soinuenea	2002	
42	Zarauzko Arte eta Historia Museoa. Santa Maria La Real Monumentu Multzoa	2002	
43	Loiolako Santutegiko Museoa	2002*	
44	Luberri Geologia Interpretazio Gunea	2003	
45	Anduetza Parketxea	2003	
46	<i>Artzantzaren Ekomuseoa</i>	2003	
47	<i>Ogiaren Txokoa</i>	2003	
48	Bentalekua Museoa	2003	
49	<i>Langileen Ibilbidea</i>	2003	
50	Fanderia Errota	2003	**
51	Ardixarra Etxea. Erdi Aroko Interpretazio Zentroa	2004	
52	D'Elikatuz. Elikadura Zentroa eta Goierriko I.Z.	2005	
53	Algorri Zumaiako Geologia Interpretazio Zentroa	2005	
54	Idiazabal Gaztaren Interpretazio Zentroa	2005	
55	MATER Itsas Gela	2005	
56	Burdinaren Euskal Museoa	2005	
57	Oiasso Erromatar Museoa	2006	
58	Sagardoetxea	2006	
59	Arkaka. Uraren Interpretazio Zentroa	2007	2013*
60	Antonio Oteiza Museoa	2007	**
61	Nautilus Mutrikuko Geologia Interpretazio Zentroa	2007	
62	<i>Aikur Erleen Museoa</i>	2007	
63	Arditurri Parketxea	2008	
64	Leitzarlan. Uraren Interpretazio Zentroa	2008	2012*
65	Ekainberri	2008	
66	Museoreal100	2009	
67	Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa	2009	
68	TOPIC	2009	
69	Menchu Gal Museoa	2010	
70	Elgetako Memoria Historikoaren Interpretazio Zentroa	2010	
71	Barandiaran Museoa	2010	
72	Chillida Lantoki	2010	
73	Arrikruz Oinatiko Kobak	2010	
74	Cristobal Balenciaga Museoa	2011	

75	Arantzazuko Parketxea	2012	
76	Ulia Mendiaren Interpretazio Zentroa	2012	
77	Lili Jauregia	2013	
78	Antioko Baselizaren Interpretazio Zentroa	2013	


*Data orientatiboa

**Itxiera data zehatzaren informaziorik ez

IV. ERANSKINA: GIPIZKOAKO MUSEOEN HEZKUNTZA EKIMENAK ETA PUBLIKO MOTA FASEKA

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza jarduerak. Motak eta aldikotasuna (1902-1980)																
Museoa	Bisita gidatua				Ibilaldi gidatua				Tailer eta jolasak		Ikastaroa	Hitzaldiak		Ikuskizunak		Irratsaioa
	Arrunta	Berezia	Erakustaldiekin	Antzeztua	Arrunta	Berezia	Antzeztua	Irteera	Tailerra	Jolasa		Hitzaldia	Jardunaldia, topaketa	Artistiko-historikoa	Birsorte historikoa	
1	San Telmo															
2	Victor Hugo															
3	Armagintza															
4	Aquarium															
5	Urgull															

Taulak interpretatzeko legenda:

 Egonkorra

 Aldizkakoa

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza baliabide material motak (1902-1980)		Gidak	Fitxak/ koadernoak	Jokoak	Ikus-entzunezkoak	Esperimenta- ziorakoak	Web baliabideak	Modulu digitalak/APP
Museoak								
1	San Telmo							
2	Victor Hugo							
3	Armagintza							
4	Aquarium							
5	Urgull							

PUBLIKO MOTA (1902-1980)																		
Museoak		BANAKA DATOZENAK						TALDEAN DATOZENAK										
		Publiko orokorra	Haur eta gazteak	Helduak	65 urtetik gorakoak	Familiak	Belaualdi desberdinekoak	Irakasleak	Zehaztu gabe	Hezkuntza arautua				Beste taldeak				
										Zehaztu gabe	HH	LH	Bigarren Hezkuntza	Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa	Euskaltegiak	Aisialdi taldeak	Jubilatuak/ 3. adina	Dibertsitate funtzionalekoak
1	San Telmo																	
2	Victor Hugo																	
3	Armagintza																	
4	Aquarium																	
5	Urgull																	

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza jarduerak. Motak eta aldikotasuna (1980-1990)

Museoak		Bisita gidatua				Ibilaldi gidatua				Tailer eta jolasak		Ikastaroa	Hitzaldiak		Ikuskizunak		Irratsaioa	
		Arrunta	Berezia	Erakustaldiekin	Antzertua	Arrunta	Berezia	Antzertua	Irteera	Tailerra	Jolasa		Hitzaldia	Jardunaldia, topaketa	Artistiko- historikoa	Birsorte historikoa		
1	San Telmo																	
2	Victor Hugo																	
3	Armagintza																	
4	Aquarium																	
5	Urgull																	
6	Ama Xantalen																	
7	Gorrotxategi																	
8	Ibarraundi																	
9	Urrelur																	
10	Ingurugiro Etxea																	
11	Zumalakarregi																	

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza baliabide material motak (1980-1990)								
Museoak		Gidak	Fitxak/ koadermoak	Jokoak	Ikus- entzunezkoak	Esperimenta- ziorakoak	Web baliabideak	Modulu digitalak/APP
1	San Telmo							
2	Victor Hugo							
3	Armagintza							
4	Aquarium							
5	Urgull							
6	Ama Xantalen							
7	Gorrotxategi							
8	Ibarraundi							
9	Urrelur							
10	Ingurugiro Etxea							
11	Zumalakarregi							

PUBLIKO MOTA (1980-1990)																			
Museoak		BANAKA DATOZENAK						TALDEAN DATOZENAK											
		Publiko orokorra	Haur eta gazteak	Helduak	65 urtetik gorakoak	Familiak	Belauinaldi desberdinekoak	Irakasleak	Zehaztu gabe	Hezkuntza arautua					Beste taldeak				
										Zehaztu gabe	HH	LH	Bigarren Hezkuntza	Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa	Euskaltegiak	Aisialdi taldeak	Jubilatuak/ 3. adina	Dibertsitate funtzionalekoak	Bazterketa sozialeko arriskuan
1	San Telmo																		
2	Victor Hugo																		
3	Armagintza																		
4	Aquarium																		
5	Urgull																		
6	Ama Xantalen																		
7	Gorrotxategi																		
8	Ibarraundi																		
9	Urrelur																		
10	Ingurugiro Etxea																		
11	Zumalakarregi																		

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza jarduerak. Motak eta aldikotasuna (1990-2000)																	
Museoak		Bisita gidatua				Ibilaldi gidatua				Tailer eta jolasak		Ikastaroa	Hitzaldiak		Ikuskizunak		Irratsaioa
		Arrunta	Berezia	Erakustaldiekin	Antzeztua	Arrunta	Berezia	Antzeztua	Ireera	Tailerra	Jolasa		Hitzaldia	Jardunaldia, topaketa	Artisitiko-historikoa	Birsotze historikoa	
1	San Telmo																
2	Victor Hugo																
3	Armagintza																
4	Aquarium																
5	Urgull																
6	Ama Xantalen																
7	Gorrotxategi																
8	Ibarraundi																
9	Urrelur																
10	Ingurugiro Etxea																
11	Zumalakarregi																
12	Iturraran																
13	Untzi Museoa																
14	Donostiako																

	Elizbarrutikoa																
15	Burdinbidearen Euskal Museoa																
16	PHOTOMUSEUM																
17	Zerain Paisaia Kulturala																
18	Lizarrusti																
19	Munduko Tximeletak																
20	Lenbur																
21	Larraulgo Ekomuseoa																
22	Makina Erreminta																
23	San Martin Ondaregune																
24	Igartza																

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza baliabide material motak (1990-2000)								
Museoak		Gidak	Fitxak/ koadernoak	Jokoak	Ikus-entzunezkoak	Esperimenta- ziorakoak	Web baliabideak	Modulu digitalak/APP
1	San Telmo							
2	Victor Hugo							
3	Armagintza							
4	Aquarium							
5	Urgull							
6	Ama Xantalen							
7	Gorrotxategi							
8	Ibarraundi							
9	Urrelur							
10	Ingurugiro Etxea							
11	Zumalakarregi							
12	Iturraran							
13	Untzi Museoa							
14	Donostiako Elizbarrutikoa							
15	Burdinbidearen Euskal Museoa							

16	PHOTO-MUSEUM							
17	Zerain Paisaia Kulturala							
18	Lizarrusti							
19	Munduko Tximeletak							
20	Lenbur							
21	Larraulgo Ekomuseoa							
22	Makina Erreminta							
23	San Martin Ondaregune							
24	Igartza							

PUBLIKO MOTA (1990-2000)																		
Museoak		BANAKA DATOZENAK						TALDEAN DATOZENAK										
		Publiko orokorra	Haur eta gazteak	Helduak	65 urtetik gorakoak	Familiak	Belaualdi desberdinekoak	Irakasleak	Zehaztu gabe	Hezkuntza arautua				Beste taldeak				
										Zehaztu gabe	HH	LH	Bigarren Hezkuntza	Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa	Euskaltegiak	Aisialdi taldeak	Jubilatuak/ 3. adina	Dibertsitate funtzionalekoak
1	San Telmo																	
2	Victor Hugo																	
3	Armagintza																	
4	Aquarium																	
5	Urgull																	
6	Ama Xantalen																	
7	Gorrotxategi																	
8	Ibarraundi																	
9	Urrelur																	
10	Ingurugiro Etxea																	
11	Zumalakarregi																	
12	Iturraran																	
13	Untzi Museoa																	
14	Donostiako Elizbarrutikoa																	
15	Burdinbidearen Euskal Museoa																	

16	PHOTO-MUSEUM																		
17	Zerain Paisaia Kulturala																		
18	Lizarrusti																		
19	Munduko Tximeletak																		
20	Lenbur																		
21	Larraulgo Ekomuseoa																		
22	Makina Erreminta																		
23	San Martin Ondaregune																		
24	Igartza																		

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza jarduerak. Motak eta aldikotasuna (2000-2014)																	
Museoa		Bisita gidatua				Ibilaldi gidatua				Tailer eta jolasak		Ikastaroa	Hitzaldiak		Ikuskizunak		Irratsaioa
		Arrunta	Berezia	Erakustaldiekin	Antzeztua	Arrunta	Berezia	Antzeztua	Irteera	Tallerra	Jolasa		Hitzaldia	Jardunaldia, topaketa	Artisitiko- historikoa	Birsorte historikoa	
1	San Telmo																
2	Victor Hugo																
3	Armagintza																
4	Aquarium																
5	Urgull																
6	Ama Xantalen																
7	Gorrotxategi																
8	Ibarraundi																
9	Urrelur																
10	Ingurugiro Etxea																
11	Zumalakarregi																
12	Iturraran																
13	Untzi Museoa																
14	Donostiako Elizbarrutikoa																
15	Burdinbidearen Euskal Museoa																
16	PHOTOMUSEUM																

41	MATER	■				■	■			■	■		■		■		
42	Oiasso	■	■						■	■	■	■	■	■	■		
43	Sagardoetxea	■	■	■					■	■	■	■	■	■			
44	Nautilus	■				■	■			■							
45	Arditurri	■	■	■		■	■			■	■						
46	Leitzaran	■				■	■										
47	Ekainberri	■		■					■	■		■				■	
48	TOPIC	■	■						■		■				■		
49	Elgeta	■				■										■	
50	Barandiaran	■		■		■	■	■		■	■				■		
51	Arrikruz	■					■			■			■		■		
52	Balenciaga	■	■							■	■	■		■	■		
53	Arantzazu	■	■			■	■			■	■	■			■		
54	Lili Jauregia				■												

HEZKUNTZA EKIMENAK: Hezkuntza baliabide material motak (2000-2014)								
Museoak		Gidak	Fitxak/ koadernoak	Jokoak	Ikus-entzunezkoak	Esperimentaziorakoak	Web baliabideak	Modulu digitalak/APP
1	San Telmo							
2	Victor Hugo							
3	Armagintza							
4	Aquarium							
5	Urgull							
6	Ama Xantalen							
7	Gorrotxategi							
8	Ibarraundi							
9	Urrelur							
10	Ingurugiro Etxea							
11	Zumalakarregi							
12	Iturraran							
13	Untzi Museoa							
14	Donostiako Elizbarrutikoa							
15	Burdinbidearen Euskal Museoa							

16	PHOTO-MUSEUM							
17	Zerain Paisaia Kulturala							
18	Lizarrusti							
19	Munduko Tximeletak							
20	Lenbur							
21	Larraulgo Ekomuseoa							
22	Makina Erreminta							
23	San Martin Ondaregune							
24	Igartza							
25	Albaola							
26	Gatz Ekomuseoa							
27	Chillida-Leku							
28	Rezola							
29	Eureka!							
30	Txingudi							
31	Igartubeiti							
32	Soinuenea							
33	ZAHM							
34	Luberri							
35	Anduetza							
36	Bentalekua							
37	Ardixarra							
38	D'Elikatuz							
39	Algorri							

40	Idiazabal Gaztaren I.Z.							
41	MATER							
42	Oiasso							
43	Sagardoetxea							
44	Nautilus							
45	Arditurri							
46	Leitzaran							
47	Ekainberri							
48	TOPIC							
49	Elgeta							
50	Barandiaran							
51	Arrikruz							
52	Balenciaga							
53	Arantzazu							
54	Lili Jauregia							

PUBLIKO MOTA (2000-2014)

Museoak		BANAKA DATOZENAK						TALDEAN DATOZENAK										
		Publiko orokorra	Haur eta gazteak	Helduak	65 urterik gorakoak	Familiak	Belunaldi desberdinekoak	Irakasleak	Zehaztu gabe	Hezkuntza arautua				Beste taldeak				
										Zehaztu gabe	HH	LH	Bigarren Hezkuntza	Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa	Euskaltegiak	Aisialdi taldeak	Jubilatuen/ 3. adina	Dibertsitate funtzionalekoak
1	San Telmo																	
2	Victor Hugo																	
3	Armagintza																	
4	Aquarium																	
5	Urgull																	
6	Ama Xantalen																	
7	Gorrotxategi																	
8	Ibarraundi																	
9	Urrelur																	
10	Ingurugiro Etxea																	
11	Zumalakarregi																	
12	Iturraran																	
13	Untzi Museoa																	
14	Donostiako Elizbarrutikoa																	

15	Burdinbidearen Euskal Museoa																		
16	PHOTO-MUSEUM																		
17	Zerain Paisaia Kulturala																		
18	Lizarrusti																		
19	Munduko Tximeletak																		
20	Lenbur																		
21	Larraulgo Ekomuseoa																		
22	Makina Erreminta																		
23	San Martin Ondaregune																		
24	Igartza																		
25	Albaola																		
26	Gatz Ekomuseoa																		
27	Chillida-Leku																		
28	Rezola																		
29	Eureka!																		
30	Txingudi																		
31	Igartubeiti																		
32	Soinuenea																		
33	ZAHM																		
34	Luberri																		

35	Anduetza																		
36	Bentalekua																		
37	Ardixarra																		
38	D'Elikatuz																		
39	Algorri																		
40	Idiazabal Gaztaren I.Z.																		
41	MATER																		
42	Oiasso																		
43	Sagardoetxea																		
44	Nautilus																		
45	Arditurri																		
46	Leitzaran																		
47	Ekainberri																		
48	TOPIC																		
49	Elgeta																		
50	Barandiaran																		
51	Arrikruz																		
52	Balenciaga																		
53	Arantzazu																		
54	Lili Jauregia																		